


ATV
2828



ATV

1818

M-10091
A-4452

A.T.V.
J.P.P.

MARIAREN GLORIAS.

SAN ALFONSO LIGORIO

EGUIÑ,



**ETA JESUSEN COMPAÑIACO AITA RAMON
GARCIAC GAZTELANIARA ITZULI ZUANETIC**

D. Gregorio Arriec

ESQUERAZ IPIÑIA.

LENENGO PARTEA.

BEAR DIRAN BAIMENAQUIN.

AZPEITIAN:

**PABLO MARTINEZEN MOLDIZTEGUIAN
1881 GARREN URTEAN.**



Es propiedad.

Ascension Echeveste

LICENCIA DEL EXMO. SR. OBISPO DE VITORIA.

Examinado, de nuestra orden el libro manuscrito que lleva por titulo *•Mariaren gloriac, san Alfonso Ligorioc equin, eta Jesusen Compañiaco Aita Ramon Garciac gaztelaniara itzuli zuanetic D Gregorio Arruec euskeraz ipiñia;* y visto que segun la censura no contiene cosa alguna contraria á la sana doctrina y buenas costumbres, y que su lectura será muy eficaz para promover la devocion de los fieles á la Sma. Virgen, concedemos la licencia que V. ha solicitado para la impresion y publicacion del libro referido,

Vitoria 15 de Setiembre de 1879.

El Obispo.

R. P. Venancio Legarra,

Loyola.

La Cruz del Sur, the Province of...

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

1771



Liburu onen Eguille santuac iracurleari.

Aita Santu Urbano VIII. en gogoangarriaren aguin-
duac gordeaz, diot, eeen liburu onetan ezartzen di-
ran mirari, milagro, ceruco arguitasun, gracia eta
guertacari guelai eta bēretaco bacoitzari, nolata
oraindic canonizatu edo beatificatugabeco, Jaungoi-
coaren cembait servitzariri ematen diztegun Santu-
aren edo Doatsuaren icēnai, bacarric fede humano,
edo guizōnen esanac mercei duan sinistea ematea
escalzen dedala, bereciac Erromaco Eliza Santa Ca-
tolicac eta Aita Santuac eguiatzat omanac dauzcaten
guertacari ayec, iduquiaz nere burua Eliz onen se-
me leyal obeditzalletzat, eta orregatic beraren iritzi,
epai eta nayera nago, liburu onetan escribitu dedan
guciarequin.

MARIAREN GLORIAS.

LENENGO PARTEA.

GURE AMA MAITEAC BERE DEVOTOEN ARTEAN ZABALTZEN
DITUAN DOAY ETA MESEDE UGARI, SALVEAN AGUERT-
ZEN DIRANEN GAÑEAN.

I.º BURUA.

Agur Erreguiña, misericordiazco Ama.

I.º §.º

**Virgiñagan iduqui bear degun uste eta confian-
zaren gañean, Erreguiñ erruquitsua dalaco.**

Arrazoy la bide andiaz honratzen du Eliza san-
tae Maria Virgiña Erreguiñaren icen gloriazcoaz be-
rari otseguitera cristau fededun guciac beti deituaz,
erregue gucien Erreguearen Ama izateraño goratua
izan zalaco. Baldin Semea Erregue bada, dio san
Atanasioc, bidezco zayo Amari ere berari Erregui-
ñaren icena ematea (1). Seme Jaincoaren Ama iza-

(1) Serm de Deip.

teco bere baimena eman zuan une beretic, dio gañera Sena-co san Bernardinoc, merecitu zuan ceru lurretaco Erreguiñ izatera goratzea (1). Baldin Mariaren aragua Jesusen aragua bera bazan, nola izango ezlu parte Amac, dio Arnaldo abadeac, Semearen erreguetasuncan? Ala baña bien arteco erreguetasuna ez da nola nai biena; baicic biena bat bera (2). Eta abade Rupertoc dio: Baldin Jesus Coru-lurretaco Erregue hada, Maria ere oro bat da (3). Eta san Bernardinoc: Cembat ere diran Jaincoa servitzen duten creaturac, beste aimbettec servitu bear dutela Maria ere; bada aingueru, guizon eta gauza guciac Jaincoaren agindupean egonic, oro bat daude Mariaren agindupean ere (4). Emendic abade Guerricoc Erreguiñ andi oni dirautsala, bere biotzeco samurtasun guciac esaten dio: Jarray zazu, Ama maitea, oraindano becela cere Seme guciz santuaren ondasun guciac gogo dezuna eguiñaz, cerep zu izanic ceru-lurretaco Erreguearen Ama eta Esposa, zuri Erreguiñari becela, dagoquizun creatura gucién gañeco escua.

Bada Maria Erreguiña da, Baña gure consueloraco iñoiz ere ez aztu, peccari errucarrioy laguntzeco beti prest dagoan Erreguiñ biotz beraa dala. Onegatic nay du Eliz Ama santac que urricaltasunezco Amaren icenaz deituaz, berari agur ónac eguitea.

Erreguiñaren icena bera dago urricaltasun eta biotzeco samurtasuna esaten, bada Senecac eta Alberto

(1) Tom. 2 § 51. (2) De Laud. Virg. (5) Ibid. (4) Tom. 2. cap. 61.

Magnoc beguiratu zuten becela, erregueen andit-
suna batez ere dago dichagabeay laguntzean, eta oec
consolatzean; eta onegatic añ desberdiñac dira tiranoa
eta erreguea; bada tiranoac here on eta provechua
billatzen du, baña erregueac here aguindepecoen
onari beguiratu bear dio, eta orregatic erregueay,
consagratzen dituztenean ganzutzen edo igorzitzen
diezate burua olioaz, misericordi eta erruquiaren
siñalez, beray aditzera emateco béren biotzean gor-
de bear duten gauzaric lenen ta bearrena bigunta-
sun edo on eguiteco gogoa izan bear dutela, onec
ezpatic ere galeraci bear mereci duten cigorrada bi-
dezcoa gaitzquilleai ematea.

Baña Maria ezta peccatariaac castigatzeco justiciaceo
Erreguina, baicie urricaltasunezcoa, beccatariaic erru-
quiz beguiratzeco beti prest dagoana, orregatic nay
du Eliza santac, glori añ andico icen onezaz guc be-
rari deitzea. Cogora ecarriric Paris-co Canciller Juan
Gersonec erregue David-en itz ayec: »Bi gauza adi-
tu nituan, eta ciran, Jaungoicoagan daudela nai gu-
cia eguiteco escu edo al izatea, eta misericordia (1),
dio ecen, egonic Jaincoaren gobernu justician eta
urricaltasunean, gobernu au erdibitu, eta gorde zu-
ala beretzat justicia, eta utzi ciola misericordia bere
Amari, guizonai eguiten zaizten on eta mesede gu-
ciac onen escu garbietatic igaro, eta berac nai bece-
la zabal ditzan (2). Santo Tomas ere iritzi onetacoa
da (3).

(1) Psalm. 61. (2) Trat. 2. 4. (3) In præf. ad epist. can.

Aita eternoac goratu zuan Jesucristo justiciazco erreguetasunarequiñ, berá gucien Juez eguiñaz, David erregue santuac cantatu zuan becela (1): «*Eman zayozcatzu, ó Jaungoicoa, cere leguéac erregueri, juzgatzeco; eman zayozu cere justicia Erreguearen Semeari*. Itz oen gañean Maisu jaquintsu batec dio: jauna, zure Seme Erregueari eman eñon justicia, eta Erreguearen Amari cere misericordia; eta itz oec cer esan nay duten, viciro ederqui eracusten du san Buenaventurac, esanaz: *Eman zayozu, jauna, justicia eguiteco dezun escua Erregueari, eta zure misericordia Erreguearen Amari; eta au bera dio Praga-co Arzobispo Ernestoc ere, onen gañean, Arrazoy onegatic Profeta erregueac aldeaurrez esan zuan: Jaincoac berac consagratuco zuala Maria, onela esateagatic, misericordiazco Erreguiña becela, atsequiñ-contentuzco olioaz gantzutu edo igortziaz: unxit te Deus oleo lætitiæ* (2), gu Adanen ume doacabeoc Erreguiña guciz santa gozotasun, biguntasun eta urricaltasunez bete au ceruan daucagula beguiratzean alaitu eta poztu guindecen, san Buenaventurac dion becela (3).

¡Ceñ egoqui beguietaraten zagun onetaraco Mariaren irudia dan Ester erreguiñaren guertaera! Escritura sagraduan Ester erreguiñaren liburuan iracurten degu (4), eeen Asuero erreguearen demboran irten zala erregue onen erreinuetan vici ciran judu catibu guciai vicia quendu cequiela aguintzen zuan epay edo

(1) Psalm. 44 (2) Psalm 44. (3) In Spec. c. 7. (4) Esth. 4.

aguindu bat. Bereala joan zan Mardoqueo bere illoba Ester-gana, viciro erregutuaz, jarri cedilla erreguerequico bitarteco, aguindu hura galeraci cezan. Ester uzeur cegoan Erreguearen aserrea sutuagotuco zuan beldurrez; baña Mardoqueoc esan cion: etzuala uste bear bacarric bere burua sentenci artatic libratzea, Jaincoac judu gucien oneraco tronu artara igo zuan ezquero (1). Onela esan cion Mardoqueoc Ester erreguiñari, eta onela esan guñiozaque gue ere gure Erreguiña guciz santari, baldin noizbait iriehi nay ezpaligu gure pecatuacgatic ondo irabaciac ditugun pénen barcacioa: Andrea, ez uste izan bacarric zure gloriaraco goratu zaituala Jaincoac muaduco Erreguiñ izatera, ezpada orren goyan jarrita obeto ampara gaitzatzun, beguiratu ta lagun deguiguzun.

Asuero erregueac Ester bere aurean icusi zuanean bereala, gozotasun guciac galdetu cion, ea cer nay zuan, eta Erreguiñac erantzun cion: »Nere erregue ta Jauna, baldin zure beguietan ecer onic badel, indaizquidatzu nere erritarrac: au da escatzen dedana.» Asuero escari ura ontzat artu zuan, emandaco sentencia urratu eta galeraci cedilla bertatic aguinduaz. Ondo bada; baldin erregue onec bere emazteari, maite zualaco, eguin bacion escatzen cion mesedea, nola enzungo ez diozea Jaincoac neurri ta mugabe maite duan Mariari bere bitartecotasunera bideguiten duten pecatarien alde once eguiten dizcan escari ta erreguac, esaten dionean: Nere Jaun eta Jaungoicoa,

(1) Esth 4 15.

¿baldin zure beguien atseguingarri izan banitzan (eta ondo daqui ala izan zala, ondo daqui berá dala guizonác galdu zuan gracia arquite zuan zorioneco bedecatu bacarra; ondo daqui bera dala Jaincoaren maittea, eta aingueru ta santu guciac baño paregabe maitteago duana); baldin nay badidazu, Jauna, indaizquidatzu nic nere erregúquin escatzen dizquitzudan peccatari oec? ¿Baliteque itz añ gozatsu oec Jaincoác ez enzutea? ¿Nore ezdaqui bere Amaren erreguac daucaten indar vici-eraguillea? *Lex clementiæ in lingua ejus* (1). Cernay bere escari Jaincoac eman duan legue bat becela da, bere bitartecotasunez escatzen diozcan peccatari guci ayey erruquiz beguiratu eta barcatzeco. San Bernardoc galdetzen du, ea cergatic Elizác deitzen dion misericordiazco Ama, eta erantzuten du: Jaquin dezagun, bera dala nay duanari, nay duanean eta nay duan eran erruquizeo ondasun neurrigabecac idiquitzen diozcana, alatan non, eztan galdu litequean peccataririe, ceñ ere andia dan, baldin Mariac bere mantupean artzen badu (2).

Baña gueron burpac añ peccatari icusita, ¿gure alde erregutu naico ez duan beldur izan guindezque? ¿Edota, bere santutasun eta anditasuna alaingoac diralaco, onec atzeratu bear gaitu bere oñetan auzpeztu eta berevalimentu indartsu eta onguillea escatsetic? Inñola ere, dio san Gregorioc, bada cembat santago dan, eta goyagoan dagoan, aimbat gozo eta urricaltsuagoa da bere babesera bideguiten duten

(1) Cap. 4. (2) In Salv. Rag.

pecatari damutuaquin (1). Lurreco erregueac alde gucietatic daucaten anditasun arc beldurra ematen die beren aguindupecoay; eta asco ez dira atrevitzen erregue oen aurrean egotera. ¿Baña cer beldur, dio san Bernardoc, iduqui lezaque inore ecer ere icaragarri ta gogorric eztuan, eta dan gucia ez-titasun eta lanotasuna dan Erreguiña biotz-bera onen aurrean jartzeco? Gucoioy escaintzen eta ematen diz-quiugu esnea eta artillea (2); urricaltasuneczco esnea, uste eta confianzara gu animatzeco; eta artillezco estalgarria, Jaincoaren aserrezco sugar vicietatic gordetzeco.

Suetonioe contatzen du, ecen Tito ceritzan Emperadoreac eciñ asmatu oy zuala escatzen cioten ecer ore ucatzen, baicic eta oraindic gueyago aguintzen zuala, esanaz, etzala ondo, principeac inor ore descontentu bialtzea. Orregatic ere beti eguia esaten etzuan, eta aguindua beti betetzen etzuan. Baña guezurric ecin lezaquean gure Erreguiña guciz altsuac, ondasun neurrigaboac dauzca bere escuetan, guri emateco, eta biotz añ onguillea du, non, inor ore bere aurretic descontentu joatea eciñ eramanduan. Eta izatez, ¿nola bota al cintzaque, Señora, ceregandic, diotsa san Bernardoc, miserableac, zu misericordiazep Erreguiña izan ta? ¿Ceñ dira misericordiaren mendecoac ezpada bearrean dauden doacabéac? ¿Bada izanic zu Erreguiña, eta ni zure mendecoén dichagabeena, arguiro dago, beste gu-

(1) Lib. 1. cap. 47. (2) Super Sig. magn.

ciaz baño contu gueyago bear dezula nizaz (1).

Izan zaile, bada, ercuquitsu ta bigun gurequin, ó misericordiazco Erreguiña, salva gaitean. Ez arren esan «ecin del» gure aibeste pecatu icusita, ceren guci oriey eraguiña dan zure escua eta zure biotzeco urricaltasuna. Zure escu eta alizateari ecin ecere galeraci lizayoque, ceren bere Ama becela honratzen zaituan Eguilleac zure gloria bere berea becela estimatzen duan, izanic gauza ciertoa, ecen neurri ta mugabagaea bada ere cere Semeaganaco daucazun zor edo erantzunquizuna, añ gora jaso cindualaco, andia dala berac zaganaco daucana ere, zugandic bere guizatasuna artu zualaco; eta orregatic orañ bere gloriaren gozatzen zaudenez gueroz, besteri ez becelaco honra batez ematen dizu escatzen diozun gucia (2).

¡Cembaterañoocoac izan bear eztu Erreguiña guciz gozatsu oneganaco gure uste eta confianzac, berac Jaincoarequico dezaqueana, eta bere misericordien ugaritasuna jaquiñic! Lurrean ez da bere mesederen batzuec artzen ezdituan personaric. Ala aguerta cion Virgiña guciz santac berac santa Brigidari, esanaz: *Ni naiz ceruco Erreguiña, misericordiazco Ama, justuen atseguin contentua eta pecatarientzat ceruco alca; ezda ere vici lurrean nere ontasun eta urricaltasunean parte izaten ez tuan pecatari añ galduric; alabaña guchien iristen dutenac ere, iristen dute*

(1) In Salv. Reg. (2) Greg. Nicom. Or. de Exitu B. V.

*nere bitartez tentacioac alañ ez erasotzea, no-
la ta nere laguntzegabe erasoco liezaqueen. Ez
da icusten inor ere, espada madaricatua da-
goana, (au da condenatuen azqueneco madarica-
cio ceñ urra dilequeauaz) Jaincoac bere escutie
añ utziric, non eta ni deitzen banau, ezuan
arquitzen beti bere alderu macurtua dagoan
nere urricaltasuna. Guciac deitzen naute mi-
sericordiazco Ama, eta equiaz Jaincoac gui-
zonaquin equiten duan misericordiac equiten
nau oequico añ urricaltu. Beragatic, nigana
bideguin lezaqueala equiten ezuanã, izango da
mundu onetan zorrigaitzoco, eta bestean betico-
tasun guciraco. (1).*

Bideguin zagan, bada, goacen gucioc Erreguiña
guciz gozo onen onetara baldin seguru salatu nay
badegu, eta baldin gure aibeste pecatu eta añ
andiac atzeratzen bagaituzte, gogora zagan, bera-
gana bideguiten duten peccatarien galduenac ere
bere escu indartsuaz zalvatzeco izan zala esleitua
misericordiazco Ama. Peccatari oec izan bear dira
ceruan bere coroa, bere Esposo jaincozcoac Cante-
taco liburuan agnindu cion becela: *Atoz Libano-
tic, ene Esposa, atoz Libano-tic, atoz, eta
izango cera..... leoyen leiceaz, leoy nabarren
mendiaz corotua* (2). ¿Eta oec ceñ dira, espada
peccatariac, ceñtzen animac peccatua dala bido
abere mostru izugarrien leice edo cueba equiten

(1) Revl. lib. 1. cap. 6. (2) Cant. 4. 8.

diran? Bada zure bitartez salbatutaco peccari oec, abade Rupertoc azaltzen duan becela, ó ceruco Erreguina, servitu bear dizute ceruan gloriaczco apañgarritzat; deren beren salvacioa izango dan zure coroa, zuri dagoquizon coroa, misericordiazco Erreguinari dagoquion coroa (1). Emen berariaz becela dator ondorengo

EXEMPLOA.

San Agustingo Sor Catalinaren vicitzan iracurten da, ecen bera vici zan errian vici zala ere Maria ceritzan emacume, bere gatzetasunean gaitzera-co bide andiac emanic, zartzaroan ohea etzan bat. Onegatic erritic atera edo bota, eta bildu zan leice edo cueba-zulo batera, eta guerocean erdi-usteldu, eta sacramenturie eta inoren laguntzaric gabe an ill, eta bertan abere baten guisan zulo batean sartu zuten. Sor Catalinari, erri artan hilltzen ciranen anima guciacgatic Jaincoari viciro erregutu oy bacion ere, atso onen heriotza jaquific, onen animagatic erregutzea gogoac eman ere etzion, guciac condenatutzat ceducatelaco. Lau urteren bu-ruan purgatorioco anima bat aguertu eta esan cion: Catalina ¿ni izango naiz suerte añ gaiztocoa? Emen hilltzen diran guciacgatic erregutzen diozu Jaincoari, eta ¿bacarric nere animaz erruquitzen etzera?—Ceñ

(1) Lib. 5 in Cant.

cera? galdetu cion Jaincoaren servitzariac—Naiz María, cueva-zuloan hill zan hura—¿Nola? zu salvacioraco bidean?—Bay, eranzun cion animac ceruco Erreguiñaren urricaltasunari esquerrac, alaše nago—Adi zazu nola guertatu zan. Herioa beguien aurean icusi nuanean, iñoren laguntzegabe, eta pecatuz betea negoala beguiratuta, itzuli nituan beguiac Jaincoaren Amagana, esanaz: Ama erruquitsua, azqueneco estura larri onetan ez daucat norc lagunduric; baña zuc artzen dituzu ceregana desamparatu guciac, zu cera nere uste eta esperanza bacarra; bacarric zuc lagun zadazuquet urricalmazazu. Etzan gor eta sor eguiñ Virgiña santa: irichi cidan Jaincoagandic contricio eguiazco acto bat eguiteco gracia, orduan hill nitzan eta ala salvatu nitzan. Orañ purgatorioan ere irichi dit nere pénac laburtzearen gracia, urte ascoan sufritu bear nuana orañ viciroago sufrituaz; eta bacarric faltazat nere animatic combait meza ateratzea, eta erregutzen dizut, atera deguizquidatzula arren, eta aguintzen dizut, nic ere erregutuco diedala ceruan beti zugatic Jaincoari eta bere Ama guciz santari. Sor Catalinac bereala mézac ateaeraci, eta andic egun guchiren buruan anima hura eguzquia baño arguiago ostera aguertu, eta eguin ciozcan mesedeen esquer-eracutsia eguiñ cion, ciotsala: gloriara cijoala, Jaunaren urricaltasunac beticoera gucian cantatzera, eta beragatic erregutzera.

ORACIOA.

Ona non nabecazun, Andre miragarria, cere aurean zauriz estalitaco esqueco bat Erreguiñ andi baten aurean becela. Emen nago cere-lúrretaco Erreguiñaren oñetan. Itzul itzatzu arren pecatari gajo onegana zure begui urricaltsuac, or goico jarlecu orretatic. Bearrecoay laguntzeco bete cinduen Jaincoac orrembeste ondasunec, eta doacabeac amparratzeco eguin einduan misericordiazeo Erreguiñ. Beguira zadazu bada, eta urricál nazazu. Beguira zadazu, eta ez nazazu utzi, pecataritic justu izatera oso muda nazazumeraño. Ondo ezagutzen det eztedala mereci mesede ta laguntzatic, eta mereci dedana dala, zure bitartez Jaunaren escutic artu ditudan on guciac ere quentzea, nere esquergabequeriargatic; baña zuc, misericordiazeo Erreguiña ceranac becela, ez dituzu billatzen mereciementuac, eta bay miseri eta premiae, diran guciac erremediatzeco. ¡Bada munduan non izango da ni baño bearragoric?

O Virgiña paregabea, zu cere-lúrretaco Erreguiña ceralarie, cera nere Erreguiña ere, beragatic esqueñtzen naiz orañdaño baño eguiñal gueyagoaz zu servitzera, gauza guciac zure gogoerara eguitera presta nazazun; eta ala esango dizut san Buenaventurarequin: zucen nazazu eta gberna nazazu, Señora, aguiñdu zadazu, eta ez nazazu beñere utzi gogoac didana eguiten. Aguin zadazu, eta esaguidazu cer eguin bear

dedan; eta baldin noiz bait utseguiten badet, castiga nazazu nay dezun eran, ceren zure escu urricaltsu-
tic datorquidan cernay castigu guciz ongarrri izango zadan. Ascoz nayago det zure aguindupeco izan, mundu guciaren jaun eta jabe baño: *tuus sum ego, saluum me fac.* Ar nazazu, escu andico Virginiã, cere gauza beccela, eta iduqui zazu beti nere salvacioaren contua. Gaur guero ez det izan nay nere buruaren jabe; naizan guci au zuri ematen naitezazu. Baldin orañdaño, neretzat ala zori gaiztoan, gaizqui servitu bazaitut, baldin zue nay dezuna eguitemo ainbeste derech eder galdu baditut, artzen det aurreonzean zure servitzarien leyalenetaco bat izateco asmoa. Ez, eztet nay aurreracoan zu amatzen eta servitzen niri iñore eraguitema, ó nere Erreguiniã guciz maitagarria. Ala aguintzen dizut, eta eguim uste det, zure laguntze indartsuarequiñ. Amen.

II. §.^a

**Uste eta confianza andiagoa iduqui bear degula
Maria Virginiãgan, gure Ama dalaco.**

Eceri ez dogoquiola ez diote deitzen Amaren icenaz Maria Virginiã guciz santari bere devotoac; eta beste icenez berari deitzen eciñ asmatu dutela dirudi, icen gozo au berari ematez beñere aspertugabe. Ama, bay, ceren eguiãz ta benaz alaše dan, ez aragiaren aldetic, ezpada gure espirituarenetic, Ama-

ren amore viciatz betico salvacioa guri iristeco. Pe-
 catua zala bide Jaincoarequicoa galdu guenduanean,
 galdu guenduan animaren vicitza, errucarrero hilla
 gaeunden; Erredimitzalle jaincozcoa munduratu zan,
 eta amorezco urricaltasun gueyeguizco batez guruz-
 zean hilla, galdu guenduan vicitza bihurtu egin,
 berac esan zuan becela: *Etorri naiz vicitza izan*
dezaten, eta oraindic ugaritsuagoa (1). Ugarit-
 suagoa, bada Teologoac diote, andiagoa izan zala
 Jesucristoc bere eriotzarequin ecarri egin ona,
 Adan-ec bere desobedientzi edo pecatuaz egin ei-
 gun gaitz edo caltea baño. Onela, Jauna, gu Jain-
 coarequin adisquidetuaz, egin zan gure animen Ai-
 ta, legue berrian, Isaias-ec aldeaurrez esan zuan
 becela, Salvatzallea izango zala gure Aita (2).

Baña Jesus gure animen Aita bada, Maria da Ama,
 ceren Jesus guri emanic, vicitza eguiazcoa eman ei-
 gun, eta gure salvacioaren alderaco Jesus Calvarioan
 ofrendatzea, gu Ama maite onegandic berriro jayo
 eracitza becela izan zan.

Bi aldiz egin zan gure animen Ama, diote Eliza-
 co Guraso santuac: lenengoa izan zan, Jaincoaren
 Semea bere erray guciz garbietan sortzea merecitu
 zuanean, bada artaraco bere haimena eman zuan
 unetic abiatu zan bere desco ta gogo iracequiaz gure
 salvacioa escatzen, eta equin citzayon gu salvatzeari,
 alatan non, Ama maitatsnac becela ordutic artu
 guinduan bere errayetan (3). San Lucasec Jaunaren

(1) Joan, 10, (2) 9. 6. (3) Bern. Sen. Tr. de B, V, serm. 6. (4) 2,

jayotza cantatuaz, dio, Mariac eguin zuala bere lenengo Semea (1). Beraz bere lenengo Semea bazan, emendie atera bear da, seme gueyago ere izan ci-tuala, dio jaquintsu batec. Baña izanic fedeco articuloa, Jesus ezpada beste seme-alaba araguizeoric izan etzuala, berez datorren gauza da, gañeraco bere seme-alabac espirituaren aldeticacoac dirala, eta oec gucioc gu guera.

Onela aguertu cion Jaunac santa Getrudisi, ceña egun batez, itz ayec Evangelioan iracurtzen ciardula, gueratu zan nastu eta arritua becela, eciñ antz emanaz, ez izanic Virgiña santac Jesus beste Semic, nola citequean, bere lenengo Semea zala, an esatea. Jaincoac aguertu cion, Jesucristo izan zala lenengo Semea araguiaren aldetic, eta gañeraco guizónac urrengo semeac espirituaren aldetic. Ala aditzen da Eseritura sagraduan Cantetaco liburuan esaten dana: *Lirioz ingurututaco gari meta baten guisacoa da zure sabeta* (2); San Ambrosioc azaltzen ditu itz oec esanaz: Mariaren sabel guciz garbian ale bacar bat egon bazan ere, au da, Jesucristo, guciaz ere ematen zayola metaren icena, ale bacar aren barrunen ceudelaco ceruraco esleitu guciac, hortzuen Ama izan bear zan Maria (3). Eta arrazoy onegatic dio gañera abade Guillermoc, munduaren Salvatzallea mundura eman zuanean, eman cigula gucioc bicitza ta osasuna (4).

Bigarrena izan zan, araco gure salvacioaren alde

(1) 2 (2) 7, 2. (3) De Instit. Virg. (4) In Cant. 4, 45,

pena ta naigabe andiaz Semea bere Ait Eternoari Calvarioco mendian ofrendatu cionean; eta ala, dio san Agustiñec, alaingo amoreaz lagunduric orduan guizonac graciaren vicitzara jayotzeco, eguin zala gucion Ama espirituco ere gure buru Jesucristoren alderdi, pusca edo miembroac gueran becela (1); eta au berá aguertzen du zorioneco Virgiña berác Escritura sagraduco Cantetaco liburuan: *Ipiñi ninduan bere mastiac gordetzeco; baña nerea ez nuan gorde* (2). Gure animac salvatzeagatic ofrendatu zuan bere Seme guciz gozoaren vicia, Guillermoc azaltzen duan becela, esañaz, alaingo amorezco eguitemo onetaraco eman zuala eriotzera bere anima. ¿eta ceñ da Mariaren anima? ¿Bere vicitza ta bere amorea ceñ, ezpada Jesucristo? Onela icusten degu cergatic alde-aurrez aditzera eman cion Simeonec, etorrico zala egun bat, noiz eta bere bularra dolore andizeo canibetaz igaroa icusico zan, nola izan baitzan Jesusen sayetsa idiquizuan lanza, bada sayets onetan vici zan Amaren anima. Orduanche eman cigun bere dolorequin vicitza, eta betico vicitza, eta ala dey guindezque gucioc izatez eta bidez bere doloreen umec. Ama amorezco au guci gucian Jaunac nay zuenera oso jarria egon zan beti, eta emendic ateratzen du san Buenaventurac, een icusiric Mariac guizonaquico Aita Eternoaren naitasun eta amore neurri eta ondogabea, oecgatic bere Seme gueiz laz-ana hiltzea nay izatean, eta Seme berarena, eriotza

(1) De Virg. cap. 6. (2) 4, 5.

ontzat artzean, guizonaganaco Aitaren eta Semearen amore guevegui onequin berea bat eguiteco, eman zuala bere baimena vorondate oso eta espaasungabeco batez Jaincoaren nayera jarriaz guizonaren osasunagatic (1). Eguia da, gure salvacioco eguiteco andian bacarrie berá hiltzea nay izan zuala (2); baña guizona erremediatzeco bere Ama bietz bigunac ere ceducan zale ta desco iracequia icus ric, erabaqui zuala bere Semearen sacrificio eta ofrendarequin Amac ere gure salvacioan parte artzea, eta onela gure animen Ama izatera etortzea. Au adierazten du araco hiltzeracoan Amari eta bere icasle maiteari gurutzaren goyenetic beguiratu ta Mariari esateac: *Ori da zure semea*; esanga bacioquean beccla: Orra or gaizona, ceña bere salvacioagatic nere vieiaz eguiten dezun ofrendaren indarrez graciaren vicitzara jayotzen dan; eta urren icasleagana beguiratuaz ugaldan zuan: *Ori da zure Ama*; eta itz oequin gueratu zan san Juan-en ezezie, berac au nay cien guizon guicien ere Ama eguiazco eguiña; onegatic izanaz guiciz beguiratzecoa Evangelioac eztnala ipintzen Juan-en icena, ezpada icaslearena, aditzera emateco, ecen Salvatzalleac cristautasunaren bidez bere icasle diran guicien Ama eguiazcotzat eman zuala Maria.

Ni naiz amore eterraren Ama (3), dio Mariae, ceren bere amoreac, animae Jaincoaren boguictan cder eguiten dituan unean, mugitzen duan gu Ama maitatsuac beccla bere seme alabatzat artzera.

(1) S Bon. (2) Isai. 63. (3) Eccl 24.

¿Eta ceñ amac maite ditu Ama onec aimbat bere semeac? ¿Ceñ amac beguiratzen du bere seme-alabac-gatic zue bezañ arretaz eta contuz, Erreguñia eta Ama guciz gozoa?

¡Zorionecoac Ama añ maitatsu eta escu andicoaren amparopean vici diranae! David Profeta, bere demboran oraindie Maria jayo ezpazan ere, Mariaren semetzal cegoan, eta au allegatzen cion Jaincoari bera salva cesan, esanaz: *Salva zazu, Jauna, zure servitziaren semeu* (1). ¿Ceñ servitziarirena? galdetzen du san Agustiiñ-ec: *Ona emen Jaunaren servitziaria*, aingueruari esan cion arena (2). Eta ¿norc seculan izango du seme-alaba oec Mariaren colcotie ateratzeco ausardia, béren etsayen erasoetatic gordetzeco an sartu diranez gueroz? ¿Cer furia infernucoc edo cer grifa macurrec, ceñ ere dan gogor, vici eta eraguillea, seculan azpiratu al izango ditu Ama andi onen amparoan béren uste eta confianza gucia ipiñi dutenac (3)? Baleac esan oy dute, eeen baldin ecaitz gogórren baten indarra dala bide, edo ta arrantzleen beldurrez icusten baditu bere umeac estu eta galdu gordean, irentsi eta bere tripan gordetzen dituala, perill edo arriscua igaro dedineraño. Era berean gure Ama gozoac bere seme-alabac tentacioen ecaitz gogórren azpian dacusquianean ¿cer eguiten du? Bere amore andiac muguituta, gordetzen ditu bere errayen barrumbean, eta au gorde ta estalpetzen ditu, betico gloriaco portuan ipiñi ditzaneraño (4). ¡O Ama guciz amoretsua, ó Ama gu-

(1) Ps. 85. (2) In Ps. 85. (3) Bell. de Sept. Verb. (4) Navarrin. C. 14. ex. 81.

ciz urricaltsua! Izan zaite belicotasun guciraco bedecatuia, eta izan bedi bedecatuia vicitz onetaco perill gucietan gure Ama ta gordelecu seguru eguin cinduan Jauna! Virgiña santac berác esan eion santa Brigidari, ecen ama batec bere seméac etsayen expaten erdian iensita, oec andie ateratzeco eguiñ al guciac eguingo lituquean becela, ala, dio, eguiten det, eta eguingo det nie nereacagatic, peccari izanarren, nigana bideguiten duten gucian (1). Fia gaitéan bada bere itzean, infernucó etsayaquin izaten ditugun pelea gucietan beragana bidegum, eta berari deituaz, diotsagula: *Zure mantupera gatoz, Jaincoaren Ama santa, querearequin irtengo gueralacoon seguru egonaz.* ¡O cembat victoria cristauac icichi dituzten infernuaren contra oracio labur, baña guciz vicí ta indartsu onequiñ! Onela aspiratzen cítuan beti demonioac san Benitoren erligioo Jaincoaren servitzari andi Sor Maria Gurutzeficatuarena ceritzan are.

Poztu zaitezte bada, Mariaren seme-alábac, eta poztu gaitéan gucioc, jaquiñic, guciz beretzat artzen dituala bere seme edo alaba izan nay duten guciac. Poztu zaitezte, eta ez galduco ceraten beldur izan, alabaña escu guciz andico zuen Amác bere indar eta eguiñal guciac gordetzen eta amparatzen zaituzte. Baldin biotzetie hera maite badezute, baldin beragan ipintzen badezute ceron uste eta confianza, chit ondo anima cindezquee, eta esan ciiñozaquee san Buena-

(1) Lib 4. C. 58.

venturarequin: *Ceren beldur cera, ene anima: ecin galdu liteque zure salvacioaren eguiteco edo oucia, ceren epaya zure anay Jesusen eta zure Ama maite Mariaren escuelan dagoan.* Bi-ótzac añ alaitzen diluan gogoracio beronequin muguieraci nay gaitu san Anselmoc ere uste eta confianzara (1). Enzun ditzagun, bada, aurrehoay becela biguntasun guciaz beregana deitzen gaituan gure Amaren otsac: *Si quis est parvulus, veniat ad me* (2). Anrrac beti aoan dute itz ama, eta cernay izualdi edo perilletan bereala deitzen dute ;*oma, ama!* ;O Ama guez maitatsua! Au da zue naizuna, gue aurrac becela zuri deitu eta lasterea zugana bidegutea, ceren izatez eta venaz lagundu nay diguzun, eta salvatu nay gaituzun, cere seme-alaba guciacquin beti eguin dezun becela,

EJEMPLOA.

Jesusen Compañia Napoles-en fundatu zaneco historian iracurtzen da (3), izan zala Guillermo ceritzan gazte bat, berez Escocia-tarra, erregue Jacobo-ren odolecoa, heregian jayo ta acia. Gazte au ceruco arguiatz arguitata, bere dotriña galdüac ezagutuaz ci-juala, etorri zan Franciara, eta emen Compañiaco Aita baten consejuen bidez, eta asco gueyago gure Ama Mariaren bitartecotasunez, guero ere eguia

(1) In Depr. ad Virg. (2) Prov. q (3) Lib. 5. e 7.

ezagutu, dotriña gaiztoac erabat ulzi, eta fede egui-
 azcora eta Eliz Ama santaren barrutietara biurtu zan.
 Andie igaro zan Erromara, non bere lagun batec
 guciz triste ta negarrez topaturic, eta cer zala bide
 cegoan ala, galdeturic, erantzun cion: aurreco gau-
 can aguertu eitzayola bere ama zana infernutie, ci-
 rautsola: *Seme, zori onecoa zu, Eliz eguiatzcoaren*
barrutian zaudelaco; ni heregian hill nitzalaco
conder atua nago. Ieusgarri triste onen bidez abiatu
 zan Virgiña guciz santaren devocioan iracequitzen,
 bertatic hera bere Ama bacartzal autuaz, eta Ama
 onec gogoraeraci cion erligioan sartzeco asmoa, eta
 gazleac sartzeco promes eguin zuan. Gaitz batec artu,
 eta joan zan Napoles-a an egurasteco ustean, eta an
 hilltzan; baña erligioso eguinta, ceren ara irichi ta
 laster medicuac etsimena eman, eta ambesterañoco
 erreguac eguin, eta negar-malcòac isuri cituan, non
 Compañiaco buruac artu zuten, eta Jaun andia bia-
 ticotzat eraman ciotenean, erligioco votòac Jaunaren
 aurrean eguiñ, eta compañiaco erligioso gueratu
 zan. Onen ondoren samurtzen cituan gucien biotzac
 herejaren illunabarretatic atera eta Elizaren bar-
 rumbean, eta erligioan here anayen besartean hilt-
 zera eracarri zualaco esquerrac emanaz, Virgiña gu-
 ciz santari aspertzaca esaten ciozcan itzaldí gozo
 iracequiaquin, deadar eguiñaz: *¡Oh ceñ atsequiña*
dan vingueru oen artean hiltzea! Esaten cioten,
 etzedilla necatu; baña eranzuten zuan: *Ez orañ ez-*
ta atsedeteco garoya, bada urrean da nere az-
quena. Hill baño lencheago esan zuan: *Nere anay-*

ac ¿ez dituzute icusten emen niri laguntzen ditudaten ceruco aingueruac? Eta erligioso ayetaco batec galdeturic; ¿ea cer cion ortzen artean? eranzun cion: *bere guardaco aingueruac aguertu ciola*, dembora guciz laburrean egongo zala purgatorioan, eta bereala egatuco zala cerura bere anima. Abiatu zan herrero aingueruen Erreguiñari bere hitzaldi gozoac eguiten, eta esanaz bi aldiz: Ama, Ama, lo eguiteco bere ama maitearen besoetan erortzen dan aurcho bat nola, alaše hill zan gozotoro. Eta andic dembora guchiren buruan erligioso on batec Jaincoaren arguitasunaz jaquin zuan, arrez gueroz glorian cogoa.

ORACIOA.

¡O Ama guciz santa! ¿Nola diteque Ama añ santa dedalaric, ni añ peccataria izatea? ¿Jaincoaren amorean sutulaco Ama bat, eta nic añ centzugabe creatúrac amatzea? ¿Ama bat bertuteetan añ aberatsa, eta ni bateregabe eta gucielatic añ erantzia icustea? Eguiaz, Ama maitea, ez naiz zure semea naizala esatearen diña, eta ala suerte onecotzat egongo naiz zure esclavoen chiquienetacotzat bederic contatzen banazu, bada hacarric icen onegatic utzico nituzque pocie munduco erreinu guciac. Ez arren quendu niri, beñic beñ zuri Ama esateco dicha. Icen eztitsu onec alaño uste ta confianzaz betetzen nau, non beste aldetic nere peccatuac eta Jau-

naren justicia zorrolzác izutzen banaule ere, nere Ama cerala gogoratzeac viciro indartzen eta poz-tutzen nauan. Utzi zadazu bada arren zuri Ama, eta Ama guez gozatsua deitzen. Onela deitu nay dizut, eta deitueo dizut betí. Jaincoaren urrena zu izan bear zaitut nere esperanza, gordelecu eta amore gu-cia negarrezco vicilecu onetan; eta nere eriotzeco ordua icistean ipiñico det nere anima zure escu gu-ciz bedeicatuetan, esanaz segurutasun guciarequin: *Ene Ama, ene Ama, zurea naiz; ampara naza-zu, gorde nazazu eta urricat zaitz nizaz. Amen.*

III. en §.ª

Gure Amác digun amorearen anditasunaz.

Bada baldin Maria gure Ama bada, beguira deza-gun orañ cembaterañooca dan berác digun ongui-naya. Eciñ diteque gurasóac beren umeay ez nay izatea, eta onegatic ipiñiric Jaincoaren legueác, san-to Tomas oartzen dan becela (1), gurasóac amatzeco obligacio estua, eztago gurasoentzat mandamentu es-cribituric, ceren obligacio au beren biotzetan añ josia dagoan, abere basatietarañoocan ere icusten dan becela (2). Eta ala historiae contatzen, dute, guertatu dala iñoiz catamótzac beren umeen orroac adituta oyc daramazquiten ontzietaraño igueri joa-

(1) Op. 60. c. 4 (2) Ambr. 1. 6 Exam. c. 4.

tea. Bada baldin catamotzac berac onela aguertzen badute léren uméacganaco naitasuna juola aztu al izango da bere seme-alábaz biotz añ samur eta maitetsua duan Ama bat? (1). Eta oraindie, ecin baliteque ere, demagun guertatzen dala ama batec edo besteac bere umeay ez nay izatea; gureac seguru esaten digu, eztala soculan cer beldur izan onelaco gauzaric bere aldetic.

Maria gure Ama da, ez araguiari dagoquionez, len esan degun becela, czpada amorezo Ama (2). Amorez eguin zan gure Ama, eta poz andia dauca artan, izanaz alañoa guri diguna, guc mercec ez-tegularic, non ecin iguerri guentzaquean cembat-erañoa dan; baña añ iracequia, non bere biotzaren zale ta egarric andiena bere Seme gucz santuarequin batera gurutzecan borroeroen atzapar-retan sacrificatu edo hilltzecoa izan zan (3).

Baña beguira zagun cergatic gaituan añ maite. Lenengo; maite gaitu, Jaincoa añ maite dualaco, ceren Jaincoa eta lagun urcoa amatzea mandamentu batean bertan batúac dauden, san Juan Evangelariac eracusten duan becela (4), alatan, non, bata aciaz dijoan eran bestea ere acitzen dan. Au dala bide, santuac Jaincoa añ maite zutenac becela, ¿cer eguin etzuten guizonaren amorez? Nor nairen salvacioagatic beren libertade ta vicia arriscuan ipiñi eta galtzea ere. Badaquizquigu cer neque gogor-

(1) Isa. 49. (2) Eccles 24 (3) Arnol, Carnot. 1. 6 Exam e 4

(4) I. Joan 4.

rac san Francisco Xavierrec Indietan igaro cituan, non cembait atdiz aitzetan gora milla perillen artean igotzen zan, zulo ayetan basa-piztien guisa vici ciran errucarríac topatu, eta Jainco eguiazcoaren eza-güerara eracarrí citzaneraño. Badaquigu Chablais deritzan provinciaco heregíac erligio eguiazcora eracartzeagatic san Francisco Sales-ec cer eguin zuan, alabaña zubitzat servitzen zuan zur gelaz estalitaco baten gañetic igarotzen zan ibayaren beste aldera, eta au urte bete osoan, normaie iguerrico duan arriseu eta perill andian. Badaquigu san Paulinoc saldu zuala bere burua esclavotzat, alargun beartsu baten semea erosi, eta errescatatzeagatic. Badaquigu, san Fidelec eman zuala poeie vicia beste alde batean, heregeay predicatuaz, oec Jaincoarentzat irabazteagatic. Eta onela santa gucíac nola amore añ andia bai cioten Jaincoari, gauza añ arrigarri eta oy ez becelacoac lagun urcoagatic eguiñ cituzten. Ondo bada ¿nor edo ecñ izan da Mariac haño maiteago Jaincoa izan duanic? ¿Cer diot maiteago, baldiñ santu eta aingueru gucíac batera beren vici gucian izan zuten amoreari, sortu zan unetic ascorequin gañez eraguiten bacion bere amoreac? (Au guero aguertuco degu arrazoy gueyagorequin). Virginia guciz santac berac aguertucion Sor Maria Gurutzeficatnari (1), Jaincoaganaco bere amorea alaingo zala, non berarequin ceru-lúrrac erre quiseali citezquean, izanaz amore o-

(1) Lib. 2, cap. 5, de su vida.

nen aldean serafinén amore gucia gela becela. Au dala bide cerueo espíritu douatsuen artean eztagoan becela Mariac baño gueyago Jaincoa amaten duanic, ecin guentzaque gue ere maiteago gaituanic, izanaz añ sutua bere amorea, non baldiñ guraso ta senar-emazte gucien amorea bular batean batuco balitz, eta bay santu guciac béren devotoay diena ere, ez litzaquean irichico ascorequiñ ere, Virgiña guciz sagraduac norray animari dionera. Eguia au on eguiteco Aita Nierembergce escribitzen du, ceen orañdaño esan dan gucian ámac beren umeay dielen amore gucia amorearen errañua dala, bada bacarrie Virgiña santac aingueru ta santu guciac baño maiteago gaituala.

Sortzen da ere amore andi au, aurrerago icusi degun becela, aráco gu gucioc san Juan-en personan señalatu, eta esanaz, *Andrea hori da zure semea*, (ceña izan zan bere Amari azquena esan cion itza) bere Seme Jaincozcoac, gurutzeco aldarean gure Ama eguin zuaneco onguinay artatie. Gu-ciz nay diegun persónac beren azquen orduan uzten dizquiguten ondasun edo escueraentsiac oy dira gueyen estimatzen diranac eta gogoan obeto josiac gueratzen diranac. Gañera añ maite gaitu, ceren guciz asco costa guintzaizean, ama guciay guertatu oy zayen becela, bada oec cembat neque, pena ta oñace gueyago costa citzayen seme edo alaba, hura maiteago oy dute. Gu gaitu bada bere Jesus guciz lastanaren vicia ofrendatzearen, eta tormentuen indarrez hilltzearen esan al baño andiagoco pena gu-

gatie sufritu zuan eta ofrenda onequin graciaren vicitza irichi cigun seme-alaba ayec. Alabaña bere seme-alabac guera, eta guciz cutunac alere, cereu guciz asco costa guñitzaizcan; eta Ait Eternoac munduari cion ongui naya munduagatic bere Seme bacarra eriotzera emateraño irichi bazan (1), Mariaz ongui esan liteque beste aimbeste (2). Baña Mariac noiz eman zuan eriotzera? Araco, Aita Nieremberg-ec dion becela, bere Pasio ta eriotza sufritzeco bere bainena azqueneco aldiz eman cionean, beste guciac gorrotoz edo beldurrez bacarric utzila, Juecen aurrean gorde, edo defendi cezaqueala eguin etzuanean; bada ondo sinistecoa da, Ama añ maitatsu eta beguiratuaren itzac ascoco cirala guizon ayen biotzac bere aldera macurtzeco, batez ere J-susen garbitasuna ezagutu eta gende guciaren aurrean aitortu zuan Pilatos-ena; baña Amac ezpañic ascatu etzuan, munduaren erospena artan cegoan eriotza ez galaracitzeagatic: azquenic, ofrendatu zuan milla bider gurutzearen onëan, cereu agoniaco iru ordüac cirautean bitartean, bere Seme lastanaren vieia gure erredencioagatic ofrendatzez gueratu etzan, dolore miñic garratzenaz, baña biotz añ andi eta iraupen sendoaz, non san Anselmo eta san Antonio irichi ciran esatera (jarritzen duan gauza da!), ecen Ait Eternoaren nay edo borondate aguiria ala izan balitz, berac bere escuz hilco zuqueala, cereu baldiñ Abraham biotz añ sendocoa bazan, non Jaincoaren

(1) Joan. 5. 16, (2) Bonavent.

aguindua eguitcaren bere semea hill edo sacrificat-
zera cijoan, Abraham baño ascoz santa eta obeditza-
lleagoa zan Maria. ¡Oh cembat esquer zor diozca-
gun bere amore gueyeguiacgatic! ¡Cerequin ordañ
al diteque onelaco pintasuna! Jaincoac etzuan utzi
bere ordañ sarigabe Abraham—ec obedientzia; baña
guc ¿nola paga guentzaque Isaac baño neurrigabe
maiteago ta garayago zan Seme aren Ama? Mariaren
amore onec, dio san Buenaventurac, chit beartzen
gaitu amore guciz vici eta eraguille batez bera
amatzera, bada berác beste ññore ez becela amatu
gaitu, ceren bere burua baño maiteago zuan Seme
bacarra eman digun (1).

Emendic sortzen da bere amorearen beste cerga-
licaco edo arrazoy bat, eta da, Jesucristoren odol
preciotsnaren valioaz erosiac izan guññala, icustea.
¿Cembat naico ez lioque ama batec bere semeác
oguey urtetaco presondegui eta nequetrabajuen cos-
tura erosi eta libratu duan cautivo bati? Ascoz gue-
yago nay digu Mariac, guciz ongui daquianac be-
cela, bacarric bere viciaren costura gu erosteagatic
etorri zala mundura gure Erredimitzalle jaungoicozcoa
(2). Beragatic, baldin Mariac guchi nay baligu, odol
añ preciátua guchian daucala, onequiñ aguertuco
luque. Santa Isabel monjari Jaincoác aguertu cion,
ecen Virginia santa bere burua Jaunari temploan
consagratu edo eman eitzayon egunaz gueroz etzala
gueratu gugatic escatzelic, viciro erregutuaz, etorri

(1) D. Bonav. (2) Luc 19.

cedilla lembait len Mesias. ¿Bada cembat maiteago gaituala orañ, sinistu bearco eztegu, bere Seme laz-tanac, aimeste costata erosiric, añ maite gaituala icusita? Eta nola gucioc berdiñ costata erosi baiguin-duan, eztu iñor ere bere amoretic bereizten, eztu iñor ere lagundugabe uzten. Eguzquiaz jantzia icusi zuan san Juan-ec (1) Maria, ceren eguzquiaren be-rotasunetic gorde al ditequean ecer lurrean eztan becela. Mariaren amoreg be guelditzen dan iñor ere eztan (2). ¿Nore ezagu lezaque cembaterañocoa dan gu gucioc daucan conta eta arreta, izanic Ama añ maitatsua? Gucioy escaintzen eta luzatzen dign bere urricaltasun ondogabca (3). Gucioy opa izan cigun betico salvacioa; gue au iristeco berac viciro lagun-duaz. Onegatic guciz proclugarria da cembait devo-toc eguin oy dutena, au da, Cornelio Alpidec diou becela beren oracioetan Jaincoari esatea: *Juana in-dazu Virginia Maria guciz santac nigatic escat-zen dizuna;* eta au guciz ondo eguiten dutela, dio gañera, ceren gure Amac on ascoz andiagoac opa dizquigun, gue desca quintzaqueanac baño: eta one-gatic egozten dizca Alberto Magnoc Escriptura sagra-duco itz ayec: *præoccupat qui se concupiscunt, ut illis se prior ostendat* (4); esan nay dute; bera aurreratu eta etortzen dala bera billatzen ez dutenen ere billan. Berari otseguin baño len an da (5).

Bada baldiñ esquergabe eta naguaquiñ ere añ on

(1) Apoc. 12 (2) Sabio Idiota. (3) S. Bernard Hom 2 Mis.
(4) Sap 0, (5) Ricard, en Cant 4 5.

eta onguillea bada, ¿nolacoa izango da bera maite duten, eta berari jayera eguiazcoa dioten seme-ala-bárganaco bere amorea? ¡Ceñ atseguingarri zayon bere biotzari oec icustera etortzea! ¡Ceñ gozoa gureztat urricaltasun eta amorez añ betea bera arquitzea! Bera maite dutela icustean, ecin dago maite izangabe (1), batez ere bere amoreari biguñtasun andicnaz eranzuten dioten ayec maite izangabe: bada cudo ezagutzen du ceñ diran onelacoac, ondo daqui oec bestectatic bereizten, onelacoac berac servitzeroño irichiaz, Idiota jaquintsuac dionez (2). Cronicac con-tatzen du guertaera au. Santo Domingoren erligioco Leonardo hiltzeco zorian cegoan: onec egunean ber-reun aldiz deitu cy cion Mariari. Ier sten du beñgean bere aldamenean Erreguiña guciz eder bat, eta onec diotsa: *Leonardo ¿nay dezu etorri nerequin nere Semea dagoan lecura?—Ceñ cera? galdetu cion erligiosoac—Misericordiazco Ama, eranzun zuon Virginiac; eta alubaña aibeste bider deitu nazu, orañ zure esque nator: atoz nerequin cerura.* Onetan Leonardo hilt, zan, salvacioaren señale cñ zalegarriac utziaz.

¡O Erreguiña guciz gozoa! ¡Zori onecoac zu maite zaituztenac! Jesusen Compañiaco Juan Berchmans Veneragarriac esaten zuan: *Baldin Maria amatzen badet, oncan iraungo dedanaz seguru egon niteque, eta nay gucia irichico det Jaincoagandic.* Onegatic gazte guciz devoto au beñere aspertzen

(1) S. Bernard. (2) De contep. Virg. in prol.

etzan esatez: *Maria amatu nay det, Maria maite izan nay det.* Baña izan dezatela maite Ama gozo au bere seme-alábac beren eguin al guciáz, Mariác ascoz maiteago ditu bérac. Maite izan dezatela san Estanislao Koscac becela, noren amorea añ vici eta eraguillea zan, non Mariáz itzeguiten abiatu orduco bere biotzeco berotasuna an ceuden guciay itsasten cien. Beti ciardun Maria onratzeco icen berriac somatzen: iñoiz ere etzuan bere beargay edo eguin-quizunic asitzen, lenengo Mariari bere bendicioa escatugabe; alaingo amorea cion, non Mariaren oficioa edo errosario santua edo beste oracioac errezatzen cituanean, bera icusten cegoala cirudian; biotz añ samurra cion, non Salvea cantatzen aditze utsez bularra ta arpeguia iciotzen citzaizcan; Mariaren añ semetzat cegoan, ecen baldin galdetzen bacioten, ea Maria maite zuan, *nere Ama da, ecin esan nezaque gueyago*, eranzuten zuan. Maita dezatela Maria Erman Doatsuac aimbat, ceñec esaten cion *amorezco bere esposa* Erreguiñ andi onec ere berari icen onragarri au emanaz: San Felipe Neri batec aimbat, ceñabaita Maria gogoratze utsez atseguin contentuz betetzen zan, Ama gozo oni bere *poz aldiaren* icena emanaz. Ama dezatela Maria san Buenaventura batec aimbat, ceñec bere Ama ta Señora ezecic bere biotz eta anima ere zala, esaten cion. Ama dezatela Maria bere maitatzalle guciz piñ eta leyal san Bernardoc aimbat, ceñ beraganaco amore viciaren indarrez *biotzen lapurra* berari deitzeraño irichi citzayon, izatez eta benaz bere biotza ostu ciola, segu-

rutuaz. Dey bizayote Mariari beren maitea, san Bernardinoe becela, ceñac egun oro bere capillara joan, eta itzqueta gozoetan ordu osoac an igarotzen cituan. Ama dezatela san Luis Gonzagac aibat, ceñi Mariaren icena a-litze utsez biotza eta arpeguia sututzen eitzayozean. Ama dezatela san Francisco Solanoe aibat, nor cembait aldiz, beregandie irtenda becela, erotasun santu batec arturie Mariaren imagiña baten aurrean amorezco coplac cantatzen jarri oy zan munduco amantteen guisa. Ama dezatela Maria bere servitzari guelac amatu zuten aibat, ceñtzuec beren amorec aguertzece cer eguifi etzequitien, nola ta Jesusen Compañiaco Aita Geronimo Trejo, Mariaren esclavo zala beguiratzean atseguin-contentu zoragarritz betetzen zana, eta ala Ama gozo onen esclavo zala aguertzece, joan oy zan sarri elizetara bera icustera, eta an bere malco gori ngariaz busti oy zuan lurra, mingañaz eta arpegui ta ezpañaz ascotan autsa garbituaz, bere Ama eta Echeoandre maitearen eehea zalaco. Compañia bereco Aita Diego Martinz-ec becela, ceña Virginiã santaganaco bere jaycra andiaren ordañ-sarian Ama onen fest-egun gucietan aingueruac cerara eramaten zuten, an eguitien eitzaizean fest andiac ieustera, eta igoaz eijoanean joan oy zan esaten: *Atingueru eta santu gucien biótzac nay nituzque Maria amatzece; quizon gucien vicitzac iduqui nay nituzque, guciac Mariari bere onran ematece*, segurutzat esauaz, guciz poeic eramango eitzuzqueala neque-pena ta tormenturic latzenac Mariac bere auditasunetic apur bat bera ere

ez galtzearren (ecin galdu bacezaquean ere) eta baldin anditasun au bere escenco iduqui bala, gucia berari emango cioque la, berac paregabe obeto mereci zualaco. Edo santa Brigidaren seme Carlos-ec becela, norc esaten zuan, munduan etzala poz atseguinagoric ematen cion ecer, Jaincoac Mariari aimbete nay cio la jaquitea baño. Edo Alonso Rodriguez Doatsnac becela, ceñec Ama laztan onegatic bere vicia emateco zale ta egarri iracequia zuan. Edo san Francisco Vinancio erligioso-ec, eta Erreguiña santa Clotildec becela, ceñtzuac Mariaren icen gozua letra gorituaz bularrean josi zuten. Irichi ditecela Mariaren icena burni gorituaz beren gorputzetan señalatzera Compañiaco Juan Bautista Arquintoc eta Agustín Espinosac amorez gañeztuta eguin zuten becela, Eguin bezate, azquerie, amorerie itsi ta iracequienac bururatzen dien gucia, eta inoiz ere ez dira irichieo Mariac nay digun aibat berari nay izatera.... Gu-ciz ondo daquit, Ama, esaten zuan san Pedro Damianoc, chit maitatzallea cerala, eta maitatzen inore eramaten ez dizula (1). Alonso Redriguez Doatsnac Mariaren imagiña baten aurre n cegoan aldi batean, bere burua Amoneganaco amorean sutua barrundatuta, esan cion: *Ene Ama, ¡baldin nic zuri aibat nay baciñit!* Eta Virgiñac eranzun cion: *Ori ez, Alfonso bada ceñ ere andia dan zure amorea, aseoz andiagoa da nerea.*

Arrazoyaz ta bidez deadar eg iten du san Buena-

(1) Serm. de Nat. B. V.

venturac: ¡Zori onecoac Ama maitagarri oneganaco amorean sendo ta irmo daudenac! Zorionecoac, ceren esquer añ onecoa izanic, berari iñore amorean eraguiten uzten eztuan (2), eguiñaz onetan, beste gucian becela, bere Semcaren guisa, ceñac cernay servitzuren ordañean bi bider gueyago biurtzen duan. Nic ere deadar eguingo det san Ànselmorequin (3): ¡*Urtu bedi nere biotza Jesusequin Mariaren amorean!* Eguizu, Jauna, eguizu, ene Ama, zuec mereci aimbat amatzera ni iristea. ¡O guizónacgana itsututaco Jaincoa! bada cerorrec naíta eman cenduan vicia oecgatic, uca diozazuque orañ zure amorea, zu eta zure Ama gozoa viotz guciaz amatzea escatzen dizunari?

EJEMPLOA.

Aita Aurienac contatzen du (1), ecen aranzan cebillen nescachacho batec here zale, egarri eta atseguin contentu gucia mendian cegoan Ama Virgiñaren ermita batera joan, eta anche bere Ama gozoarequin itzqueta amoretsuetan ordu osòac igarotzea zala. Eta imagiñ hura cegoquion becela jantzia ta apaindua etzegoalaco, eguin eiola neque ascoren costura artillezco mantucho bat. Egun batez mendian loreac bildu, bere ayequin coroa eguin, eta aldarearen gañera igo, eta ipiñi eion buruan, ésanaz: *Ene Ama,*

(1) Pacciuch de B. V. (2) I Depr. ad Virg. (3) Aff Seamb t. c. 7.

nic urrezcoa eta arri preciatuzcoa balitz nay nuque coroa au; baña pobreac becela esqueintzen dizut lorezco au; ar zadazu nic dizulan amore andiaren señalear becela. Eguiteco oequin, eta onelaco besteaquin sayatzen zan, imagiñ hura honratuta servitzera. Dacuscun orañ Ama biguñ onec bere alaba maiteari eman cion ordañ-saria. Gaitz estu batec arturic nescachachoa, bidez cijoacen erligioso bi andic igarotzea suertatu, eta arbola baten itzalpean atsedeten jarrita, icusi zuten biac gauza bat, batac lotan, eta besteac esna cegoala. Icusi zuten doncella eder samalda bat eta gucien artean bat ascoz ederragoa eta majestade andicoa ceterquiela alderatuaz, Erligiosoetaco batec oni galdeturic: *¿Señora, nor edo cen cera, eta bide oetan barrena nora zoaz? Jaincoaren Ama naiz, eranzun cion, eta emen urrean hiltzen dagoun nescachacho arzay bat icustera non doncella santa oequin, berac ni ascotan icusi nauta.* Eta au esanic, beguietatic galdu citzaizten. Erligioso Jaincoaren servitzari biac alcarri esan cioten: *Gu ere goacen,* eta echolara irichi, eta nescachachoa lasto gañean hiltzen arquite zuten. Beren diosala eguiñ, eta nescachac esan cien: *Anayac, esca bizayote Jaincoari, idiqui de-tiztela animaren beguiac, niri laguntzen diardun laguntaldea icusteco.* Erligiosoac bereala belaunicatu, eta icusi zuten Virgiña santa coroa bat escuan zuala, nescacha consolatzen. Onetan doncellac abiatu ciran cantatzen, eta une artan zori oneco anima hura bere gorputzetic irten zan. Mariac bere escuz coroa ipiñi,

eta bere besoetan artu, eta berequin cerura eramanzuan.

ORACIOA.

¡O Andrea! esango dizut san Buenaventurarequin, ó maite izanaz eta mesedeac eguinaz guizonen biotzar ostutzen dituzun Ama guciz mailageria! eraman zu nerec ere, bada elatar eereza dalaric, viciro amatu nay cinducque. Zuc, ene Ama, eere edertasunaz beartu eenduan Jaincoa bera zu amatzera, eta errucari eenduan ecutic eere sabel guciz garbira; zola vici niteque ni, zu amatugabe? Orobat esango dizut beste zure seme amoretsu Juan Berchmans-quin: *Ez naiz guratuco amore maitsa bat, amore samur eta utsunegabeco bat irichi dezaduerano;* bada nie merecigabe zue izan didazuna alaingoan zan, eeren amore augabe, eta Jaincoagandie irichi dizquidatzun aimbeste misericordigabe onezquero eor izango zan nuzaz? Baldin orduan, zu maite etzindudanean ere, zue añ maite izan baninduzun, eor uste bear ez det zue biotzaren ontasunagandie orañ maite zaitudanean? Maite zaitut, ene Ama, hay maite zaitut, eta zu amatu nay etzaituzten munduco errucari gucien amorec nere bularean batu cay nuque. Milaca mingañac iduqui nay nituzque zure anditasun, santulasun, erruqui, eta zu maite zaituztenaquico dezun amore andia aditzera emateco. Ondasunac banitu, gucic zure orran eta adoracion

gastatueo nituzque: aguindupecoac banitu, guciac zu maite izatera beartu naico nituzque: Zugatic, ala bear halitz, vicia eman nay nuque. Maite zaitut, ene Ama, baña beste aldera beldur naiz nere amorea eguiazcoa ote dan, bada esan oy da amoreac berdiñtsu eguiten dituala alcar maite duten persónac (1). Eta ala nere burua zugandic añ desberdiña icusita, bear becela amatzen etzaitudalacoan nago. Zu orren garbia, ni onen atsa; zu orren humilla, ni onen artoa, zu orren santa, ni onen peccataria. Baña an da humillasun andiaz gaur escatzen dizudana, niguanaco zure amorea añ gucizeoa dan ezquero, cere antzeco eguin nazazula. Biótzac aldatzeco ta berrit-zeco escua dezuz; ona emen nereac, cere escu guciz sagraduetan artu eta oso truca ezazu, zuc maite dituzunen alde cembat dezaquezun munduari onela aditzera emanaz, eta ni santu eta añ goimallaco Amaren diñaco seme eguiñaz, zure ontasunagandic confianza osoaz nste dedan becela. Amen.

IV. en §.º

Maria orobat da peccatari damutuen Ama.

Virgiña guciz urriealtsuac herac seguratu cion santa Brigidari (2), garbi eta justuen Ama ezeac peccatarienta ere zala, baldin ontzeco asmoa badauca-

(1) Aristot (2) Lib. 4. c. 158.

te. ¡Oh eta nolaco onguiro eta biguntasunaz artzen duan Ama erruquizeo onec nornay peccatari damutu! Ala escribitzen cion san Gregorioc Matilde princessari: *Utzi zazu peccatua, eta munduco Ama bat baño gozatsua goa topatuco dezu Maria: nic au segurutasun guciaz promesten dizut* (1). Bere seme edo alaba izateco escatzen digun gauza da, uztea peccatua. Proverbioetaco liburuan dauden itz: *Jaiqui ciran bere semeac* (2), óen gañean oartzen da Ricardo, lenen jartzen duala *jaiqui ciran* eta guero ematen diela semeen icena, ceren eciñ ditequean izan Mariaren seme edo alaba, baldiñ lenengo jaiquitzen ezpada eguin zuan peccatue; eta izatez, baldin nere lan edo óbrac Mariaren obrac contracoac badira, béraquin ucatzen det bere seme edo alaba naizala, edo, da esango banu becela, bere seme edo alaba izan nay eztedala, onelacoac bere gaiztaqueriacquin Ama gozo oni aimbeste naigabe-pena emanaz. Egun batez peccatari batec esaten cion: *Señora, Ama cerala aguer zazu*, eta Virgiñac eranzun cion: *Semea cerala aguer zazu* (3). Eta misericordiazco Amaren icenaz deitzen cion beste bati esan cion: *Nic laguntzea nay dezutenean, misericordiazco Amaren icenaz deitzen nazute; baña orrembeste bat peccatu eguinaz, miseriazco eta dolorezco, Ama eguiten nazute* (4). Jaunac Escritura sagraduan dio: *Jaincoac madaricatu da bere Ama mimeratzen duan guizona* (5); da esatea, bere

(1) Lib. 4. ep. 47. (2) Prov. 51. (3) Apud Aur. (4) Ap. Pelb. (5) Eccles. 5. 18.

Ama Maria, Ricardoc dion becela; alabaña Jaincoac dudagabe madaricatzen du bere viciera gaizto eta selarequin Ama añ ona naigabetzen duana.

Besteric da danaz ere peccataria, bere viciera gal-dutic irteteco indar eguiñaz, artaraco Mariaren laguntzaz vatiatzen danean, alabaña orduan Ama urricaltsu oncc iñola ere utzico eztu lagundugabe, gueroenean ere Jaincoaren gracia eta adisquidetasuna iri-chi ditzan. Onela aditu zuan beñ santa Brigidac Jesu-cristoren aotic, here Ama guciz maiteari itz oec esaten: *Nigana biurtzera sayatzen danari, zuc, ene Amo, laguntzen diozu, inor ere consuelogabe ez utziaz*. Baldin peccataria setaz badago peccatuan, eciñ mercci lezaque onelacoac Mariaren amorea; baña baldiñ grña macúrren batec azpian badauca ere, jarraitzen badu Mariari humilquiro ta confianza osoaz, bere viciera gaiztotic irteten lagun deguiola, erregutzen eta escatzen, cierto emango dio escua, Ama añ urricaltsuac becela, eta ipiñico du salvatze-co bidean.

Ongui datoremen Trento-co Concilio sagraduco dotri-ña baten azaltzea: eta da, Concilio oncc heregia eta dotriña gaiztotzat eman zuala, peccatu mortalean da-goanac eguindaco oracio eta gañeraco gauz ónac peccatu dirala esatea. Ez dira ala, ceren oracioa peccatariaren aoran ederra ezpada ere, san Bernardoc dion becela, amore edo caridadearequin batera ez dijoalaco, beñtzat da prochugarri eta frutu-emallea peccatuco egoeratic irteteco; eta béraquin ecer mer-citzen ezpada ere, servitzen dutela barcacioaren

gracia iristeco, eracusten du santo Tomas-ec, Gra-
 ci au iristeco indar edo vertutea eztago erregutzen
 duanaren merecimentuen aldetie, ezpada Jaincoaren
 ontasunean eta Jesucristoren promes eta irabacietan,
 bada berac Evangelioan esan zuan: *Escatzen duan
 guciac artuco du*. Eta orobat aditu bear da Jain-
 coaren Amari dagoquionez. Baldiñ escatzen duanae,
 dio san Anselmoe, aditzea mereci ezpadu, berac er-
 regutzen dion Mariaren merecimentuac eguingo du-
 te enzuna izatea. Beragatic san Bernardoc aleguin
 guciac pecatari guciay esaten die: bideguin dezatela
 beren oracioaz Mariagana, uste eta confianza an-
 diarequin. Au da bere beargaya, Amaren beargaya,
 eta Ama añ onarena. ¿Ger ama batea eguingo ez
 luque alcarri gorroto vicia izanie, alcar hiltzeco de-
 recharen billan dabilzan bere seme bi alcarrequin
 ondo ipintzeco? Maria Jesusen Ama da, eta pecata-
 riarena, eta nola eciñ eraman baituan Jesus eta
 peccataria alcarren etsay izatea, oce paquean ipiñi
 ditzaneraño onie eztu (1), escatugabe peccatariari
 beste ecer, ezpada berac erregu deguiola, eta out-
 zeco asmo eta gogoa iduqui dezala, ceren bere óne-
 tan misericordi esque icusten duanean, eztuan be-
 guiratzen cembat peccatu daramazquian, baicie cer
 asmo eta gogorequin dijoan. Asmo onaz badijoa,
 munduco peccatu guciac eguin baditu ere, laztant-
 zen zayo, eta aibeste miserie atzeratugabe, sendat-
 zen diozca animaco zauriac, izanie, dan beccela, er-

(1) Bernard. in Deprec. ad Virg.

ruquizco Ama, icenez ezecic, bere eguiteetan eta guartzen gaituanean-aguertzen digun amore ta biguntasunean ere. Onela esan cion Virgiña berac santa Brigidari (1).

Maria alabaña da Jaungoicoagana biurtu nay duten peccarien Ama, eta oozaz Ama beccela erruquitzeaz gañera, bere berea beccela sentitzen du bere seme-alaben gaitza. Canaango emacume are Jaunari erregutu cionean, libra ezala bere alaba aimbeste tormentu ematen cion demonioagandic, esan zuan: *Urrical nazazu; nere alaba bat demonioac tormentatzen du*. Baldin alaba bazan tormentatua, eta ez ama, dirudi esan bear zuqueala: *Jauna, urricall zaitte nere alabaz*. Baña emacumeac ongui itzeguin zuan, ceren amai beren umcen gaitzac bereen berenac beccela min ematen diezaten. Bada onelase escatzen dio Mariac Jaincoari bere amparopera dijoa quion nornay peccarigatic, eta sinis guentzaque, esaten diola guis onetan: *Jauna, peccatuan dagoan anima gajo au nerea del, izan zazu urricallatuna, ez aimbeste beraz nolata ni bere Ama naitzan onezaz* (2). ¡Ay eta baldin peccari guciac Ama añ gozatsuagana bideguiten balute! Guciac irichico luteque barcacioa. ¡O Maria, deadar eguiten du san Buenaventurac arrituric, *zuc amaren biguntasunarequin laztantzen dezu, muudu guciac beregandic botatzen duan peccaria, juez guciac Juezarequin ondo jarrita icusi arte ceregandic utzigabe*

(1) Revel, lib. 2. c. 25. (2) Ricard. de S. Laur, de Laud. Vir. c. 6.

(1). Santuác esan nay du, ceen gizona pecatua dala bide guciac gorrotatu eta berengandic botatzen dutenean, eta oraindic creatura centzugabeac, nola suác, aiceac eta lurrac castigatu, eta béren eguille ofendituaren honra mendecatu nay luqueenean ere, Mariác estutzen duala bere besartean amaren biguntasunaz, baldin peccatori au damuturic, beraren óñetara iristen bada, eta eztuala beregandic uzten Jaincoarequin adisquidetu, eta len galdutaco gracia biur deguioneraño.

Bere centzu eta arguitasunagatic sonatua zan Teucaco emacume batec, Erregueen bigarren liburuac contatzen duan becela (2) David-i bere óñetan auzpeztu, eta esan eion: *Jauna, nic seme bi nituan, eta oec neretzat ula zori gaiztoan, alcarrequin aserretu, eta batec bestea hill zuan, eta bal hura gabe gueraturic, orañ justiciac quendu nay dit bestea. Urrical zaitenizaz, eta ez arren ni nere seme biac galduta gueratzzen utzi.* Erregueac emacume arzaz cupituta, hiltzalleari barcatu, eta bere amari libre biur ceguiotela, aguindu zuan. Au berá esaten dio bada Mariác Jaincoari, berari deitzen dion peccatoriaren contra Jaincoa aserre icusten duanean: *Ene Jaungoicoa, nic bi seme nituan, Jesus eta guizona: onec Jesusi eman dio eriotza, eta zure zuentasunac castigatu nay du culpadora; baña, Jauna, cupi zaitenizaz; eta bata galdu banuan, ez eman bestea ere galtzeco lecu-*

(1) In Spec c. 5. (2) Cap XIV.

rie. Ah! Jaincoáe nola condenatuco du, Mariác amparatu, eta teragatic onela escatzen dion peccataria, Jaunac berác emanic semetzat peccataríac? Nie eman niozean semetzat, dirudi esaten duala bere Majestade jaincozcoac, eta berá añ da cintzo eta arretatsua, bere beargayan, non bere contura dauzcatzienetatic iñor ere galtzen uzten ezluan, batez ere berari deitzen badiote; baicic eta eguiten ditu eguiñat guciac oec nere adisquidetasunera biurtzeco (1); eta ñore ezagu lezaque nolaco outasun, urricaltasun eta amoreareaz artzen gaituan bere amparo eta escua escatzen degun gucian?

Auzpeztu gaiten bere oñ sagraduetan, laztan gaitzazquien béray uste eta confianza osoaz, eta ez gaiten andie quendu, bedeicatu eta bere seme-alabatzat ezagutu gaitzaneraño (1). Iñore ere eztezala galdu bere amorearen uste eta confianza; baicic eta bere animaren naitasun guciac esan deguiola: *Enc Ama eta Echeoandrea, nere peccatuacgatic ongui merecia det zuregandie bota, eta zure escutic cernay castigu artzea; baña vicia galduco nuqueala, banequi ere, saluatuco nazun ustea galdu bear ezdet. Uste ta confianza guci au zugar ipintzen det, eta bacarric zure imagiña baten aurrean zure urricaltasuna escatuaz hiltze utsarequin barcacioa irichi eta cerura egatuco naicelacoan seguru egongo naiz (2), zure laguntasuna escatuaz hill, eta zure bitar-*

(1) Lansperg. V. lib. 4. min. op. (2) Bernar. in Sign Magn. (3) Bonavent.

teotasunaren bidez salbatu ciran zure aimbeste ser-
vitzarirequiñ batera zu bedeicatzera. Iracur bedi on-
dorengo ejemploa, eta icusi, ea pecatari inore ere
galdu lezaquean Ama maitetsu onen urricaltasun
eta amoreaganaco uste eta confianza, berari biotzelie
deitu ezquero.

EJEMPLOA.

Historiaren ispillua deritzan liburuac contatzen
du, eceu Inglaterran Rodolfo-co uri edo erri andian
zala Ernesto ceritzan gazte bat eche guciz onecoa,
eta onec bere ondasun guciac bearrecoen artean za-
baldu, eta artu zuala erligioeo viciera comentu ba-
tean. An vici zala bere erragalac añ cintzo ta oso
gordeaz, non bere buruagoac guciz nay cioten, ba-
tez ere gure Ama Virgiñari cion berarizeo jayera gu-
cizeoagatic. Alaingoa zan bere vertutea, non erri
artan izurri edo gaitz hilgarri bat sartu, eta erri-
gendea erligiosoen laguntza eta oracio esque co-
mentura joan, eta comentuco buruzariac Ernestori
aguindu cion, joan cedilla Virgiña guciz santari be-
re amparo ta laguntza elizan bere aldarearen aurrean
escatzera, eta egon cedilla bertan, Ama maiteac
eranzun ceguioneraño. Ernestoc obeditu cion, eta
egoera artan iru egun igaro ondoan, Virgiña santac
aguindu cion, eguin citecela berac señalatzen cioz-
can erregu eta oracioac, eta izurri edo gaitza ala gue-
ratu zan. Baña guero Ernesto epeldu, eta abiatu ci-

tzayon etsaya cembait tentaldi gogaicarri bururaten, batez ere garbitasunaren contracoac, comentutic igues eguiteco burutacioquin batera. Doacabea, Mariagana bideguiñ etzualaco guerocean gueratu zan azpiratua, parete batetic igues eguiteco asmoa eguiñaz. Baña buruzpide galdu onequiñ, clastroan cegoan imagiña baten aurretic cijoala, Virgiña guez erruquitsuac itzeguin cion esanaz: *Ene seme, ¿cergatic uzten nazu?* Beldur andi batec artu, eta damutasun andiaz eranzun cion: *¿Ez dacusu, Andrea, ecin burutu diodala gueyago tentacioari?* —*¿cergatic zuc laguntzen estidazu?*—*Eta zuc,* esan cion ostera Virgiñac, *¿cergatic deitzen eztidazu?* *Baldiñ nigana bideguin bacenduan, ori guertatuco etzitzazun: aurreronzean au eguizu eta ez beldurtu.* Itz oequin indarturic, bere celdara itzuli zan. An berriro tentañiac eraso, eta nola orduan ere Virgiñagana bideguin expaitzuan, guerocean comentutic igues eguiñ, eta dembora guchiren buruan gaiztaqueri gucietara eman zan, pecatutic peccatura bideetaco lapur eguitera iristeraño. Guero landeche edo benta bat bere gañ artu, eta gaez angueratzen ciran bidezcoay vicia quentzen cien, cituzten diruac quentzearren. Eguin cituan eriotzen artean Gobernadorearen lengusu bati eman ciona izan zan, eta Jaun au, len cituan cembait aztarnen bidez abiatu citzayon procesoa eguiten. Garay onetan irichi zan bentara zaldun gazte bat, eta illunduzuan becela, Ernesto oy becela aren guelara joan zan berari vicia quentzeco asmoaz. Alderatzen zayo,

eta zaldunaren lecuari icusten du santo cristo bat
 oyean etzanta, eta once beguiratu gozatsu batequin
 esaten dio: *esquer beltzecoa, ¿asco etzazu ni zu-
 gatic beñ hiltzea? ¿Berriro vicia quendu nay di-
 dazu? Bada escua luzatu eta egolzi zadazu erio-
 golpea.* Ernesto arri ta zur eguiñ, ta lotsaturic,
 abiatu zan negar samiñac eguiñaz santo Cristori esa-
 ten: *Ona non naucazun, Jauna; niganaco or-
 rembesterañoco erruqui eta misericordia aguert-
 zen dezun ezquero, zugana biurtu nay det,* eta
 balere luzapenic artugabe, comenturaco bideari equin
 cion. Baña bidean justiciacoac escuac egotzi, eta oec
 juezaren aurrera eraman, eta here gaiztaqueri guciac
 an aitortu, eta béracgatic urcatzeco epaya eman cio-
 ten, baña añ presacacoa, non bere pecatuac confesat-
 zeco ere lecuric eman etzioten. Errucarriac orduan,
 bere eguiñal guciac Ama urricaltsuagana bideguiñ,
 eta sócac lepora botatzen ciozcaten unean Virgiñac
 eriotzetic gorde, guero socac quendu, eta esan cion:
*Biur zaite comentura, eguizu penitencia, eta zure
 pecatuen barcacioa escribituta iduquico duan
 chartel bat escuan icusi deguidazunean, presta
 zaite hiltzeco.* Ala eguin zuan: guertatu gucia co-
 mentuco buru nagusiari contatu, urte ascotan peni-
 tencia látzac eguin, eta ayen buruan icusi zuan Vir-
 giña guciac gozoaren escuetan paper bat. Lengo gaz-
 tigu edo avisoa gogoraturic eriotzeraco prestatu, eta
 guciac ondo hill zan,

ORACIOA.

¡O ceru-lúrretaco Erreguiña, Jaincoaren diñaco Ama! nere ecerezaren eta pecatu ugarien ezagüerac quendu bear liraquee zugana urreratzeco eta zuri Amaren icenaz deitzeco animo ta biotza. Baña nere zorigaitz eta miseria alaingoac diralaric, andia da Ama deitzean artzen dedan poz atseguñ, uste, eta confianza ere. Ondo daquit guciz merccia dedala, zuc ceregandic ni botatzea, baña humiltasun guciaz escatzen dizut, beguira zazula cer nigatic zure Seme jaincozopac eguin zuan, eta orduan bota nazazu al badezu. Eguia da eztala nic aibat Jaincoa ofenditu duan pecataric; baña gaiztaqueria eguiña dagoanez gueroz ¿cer bide gueratzen zat, ezpada zugana, lagun deguidazuquean orrengana bideguitea? Bay, ene Ama, lagun zadaza, eta ez arren esan: *ecin det*, ceren guci gucia dezaquezuna ceran, eta Jaincoagandic nay gucia iristen dezun. Ez ezazu ere eran-zun, *nay ez det*, edo ta esanguidazu norgana bideguin bear dedan nere zori gaitzaren erremedio esque. Jauna, edo urrical zaite pecatari dichagabe onezaz, eta zuc Ama maitea erregu zazu beragatic, edo ta eracus zaizquietzu uste eta confianza andia-goaz billa ditzaquean beste urricaltsuagoren batzúec. Zu, ó ene Jesus, nere Aita cera; zu, ó Maria gozoa, nere Ama cera. Cembatpecatarioc dichagabeagoac, aibat maiteago gaituzute, eta contu eta ar-

ret andiagoaz billatzen gaituzute, salbatzeco. Ni naiz betico eriotza mereci dedana, ni naiz guizon gucien urricalquizuena; guciaz ere, ezta ni billatu bearrie, ezta ere au orañ escatzen dedana, alabaña nere gogoz lasterca noa zuen óñetara. Emen naucazute; ez naiz izango gaur-guero dichagabea, ez naiz gueratuco lotsatua. Ene Jesus, barca zadazu; ene Ama, erregu zazu nigatic.

II. en BURUA.

Vicitza ta gozotasuna.

I.º §.º

Maria da gure vicitza, iristen digulaco pecatuen barcacioa.

Cergatic Eliza santac aingueruen Erreguiniari vicitza deitzen dion ezagutzeco jaquin bear da, eeen anima dan becela gorputzari vicia ematen diona, Jaincoaren gracia dala animaren vicitza, ceren Jaincoaren graciagabeco anima bat, viciaren icena badu ere, izatez hilla dagoan, Escritura sagraduco Apocalipsi deritzan liburuan bati esan eitzayon becela: *Viciaren icena dezu; baña hilla zaude* (1). Eta

(1) Apoc. 5.

ret andiagoaz billatzen gaituzute, salbatzeko. Ni naiz betico eriotza mereci dedana, ni naiz guizon gucien urricalquizuena; guciaz ere, ezta ni billatu bearrie, ezta ere au orañ escatzen dedana, alabaña nere gogoz lasterca noa zuen óñetara. Emen naucazute; ez naiz izango gaur-guero dichagabea, ez naiz gueratuco lotsatua. Ene Jesus, barca zadazu; ene Ama, erregu zazu nigatic.

II. en BURUA.

Vicitza ta gozotasuna.

I.º §.º

Maria da gure vicitza, iristen digulaco pecatuen barcacioa.

Cergatic Eliza santac aingueruen Erreguiñari vicitza deitzen dion ezagutzeco jaquin bear da, eeen anima dan becela gorputzari vicia ematen diona, Jaincoaren gracia dala animaren vicitza, ceren Jaincoaren graciagabeco anima bat, viciaren icena badu ere, izatez hilla dagoan, Escritura sagraduco Apocalipsi deritzan liburuan bati esan eitzayon becela: *Viciaren icena dezuz; baña hilla zaude* (1). Eta

(1) Apoc. 5.

Maria da peccatoriay Jaincoaren gracia irichiaz, vicitz eguiazcoa ostera ecartzen diena. Onela eracusten du Eliza santac, Proverbioetaco itz oec bere aoran ipiñiaz: *Nigana etortzeco goiztar dabiltzanac arquituco naute* (1). Eta goiztar ibiltzeac, alic lenen ibiltzea, esan nay du. Irurogueita amar azaldariac ipintzen dute: *Arquituco dute gracia*; alatan non, orobat dan Maria topatzea, nola ta Jaincoaren gracia berriro irabaztea. Eta liburu berac berañeago dio: *Ni topatzen nauanac, arquituco du vicitza, eta artuco du Jaunagandic betico osasuna* (2). Adi zazute, deadar eguiten du emen san Buenaventurac, adi zazute Jaincoaren erreinua nay cenduqueenoc: onra zazute Virgíña Maria, eta arquituco dituzute betico vicitza eta osasuna.

Senaco san Bernardino irichi zan esateraño, ecen Jaincoa irichi ezpazan peccatua ezquero guizarraza galtzera, zori oneco creatura oní orduraco cion amore ta naitasun besteri ez bocelacoagatic izan zala; eta seguru cegoala, bacarric creatura onegatic eman zuala bareucioa, eta eguin cituala aimbeste misericordia peccatariac antziñaco leguean (3). Onegatic encargatzen gaitu san Bernardoc, hilla dezagula gracia, baña Mariaren bidez bera izan zalaco gracia arquitu zuana, eta ala deitzen dio santuac: *gracia arquitu zuana: inventrix gratiæ*; eta onetan ipiñi zuan seguru aingueru san Gabrieleac, esanaz gure consueloraco: *Ez beldurtu, Maria, gracia arquitu*

(1) Prov. c. 8. (2) Prov (3) Tom 1. Serm. 61. cap. 8.

dezuta (2), ¿Baña nola esan al cezaquean aingueruác au, baldin Mariac beñere galdu ezpazuan gracia?, bada gauza bat len etzuanac arquitzen duala, esaten da eguiaz; eta Virgiña beti Jaincoarequin, beti graciarequin, eta oraindic graciáz betea egon zan, aingueru berác segurutu cion becela, esanaz: *Agur, Maria, graciáz betea*. Bada baldiñ beretzat arqitu ezpazuan, beti graciáz betea egon zalaco, ¿norentzat izan zan? Gracia galdu zuten pecatarientzat. Bijoaz bada lasterca Mariagana gracia galdu duten pecatariac, eta arquituco dute seguru graci au; bijoaz, eta esan bizayote: Andre Maria, galtzen dituanari biurtu bear zaizca gáuzac; joya preciatu au guc galdu guenduan (3), guri biurtu bear zagu. Jaincoaren añ gogoco izan zalaco, eta beti izango dalaco, baldiñ beragana bidegniten badegu, dudagabe arquituco degu billatzen deguna (4). Ama gozo onec berác Escritura sagraduan dio: *Ego murus, et ubera mea sicut turris* (2); da esatea, Jaincoác ipiñi zuala munduan Andre miragarri au, gure estalpe, gordelecu eta amparo izan cediñ. Escritura berean dio gañera, *arqitu zuala paquea Jaincoaren aurean* (3); eta itz oequin muguitu nay du san Bernardoc pecataria, esanaz: *zoaz eta erruquien Ama topatu eta aguer zayozcatzu cere animaco zauriac, bada berác escatuco dio bere Seme guciz santuari, barca deguizula, berari eman cion bular preciotsu argatic,*

(1) Luc. 1 (2) Ug Card. (3) Ricard. de San Laurent.

(4) Cant. 3. (5) Cant. 8.

eta bere Ama añ maite duan Semeac ezlu utzico ezungabe. Eta era onetan Eliza santac aguintzen digu esca deguiogula, sarritan esaten degun oracio artan: O Jaungoico urricaltsua, lagun zayozu gure argallasunari, gure Amaren bitartecotasunez, ceñaren oroipena berritzen degun, gure gaiztaquerietatic libratzeco.

Arrazoiz ta bidez san Lorenzo Justinianoc deitzen cion Ama maiteari gaizquilleen Ama, bacarric berac iristen dualaco barcacioa. Arrazoiz ta bidez deitzen cion san Bernardoc pecatarien escallera, bera dalaco erori guciay escua eman, eta leizondarretic atera eta Jangoicoagana berriro jasotzen dituana. Arrazoy ta bide ceducan san Agustiñ-ec pecatarien uste eta esperanza bacarraren icena Mariari emateco, bada bacarric beraren bidez uste guentzaque gure pecatuen barcacioa (1). Arrazoy ta bide san Juan Crisostomoc, san Agustiñec becela, eta arrazoy beragatic esateco, eguiñaz bere agurra gucion icenean onela: *Agur, Jaincoaren Ama ta gure Ama, Jaincoaren vici lecu dan cerua, era gucietaco graciac Jaincoac bertatic zabaltzen dituan jarlecu, erregu zayozu beli Jesusi gugatic, zure erregu eta escarien bidez, gueron contuac emateco egunean barcacioa eta guero betico zori ona irichi ditzagun* (2). Arrazoy ta bide dago, azquenic, egun sentiaren icenaz berari deitzeco (3), caren egun sentia gauaren bucaera eta egunaren asiera dan becela, Virginia

(1) Serm. 18 de Sanctis. (2) In. Off. Nat. B. V. die 5 (5) Cant. 6.

guciz santa izan zan vicio gucien ayenatzalle ta bucaera, eta jayo zanean munduari eman ciozcan on guci ayec beti ematen ditu, beraganaco jayera edo devocioa animan jayotzen dan gucian, bada gure peccatúen illunabárrac ayenatu, eta ipintzen gaitu vertutearen bidean. ¡O Ama! beñere aitzen eztana da zure amparoa, zure bitartecotasuna da vicitza, zure icena, devocioaz esaten duanarentzat, da edo orduraco vicitza daducalaco señalea, edo ta laster artu bear dualacoa (1).

Magnificat deritzan bere cantan aditzera eman zuan, guizaldi guciac deitu bear ciotela zorionecoa. Bay, Andrea, esaten dio san Bernardoc, guizaldi guciac orañ eta beti deitu bear dizute zorionecoa, ceren guciay eman diezun vicitza ta gloria, eta ceren zugatic arquitu bear duten peccatariaec misericordia eta justuac gracia (2). Peccataria, ez biotza erori, ez etsi, asma al ditezquean peccatu guciac eguin badituzu ere, baicic zoaz Mariagana, eta icusico dituzu bere escúac misericordi eta erruquiz beteac, eta cerorrec progatuta iguerrico dezu, andiagoo dala zuri misericordia eguiteco bere gogo ta zalea, zue artzecco daucazun gogo ta zalea baño (3).

Bere escuan dauca Jaincoac bareatueco dizun seguranza (4), baño beti jaquiñaren gañean, bere amparo ta laguntzaz valiatu bear guerala, Jaincoarequin adisquidetzeco, bada onela aguintzen digu

(1) S. Germ. Serm. 5. in Dorm. B. V. (2) Serm. de Nat. B. M. die 5. (3) Bern. de Bust. (4) Andr. Cret.

Jaincoác bere barcacios, eta segurutzen digu barcacio au prenda batequiñ. ¿Eta cer prenda da au? Jaunác berác bitartecotzat eman cigun Maria, bada bere bitartez, Jesucristoren irabaciaquiñ batera, beraganatzen diran guciáy Jaincoác barcatzen die. Santa Brigidae aingueru baten aotic aditu zuan, Legue zarreco demboretan ere poztutzen cirala Profetae Virgíña preciatu onen humiltasun eta garbitasuna zala bide Jaincoa bere aserre justua iciota ceucaten pecatariaquico gozatuta adisquidetuco zala jaquiñic (1).

Iñoiz ere eztu alabaña peccaríac Mariagana bideguiñ, eta Ama onec beregandic botaco duan beldur bear, ceren misericordiazco Ama dan, eta gure salvacioco cucha danac becela, peccaríen galduenac ere salvatzea vicíro nay duan, eta ceren bere mantuperatzen diranetatic iñor ere ecin galdu litequean. Mundu gucia estali zuan ujolde artan Noeren cuchan abereetarañocoac seguru egon ciran; eta Mariaren mantupean seguru gueratzen dira peccaríac. Beñgo batean santa Getrudis-ec icusi zuan Maria bere mantua zabaldu, eta leoy, artz, calamotz eta beste abere basatíac aren azpian gordetzen; eta Mariac ayec andic botatzetic urruti, guciac beregana artu, eta poz andiaz maitatzen eta goşatzen cituala; santac emendic ezagutuaz, ecen peccaríen galduenac ere, Maria billatzen dutenean, ez dituala onec beregandic botatzen, ezpada bere amparopean artu, eta libratzen

(1) Ejemp. de la S. Virgen.

dituala betico eriotzetic. Sar gaitean, bada, cuchi osasungarri onetan, gorde gaitean mantu sagradu onen azpian, eta arquiteco degu misericordia eta barcacioa, eta irichico degu salvacioa.

EJEMPLOA.

Aita Bovioc contatzen du (1), ecen Elena ceritzan emacume galdu batec, beñ elizan sartu, eta errosario santuaren alabanzac predicatzen sermoyan aditu, eta elizatic irtendacoan erosi zuala errosario bat; baña gorde ta ezcufuan oy cerabillela lotsaz. Guclaz ere abiatu zala errosarioa errezatzen, eta lenengotic devociogabe eguiten bazuan ere, guero alaingo atseguin contentu eta gozotasuna Ama Virginiac sarrera-zo ciola, non gueroz beti hura errezatzen jardun nay zuquean. Onequin bere viciera galduaganaco alaco gorrotoa sortu citzayon, non iñon ere onic etzuan, confesatzera joateco borehatua becela bere burua sentituaz. Confesatu zan, confesorea arritzerañoco damutasunaz. Confesatu ondoan aldare baten aurrean Ama maiteari esquérrac ematera joan, bere errosarioa an errezatu, eta Ama erruquitsuac bere imagiñaren aoz esan cion: *Elena, asco da peccaturic; gaurdanic ar zazu viciera berri bat, nic lagunduco dizut.* Itz oequin lotsaturic, eranzun cion: *¡Ay Ama! eguia da guciz gaiztoa izan naizala orañ-*

(1) Ejemp. de la S. Virg.

daño; baña zuc, gucia dezaquezunac becela, lagun zadazu; zure escuetan jartzen naiz; eguingo del nere viciac dirauñ arte gucico penitencia. Asmo sendo onequin elizatic irten, zuan gucia saldu, bearrecoen artean zabaldu, eta artu zuan penitencia gogorrezo viciera bat. Tentaldi guciz portitzac ce-tozquion; baña Virginiagana bideguiñaz, guciac azpiratzen cituan. Onela irichi zan demboraz ceruticaco mesedéac merecitzeraño, nola ere diran, ceruco gáuzac icustea, misterio edo gauza gorde-ezcutuac aguertzea eta gauz etorquizunac asmatzea. Gueroe-nean bere eriotza baño lencheago (ceñaren berri Ama guciz santac eman cion) aguertu citzayon Ama biguña bere Seme jaincozcoa lagun zuala, eta hill zan unean, an ceuden persona batzuec icusi zuten nola pecatari aren anima uso eder baten irudian egan ce-rura cijuan.

ORACIOA.

¡O Juangoicoaren Ama eta nere esperanza bacaral ona emen zure oñetan zure urricaltasun esque dagoquizun pecatari dichagabe bat. Eliza guciac erabat *pecatarien Ama* esaten dizu. Bada ala bacera, zure amaropean jartzen naiz, zuc salvatu bear nazu. Ongui daquizu cembat zure Seme guciz amorezcoac nay duan nere salvacioa, eta cembat salvacio onegatic eraman zuan. Gaur esqueñtzen dizquitut bere neque-oñace ta pena guciac; Belen-go

gambelaco narrugorritasuna, Egiptora-co joaera artaco neque gogórrac; bere vici gucico neque-izerdiac; iñuri zuan odola; eta gurutzean hiltzeracoan zure aurrean eraman cituan dolore miñ eta pena garrátzac. Aguer zayozu mundu guciari niri lagunduaz, cembaterañoco naitasuna diozun cere Semeari; bada zuc diozun amoreagatic escatzen det zure valimentua. Emanguiozu escua urricalkizun dagoan erori bati. Baldiñ justua banitz, ez nitzaque egongo misericordi-esque; baña nola pecataría bainaizan, billatzen zaitut zu misericordiazco Ama becela; eta alabaña setaz eztauden errucarrien laguntzean dauca zure biotz amoretsuac bere poza, gaur eman eñiozaque poz au, eta niri atseguin-contentu gucizcoa, bada pecataria, eta betico pénac mercei ditudana naicelarie. Jaincoaren erruquiari esquerrac, oraindic ez nago seta gaiztoan gogortua. Esaguidazu, Ama maitea, cer eguin bear dedan, eta irichi zadazu orretaraco indarra. Nere aldetic prest nago galdutaco gracia berriz neretzeco eguin bear dan guciraco. Zure mantupcan jartzen naiz. Nic zugana bideguita nay du zure Seme guciz santuac, beraren Ama cerata, beraren odolpreciatu eta zure erregu indartsuen vertutez nere salvacioaren gloria biona izan dediñ. Berac bialtzen nau zugana, zuc lagun deguidazun. Ona non naucazun, zukan daucat nere ustea. Besteagatic escatzen dezun ezquero, nigatic ere itz bat bederic esazu. Esaguiozu Jaunari nere salvacioa nay dezula, eta salvatuco nau. Esaguiozu cerea nazula, eta asco zat,

**Virgiña santã da gañera gure vicitza, ceren onean
irauteco gracia iristen digun.**

Onean irauteco gracia doay añ andi ta maitagarria da, non guizonéc onelacoric mereci eztuan, alabaña da doaricacoa, Elizac Trento-co Concilioan azaldua daucan becela. Gucliaz ere san Agustinec eracusten du, irichi litequeala oracioaz, eta seguru alere, dio gañera Suarez-ec, baldiñ utsunegabe eta beti escatzen badegu azqueneraño; bada Belarminoc dionez escatu bear da egun oro, egun oro irichi al izateco. Ondo bada; gucyenen iritzia, eta nere ustez iritzi segurua, laugarren buruan aguertuco dedan becela, izanic, Jaungoicoac guizónay eguiten dizten mesede ta on guciac Mariaren escutic ematen diztela, ezta cer dudatu, beraren bitartez irichico degula onean irauteco gracia edo doaya ere, ceñabaitan gracien andiena. Bay, irichico degu graci au, confianza ta uste osoaz beti Mariari escatuta. Mariac berac ala promesten die berá leyalqui servitzen duten guciay, eta eciñ utseguin lezaquean Eliza santac ipiñtzen ditu bere a oan au segurutzen duten itzac: *Qui operantur in me, non peccabunt; qui elucidant me, vitam æternam habebunt* (1).

(1) Eccles. 24.

Eriotzeraño grácian irauteco, etsayaren erasoáy burutzeco, espirituco indarra bear degu, eta indar au bacarric Mariaren bitartez iristen da. *Nerea da sendotasuna* (1) *Jaincoác nere escura utzi du doay au, nere servitzariay eman deguedan. Ni naizala bide errequinatzen dute errequeác* (2). *Nere laguntzaren bidez zucentzen dituzte nere servitzariac beren sentierac, escuratzen dituzte bēren grīna macurrac, eta eguiten dira beti beti erreinatzearen diña.* ¡Oh cer indarra, Señora andi onen servitzariac bērengan barrundatzen duten tentaldi guciac garaitzeco! Maria da armaz ta defensasaz ingurututaco torre sendo hura, non anima levālac dauzcaten armac ugari latzqui peleatu, eta bēren etsay guciac azpiratzeco.

Ematen zayo ere platanoaren icena (3), ceren platanoac osto andi eta ezcutarma diruditenac dituan. Onequin ondo aguertzen da, nolaco firmetasunaz Mariac bere seme-alābac gordetzen dituan; edota bidezcoác eguzquiaren berotasunetic eta euritic arbol onen ostopean gordetzen diran becela, Mariaren mantupean arkitzen dutela guizōnac ere grīna gaiztōen bero aldi, eta tentaldien indarraren contraco gorde lecuā (4). ¡Gordelecu añ segurutic urrutiratzen dan aren zori gaiztocola! ¿cer guertatoco litzaque, baldin eguzquia aitu edo paltatuco balitz? ¿Orduan cer litzaque munduaz, ezpada naspilla illun eta

(1) Infesto Concept. (2) In festo B. Mariæ ad Nives. (3) Eccles. 24. (4) B Amad Hom §.

izugarri bat? Gal beza animac Mariaganaco devocioa, eta bereala estalico da illunabarrez, bacarrie piztia izugarria, au da pecatua eta demonioa vici diran illunabar ayez (1). ¡Ay eguzqui onen arguitasuna eciñ eraman duten, eta Mariaganaco devocioa ecer-tan ez daucaten ayen errucarriac! Arrazoy ta bide-ric ascorequin guciz duda andia eguiten zuan Bor-jaco san Franciscoc, Ama maitagarri oneganaco de-voicio bereci bat icusten etzien persónen iraupenaz. Egun batez galdetu cien novicio batzuey, ea héren jayera andieneco santuac ceñ ciran: eta Virgiña san-taganaco andiago bat béretaco iñore etzuela oarturic, ipiñi zuan contuan héren maisua, esanaz, egon cedi-lla ernay, eta ala guertatu zan, bada dichagabe ayec erligiotie irten ciran.

Arrazoy ta bide ceucan san German-ec ere cristau gucien arnasa Mariari deitzeco; ceren baldiñ gor-putza ecin vici bada arnagabe, animac ere ecin gorde lezaquean graciaren vicitzá, graci au seguru iristen digun Mariaren bitartez ezpada.

Egun batez Alano doatsuari tentacio gogor batec erasota, Virgiña maiteagana bideguiñ etzualaco, e-rortzer arqutu zan; baña Ama miragarria aguertu, eta urrengo batean oartuago ta ernayago izan cediñ, masalleco bat ematen ciotela sentitu zuan, esaten ciola Virgiña santac: *Baldin nigana bidequin ba-cenduan, orrelaco perillean icusico etziñan.*

Contrara, Mariaren otsa enzun, eta bere argui

(1) Ps. 403.

eta laguntza escatzera bere misericordiaren ateetara egun oro dijoana, izango da zorionecoa (1). Argui ugaritsúac eta berealaco laguntza emango diozca Mariác bere aztura eta oitura galduetatic irten eta vertutearen bidera biurtzeco.

Inocencio irugarrenac guciz ederqui esaten du, Maria dala gaucan illarguia, goicean egun sentia, eta egüerdian eguzquia (2). Illarguia pecatuaren illunpean itsu vici danarentzat, bere animaren egoera errucarria eta condenatzeco perill urrecoa icusi ditzan, bere anima arguituaz; egun-sentia, arriscu eta perilla ezagutzen abiatzen danarentzat, berriz gracia beretzen laguntzeco; eta eguzqui guciz arguia Jaincoaren gracion dagoanarentzat, pecatuaren leizon-darrera berriz amildu eztediñ. Elizaco maisúac Mariari egozten diozcate Escritura sagraduco itz ayec: *Bere chibisteac lotura osasungarriac dira* (3). ¿Eta cergatic chibiste eta loturae? Ceren lotutzen dituan bere devotoac oec beragandic iguesegiñ, eta oitura galduen campo zabaletan gald i ez ditecen (4). Dago santuen betetasunean jarria, ceren santuen erdian vici dan, eta oei, atzera itzuli ez ditecen, custen dien, eta erori ez ditecen gracia gordetzen dien, eta oei gaitzic eguiñ ezteguien, deabrua lotutzen duan (5).

Mariaren devoto guciac soñeco bi dauzcate (6); Au da, Jesucristoren vertuteac eta Mariarenac, Cor-

(1) Prov. 8. In festo Concept. (2) Serm. 2. de As. (3) Eccles. 6. (4) Laurent. Just. (5) Bonavent. in Spec. (6) Prov. 31.

nelio Alapidec guciz ederqui eracusten duan becela: eta onela jantzita ondo vici eta ondo hiltzen dira; orregatic añ viciro encargatzen cituan aimbeste bider san Felipe Neric bere penitenteac, esanaz: *Semeac, onean iraun nay badezute, izan zaitezte Maria guciz santaren devoto*, eta orobat esaten zuan Berchmans Veneragarriac ere, len esan degun becela. Chit ederqui beguietaraten du seme ondatzallearen parabola Rupertoc, orañ dioguna obeto adirazteco. Dio, ecen, baldiñ izan balu ama, ceñ da buru gaiztoco setatsua zan, etzala joango bere aitareren ehetic, edo ta ascoz lenago biurtuco zala eche-
ra: onequiñ aditzera emanaz, ecen Mariaren seme edo alaba izateco suerte ona duana, edo iñoiz ere eztala Jaincoagandic urrutiratzen, edo ta onelaco zorigaitza guertatzen bazayo, laster biurtzen dala beragana Ama maitatsuaren bidez.

¡Oh baldiñ guizon guciac maite balute Ama añ onguille eta amoretsu au; baldiñ tentacio gaiztoa sentitu orduco corrica bere besoetaratzen balira! ¿nor secular erorico litzaque? Bacarric berari deitzen eztona galtzen da. San Lorenzo Justinianoc berari egozten diozca Escritura sagraduco itz ayec: *Itusoco olatuen gañean ibilli zan* (1), esango balu becela: *ni nere servitzariaquin arquitzen naiz ecaitzen erdian oyey lagundu eta oyec betic galtzetic libratzeco.*

Bustoco Aita Bernardinoc contatzen du, ecen

(1) Eccl 24.

choricho batl eracutsi ciotela esaten: *Ave Maria*; eta alaco batean cabiray bat chóri au atzitzera ceterrela, chorichoac, oy becela, *Ave Maria* esan, eta cabiraya hillotz erori zala. Bada baldiñ egazti-choa cer cion etzaquiala eriotzetic libratu bazan, asco guevago uste bear du persona ezagüera dun batec, baldin biotzetic deitzen badu Ama maitearen icen gozoa, animen etsáyac erasotzendiotehean. Tentacioa barrunda danean, ezta cer beste gáuzic eguiñ, ezpada bere bereala Mariaren mantupera igues eguitea, mirua datorquienean chitachoac beren amaren egapera igueseguiten duten becela. Zuc, Ama maitea, gordeco gaituzu, ceren eztaucagun Jaincoaz ateronzean zure amparo ta estalpea ezpada beste esperanzaric (1).

Azquen dezagun san Bernardoren itz añ eztitsu ayequin (2): *¡O zuc, nornay cerala, beguirozu, ecen vietze onetan ez lurraren gañean seguru, baicic ichasoco ecailz eta arriscu gogórren artean bideguiten dezula. Ondatua gueratu nay expadezu, beguira zazu izarra, dey zayozu Mariari. Pccatu eguiteco perilletan, tentacio leyatu gogaicarrietan, duda gucielan, pensa zazu Mariac lugun dedizuqueala, eta dey zayozu bereala. Egon bedi beti zure biotzean bere icena uste eta con fianza osoarequiñ, nola ta mingañean, beti berari deituaz. Baldiñ berari bazar-*

(1) Thom. de Villam. Serm. 5. de Nat. Virg (2) Hom. 2. super Missus.

raizca, eztezu utsegingo salvacioraco bidea. Beragana bideguiten badezu, eztezu galduco uste eta confianza. Berg escutic bazauzca, etzerra erorico. Berac amparatzen bazaitu, etzera izango eceren beldur. Berac bazaramazqui, nequegabe irichico cera portura. Itz batean, baldin Mariae artzen badu bere gañ zu gordetzea, irichico dezu secula gucielaraco zori ona.

EJEMPLOA.

Sonatua da santa Maria Egipciaca-ren condaira eremuco Gurasoen vicitzac dacaizquien liburuetatic lenengoan contatzen dan becela. Bere amabi urtetan bere gurasoen ehetic igues eguiñ, eta joan zan Alejandriara, non bere viciera galdu galgarriaz erri andi guci aren gaitzbide eta escandalo zan. beste amasey urteren buruan erri artatic irten, eta ormen ibilliaz irichi zan Jerusalem-a, gurutze santuaren pesta eguiten zan garayan, eta gende asco elizan sartzen icusita, jayeraz baño icusimiñez gucyago, an sartu nay izan zuan; baña atean sentitu zuan, agairi otzan escu batec gueraeracitzen zuala. Berriz ere sartzera sayatu, eta herebat guertatu citzayon, irugarren eta laugarren aldiraño ere. Orduan dichagabeac eliz-atarico zoco batera baztertu, eta bere viciera galduac elizatic botatzen zuala ceruticaco arguiac ezagutu zuan. Beguiac jaso, eta icusi zuan bere aurrean, bere zori onean Maria guciuz

santaren imagiña bat, eta abiatu citzayon oni negarrez esaten: *¡O Jaungoicoaren Ama, urricat zaite pecatari onezaz. Zue beguiratzea mereci eztet; guciatz ere zu pecatarien gordelecua cera; ampara nazazu, gorde nazazu, socorri nazazu zure Seme guciz santu Jesucristoren amarez. Eguizu ni elizara sartzea, eta artuco del viciara berria, eta joango naiz penitencia equitera zue aguintzen didazun noranay.* Orduan euzun zuan imagiñarena cirudian barrungo voz bat, esaten ciona: *bada, ontzeco asmoaz nigana zatotz, sar cindezque.* Sartu, eta negar ugariac isuriac, gurutzę santua adonatu, eta imagiñagana biurturic, esan cion: *Ona non naucazun prest, Andrea, ¿nora nay dezu ni baztertzea? zoaz Jordanen beste aldera,* eranzun cion imagiñac, *eta an arquituco dezu cere sosegua.* Confesatu ta comulgatu, eta ibayaz aruntz igaro, eta irichi zan mortura, eta anche gueratu bear zuala, iguerri zuan. Lenbico amazpi urteetan demonioen eraso latz portitzac eraman bear izan cituan; baña beti Ama Virgiñagana bideguin, eta guciay burutzeco laguntz eta indarra Ama maiteac iristen cion. Gueroenean berroguey ta amazpi urte bacar artan igaroric, berac laroguey ta zazpi ceuzcan garayan, Jaincoac ala naita, topatu zuan emacume an Abade Zocimoc, eta oni bere vicitza gucia contatu, eta urrengo urtean comunio sagradnarequin etorri cequiola, erre-gutu cion. Zocimoc ala eguiñ, eta cetorren beste urteraco ere ori berac escatu cion, Orduan ere Zo-

cimo etorri zan; baña arquite zuan hillotza, baña ceruco argui ederrez ingurutua, eta paper batean Maria zanae bere escuz escribitutaco itz oec: *Eman zayozu emen lurra peccari onen gorputzari, eta esca guiozu Jaincoari bere animagatic.* Onetan leoy bat lasterca etori, onec bere atzapáraz zulo bat eguiñ, eta santuac gorputza an sartu, eta bere comentura itzuli, eta zori oneco penitente arquin Jaincoac eguin cituan misericordiac guciay contatu cizten.

ORACIOA.

¡O Ama erruquitsu, Virgiña guciz sagradua! ona non daucazun cere óñetan, Jaincoaren gracia aimbeste bider despreciatuaz, Jaincoari ta zuri salduqueria eguin dizuten esquer beltzeco peccaria; baña nere miseri andiac ez dit galerazten uste eta confianza; baicic eta ematen dit andiagoo, ceren onela zure urricaltasunaren señaléac ere andiagooac izango dirala, uste dedan. Ezagüeraci zayozu mundu guciari, zugana bideguiten duten gucientzat, biotz beraa eta onguille guciz oparoa ceran becela, neretzat ere ala cerala. Asco da, Amá maiteá, zue niri erruquiz beguiratzea, ceren niri beguiratu ezquero ecin ceundequean lagundugabe. Eta baldiñ zue laguntzen badidazu ¿ceren beldur izan al niteque? Eceren ere: ez nere peccatuen, ceren eguiña dagoan gaitza zue sendatu eta erremediatu dezaque-

zun: ez infernuco etsayen, ceren infernu gucia baño indartsuagoa ceran: ez nere contra añ aserretua da-goan zure Semearen aserre bidezcoaren ere, ceren zue itz bat bacarra berari esate utsa ascoco dan bere aserrea gozatzeco. Bacarric tentacio-aldietan zuga-na bideguita nere culpaz utzi eta onela galduco ote naizan beldur naiz. Baña gaur aguintzen dizut, bideguingo dedala, eta escatzen dizut, lagun zada-zula arren au eguiten. Orra errucarri bati lagun-duaz cere biotz samurrari poz andia emateco cer derech ederrá etorri zatzun. Zugan ipintzen det nere uste eta confianza gucia; irichi zadazu nere pecatúaz negar eguiteco gracia, eta berriz pecatura ez biurtzeco indarra. Eri nago, baña cere escuan daucazu ceruco sendagaya. Nere pecatúac utzi ba-naute quemengabe, zure laguntzac eguin nazaque indartsu ta sendo. Azquenic, guci gucia uste det zure escatic, ceren Jaincoarequico gucia dezazu-quean.

III. en §.ª

Gozotasuna.

Mariác bere devotoay gozo eguiten die eriotza.

*Adisquideác dembora gucietan maite izaten du,
eta ezbear eta gaitzegoquietan ezagutzen da seni-*

dea, diote Proverbioac (1). Baña munduco adisquideac, nola izaten ez baitiran eguiazcoac, bacarric ongui gueran bitartean irauten dute, eta gaizqui icusten gaituztenean, eta arcago dana, eriotzeco orduan, uzten gaituzte. Ordea Mariac bereaquin onela eguiten eztu. Vicitzaco neque-trabaju gucietan, eta batez ere eriotzeco estura larrietan, ceñac baitiran negarrezco vicilecu onetan ditezquean andienac, bere servitzari maitéacgandic aldeguiten eztu, eta baldiñ eguiten baditugu cristau baten eguinquizinac, eraratzen digu eriotz gozo eta zorioneco bat. Ceren ceruraco señalatuac dauden gucien Jaun eta Buruaren eriotzean alaño dolore miñaquin Calvarioan anche beguira quendugabe egon zan egun andi artatic bere servitzari guciay eriotzean laguntzeco escu eta derechoa irabaci zuan, eta onen bidez erausten digu Eliza santac Aye Marian sarritan esaten: *Erregu zazu gu pecatariocgatic, orañ eta gueron eriotzeco orduan.*

Andiac dira hiltzen dagoanaren estura-larriac, bay igaroco vicitzaco pecatuac uzten dituzten quezca eta bildúrreacgatic, bay laster eman bearco duan contu estuarenagatic, eta bay salvatuco ote dan edo ez, iduquico duan dudagatic. Orduan infernu guciac, beste iñoiz baño viciroago armatu eta erasotzen du anima hura eternidadearen ateetatic artzeco demborra guchi gueratzen zayola (2), eta anima hura orduan galtzen bazayo, betico galtzen zayola, icusita;

(1) Cap. 17. (2) Apoc. 13.

eta leya añ andiaz vicitzan perseguitu guiñduan tentatzallea orduan ez da asetzen, bacarric etortzeaz, baicie ecartzen ditu berequin beste lagun tentatzalleasco (1). Amar milla etorri bide ciran san Andrés Avelino bere eriotzeco orduan tentatzera, béraquin pelea añ latz eta portitza eguiñaz, non bere ingurucó erligiosai laborria sartzen citzayen, bere vicitzan iracurten dan becela; bada icusi zuten bere arpeguia oso buyatu eta bezfutzen, bere alderdi guciac icara eguiten, ezúrrac carrasca-otsa eguiten, negarrezco iturriac iñurtzen, eta bazter guciac buruaz jotzen; guciac orduco bere pelea latz izugarriaren señaleara aguiriac. Guciac bere erruquiz negarrez ceuden, béren erregu eta escariac gueituaz, eta dembora berean santu bat guis artan hiltzen icusteaz arrituric ceuden; bestera poztutzen baciran ere aur-rean ceucan Maria guciz santaren imagiña eder bategana beguiac noizean beñ jasotzen cituála, icusita, eta estura larri artan Ama gozo au izango zuala bere amparo ta gordelecu, ascotan esan zuala, gogoratuta. Jaincoaren ontasunac ala naita, pelea izugarri artan berearequin irten zan, ceren gorputzeco icara gueratu, bere araguiac desbuyatu, eta arpeguiac lengo colorea arturic, samurtasun andiaz imagiñari beguira jarrita, uste danez orduan aguertu citzayon Ama maitcari esquerrac emateco burua macurtu, eta beraren beso amorezcoetan gozotoro hillic, ceruco gloria beticoetara

(1) Isai 15.

egatu zan. Eta orduan bertan, bera ere azquen-arnasetan cegoan capuchinoen ordenaco moja battec, berari laguntzen ciarduten mojaegana beguiratu, eta esan cien: *Erreza zagan Ave-Maria bat, ceren oranche santu bat hill dan.*

¡Oh cer eguia dan, Maria dagoan lectie igues dijoazela etsáyac! Baldiñ ordu estu artan gure alde badegu Maria ¡cer beldur eman lizaguquec infernuco etsay guciac? David, eriotzeco estura larrien beldurrae arturic, etorri bear zuan Erredimitzallearen, eta bere Ama izango zanaren irabaci eta merecimentuetan poztu ta indartzen zan. Dio: *Eriotzaren hillunpean barruna joan nadiñean, zure cigorrác, Jauna, eta zure maculuac consolatuco naute* (1). Cardenal Ugoc dio, maculuac adirazten duala gurutzeco arbola, eta cigorrác Mariaren bitartecotasuna, Isaias profetac aldeaurrez aditzera emandaco cigor loratua, esanaz: *Jeseren sustraitic* (au da Jeseren seme David-en familiatic), *irtengo da cigor edo mola bat eta mola onetatic lore bat* (2). Izatez indar andico cigorra da Maria, infernuco etsayen catazeca ta leya guciac azpiratu eta apurtzen dituan cigorra (3). Eta baldiñ hera gure alde bada ¡nore eguingo digu contra? (4) Jesusen Compañiaco Aita Manuel Padiali, hiltzen cegoala, Maria aguertu, eta gozotasun ezti batez bere biotza beteaz, esan cion, *Gueroenean ere irichi da*

(1) Ps. 22 (2) Cap. 11. (3) Serm. de Ass. B. V. (4) S. Antonin.

ainguerüac béren poz-eracutsia zuri eguiteco ordua, cantatuaz onela: ¡O zorioneco neque-trabajüac! ¡O penitenci ondo orduñduac! eta une berean irten zan andie etsay samalda izugarri bat, amorratzen, deadar eguiñaz: *¡Ay eta ecin degula ecer! Mancharicqabeac gordetzen duta* (1). Aita Gaspar Hayevot-i ere eriotzeco estura larrian fedearen contraco tentaldi portitz batec eraso cion; baña herotasun andiaz Virgüñagana bideguinta, aditu çitzayon deadarca esaten: *Esquer-rác zuri, ene Ama, niri loguntzera zatozela-co* (2).

San Buenaventurac segurutzen du, Virgüña santac ordu artan bialtzen duala ainguerüen buru san Miguel ceruco bere soldadu guciaquin, beraren devotóac gorde, oen animac berengana artu, eta triunfoan cerura igo ditzaten (3). Eta Isaias-ec dion becela (4), infernu gucia orduan muguitu, eta deabruric gaiztoenac bialtzen baditu ere aren anima tentatzeco aguindearequin, eta guero Jaunaren tribunalean salatzecoarequiñ, baldiñ anima hura Mariác bere amparopean iduqui duana bada, ez dutela izango aimbeste eguiteco ausardiaric; Ama onec bere mantupean iduqui dituan animetatic bat bera secular condenatu eztala, eta condenatuco eztala jaquiñic, eta gañera aimbeste bider icusi dutelaco anima oyey bidera irten, eta

(1) Patrig. Menol. 23 April. (2) Menol. (3) S. Bonay in Spec. B. V. cap. 5. (4) Cap. 14.

Jainco Juezaren aurrera laguntzen (1), guciac bere mantupean gordeaz, eta onela béren salvacioco epaya seguru irichiaz (2). Onela eguin zuan santa Brigidaren seme Carlosequin (3), ceñaren eriotzaz ama guciz beldur zan, bere ondotic uruti, eta soldadutzaco viciera perilltsuan hilt zalaco; baña Maria guciz santac aguertu cion, berari beti izan cion jayera ta nailasuna zala hide salvatu zala, eta onetaraco berac eriotzeco orduan lagundu ciola, cristau batec orduan eguin bear duan gucia burura emanaz. Dembora berean icusi zuan Juez goyena bere tronuan jarrita, eta demonioac izan zuala, bere Ama guciz santaren contra espaasun bi emateco ausardia. Lenengoa: hiltzera-coan Carlos tentatzea galeraci ciolacoa; bigarrena: Carlosen anima Mariae berac juezaren aurrera eraman, eta demonioari anima hura berea zuala aguertzeco lecuia bederie emangabe, salvacioa irichi ciolacoa. Baña Jaunac demonio hura bere aurretie bota, eta Carlos triunfalari ceruan sartu zan.

Bere loturac lotura osasungarriac dira eta azquen-orduan berogan arquiteco dezueredescant-sua. Doatsu, zu, ene anaya, baldin ordu arc Mariaganao amorearen catea atseguinaz lotua arquitezen bazaitu! Cate oec betico zori ona segurutzen dizuten salvacioco cateac dira, eta aldeaurrez progeracico dizute betico descantsuaren asiera dan

(1) Ricc. ap Pep. tom. 5. lez. 244. S. Hier. ep. 2. ad Eust.

(2) S. Vinc. Ferr. (3) Lib. 7. Rev. cap. 15.

paquea zoragarri hura. Aita Benettic Mariaren do-ay ederren gañeco bere liburuan contatzen du, (1) ecen berá Mariari jayera gucizcoa cion guizon bati ondo hiltzen laguntzen eiardula, guizon arc hill baño lenšeago esan ciola: *Aita, ¡baldin baciña-qui cer poza ordu onetan ematen didan Jaincoaren Ama servitu izanac! Eztet arquitzen au a-guertzeco itzic.* Eta Aita Suarez ere, Mariaren guciz devoto izan zalaco (aimbesteraño, non esaten zuan, ecen Ave Maria baten irabaciagatic bere jaquintasun gucia trucatuco zuqueala) alaingo atseguin contentuaz hill zan, non azquen-arnasetan cegoalaric, ciotsan: *seculan usteco ez nuan onen atseguina zala hiltzea.* Atseguin-contentu bera zuc ere progatuco dezu dudagabe, baldin orañ maite badezu Ama on au, bada berá eciñ legoque bera sarritan visitatuaz, bere errosario santua errezatuaz, bere honran barrantuaz, eta batez ere berac egvindaco mesedeen esquerrac emanaz, eta eguiaz eta benaz bere amparo indartsua escatuaz bera leyalqui servitzen duten amatzalleay lagundugabe.

¶ Noizbait peccatari izateac ere ez dizu galeracico consuelo au, baldin bertatic viciera berri on bat artu, eta biotz iracequiaz bera servitzen asi nay badezu; eta zu beldurtu eta atzeraeracitzeco demonioac bururaco dizquitzun tentaldi eta estura larrietan, Ama guciz esquertsu ta onguille onec indartu eta alaituco zaita bere laguntzarequin, eta

(1) C. 51.

oraindic bera etorrico zatzu, ordu artan zuri la-
 guntzera. San Pedro Damianoc contatzen du, ecen
 bere anay batec antziñaco bere pecatuen beldurrac
 artu, eta Virgiña santaren aldare baten aurrean
 jarriric, bere burua Mariari bere esclavotzat esque-
 ñi, eta onen señalez cinta bat lepoan lotu, eta esan
 ciola: *Ene Ama maitea eta garbitasunaren is-
 pillua, nic peccatari gajo onec, garbitasuna loi-
 tuaz ofenditu cinduztedan Jaungoicoa eta zu:*
orañ etzat gueralzen beste erremedioric, ezpada
nere burua zure esclavotzat ematea. Ona non
naucazun, zure servituzura escañtzen naiz beti-
beliraco: ar zazu peccatari galdu au, eta ez naza-
zu bota ceregandic.—Eta bereala ipiñi ciozcala bere
 ónetan diru batzúec, urte oro, bere mendecotasu-
 naren señale, beste aimbeste ecarrico ciozcala, a-
 guinduaz. Gueroenean bere eriotzeco ordua onela
 eldu, eta bat batean abiatu zala esaten: *Alcha*
zaitzte gucioc, eta eguiozute onguietorria ne-
re Echecoandre maileari, gañera guero esanaz:
¡Oh la cer mesedea, ceruco Erreguina, zuc es-
clabo gajo au icustera etorri nay izatea!
Bedeica nazazu, Echecoandrea, eta ez arren utzi
galtzen nere anima, cere icusaldi zoraqarriaz
consolatu nazun ezqero. Onetan bere anaya etorri,
 eta oni guertaera gucia contatu cion, Virgiña san-
 ta au sartzean, bere onguietorri eta agurra egui-
 teco alcha etziralaco bere espac eracutsiaz, eta
 andic laster gozotoro Jaunagan hill zan. ¡Au bezañ
 zorionecoa izango da zure eriotza baldiñ leyal izan

bazazquio Mariari, eta igaroco demboran ofenditu izan badezu ere Jaincoa, orduraco izango dezu ondo damutu eta eriotz atseguin ta zorioneco bat, Mariaren amparo bigun eta laguntza maitatsua-requin.

Igarotaco vicico pecatuac beldurtzen bazaitzte, lagunduco dizu, Alsacia-co conde Adolfo-requin e-guin zuan becela, ceña san Franciscoren ordenaco erligioco vicieragatic munducoa utziric, Mariaren gucizco devoto izan zan, orden artaco condairan iracurten dan becela. Bere azquen-egunetan ce-goala, bada, munduan gaizqui emandaco egunac gogoratu, eta Jaincoaren tribunal estuaren zorroz-tasunac larrituric, abiatu zan goibeltzen, eta sal-vatuco ote zan dudatzen. Baña orra non bere de-votoen estura larrietan lo ez datzan Mariac, santu asco berequin cituala aguertu, eta gañoari alaitasun andia emanaz, esaten diozcan hitz gozatsu oec: *Adol-fo maitea, nerea ceralaric ¿nola cera eriotzaren beldur?* Bereala beldurtasun guciac quea becela de-seguin, eta esan al baño poz atseguin andiagoaz hill zan.

Anima gaitcan, bada, gu ere ceñ da peccatariac gueran, baldin orañ leyalqui servitzen badegu be-rra, orduan guri laguntzera, eta bera icusiaz gu consolatzera etorrico zagulaco uste osoaz, santa Matilderi aguindu cion becela (1).

¡O nere Jaungoicoa, cer poza izango degun

(1) Bos. part. 2. Conc. c. 13.

araco beticotastunaren ateen ondoan gueranean, eta gure betico salvacio edo condenacioaren epaya emateco estura larri artan guri laguntzen, gu animatzen, eta guri bere estalpea aguintzen ceruco Erregiña gueron aldamenecan icusi dezagunecan! Conta al baño gureyago dira betaco guertacariac. Onelaco mesede señalatua eguin cien santa Clara-ri, Cantalicia-co san Felix-i, Montefalco-co santa Clarari, santa Teresari, san Pedro Alcantara-ri. Baña conta ditzagun beste cembait gure consueloraco. Aita Crasset-ec contatzen du (1), ecen Oña-co santa Mariac beñgo batean icusi zuala Virgiña guciz santa emacume alargun Jaincocoý baten oyaren buruco aldean cegoala, au consolatzen, eta onec ceramazquian sugar viciac arintzen. Mariari jayera gucizeoa izan cion san Juan de Dios hiltzen cegoala, Virgiña noiz etorrico ote eitzayon beguira luzetsiric cegoan; baña aguiari etzitzayola icusiric, abiatu zan bere artean estutzen, eta bear bada bere espasunac eracusten. Baña bere garayan aguertu, eta gañoari bere uste eta confianza laburra arpeguira emanaz becela, esan ciozcan itz gozatsu oec: *Juan, nic nereac uzten ez ditul ordu onetan*; esango bacioquean becela: *¿Uste cenduan bear bada nic utzico cindudala? ¿Eztaquizu nic ez ditudala uzten heriotzeco orduan nere maitatzalléac? Ez naiz etorri lenago, ceren oraidic garaya etzan; baña orañ, ala danean, ona non nator-*

(1) Dev. á la Virg. t. I. tr. I. q. XI.

quizon zu nerequin cerura eramatera. Andie laster santua hill, eta gloriara egatu zan, non egongo dan bere Ama guciz maiteari belico esquer gozóac ematen (1).

EJEMPLOA.

Azquendu zagun itz-gay au Ama on onec bere seme-alábai béren azquen orduan dien biguntasuna orobat aguertzen duan beste ejemplo batequin. Erri bateco Apaiz nagusia guizon aberats bati, eche guciz antolatu batean, eta servitzari, aide eta adisquide ascoren artean ondo hiltzen laguntzen cegoquin; baña icusten cituan ere zacur gosetien ichuran guizon aren inguruan bere animaren beguira ceuden deabrúac: eta ala guertatu zan, ecen hill ez al zan, anima hura béraquin eraman zuten, guizon hura pecatu mortalean hill zalaco. Bizquitarte onetan deitu zuten apaiza hiltzer eta Sacramentu esque cegoan emacumecho pobre baten echera; baña biay batean ecin lagun ceguiquielaco, bialdu zuan beste apaiz bat Elizacoaquin: onec emacume aren guelan etzuan topatu servitzaririe, ez eheco tresna eta apaingarri ederric, eta bear bada lasto pisca baten gañean celtzan; baña icusi zuan guela ceruco arguitasun ederrez betea, eta hiltzen cegoanaren ondoan aingueruen Erreguiña, gajo hurá consolatzen eta bere erio-icer-

(1) Boll. 8 de Marzo.

dia zapi batequin legortzen. Señora miragarri onen beguirunez apaiza guelan sartzeratzen etzan; baña Virginiac señez otseguñ, eta sartu, eta eraculsi cion an cegoan alquicho bat, bertan eseri eta bere ser-vitzariaren confesioa adi cezan. Au confesatu, Sa-cramentu gucz santua devocio andiaz artu, eta lasterrean dich andiaz bere anima Mariaren be-soetan eman zuan. (1).

ORACIOA.

¡O Ama gucz gozoa! ¿nolacoa izango da peccatari urricalkizun onen eriotza? Gogoratzen zaizquidanean nere vicitzaren azquen-ordua, tribunal zorrotz hu-ra, eta eman bearco dedan contu estua; beguiratzen dedanean nere peccatuaquin ondo merecia dedala con-denacioco epaya, izu laborriac artzen nau. Nere Er-redimitzallearen odolean, eta zure bitartecotasun in-dartsuan ipintzen det nere uste eta esperanza gucia. Ceruco Erreguiña, Munduco Echeoandrea, eta (as-coz gueyago dana) Jaincoaren Ama bacera ere, or-rembeste anditasunec etzaituzte urrutiratzen gugan-dic; oraindic gure ez-bear eta miserien urricaltasuna izatera gueyago macurtzen zaituzte, ceren eztezun eguiten munduco adisquideac becela, ceñtzuec, baldin suerteac emanta goratzen badira, len cer ci-ran aztu eta ezbear edo desgracian erori diran béren

(1) Chrisog. Mond. Mar. p. 2. d. 38.

adisquide zárray beguiratu ere nay oy ezlien. Zure biotz prestu eta noblea, contrara, non eta premia andiagoa ieusten duan, ara dijoa lasterrago. Zuri deitzen ez al dizugu, eta are lenago, clortzen cera. Poztutzen gaituzu gure naigabeetan, deseguiten dituzu ecáitzac, aspiratzen dituzu gure etsáyac, eta dembora eta guertaldi gucietan billatzen dezu gure ona. Beti betiraco izan bedi bedeciatua orrembeste anditasunequin orrelaingo biguntasuna zugar batu duan Jaincoaren escua. Ematen diozcat esquérrac Jaunari, zure zoriontasunean dagoalaco nereca, eta zure suertetic dichecadalaco nere suertea. ¡O naigabez daudenen poz atseguña! Poztu zazu, consola zazu zure hillan datorren gajo au. Concienciaren quézcac tormentatzen naute, bay eguin ditudan aimbeste pecatugatic, nola ta héragatic bear becela negar eguiñ ote dedan eztaquidalaco. Icusten det nere lan edo obra guciac izan dirala charrac; infernucó etsáyac nere eriotzaren beguira daudela, ni salatzeo; eta Jaincoaren justicia minberatua ordañ edo satisfaccio esque dagoala. ¡Ay, Ama gozatsual ¿cer izango da nitzaz? Baldin zue laguntzen ezpadi-dazu, nereac eguindu. ¿Cerdiozu? ¿gordeco nazula? Esazu beyetz, Virgiña guciz erruquitsua, eta irichi zadazu nere pecatuen damu eguiazco bat, viciera berri on bat artzeo gracia, eta aurreronzean gueratzzen zadan egun laburretaco vici gucian Jaunaren servitzuau irauteco indarra. Eta eriozeco ordua etorri, eta estura larri ayetan icusi nazazunean ez nazazu utzi arren, ene esperanza, baicic eta lagun

zadazu orduan viciroago, nere aimbeste peccatu eta añ izugarriac gogoratu, eta nere elsáyac niri erasotzeco prest jarriac icusita elsi eta ernegatu ez dezadan. Gueyago escatu nay dizut, eta barca zadazu nere ausardia; cerori atozquit, cere etorreraz ni alaitzera. Aimbesteri eguin diozun mesede señalatu au nic ere escatzen dizut. Andia bada ere nere atrebencia, areagoa da zure ontasuna. Ama cera, eta beartsuenac billatzen dituzu beti, consueloz hetetze-co. Zugar daucat nere ustea. Izan bedi zure gloria betico infernua mereci duan dichagabe bat salvatu eta oni ceruco ateac zabaltzea, non zu icustean lasterreguingo dedan zure óñetara, zu adoratzerá, zuri esquer gozo ugariac ematera, eta beticotasun gucian zu bedeicatu ta amatzera. Amen.

III. en BURUA.

Gure esperanza.

I.º §.º

Maria da gucion esperanza.

Gaurco ueandari edo herejeac eciñ eraman dute gure Mariari gure esperanzaren icenaz deitzea, alabaña diote, ecen au bacarrie Jaincoari dagoquiona dala, eta bere uste eta confianza creaturetan ipint-

zadazu orduan viciroago, nere aimbeste peccatu eta añ izugarriac gogoratu, eta nere elsáyac niri erasotzeco prest jarriac icusita elsi eta ernegatu ez dezadan. Gueyago escatu nay dizut, eta barca zadazu nere ausardia; cerori atozquit, cere etorreraz ni alaitzera. Aimbesteri eguin diozun mesede señalatu au nic ere escatzen dizut. Andia bada ere nere atrebencia, areagoa da zure ontasuna. Ama cera, eta beartsuenac billatzen dituzu beti, consueloz hetetze-co. Zugan daucat nere ustea. Izan bedi zure gloria betico infernua mereci duan dichagabe bat salvatu eta oni ceruco ateac zabaltzea, non zu icustean lasterreguingo dedan zure óñetara, zu adoratzerá, zuri esquer gozo ugariac ematera, eta beticotasun gucian zu bedeicatu ta amatzera. Amen.

III. en BURUA.

Gure esperanza.

I.º §.º

Maria da gucion esperanza.

Gaurco ueandari edo herejeac eciñ eraman dute gure Mariari gure esperanzaren icenaz deitzea, alabaña diote, ecen au bacarrie Jaincoari dagoquiona dala, eta bere uste eta confianza creaturetan ipint-

zen duana, Jaungoicoác madaricatzen duala, eta Maria creatura bat izanic nola onegan confianz au ipiñi litequean? Onela itzeguiten dute herejeac; baña Espiritu Santuác zucentzen duan Elizá santac aguintzen duana da, eliz guizon eta erligiosóac béren icenean, eta gañeraco cristau fededun gucienean deadarea dey dizayotela esperanzaren, eta gucion esperanzaren icenaz.

Erejeen dotriña palso galdu onen contra aguer dezagun emen gure Eliz eguiazcoac, eta santu eta Maisu andiac guciac batera diotena.

Santo Tomas aingueruác dio: «Bi eratará iduqui guentzague gueron ustea persona bategan; edo persona buru edo principalagan, edo beraganaco bide edo bitartecoagan. Erregueari mesederen bat escatzen dionac, Erregueagandic uste izaten du mesede au buru, edo principalagandic becela, eta ministroagandic, bitartecoagandic becela; eta baldin iristen badu, guciz ondo daqui, mesede hura Erregueagandic badatorquio ere, ministroaren bidez etorri zayola, norgan arrazoy eta bide aundiaz bere ustea ipiñi baizuan. Ontasun mugabaguea dan Jaincoác guciz opa digu bere graziaz gu aberastea; baña nola orretaraco gure aldetic uste eta confianza osoa escatzen baituan, au iduquitzera gu animatzeco, eman cigun bere Ama berá Amatzat eta Bitartecotzat, bere escu eta podere andiaren aberastasunac Ama onen escuetan ipiñiaz, salvacioa eta beste cernay on beragandic uste dezagun. Beren uste eta confianza Jaincoaren contugabe creaturetan ipintzen dutenac, guizon

baten gogoan sartzearren béren Eguillea ofenditzen duten peccaríaec eguiten duten becela, oyec dira izatez eta benaz Jaincoaren madaricacioa béren gáñeratzen dutenac. Ordea erruquizeo Ama argan, gracia eta betico vicitza guri iristeco creatura añ privilegiatu eta escu andicoaren valimentuan béren uste eta confianza ipintzen dutenac, bedecatúac eta oniritziac dira Jaincoaren beguietan, bada oni onra ematea nay du Jaincoác, ceren Ama maite onec baccarie aingueru ta santu guciac batera baño gueyago onratu zuan berá lurrean.»

Belarmino Cardenalác: «Uste osoan gauden, Mariaren bitartecotasunez irichico degula, gure escari eta erreguaquin ecingo guenduqueana» (1).

San Anselmoc: Mariaren lagunzaz valiatzen guerra, gure miseriac ecin duana berác eguin dezan; eta au ezta Jaunaren misericordiaganaco ustea galtzea, ezpadá guere ecereza ezagutu, eta onen beldur izatea (2). Escritura sagraduco Ecclesiastes deritzan liburuco itz *Esperanza santazco Ama, cenagandic uste ditugun, ez munduco ondasun galcor ecerzac, ezpada ceruco eta beticoác*, oequin guciz ondo datorren dotriña.

San Efren-ec: Agur, animaren esperanza, agur cristauaren laguntza, peccarién gordelecua, biotz leyalen estalpea, mundu guciaren osasuna (3). Argaitzatu cerekana, Ama maitea, eta gorde gaitzatu

(1) De Beat. Sa. lib. 2. c. 2. (2) De Exc. V. c. 5. (3) De Laud. Virg.

cere mantuaren amparopean, ceren Jaincoaren urrena zu ceran gure esperanza bacarra (1). Onela diotsa santuac, ondo sinisturie, ecen Jaincoác gu gobernatzeco artu dituan bide eta neurrietan Mariaren bidez ezpada iñor ere ez salbatzea, daucala erabaquia, guero aguertuco degun becela astiro, san Bernardoren dotriñarequin.

San Basilioc, eta Villanueva-co santo Tomas-ec au berá segurutzen dute (2).

San Bernardoc on eguiten du gañera orañ diogun gucia, esanaz: leusi bitzate emen guizónac Jaincoaren asmóac, ceñac diran urricaltasunezcoac; guizarraza erredimitu bear ízanic, ipiñi zuan Mariaren escuetan erredencioaren valio gucia, berác nay becela zabal dezan (3).

Gure egunelaco beste jaquintsu jaincocoy batec azalduaz Escritura sagraduco Exodo deritzan liburucoco 25^{en} buruac dacarrena, au da, nola Moises-i Jaincoác aguintu cion urre garbi utsezco mesede-toqui, propiciatorio edo tronu bat eguiñ cezala Jauñac bertatic itzeguiñ ceguion, dio: Maria dala mesede-toqui au, gende gucién oneraco; mesede-toqui onetatic itzeguiten diola Jaincoác urricaltasunez betteric guizonaren biotzari, ematen dituala bareaciozco eranzuera biguñac, zabalzen dituala era gucietao doayac, eta betetzen gaituala ondasunez (4).

(1) S. Ephr. de Land. Virg. Post Deum sola spes nostra. (2) Conc. r. 3 de Conc. Virg. (3) Serm. de Nat. (4) Facciuch. Exc. 20 in Sal. Aug. 11.

San Ireneoc: Jaincoaren Semé beticoa Mariaren sabel guciz garbian guizon eguin baño len, bialdu zuan ainguerua beraren baimena escatzera, ceren Encarnacioco misterioa munduác berari zor izatea nay izan zuan (1).

Idiota jaquintsuác: Guizónac Jaungoicoagandic artu dituzten, eta mundua mundu daneraño artuco dituzten on guciac laguntza guciac, gracia guci guciac Mariaren bitartecotasunez izan ciran, eta izango dira (2).

Blosioc: ¡O Andrea! izanie zu maite zaituzten guciquin añ amoretsu eta esquer onecoa, ¿nor bere suerte gaiztoz izango da zu maite izangabe egongo dan bezañ buru-jaucia? Zue zalanz-aldi eta dudetan ematen diezu arguia zugaratzen diranáy; zue alaitzen dituzu béren ustea zugaran daucatenac; zue laguntzen diezu deitzen dizutenay; zu cera, cere Semeaz gueroz, cere servitzari leyalen osasuna Jaincoac bedeica zaitzala, ¡ó dichagabeen esperanza, ó desamparatuen gordelecua! Gucia dezazuqueana cera, bada zure Semeác bertatic eta luzapengabe eguiten du zue nay gucia (3).

San German-ec: ¡O Jaincoác emandaco nere Echeoandre eta poz atseguina! nere bide-eracuslea, nere argaltasunaren indarra, nere miseri andiaren aberastasuna, nere zaurien sendagaya; nere oñace miñen aringarria, nere cateen urratzallea; nere sal-

(1) Lib. 5 cont Valent, c. 55. (2) In Praef. Contempl B. M.

(3) Cimeliarch. Embolt I. Mar.

vacioaren uste eta esperanza! enzun itzazu nere erreguac, erruqui zaitte nere negarráz, nere Echecoandrea, nere gordelecua, nere vicitza, nere laguntza, confianza eta sendotasuna (1).

San Antoninoc: Ondo iduqui lezaque munduac Maria on gucien iturri eta Amatzat, eta esan lizayoque: *Mariarequin era gucietaco ondasunac artu ditut* (2).

Celen-go Abadeac: Maria topatzen duanac, dicha ta zori on gucia topatzen du; topatzen ditu gracia eta vertutéac, ceren bere bitartecotasun indartsuac iristen dion bear duan gucia, bere anima Jaincoaren graciaz aberastuaz, Mariac berac eracusten duan becela, esanaz: bere escuco dituala ceruco ondasun guciac, au da, Jaincoaren urricaltasun guciac, Escritura sagraduco Proverbioetaco liburuan zortzigarren buruan berari egozten zaizcan itz oen crara: *Nic nerequin ditut ondasunac ugari nere maitatzalleac aberasteco* (3).

San Buenaventurac: Guccioe Mariaren escuetan josita iduqui bear ditugu gueron beguac, nay ditugun ondasunac artzeco (4).

¡Eta ondasun ceñ preciatuac! ¡Arro puztu ciran cembatec arquitzen duten humiltasuna Mariaganaco jayeran! ¡Aserre ta gorrotoz dauden cembatec biotzeco mansotasuna! ¡Cembat ichue arguia! ¡Beren salvacioaz etsi eta ernegatutaco cembatec uste eta

(1) In Enc Deip (2) Part. 4. t. 28. (3) Inventa Maria, invenitur omne bonum. (4) In Spec.

confianza! ¡Bidéac galdutaco cembatec salvacioal Ala aguindu zuan bere ao gozoaz bere lengusua icustera joan, eta oni esan cionean: *Gaurquero guizaldi guciac deitu bear naute zorionecoa.*

San Bernardoc: Bay guizaldi guciac esango dute orrela, bada guciay eman diezu vicitza eta gloria, ceren zugar arquitzen duten pecataríac barcacioa eta justuac beti diraun gracia (1).

Lanspergio jaineocoyac: Guizónac (dio Jaincoaren orde) onra zazute nere Ama, gucizeo onra andiaz. Ama au nic eman nizuten garbitasunaren ispillu, eta estutasun eta naigabeetan gordelecú seguru izan cequizuten. Inor ere ez beldur izan Ama onen aldetic, bada eguin nuan añ onguille ta urricaltsu, inor ere beregandic bota eztezan, inori ere uca eztaquion; bere erruquizeo errayac guciay zabal deguizquien, eta inor ere naigabez bialdu eztezan (2).

San Buenaventurac: Jaincoac gaurdanic infernuro señalatua naucala irudiarren, badaquit eciñ bere burua ezeztu lezaqueala. Laztanduco natzayo berari, aric eta bedeica nazaneraño, eta eciñ joango da nigabe. Gordeco naiz bere llaguetan, eta onela ez nau campoan topafuco. Auzpeztuco naiz bere Ama bedecatuaaren óñetan barcacio escatuaz, nola añ ona baitan, eciñ legoque nizaz erruquitugabe, edo ta añ beartsu eta dichagabea icustean nizaz cupituta, macurtuco du nere alde bere Seme guciz santuaren gogoa niri barcatzeco (3).

(1) Serm. 2 in Pent. (2) Lib. 4. min. op. (3) Stim. c. 15 p. 5.

Azquenic, Eulinioe: Ipiñitzatu gugan, ó Ama bi-
otz bera zure begui erruquitsúac. Zure servitzariac
guera, eta zugan ipiñi degu gueron esperanza gu-
cia (1).

EJEMPLOA.

Errosarioaren aberastasuna deritzan liburuaren
laugarren partean, 85 garren mirarian contatzen da,
ecen Jaincoaren Amari jayera guciz beroa cion Jaun
ezcondu batec bere jaureguian oratorio bat eguiñ eta
an egoten zala luzaroetan Ama maite onen imagi-
ñaren aurrean, egunaz eceziç gauaz ore, loari dembo-
ra quendnaz. Bere emazteac, barrundaturic nola
senarra desorduetan jaiquitzen eitzayon, zañ charrae
jo, gaitzpensatu, eta inquietacio onequin egun batean
cearcagabe eta zucen galdetzeratu eitzayon: *ca be-
râz gañera beste emacumeren bati nay cion.*
Senarrae far-antzean eranzun cion: munduan zan
Señoren maitagarrien bati viciro nay ciola, oni bere
biotz gucia eman ciola, eta oni ez nai izatera baño
len hiltzera jarrico citequeala. Ezagutzen bacendu
(gañera esan cion) Señora au, cerorreac beartuco nin-
duzucque nosqui bera biotzetie maite baño maiteago
izatera. Orduan emazteac, erreceło andiagoetan sar-
tu, eta bere artan seguruago jartzeco, galdetu cion:
ea guelatic irteten zanean aren billan joaten ote

(1) Orat de Deip.

zan. Bere emaztearen barrumbean cer igarotzen zan etzequian Jaunác, eranzun cion, bayetz. Onequiñ, ala etzan gauza oso sinistu; eta gau batean bera baccaric icusi zan bezaiñ laster canibeta bat artu, eta zoramen artan bere cintzurra ebaqui zuan. Jaunác bere devocioac eguinda biurtu zanean oya guciz bustia topatu, eta deitu cion bere emazteari, baña onec eranzun etzion: mugui eraci zuan; baña ecer sentitzem etzuan. Argui bat topatu, eta icusten du oy gucia odolez bustia, eta dichagabe hura canibeta cintzurran zuala, hillotza. Orduan conturatu zan celóac amildu zutela bere emaztea gaiztaqueri hura eguitera. Guiltzaz atea ichi, osterá oratoriora joan, eta Virgiña guciz santaren aurrean auzpezturic, negar miñari eman, eta abiatu zan esaten: *Ene Ama, icusten dezu estura ceñ larrian arquitzen naitzan. Baldiñ orañ zuc consolatzen ezpanazu ¿norgana joan bear det? Nere devocioa dala bide izan det nere emaztea hilla eta condenatua icustearen ezbear tristea. Zuc, Ama maita, erremedia centzague gaitzegoqui au; erremedia zazu bada arren zure ontasunagatic.*

¡Oh eta ceñ ciertoa dan misericordiazco Ama onegana bideguiten duan guciac arquitzen dituala nay eta bear dituan erremedio eta consueloac!

Escari au eguiñ ez al cion, aditzen du echeco nescame baten deya, esanaz: Echecoandrea otsea cegoquiola: Pozaren pozez eciñ sinistuz, aguindu cion, icus cezala ondo ea ala otezan. Nescameca bayetzcoarequin biurtu citzayon, esaten ciola gañera, joan ce-

dilla laster, Echeoandrea zay cegoquiolata. Joaten da lasterca, idiquitzen du atea, eta arquitzen du viciric eta osasun betean bere emaztea: once negarrez õñetan auzpeztu, eta milla barcacio escatuaz, diotsa: *¡Ah, ene scnarra! zure erreguay esquérrac, libratu nau infernutic Jaincoaren Amóc.* Senarra ere negarrari eman, eta biac alcarrequin joan ciran oratoriora, Ama Virginiari bear becela esquérrac ematera. Bigaramonean aide guciac echera deitu, eta igaro zana gucien aurrean esan cezala, senarrac aguindu cion. Emazteac alaše eguin zuan; eguiaren aguiari edo señaie lepoan gueratu citzayon arradiza eracutsiaz. Eta alaingo mirariaren aurrean Virginiã guciz santaganaco amore eta devocio andiagoa artzeco zale ta desco vicia guciac béregan sentitu zuten.

ORACIOA.

¡O amore ederraren Ama! ¡O Gure vicitza, gordelecu eta esperanza! ondo daquizu zure Seme guciz santuac bere Aitarequico gure bitarteco izatearequin ez aseric, zu ere ala izatea nay izan zuala, zure bitartecotasun indartsuaz Jaincoaren misericordiac eta gure zale ta deseo on eta bidezcoac escatzen duten gucia eta guero betico salvacioa irichi deguizquigutzun. Zugana dator, bada, pecatari urricalquizun au; zugana, desamparatuen esperanza ceran orregana: Añ seguru nago, nere Jaun Jesucristoren

mercimentu eta zure bitartecotasun indartsuaren bidez salvatuco naizalacoan, non baldiñ nere escura baneuca salvacioa, zureetan ipiñico nuquean, ceren zure urricaltasun eta amparoan obeto confiatzen naizan nere óbretan baño. ¡O ene Ama eta esperanza! arren ez nazazu utzi, uztea mereci badet ere. Cembat perilletan arquitzen naizan, beguira zadazu, eta mugui zaitte nere animaz erruquitsera, galdu eztediñ. Ezagutzen det, nere pecatuaquiñ ichi diedala atea ascotan, zuc eracarri nay cinizquidan arguitasun, gracia eta laguntzay; baño dichagabéacganaco zure urricaltasuna, eta Jaincoarequico daucazun valimentua ascoz andiagóac dira nere pecatu gucien gaiztotasuna baño. Ceru-lúrrac deadarca diote, eciñ galdu litequeala zuc gordetzen dezuna. Aztu bedi nizaz mundu gucia, zu nere izatearren. Esan zayozu Jaunari, cerea nazula, esayozu, zure contura nagoala, eta salvatuco naiz. Zugan, Ama maitea, daucat nere ueste eta confianza, eta vici eta hill ueste det esanaz: Jesus dala nere esperanza bacarra, eta Jesusen urrena zu.

II. en §.º

Maria da peccatarien esperanza.

Jaincoac bi argui andi ipiñi cituan ceruan; eguzquia, egunaz, eta illarguia gauaz arguieguiteco. Eguzquia, dio Cardenal Hugoc, dala Jesucristoren

antz-irudia, ceñaren arguia gracion vici diran animac artzen duten; eta illarguia Mariaren irudia, ceñac pecatuaren gau illuncan vici diranay argui en aten dien (1). Izanic, bada, Maria peccatari gucientzat illargui añ ongarria, ¿cer eguiñ bear dute peccatua dauden errucarrac? Jaincoaren gracia galduaz eguzquiaren arguia galdu zutenez gueroz, etzaye guerutzen beste bideric, ezpada beren egoera negargarria ezagutzeco arguia, eta andic irteteco indarrá emango dien Mariari beguiratzera biurtzea, bada Mariaren erregu bigúnen bidez asco ontzen dira ordu oro (2).

Guc, Ama maite oni deitzeco Eliz Ama santac eman dion icenetatic bat, eta gu gueyen indartu eta animatzen gaituzten icenetatic bat da *peccatarien gordelecuaren* icena. Izan ciran Judea-co erreinuan gaitzquilleac gordetzeco señalatúac ceuden cembait erri; orañ gure artean erri oetacoac ez dira aimbeste; baña daucagu erri guci ayec baño gueyago valio duan Maria, ceñaz salmo batean esaten dan: *Gloriandico gáuzac esaten dira zuzáz, ó Jaincoaren uria*; baña ascoz eraguiñaz Mariac gordelecutzat servitzen zuten erri ayey, alabaña gordelecu ayec etziran gaitzquille gucientzat; baña Mariaren mantupear, edoceñ peccataric arkitzen du estalpe edo amparoa, eta eguiten duan cernay peccaturen barcacioa, bera dalaco gucientzat igues-lecutzat señalatua dagoan erria (3).

(1) Ug. Card. in Gen 4. 16. (2) S. Methodius (3) Damasc. Or. 2. de Dorm.

Eztu ere batec berez itzeguin bearric, berac artzen du bere contura gure defenza. Baldin Jaunari barcacioa escatzeco biotz edo animoa falta bazagu, berac eguingo du gure ordea (1). Adan, Eva eta Jaincoa aserreraei dezuten pecatari guciac, zoazte zuen Ama gordelecutzat dagoan erri, eta esperanza bacarra dan Mariagana (2).

Jaincoac bedeica zaitzala, pecatarien litarteco baccar eta desamparatuen amparo guciz segurua. David-ec esaten zuan: *Jaunac gorde ninduan bere tabernaculoaren barrumbean ezcutatuaz*. Eta zer tabernaculu da guizarrazaren crospen edo erredencio jaincozcoa bertan eguiteco jauna beste inor an sartu etzan tabernaculu au, ezpada Maria (3)?

Goacen, bada Mariagana, bearrean dauden eriac gucientzaco hospitalera becela. ¿Eta oetaco socorruac artzeco nore escabide gueyago beartsuen eta erien daudenac baño?

Cembat andiago miseria, chiquiago merecimentuac, eta izugarriago animaco zauriac, au da, peccatúac, bide gueyago daucala dirudi ceñ nay peccatari Mariari esateco: *Señora, bada gassoen osasuna cera, nic, gucien gaoenac becela, inore baño bearrago det zuc ceregana artu, eta sendatzea*. Peccatarioc eztaquigu zu ezpada beste gordelecurec non dagoan. Zu cera beren bitarteco eta esperanza bacar-

(1) Glossa. (2) Bened Fernandez in cap. 5. Gen (5) S. Germ. in Ps. 26.

ra; zure escuetan jartzen guera (1).

Santa Brigidaren errevelacioetan ematen zayo Mariari eguzquiaren aurretic irteten dan izarraren icena; emendic ezagu dezagun, ecen anima peccatari bat Mariaganaco devocioa artzen abiatzen danean, anima au bere graciaz arguitu eta bide onean sartzera Jaincoa laster etorrico dan señaie segurua dala; eta san Buenaventurac graciairen ontzitic ecaitz gaiztoac puztulaco itsasora erori ta concenciaco imurtzien olatuac arunz-onunz, Jaincoaren aserre justuaren beldurrez, arguigabe, zucendarigabe, esperanzagabe eta galdu-gordean dabilzanaquin peccatariac berdindu ondoan, guciac ere animatzen ditu uste eta confianza artzera, eta Maria eracutsiaz, esaten die: *Ez biotzie erori, peccatariac; baicie eta beguiac goratu, eta beguira ichasoco izar ederari, eta berac ateraco zaituzte seguru eta autsi-osogabe salvacioco portura* (2).

Berebat esaten zuan san Bernardoc ere: *Ondatua gueralu nay eztuanac, beguira bizayo izarrari, dey bizayo Mariari*. Bay, ceren Maria dan Jaincoa ofenditu dutenen amparo bacarra, tentacioac dituzten, eta naigabez beteac dauden gucien esportzua, eta beraren urricaltasun eta gozotasuna luzatzen da justuengana ezecic, peccariengana ere, ceñ da amiltoqui izugarriaren ertzean arquitzen dan; bada Ama onec bere escu eta laguntza escatzen dioten beceñ laster artzen ditu biguñquiro berega-

(1) Thom. de Villan. Serm 5, de Nat. B. V. (2) In Ps. 8.

na, iristen die bere Seme jaincozcoaren barcacioa, eta bere biotzaren ontasuna iristen da ascotan peccataririe selatsu, gogor eta galduenac ere oarteraci, esnatu, bizortu, eta occ, pecatuaren leizondarretie atera. eta gracia eta guero gloria iristeraño ere.

Jaincoác biotz añ bigun ta samurrecoa eguin zuan, bere bitartecotasunera bideguitetic inor ere beldurrez atzeratu etzediñ. Azquenic humillasunaz eta eguiñal guciuz bere devocia billatzen duan inor eciñ galdu lileque.

Isaias Profetae Jaunari negarrez esaten cion: *Aserre zaude, guc pecatu equiten degulaco, eta bitarteco jurri, eta zure beson atzeracico duan inor eztago*. Eta au zan, ceren oraindie Maria jayo etzan (1) Baña baldiñ orañ Jaincoa peccatari baten contra aserretutzeratzen bada, eta peccatari au amparatzea Mariác bere contura artzen badu, gozatzen du bere Semearen aserrea, eta salvatzen du peccalaria (2). Eta izatez ere juore ipiñi al dezaque obeto escua Jaincoaren justicia zorrotzaren ezpatan, eta peccatariari colpea egozte galeraci? (3). Baldiñ len peccariac castigatzea galeraztera inor ere iristen etzalaco espaasunac eracusten bacituan Jaincoác, bere maitea jayo zanez gueroz, bere aserrea nore gozatu baducagu. Eztezagun, bada, galdu gueron uste eta esperanza, baicic eta bideguin zagun Ama maite onegana gueron premia gucietan eta beti billatueo degu

(1) Bonav. in Spec c. 12. (2) Idem. (3) Ricc. lib 9 de Laud. Virg.

prest guri laguntzeco, ceren gure estura eta premia gucietan gucioy laguntzen diguna berà izateaz Jaincoac atseguin duan: eta nola erray añ erruquitsúac eta peccatariac saluatzeco zale ta gogo añ andia dituan, ceñ ere galduenetacoac diran, oen billan dabill; eta baldin peccatariac ere beren aldetic bera billatzen badute, orduan laster topatzen du Ama maite onec peccatari oec Jaincoarequin ongui ipintzeco bide eta era.

Isaac patriarca eizean atzitutaco araguiaren zalez cegoan, eta bere seme Esau-ri agundu cion, cman-go ciola bere bendicioa aragui au ecartzen cionean hereala. Rebecac itzquet au adituta, bendicio au bere beste seme Jacob-ec artzea nayago izanic, oni esan cion, lasterca joan, eta cecaizquiola hi anchume agurrearen gogoerara manea citzan. Rebeca izan zan Mariaren irudia, ceñac esaten dien ainguerúay: *zoazte, eta ccaizquidatzute peccatariac, bada nic daquit* (beray damu eta propositua iristearequin) *oec Jaincoarentzat gozo ta atseguin diran eran maneatzan* (1). Ceren izatez eztagoan munduan Jaincoaren añ etsairic, non baldin Mariaganatzen bada, ostera graciaren jabe eguitera irichico eztan (2). Beñ santa Brigidac aditu zuan Jesucristoren aotic, bere Ama guciz santarequin ciardula: ecen infernuco etsayarentzat ere izango citequeala erremedioa, baldin Mariaren bitartez barcacio escatzera humilatzen bacitequean. Bere seta eta soberbia dirala bide et-

(1) S. Antonin et Fr. ncon. Abbas. (2) Revel, lib. 4. c. 6.

sayac secular eguingo eztu onelacoric; baña, baldin au litequeana balitz, aimbesterañocoa da Mariaren escua, eta aimbesterañocoa here erregüen indarra, non dudagabe irichico loquean Jaincoaren urricaltasun eta gracia. Ordea demonioarquin guertatuco eztana eguiten diardu egun oro ceruco gure Ama gozo onen laguntzaz baliatzen diran peccatariaquin.

Noe-ren cucha ere Mariaren irudia zan, ceren cuchi artan salvatu eiran becela aberéac, ala here mantupean salvatzen diran beren atseguin-contentu lizun löyacgatic abereaquin berdintzen diran peccatariaac; baña salvatzen dira desberdintasun batequiñ, eta da, eeen aberéac abere gueratu cirala cuchan egonarren; baña Mariaren mantu miragarriaren azpian otsoa bildots, eta catamotza uso eguiten dirala. ¡O Amandrea! etzaitu nagatzen peccatariaac. ceñ da atsa dan, baldin zugana bideguiten badu; etzera ere atzeratzen cere eseu erruquitsua berari luzatu, eta etsimen edo ernegacioaren leizondarretic bera atzeratsetic, baldin beréac deitzen bazaitu (1). Millaca milla bider bedeciatua eta goratua izan bedi Jaincoaren urricaltasuna, Ama guciz maitagarria peccatari galdnenganacoraño ere añ onguille eta gozatsu eguin zualaco. Zori gaiztocola, Ama maitea, zu maite etzaituana, dichagabea, al dezaqueala zugana bideguiten eztuana, ceren onentzat eztan izango erre-mediocic, beren ustea zugan ipintzen dutenetatic iñor galduco eztan becela.

(1) S. Bern. Orat. paneg. ab B. V.

Booz-ec utzi cion Rut gazteari iguitarien escuetatic erorten ciran galburúac biltzen. Ala Jaincóac bere beguietan añ eder izan zan doncella guciz garbiari ematen dio balio gueyagoco beste galburu batzuec, au da animac bilduaz joateco escua. Iguitariac díra Evangelioa zabaltzen dabiltzan misionistac, predicari eta confesoreac, ceñac bñeren neque-icerdiaquin Jaunaren lurra launtzen eta Jaunari animac irabazten beti diarduten. Badira cembait, galburu galduac becela, añ gogor eta lotsagabe setatsuae, non hacarric Virginia guciz erruquitsuac bere escu indartsuaz, eta ez bestec, bildu eta infernutic libratu litzaquean. ¡Ay escu añ santu eta bedeicatúac ere biltzeco toquiric emalen ez duten ayen patu gaizto-coac! Onelacóac betiraco utzi eta galdutzat eman litezque berealatic; beñ eta milla aldiz zorioneco izango diran becela biltzen uzten diranac, ceren nola bere escuan bay dauzean al-izatea, jaquintasun eta gogoa, anima oyey iristen dien jaincoaren gracia eta adisquidetasuna (1).

Santuac arrazoy ta bideric asco ceucaten, jó Andre miragarria! zuri beguiratu, eta pecatarien gordelecu hacarra, gaitzquilleen esperanza, ernegatuen uste osoa (2) aoa betean zuri deitzeco. ¿Norc au adituta ipinico eztu zugar bere uste eta confianza? ¿Nor egongo da barcacioa, eta escatzen duan gucia irichico eztualacoan, ernegacioaren leiz ondarrean datzatenay ere laguntzen diezula, jaquinta?

(1) Blos. de Diet. PP. (2) Damasc. August. Ephr. etc.

Beñgo batean pecatari batec uste izan zuan Jaincoaren tribunalean cegoala. Deabrúac salatzen zuan, eta Virgiña santác defenditzen zuan. Etsayac aguertu zuan pecatariaren contra bere vici gucico pecatuen lista, bere obra ónac baño aguitz gueyago pisatzen zuana. ¿Cer eguin zuan orduan amparatzalleac? Escua pisuan ipiñi, eta pisua pecatari salatuaren aldera macurtu zuan, baldin viciera berri on bat artzen bazuan, barcacioa iristen ciola, oni adieraciaz; eta alaše eguiñ ere zuan egun beretic, ciñez ta benaz viciera on bati equiñaz.

EJEMPLOA.

Humiltasunez bere buruari Icaslearen icena eman cion Juan Erolto Doatsúac contatzen du, ecen guizon ezcondu bat vici zala pecatu mortalean. Emaztea ona zan, eta guizona bere galbidetic ecñ atararic, erregutu cion, edolaric Virgiña santaren imagiñen bat topatzen zuan gucian Ave Maria bat erreza ceguiola. Guizonac, esan au ontzat artu, eta gau batez Jaincoa ofenditzera cijoala, icusi zuan aurchoa besoetan zuala cegoan Ama Virgiñaren imagiña baten aurrean lampara iracequi bat. Errezatu cion bere Ave Maria; baño azqueneco itza esan zuan beccla, icusi zuan nola aurra gucia zauritua eta odola chirrioan cijoquiola cegoan. Gueiz arritu, eta bere gaiztaqueriaz damuturic, bere ayecgatic ala cegoala, ezagutu zualaco, eman citzayon ue-

garrari; baña Jaunac atzea ematen ciola icusita, oso lotsatu, eta abiatu citzayon Virgiana santari esaten: *Misericordiazco Ama, zure Semeac beregandic botatzen nau; baña bere Ama an er-ruquitsuagan becela zugar daucat nere bitartecoa. Lagun zadazu arren, eta erregu zayozu nizaz. Virgiana imagiu artatic eranzun cion: misericordiazco Ama deitzen didazute peccariac eta miseri ta dolore saminen Ama eguiten nazule, nere Semearen pasioa eta nere pena garratzac berrituz. Gucciaz ere, nola bere atectaratzen dan inor consuelogabe bialtzen ezpaitaquian, jarri zan bere Seme guciz santuari escatzen, arren barca ceguiola guizon ari. Jauna uzcur aguertzen citzayon; baña Ama guciz ongullea semechoa nichoan utzi, eta jarri citzayon berari belaunico, ciotsala: *Nere Semea, emendic alchaco eznaiz, peccari oni barca deguiozuneraño. Orduan Jesussec eranzun zuan: Ene Ama, ecin ecer uea deguizuquet, bada orri barcatzea nay dezu, zure amorez barcatzen diot. Ecartzu ona nere zaurioy muñ eguitera. Escudanci onequin guizona alderatu, eta zauri ayetan muñ emmaz cijoan becela, gucciac isten eta sendatzen cijoacen. Guero-enean, aurrehoac eman cion laztan bat, eta ordutic guizonac viciera berri on bat artu eta aurreronzean santu bat becela vicitu zan, alaingo gracia irichi cion bere laguntzallea vicio amatuaz.**

ORACIOA.

María Virgiña guciz garbia, adoratzen det Ceru-
 etaco Erregueac bere naieraco lecu eta atseguin-
 contentua bertan arquita zuan zure biotz guciz san-
 tua. Ni, doacabez betetaco peccataria, zure aurrera
 nator manchaz estalitaco nerecarequin; eta ala ez
 natorquizu merecimentu eta vertuteaquin, baicic
 eta jaquiñaren gañean, ecen nere gaiztaqueriac-
 gatic eztedala mereci ezpada betico tormentuac. ba-
 ña orañ ontzeco gogoa barrunda dedanean, uste
 eta confianza osoarequin zure bitartecotasun indart-
 suaz valiatzen naiz, zure ontasun eta misericordia-
 ren andilasuna ezagututa. Beguira, Ama, cembat
 zure Seme guciz gozoac eraman zuan nigatic, eta
 orduan ecin botaco nazu ceregandic. Escañzen diz-
 quitzut bere vicitza guciz santaco pena gucic,
 gambelaco otzicacac, Egiptoraco iguesico neque-tra-
 bajúac, gurutzean hiltzeraco zure aurrean eraman
 cituan pobreza, agonia-larri, odolezeo icerdi eta
 eriotza lotsagarria. Baña guci oec gatic, eta dio-
 zun amore bigunagatic escatzen dizut, indazyla
 escua nere salvacioa iristeco. Ene Ama, eztet us-
 te utzico nazula orañ damuturic zure valimentu-
 esque natorquizunean. Baldiñ beste gauzaric nste-
 co banu, ofenditaco nuque salvatzeco peccatarien
 galduenac beti billatzen dituan zure urricaltasuna.
 Ez, ez diozu ucatueo cere urricaltasuna Jesus-ec

bere odol guciz preciatua ucatu etzionari; baña nola beraren irabaciác ez baitiran ematen zue cere bitartecotasuna eguingabe, eguingo dezula uste det zure biguntasunagandic. Ez dira aberastasunac, onrac, ez munduco beste ondasúnac nie escatzen ditudanac. Escatzen det Jaincoaren gracia, beraren amore guciz santua, bere naya gucian eguitea eta gueroenean gloria, beti beti bera amatzeco. ¿Baliteque zue ni ez enzutea? Bay, bay orañ bertan enzuten nazu, orañ cere mantupean artzen nazu, orañ nigatic erregutzen dezu; orañ, nay nuqueana iristen didazu. Alabiz, ene Ama, eta ez nazazu arren iñoiz ere utzi, etzaitz ere nigatic escatzez gueratu, alic eta ceruan seguru icusi nazazuneraño, non zure oñetan auzpezturic, ez naizan aspertuco zu beti bedeicatzez eta goratzez. Ala izan dedilla.

IV. en BURUA.

Zure deyez gaude Evaren ume erbestetuac.

I.º §.º

Bereala laguntzen die Mariac berari deitzen dioten guciay.

Deserrituac eta bidez goacenaec becela ona non

bere odol guciz preciatua ucatu etzionari; baña nola beraren irabaciac ez baitiran ematen zuc cere bitartecotasuna eguingabe, eguingo dezula uste det zure biguntasunagandic. Ez dira aberastasunac, onrac, ez munduco beste ondasúnac nie escatzen ditudanac. Escatzen det Jaincoaren gracia, beraren amore guciz santua, bere naya gucian eguitea eta gueroenean gloria, beti beti bera amatzeco. ¿Baliteque zuc ni ez enzutea? Bay, bay orañ bertan enzuten nazu, orañ cere mantupean artzen nazu, orañ nigatic erregutzen dezu; orañ, nay nuqueana iristen didazu. Alabiz, ene Ama, eta ez nazazu arren iñoiz ere utzi, etzaitz ere nigatic escatzez gueratu, alic eta ceruan seguru icusi nazazuneraño, non zure oñetan auzpezturic, ez naizan aspertuco zu beti bedeicatzez eta goratzez. Ala izan dedilla.

IV. en BURUA.

Zure deyez gaude Evaren ume erbestetuac.

I.º §.º

Bereala laguntzen die Mariac berari deitzen dioten guciay.

Deserrituac eta bidez goacenaec becela ona non

goacen negarrezco vicilecu onetan barrena Evaren
 uneoc, onen culpa bera gañean degula eta gorputz-
 animetan daramazquigun gaitzaz beti negar egui-
 ñaz. Zori oncooa onembeste bat ezbear eta miser-
 ren artean munduaren consueloa, naigabez daude-
 nen amparoa, Jaincoaren Ama dan argana beguiac
 itzultzen dituana. Zorionecoa, dio Mariac (1) nere
 ondo-esanac aditu, eta nere estalpe ta laguntza es-
 caltuaz nere irricallasunaren steetara beti datorrena.
 Ondo eracusten digu Eliza santac arreta eta con-
 fianza ceñ andiaz, eta iñoiz ere utzigabe ceñ con-
 tutuz bideguin bear degun gure amparatzalle guciz
 amoretsuagana hacarric berari dagoquion beneracio
 batequin bera onra dedilla, urtean fest-egun asco
 bere onran celebra ditece'a, asteoroco larumbata
 herezquiro bera onratzeco izan dedilla, egunaren
 iru garay jaquinetan cristau guciac dey dizayotela,
 eta eliz-guizon eta erligioso guciac beren errezo-
 etan beren burúacgatic eta cristau-erri guciagatic
 beren orduetan dey dizayotela, aguinduaz; estua-
 sun, naigabe eta lacerietan beraren imaginay egui-
 ten zaizten bederatziurren oracio, procesio eta
 agur ónac contuan sartugabe. Au da gure Ama
 maiteac berac, añ mizquiñ eta labúrrac badira
 ere, gure laudario eta obsequioac artzean nay dua-
 na, gure devocio eta confianza icusita guri con-
 suelo eta laguntza emateco (2).

Elizaco azaldari jaquintsúac diote, ecen anciñaco

(1) Prov. 8. 54. (2) Bonav. p. 3. Stim div. am. c. 46, 101 (1)

demboretaco emacume Rut ceritzan hura, ceñac esan nay baituan icusten duana, eta bere buruari presa ematen diona, Maria guciz santaren irudi yicia izan zala, ceren Ama onec gure ezbear eta premiae icusi orduco guciac estaltzera laster eguiten duan (1), izanaz aimbesterañocoa guri on eguiteco bere zale ta gogoa, non au eguitea gueroraco uzten eztaun; eta nola batetic eztaun bere on-eguiñelan labur eta zurra, eta bestetic dan Ama guciz amoretsua, lasterca dator bere escu luce ugaritsuco ondasunae guri ematera (2).

¡Oh ta ceñ ariñ ta azcar corrica etortzen dan biotzetic deitzen dioten guciay on-eguitera! Inoiz asco da esatea *Ave Maria*. Eta ¿cerdiot corrica etorri.? Oraindic egatzen da, aguiñdua daucan becela, berari deitzendionari erantzuteco, eta escatzen zayona emateco guciz vicero egatzen dan Jaincoaren guisa.

Era onetan iguertzen da ceñ dan arranoaren egoac eman cizquieten emacume guciz garay hura (3). Cembaitec badiote ere onec esan nay duala Maria Jaungoicoaganoncz beti egatu izan zan amore hura; besteac gure gairaco egoquiago diote, bere seme-alaba guciay laguntzera ecartzen duan lasterca serafinena baño andiagoo, esan nay duala. Onegatic San Lucas-ec bere evangelioan dio, ecen bere lengusua icustera eta cche guci hura bere bendicioz betetzera joan zanean, gaciz ariñ cijoa-

(1) Bonav. in Spec. (2) Novar. Nov. umb. Virg. c. 10. (3) Ap. 12

la. Beragatic Escritura sagraduan Cántetaco liburuan ere esaten da, *tornuan equiñac cirala bere escúac*; ceren torneatzeco artea beste arte guciac baño errazago eta lasterragoa dan becela, Maria ere beste santu guciac baño errazago ta lasterragoa dan bere devotoen laguntzean. oec consolatzeco bere zale ta gogoaren eracoa da oen deya aditu orduco béracganatzeco ecartzen duan presa ere (1). Da berari deitzen diotenen osasuna; eta santuac diotenez, asco da berari deitzea, bere amparoa artzeco; asco da berari otsoguitea, bat salvatzeco, izanaz guri mesedeac eguiteco bere gogo ta zalea, guc mesede bérac artzeco deguna baño ascoz andiagoa (2).

Pecatúac ere ez digute galeraci bear gueron uste eta confianza, bere oñetarutzen gueranean, ceren dan urricaltasunezco Ama, eta ceren urricaltzunezco eztan lecuan, urriqui bearric eztan. Ama batec ezcabiz betetaco bere seme edo alabari, naiz nagatu, sendagarriac ipintzea uzten ezuan becela, Mariac ezgaitu beregandic botatzen bera billatzen degunean, gure pecatuen itsustasun guciagatic ere (3). Au aditzera eman zuan Ama biotz biguñac araco santa Getrudiseac icusi zuan becela, bere mantu urricaltzuarén estalpe billan cetocen guciac gordetzeco, mantu au zabaltzen zuanean, edo ta etsayagandic gorde

(1) Richard á S Laur. de Laud. Virg. lib. 5. (2) Blos. in cant vit. sp. c. 48 Bonav. Bern. de Bust. Mar. 1. Serm. 5. de Nom. Mar. (3) Rich. á s Laur. de laud. Vir. lib. 4.

citizatela, aingueruay agundu cienean.

Eta areago dana, aimbesterañocoa da guganaco bere biotzaren samurtasun eta amorea, non eztagoan gure escari-erregüen beguira guri laguntzeco (1); bada gue escatu baño len iristen dizquigu ceruco mesedeac. Deitzen zayo *illarqui ederra*, ez bacarrie añ gozotoro irteten dalaco guri argui-emanaz eta gu poztuaz, baicie hay bere naitasun bigunac beartuta gure escari eta descoay aurre artzen die-laco ere. Ontasun au dator bere bular gueiz santua erruquiz añ betea iduquitzelic, non erruqui eta misericordia berez darizquion, anima bat bearrean dagoala aditu eta bercala hura erremediatzera lasterca joangabe eciñ egonaz (2).

Ama maiteac ongui ezagüeraci zuan au orañdic munduan vici zala, Evangelioco eztay artan. Ardoa aitu zalaco ezconberriac eraman bear zuten lotsaz oartu ez al zan, iñore ere escatugabe, eta bacarrie bere urricaltasunac mugnituta, bere Seme maiteaganã alderatu, eta miraria eguiñaz, famili hura consola cezala, erregutu cion; eta Jaunac onegatic, eta are gneyago bere amari atseguñ eguiteagatic eguin zuan miraria añ gozotoro. Bada baldiñ beráz bahatzen eziranay ere laguntzen badie, jecombat prestago aguertuco da berari devocioaz deitzen diotenay laguntzeco (4)!

Baldiñ norbaitec au oso sinisteu ecpadu, adi beza santuac onen gañean diotena: *¿Nore secular Ma-*

(1) Sap. c. 6. (2) Rich. in Cant. c. 25. (3) Novar. cap 10 ex. 27.

riagana bideguin eta topatu eztu amparoa (2)? O Virgîna santa, nornay beartsuri laguntzeco eta edocên pecatari salbatzeco asco ta gueyago dan zure amparoz baliatzera joaten dan cên utzi dezu consuelo gabe (3)! Ez, secular guertatu ezta, eta guertatuco ere, zugana bidequin duani zue utsemalea. Eta baldin noizbait icusi bada au, zure urricaltasunoz gueyago itzeguin ezbedi (4). Lenago ceru-lurrac utseman-go dute, uste ta confianza osoa beragan ipiniric, eguiatz ta benaz deitzen diotenay laguntzea Mariac utzico duan baño (5); eta oraindic inoiz san Anselmoc dionez, lasterrayo enzûnac izango guera Jaungoicoogana bideguinda baño (6). Ez gueyago dezaqueana dalaco Ama, Semea baño, alabaña ondo daquigu Jesucristo dala gure salvatzalle bacarra, ezpada ceren Jaincoogana bideguinda, eta castigatzea ere dagoquion Juezari becela Jaun oni beguiratuta, enzûnac izateco bear dan uste eta confianza falta lizaguquean; baño bitartecoac becela, gu gordetzeco, guzaz erruquitzea beste beargairic ezuala, dirudian Mariagana joanta, andi ta seguruagoa dirudi gure confianzac. Eta ala icusten degu Jaincoari gauz asco escatuta iristen ez ditugula, eta Mariari escatuta, escuratzen ditugula. ¿Cergatic? ez Mariac gueyago dezaquealaco, ezpada o-

(1) Innoc. III. Serm. 1 de Ass. B. V. (2) Eutichian. in vita S. Theop. (3) Bern. Serm. 1. de Ass. (4) Blos. in Spec. c. 12 (5) De exc. V. c. 6.

rañago esan degun arrazoyagalic, eta gañera ceren Jaincoác bere Ama guciz santa era onetan onratu nay duan (1).

Atseguingarría da santa Brigidac gay onen gañean Jaunaren aotic aditu zuana, Ama guciz maitearequin ceducan itzaldi batean, esaten ciola: *Esca zadazu nay gucia, ecer ere ucatuco ez dizut, eta ontzeco asmoaz zure bitartez misericordia billatzeratzen diran guciac irichico dute gracia* (2). Orobat aditu zuan santa Getrudis-ec Jaunac Mariari esan cion beste aldi batean: *berac bere gucialaz eman ciola Mariari berac nay zuan cernay eratan pecatariay misericordia eguiteco es-cua* (3).

Esan zagon gucioc beñ, berriz eta ascotan uste eta confianz andiaz: *Contura zaitc, Ama guciz urricaltsua, secular inor ceregandic bota eztezula* (4). Eta ala barca zadazu zuri esateratzen banaiz, *nic eztedala izan nay zugana bidequin eta zure urricaltasua irichigabe gueratu dan lenengo dichagabea.*

EJEMPLOA.

Ondo progatu zuan oracio onen indar vici ta eraguillea Sales-co san Franciscoc, bere vicitzan

(1) Nicephor. apud. P. Pep. Grandez, (2) Cap 3 (3) Apud. I ep. lo c. citat (4) Augusto,

contatzen dan becola (1). Santua amazpigarren urtean cijoala, eta estudioari eta dembora berean Jaincoaren servitzu eta amoreari oso emuna cegoala, eta Jaincoarequico bere trata bidean esan al baño atseguin-contentu andiagocac bere animae gozaten cituan garayan, Jaincoac santua pregatzeo, eta berarequin batuagotzeo, artaraco lecu emanta, demonioac sinisteraci cion, ceen eguiten zuan gucia alperricacoa zala, infernuraco señalatua cegoalata; dembora berean Jaunac espiritueo illuntasun eta agortasun andian utziaz, cernay consideracio onee, Jaincoaren ontasun gozoaren gane-coac berac ere, mellarie eraguiten etzion eran. Oñequin tentaldia gogorrago eguin zan santu gazte onen biotza estutzeo, alatan non jateco gogoa, loa, colorea eta alaitasuna oso galdu, eta berari beguiratzeac guciac cupitzen cituan. Baña ecaitz an gogor onen erdian santuaren gogoracio eta itz guciac confianzaco eta damutasunezcoac ciran, esanaz deadarea gus onetaco oracio laburrac: *¡Orrela beraz len an gozo eta amoretsu aguertzen citzadan nere Jaungoicoaren graciagabe vici bear det? ¡O nic nere vici gucia ofrendatua daucaquiodan amore eta edertasun ondogabea! ¡Ematen eizquidatzun pozaldi atseginae neretzat aitu ciran? O Virgina guciz garbi, Jaincoaren Ama, Jerusalengo alaben ederrena; ¡orrela beraz seculan icusi bear ez-*

(1) Lib. 4 c. 8.

*det ceruan zure arpegui ederra? ¡Ah, ene Ama! Baldin aimesterañocoa izan bear bada nere zorigaitza, beintzat etzadazu utzi zure contraco ernegu-madaricacioac infernuau esaten. Onelacíoac ciran biotz naigabetu, eta Jaincoaz eta bere Ama guciz santaz itsututaco aren gogo ta zale samur bigúnac. Tentacioac illabetean irauñ zuan, eta dembora onen buruan Jaincoac nay izan zuan libratu, munduaren consuelo María guciz santaren bitartez; alabaña santuac bere uste eta confianza gucia Ama gozo oni esqueña ceucan, eta confianza eta uste au beragan eta hacarric beragan ceduzcala, cion. Arratsalde batean echera cijoala, eliza batean sartu, eta icusi zuan eliz artan Virgiña Mariaren imagiña bat, eta bere oñean escribitua: *Memorare etc.*, itz onequiñ asitzen dan san Agustiñ-en oracioa, eta da: *Contura zaite Virgiña guciz erruquitsua, secular aditu ezlala zure amparopean gordetzera bidequiten dutenetacoric utzia izan dala.* An bertan auzpeztu, biotzeco samurtasunic andienaz oracio au esan, garbitasuna gordetzeco promesa berritu, errosario santua egunoro errezatzea aguindu, eta diotsa: *Nere Erregiñ eta Amandrea, equidazu arren nic beraganatzeco arpequiric eztedan zure Senc guciz santuarequico bitartecotasuna. Ene Ama, baldin añ maitagarria dan Jaun bat ez amatzearen zori gaitzen andiena izan bear badet beste munduan, irichi zadazu edolaric mundu onetan al guci gucia bera amatzea. Au da escalzen dizudan, eta equingo di-**

dazula uste dedan mesedea. Escari au eguiñon-
doan gueratu zan Jaincoaren besoetan atsedeten da-
goana beccela, Jaincoac gogo zuanera oso jarrita.
Eta une berean sentitu zan tentacio latz artatic li-
bre, Ama guciz gozoaren hidez. Bere anima lengo
paque gozo osoan sartu, eta dembora berean gor-
putzeco osasuna ere biurtu eitzayon. Jarraitu zuan
Mariaren gucizeo devoto izaten, Ama maitearen ga-
raitasun eta misericordiac bere vici gucian bere ser-
moy eta liburuetan zabalduaz.

ORACIOA.

O Jaincoaren Ama, aingueruen Erreguiña eta
guizonen esperanza; zue, deitzen dizuten nornairi a-
ditzen diezun orrec, oná non daucazun emen orañ-
daño demonioaren escupeco izan dan, baña aurre-
ronzean, viciac dirauquioneraño, zu onratzea ta ser-
vitzea aguinduaz, zure servitzari eta esclavo izan
nay luquean zori gaiztoco bat. Ondo ezagutzen det,
zure Seme guciz santua ofenditu dedanez gueroz
onra guciz laburra irichico dezula, ni izan naizan
becelaco esclavo lotsagabe billau batec zu servitetic;
baña zue badezu ni beste guizon berri bat eguiteco
escua, eta ala eguiten badezu, bacarric zure urrical-
tasunari zorco zayo onra. Ez arren despreciatula ut-
zi nere escari au, ene Ama. Jaincoaren Seme beti-
coa ardi galduac billatzera etorri zan, eta oec sal-
vatzearren eguiñ zan zure Seme. ¿Nola botaco dezu

bada ceregandic ardicho au, noren ere billan Artzay ona zure bitartez etorri zan? Eman dago nere erremedioagatic bear zan ordañ-saria; iñuri zuan nere Erosleac conta al baño gueyago mundu erredimitu citzaquean odol preciatu hura. Bacarric palta da, odol onen valioa niri ere egozte, eta au zuri dagoquizu, Virgiña guciz bedeciatua, bada san Bernardoc eraeusten didan becela, zu cera odol guciz preciatu onen valio ta merecimentu gucia gogo dezunari egozten diozuna. Zue salbatzen dituzu nay dituzun guciac, dio gañera san Buenaventurac. Beraz, Ama mailea, zue valio bear didazu, zue salvatu bear nazu. Zure escuetan ipintzen del nere anima; zue salvatuco dezu.

II. en §.ª

Tentacioen contra Mariaren escu ta indarra.

Mariac, ceruco Erreguiñ eta santuen Erreguiñ berá izateaz gañera dauca infernuaren eta ango etsayen gañean ere escu eta aguintea, ceren oec bere vertutezco armaquin biotz andiaz garaitu cituan. Jaincoac munduaren asieratic eman cion aditzera sùgarrasta gaiztoari, emacume batec autsico ciola burua. Eta emacume au bacar bacarric here humiltasun eta gañeraco bertuteen indarrez etsayagandic baza edo victoria osoa irichi zuan Maria izan zan. Eta emacume au ceñ izango zan gucioc jaquin

guentzan, Jaincoác etzuan esan *ipintzen diat*, baicie *ipinico diat etsaitasuna irequin emacumeuren artean*: venzutzallea Eva zalacoan inor egon ezte-
diñ (1). Garaipen eta triunfoa Evaren ondorengo
balentzat gordea cegoan, eta onen bitartez gure le-
nengo gurasóac eta beren ondore guciac bear zuten
irichi pecatuaren bidez galdu zuten ona baño on as-
coz andiago bat Combait zalanzen daude, itz *autsico
dic ire burua* Mariari ote, edo Jesucristori dagoz-
quion, ceren irurogucy ta amar Azaldarien testoa-
cion: *guizonac aufsico dic*; baña latiñezco vulga-
tan, ceña dan elizan eguiazcoztat dagoana, Trento-
co Concilio sagraduác erabaquia daucan becela, itz
hura da *emacumeac* eta ez *guizonac*, san Ambro-
sioc, san Geronimoc, san Juan Crisostomoc, eta
beste ascoc aditzen duten becela. baña, dana dala,
gauza segurua da, edo semeác Amaren bidez, edo
Amác Semearen indarrez azpiratu zutela deabrua,
eta bere damu gorri gaiztoan Virgiña guciz bedeica-
tu onen oñazpian gueratu zala (2).

Eva izan zan garaitua, eta illuntasinac eta eriotza
berác eracarri eizquigun. Mariac garaitu zuan, eta
ecarri eizquigun arguia ta vicitza, utziaz bere etsaya
añ viciro ta gogor lotua, non gueroztic eciñ bere
devotóay gaitz chiquienic ere eguin dien.

Proverbioetaco itz *Beragan constatzen da bere Es-
posoaren biotza: etzaizca saltatuco victoriaren se-
ñaléac*, oen gañean jaquintsu batec guciz ederqui dio

(1) Ciprian (2) Bern. Sermon in Sign. magn.

(1) Esposo au dala Jesucristo, ceña baita, Mariac deabruari quentzen diozcan ónaquin aberasten duan. Eta beste jaquiñtsu batec (2) dio: Bere escuan ipiñi zuala Jaincoac Jesusen biotza, guizónen beraganaco naitasun edo vorondatea irabazteco; eta ala, paltaco ez dirala victoriaren señalear, au da, infernucó etsayaren atzaparretatic atera, eta Jauna aberasteco berari ecarrico dizcan animac.

Palma victoriaren señalear dala, jaquiña da; eta gure Erreguina dago palma zuta becela ceruco principen erdian, bere amparoperatzen diran guciac iristen duten victoriaren señalear (3). Seméac, esaten dagoquigula dirudi, etsayac estu zarabilzquitenean, atozle nigana, beguira niri, eta alaitu, ceren nie gordetzen zaituztedan, eta berealatic ieusico dezute nigan victoriaren palma. Eguiac, Mariaganaco bidea etsayaren eraso gucielatic ondo irteteco bide guciac segurua da, ceren Ama maiteac etsay oec beti garaitzen eta aspiratzen dituan (4), izanaz bera infernu guciarentzat batallaraco prest jarrita dauden ejercitu andiac baño izugarriagoa.

Espiritu Santuac ipintzen ditu Mariaren aoran itz oec: *Muts-adarrac becela ematen ditul usay gozodun frutuac* (5) ceren matsa loretan dagoanean, beragandic sugueac igues eguiten dutela, dioten becela (6), Mariaganaco devocioaren usaya barrunda dien zori oneco anima ayecgandic demonioac igues

(1) Richard. á S. Laur. (2) Corn á Lap. (3) Alb. Magn. (4) Bern. de Sen Serm 5 de Glor. Nom. Mar. (5) Eccl. 24. (6) Bernard.

dijoacen. Beragatio ematen zayo ustelcorra ez izateaz gañera, bere usay gozoaz sugue pozoitsuac ayenatzen dituan arbola cedroaren icena ere (1).

Antziñaco demboretan juduac testamentuco cucha béraquin eramanta victori asco irabazten eitzuzten. Cuch onequin garaitu zuan Moises-ec; onequin garaitu eitzuzten filistin-tarrac: berarequin irabaci zan Jericó. Eta gauza jaquiña da, cuch hura Mariaren irudia izan zala, eta aren barrunen gordetzen zan becela maná, doncella onen sabel guciz garbico ichian egon zala munduaren Salvatzalle, ceruco mana (2). Ceruco cuch onen bidez irabazten da victoria; eta ceruetan beste guciac baño gorago jaso eta co-roatua izan zan egunean, gueratu zan oso buruz-beeratua infernuaren escu eta indarra (3). ¡Cer laborria dioten etsáyac Mariari eta here icen santuari! Etsay oriee arrazoiz berdintzen dira gauzez lapurrerian dabilzan, baño egun sentico arguiagandic erioagandic becela igues dijoacen lapúrraquiñ. Etsaya ere ala etortzen da animac atzitzera, oec ez-jaquiñaren illunpean vici diranean; baño Jaincoaren graciaz eta Mariaren urricaltasunaz arguituac icusten dituanean, bereala ango aldíac eguiten ditu (4). ¡Zori onecoa, bada, pelearn erdian Mariaren icen guciz santua deitzen duana!

Eguia au on eguiteco, santa Brigidari eman eitzayon aditzera, eeen Jaincoac alaingo escu eta in-

(1) Ug Car. (2) Corn. á Lap. (3) Bern, Serm. 41. de B. M.

(4) Bonay. in Spec. Virg.

darra eman ciola Mariari espiritu arro ayen contra, non cembait aldiz bere devotoay erasotzen dien, eta oec berari deitzen dioten, Ama maite onen quiñu uts batequin icaratuta igues dijoacela; baña alaco laborriaz, non nayago luqueen len alaco bi tormentu eramán, béren burúac ala garaituac icusi baño. Batez ere garbitasunaren contraco tentaldietan da bere laguntza guciz vici eta indartsua; eta onegatic berdintzen du Esposóac arantz arteco lirioarequin, bada onegana ere, diotenez, piztia pozoitsuric alderalzen ezta (1).

Ama maite onen devoto izatearen suerte ona duten guciac esan lezaquee uste osoaz: *O ene Ama, baldin zagan badaucat nere uste ete esperanza, ez naiz izango vñzutua, baicic eta zure babe-sean perseguituco ditut nere etsáyac, eta ezcutarma sendoa becela gucia dezaquean zure laguntza béren contra ipiñiaz, gueratuco naiz garailari* (2). Eta dudagabe gueratuco dirala garailari, ceren Maria béren alde izatea, infernu guciaren escu eta indarrac ere eciñ gogor eguin lizayoquean arma iduquitzea becela dan.

Jaincoac here erria Egipto-co catibueratic atera zuanean erri au egunaz eguzquiaren berotasunelic gordetzeco itzaltzat, eta gauaz arguizco pillareztat servitzen cion odecy batequin guiatzen zuan eremu artan barrena: odecy hura Mariaren, eta onec beti eguiten dituan erruquizco beargayen irudia zan.

(1) Corn. á Lap. (2) Damasc. in Annunt. Dei Gen.

Odeyác becela gordetzen gaitu Jaincoaren justicia zorrotzaren sugar gogorretic, eta arguizco pillareae becela demonioaren aidurqueriatic (1), ceren suaren aldean ipiñita arguizaguia añ laster urtzen ezlan, nola Mariaren icen guciz santua beti gogoan erabili-lliaz, berari deitu, eta bere antzeo izatera sayatzen diranen animen contraco indar guciac infernuco etsáyac galtzen dituzten (2).

Izu gorriac artzen ditu gaitzquiñ ayec bere icen sagradua aditze utsac, eta oñaztarra aldean erortean guizónac lur jotzen duten becela, gueratzen dira demonioac izutu eta lurreratuae Mariaren icena aditzean. ¡Cembat victoria irichi dituzten beraren icen guciz santu au deitzea bestegabe! Onela venzutu zuten Padua-co san Antonioc, Suson-go Enrique doatsuac, eta beste conta al baño gueyagoc, eta oen artean Japon-go cristau batec. Oni egun batez demonio samalda andi batec berac icusten cituan eran erasoric, esan cien: *Nic ezdaucat zuey beldurra eman leguizuqueen armaric; baldin Jaincoac artaraco escu ematen badizute, nizaz nay gucia eguizute; baña nere abte deitzen ditut Jesus ta Mariaren icen gozóac.* Au esan ez al zuan, bereala lurra idiqui, eta ciran guciac au berá amildu ta ondatu ciran. Eta icusiaz gañera daquigu, ecen bide onezaz valiatzen diran guciac bazarequin irteten dirala cernay perilletatic (3).

(1) Richard á S. Laurent. (2) Bonav in Spec (3) Anselm. de Dxc. c. 6.

Glori andicoa eta miragarria da zure icena, Ama maitea. Eriotzeco orduan icen au deitzea gogoratzen zayonac, es dira izutuco infernuaz, ceren deabrúac icen au aditzen dutenean iguesari ematen zayozcan, ejercitu armatu bat baño izugarriago zayelaco (1). Ala da, Ama maitea, Zue cere icen gueiz erruquit-suaren arma indartsuáz ateratzen dituzu infernuco illunpeetaco principeen escuetatic cere devotoac (2). ¡Cer mingarria tentacioa datorquien bezañ laster icen au confianz osoaz ez deitzea! Ezta cer dudatu, ecen ala eguingo balute, iñor irichico ez litzaqueala pecatu eguitera, ceren icen au indar añ vicicoa dan, non bera aditzean infernu guciari zuecurúzac sartzan zayozcan (3). ¡Cer gueyago esango det? Pecatarien galdu, Jaincoagandic urrutiratu, eta demonioz be-teenagandic ere, icen indartsu au esaten ez al du, bereala igues dijoaz oec, baldiñ asmo zuan becela ontzen ezpada, ostera len baño portitzquiroago biurtzen zaizecala, eguia bada ere.

EJEMPLOA.

Risberg deritzan errian vici zan Arnaldo ceritzan Canonigo erligioso, Mariaren gucizco devoto bat. Onec eriotzaren atectan cegoala icusi, eta sacramentu guciac arturic, bere lagúnac deitu, eta estura artan bacarric utzi etzezatela, oyey erregutu cien.

(1) Bonav. in Psalt, B. V. (2) Idem. (3) B. Alan.

Ozta au esan cion garputz gucico icarác artu, eta icerdi otz batec eman, beguiae oso larritu, eta voz izugarriarequin esan cion: *¿ez dezute icusten demonioac eraman nay nautela?* Guero eguin zuan deadar bat, esanaz: *Anayac, esca quiozute nigatic Maria guciz santari: beragan daucal nere uste gucia.* Bereala Ama guciz santaren leteya errezatzen jarri, eta *Santa Maria erregu ezozu beragatic* esan ez al zuten, hiltzen eegoanac deadar eguin zuan: *esan, esan beñ berriz eta ascotan Mariaren icena, Jaincoaren tribunalean nagota.* Emen gueratu, eta lasterrean eranzunaz becela esan zuan: *Eguia da hori eguin nuala; baña eguin nuan penitencia ere.* Eta Virginiagana itzuli, eta escatzen cion bere amparoa, esanaz: *Ama maitea, zue laguntzen badidazu, ondo irtengo naiz.* Demonioac beste erasoaldia eman cioten; baña escuco Santocristoaz ciñatuaz, eta bere bitarteco gozoari gueratzaca deituaz gordetzen zan. Goizaldean soseguan jarri zan, eta itza indartuaz poz andian esan zuan: *Nere Ama lastanoren amparoac irichi dizquit barcacioa eta saluacioa.* Ouetan Maria guciz santac berari jarraitzera deitzen ciola icusita, bereala eranzun cion: *Banator, Aulrea, banator,* eta alehatzeco indar eguiten zuan; baña gorputzez eciñ jarraituric, gozotero hill zan, eta uste degunez bere anima betico zori onera egatu zan (1).

(1) P. Auriem. t. 4. c. 7.

ORACIOA.

Ona emen zure oñetan, ó enc esperanza, bere erruz demonioaren esclavo ascotan izan dan peccatari galdu bat. Ongui ezagutzen det, ni etsayac azpiratu eta preso eguitea, zuzaz valiatzera bideguiñ eztedalaco izan dala; bada segurua da, zugana bideguin izan banu, añ ondoraño erorico ez nitzala. Uste det, zure laguntzaren bidez bere atzapar gogórren artelic irtena nagoala, eta Jaincoaren misericordia irichi dedala. Baña etorquizunean beldur naiz osterá atzitu, eta bere cateaz lotu nazan, ceren ni berriro azpiratzeco ustea galdua ezdaucan, eta oraingotz tentaldi eta eraso berríac emateco prestatzen dijoan. Lagun zadazu zuc, Erreguiñ eta Echecoandrea, gorde nazazu cere mantupean eta ez arren ni berriz aren esclavo izateco lecuric eman. Zugana bideguiten badet, gallen irtengo naizala, ondo daquit. Baña au da orañ estutzen nauan beldurra, gaitzeraco bide eta perilla datozenean zuzaz aztutzearena. Au da, bada, nay nuquean, eta humilquiro escatzen dizudan gracia, Virgíña guciz santa, pelearen erdian icusteratzen naizanean, zure laguntza escatzeaz ez aztutzea. Deadar eguin dezadala orduan: *Enc Ama, lagun zadazu; enc Ama ampara nazazu.* Guciz berezquiro azqueneco pelean, eriotzeco orduan lagun zadazu vieiroago, eta atozquit gogora, beti eta gueratugabe biotzez eta aoaz dey deguizudan, eta

onela zure icen guciz indartsua eta zure Seme guciz santuarena animan eta españetan ditudala, irichico det bioc beticotasun gucian glorian icustera eta be-deicatzera joateco zorion eta dichia paregabea. Amen.

V. en BURUA.

*Zugana suspirioz, sentimentuz eta negarrez
gaude, negarrezco lecu onctan.*

I.º §.ª

**Ceñ bearra zagun salvatzeco gure Andre Ma-
riaren bitartecotasuna.**

Fedecoa da eta cembait Concilioe aintzat eraba-
quia, santuai eta batez ere gucien Erreguiña Maria
guciz santari Jaincoagandic gracia ta mesedeac iri-
chi deguizquiguten erregutzea gauza bidezco eta
cillegui dana ececie, prochugarri eta santua ere
dala; eta dotriña onec condenatzen du, santuacgana
bideguita, gure bitarteco bacar Jesucristori irañ eta
injuria eguita dala, dioten cembait herejeren dotri-
na gaiztoa. baña baldiñ Jeremias-ec hill zanez gue-
roz erregutzen badu Jerusalengo erriagatic (1), bal-
diñ Apocalipsi-co guizon zárrac Jaincoari bere aur-

(1) II Mach. 15.

onela zure icen guciz indartsua eta zure Seme guciz santuarena animan eta españetan ditudala, irichico det bioc beticotasun gucian glorian icustera eta be-deicatzera joateco zorion eta dichia paregabea. Amen.

V. en BURUA.

Zugana suspirioz, sentimentuz eta negarrez gaude, negarrezco lecu onctan.

I.º §.ª

Ceñ bearra zagun salvatzeco gure Andre Ma-riaren bitartecotasuna.

Fedecoa da eta cembait Concilioe aintzat eraba-
quia, santuai eta batez ere gucien Erreguiña Maria
guciz santari Jaincoagandic gracia ta mesedeac iri-
chi deguizquiguten erregutzea gauza bidezco eta
cillegui dana ececie, prochugarri eta santua ere
dala; eta dotriña onec condenatzen du, santuacgana
bideguita, gure bitarteco bacar Jesucristori irañ eta
injuria eguita dala, dioten cembait herejeren dotri-
na gaiztoa. baña baldiñ Jeremias-ec hill zanez gue-
roz erregutzen badu Jerusalengo erriagatic (1), bal-
diñ Apocalipsi-co guizon zárrac Jaincoari bere aur-

(1) II Mach. 15.

rean santuen oraciorac ipintzen badiozcate; baldin san Pedroa, mundu onetatic joandacoan gogoan iduquico dituala, bere icasleay aguintzen badie; baldin san Esteban-ec bere perseguitzalleacgatic erregutzen hadu; baldin san Paulo bere lagunen bitarteco jartzen bada; baldin santuac gugatic erregu balezaquee, ¿cergatic eztegu billatu bear beren bitartecolasuna? San Pauloc berac escatu cien bere icasleay, erregu eizatela beragatic (1). Eta Santiagoc encargatzen gaitu; erregu dezagula batz ec besteacgatic (2). Beraz segurutasun guciaz erregu dizayequegu

¿Nore ucatzen du, izatez ta bidez Jesucristo dala gure bitartecoa, eta bere irabaci eta merecimentuac dirala bide adisquidetu gaituala Ait Eternoarequin? ¿Baña ezta izango dotriña gaiztoa, esatea Jaincoaren gogoco eztaala santuen bitartez eta batez ere guciac maitatu eta onratzea nay luquean bere Ama guciz maitagarriaren bitartez mesedeac eguitea? ¿Nore eztaqui Amari eguiten zayon onra semeen onragarri izaten dala? ¿Nore sinistu bear du, Ama goratuaz Semearen onra illuntzen dala? eta contrara, cembat agur on gueyago Amari, aimbat guchiago eguiten zaizcala Semeari (3)? Erregueren Ama Erreguina goratzea, Erreguinaaren Seme Erregue goratzea da (4). Ezta, alabaña, cer dudatu Jesucristoren merecimentuen bidez eman citzayola Mariari gure osasunaren bitarteco izatea, ez justicia eguiteco, ezpada

(1) 1. Thess. 4. 15. (2) C. 1. v. 15. (3) Bernar, Hom, sup, Miss. (4) Ildephons.

gracia iristeco bitartecotasuna eguiteco (3). Eta beragatic Virginiagana bideguita ez dator gu Jaungoicoagan eta bere urricaltasunean ez fiatzetic, ezpada gueron ecerez eta billautasunaren beldurretic, bada au ezagututa Mariaganatzen guera, bere merecimentu eta bitartecotasunaz gure utsa bete dezan (4). Au gauza santu eta prochugarria ezta lacon bacarric federic ezmana egongo da. Gueyago diot; bere bitartecotasuna gauza bearra zagula salvatzeco, ez izatez bestela eciñ salva guindezquealaco, ezpada guciz gaitz, eta alde aldean ecinquizuna dalaco. Jaincoa bera da onela nay duana, guizonay ematen zaizten gracia guciac Mariaren escuetatic igarotzea erabaquiaz, san Bernardori deritzan eran, izanaz iritzi au gaurco egunean maisu eta teologo gueyenena, *Mariaren Erreina* deritzan liburuaren eguillac ederqui eracusten duan becela. Au da Vega, Mendoza, Pacincheli, Segneri, Poire, Crasset, Contenson eta conta al baño beste gueyagoren iritzia. Dion artan añ beguiratua izan dan Natal Alejandro berac zalazan egongabe segurutzen du au.

Baña gure egunelaco jaquintsu batec, devocio eguiaczcoa eta palsoa cer diran eracustean guciz ondo itzeguinaz dotriña ederra eracusten badu ere, Mariari grací au aitortzen ezdio, eta Jaincoaren Amarequin guciz cicóitz eta labor izanda, san Germanec, san Anselmoc, san Juan Damacencoc, san Bue-

(1) Bon. Laurent Justin. Serm. de Annunt. (2) Anselm. de Exc. Virg. c. 6.

naventurac, san Antoninoc, Sena-co san Bernardinoc, Celles-co Abade Veneragarriac eta Elizaco beste aibeste eta aibeste maisue Mariaren bitartecotasuna on eta prochugarri ecezie bearra ere dala, begniramentuaren arrazarcgabe segurutzen dutelari. Esan degun jaquintsuac dio, ecen Jaincoac Mariaren bidez ezpada graciari ematen ezuala, esatea, santuay beren devocio heroac eraguiten dien gauzen guezte bat dala, bada once, bear becela adituta, esan nay duala, Mariagandic artu degula Jesucristo, noren merecimentuacgatic gucia iristen baitegun: eta gañera dio, Jaincoac bere Amaren bitartecotasungabe ecin eguin deguizquiqueala mesedeac, sinistea, dotriña galdua litzaqueala, eracutsiric Apostoluac, ecen bacarric Jaungoico bat, eta Jaincoarequin gizonen arteco bitarteco bat, au da Jesucristo, cristauoc ezagutzen ditugula (1).

Baña jaquintsu onen haimenarequin, izatez eta bidez nore bere merecimentuacgatic berezcoa duan bitartecotasuna bat da, eta erreguen bidezco graciaz emana, beste bat, eta Jaincoac ecin duala, esatea gauza bat, eta Mariaren bitartez ezpada eman nay ezuala, esatea, beste bat. On guciaren iturburua becela bere mesede eta graciaen jabe bacarra Jainco dala, eta Mariac ematen badizquigu, Jaincoagandic mesedez artuta ematen dizquigula, inore ueatzen ez-tu. ¿Baña nore ipinico ere du dudau gauza guciz justu eta arrazoizcoa dala, creatura guciz garay once

(1) 1. Tim. 2. 4.

beste inõre ez becela Jaincoa anatu eta onraturic, eta berá Jainco baten Ama izaterañoco malla ta anditasun paregabera goratua izanic, Jaun onec eman bear dituan gracia eta on guciac bere Ama maitearen escu garbietatic igarotzea nay duala? Jesucristo da izatez ta bidezco bitarteco bacarra, eta bere merecimentuacgatic iristen degu gracia eta salvacioa; baña Maria da mesedezco bitartecoa, eta iristen dizquigu gracia guciac Erredimitzallearen irabacien bidez dira, eta gracia oec Erredimitzallearen icenean escatuta, gueroenean Mariaren escu bedeicatuetic igarotzen dira guciac.

Onetan eztago gure fedearen contraco ecer, eta oraindic au gucia Eliza santac duan eta sinisten duanarequin guciz ondo datorrena da, guri eracutiaz bere oracio aguiricoetan bideguin dezagula beti Ama gozo onegana; *salus infirmorum; refugium peccatorum; auxiliun christianorum; vita, spes nostra.* Eta eliz-errezoac eguin bear ditugunoy Virginia santaren prest-egunetaco errezoetan Escritura sagraduco itz batzuec Mariari egotziaz, esaten digu: *Gu peccatutic gordetzeco bide seguruan becela, Mariagan ipini bear degula gracia ren, vicitzaren eta belico salvacioaren uste eta esperanza quia.* Oec gucioc bere bitartecotasun indartsuaren bearra arguiro aguertzen diguten gauzac dira.

Eta au onela sinistu eta ustetzeco conta al baño gueyago teologo eta Guraso santuc gauza segurutzat eracusten digute, ceñtuz bez gauza justu eta bidez-

ëoa eztan esatea, Maria goratzearren gauzac andiz-
catu cituztela, alabanza gueyeguizco itzac aotic ero-
riaz; ceren gauzac diran baño andiagotu eta gorat-
zea, eguiaren muguetatic irtetea dan, eta au Jain-
coaren espirituac lagunduta escribitzen zuten san-
tuac etzuten oitura gaiztoa da.

Eta emen utzi bear zat laburqui esaten, eeen ar-
taraco arrazoy ta bidea saltagabe, nolerebait Maria
guciz santaren onrara zuecutzen dan iritzi bat, fe-
dearen, Elizaren aguinduen edo berez eguiaren con-
traco ecertan utseguiten eztuanà dancan ontzat ez
artzea, edo bere contraco bestea eguiazcoa izan li-
tequealaco aitzaquiaz iritzi oni contra eguita, Ama
guciz santaganaco devocio guciz laburraren señaleara
dala. Nic onelaco devoto banaquen erroldean egon
nay ez nuque, añ guchi nere iracurlectatic inor ere
oen artean contatzea; baicic eta Mariaren andita-
sünen gañean fedean utseguingabe sinis litequean
gucia guciz ondo ta sendo sinisten dutenetacoac gu-
cioc izatea nay nuque, Mariari gogocoen zaizcan
gauzetatic bat bere garaitasun, anditasun eta da-
gozquion gañeraco gauzac sinismen osoaz sinistea
dalaco (1). Eta onetaraco beste arrazoiric ezpalego
ere, ascoco litzaque jaquitea san Agustin andiac
eracusten duana, au da: Mariaren alabanzan esan
al ditequean gucia guchi dala Jaungoicoaren Ama
izatearen anditasunagatic mercedi duaneraco; eta one-
quin batera Eliza santac beguietaratzen diguna, a-

(1) Rap. Abb. de laud. Virg.

guinduz esatea bere mezan itz oec: *Doatsu cera, ó Virgíña sagrada, doatsu, eta bedecicacio eta alabanza guciaren guciz diña* (1).

Baña, lenera gatocela, dacuscun santuac diotena. San Bernardoc deitzen dio *urbide betea, ceñabaitaren betetasunetic gucioc artzen baitegun* (2). Dio gañera, len etzala munduan iturri ngaritsu au; baña jayo zanez gueroz beragandic datorrela gracia gugandaño (3). Eta onegatic Holofernes-ec Betuliaco uria artzeco uri artara ceuden urbidéac austeaa aguin-du zuan becela, demonioa ere sayatzen da animay Mariaganaco devocioa galeraztera, eta au iristen baddu, gañeracoa eguiña dauca. ¡O anima! dio gañera santuac, beguira nolaco devocio eta biguntasunaz onratua icusi nay duan Jaincoac bere Ama; bada bere escuetan ipiñi cituan bere ontastunaren aberastasun gueiac, jaquin dezagun, esen octan dagoala graciaren eta salvacioaren esperanza (4). Eta beste lecu batean, Elizac ematen dion *ceruco atearen* icen onen gañean itzeguiñaz, dio, au dala, ceren Mariaren escu guciz bedeciatuetatic igarogabeco graciatic cerutic ez datorren (5).

San Antoninoc gauza segurutzat dio: Guizónay eguiten zaizten misericordi guciac Mariaren bidez izaten dirala (6).

San Geronimoc, edo bere liburuetan dagoan Asuncioco sermoy bat escribitu zuanac oneguiten da

(1) Felix namque es, etc. (2) Serm. de aquae. (3) Id. (4) Serm. 5. de Nat. (5) P. 4 tit. 15. c. 29.

egüia au, esanaz: Jesucris'ogan dagoala graciaren betetasuna, espiritu vici-emalleac, au da betico salvacioa iristeco bear diran lagantzac bertatic sortzen diran iturburua becela; eta Mariac ere daucala gracia oso ta betea, gucia beragandic igarotzen dan lepo edo bidea becela (1).

Sena-co San Bernardinoc au arguiroago dacar, eracutsiaz, Mariaren bidez igarotzen dira'a cristau fededunetara, ceñac diran Jesucristoren gorputz misteriotsua, Jain onegandic jašten diran animaco gracia guciac (2); gañera esanaz, bere sabel garbian Jaincoaren Semca sorta zan unean bertan beretu zuala Amac Espiritu Santuagandic datocen deay gucien derecho eta jabetasun osoa, alatan non, arrez gueroz creaturec ezuan artzen bere escu guciz garbietatic igarogabeco gracia ta mesederic (3), mesede ta graci oec berac nay duanari, nay duanean eta gogo duan eran emateco derecho eta escuarequin (4).

Aita Crasset-ec, Seme Jaincoaren Guizon-eguitea, eta emacume hatec, au da Maria guciz santac, bere barrumbeco ichian iduquico zuala, alde-aurrez adiraciaz Jeremias profetac esan cituan itz ayec esan nay dutena azalduaz, Mariaren escutic datocen gracia berdintzen ditu inguru edo circulu batetic irte ten diran arrastoquin, bada oec nay edo ez beren inguruco arrasto horobilletic igaro bear diran becela.

(1) Serm. de Ass. B M (2) Serm. 61 de Nat. Virg. c 8
 (3) Serm. 67 trac 1 (4) Dict. Serm. 61.

on guciaren centroa dan Jesucristogandic ere eztala igarotzen gugana Mariagandic igarogabeco graciatic, ceñac Jaun au ingurutu eta iduqui zuan ichian, bere sabel garbian artu zuanez gueroz (1).

Au berá eracusten da Ricardoc.

Celles-co Abade Veneragarriac encargatzen gaitu, lideguin dezagula gracia gucién tesorera edo gracia guciac bere contura dauzeanagana, bada hacarrie bere bidez, eta ez bestela, ichedon bear dutela guizonac, uste al dezaquean on gucia (2).

Aita Suarez-ec eracusten du, ecen gaurco eguncan Eliza guciaren iritzia dala, Mariaren bitartecotasuna proclugarria ezecic, bearra ere dala (3): bearra, dio ostera, ez guciro, alabaña guciro bearra gure Jaun Jesucristorena zigula, ezpada santu jaquintsuen iritzian alatsu dalaco, ceren Mariaren escutic igarogabeco ecer guizonay ez ematea Jaincoac crabaquia dancan, san Bernardoren dotriña (4), asco lenago san Ildefonsoe eracutsiac dion becela; bada santu onec Mariarequin itzeguñaz, dio: *¡O Maria! Jaunac crabaqui du, guizonetan zabaldu bear dituan ondasun guciac zure escuetatic igaro ditecela, eta orretaraco utzi dizquitzu zure contura bere graciaco ondasun eta aberastasun guciac* (5).

San Pedro Damianoc orobat dio: doncella guciz

(1) Dev. Virg (2) De contempl. Virg. in prolog (3) Tom. 2 in 5 part. disp 25 s. et 5 (4) Serm 5 in Vig Nat. (5) In Cor. Virg c. 15.

garbi onen bayezco edo baimenagabe etzuala Jaincoac guizon eguiñ nay izan, bi arrazoigatic: lenengoac, onguille añ gucizcoari eciñ gueyagoraño beartuac gueratzen guintzaizquiola, eta bestea, gucioti salvacioa Andre miragarri onen esen eta nayera gueratzen zala, gucioc jaquin guentzan (1).

Azquenic, san Buenaventurac lectu batean dio: illarguiac eguzquiagandic artzen duan arguia lurrera bialtzen duan becela, Mariac Eguzqui jaincozcoagandic artzen dituan ondasuna igarotzen dituala gugana (2), bestean eracusten du berriz, ecen Jaincoac Mariaren sabel guciz garbian vicitzeaz atseguin izanic, oni ondasun gucien gañeco esen eta jabetasuna eman ciola, eta Jaun au mundura jayo zan unean berarequin irten cirala manchagabeco sabel artatic, certuco itsaso batetic becela, Jaincoaren aberastasunezco ibayac (3); eta beste lectu batean Isaias profetaren itz ayec azalduaz, au da: *David-en Aita Jeseren errolic itengo zala landare bat*, au da, *Maria, eta oneqandic lore bat*, au da Jaincoaren Seme beticoa, guciz ederqui dio: *Espiritu santuaren gracia irichi nay duan guciac billa beza lorea bere zorten edo landarean, ceren lorea landarean daqoun; eta lorean Juungoicoa, alabaña eztu inore topatuco Jesus, ezpada Mariaren bitartez* (4).

Esan dan gucitic arguiro ezagutzen da, santu eta

(1) De Nat. Virg. ap. Pac. exere 1 (2) Serm. 74. de Nat. Dom.

(3) In Spec. c. 5. (4) In Sepe. c. 6. Ildeph. de Virg. Mar. c. 12.

maisu andi guci oec ceruco ondasun eta gracia guciac Mariaren escuetatic datocela eracustean, ez dutela esan nay izan, au dala bacarric on guciaren iturburu Jesucristo beragandic artu degulaco, ezpada gañera ceren gueroztic Jesucristoren merecimentuacgatic guizonay eguin zaizten, eta mundua mundu daneraño eguingo ere zaizten mesede ta on guciac bere Ama gueiz santaren bitartecotasunari zorizatea nay izan duala Jaincoac.

EJEMPLOA.

Beluacensec (1), eta Cesarioc (2) contatzen dute, aitac bere odol onarequin batera ondasun andi ugaritsiñac utzi ciozcan galay gazte bat, griña macur galgarrietara eman zalaco, añ bearrera etorri zala, non, esqrean jarri bear izan zuan, eta gueroenean bere erritic aldeguñ, eta ezagutzen etzuten urruticoetara, lotsaizun guchiagoaz vicitzeco ustean juan zala. Lenago bere echeco servitzari izandaco guizon bat bidean topatu, eta onec añ zarpatsu ta tresna galay hura icusita, esan cion, alay cedilla, bear zuan gucia emango cio. Jaun abèrats bategana berac eramango zualata. Jauntzaco an, icusten danez, sorguñ edo hechicero gaizto bat zan, eta au, mortu batean barrena gaztea eramamaz, biac putzu andi baten ertzera ciranean, abiatu zan aguiari etzan per-

(1) Spec Hist lib. 7. c. 105 (2) Dis. t. 2. c. 2.

sona batequin izquetan. Gazteac arrituric, galdetu cion, ea norequin ciardun, eta eranzun cion, *demonioarequin* ari zala; eta dembora berean gaztea añ izutua icusita, ez beldurtzera animatzen zuan. Itzqueta aurrera eijoan, eta hechiceroac Jauntzacoari esan cion: *Jauna, gazte au azquenero bear eta premian icusten da, eta guldu duana ostera beretu nay luque. Baldin niri obeditzeco prest badago, eranznu zuan infernucoc espírituae, len baño aberatsago equingo det; baño Jaincoaz ernegatzearen aldera.* Au aditzean gazteari ezur-retarañoco laborria sartu eitzayon; baño hechicero madaricatuac berotuta, gueroenean artaratu, eta bere Egnilleaz ernegatu zuan. *Esta asco, ostera esan cion deabruac, ernegatu bear dezu Virginaz ere, ceren calteric andiena equiten digna au dan. ¡Oh eta cembat anima queron atzapurretatic quenda, Jaincoagana biurtu, eta oyey barcacioa eta salvacioa iristen dien! Ori ez, gazteac esan zuan, nie nere Amaz ernegatzen ezlet, ceren bera dan nere uste eta esperanza gucio: nayago del vici naizan artean atez-ate ibilli.* Au esanta, audie igues eguiñ, eta topaturic bidean Maria guciz santaren eliza bat, an sartu, Ama maitearen imagiña baten aurrean auzpeztu, eta malco ugaritsúac isñriaz abiatu zan berari erregutzen, arten irichi ceg iola misericordia eta barcacioa. Eta orra non jartzen dan bertatic Maria dichagabe argitic bere Seme guciz santuari erregutzen; baño Jainc-ác eranzun zuan; *Nizaz ernegatu duan esquer*

beltzeco bat da. Guclaz ere Virgüña guclz santa gucratugabe triste argatic erreguca ari eitzayon, arie eta Jaunac esan cioneraño: *Ama, inoiz ere ecer ucatu ez dizut, quera bedi burcatua zuc ala nay dezuta.* Zoco gorde batean cegoan gaizon aberats batec (eta alabearrez gaztearen haciendac erosi cituana bera zan) an gucia aditu, eta Virgüña guclz santac eguiten cion ona icusirie, bere echera gaztea eraman, bere alaba bacarra emaztetzat eman, eta zuan guciaren jabegay edo heredero eguin zuan. Onela bereganatu cituan gazteac, Mariaren bitartez Jaincoaren gracia eta dembora berean munduco ondastünae.

ORACIOA.

Nere anima, ezagu zazu Jaunac ematen dizün, betico salvacioaren esperanz andia, bere urricaltasunez bere Ama guclz bedeicatuaren amparopean zu jartzearequin, cere peccatuzegatic milla bider inferna merecitu dezularie. Emagüozcatzu esquerrac Jaincoari, eta bere Ama gozoari guclz amorezcoac, alaco onguinaiz bere mantupean artu, eta mesed z betetzen zaitua'aco. Bay, ene Ama mantatsua, nere hiotzaren barrun barrüdic ematen dizquitzut, niri demonioaren esclavo izan naizalarie, an oparo eguin dizquidatzun mesede guciaegatic zor dizquitzudan esquerrac. ¡Gambat perill eta galbidetatic atera nazu! ¡Gambat arguitasun eta misericordia Jaincoagan-

die irichi dizquidatzu! ¿Eta zuc nere aldetic cer artu cenduan ni orrela mesedez betetzeco? Ecer ere. Bacarric cere onguinayac muguitu cinduan orretara. ¡Ah, Ama gozoa! nere odol eta vicia zugatic eman-go banitu ere, gucia guchi litzaque, betico eriotzetic atera ta, uste dedan becela, Jaincoaren gracia irichi, eta nere dicha gucia eracarri didazun ezquero. Eciñ beste ecerequiñ eranzun neguizunque, ezpada naitasun eta alabanzaquin. Ez arren despreciatu eta artugabe utzi zure ontasunaz itsutu dan dichagabe baten zuganaco gogo ta naitasúnac. Baldiñ griña macur eta zale eragabez añ betea dagoalaco, zu amateza mereci ezpadu, bere biotza garbitu, eta oso berri zazu. Batu nazazu Jaincoarequin, beraganaco amore santutic secular aldegingo eztedan eraco locarri sendoaz. Au da zuc escatzen didazuna, eta au nic escatzen dizudana ere. Irichi zadazu graci au; bada beste ecer descatzen eta escatzen ezlet.

II. en §.º

Gay beraren gañcan.

Badaquigu guizon batec eta emacume batec eracarri zutela gure galera; beragatic occ eguin zuten caltea beste guizon batec eta emacume batec au da, Jesus ta Mariac, zucentzea conveni izan zan (1).

(1) Bernard

Asco ta gueyegui zan bacarric Jesucristo gu erredimitezco; baña, bada guizonac eta emacumeac lagundu cioten alcarri gaitzeraco, guciz egoqui cetorren gauza zan, ordañez guizonac eta emacumeac ona ecartzea (1), eta onela deitzen da Maria gure erredencioaren laguntzallea (2). Sagar batez galdu zuten mundua Adanec eta Evac, eta biotz batez crosi zuten Jesusec eta bere Ama guciz gozoac (3). Jaincoac mundua utsetic eguin zuan; baña mundu au pecatuaren bidez galdu zanez gueroz etzuan nay izan zucendu, Mariaren laguntzagabe (4).

Iru era edo guisafara lagundu zuan gure salvacioraco, Aita Suarez-ec eracusten duan becela: lenengo, Jaincoaren Seme beticoa bere sabel guciz garbian guizon eguita ascodiñaco merecimentuaquin merecituaz: bigarren, lurrean vicitu zan dembora gucian beti gugatic viciro erregutuaz; eta irugarren, gure osasunagatic bere Semearen vicia vorondate prest batez escañiaz. Jaincoaren gloriaraco, eta gure betico salvacioraco amore guciz iracequiãz lagunduric, bada, salvacio au gucioc beraren bitartecotasun eta valimentuz irichi bear degula, Jaincoac erabaquia dauca.

Deitzen da gure salvacioaren laguntzallea, cercen guizonay eguin bear dizten gracia guciac Jaincoac bere escuetan ipiñi dituan (5), eta cercen lengo,

(1) Bern Serm in Sign Magn (2) Albert. Magn. (3) Rev. S. Birg. lib. 5. c. 55. (4) Anselm. in Allop. cœl. n. 27. (5) Bernard.

oraño ta gueroco guizon guciac, béren betico salvacioaren bide seguruari becela beguiratu bear dioten (1). Jaunac esan zuan: *Iñor nigantzen ezta, baldin nere Aitac ez badacar*: au bera esan lezaque bere Amaz ere: *iñor ere ez dator nigana, baldin nere Amac bere erregruaquin eracartzen ezpatu* (2). Jesus izan zan sabel garbi artaco frutu bedeciatua, santa Isabel-ec bere atectan sartzen Maria icusi zuanean ojuca esan zuan becela, eta ala frutuaren zale danac joan bear du arbulara; Jesus topatu nay duanac, billatu bear du Maria, eta bata topatzea bestea arquitzea da. Santa Isabel-ec Virginiã icusi ez al zuan, pintasun añ oy ez becelaco aren esquer-eracutsia nola eguin ez jaquinie, ojuca esan zuan: *¿Nondic niri, nere Jaincoaren ama ni icustera etortzea? ¿Baña Jauna ere an etorquiola, ez ote cequian? ¿Nola eztio, edo obeto esateco, nola eztago Jauna artzeco diña eztaacotzat? ¿Ah! Maria datorrenean Jesusequin datorrela, santac guciac ondo cequian, eta onegatic asco zayo Amari esquerrac ematea, Semca icendatu bearric gabe.*

Maria da zori oneco ontzi hura (3), ceñac ecarri baicigun guri graciazco eta gloriazco vicitza emateco, Jaunac berac esan zun becela, cerutic jachitaco ogui vicia dan (4) Salvatzallea; eta ala seguruta liteque, ceen munda onetaco itsaso ecaiztuan ontzi seguru onetaratzen ez diran guciac gal-

(1) Bern. Serm. in Pent. (2) Ric. super Cant c. 12 (3) Prov. 18 (4) Joan. c. 6.

duco dirala (1). Onegatic erorteco zorian icusten gueran gucian bereala gueron deyac Mariagana zucendu, eta esan zayogun: *lagun zaguzu. Andrea bereala eta salva gaitzatu*, galdu gordean guerata (2). Beguira emen, ecen itz oec dacartzian jaquintsu jaincocoyac beguiramentuaren arrazarie gabe diola, *salva gaitzatu*, contra eguiten naguquion jaquintsuac izan zuan becela, bacar ic Jaincoari dagoquiola salvatzeco escua, esanaz. baña baldin eriotzera emana dagoan guizon batec Erreguerequin ongui daucan Jain bati bere bitartecotasun eraguillearen bidez viciaren gracia irichi, eta eriotzetic libra dezala, guciz ondo erregu balizayoque ¿cergatic cristau batec cecin esango dio Jaincoaren Amari. salva dezala, eta irichi deguiola Jauagandic betico vicitzaren gracia? Atzera beguiratugabe esaten cion san Juan Damacencoc: *Errequina manchagabea, Errequin guciz garbia, salva nazazu, eta betico infernatic libra nazazu* (3); ala san Buenaventurac ere deitzen cion Mariari *otsequiten dion qucioren osasuna*; eta Eliza santac ere deitzen dio *erien osasuna*. ¿Eta oraindic iduq i bear degu salva gaitzala Mariari erregutzeco beldur eta escrupuloa, beraren bidez ezpada inñori ere ceruan sarrerarie ematen etzayoncan? ¿Santuac argui eta garbiro ez diote au? Izan bitez testigu, beste ascoren artean, san Cayetano, san Bernardo, Idiota jaquintsua, Casiano,

(1) Ric á S. Laur. de Laud Virg. (2) Id. (3) Orat. Paneg.

san Antoniño, Ricardo, Sena-co san Bernardino, san Buenaventura, eta san German. Oec añ ederqui escribitu cituzten aimbeste gauz ónetatic ipiñi ditzagun emen cembait.

Alperric billatuco degu gracia, baña eztegu iri-chico secular ezpada Mariaren bidez (1). Mariac valiatugabe escatzea, egogabe egatzea becela da (2), ceren goseac estuturic gendeac Faraon i ognia escatuta, onec *soazte Joseqana* esaten cien becela, *soazte Mariaqana* Jaincoac esaten duan, bada Mariaren bidez ezpada iñori ecer ez ematea erabaquia dauca (3). Bere escuetan dago gure osasuna (4). Beraren laguntzan eta beraren gordetzean dago gucion osasuna (5). Da gracia gucien zabaltzalea, eta beraren bidetz etorri bear da on guciac (6). Gueraeraci lezaquean erbaigabe arria erorten dan becela, Mariaren amparogabeco anima bat erorten da, aurrena pecatuan, eta guero infernuan (7). Bere bitartecotasungabe iñor salbatzen eztu Jaincoac (8). Janarigabe aur bat hiltzen da, eta Mariaren amparogabe guizon bat galtzen da (9). Saya zaitte, bada, zure animac Mariaganaco devocioaren egarria izatera, el zayozu berari, eta etzayozu utzi bedeica zaitzaneraño (10). O Virgíña ederra, ¿norc ezagutuco zuan Jaincoa, ezpada zugatic? ¿Nor li-

(1) S. Cayet. (2) Antonin p. 5 tit. 15. c. 12. (3) Bern. Serm. de Nat. Virg. (4) Ric à S. Laurent. lib 2 de laud. Virg (5) Casian. (6) Bernardin. de Sena. (7) Richard. lib B de laud. Virg. (8) Bonav. in Cant. B. V. pro Sabb. (9) Id. (10) Id.

bratuco litzaque perilletatic, norc artuco luque gra-
ciaric ezpada zugatic, ó Virgiña, ó Ama, ó graziaz
betea (1)? Aitagana iristeco eztaucagu beste bideric,
ezpada Jesucristogandic, eta Jesucristoganaco bide
segñrua da Maria guciz santa: onen bitartez artzen
gaitu, onen bitartez eman citzagunac (2). ¿Cer
izango da bada gutzaz, Andrea, baldin cristau
gucien vicitza ceran orrec uzten bagaituzu (3)?
Au gucia ta gueyago diote esan diran santuac.

Len esan degun jaquintsuac dio ostera, eeen hori
orrela bada, santuac ere Virgiñagana joan bearco
dutela gue escatzen diztegun mesedéac beragandic
iristeco; eta onelacoric iñore sinistu eta amets eguin
ere ezuala.

Eranzuten det, onen sinistean eztagoala dotriña
gaiztoric, eta ecer galtzeric, ¿Cer galera letorque
Jaincoac Maria santu gucien erreguñ jarri, eta me-
sede ta on guciac bere escuetatic igarotzea eraba-
quiric, bera gueyago onratzeco, santuac ere bera-
gana bideguñaz cernay mesede Ama maite onen
bitartez beren devotoay iristen diztela, esatetic? Eta
onelaco ametsic iñore eguñ eztualacoari dagoquio-
nez, nic icusten dedana da, san Bernardoc, san Ansel-
moc, san Buenaventurac eta oequin Francisco Sua-
rèz, maisu gañ gañecoac (4), guciac batera segurut-
zen dutela, eeen alperric batec bideguiten duala san-
tuaegana, Virgiñac laguntzen eta amparatzen ezuan-

(1) Germ. Serm. de zona Virg. (2) Bern. (3) Germ. Serm. de
zona Virg. (4) Tom. 2. in 5. p. d. 25. sect. 5.

ean. Orobat eracus'en du gure egunetaco jaquintsu batec, azalduaz erregue profetaren itz oec: *Errico aberats guciac arpequiru bequiru jarri ta zuri escatuco dizute* (1), esan nay dutena azalduaz, dio, eeen Jaincoaren erri andico aberátsac dirala santuac; bada oec mesederen bat irichi nai dutenean beren devotoentzat, erregutzen diotela Ama guciz santari, onec irichi dezan; eta onela arrazoy ta bide andiaz escatzen diegula, izan ditec la beren Erreguiñ eta Echeoandre Virgiña Mariagunaco gure bitarteco (2). Au oneguiten du Aita san Benitoc, hillezquero Erromaco santa Franciscari agnertu, eta Virgiña guciz sagraduarequico bere bitarteco izango eitzayola, aguintzeac (3). Dudariegabe, Erreguiñ Virgiña, santuac zurequin batera irichi al dezaqueen gucia, bacarric zue irichi ceutzaque (4). ¿Eta cergatic cera orren escu andicoa? Ceren bacarric zu ceran salvazallearen Ama, Jainco beraren Esposa laztana, ceru-lurretaco Erreguiña gucieracoa. Zue escatzen ezpadezu gugatic, beste santuc escatuco eztu; bañ escariari zue asiera ematen diozula, badacusate, bertatic zure ondoan jarrita escatuco dute gugatic, eta sayatuco dira viciro guri laguntzera (5). Eta au ezezie, gañera aingueru eta santuen Erreguiñ danac becela, aguintzen die beren erregu eta escariac bereaquin batu ditzatela, gutaco norbaitegatic bitarte-

(1) Ps. 44. (2) Suárez. (3) P. Marchese en el Diario de Maria 21 de Marzo. (4) Anselm. Orat. 45. ad S. Virg. Mar. (5) Anselm. lib. Or. Exc. Segneri. El devoto de Maria,

cotza eguin nay duanean (1).

Azquenic, onela ezagutzen da ondo, cergatic Eliz Ama santac aguintzen digun Ama maite oní gure esperanzaren icen preciatuz deitu, eta agur egutea: *Spes nostra, salve*. Lutero erligiogabeac onaten zuan, berac ecin eraman zuala, Erromaco Elizac bere esperanza Maria deitzea (2). Onetaraco bacarric Jaincoa, eta Jesucristo izan ditezqueala guizonaren esperanza. Jaincoac Jeremias Profetaren aoz madaricatzen duala creaturen batengan bere uste ta esperanza ipintzen duana, arrazoy guitizat emanaz.

Baña engañatzen eztan Elizac esaten digu, dey dizayogula beti ta gucratugabe gure esperanza: *Spes nostra, salve*. Jaincoa ecertan artugabe creaturen bategan bere esperanza ipintzen duana, izango da madaricatua, ceren Jaincoa dan on guciaren iturburu eta emalle bacarra, eta creature Jaincogabe ecer ezuan becela, ecin ecer eman lezaque. Baña, arguiro eraentsi degun becela, gracia guciac misericordiaren bidea dan Mariaren escuetatic igarotzea erabaqui du Jaincoac, eta onegatic esan liteque, eta esan bear da, bera dala gure esperanza, eta bere bitartecotasunez artzen ditugula ceruco nesede guciac. Izatez, Ama maitea, esango dizut san Bernardo, san Juan Damasceno, santo Tomas eta san Efrenguin, zu cera nere uste eta esperanza gracia. Zuri ondo beguiratu, eta zure escuetatic isequia icusten det nere dicha. Gorde nazazu zure urricaltasunaren

(1) Bonav. in Spec. V. cap. 5. (2) In Pont. Maj. Evang.

egapean. Saya gaitean gueron biotzeco gogo eta e-
guinal guciatz Ama maitea onrratzera, Jaincoac ala
nay duta, bere ondasun guciac gugana iristeco canal
edo bidetzat bera ipiñi duanez gueroz; eta Jaincoa-
ren urricaltasunagandic mesederen bat irichi nay
degun gucian bideguin zagun Mariagana, eta irichi-
co eztegun beldur ez izan; bada gue mereci ezpad-
gu mesede hura, gugatic bere erregiuec bitartean
ipintzen dituanac ondo mereci du; nolata gure labur-
tasunetic esqueñtzen dioguna Jaincoac ontzat artzea
nay badegu, izan bedi Maria artaraco bide, eta Jaun-
ac artuco du ontzat gure ofrenda.

EJEMPLOA.

Sonatua da Teofilo-ren historia, Costantinopla-co
Patriarca Eutiquianoc bere beguiatz icusi, eta escri-
bitu, eta san Pedro Damianoc, san Bernardoc, san
Buenaventurac eta beste gueyagoc eguiztatzen dute-
na (1). Teofilo Ciciñaco errian Adana ceritzan elizaco
Arcediano zan, eta comunquiro añ maite cegoana,
non erri are bere obispotzat berá escaten zuan. Teo-
filoc umiltasunec artu nay etzualarie. Ala ta guci ere,
gaizqui nay cioten cembaiten guezurrezco asmacioac
cirala bide bere prevenda edo beargatic quendu
zutelaco naigabe añ miña artu zuan, non bere aser-
reac itsututa, bertatic azti edo mago judu baten

(1) Crasset, Devocion á la Virgen, tom 4. trat. 4. q. 10.

billan irten, eta onec Satanasen aurrean bereala ipiñi zuan, ezbear artan lagun egeuion. Demonioac eranzun cion, ecen bere laguntza merecitzeco Jesus ta Mariaz ernegatu, eta au paperean escriptuta eman bear ciola. Teofiloc paper nazcagarri hura firmatu zuan; baña bigaramonean Obispoac eguin cion bidegabequeria ezagututa, cembait aitzagui emanaz bere burua garbituric, ostera bere lengo lecu eta mallan ipiñi zuan. Orduan Teofiloc bere gaiztaqueriaren itsustasuna ezagutu, eta barrungo arraren imurtzi gogorraquin negarrari eman cion. ¿Cer eguiten du? Eliza batera joan, eta Ama guciz santaren imagiña baten aurrean auzpezturic, malco lodi ugariac iñuriaz, diotsa: *Jaincoaren Ama, zu añ biotz-bigun eta niri valio dizadazuqueana vicerala, ernegatu nay eztet.* Escari humill au eguiten egondu zan Ama Virgiñaren óñetan berroguey egun igaro arte beti negarrez, gau batean Virgiña bera aguertu citzayoneraño, esanaz: ¿Cer da zuc eguin dezuna, Teofilo? Ucatu gaituzu nere Semea eta ni. ¿Eta nori saldu diozu cere anima? Nere eta zure etsayari. Zuc, Andrea, eranzun zuan Teofiloc, barcatu bear didazu, eta barcacioa irichi, cere Seme guciz santuagandic. Mariaç alaingo confianza icusita, ostera esan cion: Consola zaite, zugatic erregutuco del eta. Onequin alaitu, eta negar, penitenci eta erreguay viciroago equin cion, imagiña sagradu aren aurretic quendugabe; eta beste bederatzi egunen buruan ostera aguertu, eta esan cion: *Teofilo, poztu zaite, bada ipiñi ditut zure*

*errequ-escariac Jaunaren aurrean, eta ondo en-
zunac izan dira, eta Jaincoac barcatu dizu.
Gaurquero izan zaquizquio leyal, eta esquer
oneco. Ezta asco, Ama maitea, eranzun cion
Teofiloc, oraindic berequin du etsayac escritura
gorrotogarri hura, eta zuc biur ciñidazuque.
Iru egun guevago igaro ciran, eta irugarren gañean
esnatu, eta bere papera bularrean zuala arqutu
zan. Bigaramon goicean, Obispoa beste ascorequin
elizan cegoala, Teofiloc, beragana joan, bere oñetan
etzin, eta igaro gucia contatu, eta negarrezco iturri
bat eguiñic, paper hura Obispoari escuetan ipiñi
cion. Obispoac an bertan gucién aurrean papera
erretzen zuan bizquitartean an ciran guciac negar-
rari eman, eta peccari arequin eguin zuten miseri-
cordiagatic Jaincoa ta bere Ama santa guciac bedei-
catu eta alabatu cituzten, Teofilo andic bere bitar-
tecoaren elizara joan, eta atsequin pocez beterie
irugarren egunean an hill zan.*

ORACIOA.

¡O Erreguiña eta misericordiazco Ama! Erregui-
ñaren liberaltasun eta Amaren amoreaz mesedeac
oparo eguiten dituzuna, merecimentu eta vertute-
etatic añ soll eta erantzia eta Jaincoaren justiciaga-
naco añ zorretan nere burua icusita, zugana nator
gaur. Urricaltasun gucién guiltza cerequin dezun
Ama maitea, ez arren azlu nere bear eta miseri an-

diaz, ez nazazu ere utzi onen beartsu eta erantzi, Izanic zu guciaquin onguille añ oparo ugaritsua, non escatzen dizutena baño asco gueyago beti ematen diezun, izan zaite nerequin ere ala, ni cere mantupcan gorde eta amparatuaz, eta au da nay nuquean eta escatzen dizudan gucia. Zuc gordetzen banazu, ez naiz cceren beldur. Ez naiz demoniaren beldur, ceren infernu gucia baño ascoz indartsuago ceran; ez nere pecatuen, ceren itz bat bacarra esatearequin barcacioa irichi deguidazuquean; eta gueyago dana, ez naiz Juez aserretuaren colera viciaren ere beldur, ceren zure erregu bat asco dan bera gozatzeco. Itz batean, zutzaz valiatuta gucia uste det, ceren gucia dezaquezun. Ama erruquitsua, badaquit dichagabcai laguntzea dala zure poz atseguina, eta badaquit amparatzen dituzula occ, baldin beren aldetic seta gaiztoan ezpadaude. Bada ni, ceñ da peccataria naizan, ez nago setan, baicic eta ontzeco asmo oso eguiazcoaz nago. Zuc lagun zadazuque. Gaur jartzen naitzatu oso cere escu guciz onguilleetan. Eracus zadazu arren cer eguin bear dedan, Jaincoari atseguin eguiteco, bada bertatic gucia eguiteco prest naiz, eta eguingo dedalacoan nago, zure laguntzarequin, ó Maria, ó Maria, nere Ama, argui, poz, gordelecú eta esperanza. Amen.

VI.º en BURUA.

Ea bada, gure bitartecoa.

1.º §.ª

**Gure bitartecoa da Maria, eta gucioe salbatzeco
escua dauca.**

Ama batec bere umeen gañean duan escu eta aguintea alaingoa da, non baldin béretacoren bat erreinuco persona gucien gañeco jabetasun osoaz erregue andi izatera irichiarren, ama iñoiz ere aren mendeco guerutzen eztan. Eguia da, Aitarene escutic jarrita gure Jaun Jesucristoc beretu zuala, guizona zanez, Trinidadeco bigarren Persona guizatasunarequin batutze, edo teologoac dioten becela, batutze hipostaticoaren bidez, creatura gucien gañeco escu eta jabetasuna, Maria camporatugabe; baña eguia da ere Jaun au, berac naita, aragui hilcorrean vici izan zan dembora gucian, bere burua beeratu, eta Mariaren aguiñdupeco jarri zala, san Lucas Evangelariac dion becela (1). Eta san Ambrosio iristen da esateraño, ecen obligacioa zala, Semeac becela, Mariari obeditzea. Santuaz gueyenaz ere esaten dana

(1) Cap. 2.

da, Jaincoarequin daudela; baña santuen Erreguiñaz arrazoiz ta bidez esaten da, berá Jaincoác nay zuan gucira beti egoteco suertea ezecic, bere nayera Jaincoa bera iduquitzeoa ere izan zuala (1). Gañeraco virgiñac Bildotsa nora, ara darraizca; baña virgiñen Virgiñari bere aguindupeco Bildotsác berác jarraitu eion mundu onetan (2).

• Orañ ceruan bere Seme jaincozcoaren gañean escu eta aguinteric ezpadu ere, gauza seguru ta jaquiña da, guciz indartsu eta eraguilleac dirala bere erregúac, escatzen duan gucia iristeco (3). Nay eta escatzen duan gucia lezaque ceru-lúrretan; eta oraindic beren salvacioaz oso etsita coudenay esperanza biurtzerañoco gucia (4). Misericordiaren aldarrera urreratu, eta gure óneraco cernay escari Jesucristori eguiten dion bacoitzean, añ on irizten zayo Jaunari, eta añ laster ematen dio escatzen diona, non erregua baño aguindua, servitzariarena baño Echeoandrearena obeto dirudian (5). Guis onetan onratzen du Jesusec gure artean vicitu zan dembora gucian berá alañ onratu zuan bere Ama lastana.

Gucia dezaquezuna cera, Ama maitea, pecateriac salvatzeco, orretaraco Vicitza eguiazcoaren Ama izatea heste ecer bearriegabe (6).

Jaincorañooco guciác obeditzen du Mariaren aguindua, dio uzcurtasungabe Sena-co san Bernardinoc

(1) Richerd. á S. Laur. lib. 1. de laud. Virg. cap. 5. (2) Idem. (3) S. Bonavent. in spec. c. 8. (4) Petr. Dam. Serm. 1. de Nat. V. (5) Petr. Dam. Serm. 1. de Nat. Virg. (6) Germ. Serm. 5. in d. B. V.

(1); au da, aguindúac becela artzen ditu bere erre-
gúac. Bay, Virgíña guciz garbia, añ goratu zaitu
Jaincoác, non bere graziaz zuretzat ecinquizunic eztan
(2). Guca dezaqueana da zure laguntza, bada arra-
zoy ta bide dan becela, Erregueác dauzean escubide
gucíac dauzcatzu, Erreguñac becela. Escu andicoa
da Semea, escu andicoa Ama; guca dezaqueana
Semea, guca dezaqueana Ama (3); eta aimestera-
ño, non Jaincoac Eliza guca dauzan ipiñia zure
amparopean ezecic zure aguindu ta escura ere (4).

Bat da desberdintasuna, au da, Semeac guci al-
duna izatea, berezcoa duala, eta Mariae graziaz edo
mesedez emana, santa Brigidari aditzera eman cit-
zayon becela (5), enzunaz beñ nola Jaunac bere
Ama guciz gozoari ciotsan? *Ene Ama, esca zazu
nay guca, ceren zure erregúac ecin guera
litezquean enzungabe. Zuc lurrean ecer ucatu
etzidazun eta nic ceruan ecer ucatuco ez dizut.*
Onequin ondo iguertzen degu, Maria guca deza-
queana dala esateac. cer adirazten duan. Ez izatez
eta berez ala dalaco, ceren creatura bat, ceñ da ga-
raya dan, artaraco diña eztan, ezpada, nay guca
escatu ta irichiaz.

Asco da zuc nay izatea, eta guca eguingo da;
asco da zuc munduco pecatarien galduena alcha nay
izatea, eta santu izango da (6).

(1) Tom. 2 Serm. 61. (2) Anselm. lib. de Cone. Virg. (3) Ric. a
S. Laur. lib. 4 de laud. Virg. (4) Antonin. p. 4. tit. 15. c. 20 §
2. (5) Revl. lib. 4 c. 4. (6) Bernard Anselm. de Exc. Virg. c. 12.

Eta ala esaten dezu; *gizónac escatu bear dida-
tena da nic nay izatea, ceren gogoco zadun
guci hura beti eguiten dan* (1). Mugui zaitza, Ama
maitea, guganaco zure onguilletasun eta escu andi-
ác, ceren cembat gueyago dezaquezuna, aibat ur-
ricaltsuago izan bear ceran (2). ¡O gure bitarteco
gozoa! eta alabaña biotz añ erruquitsua dezu, non
erruquitugabe gure miseriac ecin iensi dituzun, eta
orrequin batera gu salvatzeco Jaincoarequico escu
añ andia, ez arren atzeratu esperanza gucia zuga-
ipiñi degun peccatari urricalkizun oyey beguiratze-
tic. Eta baldin gure oracioac ezpadute quemenie,
zuga daucagu gueron uste eta confianza, escu eta
al izatean aberats beceñ urricaltsu guri laguntzen
izateco Jaincoac orrembeste goratu zaituala, jaqui-
ñie. ¿Baña nore usteco eztu zure urricaltasuna?
Escu eta al izatea neurrigabéac badira, neurrigabea
da ontasuna, eta neurrigabea onguinaya, egun oro
eguiten dezunetic dacuseun becela (3).

Maria emen mundura jayo zanetic bere burutacio
bacarra, Jaincoaren gloriáz urrena, bearrecoay la-
guntzecoa izan zan; eta gueroztic escatzen zuan gu-
cian aditua izatearen privilegioa izan zuala badaqui-
gu. Au on eguiten du Canau-go extay ayetan ardoa
aituta gende on aren lotsaz erruquituric, bere Se-
meaganatu, eta mirari bat eguiñaz consola eitzala
escatu cioneco guertaerac. Lembicitic Janna ucatzen

(1) Albert. Magn. (2) Petr. Damian. Serm. 4 de Nat. B. Virg.

(3) Bern. Serm. 4 de Asumpt.

zala cirudian, eta ala esan zuan: *¿Andrea guri cerdigu? Mirariac eguiteco garaya oraindic etorri ezla: predicatzen asi nadiñean eguingo ditut, nere dotriña eguiazcoa dala aguertzeco.* Gu-
 ciaz ere mesede hura eguiteco asmoa artua bacegoan
 becela, esaten die, joan eta ontziac urez bete ditza-
 tela. Baña ¿au nola da? Baldin mirariac eguiteco
 señalatua cegoan garaya predicatu bear zuanecoa
 bazan ¿nola aurreratzen da Jaincoác erabaquia ceu-
 canaz bestera? Ez, emen eztago Jaincoac erabaquia
 ceucanaren contraco ecer, ceren mirari guciaz it-
 zeguiñaz, gure Salvatzalle jaincozcoaren señaie ta
 mirarien garaya oraindic etorquizun bazan ere,
 Jaincoác bere asmo gordeetan beticotasun gucitie
 erabaquia ceucan, bere Amari, esca cezanean be-
 reala gucia ematea ere. Eta onegatic Ama onec,
 bere privilegio au cequianac becela, beste cembai-
 ten iritzian escaria ucatzen bacitzayon ere, orduraco
 eguiña bacegoquean becela gauza, aguintzen du, e-
 carri dezatela ura. Esan nay du, escatzen ciona oso
 ucatzen ciola cirudian eranzuera aren damuz ere,
 Jaunac bere Ama onratzeco, bertatic eguiten diola
 escatzen diona (1); edota itz ayequin adiraci nay
 izan zuala, orduan becela beste iñoren erreguric
 adituco etzuala; baña bere Amác itzeguitean escatzen
 diona eguitea luzatzen eztuala (2).

Izatez ere negarrezco vicilecu onetan eztago er-
 bestetuac gauden errucarrioy Jaincoác bere Ama

(1) Chrysost. in Juan. 2. (2) S. Tom. apud Heur. de Cerf. pg. 119.

maitea becela goratulaco bitarteco guciz santa onec aibat misericordi eta gracia irichi dizaguquean creaturarie (1). Asco da berac ezpanac idiquitza. Esposoac Mariaren irudia dan Cantetaco Esposarequin itzeguinaz, esaten dio onela: *Zu, lorebaratze-tan vici cerana, adisqueideac aditzen daude, nere belarrietara zazu bada cere voz ederra* (2). Santuac dira adisqueideac, eta oec beren devo-toen oneraco cerbait escatzen duten gucian, beren Erreguinac escaria Jaincoaren aurrea eraman, eta mesede hura irichico dielacoan daude, Mariaren bi-tartecotasunagabe mesede ta graciari eguiten ez data. ¿Eta nola iristen ditu mesede ta gracia oec? Asco da here itza aditza (3). Iristen ditu gracia ta mesedeac erregutuaz, bay, baña dembora berean ipintzen du bitartean here amatasunaren aguintea, eta onequin iristen du nay eta escatzen duan gucia. Onetan eztago apucoric (4). Valerio Maximoc con-tatzen du (5), ecen Carolianoc bere erri Erromaco uri andia ingurutua ceucala, eta ez asco izanic erritar eta adisqueideen erreguac hura andie quendu eta er-ria libre uzteco, gueroenean bere ama Veturia irten, eta onen negar eta erreguay ecin gogor eguñic, bertatie angoac eguin cituala. ¡Cembat oniritzia-goac izango zaizcan Ama añ on baten erreguac be-rari aibeste nay dion Seme bati! Gueyago da here cispirio bacar bat santu gucien erreguac baño

(1) Gullielm. Paris. (2) Cant. 8. 43. (3) Id. (4) Gorff. Abb. Serm. 8. de B. Virg. (5) lib. 5. cap. 4.

(1). Cispicio oec dira bere escu eta indar eraguilleari ecin bultza lizayoquean Ama batenac (2). Goacen bada escu guciz andico bitarteco onegana, esanaz: *Ama lutzana, amaren escu eta aguintea dauzcatzu, guciz erraz zalzu gure pecatuen barca-cioa iristea, ceñ ere itsusiac diran, ceren ecin lezaquean emangabe utzi zue escatzen diozun gucia bere Amatzat aulu cinduan Jaun neurrigabe erruquitsu arc* (3). Ceru guciac batera deitzen dizu bedeciatua, zue naizuna, eta ez besteric, eguiten dala, esanaz.

¿Cer bada, Jaincoaren ontasunari guciz ondo dagoquion gauza izango ezta bere Ama guciz gozoari atseguin zayona eguitea, bada Jaun au mundura e-torri zan, ez leguea austera, ezpada legueac aguintzen duana eguitera, izanic bere aginduen andienetacoa aita eta ama onratzea (4)? Eta oraindic nolerebait onetara beartua dago, Amari zor diolaco beronen baimenarequin onen sabel guciz garbian artu zuan guizatasuna (5). Ongui esan guñiozaque: *poztu zaite, Virgīna santa, inorqandic artzen eztuan, eta guciay ematen dien Seme bat zue artzeco izateaz. Gue gucioc Jaincoari zor diogu, degun gucia, ceren gucia bere doay eta erregaloa dan. Bacarric zuri zor izan nay dizu, aragui eta odola zure erray guciz garbie-*

(1) Justin. Micoviensis in lib. B. V. verb. Virg. pot. (2) Anton. p. 4. tit. 15. cap. 17. (3) Germ. V. in enc. Deip. (4) German. V. in. enc. Deip. (5) August.

lan artuaz. Lagundu cenduan erredencioaren valioa ematen, guizona betico eriotzetic libratzearren, eta orregatic cera beste nornay santu baño paregabe gueyago dezaquezuna, betico vicitza iristen guri laguntzen (1). Zure Seme-ác atseguin du zuc escatzea, ceren zure beguiramentuz gucia eman nay luquean, guizatasunaren izateu emanaz eguiñ cinion doay preciatua orrela ordantzeco (2).

Neurriqube ta miragarria izan zan equiaz Jaincoaren ontasuna, ceñac, gu pecatari guciz billauac guñalaric nay izan cigun eman zугan beragandic on gucia uste guentzaquean bitarteco bat, Jaincoaren gracia gucien aberastasun ondogabeac bere escu guciz onguilleetan dauzan bitarteco bat: pecatuen barcacioa eta betico gloriaren ordan-saria beraren bidez iristen ditugun bitarteco bat (3).

EJEMPLOA.

Aita Razzi erligiosoac contatzen du (4), ecen Mariaren gucizeo devota alargun batec bialdu zuala bere semea Principe baten erri nagusi edo cordera, egun oro Ave Mariabat, eta azquencan *Virgiña guciz bedeicatua, lagun zadazu nere eriotzeco*

(1) August. Orat. 2 de Ass. B. M. (2) Theoph. Episcop Alexand.
 (3) Bonavent. in Salv. Reg. (4) Mirac. di Mar. mir. 47.

orduan erreztatzea aguindu eracita. Gaztea cortera irichi, eta lasterreetan gaiztaqueriara eman zan, alaingo lotsagabequeriaz, non bere nagusia hura echetic botatzera beartua icusi zan. Gazte arc ez arquituric orduan cerequin vici, ernegatu, eta lapur bandolerotzari equin cion; guciaegatic ere bere amac encargatu cion devocioa egun oro erreztatzen jarraituaz. Gueroenean justiciaren atzaparrelan erori, eta eriotzeco epaya eman citzayon. Urcabera eramateco ce-goala, bere desonra, amaren naigabe samiña, eta erioa añ urreetan eta añ viciro icusita, consuelogabe negarrari eman citzayon. Au icusita demonioac, gazte lirañ baten ichuran etorri, eta berac beguie-taratzen ciona eguiten bazuan, presondeguitic eta eriotzetic libratuco zuala, aguindu cion. Gaztea jarri zan esaten cion gucira, eta gueyagocogabe demonioac bere burua aguertu, eta escatu cion lenen Jesucristoz eta Sacramentuaz ernega cezala. Ala eguin zuan. Urrena Maria guciz santa eta bere ampara betico utzi citzala, escatu cion. Hori ez, secular ere, eranzun cion, eta Ama maiteagana biurtu, eta bere amaren oracioa erreztatu cion, au da: *Virgiña guciz bedeicatu, lagun zadazu nere eriotzeco orduan*. Itz oec esan ez al cituan, demonioac igues eguin zuan; baña gaztea guciz estu eta naigabez be-tea gueratu zan, Jaincoa ucatuta eguin zuan gaizta-queriagatic. Virgiña santagana bideguiñ, eta Ama maiteagandic bere pecatu gucien damu andi bat, eta onequin guciac negarrez confesatzeco gracia irichi cituan. Carrica batean barrena urcabera cera-

matela, an Ama Virgiñaren imagiña bat icusi, eta len errezatu oi zuan *Virgiña guciz bedecatu*, nere eriotzeco orduan lagun zadazu bere ari errezatu cion, eta berequin cituan gucien aurrean Virgiñac burua macurtu cion. Gazteac mesede onequin biotza samurtuta, imagiñ ari óñetan muñeguitera joaten utzi ceguiotela, erregotu cien; baña justiciacoac artaraco lecuric eman nay etzioten; ordea gendeac deadarcari eman, eta joaten utzi cioten. Macurtzen da, bada, Mariaren óñetan bere oracio jaquiña esateco, eta Ama maiteac imagiñatic besoa luzatu, eta oldu cion escutic, añ estu eta gogor, non eguiñ al guciaquin eciñ andie atera al izan zuten. Mirari añ aguirico bat icusita, guciac abiatu ciran deadarea, esanaz: *barcacioa, barcacioa*; eta eman citzayon *barcacioa*. Bere errira biurtu, eta aurreonzean viciera guciz on bat artu, gorputz-animetaco eriotzetic libratu zuan bere onguille guciz erruquitsuaganaco esquer on eta ezagüeraz beteta, beregana guciz itsutua vicitu zan.

ORACIOA.

¡O nere Jaincoaren Ama! añ pobre ta beartsu naizan onen alde gaur itz bat esazu. Zure Some guciz santua beste eceren beguira eztago, ezpada zue itzeguitearen, zue nay dezuna eguiteco. Ez aztu guero oneraco ere artu cenduala orrembeste escu eta diñadi. Jaincoac berac jarri nai izan zuan zure zordun

zure sabel guciz garbian araguaia arluaz, zue nay
 hecela zabal ciñitzan bere erruquizeco aberastasunac
 peccatari gañoen artean. Zure servitzariac guera, zure
 servitzura emanac gaude eta zure amparopean
 vicitzearen dicha dancagu. Baldin zu deitzen eta
 onralzen etzailuztenac; zu despreciatzen eta madari-
 catzen zaituztenerañocoac bérac progatzen badute
 zure urricaltasuna, ¿guc zu amaten eta adoratzen
 zaitugun, et gueron uste eta confianza zuan dau-
 cagunoc cer uste bearco eztegu? E guia da peccatariac
 guerala; baña gure gaiztaqueri guciac baño escu eta
 higuntasun andiagoo eman dizquitza Jaincoac. Zue
 salva gaitzazuque, eta salvalu nay gaituzu, eta
 combat guchiago mereci, ainhaz seguruago salvalu-
 co gaituzulaco uste osoa daucagu, ceren zure bitar-
 tecotasunaren bidez salvaluta, glorian zu hedeicatze-
 co gay ta bide guenyago izango degun. Erruquizeco
 Ama, icus itzazu gure Eroslearen odol guciz pre-
 ciatnaz garbituac hecela, len añ ederrac ciran, eta
 guero peccatuaren bidez añ itsusi-nazcagarri eguin
 diran gure animac. Zure aurrean ipintzen ditugu,
 mancha gucitic garbi ditatzun. Irichi zaguzu cinez
 ta benaz ontzeco gracia, Jaincoaganaco amorea, eta
 betico zori ona irabaztea. Gauz andiac escatzen
 dizquitzugu; ¿baña zue gucia eztezaquezu? ¿Guci au
 Jaincoac dizun amorearen aldean apur bat ezta? Asco
 da zue ezpñac idiquitza. Oey ecer ucatzen etzaye.
 Erregu zazu, Ama maitea, erregu zazu guzaz, eta
 zu enzuna, eta gu salvaluac izango guera.

Bitarteco urricaltsua da Maria, eta iñengo desamparaturen aucia bere contura artzera ezta ucatzen,

Aimbeste dira Andre guciz maitagarri au amatzeco gure aldetic dauzcagun gay eta bidéac, non baldiñ mundu gucian bere alabanzac baicie aditzen ezpalitz, eta guizon guciac bere amorez béren vicia ematen balute ere, au gucia esquer eracutsi eta ordañ guciz laburra litzaque beraganaco devocioaren señaleren bat bederic aguertzen dioten pecatari galduenay ere dien onguinay eta amore samurrá pagatzeco. Amorea amoreaz ordañtzen da, eta berá servitzen dutenac bérac servitetic atzeratzen ezta, onetaraco (baldiñ oec pecatuan badaude) misericordi eta barcacioa irichi deguieneraño bere valimentu gucia ipiñiaz. Aimbesterañocoa da bere onguinaya, non iñore ere, bere burna galdutzat iduquiarren, bere gaitzen erremedio billan Ama maite onen óñetara joateco beldur izan bear eztuan, iñor utsic bialzen ezduta (1). Bitarteco guciz maitatsuae becela gure escari ta oracioac Jaincoari aurrean ipintzeco contu andia du, batez ere beraren bidez eguiten diranac; bada Aitarequico bitartecotasuna Semeac

(1) V. Raim. Jordan. Praef. in Cant.

eguiten duan becela, Semearequicoa Amác eguiten du ñoiz ere utzigabe guri salvacioa egoquitzea, eta, beraren bidez escatzen ditugun mesedeac guri iristea (1). Da galduen gordelecu bacarra, dichagaberen esperanza, bere amparoaz valiatzen diran peccatari gucien bitartecoa (2). Baliteque peccatarien bateg, Mariae daucan escubide andia ondo sinistuarren bere peccatu andien itsustasunaz aserretu eta atzeratu dalacoan Ama maite onen laguntzaren uste eta esperanza galtzea. Baña anima bedi; bere Semearequico gucia dezaqueana izatearen privilegio andiare (3) eguiaz cerbaitetaraco servitu bear digula, eta gure contua ezpaleuca, utsa servituco liguqueala (4) beguiratuta. Egon gaitean seguru, beste santuc baño escu gueyago daucanác becela, berác baño naitasun eta arret andiangoaz gure bitartecotasuna egingo duan beste ñor eztatacoan(5). ¿Nore(zure Seme guciz santua berezten dala) beguiratzen du zue becela gure onaz? ¿Nore lasterrago libratzen gaitu gaitz gucietatic? ¿Ceñ gueyago sayatzen da, onela esateagatic, beti peleatuaz, peccatari gajoac gorde ta amparatzera? Pensa al baño prochugarriagoa da zure amparoa (6); eta baldin santuac guizonay, eta batez ere béren devotoay mesederen batzuec eguitea iristen badute, zue santu gucien Erreguiñ, guizon gucien bitarteco, peccatari gucien gordelecu ceran orrec

(1) Idiot in diet. Praef. (2) Dion. Cartusian. (3) Bonav. in Spec. lect. 6. 7. (4) Id. (5) Germ. Serm. de zona. Virg. (6) Id.

asco gucyago iristen dezu (1).

Bay suertez ere, peccatariaz contu andia dauca, eta bere gloriarie andientzat, Jaincoaren Ama izateaz urrena, peccatariaz beren bitartecoaren icenaz berari deitzean dauca (2), oegatic Jaincoaren aurrean beti escatuaz, eta premia eta bear guciac Amaren biguntasunaz estaliaz (3). Bideguin zagun beragana uste ta confianza andiaz bere bitartecotasuna escatuaz, ceren noznay eta ordu gucielari guri laguntzeco prest eta gogoarequin arquituco degun (4). ¡Cen arretaz, eta nolaco onguinayarequin aurreratzeten eta zucentzen duan gure salvacioaren bearg ya! Eguia da, cerutar guciac opa digutela eta escatzen dutela gure salvacioa: baña zuc ceruan agertzen dezun gogano onguinay eta biguntasunac gucia dezaquean Jaincoagandic conta al baño gueyago mesede eta misericordie guri irichiaz, beartzen gaituzu aitortzera, izatez zu beste bitartecoric eztaucagula, eta zu cerala eguiac gure onaren arreta eta contua daucana (5). ¡Cer adimentuc ezagu al dezaque norañocoa dan eguiñal añ betico eta amorezcoa? Aimbesterañocoa da gure gaitzaz dezun erruquia, amore añ andi iracequiaz beguiratzen diguzu, non beñ eta berriz escatzen dezun, eta gugatic erregulzez inoiz ere aspertzen etzeran, gu gaitz gucietic gordeaz, eta guri era gucietic onac irichiaz (6).

(1) Idiot. de contempl. B. V. in Prol. (2) Onela aguertu cion Sor Maria Vallani-ri (3) B. Amadeus. (4) Richar à S. Laur. de Land. Virg. lib 2 Joan Geom. (5) German (6) Bonav. in Spec. lect. 6.

¡Gure zorigaiztocoac, baldiñ berác gordetzen duan gaitzquillerie Juezac condenatu ecin duan bitarteco añ altsu, onguille, beguiratu eta jaquintsu au ezpaguendu (1)! Da Abigail baño beguiratuagoa. Au zan here senar Natal-en contra aserre vician cijoan garayan bere erregüen biguntasunaz David-en aserre hura gozatu zuan emacume guciz beguiratu bat, eta añ beguiratua, non venganza hura eguitea galleraci ciolaco, David-ec berác azquenean emacume hura bedeicatu eta berari esquérrac eman ciozcan. Beste aimbeste eguiten du Mariac ceruan conta al baño gueyago pecatariren oncan. Añ ondo daqui Jaincoaren aserrea here arrazoy ezitsü eta beguiratuaz gozaten, non Jaincoác berac bedeicetzen duan, eta mereci becela peccariác castiga ez ditzan besoa atzeraeracitzen diolaco, Ama maite oni esquerrac diozcala, dirudian. Onetaraco Ait Eternoac guri misericordia eguin nayez, eman cigun berarequico lenengo bitartecotzat Jesucristo, eta Jesucristorequico berriz Maria.

Jesucristo da izatez eta bidez Jaincoarequin guizónen arteco bitartecoa, eta bere berezco merecimentuen bidez irichi deguizquignque, eta irichi nay dizquigi barcacioa ta gracia, berác aguindua daucan becela. Baña nola beraren anditasun jaungoicozcoac guizónay beldur añ andia ematen baitien, eman bear izan citzayen peccariay beldur guchiagoaz beragana urreratu citezquean beste bitarteco bat, eta bera

(1) Ric. s S. Laur. de laud. Virg. lib. 2 Joan. Geom.

añ on eta merecimentuz belea, non Jaincoarequico escu eta al izatean, eta guganaco biguntasunean inor urreratzen etzitzayon (1). Bidegabe ta irañ andia e- guingo lioque, bada, alaingo ontasunari, gogortasun eta izua eman lezaquean ecer beregandic añ urruti daucan, eta gucia onguinay, biguntasun eta gozo- tasuna dan Ama maite onégana alderatzeco beldur litzaqueanac (2).

Iracur zazu beñ ta berriz Evangelio santua, eta baldiñ Maria muquer, gozacaitz eta gogor norbait- equin noizbait aguertu dala topatzen badezu, orduan beldur izan zaquizquio. Baña onelacoric topatuco eztezu nosqui, eta poz andiaz billatuco dezu bera, ampara zaitzan, eta lagun deguizun (3).

Èsan diozagun anima santa baten biotzeco samur- tasunaz (4): *O nere Jaincoaren Ama, zugana bi- deguingo det eta ora indie atrevituco naiz umil- tasun eta seme baten confianzaz zuri esatera, zu nolerebait beartua zaudela niri laguntzera, bada cristou fededun guciac batera, edo Eliza guciac deitzen eta deadarca esaten dizute misericordia- ren Ama. Zu cera Jaunac añ maite zaitualaco beti a- ditzen zaituan creatura esleitu hura: zure urricaltasun- ac seculan inori utseman eztió, eta zure gozotasun at- seguinac pecatarien galduenic ere seculan beregan- die bota ezti. ¡Cer bada, Elizac bear bada alperric eta eceri ez dagoquiola deitzen dizu bere bitartecoa*

(1) Bernard, Serm. in Sign. Mag. (2) Idem. (3) Idem. (4) Guliem. Parisien, in Sign. Magn.

eta peccatarien igues-lecua? Ez bitez izan inoiz ere nere peccatuac zuri beargay añ urricaltsua galeraicitzeco bide. Salyatzalleaz ateronzean zu cera g're gordelecun eta esperanzarie andiena; baña graciazco, gloriazco eta Jaincoaren Ama izatearen anditasun gucia peccatariay zor diezu (gillegui bedi onela esatea), ceren oec cirala bide Jaincoar n Semea zure Seme eguin zan, Gogandic urruti, bada, zue misericordiazco iturria mundura eman cenduan orrec zure amparoaz valiätzen diran errucarritatic inori cere misericordia ucatzen diozula pensatzeca (1). Eta al-baña zure beargay atseguina creaturarequin bere Eguillearen arteco paqueac eguitecoa da, mugui zaitza gure peccatuen montoy andia baño asco andiago dan zure ontasunac guri begui erruquitsuaz beguiratzera (2).

Poztu zaitetzte, beldurtiac, arzazute arnas, eta alay zaitetzte peccatari dichagabeac, Virginea guciz garbi au Juezaren Ama, eta guizarraza guciaren bitarteco izateaz; guciz artaracoa da, eta gu Jan-naren aurrean amparatzeco beste inor baño pres-tago dagoana; Jauziaren aserrea gozatzeco bideac esleitzen guciz egoquia, eta amaren amoreac gu-ciongana luzatzen duana, bada docabe inor ere amparatzetic seculan atzeratzen ezta (3).

(1) Gulielm. Parisien De Beth. Div. c. 13 (2) Item (3) Thom. de Villanova, in Rog. pro exp. advers. Turc. sus.

EJEMPLOA.

Cesareoc (1) eta Aita Rohoc (2) cortatzen dutenez Fuente Eraldo-co comentuan atezay eguiten zuan moja Beatriz ceritzanarequin eguin zuanac eracusten du ondo, ceñ amoretsua dan Ama maite au peccatari dichagabeaquin. Moja au, berá engañatu zuan gazte bategana itsutu, eta amorez lilluraturie, onequin alcartu eta artaraco señalatu zuten egun batean biac igues eguilea erabaqui zuten. Egun au irichi zanean patu gaiztoeo arc Ama Virginiaren imagiña baten aurrera joan, comentuco gultzac berari utzi, eta igues eguin zuan. Andic urrutiratu zanean, denbora guchiren burura emacume galduen vici bidea aritu, eta amabost urte luceetan viciera añ galdü galgarrían vicitu zan. Urte oyen buruan comentuco mayordomoarequin ustecabean topaturie, oní galdetu cion, ea Beatriz ceritzan moja bat ezagutzen zuan. Ondo ezagutzen det, eranzun cion guizonac: santa bat da, eta orañ novicien maestra eguin dute. Beatriz chonditurie gueratu zan, hura nola citequean ecin iguerriz, eta bere zalanzatic irteteco, beste soñeco batzuec jantzi, eta comentura joan zan. Sor Beatriz escatu, eta jartzen zayo bere aurrean ceruco Erreguina, gultzac eta habitua bere óñetan utzi ciozean ima-

(1) Lib. 7 c 55. (2) In Ex.

giñ aren irudian. Ama maiteac itzeguiñaz esan-
cion: *Beatriz, zure onra eta icen onari beguirata
zure anz-irudia bera artu, eta comentutic
eta Jaincoagandic igues vicitu ceran dembora gu-
cian zure beargaya equiten jardun naiz. Ene ala-
ba, sar zaile osteru, eta eguizu cere gaiztuquerien
penitencia, nere Seme mailatsuac oraindic iche-
dotez dizuta, viciera on santu bat eguiñ, eta nic
irabaci dizudan icen ona gordetzeru sayatuaz. Au
esanta beguetatic galdu eitzayon. Orduan Beatriz
barrura sartu, bere habitua artu, eta mesede añ gu-
cizcoagatic aingueruen Erreguiñaganaco ezagueraz
beteric, aurrerontzean santa eguiazco baten viciera
eguin, eta bere eriotzeco orduan esan eta aguertu
zuan guertatu eitzayon gucia Maria guciz santaren
gloriaraco.*

ORACIOA.

¡O Ama guciz santa! ondo ezagutzen det, aimes-
te urtetan Jaungoicoaganaco eta zugaraco esquer
añ gaiztocoa izan naizalaco, guciz merecia dedala
zue ni cere escutic uztea, ceren esquergabeac
mesederic mercei eztuan. Baña nic, Ama maitea,
guciz andi eta onguilletzat daucat zure ontasuna.
Jarray zazu, ó peccatarien gordelecu guciz segurua,
jarray zazu bere uste osoa zugar daucan peccatari
bati laguntzen. Escua luzatu, eta alcha zazu me-
sede-esque dagoquizun erori gašo au, Gorde na-

zazu, eta ezperen esadazu zue baño obeto lagun deguidaquean norgana joan bear dedan. ¿Baña non arquituco det Jaincoarequico bere Ama baño bitarteco altsu ta oberic? Gucion Salvatzallearen Ama cera, eta peccatariaec salvatzeco jayo ciñan. O Maria, salvazazu arren umiltasun guciaz zugana datorren gajo au. Zue maite izatea mereci eztet, baña gucioec salvatzeco cere bularrean daucazun zale ta egarriac, maite nazula, esaten dit, eta zue nay badidazu galduco ez naiz.

O ene Ama maitea, baldin zugatic salvatzen bannaiz, salvatuco naizala, uste dedan becela, gueroz ez naitzazu izango esquer gaiztoco, ezpada, guciz zorionecoa, eta ordañduco ditut lengo esquergabequeriac betico alabanzaquin, bedeciatuco (et zure icena, muñeguingo diet zure esen sagradu guciz onguilléay, zue erreguiñatzen, eta beticoera gucian erreguiñatuco dezon ceruco erreinu artan. O nere libratzalle, esperanza, Erreguiñ, bitarteco eta Ama, maite zaitut eta izango zaitut beti.

III. en §.ª

Mariaec equiten ditu Jaincoarequin guizónen arteco paqueac.

Jaincoaren gracia neurrigabeco valioa duan ondesuna da, Espiritu Santuac dion becela (1), ceren

(1) Sap 7. 14.

graci onec Jaincoaren seme izatera igotzen gaituan, emanaz seme oyey gure Salvatzalle jaincozcoac bere adisquideen icena (1); pecatua dan becela mancha añ itsusi ta nazegarri bat, non anima edertasun ta adisquidetasun huragabe uzten duan, Jaincoaren begnietan gorroto garri eta bere etsay andi eguñaz.

¿Cer eguin bear du onelaco leizondarrera amildua icusten dan peccataria? Topatu bear du beragatic bitartecotza eguin, eta galdu duan ona oster beretzen lagunduco dior bitartecoa. Zu, Jaincoa galdu dezuna, nornay cerala, poztu zaite Jaunac bere Semean bitarteco añ altsua eman dizula jaquinarequin (2).

¡Baña ay mingarria! ¿cergatic guizonac iduqui bear dute gogortzat berac salvatzegatic vicia eman zuan Bitarteco guciz erruquitsua? ¿Cergatic maitagarritasuna bera izugarri izango dan beldur bear dira? Alay zaite, peccataria, eta ez beldurtu, eta baldin peccatiac izutzen bazaituzte, gogora zazu, Jestsec berarequin batera gurutzeco arbolan Josi cituala peccatu oec, eta peccatu oecgatic Jaincoaren justiciari pagatuaz, diran guciac zure animatic quendo cituala. Baña Baldin bere anditasun eta magestadea bada zu beldurtzen zaituana, bada guizon eguin zalari, etzuan utzi Jainco izatea, berarequico bitartecotasuna norc eguin badauceazu. Zoaz Mariagana, berac escatuco du zuga-

(1) Joan 16 15 (2) Bern, Serm de aqued.

tic, eta aditia izango da, Santeari ecer utatu eciñ
lizayoquean bere Ait Eternoaren aurrean zugatic
escatuz (1). Nere anáyac, Maria da peccatariac gra-
cia jaincozcoaren edertasuna berrero escuratzeco
bide zucena. Bera da gure esperanza-bideric an-
diena (2).

Adi ditzagun Escritura sagraduan (3) Espiritu
Santuac Mariaren ao eztitsuan ipintzen dituan it-
zac: *Ni naiz deitzen ditatenen babes eta ampa-
roa, eta nere butarraren erruquia berac gor-
delzeco torre segurua becela da.* Onetaraco ipi-
ñi zuan Jaunac berarequin peccatarien bitarteco
eta adisquidetzalle. Ezta cer dudatu, Maria da pa-
queac eguiten ditua, Jaincoagandic bere etsayay
paquea, galdúay osasuna, gaizquilleay barcacioa
eta salvacioaz etsitacoay misericordia iristen diztena.
Orregatic deitu cion bere Esposo jaincozcoac: *ederra
Salomon-en campicheac becela* (4). David-en
campicheetan guerraz ezpada itzeguiten etzan; baña
Salomon-enetan bacarric paqueaz itzeguiten zan,
onela guri aditzera emanaz Espiritu santuac, Ama
erruquitsu onec eztuala itzeguiten peccatarien con-
traco guerra eta venganzaz, eta bay paque ta bi-
guntasunaz.

Noeren cuchatic irten, eta Jaincoac gizónay es-
cañzen cien paquearen señalez olivaren adarrare-
quin biurtu zan usoa Mariaren irudia zan. Maria
izan zan urricaltasunaren irudia dan olivaren adar-

(1) Bern. Serm. de aqued (2) Idem (3) Cant. c 3. (4) Cant. 1 4

rarequin cerutic bialdulaco uso zuri ederra, ceren urricaltasun guciaren iturburu Jesus eman cigun, eta onen merecimentu neurrigabeen bidez Jaincoac eguiten dizquigun gracia ta mesede guciac irichi eizquigun. Beragatic eman citzayon munduari paquea, eta beragatic dijoaz orduoro peccatariac Jaincoarequin adisquidetzen (1).

Mariaren irudia izan zan Jaincoaren tronua ingurutzen zuan uztargui, san Juan-ec icusi zuan hura (2), ceren Ama au beti Jaunaren tribunalean arkitzen dan, gure peccatuac mercei dituzten sentenci eta castiguiac arintzeco (3). Bera da Jaunac aditzera eman nay izan zuan uztay hura, Noc-ri esan cionean, ipiñico zuala odayetan paquezco bere ustaya, guizonac hura icusita beraquin eguiña gucratzen zan betico paqueaz oroy citecen. Uztay arc, Jaincoac eguin nay izan zuan, paquea gogoratzen zuan; onec berriz gaizquien barcacioa eta betico paqueen seguranza iristen dizquigu (4). Arrazoy beragatic berdintzen da illarguiarequiñ ere (5), bada illarguia ceruarequin hurraren artean dagoan becela, Maria ere jartzen da beti Jaincoarequin peccatarien artean, Jaincoaren justicia gozatu, adimentuiac arguitu eta gu gueron Eguilleagana eracartzeco (6).

Ara emen bere beargairic andiena: animac Jaincoarequin ongui jarriaz beraren graciara jasotzea.

(1) P. Spinell Ediph. (2) Apocal 4 (3) Vitalis Cardin in Spec. S Script (4) Bernard Sen. in Apoc. 41. (5) Cant. 6. 9 (6) Serm. 14. Nat. Dom.

Eman guiezu jatena anchumeay (1), esaten zayo Escritura sagraduan Cantetaco liburuan. Anchumeac pecatarien irudi dirala, badaquigu, arcume edo ardi otzanac, azqueneco egunean Juez goyenaren escutic jarrico diran autuac adirazten dituzten becela, peccatari dichagabeac ezquer aldetic egongo diran birtartean. Bada, ó Arzay jaincozcoa, zure contura gueratzan dira anchumeac, zue arcume biurtu, eta egun artan zori ontasunaren ondora eramán ditza-zun (2). Sena-co santa Catalinari errevelatu citza-yon, ecen Virgíña guciz santa izan zala guizónac gozotoro itsatsi, eta Jaincoogana Liurtuco cituan bis-ca guciz atseguiñ bat izateco eguiña (3). Bacarric oartu bear da, ecen anchume edo peccatari guciac salvatuco ez dituala, ezpada berá servitzen eta on-ratzen dutenac, ceren beren gaiztaquerietan viciaz, berezco servitzuren baten bidez Ama maite onen la-guntza merecitzera sayatzen ez tiran, eta beren vici-era galdutic irteteco gogoaz ta deseoz berari escatzen ezdiotenac ez diran bere artaldecoac, eta beragatic ezquer-aldea izango da azqueneco egunean oyen lecuá (4).

Izan zan eguiten cituan gaiztaqueri andi eta uga-riacgatic bere salvacioaz ernegatua cegoan guizon andizqui bat; baña erligioso batec au jaquiñic, bi-guntasun andiaz esan cion: eliza batean cegoan i-magiña bategana joan, eta Maria guciz santaren

(1) Cant. 17. (5) Gul. Paris. (6) Apud. Blos. Mant. Spir.
 (4) Gul. Angelicus in Cantic. c. 1. 7.

antiparoa esca ezala. Guizona ara joan, eta imagiña
 icusi ez al zuan, uste eta confianzi osoaz beraren
 óñetan auzpeztutzero muguitua sentitu zan. Las-
 ter eguiten du, jartzen da auzpez, eta imagiñari ó-
 ñetan muñeguitera ejoaquiola, onec eman cion es-
 cua, muñeguitaco, non cenden esribituac itz occ:
Nic libratuco zaitut; eta onequin guizonac bere
 pecatuen alaingo damua, eta Ama guciz gozo arga-
 naeo amore añ vicia artu cituan, non bere on sagra-
 duetan hillotz erori zan. ¡Oh eta cembat peccari
 gogortu gure biotzen iman tifaquin onec egun oto
 Jaincoaganatzen dituan (1)! Gure eta beste ascoren
 misioetan igarotaco guertaera asco conta nitzaque;
 oetatic batz. cc beste sermoyetan gor, sor eta gogor
 gueratu, baña gueroenean Mariaren misericordiaz
 itzeguiten adituta, damutu, eta ondu ciranena.
 Diote, ecen adar-bacarra deritzan abere bat añ azcar
 eta odolguiroa dala, non berá atzi dezaqueanic ezta,
 eta bacarric doncella baten otsera otzandu, alderatu
 eta uzten dala lotzen. ¡Lar-abereac baño ecicaitza-
 goco cembat peccari Jaincoagandic igues ecbiltzanae
 biurtzen diran Virgiña amoretsu onen otsetara, eta
 otzanquiro uzten diran onec bere escaz lotu eta
 eramatel!

Onetaraco izan zan Jaincoaren Ama izateraño go-
 ratua, beren óbray eta Jaincoaren justicia zorrot-
 zari beguiratuta salvatuco etziran peccari ascori bi-
 tartecotasuna eguin, eta salvacioa iristeco (2). Jus-

(1) Lib. 5. Revl. S. Birgit. c. 52 (2) Chrys. Hom. de Præ. B. V.

tuen onagatic ez aimbeste, nola peccatarienagatic icusten da aũ goratua, gure Erredimitzalle Cristoe bere buruaz esan zuan becela, cer zala bide mundura zan eracutsiaz (1). ¡O Andrea! beartua zaude peccelaríay laguntzera, ceren Jaincoaren amatasuna dala bide artu dituzun escubide ta anditasun guciac beray zor dieztezun, bada beracgatic dezti Jaincoa Se-me (2). ?Nola onequiñ galdu lezaque iñore bere us-te eta confianza?

Asuncio vezperaco mezan, bere oracioan Eliz A-ma santac esaten digu, certelara eramana izan zala, au gucia bere nay erara aguintzen duana becela (bada berac aguintzen eta erabaquitzen duan requin juez gucién Jueza beti ondo dator) enzuma izango dan seguranza osoaz gure bitartecotza au beti eguin dezan (3). ¡Cer seguranz gueyago nay guentzaque? ¡Cen fiatzalle Jaincoaren gogecoagoric eta berarequin obeto jarri g intzaqueanic (4)? Nola Jaincoac era gucietara eta bide gucietic peccatarien ontzea billatzen baituan, bareccioa iriehico eztegulacoan egun ez gaitean eman cigun bera prenda eta señaie segurutzat. ¡O peccaríay! anima zaite, bizcor zaite au adituta, eta baldiñ zure peccatuac aimbeste eta berac alacoac diralaco Jainco aserretuac zure contra bere cigora jasotzearen beldur bacera, zoaz peccatarien esperanza dan Mariaren billan, guciroy laguntzeo beargay eta encargua Jaincoac berac eman cio-

(1) Anselm. (2) Anselm de Exc Virg c 1 (3) Justinus

(4) Andreas Cretens, Orat 1 de Ass.

la jaquiñie (1).

¿Cer beldur izan lezaque, gaizqui irteteco, jueza-aren ama berá bitarteco eta amatzat escañtzen zayon gaitzquilleac? Eta zu bitarteco eta Ama cerana ¿atzeratuco cera cere Seme Juezarequico bitartecotasuna beste seme bategatic eguitetic? ¿Eztiozu esca-
tueo Erredimitzalleari bere odol preciatuaz erositaco anima bategatic (2)? Vicitasun eraguille guciaz esca-
tueo dezu nosqui zugaratzen diranagatic, Juezare-
quin gaitzquilleen arteco bitartecoa ceranac becela (3). Zu peccataria, nornay cerala, peccatuaren locat-
zean leporaño ondátua bazaude ere, zure zauriac li-
tezquean zar eta quirastuenac badaude ere, ez galdu
cere uste eta confianza; baicic eta eman guiozcatzu
Jaincoari esquérac, zuri misericordia eguitico bere
Seme bacarra zure bitarteco eman dizulaco ez-ecic,
oraindic obeto confia zaitean, gucia iristen duan la-
guntzalle bat eman cizulaco ere. Esca zazu bearen
laguntza, eta salvatuco cera.

EJEMPLOA.

Rupe-co Alano Doatsuac, eta Bonifacioc contatzen
dute, izan zala Florencian Benita ceritzan nescacha
galdu, gaitz bide andiac ematen cituan bat. Oñent-
zat zorionean Aita santo Domingo erri artara etorri,
eta egun batean nescacha iensmiñez santuaren ser-

(1) Bonav. (2) Adan. Abbas. (3) Idem.

moira joan zan. Sermoy artan Jaincoaren itzic damu añ vicia sartu cion, non negarrez urturie santuarequiñ confesatu, eta onec eman cion penitencia errosario erreztatzea bacarric izan zan. Baña dichagabea bere oitura galduac eramanic, berriz ere leneratu zan. Santuac su jaquiñ, eta beraren billan joan, eta berriz confesatzea irichi zuan, eta ontzeco asmo sendo eraguille lat artzeco Jaincoac bere aldetic, infernuco penac, eta beraren erruz condenatuta su eta gar an ceuden cembait guizon, eta bere pecatuac eseribituta ceuzcan liburua beguien aurrean ipiñi, eta guci onec izulaborria sartu cion: baña Virgiña Mariaren amparoa biotz guciac billatu, eta bere gaiztaqueriacgatic negar eguiteco dembora Ama maiteac Jaincoagandic iristen ciola ere, icusi zuan. Viciera berri on bat eguiteari bertatic eman citzayon; Baña nola bere pecatuac eseribituta ceuzcan liburu be'durgarri lura beguietatic beñere quentzen etzitzayon, egun batean asi zan aingueruen Erreguiñari itz oec esaten: *Ama guci amorezcoa, ondo daquit milla bider merccitua izon dedala infernuo; boña alaingo urricaltusmaz irichi didazun ezquero penitencia eguiteco dembora, beste mesede hat escatzeranoa quizu, nere pecatuacgatic eriotzerano negar equitea utzi nay ezpadet ere, eta da quen eraci ditazula nie icusi nuñ liburu artatic nere pecatu guciac.* Virgiña guciac santa aguertu citzayon, ciotsala, ecen escatzen zuana iristeco aurreoncean erabilli bear cituala beti gogoan bere pe-

catúac, eta Jaincoac eguin cion misericordi andia; bera salbatzecatigatic Jaunac eramán cituan aimbete tormentu, eta azquenic, beguiratu bear zuala, eembat pecatu guehiagogatic condenatu ciran: nola egun artan bertan mutill bat pecatu eriozco bacar bategatic condenatu zan, esan dan guciari erantsiaz. Aguindu au Benitac zucenquiro eguin, eta guero-enean merceitu zuan gure Erosle Jesucristo bera agueru, eta Jaun onec liburua eracutsiaz, esatea: *borratúac diva zure pecatúac eta zuri eta garbi dago liburua. Escribi itzazu oran caridatezco eta gañeraco vertutezco lan edo equintza asco.* Arrez guerozco dembora gucian ala eguinaz, santa bat becela vicitu, eta eriotza guciz on bat izan zuan.

ORACIOA.

¡O Virgíña guciz gozoa! bada zure beargaya Jaincoarequin pecatarien artean oen amparatzalle jartzea da, eguizu beli nigatic beargay añ amorezco au, eta ni amparatzea gaitz dala, eta eciñ gorde nazazuqueala ez arren esan, ceren zugaratu dan inor gaizqui irten ezlan, ceñda galdya izan dan. ¡Eta ni gueratueo naiz zure amparogabe? Ez, ez naiz gueratueo. Eguia da, baldin pecatúac mereci dutenari bacarric beguiratueo banio, zure amparogabe gueratzearen beldur nitzaqueala; baña nola zure urricaltasun eta dichagabeay laguntzeco cere bular guciz onguillean dau-

cazun eresia ezagutzen baititudan, ez naiz eeren beldur. ¿Zuganatu dan ceñ secular galdu da? Zue, nere bitartecoa, nere gordelecuca, nere esperanza, zue, ene Ama maitea, lagunduco didazu. Zure es-cuetan jartzen det nere salvacioaren eguitecoa. Gue-ratugabe jardungo naiz Jauna bedeincatzen, zugan confianz au ematen didalaco, eta bera añ andia da-laric, nere gaiztaqueria guciay eraguinta, nere sal-vaioa izateco uste oso ta segurua ematen didalaco. Bacarric beldur hat gueratzen zat, eta da, orañ zu-gan senti dedan uste eta confianza bigun au ez idu-quitzera nere naguitasunez etorrico ote naizan. Baña onelacoric guerta eztediñ, gure Salvatzalle jaincoz-coari diozun amoregatic erregutzen dizut, gorde; eta egunctie egunera gueyagotu dezazula nere biot-zean zure bitartecotzaganaco nere uste eta confianza seguru au, seguru naizalaco, onen bidez ostera ne-retuco dedala añ burugabe pecatu eguiñaz galdu nuan gracia, graci au zure laguntza indartsuaren bidez gorde eta guero ceruan zurequin batera beti-coera gucian Jaincoa icusiaz, eta beráz gozatuaz, e-guin zaizquidan aimbeste misericordi eta gracia canta ditzadan.

VII. en BURUA.

Itzul itzatzu gugana zure begui erruquitsu oriec.

§.º bacarrá.

**Maria guciz santac erruqui andiaz beguiratzen
ditu gure ez-bear eta doacabeac, diran
guciac estaltzeco.**

San Epifanioe Virgíña guciz santari deitu cion *begui asco duna*, ceren aspertugabe ta beti beguiratzen dion negarrezco vici-lécu onetan vici gueran dichagabe gucien erremedioari, erremedio onen conta aundia beti iduquiaz. Beñ gaitzquindun bat conjuratzen ciardula, apaizac demonioari galdetu cion: *esadac ¿cer eguiten dic Mariac?* eta eranzun cion: *jachi eta igo*, (1): esan nairic, eztuala eguiten ezpada mesedeac ecartzera, eta guizonay on eguitera lurrera jachi, eta gure escari eta erreguac Jaincoari eramatera cerura igo. Santu batec *Paradisoco procuradorea* deitu cion (2) an ceruan Jaunaren misericordia escatzen eta justuaquin pecatarientzat mesedeac escatzen eta iristen beti eta bizquitartegabe

(1) Ap. P Pep tom 5 lect. 255. (2) Andr. Avelin.

ari dalaco. Justuetan ipiñiac dauzea Jaincoác beguiac, dio David-ec (1); baña Virgiñac justuetan eta peccarietan, ceren bere beguiac Amaren beguiac diran, eta amác semea erori eztediñ, beguiratzeaz gañera, erorten danean bere hura alchazera lasterreguiten duan (2).

Esca zadazu nay gucia, esaten dio Jaunác bere Amari, viciro poz artuaz gogo duan gucia berari emateaz, añ asco nay diolaco. Eta ¿cer escatzen du Mariac? Ene Semea, alabaña zue misericordiazco Ama, peccarien gordelecu, eta peccari dichagabeen bitarteco ipiñi nazu, eta nay gucia esca dezadala, esaten didazu, escatzen det, eguin dezazula misericordia béraquin (3). Aimbesterañocoa da zurea, Ama maitea, eta gure gaitzac arintzeco eta sendatzeco daucazun contu eta arreta alaingoá, non au beste eguinquizunic ceruan eztezula, dirudian (4). Eta nola miserien audiena peccariena baitan, atsedengabe erregutzen dezu béracgatic (5). Monduan vicitu zanean ere guizonacganaco biotz añ bigun eta amoret-sua izan zuan beti, non secular izan etzan nor bere najgabe-pénac aimbeste goibeltzen zuan personie, nola besteenaz Virgiña (6). Au ederqui aguertu zuan gombidatuta izan zan eztey ayetan, aurreragoco buruan esan guenduan becola. ¿Eta orañ ceruan bere burua añ goratua icustea gutzaz aztutzeco bide

(1) Ps. 54. (2) Richard. (3) S. Eirg. Rev. l. 4. c. 46, (4) Bonav. Sup. Salv. Reg. (5) Beda in c. 1. Luc. (6) Hieron. Ep. ad Eust.

izango litzaque? Onelacoric cer pensatu ezta; bada biotz añ erruquitsua eciñ iñoiz ere aztu liteque gure ez bear eta miseria bezañ andiaz; ecin iñolatan arrapa lezaque ere hera esacra onec: *honores mutant mores*, edo beste onec: *gloriaquin aztutzen dirala memoriac*; mundutarren artean zabaldua dagoan esquergabequeri eta eguiteco manera dan becela; bada oec baldin suertez igotzen badira goimalletara, erraz aztutzen dira bear eta miserian uzten dituzten adisquideaz. Ez ordea Maria, eta oraindie poztutzen da bere escu eta al andiaz, ceren onela mesedeac eguiteco eta bearrecoay laguntzeco gueyago dan. Bedeicatua izan zaite, esan bear zayo Rut-i baño hñde gueyagorequin, ceren andia bazañ zure lenengo ontasuna (misericordia) andiagoa dan orañgoa (2): baldiñ aragui hilcorrean vici eññanean añ erruquitsua baciñan, orañ cernan erreinatzen dezunean ascoz gueyago cera (3). Eguiaz andiagoa da orañ bere urricaltasun higuña, iristen dizquigun betico mesede andiac ondo eracusten diguten becela, ceren cerutic obeto ezagutzen dituan gure bear eta premiãc; eta eguzquiaren arguia illarguiarena baño ascoz andiagota viciagoa dan becela, Mariaren urricaltasunac, ceruan dagoan ezquero eraguiten dio ascorequin len zuanari. ¿Nor munduan vici da eguzquiaren arguigabe? ¿Eta nori argui ta vicia ematen eztatza Mariaren erruquiac? Egun batez santa Ines-ec santa Brigidari aguertu, eta esan eion: *Orañ gure Erre-*

(1) Bonav. in Spec. (2) Ll.

guina bere Semearequin balera ceruan daqoa
nean, ezta aztutzen berezco bere urricaltasunaz,
baicic eta guciay, peccatari inor berecigabe,
zabaltzen die bere erruquizco mantua; eta e-
guzquiaren arguiac, ceru-lurretaco gauza guciay
argui eguiten dien becela, Mariaren urricaltasuna
gabe gueratzen dan inor munduan ezta,
baldin urricaltasun au escatzen badu (1). Va-
lenciaco erreinuan guizon bat turco eguiteco asmo
osoan cegoan, bere billa cebilquion justiciari igues
eguite arren; ontzian sartzeco asmoaz cayera cijoala,
Jesusen Compañiaco Aita Jeronimo Lopez, misio-
nari sonatua, predicatzen cegoan elz baten ondote
igarotzean, an sartu, eta sermoya adituric ondu, eta
Aita arequin confesatu zan, Confesioa eguin-ondoan,
Jaincoic berarequin alaingo misericordia eguiteco
devocioren bat eguin oy ole zuan, misiolariac galde-
tu, eta eranzun cion; hacar bacarric desamparatu
etzezala, Mariari egun oro escatzeco jayera zuala (2).
Beste aldi batean Aita beronec topatu zuan hospital
batean berrogucita amabost urtean confesatugabe,
eta Maria guciz santaren imagiñay agurra eguin, eta
peccatu mortalean hiltzen utzi etzezala, escatzea beste
devocioric bere vician izan etzuan beste peccatari hat.
Bere otsay batequin aserreturic, hiac escuetaratu,
eta escueco ezpata pelean autsi, eta galdua eta con-
denatua ieusi zanean, Ama Virginiagana itzuli, eta
esan cion: *Pecatarien Ama, lagun zadazu; eta*

(1) Rev. S. Birg Lib. 1 cap 50 (2) Patrig. M. nol 2 Feb.

itz oec esan ez al cituan, nola etzequiala, andie urruti lecu seguruan arquite zan. Au ere, bere vici gucico confesioa eguiñ, eta bere salvacioaren uste oso eta confianz andiaz hill zan (1).

¡Cor eguia, Maria dan gucia gucientzat dala! Gu-
ciay zabaltzen die bere bular erruquitsua, guciac
andie ar dezaten: esclavo dagoanac bere catibuera-
tio irtetea; gañoac osasuna, tristeac consueloa, pe-
catariac barcacioa, justuac gracia, angueruac poza,
eta Trinidad guciac gloria; eta ala, beraren argui
eta berotasun gabe gueratzen danie ezta. ¡Nore mai-
teco eztu Ama au? Eguzquia baño ederrago, ezta
baño gozoago, onguilletasunaren gordairu ondoga-
bea, guciaquin da on eta biguña, guciaquin amo-
retsua (2). Nere biotz guciac eguiten dizut nere agur
ona, nere Amandrea, nere beguien argui eta nere
animaren vicitza. Barca zadazu zuri nay dizudala,
badiot; eta baldiñ zu amatzearen diña ezpanaiz, zu
amore guciaren guciz diña cera.

Santa Gotrudis-ec cerueo arguitasunaz jaquiñ zuan
(3), ecen Salveco itz oec: *Ea, bala, gure bitar-
tecoa, itzul itzatzu qugana zure begui urricall-
su orice*, devocioaz esaten zayozcan gucian, ecin
dagoala gure alde macurtu, eta escatzen zayona e-
guingabe. O Ama biotz beraa, zure erruquiac mundu
guCIA betetzen du, eta guri on eguiteco daucazun
zale ta deseoa alaingo da, non gueratzen ceran o-
fenditua, zuzaz (jocoan zure contraco añenecoac esa-

(1) Patrig. Menol. 2 Feb. (2) Bonav. (3) Rev lib 4 c. 55.

ten dituzten gaizto biurriac becela) gaizquiac berariac esaten dituztenaz ezecic, zuri mesederen bat escatzeco zutzaz gogoratzen ez tiranaz ere (1), onela aguertuaz gue merecibaño andiangoac zugandie us tetzen, bada paregabe andiangoac eguiten diarduzu beti (2).

Isaias profetac aldeaurrez esan zuan, ecen Erredencioaren dembora ceterqueanean, jasoco zala urricaltasunaren jarlecu bat. ¿Eta ceñ da jarlecu au? galdetzen du san Buenaventurac. Da justuac becela pecatariac beragan poz eta amparoa arkitzen duten Maria. Dogu Jaun bat urricaltasunez betea, eta Eche coandre bat, guciz erruquitsua. Jauna gucia da biguntasuna, berari deitzen diotenaquin, eta orobat da Eche coandrea (3). Jaincoaren erreinuco tronu goratuan jarria dago, eta gucia dezaquean Jaunac bere escu eta gucialaz añ jantzi zuan, era gucielaco ónac guri emateco, eta gueroenean gueron salvacioa iristen guri laguntzeco (4). Beñgo batean santa Getrudis-ec samurtasun andiaz esaten cion: *Itzul itzatzu gugana cere begui erruquitsu oriec*, eta Virgiñac eracutsi ciozcan besoetan ceucan aurchoaren beguiac, eranzunaz onela: *oec dira niri deitzen didaten gucienganonz nic itzul nitzaquean begui guciz erruquitzuac* (5). Eta pecatari bati misericordia irichi ceguiola negarrez esqueca bere óñetan cego quion beste aldi batean, Ama maiteac besoetan zuan

(1) Bonv in Spec. (2) Ildebert. (3) Bonav in Spec. (4) Gueric Abbas. (5) Rev. I. 4 c. 55

bere Semeaganonz beguiratuta, oni esan cion: *¿Eta malco oec alperric issuri bear dira?* Etzan guertatu ala, ceren Jaunác barcatu cion.

¿Eta nola liteque ere Ama añ onaren babes ta amparaa billatzen dutenetatic iñor ere galtzea, oequin misericordia eguiteco itza emana daucan ez-
ezquero? Al izatean eta ontasunean berdiñ cera, Ama guciz erruquitsua; al izatean, guri mesedeac iristeco, eta ontasunean guri barcatzeco (1). ¿Noiz secular guertatu da, zu desdichaturen batez ez urricaltzea, izanie, ceran becela, misericordiazco Ama? ¿Edo noiz eztezu izan oey laguntzeco escua, zu izanie gucia dezaqueanaren Ama? ¡Ah Ama maitea! erraztasun berarequin aditzen dituzu erreguac, iristen dituzu mesedeac, eta estaltzen dituzu premiae. Bete zaito, zorioneco Erreguiña, cere Semearen gloriaz; bete zaito gañezta arte, eta ez gure mercedentuae-gatic, ezpada bacarrie erruquiz, utzi zazu zure semecho eta servitzari oey ere cerbait iristen (2). Eta nere pecatuac atzeratu ez nazaten, ez arren ecarri oec nere contra, ceren beren contra zure urricaltasuna aguertuco dedan. Ez bedi esan iñoiz ere nere pecatuac galeraetzen diotela zure misericordiari, juicioan, alabaña misericordi au ascoz indartsuagoa da ni salvatzeco, ni condenatzeco nere pecatuac baño (3).

(1) Adamus Parisien Abbas. (2) Rup. in Cant 1 5. (3) Gulielm.

EJEMPLOA.

Aita Capochinoen cronican iracurten da (1), izan zala Venecian letradu sonatu bat bere engañu eta nasquetaquin guciz aberastera irichi zana, eta egunoro Ama Virginari oracio bat errezatzeco jayera ezpazan, beste ecer onic icusten etzitzayona. Baña guciaz ere jayera au izan zan berá betico infernutie libratzeco diña. Ara nola guertatu zan. Bere suerte onaz Fray Mateo Basso ceritzan erligioso batequin tratabidea arturic, egun batean coitu zuan au berequin bazealtzera eramatea. Echeira ciranean, letraduac esan cion: *Aita, egundaño icusico etzuan gauza baticustera dijoa: daucat chimu bat añ argui eta tre-bea, non gucien arrigarri dan, bada eguiten dizquit servitzari baten lanac, atea idiquiaz, sucaldeco ontziac qarbituaz, maya prestatuaz, eta echecho beste beargay guciac equinaz.* Capuchinonec eranzun cion: *Beguira animali hori chimua baño queyago ez-ote dan; eracar beza ona.* Deitzen diote, beñ eta berriz, billatzen dute echecho zoco gucietatic, baña chimua ezta aguiri. Gueroenean topatzen dute beco guela bateco oy baten azpian gordeta andie irten naygabe. Goacen gu ara, esan zuan erligiosoac. Joan, eta onec esan cion: *irten adi ortic infernuco aberea, eta Jaincoaren icen-*

(1) Cap 41. p. 1.

ean aquintzen diat, esan dezacala ceñ aizan. Chimuác orduan itzeguin zuan, esanaz: zala guizon galdu are Virgiña guciz santari egun oro eguiten cion here oracioa errezatzea noiz utzico ote zuan beguira cegoan demonioa, uzten zuan egunean ito, eta aren anima infenuetara eramateco, Jaincoagandic ceucan escuarequin. Letradua au aditzean izu laborriac artu, eta icaraz ecin cegoala, erligiosoaren óñetan auzpeztu, eta oni laguntz eta conseju esque jarri citzayon. Jaincoaren servitzariac animatu zuan, eta deabruari aguindu cion gaitzie eguingabe, eta siñaletzat paretean idiqui edo zulo bat besteric utzigabe angoac eguin citzala. Au esan ez al zuan, zartadao izugarri bat aditu, eta eguiñ al guciacgatic luzaroe-tan ecin ichi izan zuten zuloa aguertu zan, bada zulo hura guero ere erligioso beraren consejuz aingueru baten irudia an ipiñiaz ichi zuten. Letradua jaincoagana biurtu, eta uste danez eriotzeraño on izan zan.

ORACIOA.

¡Virgiña guciz santa, creatura gucien andi eta garayena! nic ez mesede ta graciac, espada castiguac mereci ditudan pecatari dichagabe onec, eguiten dizquitzut nere agur umillac beco vicilecu illun onetatic. Ama maitea, au ez diot zure urricaltasunaren uste eta confianza galdu dedalaco. Ondo daquit, cembat gueyago dezaquezun, aibat onguilleago

izatean daucazula cere atseguin contentua. Ondo daquit, orren aberats izateaz poztutzen cerala, guri peccatari beartsuoy cere aberastasunetatic emateco. Ondo daquit cembat zugana bideguiten dutenac beartsuago, aimbat aleguin gueyago aguertzen dezula oec gordetzeco ta salvalzeco. Ene Ama, zuc cere Semea nigatic hilla icusi cenduanean, negar miñ garrátzac eguin cinduan. Escatzen dizut jarri degui-ozcetzula malco ayec bere aurrean, beracgatic nere peccatuen damu eguiazco bat deguidan. Baldin aimbeste naigabe eman bacizquitutzen guizónen peccatúac, eta batez ere nereac, gueraeraci itzatzu bertatic naigabe oec. ¿Cer valioco liraquec negar añ preciatnac, baldin esquergabeco gaizto izaten jarraituco hanu? ¿Cer on eguingo liraque zure misericordiac, baldin ostera desleyal izanaz condenatu bear banitz? Ez arren onetaraco lecuric eman, ene Ama. Zu jarri cera nere fiatzalle; zuc escalu gucia iristen dezu Jaincoagandic; zuc gucién erreguac enzuten dituzu. Confianz onequin gaur escatzen dizquitut mesede bi, eta biac uste ditut zure ontasunagandic. Bata, aurreronzean Jauna gueyago ofenditugabe, herari leyal izatea; eta bestea, len ofenditu dedan aimbat biotz beroaz bera amatzea viciac diraudane-raño, bera amatzea beñere utzigabe, guero secula gucietan amatzeco.

VIII. en BURUA.

Eta deserri onen ondoren eracus zoguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeicatu.

I. en §.º

Mariac libratzen ditu infernatic bere devotoac.

Ecinquizuna da edo cin ditequeana Mariaren devotore condenatzea, baldin Maria servitzera eta Ama onen amparopean jartzera sayatzen bada. Au beguiratu batean asco esatea dala, irudituen da bearbada; baña erregutzen del, eztezala inore gaitzat artu, gay onen gañean esatera noana iracurri bañon len. Maria guciz santaren devoto bat condenatzea cin litequeana dala esatea ez da aditu bear itzeguiten degula lasaitasun guciz pecatu eguiteco devocio onezaz gaizqui usatzen duten peccatori ayezaz; eta onela ezdute ongui eguiten peccatoriaganaen Mariaren urricaltasuna gue añ gora jasotzea, zelo falso batez ontzat ematen ez duten ceibaitee, gaiztoac peccatu gucyago eguiteco egoac onela artzen dituztelacoan egonaz; bada lenen esaten deguna da, onelecoac ez dancatela cerzaz poztu, baicic eta beren usle eta confianza ero eta bidegabeagatic castigua, eta ez misericordia, mercei dutela. Aditu bea: da, bada,

ontzeco asmo sendoaz Jaincoaren Ama leyalqui servitzeco eta alabatzeco asmo ta gogoa batutzen duten devoto ayezaz. Oezaz diot, eta segurutzen det, ecen santu eta jaquintsuen iritzian ecin litequeana dala oec condenatzea, teologo andi ascoc eracusten duten becela (1). Eta onetaraco artu zuten oñ edo cimen-du sendoa icusteco, examina dezagun santu eta Elizaco maisuac gay beronen gañean lenago eracutsi zutena.

Onela segurutzen du au san Anselmoc itz ocquin: Virgüña guëiz bedecatuã, añ ecinquizuna da zugandic aldeguiten duana salvatzea, riola zuzaz baliatzen dana galtzea (2).

Oen guisaco itzaquin segurutzen du au bera san Antoninoc, esanaz: »Virgüñac here begni erruquit-suaz beguiratzen eztion inor salvatzea ecin litequeana dan becela, berac beguiratu eta here bitartecotza eguiten dien ayec salvatuco dira (3). Begüira bequio hidez santu oec lenengotie diotenari, eta izu bitez Mariaganaco devocioa ecertan ez daucatenac, edo devocio au zabartasunez uzten dutenac, bada Ama maite onec lagundu ta gordetzen eztuan inor salvatuco eztala, seguranz osoaz diote; eta au bera segurutzen dute beste maisu ascoc ere, eta oen artean Alberto Magnoc, esanaz: »*Andrea, zu servitzen etzaituana, galduco da* (4); san Buenaventurac gañera dio: *Mariaren devoto ez diranac*

(1) Crasset, Vega, Mendoza, etc. (2) De Exc. Virg. c. 11. (3) Part. 4 tit 50. (4) Bibl Mar. in c. 5.

pecatuan hilco dirala (1); eta beste lecu batean berriz: *vicitza onetan Mariari deitzen eziona, ceruelaco erreinuan sartuco ezala* (2); eta 99 garren salmoac adirazten duana eracutsiaz, iristen da esateraño: *Mariac bere arpeguia atzera itzultzen dien ayec, salvacioaren esperanzaric ere izango ez dutela*: san Ignacio martiriac asco lenago eracutsi zuan dotriña, argui eta garbi esanaz: *pecatari bat bera ere ecin salva litequeala ezpada Mariaren bitartecotasunez; eta bestera, Jaincoaren justicie condenatuco cituan asco Mariac bere bitartecotasun indartsuaz salvutzen dituala* (4). Itz oec san Ignaciorenac ote diran diote cembaitec, baña nolunay ere san Juan Crisostomoc (5) eta Celeco Abadac (6) orobat diote, eta Elizac onela egozten diozea Mariari Proverbioetaco itz oec: *Ni topatzen nauanac arquituco du vicitza* (7), ceren Ricardoc liburu santu artaco itz: *mercatari baten ontzia bevela da* (8) oec eer esan nay dulen eracutsiaz, dio: *ontzi seguru onelatic campoan itsasoan dabiltzan guciac galduco dirala munduco itsasoan* (9). Contrara, Mariac, dio, *Ni aditzen nauana galduco ezta* (10). San Buenaventurac oni eranzunaz, esaten dio: *Bay, Andrea, zu servitzera sayatzen dana, guciz seguru egongo da betico galtzetic* (11); eta san Hilarioc gañera dio:

(1) In. Ps. 416. (2) In Ps. 86. (3) Ap. Celada in Jud. Fig. § 10. (4) In Deprec. ad Virg. (5) In Compl. Vir. c. 5. (6) Prov. 4. (7) Prov. 59. (8) De Laud. Virg. l. 41. (9) Eccl. 24. 50. (10) In Ps. 418. (11) Cant. 12. in Matt.

Mariaren devotoc ezuala izango azquen gaiztoric, lenogo Jaincoa asco ofrinditu badu ere (1).

Orañ ezagutuco degu cergatic demonioa aimbeste sayatzen dan peccariay, Jaincoaren gracia galdu ondoan Maria guciz santaganaco devocioa ere galceraztera. Ieusiric Sarac bere seme Isaac-ec esclava baten seme Ismael-equin jostatzen ibilliaz, oitura chàrrac artzen cituala, bere senar Abraham-i esan cion: *mutill hura bere ama Agar-equin echetic bota cezala*. Ismael irtetcaz asetzen etzan, baldin ama ere irteten ezpazan, mutilla ama icustera etorricozan, eta etorriaz, echea beñere utzico etzuan beldurrez. Guis onetan demonioa ere asetzen ezta animac beregandic Jesucristo botatzeaz, baldin Ama ere bialtzen ezpadu, ceren Amac bere bitartecotasun indartsuaz ostera eracarrico duan, beldur dan; beldur justu eta bidezcoa, ceren Ama guciz santa onen servitzuan iramcor dan guciac laster Jaincoaren gracia ostera beretuco duan (2). Onegatic esaten zuan san Efren-ec: *Mariaganaco devocioa infernatic libratzeco seguranzaco carta zala* (3). Eta eguiaz, Mariac gu salvatzeco aimbeste escu eta gogo iduquiaz, san Bernardoc eracusten digun becela (4); escua, ceren bere erreguac aditugabe guezatzea ecin litequeana dan (5); gogoa, ceren gure

(1) Ap Paccin-helli in Salv. Reg. (2) Or d. de laut. Virg. (5) Sermde Ass (4) Bernardin, p 4 tit. 15 cap 17. § 4. (5) Serm. de Nat. B. V.

Ama dan, eta gure salvacioa gueroe baño opaigo digun, ¿nola galduco da berari devocio leyala dion iñor? Baliteque pecatuan egotea; baña baldin ontzeco asmo eta gogoaz berari erregutuaz jarraitzen badu, bere contu gueratzen da oni iristea arguia, damu eguiazeoa, vertutean irauteco gracia, eta gueroenean Jaincoaren gracion hiltzea. ¿Ceñ amae juczari itzeguitea bestegabe bere semea ureabetic erraz libra lezaqueala, libratuco ez luque? ¿Eta gogoac eman ere bear digu, munduac egundaño icusi duan Amarie samur, biguñ eta maitaticnac libratuco ez-tuala bere seme bat betico eriotzetic añ erraz libra lezaqueala?

Diozeagun Jainari betico esquer ngariac baldiñ aingueruen Erreguiñaganaco confianza bigun au guerongan barrunda badegu, bada san Juan Damascenoc segurutzen duan beccela, au salvatu nay dituanay bacarric Jaincoac eguiten dien gracia da; eta enzun ditzagun santuaren itz pozcarriac. *!O Jaincoaren Ama, baldin nere burua zure babes eta amparopean icustea iristen badet, ez tet cerzaz beldur izan, ceren zure devoto izatea salvacioaren señalet segurua dan, eta Jaincoac ez die ematen devocio au ezpada salvatzeco señaletuac dauzcanay (1).*

Ezta alabaña arritzecoa gure animen etsáyac begui añ gaiztoaz beguiratzea zori oneco devocio oni. Jesusen Compañiaco Aita Alfonso Alvarez, Virgiña

(1) Elos. in Cant. Spir.

santaganaco debocioan añ itsutuaren bicitzan iracur-
ten da, een oracioan cegoala tentaldi loyac eraso
cioten aldi batean, aditu zuala bere aldean guizeco
naigabea ematen cion, etsayaren boza, esaten ciola:
*Zuc utzi zazu Mariaganaco debocioa eta nic
utzico del zu tentatzen.* Eta Sena-co santa Cata-
linae cerutie izan zuan arguitasun batean jaquiñ zu-
an emen probatzen goacen eguia. Jaunac esan cion
(1): *nere ontasunez eta nere Seme bacarraga-
naco bequiramentuz eman nion Mariari beru-
gana debocioaz bidequiten dutenetatic inor, ceñ
da peccataria dan infernuco sugarretara ez joa-
teco pribilegioa.* David profetae berac, diote azal-
dariae, escatzen cion Jaincoari, Mariaren onra ta
gloriagatic, libra cezala betico penetatic, deadar e-
guinaz onela: *Ondo daquizu, Jauna, maite izan
dedala zure echearen edertasuna: ez bedi galdu
nere anima sinistegabeco gaiztoenarequin* (2).
Dio zure echearen, aditzera emanaz Maria, ceña-
baitan Jaincoac bere escuz eguin zuan eche guiez
eder hura, guizon eguinta bertan bicitzeco, eta go-
zarotzeco, Proberbioetaco liburu santuan aldeaurrez
escribitua dagoan becela, itz oequin: *Jaquintasunac
beretzat eche bat eguin zuan* (3). Ezta galduco,
segurutzen dignu martiri gloriatsu san Ignacioc, A-
ma guiez santa onen deboto izatera sayatzen dana,
au oneguiñaz san Buenabenturac ere dioncan: *An-
drea, zure maitatzalleac paquea zalegarri bat*

(1) Blos in Cant Spir (2) Ps. 25. (3) Prov. 9. 1.

daucate bicitz onetan, eta ez dute icusico betico eriotza bestean (1). Ez, egundaño icusi eta icusico ezta, Mariaren serbitzari humill eta leyal bat betico galtzen (2). ¡Cenbat galduco ciran beticoera guciraco, baldiñ Ama biguñ onec bere Seme guciz santuaganaco bitartecotza eguiñ, eta irichi czpalie misericordia! Oraindic gueyago esateratzen dira teologo, ez guchi, eta batez ere santo Tomas. Diote bada, ascotan guertatu dala, pecatu mortalean hill diran personay beray Mariaren erreguaegatic, Jaincoac bere sententia guelditu, eta béren pecatuen penitencia eguin dezaten, ostera licitzera etortzen uztea. Beste jaquintsu andien artean IX^{en} guizaldian bicitu zan Flodoardoc bere Cronican contatzen du (3), ecen Adelmaro ceritzan diacono batec hill, eta lurpetzera ceramatela, piztu, eta gucien aurrean esan zuala; nola icusi zuan infernuan prestatua cegoquien lecu; baña Maria guciz santa bitarteco jarri, eta irichi ciola mundura itzultzeco gracia, penitencia eguin cezan. Surioe contatzen du (4) Ama naite onec berac irichi ciola graci au bera penitenciaric eguingabe hill zan Erromaco guizon Andros ceritzan bati. Pebartoc ere escribitzen du (5), Sigismundo Emperadorea bere ejercituarequin Alpeac derizten mendi andietan barrena cijcala, aditu zutela esqueleto batetic confesio esque irtelen zan deadarra, gañera ugaldnaz, bere bicitzan soldadu zala Virginia Mariari

(1) In Ps. 113. (2) Blos. in Cant. (3) Apud. Crass. Tom. 1 q. 12. (4) Stellar. Cor, B. V. Lib. 12. p. 2. a. 1, (5) libr. 1. c. 35.

izan cion jayeragatic irichi ciola Ama maiteac ezur ayetan confesioac cirauneraño bicitzea. Confesatu eta osterá hill zan.

Guertacari oec, eta onelaco besteac ez diote serbitu bear peccatari centzugabeari Virgiña guciz santac infernutic ere ateraco dualaco uste eta esperanzan pecatu eguften jarraitzeco; ceren eroqueri andia izango litzaquean becela nor bere burua putzubaiera botatzea, Virgiña guciz santac iñoiz edo bereriz ala eguin dualaco, itotzen utzico eztuan uste eta esperanzan, areagoa izango litzaquean, infernutic ateraco duan uste zoroaz salbacioa arriscuan ipintzea. Esan diran ejemploac serbitu bear dute uste eta confianza pizteco, consideratuaz, baldin bere bitartecotasuna izan bazan añ indartsu eta eraguillea, non pecatuan hilldaco bat edo beste betico infernutic libratzeraño irichi zan, ascoz eraguille ta indartsugo izango dala bicitzan ontzeco eta biciera berri on bat artzeco asmo eta gogoaz beragana bideguin ta berá serbitzen dutenen alderaco.

Onequin animatuta sar gaitean bere urricaltasunaren egapean, esanaz san German-equin: *O cristauen Ama, bicitza eta esperanza*, zugabe ¿*Cer litzaque guzaz* (1)? Esan zagun beñ eta berriz san Anselmorequiñ: *Ama maitea, norgatic ere zue beñ escatzen dezun, onec ez ditu icusico betico tormentuac. Baldin Juicioraco deya izan dezadanean erruquien Amac becela amparatzen ba-*

(1) De. Zona, Vir.

nazu, libre irtengo naiz (1). Esan dezagun gañera Suson doatsuarequin: *Baldin Juezac condenatu nay banau, igaro bedi sententia zure escuetatic* (2), *ceren escu añ erruquitsuetan galeracico dan sententiac aguintzen duana equitea*. Ama maitea, ez naiz galduco, ezpada irichico det cerua, non icusi, alabatu eta amatuco zaitudan beticoera gucian (3).

EJEMPLOA.

Flandes-co erri nagusi batean 1604 garren urtean bici ciran estudio eta liburuetan baño jan-edan eta loiquerietan dembora gueyago ematen zuten bi escolan. Gau batez, beste ascotan becela, joan ciran emacume galdu baten echera, non bietaco bat, icenez Ricardo, bere echera itzuliric, bestea gueratu zan. Ricardoc lotaraco erantzi zanean, egunoro esan oy zuan Abe Maria bat oraindic errezzatu etzuala, conturatu, ta gueroenean ere bere burua borchatuaz, gogo ta arretagabe erdilotan bere hura errezzatu zuan. Loac artu ez al zuan, aditzen du supitoan golpe andi bat atean, eta icusten du bere laguna ichura izugarrian atea idiquigabe sartzen. ¿Ceñ aiz,? galdetu cion. ¿Ez nauc ezagutzen? esan cion besteac— Añ bestetu eta itsusia icusten aut, non demonio bat

(1) Richard. de S. Viet in Cant c. 15. (2) Hor: Sap. libr. 1. c. 16. (3) In. Psalt. Mar.

dirudian—Ene zori gaiztooa, condenatu nauc—
 ;Nola?—Jaquin bear dec, ecen eche galgarri artatic
 irtetean, demonioa etorri, eta onec ito ninduala.
 Jaquin zac gañera, iri ere suerte berac ichedoten
 ciala; baña errezatu uan Abe Mariagatic, Virgüña
 Mariae gorde auala. ;Ire suerte onecoa baldin nere
 bidez ematen dian gaztigu onetzaz baliatzen bada-
 quic! Au esan ondoan bere estalquiae ascatu, eta
 bere sugar eta alde gucietatic lotutzen zuten sugne
 nazcagarriac aguertuaz, andie joan zan. Orduan Ri-
 cardoc bere burua lurrera bota, eta negar ta deadar
 alaingo misericordiagatic Ama maiteari esquerrac e-
 maten ciozean, biciera berri on bat artzea aguinduaz,
 eta orduan san Franciscoren ordenaco comentuan
 maitinetaraco jotzen zuten ezquilla aditu, ta deadar
 eguin zuan: *Au penitencia equitera deitzen nau-
 an Jaunaren otsa da*, eta luzapen gueyago-
 gabe bertatic joan zan habitu santua leyaz es-
 catzera. Eriligiosoac etzioten eman nay habitua, ce-
 ren bere biciera galdua cequiten. Orduan guertaera
 gucia contatu, eta Ricardoc ciona eguia otezan se-
 guru jaquiteco onec señalatu cien carricara erligioso
 aytaco bi joan, eta an topatu zuten oec Ricardoren
 lagun zanaren gorputza ito eta ilincha becela beltztua.
 Onequin erligiosoac Ricardo berengana artu, eta
 biciera guciz eder eta santu bat eguñaz bicitu zan.
 Fedea zabaltzera Indietara, eta andie Japon—a joan,
 eta an Jesucristoren martiri surtan erreta hiltzeco
 suerte zori onecoa izan zuan.

ORACIOA.

¡O ene Ama gozoa! ¡cer gaiztaquerien leizondar izugarrian onezquero erorico nitzan, baldin zue cere escu urricaltsutic iduquiaz galeraci ezpacendu erortea! ¡Cembat urte dira belico infernuco sugarretan egongo nintzala, baldin cere erregu indartsuarequin galeraci ezpacendu ni an egotea! Nere peccatae au ondo mereci zuten, eta Jaincoaren justicia colpea egozteco prest cegoan; etsay eta borreroa sententziaren beguira ceuden, eta zu etorri ciñan ni gordetzera, nie batere deitugabe. O nere animaren libra! zallea, ¿cerequin paga al neguizque onelaingo mesedea, amore añ oparoa? Gueyago eguiñ cenduan: ni ceragana deitu eta zure urricaltasuncan nere uste eta confianza ipiñeraciaz, nere biotzaren gogortasuna benzutzea. Gueroztic, ¡cembat aldiz ostera erorico nintzan milla amiltzutan, baldin zure esen guiez erruquitsuac eutsi espalit! Eguizu orrela, ene esperanza, nere poz-atseguina, nere Ama, nere biotza baño maiteago zaitudina, segui zazu belico sugar izugarri ayetatic ni gordetzen, eta aurrena ostera eguitera biur nitequean peccatu mortaletic gordetzen. Eta alabaña maite zaitut, ¿nola eraman al izango du zure ontasunac ni condenatua ie stea? Irichi zadazu aurreronzean gueyagoren gueyago zuganaco, eta zure amorez aimeste on eguin dizquidan Jaincoaganaco esquer-beltzeco ez izatearen gracia. ¡Cer

esaten didazu, Ama maitea? ¿Salbatuco naiz? Baldin beñere uzten ezpazaitut, bay. ¿Baña nola izango det zu uzteco biotz eta ausardia? ¿Nola aztu al izango naiz niri aguertu didazun onguinayaz? Jaincoaz atezonzean zu cera nere biotzeco amore gucia, maitezaitut orañ, eta maiteco zaitudala uste det emen munduan daucadan demboran eta guero eternidade gucian, eta zi maite izatea izango da nere dicha gucia, ceren zu ceran seculan izan, eta izango dan creatura gucien eder, santu, gozo eta maitagarriena.

II. en §.ª

*Mariac beréay arintzen dizte purgatorioco pé-
nac eta ateratzen ditu pena oyetatie.*

Guéiz patu onecoac dira Ama biotz-beraa onen debotoac, ceren oyey bicitz onetan laguntzeaz gáñera, purgatorioan ere icusten eta poztutzen dituan; eta an orandie amore eta erruquimentu andiagoaz, anima ayec estura eta bear andiangoan dacusquialaco, berac berenez beren neque-penarie arindu algabe. Lecu hura Jesucristoren espósen presondeguia da, eta ala Mariac ayey pénac arintzeco, eta ayec andie ateratzeco ere bestec ez becelaco escu eta aguintea dauca (1).

Olatúen icena ematen zaye purgatorioco neque-

(1) Bernardin. de Sen. Sermon. 5. de Nom. Mariæ, a. 2. c. 5.

tormentuay aitucorrae diralaco, iñoiz ere aituco ez-tiran infernucoac ez becela; eta ematen zaye ichasco eta garratzasunezco olatuen icena, ceren izatez la eguiaz guciz garratz eta miñac diran. Baña pena a-yen erdian ascotan alaitzen, indartzen eta gozarot-zen ditu Virgíña guciz santac naigabe-penaz bele-taco bere devotoac; nondic ezagu guentzaquean, cembat bati dijoaquion bicitze onetan berari debocio izatean, bada ango pénae daramazquiten guciay la-guntzen badie ere, beti beraren deboto izan diranac bere laguntza eta on gueyago artzen dituzte (1).

Ama maiteac berac egun batean santa Brigidari esan cion (2): *Nic, Amac becela, purgatorioco pénae daramazquitenen contu andia daucat, ordutic-ordura beren neque-penac arinduz.* Añ guchi heguitatzen dio iñoiz edo berriz justuen pre-sondegui hura icustera bera bere personan jasteari e-re, triste ayec consuelo eta laguntzen bat beti ema-naz (3).

¿Cer beste consuelo ta laguntza oberic izan al de-zaquee añ urricaltasun utsa dan Ama au baño? Nola mundu guciac aztutzat utzita oyeac datzan heri gaño bat esperanzazco eta ohera emango dualaco itz bat aditzen duanean alaitzen eta poztutzen dan, ala a-nima triste ayec zure icen guciz gozoa aditze utsez alaitzen, bizcortzen eta poztutzen dira (4); eta or-

(1) Nov. Virg. Umb. c. 15 exo 86. (2) Lib. 4. Rev. c. 152. (3) Prov. c. 49; Bonav. Vincent. Fer. Serm. 2 de Nat. (4) Ap. Dion Cart. l. 5, de laud. Virg.

regatic dagozquitzu beti deica, eta zuc, Ama amoretzuac becela, beren deya aditzen dezun bacoitzcan batutzen dituzu beren deadarraquin cere erregu guciz indartsuac, eta oec beren sugar izugarriac arintzen dizten intz prescotzat becela serbitzen dizate (1).

Baña anima oyei beren neque tormentuac arinduaz eta consueloa emanaz gañera, berac bere escuz beren presondeguia idiqui, eta tormentuzco lecu ayetatic libre ateratzen ditu. Ceruraco bere igoeraren egun triunfalaria ezquero (eguna noiz eta presondegui hura utsie utzi haizuan jaquintsu andiac dioten becela) (2), gucratu zan bere serbitzari guciacatic erregutuaz, eta bere merccimentu chitezcoec beray egotziaz andic ateratzeco escuarequin (3), eta onequin arintzen zaizte beren penac, eta laburtzen oec eramateco dembora (4).

San Pedro Damianoce contatzen du (5), ecen Marrocia zanae, bere adisquide hati aguertu, eta esan ciola, An a Virginaren Asuncio edo ceruetaraco jasoceraraco Ama maite onec atera zuala purgatoriotic, an ceuden gañeraco animaquin batera, izanaz oec Erromaco Erri andian hiei ciran anima guciac baño gueyago; eta Cartujoen erligioce san Dionisioc dio (6), ecen Jaunaren jayotze eta piztueraco egunetan Ama maite onec, conta al baño cerutar gueyago

(1) Novarin cit c. 25. exc. 86 (2) Gerson. Novarin. alique.
 (3) Bernardin Sen Sern. 5. de Nom. Mar. (4) Novar. cit exc. 86. (5) Lib. 3. ep. 10. et in Or. ord. 50. (6) Serm. 2 de Ass.

lagun dituala purgatoriora jachi, eta anima ayetaco guciz asco ateratzen dituala, eta Novarino Mariaren cernay fest-egunetan ere orobat guertatzen dalacoan dago.

Ondo jaquiña da, Aita santu Juan, icen onetaco XXII.^{uari} Virgiña guciz santac berac aguindu eiona. Aita santu oni aguertuta, aguindu cion, Carmengo bere escapularioa cerabilten guciay aditzera ceguiela, bcretaco bacoitza hitzen zanetic urrengo larumbatean irtengo zala libre purgatorioco penetatic. Eta onela agerlu zuan Aita santu arc onetaraco eman zuan bulda, guero bere ondorengo Alejandro V.^{en} Clemente VII.^{en} Pio V.^{en} Gregorio XIII.^{en} eta Paulo V.^{ren} ontzat emanen; eta esan degun Paulo V.^{ac} 1612 garren urtean eman zuan berean esaten du: *Cristau-erriac, Jaunaren urricaltasunari beguiratuta sinis lezaqueala, ecen Virgiña guciz santac betico bere bitartecotasun, merecimentu eta amparoarequin laqunduco diela hill eta guero, batez ere Elizac berari consagratua daucaquion larumbatean, Carmengo cofradian sartuta mundu onetatic Jaincoaren gracion irten diran animay, baldin bere escapularioa soñean erabilli, bacoitzaren bicierari cegoquion eran garbitasuna gorde, eta Virgiña beraren oficio parbo edo chiquia errezatu bazuten, edo au ecin zutenac bentzat Elizac señalatulaco barauac atera bacituzten, asteazquenetan araguiric ez janaz, Eguarri eguna bereizten dala. Eta Carmengo fest-eguneco errezoan bertan esaten de-*

gu: *Ecen cristau fededunac Jaincoaren erru-
 quimentuari bequiratuta sinisten dutenez, Vir-
 giña santac Amaren naitasunaz consolatzen eta
 presondegui penagarri artatic ateratzen dituala
 laster bere cofradian sartuta egon ciranac (1).*
 ¿Cergatic gue ere uste bear eztegu gueretzat mesede
 au bera, baldin beraren deboto baguera? ¿Cergatic
 sinistu bear eztegu, baldin seme edo alaba baten
 naitasunaz bera serbitzen badegu, eramango dituala
 gure animac purgatorioco penetatic igarogabe ceru-
 ra, Godofredo doatsuari agundu cion becela, Fray
 Abondo ceritzan erligioso berari bialduaz, ciotsala
 (2): *Esan guiozu Godofredori, aurrera dedilla
 bertutean, eta izan dedilla nere eta nere Seme
 maitearen gucizco serbitzari, eta bere anima
 gorpuztic irtetean ezdet utzico purgatorioco
 penetatic igarotzen. Azquenic, sufragioay dago-
 quenez, baldin anima oyei lagundu nay badiegu,
 esca diozagun beracgatic gure Ama guciz maiteari,
 beren penac arintzeco, eta orañ esango degun e-
 jemploan icusico dan becela, berac consolatzeco bi-
 ciro serbitzen dien errosario santua artaraco beti
 ofrecituaz.*

EJEMPLOA.

Aita Eusebio Nieremberg-ec contatzen du (3)

(1) 16. Jul (2) Lib. de Gest. vir. ill. Sol. Vr (3) Troph Mn. 1. 4. 29

onela. Aragoico uri edo erri andi batean bici zan Alejandra ceritzan, doncella bat. Doncella au bere edertasun eta ondasúnacgatic bi gaztec bacoitzat beretzat nay zuten; alcar eciñ icusiz egun batean biac escuetaratu, eta biac hillotz gueratu ciran, eta artaraco bide eman zuana doncella hura izan zalaco, hillen aideac beraren echera joan, gajoari lepoa ebaqui, eta burua putzu batera bota zuten. Andic egun guchiren buruan Aita santo Domingoc, lecu artan barren a cijoala, Jaincoaren arguitasúnez putzaren ertzera joan, eta esan zuan: *Alejandra, irten zaite campora*; eta orra non Alejandraren burua putzucó arresian biciric eta confesio-esque aguertzen dan. Confesatzen du santuac, eta ematen dio Comunio sagradua ere, guci au miragarritasun andi hura icustera lecu artara joan zan gendetza andiaren aurrean. Guero, agundu cion, aditzera eman ezala, cergatic alaingo misericordia Jaincoac berarequin egun zuan. Gazteac eranzun zuan, eeen lepoa ebaqui ciotenean pecatu mortalean cegoala; baña errosarioa erreztazeco izan zuan jayeragatic Virgiña santac bicia gorde ciola. Bi egunez iraun zuan buruac putzuaren ertzean hitzeguiten, eta oen buruan bere anima purgatorioco penetara joan zan; baña beste amabost egun igarota santu berari eguzquia baño eder ta arguiago aguertu, eta esan cion: anima bedecatuac duten sufragio eta laguntzen on eta eraguillenetic bat, beracgatic escañitaco errosario santua zala, eta Jaincoaren aurrean icusten diran beccñ laster, mesede andi onen ezagüeraz oracio in-

dartsu au béren alde eguin zuten persónacgatic Jaunari escatzen diotela. Au esanta, santo Domingoe berac icusi zuan nola anima hura poz atseguínez gañeztuta belico zori ontasunean sartu zan.

ORACIOA.

O aingueruen Erreguñ guciz bedeicatua, Jaincoaren Ama eta nere Echeoandrea, creatura gucien garay eta maitagarriena; eguia da, zu amatzen eta ezagutzen ere etzaituzten asco dirala munduan; baina aspertugabe ceruan beti amatzen eta alabatzen dagozquitzun aingueru eta santuac millaca bider millaca dauzcatzu. Lurrean ere badira zure amorean sutu, eta zure ontasunaz prendatutaco anima zori-onecoac. ¡Oh nic oyc beccla amatzen bacindut! ¡Baldin beti eta utsunegabe nola obeto serbitu, onratu eta goratuco ote zaitudan pensatzen banego, besteac ere onclara mngueraztera sayatuaz! Zu Jaungoico baten guciz gogoco eta oniritzi eguin ciñan, eta cere edertasun paregabeaz (onclá esateagatic) Ait Eternoaren barrumbetic at rracraciaz, eracari cenduan lurrera Jaincoaren Semea guizon eta zure Seme eguiteco. ¡Eta nic lurreco ar ccerezac amatu bear etzaitut? Bay, ene Ama guciz gozoa, zure amorean iracequi eta sutu nay det, eta eguiten det besteac ere zu Ama zaitzaten, eguiñal guciac eguiteco asmoa. Nere gogo ta deseo oec ontzat artu, eta lagun zadazu berac betetzen. Badaquit

Jaincoac zure maitatzalleay gañeracoay baño onguinay andiagoaz beguiratzen diela, beraren gloria zabaltzea ezpada, mundu guciac zu onratua, amata, eta serbitua icustea aibat beste ecer nay izangabe. Sinismen onequiñ sayatuco naiz zu gueyago ta gueyago amatzera, eta zugandic usteco det nere zorion eta dicha gucia. Zuc irichi bear didazu nere pecatúen barcacioa, zuc hillarteraño onean irauteco gracia, zuc lagundu bear didazu nere eriozeco orduan; zuc atera bear nazu purgatorioco tormentuetatic, eta zuc eraman bear dezu cere beso amorezcoetan nere anima Trinitade guciz santuaren tronu adoragarriaren aurrean ipiatzeraño. An gucia uste dute zugandic zure debotoac, eta bere-taco iñor ezta gueratzen burlatua seculan. Bada nic nere biotz guciac, eta Jaincoaz urrena beste gauza guciac baño gueyago amaten zaitudalaco, orobat uste det neretzat.

III. en §.ª

Mariac cerura daramazqui bere serbitzariac.

Mariaren serbitzari guciac salbacioco señaie edo prenda segurua daucate. Eliza santac ipintzen ditu Mariaren aoran Escritura sagraduan Ecclesiastes deritzan liburuco itz oec: *In omnibus requiem quæsi-vi, et in hæreditate Domini morabor* (1). Noren

(1) Cap. 24.

ere bicilecuan Mariac bere atsedena arquitzen duan, ayen zorionecoac (1), ceren guri digun amorea añ eciñ gueyagorañocoa izanic, eta beraganaco debocioa gure biotzetan sustraitu eta sendotzera mila ératara berá sayaturic, ascoc edo artzen ez dute edota gordetzen ez dute. !Zorionecoa debocio añ ez-titsuari bere bularra zabaldu, eta debocio au bero ta biciro an gordetzen duana; Dio bicico dala Jaunaren haciendan, au da, Jannaren hacienda diran, eta beticoera gucian bera iensi ta bedeicatuco duten personetan (2). Berriz diñoa esanaz, liburu bereco itz oec: *Ni eguin ninduanac, nere tabernaculoan queratu, eta esan cidan: bici zaitte Jacob-en, izan zazu cere senipartea Isrrael-en, eta zabal itzatzu cere sustrayac nere esleituen artean* (3). Edo arguiroago: *Nere Eguillea nere sabelean bicitzeaz dinatu zan, eta ni esleitu gucien biotzetan* (Virgiña guciz santaren seniparte, Jacob-gan irudinduac) *bicitzea nay izan zuan, eta nigana-co debocio, uste eta confianza ceruraco esleitu gucien biotzetan sustraitua egon cedilla erabaqui zuan.*

!Ceruan dauden cembat doatsu an egongo etziran, baldin Mariac bere bitartecotasun indartsuaz irieli ezcapien betico zori ona (4)! Ama maiteac dio osterá: *Orrembeste eguzqui arguitsuc, nola ere diran nere debotóac, nigatic añ biciro argui eguiten*

(1) Ugo Card. (2) Paccinchi (3) Eccl. loc. cit. (4) Ugo. ead. in Eccl. c. 42.

dute eta eguingo dute belicotasun gucian glorian. Bay, béren uste eta confianza bere amparoen daucaten guciay ceruco atea diran aimbat zabal eguingo zaitelaco (1).

Zure contura daude. Ama maitea, ceruco guiltz eta ondasúnae (2), eta onegatic gande beti otsez, esanaz: *idiqui zaizquigutzu, Virgíña guciz erruquitsua, beti dirauten ate oriec, guiltzac escuan dituzuta* (3), edo obeto esateagatic: *zu cera atea, bada onela esaten dizu Eliza santac: Janua cæli, ora pro nobis.*

Deitzen diogu ere *ichasoco izarra*, ceren ichasotetan dabilzanae izarrae guiatuta zuentzen duten becela porturaco bidea, ala Virgíña guciz santa da cristauae cerura zuentzen dituan guia (4). Orobat deitzen diogu escallera, nondie Jaincoa lurrera jachí zan, eta gu Jaincoagana igotzen gueran (5): Jaincoac bete zuan graciaz, guri gloriaco mendira igotzeco hibe seguru izan cequigun (6). Zorionecoac zu ezagutzen zaituzten ayec, Ama guciz gozoa, ceren zu ezagutzea, eta zure anditasun eta bertuteac bazter gucietara harreatzea betico bicitzaraco bidetic joatea dan (7).

San Franciscoren orligioco Croniquetan iracurten degu (8), beñgo batean icusi zuala Fr. Leon-ec escallera gorri bat, eta an Jesucristo gure Jauna; eta

(1) in eod. loc. (2) Blossius. Cimel Endot. (3) Ambros. (4) Thomas, opusc 3 (5) Petrus. Dam. (6) Anast. Serm. 1, de Annunt. Bernard. Joann. Geometra (7) Bon. in Ps. 35. Part. 1 t 1 c. 55

beste bat zuria, eta bertan Virgiña guciz santa. Cembait erligioso lenengo escalleratic igotzen asi, eta lenengo mallatic erorten cirala. Orduan bestetic, zuritic, igotzera animatzen cituzte'a icusi, eta ala erraz eta nayerara igo cirala, ceren Virgiña guciz santac escua emanaz, guciac gorãño irist. n ciran.

¡Eta izatez nor edo ceñ dira salbatzen diranae? Norgatic ere Virgiña guciz onguilleac bere erregu indartsuac eguiten dituan, eta ayec (1). Ama gozoac berac segurutzen du au: *Nigatic erreinatzen dute errequeac* (2); *nigatic erreinatzen dute animac, lenbici, bicitze hilcor onetan beren griña macurrac escuratuaz, eta guero erreinatzen dute beticoera gucian certuan, non guciac erregue diran* (3). Da nay gucia eguiten duan Echecoandrea, ceren Ama izateac nay gucia eguiteco, eta nay duan guciay betico atseguin contentu ayetaraco sarrera emateco berezco escua becela ematen dion (4). Eta oraindie seguranza guciac gañera esan liteque, aldeurrez segurutua dagoquiela oyei dicha añ gucizeoa, onean irauñaz, alatan non, dicha au escuratua baleueate bezañ seguru egon litezquean (5). Geruco Erreguina serbitzea, eta bere Corteco izatea, berealatic ceruan erreinatzea da; bere aguidupean bicitzeac, munduan erreinatzeac bafio milla bider gueyago balio du (6); gauza cierto ta jaquiña dan becela berá serbilzen ez dute-

(1) Dion, Card. (2) Prov 8 (3) Augus. (4) Ric. de S Laur. lib. 4 de lau l. Virg (5) Gueric. Abb Antonin p. 4. tit. 25 c. 2. §. 2 (6) Damasc de Exc Virg. c 9.

nac salbatueo. ez tirala, ceren Amaren laguntzagabe gueratuta, Semeac eta cerutar guciac desamparatu eta uzten duten (1).

Bedeicatua eta alabatua izon bedi juez gucien Juezaren Amac eta misericordiazeo Amac becela guro salbacioco eguitecoan parte artzeo, Maria an ceruan gure bitarteco ipiñia daucan gure Jaincoaren ontasun ondogabea (2). Enzun zazute, aditzalléac, enzun zazute salbatu nay dezutenac; serbitu eta honratu zazute Maria, eta seguru salbatuco cerate (3). Eta ceron gaiztaqueriaegatic infernua merecitu dezutenoc ere ar zazute salbacioaren uste eta esperanza, baldin abiatzen bacerate hera serbitzen. ¡Combat peccaric osportzu eguiñaz Mariaren bitartez Jaincoa eta salbacioa arquite dituzten (4)! Izarrez coroatua icusi zuala Maria, dio san Juan-ec (5). Contrara Escritura sagraduco Cantetan deitzen zayo abere basati, odolguiroz, leoiz, eta leoinabarrez coroatua. ¿Au nola aditzen da? Abere oec dira Mariaren bitartecotasunaren bidez ondu, eta ceruco izar guciac baño ederrago eta arguitsuagoco izar eguiñic, Mariaren huru soberanoa coroatzeco diña eguin diran peccaricac.

Beñ Capri-co Sor Serafiña erligiosac, Ama Virginiaren Asuncioco bederatziurrena eguiten ciardula, Ama gozoari milla peccariren combersio edo ontzea escatu eion; baño guero escari hura gueyeguizeoa izango zan heldurrez cegoala, Virgini berá aguertu,

(1) Idem. (2) Bernard Serm. 1. de Ass. (3) Bonav. in Psalt. (4) Germ. Serm. de dorm. Deip. (5) Apoc. 12. 4.

eta Ama maiteac erligiosa ari bere beldurra quendu
cion, esanaz: *¿Cerqatic beldur cera? ¿Ez daucat
nic milla peccatariren combersioa nere Semea-
gandic iristeco escua? Irichia dezu escatu dezun
gracia.* Eta bereala espirituz cerura eramán, eta
infernua mereci zutelarie, bere amparo indartsuaren
bidez ceruco atseguin-contentu heticoen gozalten
ceuden conta al baño gueyago anima eracutsi cioz-
can.

Eguia da, eciñ inore bicitze onetan iduqui leza-
queala salbacioaren segnrantzic (1). Baña bideguin
zagun Mariagana, anzpez gatzazcan bere óñetan, eta
ez ditzagun utzi oñ oec bere bendicioa deguigunera-
ño; bada baldin berac bedeicatzen bagaitu, salbatuco
guera. Asco da, Ama gozoa, zue nay izatea, gu sal-
batzeco, eta seguru salbatzeco, santuac eracusten
duten becela (2).

Arrazoiz ta bidez adiraci zuan aldeurrez guizaldi
guciac zorionecoaren icenaz deituco ciotela, bada be-
raren bidez irichi bear dute esleitu guciac zoriona
(3). Cera izatez Ama guciz amoretsua, gure dicharen
asiera, erdi eta azquena: asiera, ceren iristen digu-
zun peccatuen barcacioa; erdia, ceren iristen diguzun
onean irauteco doaya, eta azquena, ceren eramaten
gaituzun hetico poz atseguinetara. Zue ango atea
zabaldu cinduan, zue infernucoac ichi cinduan; zue
zoriona osterá biurtu ciguzun, eta zu eñala bide

(1) Eccl. 9. 4. Ps 14, (2) Anselm, de Exc. Virg. c. 11. (3) Ildes-
phons. Serm, 3 de Ass.

belico galera mereci zuten dichagabeay betico bicitza eman citzayen (1).

Baña au ustetzerá animatu bear gaitu batez ere Virgíñá santac mundu onetan bera honratzera gu muguerazteco eguiten digun promes gozoác, eta berezquiro bera ezagüeraci ta serbitzera nor bere eguinaquin edo itzaquin sayatzen diranay (2). ¡Suerte onecoac Mariaren amparoa iristen dutenac! Berecatic ceruco corteárrac beren laguntzat dauzcate oec; eta nola berengan bailaramaten Mariaren serbitzari diralaco señale edo marca, bertatic beren icénac daude bicitzaco liburuan escribituac (3).

¿Gertaco da bada Jaincoác beticoera gucitic eguina daucan justuen auquera bacoitzaren merecimentuac icusi baño lenago, edo icusita guero eguiten ote duan escoletan piztutzen diran expaita eta itztrucatzearquin concenciác irabiatu eta quezquetan sartzea? ¿Edo gure icénac liburu artan escribituac egongo diran edo ez, zalanzan egotea? Dudagabe ala egongo dira, baldin Mariaren serbitzari leyal baguerá, berác bere amparopean gordeta gu iduquitzea irichiaz, ceren santuac esaten diguten, ecen salbatunay dituanay Jaincoác gracia, prenda eta señale anditzat ematen diela bere Amaganaco jayera edo debocioa, dirudianez san Juan-en aoz agundu zuan becela, itz oequin: *Benzutzen duanac, nere escuaz escribituac eramango ditu Jaincoaren icena eta*

(1) Bernard. Serm. 4 de Ass Virg. (2) Eccl. 24. (3) Bonav. in Spec.

Jaiucoaren uriarena (1). Eta Jaincoaren uria Maria guciz santa dala, diote Elizaco Curaso santuac (2).

Ongui esan guentzaque san Paulorequin Jaincoac ezagutuco dituala bereetacotzat señale au daucatenac (3); izanaz Mariaganaco debocioa Jaincoac ceruraco esleitua daucan señale añ segurua, non debocioz ta sarri Abc-Maria errezatzea, edo egunoro errosario santua esatea bera salbacioaren señale anditzat dagoan (4); eta Mariaren serbitzariac bicitze onetan pribilegiatu ta lagunduago izateaz gñera, onetuago ta goratuago icusico dira glorian ceruco beste gucienac baño aguitz eder ta preciotzuagoco soñeco, librea eta ezagugarri bereciaquin apainduta, ceruco Erreguñaren serbitzari eta adisquidotzat, eta beraren echeoetacotzat ezagu ditecen.

Iensi zuan Pazzico santa Maria Magdalenac itasaoaren erdian Mariaren deboto guciac ceramazquian ontziho bat, eta Maria pilotoaren beargaya eguiten, ontziaren branca porturonz zucenduaz; eta onequin iguerri zuan santac, eeren bicitz onetaco labañ-ari eta perillen erdian Mariaren amparopean hici diran persónac gueratzen dirala pecatutic eta infernutic gordeac, eeren Ama maiteac berac zucentzen dituan bide segurutic betico gloriaco portu segurura. Sar gaitean, bada, zori oneco ontzi onetan; bildu gaitean Mariaren mantupera, eta onela seguru salbatuco guera, bada Elizac esaten dio: *O Jaun-*

(1) Apoc 3 12 (2) Greg. super Ps 56. (3) 2. Tim. 2 19. (4) B. Alan. p. 2. Ros, c. 11.

*goicoaren Ama gueziz santa, ceruco atsequin-con-
tenuetan parte bear duten guciac zagon bici
dira, eta zure itzal atsequinaren azpian gor-
deac daude.*

EJEMPLOA.

Cesarioc contatzen du (1), eenen Cister-co erligio-
so, aingueruen Erreguinaren guciaco debuto batec
Maria beñ icusteco egarri andia iduquirie, mesede
au escatzen ciola. Gau batean lore-buratzara iten,
eta ceruca beguira suspirio iracequietan cegoala,
beñgoan icusi zuala Virgîna gueziz eder eta arguitsu
bat goitie bera ceturquiola. Ouec galdetu ciola; To-
mas jaditu nay dezu nola cantatzen dedan? Bay, a-
lafede, Tomasec eranzun, eta birgînac alaingo gozo-
tasunaz cantatu ciola, non erligioso jaincocoçac ce-
ruan cegoala uste zuan. Cantua bucatu ondoan bir-
gîna desaguerdu, eta hura ceñ ote zan jaquin-miñ
andiaz gueraturie, beste doncella gueziz eder bat etor-
ri, eta au ere orobat cantatzen jarri, eta Tomasec
eciñ gueyago isillie egonie, ea nor edo ceñ zan gal-
detu, eta eranzun ciola: *len icusi dezuna Catalina
zan eta ni Ines noiz, bioc Jesucristoren martiri-
ac, eta pure Echeoandrac biolduac zu postut-
zera. Eman gutiozcatzu berari esquer ugarine,
eta presta zute mesede aguitz andiagoa. artzera.*

(1) Lib 7. Dial. c. 5.

Luzaro ichedon bearric izau etzuan; bada andie lasterrear beguictaratzen zayo argui gucziz arguitsu bat, betetzen zayo biotza poz atseguin zoragarritz eta icusten du Jaincoaren Ama argui errañu miragarrien erdian, aingueruz ingurutua, eta lengo doncella biac baño paregabe ederrago aguertzen, esanaz: *Nere maitea, atseguin del zuc orrelaco amoreaz ni serbitzeaz, eta bele noy izan ditut zure escariac. Ona non naucazun, icus nazazu. Noy del nere cantua aditza ere* Ao gucziz gozo hura cantatzen asi, eta aimbesterañocoa izan zau bere gozotasuna, non suerte oneco erligiosoa pozaren indarrez corlea galduta lurrera eroai zan. Mailinetaraco ezquilla jo, eta corura aguertu etzala icusi zutenean, beraren hillan bazter gucietara zabaldu, eta hilla becela jardinean topatu zuten. Guertatu citzayona aguer ezala buruagoae agiundu, eta obedientziaren bean beartua icusi zanean, ceruco Erreguinae eguin cion icus-aldi eta mesedea humiltasun andiaz contatu zuan.

ORACIOA.

Ceruco Erreguñ, amore ederraren Ama, bada zu ceran ezquero creatura gucien maitagarnen, eta Jaincoac maiteen zaituana, utzi zayozu peccari gucien esquergabe ta galduen oni ere zu amatzen, bada zure mesedez bere burua inferneco tormentuetatik libre, eta batere merecigabe faborez heta icusita, bere gogo, uste eta esperanza gucia zugaran ipiñiac

dauzea, Zure berri ez duten guciay ceñ maitagarria ceran ezagüeraci nay niequee, guciac erabat maitatu eta bedecatu zaitzaten; eta suerte guciiz anditzat i-
 duquico nuque, ala bear balitz, zure garbitasun, Jaincoaren amatasun, edo zure sortze manchagabea-
 ren mirari ezculalua eguiztatzeco nere bicia ematea. O ene Ama guciiz amorezcoa, ar itzazu ontzat nere gogo eta zale eguizaco oec, eta zu maite zeituan ser-
 bitzari bat, zue añ nay diozan Jaincoaren etsay iza-
 ten ez arren utzi aurreronzean. ;Ceñ dichagabea izan
 naizun berarequin ongui egon ez naizan garayan!
 baña orduan nay ez uizun, eta zue niri nay izateco
 oer eguiten ez nuan. Orañ ez naiz beste eceren añ
 zale eta egarri, Jaincoarequin ondo egotearen urre-
 na, nola zure naitasun eta amorea merecitzearen,
 eta nere peccatuen damuz ere, gueroenean ere zorion
 ta dicha au iriehuico dedan uste ta esperanza ez det
 galtzen, zure onguilletasuna zu maite zaituzten pe-
 catarien galduenac ere bigunquiro maite izateraño
 iristen dala, eta amorean eta onguilletasunean iñore
 zuri eraguiteco lecurio ematen eztezula, daquidanac
 becela. Cerura joan nay det, an biotz guciay zu amat-
 zeco. An ezagutuco det oso zure maitagarrilasuna;
 an icusi ta icasico ditut ni salbatzeagatic eguin ditu-
 zun aimbeste gauza ta berac alacoac; an amatuco
 zaitut berotasun andiagoc; an maiteco zaitut iñoiz
 ere epeldugabe, eta dicha añ gucizcoa galtzoco bel-
 durgabe. Erregu zayozu Jaunari nigatic, eta asco da;
 erregu zazu nigatic, eta seguru salbatuco naiz; er-
 regu zazu nigatic, eta añ dich andico eguna dator-

reneraño beti egongo naiz zori oneco orren zalez ta egarriz, eta erbeste onetaeo nere pénae arinduco ditut cantatuaz maiz eta sarri onela:

O nere biotzeco Ama cutuna,
Nere esperanza ta poza;
Au da nere cantaren betico boza,
Zu cerala ni salbatu bear nazuna.

IX. en BURUA.

¡O biotz beraa, ó erruquitsua!

§.º bacarrá.

**Ceã gucizcoa dan Mariaren gozotasun
ta urricaltasuna.**

Gure Ama maiteac nolaco urricaltasunaz beguiratzen digun, aguertuaz, dio san Bernardoc, ondo eman lizayoqueala esue ta ezta darizquion lur escanriaren icena (1); eta gañera dio, bere erray urricaltsuagatic merceci duala urricaltasuna dala esatea ezezio, urricaltasuna bera dala esatea ere (2); eta san Buenaventurac, Mariae, dichagabe gucien oneraco oyei alaingo arret eta biguntasunaz oneguitea beste

(1) Serm. super Salv. Reg (2) Serm I. de Nat. Dom.

reneraño beti egongo naiz zori oneco orren zalez ta egarriz, eta erbeste onetaeo nere pénae arinduco ditut cantatuaz maiz eta sarri onela:

O nere biotzeco Ama cutuna,
Nere esperanza ta poza;
Au da nere cantaren betico boza,
Zu cerala ni salbatu bear nazuna.

IX. en BURUA.

¡O biotz beraa, ó erruquitsua!

§.º bacarrá.

**Ceã gucizcoa dan Mariaren gozotasun
ta urricaltasuna.**

Gure Ama maiteac nolaco urricaltasunaz beguiratzen digun, aguertuaz, dio san Bernardoc, ondo eman lizayoqueala esue ta ezta darizquion lur escanriaren icena (1); eta gañera dio, bere erray urricaltsuagatic merceci duala urricaltasuna dala esatea ezeccio, urricaltasuna bera dala esatea ere (2); eta san Buenaventurac, Mariae, dichagabe gucien oneraco oyei alaingo arret eta biguntasunaz oneguitea beste

(1) Serm. super Salv. Reg (2) Serm I. de Nat. Dom.

eguinquizunic ezpalu becela, mesede ta gracia e-
mateco berari dagoquion beargayarequin Jaincoaren
Ama izatearen goimallara jaso nola izan zan begui-
ratuta. Jaincoaren justicia beguietatic galdu, eta
bere biotz mailatsuan gañeztuta dagoan eerruqui on-
dogabea beste ecer icusten etzuala (1). Egniaz aimbese-
terañocoa da bere erray amorezcoetacoa, non andie
irteten diran urricaltasunaren frutuac ordu ta puntu
oro proga eraguitea dizquigon (2). ¿Cer besteric da-
rioque gozotasunezco iturri bati, ezpada gozotasuna
(3)? Olibaren icena ematen zayo Escritura sagraduan
(4); ceren olibac olioa beste fruturic ematen eztuan
becela, Mariaren escuetatic misericordia ta gracia
besteric irteten eztan (5): alatan non, Ama guciz be-
guiratu onegana bere urricaltasunaren olio esque
joanta, ucatuco digun beldur cer izan eztegu, Virgi-
ña beguiratu edo zúrrac birgiña zoroay bérena ucatu-
cien becela; añ aberatsa dalaco, non eman alac e-
manarren, asco gueyago gueratzen zayon emateco (6)

¿Baña cergatic esaten da dagoala oliba orritsua
becela campo idiquian landatua, eta ez lorabaratza
esitu baten barrutian? Gucíac ecerc galeracigabe be-
re itzalpean jartzera joan al ditecen (7). ¿Cembat
aldiz gure pecatuegatic mereci guenduan castigua-
ren epay edo sentenciac bere erregruac bitartean i-

(1) Stim. am (2) Guerr. Abbas. Serm. 4. de Assumpt (3) ¿Quid
de fonte pietatis nisi pietas? Bern Serm. 1. in Dom. post Ep. (4)
Eccl. c. 24. (5) Lud. a Ponte, lb. 4. in Cant (6) Ego a S. Vict.
(7) Ugo Card. Antonin. p. 5. tit. 51. c. 4.

pintzea bestegabe galeraci du! ;Cer beste bular, be-
rea bezañ amoretsuric topa al guentzaque!, bularra,
non bearrecoac topatzen duan laguntza, eriac osasu-
na, tristeac alaitasuna, eta desamparatuac poz atse-
guña (1). ¡Gure zori gaiztoaco, gure bear eta pre-
mia guciac estaltzeco beti beguira dagoquigun Ama
guciz erruquitsu au expaguetu! Espiritu Santuac
dio, emacumeric eztan lecuau padecitzen intziriaz
dagoala eria (2). Maria da izatez emacume erruquitsu
au (3); eta nola mesede ta gracia guciac bere escu-
tic ematen bailiran, bera expalitz ezlegoque urrical-
tasin eta esperanzarie ere (4). Gañera gure bear,
premia eta miseriac icusten ez dituan, edota gu
bearrean icusita erruquituco eztan beldur cer izan
ezta. Guc ez becela eta ceruco santu inore baño
obeto beguicatzen ditu, eta añ amore ta contu andiaz
estaltzen ditu, non premi ooc icustea eta estaltzea
gucia bet dan (5). Ama onguillea, non ere bear edo
premia icusten dezun, escu luceaz an ematen dezu:
amác berezcoa duan erruquizeo beargaya eta mun-
dua mundu daneraño eguingo dezun beargaya dau-
cazu (6).

Rebeca antziñaco demboretan Mariaren irudi i-
zan-zan: onec, putzu batetic ura ateratzen ciardula,
Abraham-en morroyác, guciac egarrí zala, bertara
joan, eta ura escaturic, eranzun cion: atseguin an-
diaz emango ciela edaten berequiuñ bere gamelnay,

(1) Kempis. (2) Eccl 55 (3) Damasc. (4) Rev. l. 6 c. 26. (5) An-
tonia p 4. tit 15. c. 2 Ric. a S. Vict. in Cant. 4.5 (6) Ug. Card

oman ere cien becela, Irudi onequin san Bernardoc, Virgüña guciz santari itzeguiñaz diotsa: Echecoandrea, Rebecca izan zan baño erruquitsu ta biguñagoa cera, bada ez aseaz Abraham-en serbitzariay, au da, Jaincoaren serbitzari leyal cintzoay, cere onguilletasun ondogabearen gracia, doay eta mesedeac eguiteaz, baicie eta, gameluay ere, au da, peccariay ere mesede, gracia ta doay oec eguiñaz. Rebecca lusull bat ur baño gueyago eman zuan, eta Ama amorezco onec asco gueyagorequin ematen du escatzen zayona, izanaz eman-nayan bere Seme jaincozcoaren guciz antzecoac, ceñaren oneguiñac, berari deitzen dioten guciaquin, misericordian añ aberats ugaritua danarenac becela (1) gure desco ta escariac baño andiagoc diran beti. Erregu zazu, Ama mailea, nigatic, cereñ nie baño bicero ta leyazigo erregulaco dezun, eta nie seculan escatzen jaquingo ditudac mesedeac baño andiagoc irichico dizquidatzun (2).

Beñ Samaria-tarrae beren errian Jauna arta nay izan etzutelaco, bere icasleotaco bie erri aren gañera ceruco sua erortzea nay izanic, Jauníc sorrotqui itzeguin cien, esanaz: etzoquitela cer zan bere espiritua, paquezco ta biguntasunezco espiritua, bada etzala munduratu peccariac castigatzera, eta bay subatzera (3). Eta izanic Mariaren espiritua bere Seme guciz santuarena becelacoa, edo aren antzecoac, ondo iduqui guentzaque bere biotzaren ontasun eta biguntasunaren seguranza osoa. Ama da, eta gañera

(1) Rom. 10. 12. (2) Ric. a S. Laur de Laud. Virg. (3) Luc. 9.

Jaincoác eguin zuan guciacquico ecin guevagoraño gozo ta maitatsu, bada orregatic icusi zuan san Juan-ec eg izquiaz jantzia, Ama maite onec (1) jantzi zuan bere aragui garbi manchagabeaz Eguzq i jaungoicozcoa, eta Eguzqui onec bere escu, al izate eta misericordiaz jantzi zuan Ama maitea (2), eta escu au alaingoa da, non peccatori bat laguntz-esque aurean jartzen zayonean, Ama maitea ez dan jartzen mercedi ote duan edo ez, beguiratzen, alabaña bere õñtaratzen diran guciac, inor berecigabe, artzea berezcoa du (3); eta Escritura sagraduac illarguiarequin berá berdintzea, da ceren illarguiac lurreco gauzarie chatar, ecerezenay arguiematen badie, Mariae peccatori lurreratu eta Jaincoác bere escutic utzienac arguitu ta bicierazten dituan (4). Beraz onela, baldin Jaincoaren escu eta justiciaren edo gueron peccatuen pisuaren beldurrez noizbait ecpadegu ofenditu guenduan Magestade mugabague aren aldean jartzeco arpeguirie, ezta cer beldur izan Mariagana alderatzeaz, ceren beragan eztegun icusico, bildurra eman lizaguquean ecer. Da santa eta justua, da ceruco Erreguina, eta Jaincoaren Ama; baña Adan-en alaba becela, da araguzcoa (5), eta da gucia erruquitsua, graci utsa, gucientzat prest dagoana; bere onguilletasunaren colcoa guciay zabaltzen diena; guciac artzen dute deabruac eguiten duanaz contrara eguiten ordu gucietan diardun bere amore ugaritsu-

(1) Apoc. 12. 1 (2) Bern. in Apoc. 12. (3) Bern. Serm. in Sign. Magu. (4) Hildeb. Epist. 26. (5) Ug. a S. Vict.

tic. Deabrua beti gure inguruan dabill guri eraso, eta gu irensteco; eta Mariac billatzen gaitu guri bicia eman, eta gu salbatzeco (1).

Gañera egon bear degu bere escu eta al izateac muga ta bazterric eztua'acoan, batez ere Jaincoaren justicia aserrearen besoa beeratzeco. ¡Ezperen nondie dator antziñaco leguean cigorrada ta castigüen ematean añ gogor ta justiciaguille zan Jaungoicoa orañ peccariaquin gueyenetan añ biguñ aguertzea. Dator Mariaren merecimentu eta amoretic (2) ¡Ah! ¡onezquero noiz mundua ondatu eta utsera biurtua ote zan baldin Mariac bere erregüaquin gorde ezpalu! Bestera, ondo usteguintzaque Jaincoaren escu onguilleetatic era gucietaco ondasünac, orañ Aita Eternoarequin gure bitartecotzat Jesucristo, eta Seme amoretsuarequico cer'co Erregüña dauzcaguncan. ¡Nola Semeari uca lizayoque ecer gugatic artu cituan zauriac bere Aitari agter deguiozcanen, eta Semeac Ama guciz santari, bera alimentatu zuten bular garbiac onec aguer deguiozcanen (3)? Santu batec dio (4), ecen doncella manchagabe onec bere errayetan Jaincoa iduqui zuan ezquero, escatzen dizcala eman cion ostantuaren aldera peccari ernegatu en osasuna, eta hillen bicitza; alatan, non gure on gucia bere escuetatic isequia dagoan, eta orregatic bideguin bear degu beti bere babesera, portu, gordelecü eta estalpe guciz segurura becela (5). Bera da graciaren

(1) Bern. de Bustis, Marial. § 5 ser 5. (2) Ap. P. Pep. Grand. (3) Arnol Carn de laud. Virg. (4) Petr. Chrysol. Serm. 140 (5) Bern. de Bustis. p. 1. Serm 6.

jarlecu hura, nora Apostoluac aguintzen digun joan gaitecela beldurgabe, Jaincoaren urricaltasuna, eta betico zori ona iristeco bear ditugun laguntza guciquin batera, topatuco ditugun segurantz osoaz (1).

Buca dezagun Salbearen gañean san Bernardoc esaten dituan itzaquin: ¡O biotz beraa, ó erruquitsua, ó Maria Virgiña gozoa! Biotz beraa bearrecoentzat, erruquitsua escatzen dutenentzat, gozatsua berá amaten dutenentzat. Biotz beraa, libratuaz, erruquitsua barcatuaz, gozatsua bereay beticoera guciraco bere burua emanaz (2).

EJEMPLOA.

Aita Carlos Bovioc contatzen du (3), ecen Franciaco Domen-en izan zala, escondua zalaric, beste andre batequin biciera galdua ceraman guizon bat. Bere emaztea, au eciñ eramanez, beti ayec madericatzen ciardun eta ceruari ayen contra benganzesque cegoquin; elizan cegoan Ama Virgiñaren imagiña baten aurrean bertan ere bere etsayaren contra justicia escatuaz. Emacume galdu are egun oro Abe Mariabat Virgiña santari errezatzeco jayera zuan. Gau batean Ama Virgiña bera emazteari ametsetan aguertu, eta au abiatu citzayon bereala betico bere soñuarequin; baña Virgiñac eranzun cion:

(1) Hebr. 4. 16. Anton. p. 4. tit. 15 c. 14 §. 7. (2) Sup Salv. Reg. (5) Exemp. Virg tom 5 ex 52.

¡justici esque zagoquit niri? billa zazu justicia beste lecu batean. Guero osterá esan eion: *¡jaquin bear dezu, ecen peccatari gajo arc egun oro errezatzen didala diosal bat nere añ gogocoa, non hura errezatzen duan inoro bere peccatuacgatic castiguric eramateco lecuric eman-go eztedan.* Emazte au goiccan ametsetan icusi zuan imagin hura cegoan elizara meza enzutera joan, eta elizatic irteteracoan bere senarraren adisquidearequin atean topo eguiñic, abiatu citzayon oni asma al guciac deadarca esaten, eta sorguintzat tratatu, eta bere sorguinqueriaz Ama Virgiña bera ere engañatua cecalá, arpeguira emanaz. Gondeac, oso izutu, eta alacoric esangabe isill cedilla, ciotsan; baña berac eranzuten zuan; ez naiz isilduco, eta diodana eguia garbia da, bart Ama Virgiña aguertu, eta nic berari justicia escatu, eta emacume madericatu onec esaten dion diosal bat dala bide justicia ucatu dit. Eta cer diosal zan hura emacumeari galdetu, eta Abe-Maria bat baño etzala, eranzun zuan; baña dembora berean gattza añ chiquiagatic Maria guez santac alaingo erruquimentuaz beguiratzen ciola, adituric, imagiña santa aren õñetan atzpeztzera corrica joan, eman zuan ejemplo gaiztoaren barcacioa escatu, eta bere bici gucian garbitasuna gordetzeco promesa bertan eguiñ, eta ondoren seroraren habitua jantzi, elizaren ondoan echecho bat eguiñ, eta bere artan moja bat becela sartu eta bere bici gucian penitenci latza eguiñaz iratun zuan.

ORACIOA.

¡Misericordiazco Ama! pecatarien escari eta erre-
 guac enzateco zure gogoa añ iracequia dan ezquero,
 ni, gucien dichagabeena, zure urricaltasunaren a-
 teetara nator gaur. Besteac escabezate gogoac die-
 na, osasuna, honrac, ondasunac....; nie escatzen
 det, zue nigandic nayen dezuna, eta zure biotz gu-
 ciz amoretsuaren ontasunarequin ongnien datorrena.
 Zu guciz humilla ciñan; irichi zadazu humildasun e-
 guiazcoa, eta desprecioetan alaitasun eta poza. Zue
 gucizco eramana izan cenduan bicitz onetaco naiga-
 be-penetan; irichi zadazu paciencia nere ezbearre-
 tan. Jaincoaganaco zure amorea guciz bero sutua
 izan zan; eguizu nie ere amore garbi santu batez
 bera amatzea. Lagun urcoáquico guciz onguillea i-
 zan ciñan; nie escatzen det guciacaganaco onguinay
 garbia, batez ere gaitzie gueyen eguiten didatenac-
 ganaco eta nere etsay andienacaganacoa. Zure nay e-
 do borondatea Jaincoaren nayarequin beti bat izan
 zan; esca zazu neretzat Jaincoac nitzaz nay duan gu-
 cira oso jartzeco gracia. Itz batean, zu cera Jaincoa-
 ren escuetatic irtendaco creatura gucien santuena;
 lagun zadazu niri ere nere burua santututzen. Ez
 gogoa, ez escua palta zatzu, eta mesedéac ez iristeco
 gay ta bide izan liteque bacarric, edo zugana bide-
 guiteco nere naguitasun eta arrotaren falta, edo zu-
 re bitartecotasunean este laburra iduquitzea. Bada

bi gracia señalatu oec dira orañ escatzen, eta zure ontasunagandic irichi uste ditudanac: zugana beti bideguita, eta nere uste la confianza beti zuga iduquitzea. Zu cera nere Ama, nere esperanza, nere amorea, nere bicitza, nere gordelecu eta poz atseguña, eta uste det izango cerala beti betiraco nere atseguin-contentua glorian. Amen.

X.^{en} BURUA.

O Maria Virgiña gozoa.

§.º bacarrá.

Guciz gozoa da Mariaren icena bicitzan eta eriotzan.

Etzan izan Mariaren icen guciz santua munduan sortua, guréac diran becela, ezpada Jaincoác ala erabaquiric cerutic jachia, san Geronimoc (1), san Antoninoc (2), san Epifanioc (3), eta san Lorenzoco Ricardoc (4) segurutzen dutenez. Jaungoico beraren tronutic irten zan zure icen andi eta goratua, Ama maitea, Jesusen icen adoragarriaren urrena icen gucien garay eta ederrena becela, nay izanaz Trinida-

(1) Lib. de Nat. Mar. (2) P. 1. His. tit. 4. c. 6. (3) Orat. de Præc. Deip. (4) De laud. Virg.

bi gracia señalatu oec dira orañ escatzen, eta zure ontasunagandic irichi uste ditudanac: zugana beti bideguita, eta nere uste la confianza beti zuga iduquitzea. Zu cera nere Ama, nere esperanza, nere amorea, nere bicitza, nere gordelecu eta poz atseguña, eta uste det izango cerala beti betiraco nere atseguin-contentua glorian. Amen.

X.^{en} BURUA.

O Maria Virgiña gozoa.

§.º bacarrá.

Guciz gozoa da Mariaren icena bicitzan eta eriotzan.

Etzan izan Mariaren icen guciz santua munduan sortua, guréac diran becela, ezpada Jaincoác ala erabaquiric cerutic jachia, san Geronimoc (1), san Antoninoc (2), san Epifanioc (3), eta san Lorenzoco Ricardoc (4) segurutzen dutenez. Jaungoico beraren tronutic irten zan zure icen andi eta goratua, Ama maitea, Jesusen icen adoragarriaren urrena icen gucien garay eta ederrena becela, nay izanaz Trinida-

(1) Lib. de Nat. Mar. (2) P. 1. His. tit. 4. c. 6. (3) Orat. de Præc. Deip. (4) De laud. Virg.

de guciz santuac zu señalatu eta aberastu icen añ santu batez, non bera aditzcan ceru-lúrrac eta infirnuac ere beláunaz lurra jotzen duten.

Baña Jaunac Mariari eman diozcan gañ-gañeco beste anditasun, garaitasun eta pribilegioen artean, dacusun orañ ceñ gozatsua eguin zuan bere debotoacnico, nola bicitzan ala eriotzan icen miragarri au.

Bere icen guciz santua da bicitzan gozotasuna bera, baña ceruco gozotasuna (1). Paduaco san Antonio gloriatsnac icen sagradu onetan alaingoa arquitzen zuan, nola san Bernardoc Jesusen icen sagradu santuan. Jesusen icena, esaten zuan batac, Mariaren icena eranzuten zuan besteac, da biotzean poz atseguña, aon ezta, belarrían soñu atseguña. Saluzzo-co Obispo Juvenal Ancina Beneragarriac Mariaren icena esate gucian gusto añ gozo ta atseguña artzen zuan aon, non ezpañac milliscatu oy cituan; eta beste onembeste dio Obispo Marcilio Coloniaco emacume jaincoco y batez, eta onen consejuz Obispo berac icen santu au esanta, bera ere abiatu zan gusto atseguñ erregalatu beran artzen. Aingueruac berac beñ ta berriz galdetzen zuten ceruraco bere jasocera edo Asuncio gloriacoaren egunean: *¿ceñ edo nor da au* (2)? beñ eta berriz aditzen zutelaco añ gozatsu citayen icena (3).

Baña emen eztegu itzeguiten sentierac artzen du-

(1) Onorius. Anachor. (2) Cant. c. 5. 6. 8. (3) Ric. a S. Laur. de land Virg. c. 2.

ten atseguñaz, bada au guchiri ematen zayena da; ezpada icen guez gozo au debocioaz esaten duten guciay berac gueyenean ematen dien gozotasun o-sasungarri, poz atseguin, amore, alaitasun, confian-za ta indarratz. Jesusen icen santuaren urrena añ aberatsa da ceruco oñdasunez Mariarena, non ez lurrean eta ez ceruan aditzen dan anima justuay graciazco, confianzazco eta gozotasunezco ainbeste ujol eta alacoac ematen dizten beste icenic, bada icen onec gozotasun añ esan al baño andiagoo dauca beregan, eta berez, non bere adisquideen biotzetara iristen dan gucian, oec santidadearen usay gozo eta poz atseguña becela berengan sentitzen duten. Eta icen onen eguite miragarria da, Mariaren debotoac milla bider adituagatic, milla bider berria iruditzea, eta atseguin contentu eta gozotasun bera milla bider progatzea (1). Santu batec esan oy' zuan, ceen icen sagradu au aditzean edo esatean alain bizeortzen eitzayola esperanza, eta iciotzen biotza, non sentitzen zuan poz atseguñarequin beguetatic iriteten eitzazcan malco ugarien artean bere anima aotic irten cequion gogo ta zaleac eltzen cion; icen atseguin-garri au abarasca bat becela bere animaren bar-rumbean urtutzen eitzayola iruditua; eta ala esaten du: ¡O Mariaren icen guez gozoa! ¡Cer izango da icen onen gozoa duan persona, baldin icen ntsa be-
ra graciaz eta amorez añ betea badago? ¡O guez an-
dia, ó erruquitsua, ó alabanz eta laudario gucien

(1) Franccone, de Grat. Nov. Test, tr. 6.

chit diña cerana! eciñ esan litoque zure icena biót-
 zac sutugabe, ez icen eder onetan pensatu ere, zu
 maite zaituzten gucién animac poz atzeguiñez bete-
 gabe (1). Eta ondasunaz itzeguiteac beartsuac añ
 poztutzen baditu ¡cembat poztuagotu bear gaituan
 gu munduco ondasun guciac baño preciatu eta zale-
 garriagoa eta bicitz onetaco gáitzac ariutzeco mun-
 duco erremedio guciac baño sendagay biei ta cra-
 guilleagoa dan zure icen santuac (2). ¡Icen onec be-
 regan darama gracia ta bendicioa (3), eciñ debo-
 cioaz ta bietzetic bera esaten duanari on egoingabe
 beñ bacarric esan litoque ere (4). Egon bedi biotz
 bat arria bezeñ gogortua, senti beza beregan biotz-
 zeco goibeltasun eta esperanza laburra, baldin esa-
 teratzen bada zure icena, aimbesterañocoa da bere
 indar jaincozcoa, non bereala, alaitu, bigundu, eta
 len zanetic guciz bestetua gueratneco dan; alabaña
 zuc indartzen dezu peccataria, uste eta esperanza
 artzera animatuaz, eta Jaincoarequin ongui jartzera
 prestatuaz (5). Azquenic, da zure icena ceruco usay
 gozoz betetaco balsamua, eta ala, Virgiña guciz er-
 ruq i sua, erregutzen dizut, jachi dedilla nere biotz-
 zaren erdiraño, amore ta confianz andiaz bertan jo-
 sia beti erabiltzeco, bada icen an onela ducana, eta
 esaten duana, Jaincoaren gracia irichi dualacoan,
 edo beñtzat laster iristeco señale ta prenda segurua
 escuratu dualacoan seguru egon litoque. Bera gogo-

(1) Enric Sus. (2) Ric a S Laur de Land. Virg c 2 (3) Met.
 Or. in Hip. (4) Bonay Spec. Virg. c 8 (5) Idiot.

ratze utsac poztutzen ditu naigabez daudenac, biurtzen ditu bide zucenera cearcatu ta galdúac dabilzanac, eta indartzen eta animatzen ditu beldurrez dauden pecatariac, beren salbacioaz etsitzen utzi ez ditecen (1). Salbatzalleac bere bost llágaquin eman eion munduari bere gaitz gucien sendagarri edo erremedioa; eta zue bost letra dauzean cere icen g'iciz gozoarequin iristen diezu pecatariay ordu oro barcacioa (2).

Ona emen cergatic Escriptura sagraduan bere icena olio edo balsamoaren pareco eguiten dan. Olioac sendatzen ditu gaitzac, banatzen du usay ona, eta alchatzen du sugarra. Bada berebat eguiten du, eta ascoz obeto alere, icen g'iciz eztitsu onec. Sendatzen ditu heriac, poztutzen, eta Jaincoaren amorean iciotzen ditu biotzac (3). Ez, icen añ onguille ta indartsuaganaco jayera, debocio edo bera sarri deitzeac sendatzen eztuan miñ-antzie ezta.

Baña demonioac icen an aditze utsez izuaren izuz su quiscalgarriagandie becela ignes dijoaz (4). Ama Virgíñac berac esan eion santa Brigidari (5), eztala munduan Jaincoaren amoreari añ gogor eta otz zayon pecatariric, non beraren icen santua deituaz etsáyac beren atzaparretatic bereala utzico ez duten, aingueru ónac beraganatzen zaizean demboran bertan (6). An on egníñaz, dio san Germanec, ecen ar-

(1) Landolph. in vita Christ part 2. c 86. (2) Felharrt Stellar. art 2 (3) Beat. Alon. in Cant c. 4 (4) Kemp. lib. 4. ad Novit. (5) Rev. lib. 1. c 9 et 19. (6) Dion. Cart de lau 1. Virg. c. ult.

nas-eguitea biciaren señaleara dan becela, Maria gu-
ciz santa ascotan icendatzea bat Jaincoarequin ongui
dagoan, edota laster jarrico dan señaleara dala, bere
icen santuac berequin dauzalaco al-izate eta indar-
ra, laguntza ta bicitza bera deboicioaz deitzen dua-
narentzat (1).

Ezta cer dudatu. Icen miragarri au bertan sart-
zen dan pecatari inor galduco ezta torre guciz sen-
doaren guisacoa da (2); sendotasuna bera dan torrea,
justuac gordetzeaz gañera pecatariac ere infernuaren
eraso gucietatic estalpetzen dituan torrea. Gu-
ciz indartsua da onetaraco Jesusen icena; baña indartsua
da Mariarena ere (3), eta berezquiro garbitasunaren
contraco tentaldiac azpiratzeco, icen oni jayera dio-
tenac egun oro progatzen duten becela; eta beraga-
tic jaquintsu jaincoy bat oartzen dan becela (4),
Virgiñaren eta Mariaren icenac Ebangelioan alcar-
requin joatea, *et nomen Virginis Maria*, izan zan
doucecella añ garbiaren icenac beti garbitasunarequin
ibilli bear duala adiratzeco izan zala, bada icen au
garbitasunaren señaleara segurua dala, dio beste santu
batec (5), eta ala nerbait tentañiren batec erasota, bere
laguntzan Mariaren icen gozoa deitu zuala, oartzen
bada, tentacioari lecuric eman etziolacoan seguru
badagoque.

Balia gaitean bada san Bernardoren consejuaz (6).

(1) De zona Virg. (2) Ric. S. Laur. de laud. Virg. lib. 11. (3) Id.
id. c. 2. (4) Id. loc. cit. (5) Pet. Chrys. ser. 146. (6) Hom. 2.
sup. Miss.

an da: Jaincoaren gracia galtzeco perill gucietan pensa dezagula Mariagan, eta dey zayogula Mariari, beraren icena Jesusenarequin batuaz, biac beti alcarrequin lotuac dabiltzalaco. Ez beguizquigu irten beñere biotzetic, ez erori ere aotic, bada batac eta besteac serbituco digute ataburni segurutzat, tentaldi guciay burutzeco indar ta iraupen sendoa guri emanaz.

Ondasun guciz ugaritsuac aguintzen dizte Jaunac bere Ama amorezcoaren icen santuari jayera diotey, Jaunac berac esan cion becela Ama maiteari, santa Brigidac adituaz: *Zure icena deitzen, eta ontzeco asmo eta qogouz beren uste la esperanza zupan ipintzen duten guciay emango zaye beren pecatuaz damutzeco, pecatu oyec lan onaquin ordantzeco, bertutearen bide zucenean aurreratze-co eta gueroenean ceruetaco erreinura iristeco gracia ta laguntza; oeren alabaña zure escariac, ene Ama; añ gogoco eta atsequin zaizquit, non escatzen didazun ecer ecin uca deguizuquedan (1).*

Izatez eta eguiaz bere icen bedecatua ceruco guiltza da (2), eta berá deitzen duten gucientzat osasuna (3), izanaz icen au deitzea, eta betico osasuna iristea gauza berdintsuac, bada icen onen bidez iristen da emen gracia guciz ugaritsua, eta an gloria guciz gañ gañecoa (4).

Oni darraiquiola Tomas Kempis-ec erligioso bere

(1) Lib 4 c. 10 (2) Ephr in dep. ad, Virg (3) Bonav, (4) Idiot. de laud Virg. l. 4, c. 2.

anayai esaten die: *ene anáyac, baldin cernay estura, premia edo bearretan nay badezute laguntza eta consueloa, zoazte Mariagana, dey zayozute Mariari, serbi zazute Maria, eta erregu zuyozute Mariari. Poztu zaitzte Mariarequin, negar eguzute Mariarequin, erregu zazute Mariarequin, bideguzute Mariarequin, billa zazute Jesus Mariarequin, izan zazute Jesus ta Mariarequin bicitzeco eta hiltzeco eresi ta deseoá, eta onela egiñaz joango cerate lasterea Jaincoaren bidetic, eta Mariac gogo guciz onaz erregutuco du zuecquitic, eta bere Seme guciz onguilleac ino-ta ere utzico ezditu aditugabe beraren erreguac (1).*

Orañ ondo, baldin icen añ gozoac bere debotoay eracartzen dizten gracia ta mesede añ ugaritsúaacgatic gozo ta atseguin eguiten badie bicitza, asco atseguin ta alaitsuago eguiten die beren azquen-orduco estura larria, berac egoquitzen dien dichazco eriotza dala bide. Onegatic guizon espiritucoy, eta beargay onetan guciz adituac eman oy die hiltzen daudenay Mariaren icen guciz gozoá maiz esateco consejua, ceren ordu artan esanta, icen au, añ santu eta indartsua beccla, asco dan etsayai angoac eraguiteco, eta azquen-arnasetan dagoana indartu eta animatzeco. Ala encargatua utzi cien bere erligiosoay Lelis-co san Camiloe bere azquen-orduan; eta Mariaren icenarequin batera Jesusena. Eta santuac

(1) Pacue Exemp. 32 in Sal. Ang.

berác ala eguin zuan beti bere bicitzan; baña batez ere eriotzean; baña alaingo debocio ta samurtasunaz, non samurtasun ta debocio hura an cebiltzan guciay itsasten cien; Jesus ta Mariaren imagiñetan beguiac josi, besoac gurutzetu, eta aldeaurrez abiatu zan gozaten, gloria eracusten zuan arpegui alay batequin bere bicia emanaz.

Jesus eta Maria itz bi dira, ez gueyago, eta esaten eta gogoan idnquitzen añ errázac, nola beretan pensatuta atseguingarriac eta gu gordetzeco indartsuac (1). ¡Jaincoaren Ama santa (2)! ¡zorionecoa zure icen guciz gozoaren eztilasun progatu duan hura! ¡ceren icen au añ miragarri eta glori andicoa izanic, deabruen erasoen cer beldur lezaque? ¡Nore irichi lezaquean, Ama maitea, gozotoro zuri deica cegoan unean hill zan Enrique Doatsua becela hiltzeco suerte zorionecoa! edota Ascoli-co Aita Fulgencio capuchinoa becela, ceña zure icen guciz santuaren laudario eta alabanzac cantatuaz hill zan, beticoera gucian zu icustera, goratzera ta alabatzera icen au aon zuala joateco.

Guc ere esca zayogun gracia berau mesede guciz señalatutzat, eta izango guera doatsu. ¡Milla bider zorionecoa bere azquen-arnasetan uste eta confianza osoaz Mariari bere icenaz deitzen diona! Au graci andi eta señalatua, eta salvacioaren señale guciz segurua izango da.

Ene Ama, maite zaitut, eta maite zaitudalaco diot

(1) Kempis. (2) Bonav. in Spec B. V.

amore ta jayera zure icen gucziz santuari ere. Zure onguinay eta laguntzarequin, uste det deituco dedala icen au nere bici gucian eta berezquiro eriotzeco ordnan. Zure icen gucziz gozoaren gloria eta houca andiagatic, bada, irten zaquizquio nere animari bidera, mundu onetatic irten dedinean; cere beso bigun atseguinetan artu, eta cere edertasunaz consola zazu, Jaincoaren justicia zorrotzaren tribunalean ni amparatuaz, barcacioa irichi, eta betico gloriaren jabe eguin nazazun.

EJEMPLOA.

Aita Rho-oc larumbatetaco bere liburuan eta Aita Lircoc Mariaren Trisagioan, contatzen dute, ecen Gueldres-co erri batean 1465 garren urtean Maria ceritzan nescacha bat bere osabac Nimega-co azoquera bialdu zuala, gau hura iceba baten echean eguin eezala, aguin duta. Iceba onec bere echean artu nay izan etzualaco, nescachac bere echeracoari eman bear izan cion; baña gauac bidean artu, eta onequin arrabiatu, eta abiatu zan demonioari deica, eta au guerora beguira egon etzan, bada guizonaren irudian nescachari aguertu, eta baldin gauza bi eguiten bacituan, lagunduco ciola esan cion. Nay gucia eguingo det, eranzun cion dichagabeac. Bada bata da, ostera esan cion deabruac, gaurguero eztezula gueyagoren gueyago eguin bear gurutzearen señailea; eta bestea, aldatu bear dezula icena, edo

artu bear dezula beste icen bat, Gurutzeari dago-
 quionez, jartzen naiz dioznera, cranzun cion di-
 chagabeac; baña Mariaren icena bezañ gozoa tru-
 catuco eztet. Bada nic lagunduco eztizut, esan cion
 ostera etsayac. Gueroenean itz-trueatze luce baten
 ondoren, nescachac bere icenaren 'enengo letra bere
 icentzat artzecoan gueratu ciran, au da. M; eta one-
 quin biac Amberes-co urira joan, eta biac sey ur-
 tean an bicitu ciran, pensatzecoa dan becelaco bi-
 cicra eguinaz. Sey urteen buruan nescachari bere
 erriraco zalea eguin, eta etsayac inola ere utzi nay
 ezpacion ere, gueroenean utzi bear izan cion. Ni-
 megan sartzeracoan Virginia guciz santaren comedia
 bat aguirian eguiten icusi, eta onequin M. gajoa, o-
 ra indie biotzean gueratu eitzayon Maria guciz san-
 taganaco amore ta naitasunaren chingarra icioizen
 eitzayola beregan sentitu, eta negarrari eman eitz-
 zayon. Demonioac au icusita, oso aserretu eta su-
 minduric, esan cion: ¿cor eguiten degu emen? ¿i aizu
 guc beste comedia bat eguin zagun au baño farrag-
 garriagoa? Eta abiatu eitzayon tiraca, lecu artatic
 urrutiratu payez; baña nescachac gogor eguiten
 cion. Ezaguturic orduan etsayac, anima hura betico
 galtzera cijoquiola, gora jaso, eta lurrera erorten
 utzi zuan. Baña nescachac min guchi artu zuan, eta
 igaro gucia ojuca, eta guciac aditzen zuten eran
 contatu, eta errico Apaiz nagusiagana confesatzera
 joan, eta onec Coloniaco Obispoagana, eta Obispoac
 Aita santuagana bialdu zuten Aite santuac, confesioa
 aditu ondoan, aguinu cion, erabili eitz. la beti iru

burnidztay, bata lepoan, eta beste biac beso banatan. Nescachac obeditu, eta Maestrich deritzan errira irichi zanean, emacume galdu damutuac alcarganatura beren bacarrean bici eiran eche batean sartu, eta penitenci latz gogorrac eguinaz amalan urtean eche artan bicitu zan, eta urte oyen buruan goiz batean oyetic jaiquitzeracoan iru burni-iztayac berenez autsiac icusi cittan; eta guero beste bi igaro ciranean, santaren sona andian hull zan, demonioaren escupeco izatetic bere libratzalle maitearen dichazco serbitzari izatera biurtu zuten burni ayequin lurra eman ceguiotela, aguinuaz.

ORACIOA.

Jaincoaren Ama eta nere Ama, nere mingan at-
sac zu icendatzea mercei expadu ere, zuc maite
nazun, eta salbacioa opa didazun orrec gogora eraci
zadazu arren nere bicitzan eta eriotzan zure icen
guciz santu, indartsu, graciaz bete eta osasungarria
beti nere alde deitzea. O Virgiña guciz garbia, o
amore gucizco Ama, o Maria, izan bedi necetzat
aurreronzean zure icen santua nere arma ta defen-
sa, emanaz niri nere tentaldi, premia eta perill gu-
cietan eta batez ere nere eriotzeco orduan beti eta
utsunegabe Maria, Maria deitzeco gracia, onela izan
dezadan nere biciari azquen ona emateco eta beti-
coera gucian zu ceruan icusi ta bedeicatzeco suterte
zorionecoa. O guciz erruquitsua, o Maria Virgiña

guciz gozoa, ó Ama guciz maitagarria, nolaco ar-
nas, confianza eta poz atseguina nere animae sen-
titzen duan zu icendatzean, eta zuzaz gogoratze
utsean bertan ere! Esquerrac diozcat Jaincoari, icen
añ gozoa, icen añ maitagarri ta indartsua eman
dizulaco nere oneraco.

Baña icen au ezpañez esate utsac ez nau aset-
zen; baicic gañera naitasun eta amore andiaz esan
nay det zure icena: icen añ ederra amoreac ordu-
oro gogoratzea nay det, icen onetan ipiñi nay det
nere amore gucia. O Maria, ó Jesus, bacarric zuen
icen guciz santuac bici bitez nere gogoan, eta nere
lagun urcoenean, creaturen icenac aztuaz, Jesus ta
Mariaren icen adoragarriac baicic biotzean eta aoran
ez iduquitzeo. Jesus guciz amorezcoa, nere Erre-
dimitzallea, Ama guciz maitatsua, nere biotzeo
Ama laztan gozoa, zure mercedimentuacgatic gracia
bereci bat beccela escatzen dizut, nere eriotzeo or-
duan izan ditecela nere azqueneco itzac:

Nere Jesus, Maria ta José gozoac,

Artu nere biotz ta anima gañoac.

Maria guciz santac, berari jayera cion anima
bati aguertu cion guciz gogoco citzayola ondorengo
iru oracioaquin bere debotoac bera honratzea.

Esquerrac dizquitzut, Ait Eternoa, cere Alaba
guciz maiteari eman ciñion escu eta podereagatic.
Aita gure Abe Maria eta Gloria.

Esquerrac zuri, Jainco beticoaren Semea, cere
Ama guciz santari emandaco jaquintasunagatic,
Aita gurea, Abe Maria ta Gloria.

Esquérrea zuri, Espiritu Santu, Jaungoico beti-
 coa, cere Esposa guéz gozo Mariari emandaco a-
 moreagatic. *Aita gurea, Abe Maria eta Gloria.*

LENENGO PARTEAREN AZQUENA.



Faint, illegible text at the top of the page, possibly bleed-through from the reverse side.

Faint, illegible text in the middle of the page, possibly bleed-through from the reverse side.



ARQUIBIDEA.

ORRIAN.

LENENGO BURUA. <i>Agur Erreguiña, misericordiazco Ama</i>	5
I.º §.ª <i>Virgiñagan iduqui bear degun uste eta confianzaren gañcan, Erreguiñ erruquitsua dalaco</i>	5
II.º en §.ª <i>Uste eta confianza andiagoo iduqui bear degula Maria Virgiñagan, gure Ama dalaco</i>	17
III.º en §.ª <i>Gure Amác digun amorearen anditasunaz</i>	27
IV.º en §.ª <i>Maria orobat da pecatari damutuen Ama</i>	41
II.º en BURUA. <i>Vicitza ta gozotasuna</i>	52
I.º §.ª <i>Maria da gure bicitza, iristen digulaco pecatuen barcacioa</i>	52
II.º en §.ª <i>Virgiña santa da gañera gure bicitza, cercen onean irauteco gracia iristen digun.</i>	61
III.º en §.ª <i>Gozotasuna.—Mariác bere debotoay gozo equiten die eriotza.</i>	70
III.º en BURUA. — <i>Gure esperanza</i>	83
I.º §.ª <i>Maria da gucion esperanza.</i>	83
II.º en §.ª <i>Maria da peccatarien esperanza</i>	93
IV.º en BURUA. — <i>Zure deyez gaude Evaren ume erbestetuac</i>	104

I.º §.ª	<i>Bereala laguntzen die Mariac berari deitzen dioten guciay</i>	104
II.ªn §.ª	<i>Tentacioen contra Mariaren escu la indarra</i>	114
V.ªn BURUA.	<i>Zugana gaude suspirioz, sen- timentuz eta negarrez, negarrezco lecu onetan</i>	123
I.º §.ª	<i>Cen bearrecoa dan Andre Mariaren bitartecolasuna.</i>	123
II.ªn §.ª	<i>Gay beraren gancan</i>	136
VI.ªn BURUA.	<i>—Ea bada gure bitartecoa</i>	148
I.º §.ª	<i>Gure bitartecoa da Maria, eta salbat- zeco escua dauca.</i>	148
II.ªn §.ª	<i>Bitarteco urricaltsua da Maria, eta inongo desamparaturen aucia bere contu- ra artzera ezla ucatzen.</i>	159
III.ªn §.ª	<i>Mariac eguiten ditu Jaincoarequin guizonen arteco paqueac</i>	167
VII.ªn BURUA.	<i>Itzul itzatzu gugana zure be- gui erruquitsu oriec.</i>	178
§.ª	<i>bacarra. Maria guciz santac erruqui an- diaz beguiratzen ditu gure ezbear eta dou- cabéac, diran guciac estaltzeco</i>	178
VIII.ªn BURUA.	<i>Eta deserri onetan eracus za- guzu Jesus, zure sabeleco frutu bedeicatua</i>	188
I.º §.ª	<i>Mariac libratzen ditu infernutic bere debotoac</i>	188
II.ªn §.ª	<i>Mariac beréay arintzen dizte purga- torioco pénac, eta ateratzen ditu pena ayelatic</i>	199

III. en §. ^o <i>Mariac cerura daramazqui bere serbitzariac</i>	206
IX. en BURUA. — <i>O biotz beraa, ó erruquitsua</i>	217
§. ^o bacarra. <i>Ceñ gucizcoa dan Mariaren gozotasun eta urricallasuna</i>	217
X. en BURUA. — <i>O Maria Virgiña gozoa</i>	226
§. ^o bacarra. <i>Guciz gozoa da Mariaren icena bicitzan eta eriotzan</i>	226

Faint, illegible text at the top of the page, possibly bleed-through from the reverse side.

MARIAREN GLORIAN.

SAN ALFONSO LIGORIO

EGUIÑ,

**ETA JESUSEN COMPAÑIACO AITA RAMON
GARCIAZ GAZTELANIARA ITZULI ZUANETIC**

D. Gregorio Arnuec

EUSQUERAZ IPIÑIA.

BIGARREN PARTEA.

BEAR DIRAN BAIMENAQUIN.

AZPEITIAN:

**PABLO MARTINEZEN MOLDIZTEGUIAN
1881 GARREN URTEAN.**

LIBRARY OF THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHYSICS DEPARTMENT

PHYSICS DEPARTMENT

UNIVERSITY OF CHICAGO

Es propiedad.

UNIVERSITY OF CHICAGO

PHYSICS DEPARTMENT

UNIVERSITY OF CHICAGO

PHYSICS DEPARTMENT

**GURE AMA MAITE MAITATSUAREN FEST-EGUN ANDIENEN GAÑEAN
ITZALDIAC.**

*Bere Sortze edo Concepcio guciz garbiaren
gañean.*

I.º ITZALDIA.

**Gauza guciz egoqui ta bearra izan zala Trinidad
guciz santuco iru Persónac Maria Virgiña jator-
rizco pecatutic lendanaz gordetzea.**

Andia izan zan pecatuac gure lenengo gurasoay eta béren ondorengo guciay eguin cien caltea; alabaña Jaincoac añ oparo eman cizten gracia ta gañeraco doayac galduaz, eracarrí cituzten béraquin béren ondore guciaren gañera, diran gaitz eta laceria guciac. Baña nay izan zuan gorde Jaunac gucion zorigaitz onetatic bigarren Adan Jesucristoc here Amatzat autu zuan Andre guciz garay hura, onela zuecenduaz lenengoac eguin zuan galtzapena: guciz ongui cetorren pribilegio, Trinidad guciz santuari cegoquion becelacoa, gordeaz Doncella au Aitac Alaba becela, Semeac Ama becela, eta Espirito Santuac bere Esposa becela.

I.º PUNTUA.

Eta lenengo lecuan gauza guciz bear eta erazcoa izan zan Ait Eternoac Doncella au jatorrizco becatutic lendanaz gordetzea, bere Alaba lenena zan bidez, Doncella beronec aguertzen duan becela, esanaz: *Jaincoaren aotic irten nitzan ni creatura gucien lenen* (1); bere Sortze guciz garbiaren fest-egunean Eliza santac esaten diotzean itzac. Ceren edo dala gucien lenen beste creatura inor baño len, bere Se-mearequin batera lendanaz Jaincoaren asmo gordetan ceruraco señalatua cegoalaco, Escoto-ri darraizcanac eracusten duten becela; edo dala, pecatua aldeurrez icusita, Erredimitzallearen Ama izateco señalatua becela gracian guciay eraguiña zalaco, santo Tomasi darraizcanac eracusten duten becela, guciac bat datoz Doncella oni Jaincoaren alaba andien edo lenenaren icena ematen; eta onela gauza bear eta guciz ongui cettorrena izan zan bera Satanas-en escupean secular ez egotea, ezpada bacarric bere eguillearen men eta escupean, bere Sortzearen lenengo une beretic, berac dion beccla: *Asieratic izan zan Jauna nere Jabe* (2); eta onegatic deitzen dio santu batec *bicitzaren alaba bacarra*, pecatuan jayoz eriotzaren alábac diran beste emacumeac ez beccla.

(1) Eccl 24. (2) Eccl. 24.

Premiazco ta bearra izan zan ere Ait Eternoac creatura au gracion sortzea, ceren mundua zucent-zeco ta Jaincoarequin guizónen arteco paquéac eguitemo bera aldeurrez señalatua ceucan, Elizaco Guraso santúac dioten becela, eta oen artean san Juan Damasenoc dio, mundu guciari paquea emateco jayo zala (1); san Bernardoc, baldin Noeren cuchan persona jaquiñ banacac gorde baciran mundu gucia ondatu zuan ujolatic, Mariaren bidez gizarraza gucia gorde edo salbatu zala (2); san Atanasioc, Eva berria bicitzaren Ama dala (3); Nicea-co Obispo san Teofanes-ec, deseguin zuala lenengo emacumearen tristeza, eta san Basiliorequin san Efren-ec, adisquidetu cituala guizónac Jaincoarequin. Orañ ondo, paquéac eguitera bialdutaco persona ofendituaren etsay edo ofendituari eguindaco gaizquian partedun izateá ez-dator ongui; ceren juezarequin paqueac eguitera bera gózatu bearrean aserretuago lezaquean etsay bat berari bialtzea ongui eztirudiana dan. Eta bera-gatic, nola Maria izan bear baitzan Jaincoarequin guizónen arteco paquéac eguin bear cituana, sayets gucietic beguiratuta arrazoyac escatzen zuan bera Jaincoaren aurrera lotsatua ez aguertzea czpada bere guciuz adisquide eta pecatu gucitic garbi.

Orobat combeni izan zan Maria pecatuaren cutsugabe sortzea, gure lenengo gurasoen engañatzalle eta beren ondorengo gucion eriotzaren causa ta bide izan zan infernuco sugarrastaren burua oñpean zapalduta

(1) Orat 1. de Nat. Virg. (2) Serm de B. V. (3) Orat de S. Deip.

lertzeco señalatua cegoalaco ere, Jaunac sugue a-
 dur ari aserre bician esan cion becela: *ipinico diat*
etsaitasuna irequin emacumearen artean, eta bè-
rac autsico die hire burua. Bada baldin Maria izan-
 go bazan Luciferrequeicoac eguiteco munduan seña-
 latutaco emacume bulardetsu ta biotz andicoa, ecin
 citequena dirudi Luciferrec lenago Maria bere escu-
 peco iduquitzea, ezpada guciz arrazoiz ta bidezcoa i-
 zan zan pecatuaren mancha ta cutsu gucitic, eta
 beste gucion galera eta ondamenetic garbi eta libre
 gueratzea, eta infernuco otso amorratuaren aguin-
 dupeco inoiz ere ez izatea. Infernuco arro puztu one-
 ongui nay izan zuan bere pozoiz cutsutu Maria ere
 bere sortzeco unean; baña Jaincoaren ontasunari
 esquérrac, berari aurea artu, eta prestatu zualaco
 graci añ ugaritsu beteaquin, non pozoyac icutzeco
 toquiric emangabe, bere etsayaren arrotasuna buruz
 beeratu eta ecereztu zuan (1).

Baña guciac gañ combeni izan zan Aitac Adanen
 becatutic bera gordetzea, bere Seme hacarraren Ama
 izateco señaipendua ceducalaco (2). Beste arrazoy
 eta eracairic izan ezpalitz ere onetaraco, asco zan
 bere Semearen honra (bada Jaungoicoa da), mancha
 gucitic garbi Maria eguiñ edo sortzeco, bada santo
 Tomas-ec eracusten duan becela, Jaincoari dagoz-
 quion gauza guciac santu, garbi eta mancharen
 cutsugabeac izan bear dira; eta orregatic David-ec

(1) August. in Genes. 3. 15. Bonavent. in 3 di-t 3. art 2. p. 4.

(2) Bern. de Sen Serm. 15. c. 4.

Jaunaren adoracio ta serbitzuari cegoquion anditasun eta edertasunarequin Jerusalengo eliza eguiteco asmo eta traza buruan cerabiltzquianean, esaten zuan: *Ez guizon baten, ezpada Jaungoicoaren bicilecua izan bear da.* Bada cembat bidezcoago izan etzan, señalaturic Maria bere Eguilleac bere Seme guciz santuaren Ama izateco graciazco, eta santutasunezco doayen garay, eder eta miragarrienaz onen anima apaintzea, beragan izan cezan Jaunac bere anditasun mugabagueari cegoquion eraco bicilecua (1)? Au Elizac segurutzen du oracio batean, esanaz: Jaincoac apaindu cituala Virginea guciz gloriatsuaren gorputz-animac Ait Eternoaren Seme bacarrari cegoquion eraco bici-lecu izan cediñ (2).

Seme baten honra andi ta lenengoetacoa da odol oneco guraso nobleagandic jayotzea, cergatic obeto eramaten baitiran munduan ez-izana, eta ez-jaquiña, odol charrecoetic jayotzea baño; cereñ bearrecoa bere arguitasunaz aberats litequean, eta ezjaquiñac, sayatuaz icasi lezaquean; baña billau jayotzen dana, nequez irichico da noble izatera, edo gueroenean iristen bada ere, beti eman lizayoquo arpeguira jayotzeticaco bere billautasuna. Nola pentsatu bear degu, bada, Jaincoac bere Semea, pecatuaren billautasunetic gordetaco Ama nobleagandic jayotzea eguin cezaqueala, pecatuan cutsutu eta beltzutaco emacume balegandic jayotzen utzico zuala, bere

(1) Dionis. Cartus 1. 2 de laud. Virg art. 2. (2) Omnipotens, sempiternus Deus, etc.

mempeco peccatari, Jaincoaren etsay bategandic Jaun au jayo zala, Luciferrec esan al izateco? Ez, Jaincoac etzuan onetaraco lecuric eman; beguiratu zuan bere Semcaren honragatic, eta iduqui zuan Seme añ andi eta maitcaren santutasun eta garaitasunari cegoquion beccelaco Ama guciz garbi eta pecatuaren arraz eta calsugabea emateco contua (1).

Teologoac comunquiro diotena da, etzayola secular eman creatura iñori aingueruen Erreguiña aberastu eztuan doay bat bera ere (2). Eta egonic desberdintasun neurrigabea Jaincoaren Amarequin Jaincoaren serbitzarien artean, emendic atera bear da, Jaincoac Amari era ta alde gucietara serbitzari guciay baño graciazco doay eta ondasun andiagoac eman eizcala. Au aintzat arturic, galdetzen da: ¿ecin presta ceguioquean aldeaurrez Jaincoaren jaquintasunac bere Seme beticoari bicilecu on eta mancha gucitic libre cegoan bat? ¿Eta ecin gorde izango zuan guizonaren lenengo pecatutic Jaincoaren Ama izateco señalatua cegoan ceruco Erreguiña (3)? Eguiñ al izan zuan Eva jatorrizco zucentasuncan pecatugabe ta garbi ¿eta ez Marià?

Bay, Jaincoac au bacezaquean, eta baldin bacezaquean, eguin nay izan zuan, ceren guciz justu ta bidezcoa zan, bere Seme guciz santuaren Ama izateco esleitua cegoan Virgiña santa hura añ garbia izatea, non aingueru ta santu gucien garbitasunari

(1) Ecclesia græca in Men. die 25 Martii (2) Bernard. Epist. 174. Thom. de Villan Serm. 2. Ass. (3) Anselm. Serm. de Concept.

eraguíteaz gañera Jaincoaren garbitasunaz campora berea baño andiagoric burura ere eciñ litequean; alatan non Aitac Alaba guciz oniritziari becela, at-seguiñ andiaz esan ceguioquean: Alaba, nere alaba gucien artean zu cera aranz-arteco lirioa becela; bada gañeraco guciac irañ eta itsustasunen bat dutenac dira; baña zu cera beti usay gozoa darizun, eta beti garbi ta manchagabe zauden lore bacarra (1).

II. en PUNTUA.

Combeni izan zan Jaincoaren Semeác ere bere Ama guciz santa jatorrizco pecatutic gordetzea. Iñoren escura eztago bere nay eraco Ama esleitzea; baña au al baliteque ¿nor izango litzaque Erreguiñ bategandic jayo litequeala, serbitzari haten Seme izan naico luqueana? ¿Jaincoaren adisquidea autu lezaqueala, beraren etsaya esleituco luqueana? Bada baldiñ Jaincoaren Semeác bere nayeraco Ama esleitu al bacezaquean, Jaincoari cegoquion bezañ garay eta alde gucietara ederra autu zuala, (2) ezta cer dudatu. Eta izanic Jainco guciz garbiari dagoquion gauza Ama garbi eta pecatuaren cutsu eta arrazarie ere gabea izatea, ala izan zan eguiaz (3). San Pauloc eracusten digu, Jesucristogan daucagula gucion Buru edo Aita Santu garbi, pecatariaegandic apartatua.

(1) Anselm Serm. de Concept. (2) Bernard Hom. 5 sub. Miss.

(3) Bernardin Senens. tom. 2. Serm 51. c. 1.

Baña ¿cer eguiarequin esango litzaque azquenco au, baldin Ama pecatari izan bazan?

Deitzen da ceruco ontzia (1), ez bere sortzez lurre-coa etzalaco, cembait heregec amets eguin zuten becela, ezpada graciaren bidez cerucoa dalaco, santutasun eta garbitasunean aingueruay eraguiñaz, bere sabel guciz garbian bicitu zan gloriaco Erregueren anditasunari cegoquion becela; eta izan zan pecatugabe sortua, beragandic jayo cedin pecatugabe Jaincoaren Semea, ceñac, ecin itsatsi baceguioquean ere pecatuaren erruric, etzuan eraman nay izan pecatuaren deshonoraz despreciagarri eguiñic, demonioaren aguindupeco izan zan bat bere Ama izatearen iraña.

Espiritu Santuac dio, aitaren honra, semearen honra dala, eta aitaren deshonra, semearen deshonra. Onegatic gorde zuan Jaunac bere Ama zaganen gorputza usteltzetic, ceren berá aragui artzaz jantzitaco aragui garbi artan usteltasuna sartzea bere deshonra izango zan (2). Bada ondo: baldin Salbatzallearentzat iraintsu izango bazan aragui ustelcor batic sortzea, ¿cembat gueyago izango etzan pecatuaren loitasun eta usteltasunaz cutsutua egón zanagandic jayotzea? Gauza ciertoa da Jesusen araguaia Mariaren araguaia hera dala, bere Pizteaz guero ere (3); eta baldin Amarena pecatuan sortu bazan, Semearena pecatotic garbi ta libre gueratuco zala, eguia

(1) Ambros. de Inst. Virg. c. 5. (2) August. Serm. de Ass. B. V.

(3) Id. id.

bada ere, beti izango zan honra laburra noizbait manchatua eta Luciferren escupeco izanaren araguia berac artzea.

Ama, eta Salbatzallearen diñaco Ama izan zan Maria Onela diote itz batera Elizaco Guraso santuae, Eliza santa guciarequin batera (1).

Orrela beraz berari zor etzayon cer garaitasun edo pribilegio izango da? Santo Tomas maisu andiac eracusten du, ecen Jaincoac cernay diñadi edo goimallara norbait igotzen duanean, eguiten duala artaraco gay; eta bere Ama izateco Maria esleiturie, eguin zuala bere graciarequin señalpen añ goratua-ren guciz diñacoa; nondie ondoretzen duan santuae, ecen Virgiñac etzuala eguiñ secular peccatu ariñ edo benialie ere, ceren bestela (dio gañera) etzan izango Jesucristoren diñaco Ama, bada Ama peccatariagandie jayoa beccela, beraren irañ eta lotsaquizuna in-chico citzaizcan (2). Beraz baldin animari Jaincoarequin ongui egotea galerazten eztion peccatu ariñ edo benial bategatie Jaincoari cegoquion beccelaco Ama izango ezpazan cer esango degu Jaincoaren et-say eta demonioaren mempeco billau eguiten duan jatorriceo peccatu edo peccatu originalaz? Ona emen cergatie san Agustiñ-ec sentenci añ jaquiñ artan dion: Mariaz itzeguitecan cer pensatu ezlala peccatua, eta au Semetzat izalea merecitu zuan Jaunaren be-

(1) Bernard. in Deprec ad Virg. Thom. 4 Villan Serm 3. de Nat V. Thomas, 3. p. q 2 art 12 ad 5. Petrus Dam de Ass. Serm. 2. Ecclesia 2. Noct. in Nat Mar. (2) 5 p. q. 20. art 4.

guiramentuz, ceñagandic pecatuarequicoac oso e-
guiteco gracia artu baizuan (1).

Beraz Jaincoaren Seme beticoác autu al cezaque-
an, eta secular lotsaquizunic ecin cezaquean Amaric
obecná beretzat esleitu zuala, ciertotzat iduqui bear
degu (2). Etzion bere icen onari acats ta mellaric
eraguiten bearrecoa zala arpeguira emateco, Maria
beartsuaren semea zala juduac desprecioz berari esa-
teac, ceren Jauna humiltasun ta pobrezaren ejemploa
guri ematera mundura zan. Baña baldin demonioac
esan al izan bazuten eguiatz, bóren escupetic irten-
daco pecatari baten semea zala, au izango zan irañ
ez chiquia. Itsusi, corcoš, elbarri edo gaizquindu-
nagandic jayotzea bera irañ bat becela izango citza-
yon: ¡cembat gueyago pecatuác izugarri eguin, eta
bere anima demonioaren escupean egondaco bate-
gandic jayotzea!

¡Oh, jaquintasun ondogabea dan Jaun arc ondo
jaquin zuan bera bicitzeco echea eguiten, ederra, ta
bere anditasun eta Majestadeari cegoquion eracoa
(3), eche hura goiz goicetic santificatuaz (4), au da
bere sortzearen lenengo unetic, onela beraren diña-
co izan cediñ, bada santutasuna bera dan Jaincoari
santa etzan echea aututzea etzegoquion (5). Eta bal-
din Jaunác berác esaten badu, iñoiz ere sartuco ez-
tala anima gaizto batean, eta pecatuen azpian dagoan
gorputzean ere (6) ¡ceñi burura ere bear zayo bere

(1) De Nat. et Crat. contra Pelag. t. 7. c. 56. (2) Petr. Dam (3)
Prov. 9. 1. Ps. 45 (4) Ps. 45 (5) Ps. 92 (6) Sap. 1.

izatearen lenengo instantetic garbi eta santa izan etzan Ama baten sabelean eguin naico zuala bere bicilecua (1)? Elizac TE DEUM—ean esaten dio Jaunari: *Non horruisti Virginis uterum*. Eguiaz, alaingo gloriuzco Jaun bat izutuco zan nozqui Ines, Getrudis, edo Teresaren sabelean sartzen, ceren Virginia oec, santac ciralaric, garay batean jatorrizco pecatuaz loituac icusi ciran; baña etzuan izan izu ta nagarie Mariaren sabelean guizontzeco, ceren Virginia pibilegiatu au pecatuaren mancha ta cutsu gueticie beti garbi ta nasgabea izan zan, sugarrastaren arnas pozoitsua beragana secular irichigabe (2).

Eman zuan Jaincoac aita eta ama honratzeco aguinde edo mandamentua, aguinde onetatic bere burua berecigabe, guizon eguin zanean, baicic eta bete zuan bere Ama graziaz eta honraz, berá guiez maite izanaz, berari obedituaz, eta batez ere bere gorputza obian guiez garbi eta usteldugabe gordeaz, aguinde au betetzeco; eta onec ama honra dezagula, aguintzen digun becela, zor zayon hourea ta beguiru-nea berari ez gordetzea pecatutzat ematen du (3). Baña cembat beguiragarriagoa izango etzan falta, Adan—en irañ ta lotzaquizunac bere Ama arrapatzen utzi balu? Bere ama lotsagarri onetatic gorde lezaqueala gordetzen ezluquean nornay semec, pecatu eguingo luque; eta beragatic gaizqui eguiña litzaqueana, ondo ez dirudiana beguitandu bear zagu Jaincoaren Semean.

(1) Thomas, 5. p. q. 27. (2) August. (3) August.

Gañera gauza ciertua da gañeraco beste guciac-gatic baño gueyago bere Ama erredimitzeagatic e-torri zala Jesucristo mundura (1), eta bi izanie erre-dimitzeco moduác, bata eroria alchatuaz, eta bestea erori eztedin eutsiaz, ceña ascoz ohea baitan, ceren onela gordetzen dan miñ-antzelic, eta erortzeac da-cartzian beste ondore gaiztoetatic, oso sinistu bear degu, lenengoa baño obeago, nobleago, eta Jaincoaren Ama izateco esleitua cegoan persona diña ta maiteari obeto cegoquion bigarren manerara erredimitua izan zala Maria (2).

Gañera puntu oni bucaera emateco esan dezagun, alabaña frututic ezagutzen da arbola, baldin beti garbi ta manchagabea izan bazan Jaincoaren Bildot-sa, garbi ta manchagabea izan zala bere Ama (3). Seme añ diñaren diñaco Ama, Ama añ noble, garbi, santa eta esleituaren diñaco Seme izan zan Semearen Ama. Batu ditzagun, bada, gueron deadárrac san Ildefonso guciz bero eta sutuarenaquin, beraren amorean icio eta esan diozagun: *Ací zazu, Ama gozoa, cere bular guciz garbiaz zu eguin cindua-na, eta añ garbi eta ecertan utsic gabea eguin cinduana, non quizonaren izatea zure erray gu-ciz garbietan artu nay izan zuan* (4).

(1) Bernardin Senens. (2) Antonin (3) Ug. á S. Victor. Coll. 5, do Verb. Inc.

III. en PUNTUA.

On izan zan Espiritu Santuac ere bere Esposa gu-
ciz gozatsua jatorrizco pecatu edo pecatu originaletic
gordetzea, Maria izan zan Jainco andiaren Ama ta
Esposa deitzea merocitu zuan bacarra (1). bada Es-
piritu Santua Marian bicitu zan izatez, beste creatura
iñor baño gueyago au graziaz aberastuaz, ceruco
Ehecoandre eta bere Esposa guciz maite berá egui-
ñaz (2). Mariaren gorputz garbi manchagabeaz e-
guin zuan Espiritu Santuac Jesusen Gorputz garbi
manchagabea, eta onela bicitu zan gorputzez eta izatez
Marian, beragan guertatu zan miragarritasunaci da-
goquionez aingueruac aldeurrez eorri ciozoan berri
ónac bete edo cumplituaz, Espiritu Santuaren hici-
lecu ta sagrario eguiñic guertatuaz, edo onen obuaz
edo bertutez Jaincoaren Semea bere erray guciz
garbietan, bere Ama eguiazcoac becela sortuaz (3).

Orañ ondo, baldin pintatzalle sonatu baten escura
balego berac nay beceñ arpegui ederra bere emaz-
teari ematea ¿cer eguiñalac eguingo ez lituzque al
lezaquean edertasun guciaz berá ornitzeco? ¿Eta cer
esango degu Espiritu Santuaz? ¿Nola izango da si-
nisquizon, dagozquion edertasun eta gracia guciaz
apaindutaco Esposa bat eguin al izanic, eguingabe

(1) Serm. de Nat. Virg. (2) August. Serm de Ass (3) Ansel. de
Exc. Virg. c 4.

ulzico zuala? Ez, alabaña Esposaren diñadi neurri-gabeac mereci zuan bezañ garbi eta ederra izan zan, eta ala, bera goratuaz, Jaunac berac diotsa: *Guciori cera ederra, ene adisquidea, eta eztago zuzgan mancharie* (1); san Ildefensoc, eta santo Tomasec diotenez, bacarric Virgiña guciz garbiari zuzentzen zaizcan itzac, testo onen gañean itzeguiñaz Cornelio Alapidec eracusten duan hecela (2), eta batez ere bere Sortze edo Concepcio guciz garbian, Sena-co san Bernardinoc eta san Lorenzo Justinianoc diotenez (3).

Orobat aditzera eman zuan Espiritu Santuac, bere Esposa maite oni jardin ichia eta iturri sellatua esan cionean (4). Bata ta bestea ala izan zan eguiaz, ceren ichitu artan etsayac secular sartu etziran, herari guerra eguitera, eta gorputz-animetan inore icutugabe beti garbi gorde zan (5).

Aingueru eta santu guciac batera baño maiteago izan zuan bere Esposoac (6), bertute eta santutasunaren erpiñera doatsu guciac gora jasoaz (7), eta onela Maria goratuaz, dio: *alaba ascoc aberastanac bildu cituzten; baño inore ez zuc oimbat* (8); itz oetatic ondoretzen da, ecen baldiñ guciay eraguiña izan bazan graciazco ondasunetan, bere sortzetic izan zuala ere jatorrizco zuentasun edo garbitasuna,

(1) Thom. opusc. 8. (2) Cant. 4. 7. (3) Cornel. à Lap. in Cant. 4. 7. (4) Bern. Senens. tom. 2. Serm. 52. laur. Just. Serm. de Nat. Virg. Idiota. in Contemp. B. V. c. 3. (5) Cant. 4. 14. (6) Hieronym. Ep. 10. ad Eust. de Ass. Bernard. in Cant. 4. (7) Suarez. Laurent. Justinianus, et alli. (8) Ps. 36.

Evac, Adanec eta ainguerúac becela. Beste lecu ba-tean dio, conta al baño gueyago dirala doncellachoac, ordea usoa, cabal edo utsunegabea, edo hebreatar-ren testean iracurten dan becela, manchariegabea, bat, eta ez gueyago, dala (1). Anima justu guciac jaincozco graciaren alábac dirá; baña beren artean Maria da pecatuaren beazungabeco, usoa, jatorrizco manchagabeco cabal eta alde gucietara osoa, gracion sortutaco bacarra.

Oraindic Trinidadeco bigarren Persona Guizon e-guin baño len graciáz betea berari deituaz aingue-ruac diosal eguin cion, ceren gracia oso ta betetasu.1 gucian artu zuan, gañeracoay partezca ematen za-yenean (2), eta añ ugaritsu ta oparo izan zan, non anima ececie Jaincoaren Semeari jantzi bear cion bere aragua ere santua izan zan; bere sortzeiren lenengo unetic Espiritu Santuac bere onguilletasun oparoaren ondasun ugariáz bete zuala. jaquin deza-gun (3), antziñaco sugarrastac bere arnas pozortuaz cutsutzeco dembora izan cezan baño lenago bere doay preciotsuaz aldeaurrez edertuaz (4).

Concepcio guciáz garbia gure congregacio chiquie-nar n patrona edo gordetzallea dala o, cerbait gue-yago itzaldi onetan gueratuco naiz, gure Ama maitea jatorrizco pecatugabe sortu za'aco sentenci añ on-garria (5), eta bacarric berari emandaco pribilegio au oso sinisteco, eta deritzadanez mundu guciac ere

(1) Prov. 31. (2) Cant 7 (3) Sophron Serm. de Ass. B. V (4) Petrus Cell lib de panib. c. 10. (5) Petrus Dam Serm de Ann.

sinistu bear izateco, dauzcadan arrazoibide indart-
súac laburqui azaltzen.

Oraindic esan dan gucia baño gueyagoan daude
Elizaco Maisu guciz asco (1), eta da, *peccatuaren*
zorric ere izan etzuala: gauza guciz ichurazco, eta
proga litequeana; ceren Adanen borondatean, bu-
ruarenean becela, gucioc izan guiñala sartúac, eguia
bada ere, Apostoluaren itz: *Guciac equin zuten pe-*
catu Adanengan (2) ondoretu litequeala, dirudianez,
guciz sinistecoa da ere, Jaincoác Maria gañeraco
guizon gucietatic alain bereci ta goraturic, lenengo
guizonaren nayetic camporatua gueratu zala, eta ala
peccatuaren zorric ere izan etzuala. Iritzi oni, gure
Ama laztanarentzat glori andiagocoa dalaco, itsasten
natzayo ni pozic. Baña Maria Adanen peccatutic garbi
etá libre gueratu zala segurutzat ezceic, fedeco ar-
ticulua dala aguartzeco zorian dagoan eguiatzat dau-
cat jaquintsu ascocquin balera (3); eta isillie uzten
ditut onen gañean izan diran errebelacio edo ceru-
ficaco arguiac, batez ere santa Brigidarenac (4); Baña
ezdet utzico Elizaco Guraso santuac gauz onetan us-
te ta aguertu zutenaz cerbait esangabe; orañ era-
custen degun pribilegio gloriac bete an Maria guciz
santari aitortzen guciac ceñ alcarrequin lat cetocen,
ieusi dezagun.

(1) Gaur gucioc daquigu fedeco articuloa dala (Biarlariac.) (2)
Cardin. Galatinus Card. Gusano. Lapuente, Salazar, Catharinus.
Navar. nus, Viva Lugo, Egidius, Richelius alique multi (3)
Rom. 1, (4) Card. Everardus, Duvalius, Rainaldus, Losada, Viva,
eta asco g.ueyago.

San Ambrosioco: Gaitzaren cutsugabeco Doncella, graciaren bidez pecatuaren mancha gucitic garbi da-goan Doncella (1).

Origenes-ec: Sugarrastaren arnas pozoitsuac et-zuan pozoitu (2).

San Efren-ec: Manchagabea izan zan, eta pecatu gucitic guciz urruti egon zan (3).

San Agustini-ec: Graciaz betea cegoala esanaz ain-gueruac agur eguita, lenengo sentenciaren gogor-tasuna an gueratu, eta graciaco ta bendiciozco be-tetasuna ostera cotorrela esatea aibat izan zan (4).

San Geronimoc: Odey misteriotsu hura iñoiz ere illundu etzan; beti arguitsu izan zan (5).

San Ciprianoc, cdo bean señalatzen dedan liburua eguin zuanac: Jaincoaren zuentasunac etzuan nay izan ontzi esleitu hura manchatua izatea, bada añ garay eta beste guciay eraguiña zalaco, besteen iza-tea hera zualaric, besteen culpan parteric izan et-zuan (6).

San Anfiloquioc: Lenengo doncella (Eva) uts edo faltagabea eguin zuan Jaunac: falta, escas eta utsga-bea, eta culporen arrazgabea eguin zuan bigarre-na (7).

Sofronioco: Doncella cui deitzen zayo manchagabea, ceren galera gucitic beti libre egon zan (8).

San Ildefonsoc: Arguiro daquigu, etzuala izan ja-

(1) Revel. c. 12. 49. et 55 (2) Serm. 12 in Ps 118. (3) Hom. 1.
 (4) Tom. 5. or ad Dei Genit. (5) Serm. 11. de Nat. Dom (6) In
 Ps 77 (7) Lib. de Car Christi, oper. de Nat (8) Tr. de Deip.

torrizeo pecaturic (1).

San Juan Damascenoc: Deabruac etzuan izan sar-
reraric paraiso onetan (2).

San Pedro Damianoc: Adanengandic cetorren Ma-
riaren araguaia, Adanen manchaz galdu etzan (3).

San Brunoc: Au da Jaincoác bedecatutaco lur
santu hura, orregatic pecatuan cutsutzetic libre
gueratu zana (4).

San Buenaventurac: Gure Echeoandrea bere san-
tificatzean aurrez prestatzen zuan graciaz betea izan
zan au da, jatorrizeo pecatuaren galeric gordetzen
zuan graciaz (5).

Sena-co san Bernardinoc: Jatorrizeo pecatuaz
manchatutaco araguitic Jaincoaren Someac jayo naico
zuala, sinistecoa ezta (6).

San Lorenzo Justinianoc: Bere sortzetic prestatu
zuan Jaunác gozotasinezco bendicioaquin (7).

Ezjaquin jaquintsuac: ¡O Doncella guciz gozo!
arquitu cenduan gracia, eta bestec ez becelaco gra-
cia, bada lenengo instantetic izan ciñan jatorrizeo
pecatutic gordea (8).

Orobat diote beste Maisu andi ascoc.

Bada goacen: iritzi ta sentenci on onen eguia-
tasuna segurutzat iduquitzeo dauzcagun arrazoy ta
bideac dira batez ere bi. Lenengoa, cristau fededun
guciac aintzat iduquitzea. Erligiosoen ordenaz ezta

(1) In epist. apud Syn. tom 3 p 507, (2) Conc. Disp. de Virg.
Mar. (3) Or. 2. de Nat. Virg. (4) Serm. de Ass. Virg. (5) In Ps.
101. (6) Serm. 2. de Ass. (7) Tom. 3. Serm. de Annunt. (8) Cap. 6

cer itzeguin (1), bada Santo Domingoren ordenacoac berac iritzi au on eguiñaz eun ta gueyago jaquint-sue escribitu dute, eta Eliz eguiazcoaren iritzia au dalaco aguiriric andiena becela, 1661 garren urtean bertan Aita Santu Alejandro VII. rrenac bere bulda sonatu: *Sollicitudo omnium ecclesiarum*—ean aguertzen zuan, eeen orduraco ez bacarric escol andi edo Unibersidadeac, baicie munduco cristau fededun gueyentsuac ere ontzat artu zutela sententia biotzuquigarri au. Escola andietatic ez al da izango bat, non escolauac graduac artzeracoan Mariaren Sortze edo Concepcio garbiaren misterioa defenditze-co juramentu eguiten ez duten (2). Cristau fededunen era bateraco sinismen au duda guciac camporatzen dituan arrazoya da (3), ceren baldin ceruetaraco bere jasoera gloriuzcoaren gañeco segurantza ematen badigu, orobat segurutu bear digun bere Sortze guciz garbi manchagabea.

Bigarren arrazoya, eta lena baño oraindic indart-suagoa, da, Concepcio manchagabe onen pesta Elizac celebratzea, gauza guciz ciertoa dalaco, ecin inoiz ere celebra lezaqueala santua eztan gauzaric, Aita santu san Leon—ec (4), san Eusebioc (5), san Agus-

(1) Egid de Praef. Virg. q 6 n. 4. (2) Inongo ere alderditan Espanian bezañ zabaldua usadio santu au ez aihbestecoac ere Mariari eguiten zaizcan elizpestac herari zayon jaiera; eta Espaniaco eta Indietaco patronaren Sortze edo Concepci guciz garbi ta manchagabearen misterioa ots, poz eta anditasun gueyagoaz inon celebratzeu ezta (Itzulariac). (3) Julius Torni Epist. in Adn ad Est 1 2. dist. 3 §. 2. (4) Epist. Decret. 24 9. 1. c. in Sede. (5) Serm 91. et. 105.

tiñec (1), san Bernardoc (2) eracusten dnten beccia; eta santo Tomas-ec (3) Maria jayo baño len santificatua izan za'a, oneguiteco Eliza guciac beraren jayotzeco festa celebratzen dualaco arrazoý beratí ematen du. Beraz cierto eta dudagabetzat iduqui bear degu, jatorrizco pecatu edo pecatu originalgabe sortua zala, bada onetaraco misterio au ere Eliza gucian celebratzen dan arrazoý bera arquitzen da. Gure Ama maitearen pribilegio au on eguiteco conta al baño gueyago dira Concepcio guciz garbico chartelen bidez Jaunac egun oro eguiten dituan mirariac. Gure Congregacioco Aitac berac icusitaco asco conta nitzaque; baña hacarric contatuco ditut señalatuenetaco hi.

EJEMPLOA.

Gure Congregacioac erreinu onetan (4) dauzcan echeetatic batera emacune ezcondu hat etorri, eta negarra ceriola contatu zuan, bere senarra urte asco ayetan confesatu nay ecic cegoala, eta hura artara jarrieracitzeco cer eguiñ etzequiala, bada confesioaz itzeguiñ orduco berá maquillaz ebaquitzen zuala, Aita ayetaco batec azquieneco erremediotzat esan cion: Concepcio guciz garbico chartel hat gajo ari ematera saya cedilla. Gautu zanean emaztea abiatu citzayon len beccia ondo esanga, confesaeraci naye;

(1) Epist. ad Can Lugd (2) 2. p. q. 27. á 2 (3) Napolescoa.

baña len becela gor eta sor eguiten citzayola icusita, ipiñi cion escuan chartela; eta bere hura artu ez al zuan, bereala esan cion: Prest nago ¿noiz eramana nazu elizara? Emazteac añ supituco aldaera hura icusita, pözafen pöbez negarrari eman, eta bigaramon goicean ecarri zuan gure elizara. Ea cembat dembora zan confesatzen etzala, Aitac galdetu, eta oguey ta zortzi urte cirala, eranzun zuan. Ostera ¿cerc goiz artan etortzera muguitu zuan? galdetuta: Aita, eranzun cion, ni setan gogortua negoan; baña nere emazteac bart Ama Virgñaren chartel bat eman, eta beñgoan biotza trueatu citzadan, eta instantè bacoilza eun urte iruditzen citzadan, onara etortzeco eguna argui cediñ zalez ta deseoz. Izatez, ala Aita aren, nola bere nayerara confesatu, biciera berri on bat artu, eta luzaroetan Aita berarequin confesatuaz jarraitu zuan.

Salermo-co Obispaduco beste erri batean misioa eguiten gueunden, eta guizon bat beste batec eguin cion ofensa zala bide, guciac cequitela, onequin aserre bician cegoan. Paquéac eguiñ eta alcarrequin ongui jarri nayez, Aita bat berari itzeguitera joan, eta guizonac esan cion: *Orregatic ez noa sermoira, eta condenatuco banaiç ere, orreton utzico ez diot.* Aitac hura gozatu ta bide onera eracarteco al guciac eguiñic, gucia alperricacoa zala ezagutu, eta gueroenean esan cion: *Ar zazu Ama Virgñaren chartel au.* Guizonac chartelari icutu ere baño len eranzun cion: *¿certaraco serbi leguiquet paper orrec?* Ordea artu zuanean bereala, secular artara u-

catu ezpalitz becela, esan zuan: *¿Aita, cer da be-
rorrec niqandic nay duana? ¿Ni nere etsayare-
quin onqui jartzea? Pozic eguingo det.* Bigaramo-
nean alcarren arteco paquéc eguítccoan biac guel-
ditu ciran. Bigaramon goicean osterá uzeur topatu
zuten. Aita arc beste chartel bat eracutsi, eta artu
nai etzuan: noizbait bear ta, gogo gaiztoz bederie
artu, eta bertatic dio: *Orañ bay: ¿non da q rizon
hori?* Au etorri, biac alcarrequin egon, adisquidetu,
eta ofenditua confesatu zan.

ORACIOA.

Virgiña manchagabea, zuri añ garbi, añ aberats,
eta graciaz añ betea beguiratzean, poz-atseguin gu-
cizcoa artzen det zure zori onaz, eta pecatu gacitic
gorde zaitualaco Jaincoari esquérrac emnaz, eta
beti emateco uste eta gogoaz, prest arquitzen nuz
pribilegio añ preciatu orren defenzan, ala bear bada,
bicia emateco, biciro opa izanaz mundu guciac zu
beti ceruco argui eder arzaz betetaco egun senti gu-
ciz edertzat, pecatuaren ondamentitic libre guera-
tu zan salbacioco cuch artzat, Jaunaren atseguin-
contentua dan bergera ichi artzat, etsayaren arnas
pozoitsuac seculan loitu etzuan iturri seillatu artzat,
Jaungoico andiac beretzat esleitu zuan lirio zuri,
garbi, usay gozoco artzat ezagutzea ta aitortzea.

Utzi zadazu Esposo jaincozcoaren ótzaquin nereac
batuaz, nic ere zu alabatzen, esanaz: *guci hori ce-*

rala garbi ta manchagabea; eta alabaña graciaz, bertutez eta edertasunez añ betea zaude Jaunaren beguietan, beguira zayezu arren begui guciz eder eta erruquitsu oriequin nere animaco zauriay, cere erruquiac muguituta guciac senda ditzazun: !O biotzen iman tiraquiña! eraman eraci zazu nerea cereganonz beti betiraco, eta gogoraturic cere lenengo sortzearen instante beretic aguertu ciñala garbi eta mancharicgabe Jaincoaren aurrean, erruqui zaitenizaz, pecatuan jayotzeaz gañera batayatu ezquero ere milla aldiz nere anima loitutzera biurtu naizan onezaz. ¡Cer ucatu al izango dizu Alaba, Ama ta Esposa zaituan, eta onegatic pecatu gucitic libre eta creatura gucien artean esleitua eguin zaituan Jaunare! Virginia guciz garbia, zue salbatu bear nazu. Suerte añ zorionecoa iriñhi dezadan, ez eguidazu utzi zutzaz iñoiz ere aztutzen, eta zu ere ez arren aztu nitaz. Milla urte iruditzen zat zure edertasuna ceruan icustera joaten dijoaquidan dembora, beticoera gucian zu amatzeco ta bedeicatzeco. Amen.

II. ^{co} ITZALDIA.

Mariaren jayotza miragarriaren gañean.

**Maria santutasunez gañez eguiteraño betea
jayo zan.**

Guizónac pesta eta poz-eracutsi andiaquin cele-

bratu oy dituzte beren seme alaben jayotz-egunac, eta luto eta penaren señalear agueru bear lituzquee ezagüera eta merecimenturiegabe jayotzeaz gañera, pecatuaz loituac, Jaincoaren aserrean, eta mundu onetan naigabe-pena asco eraman, eta laster eriotza sufritu bearrean jayotzen dirala, beguiratuta. Mariaren jayotza da era gucielaco poz-eracutsiaquin celebratzea mereci duana, ceren izatez aurchoa dalatic, merecimentuz eta bertutez gañezturic datorren mundura. Bere jayotzetie dacarren bertutezco aberastasan guciz andia cerbait ezagutzeco, beguiratu bear degu lembici, gracia ceñ andiaz Jaincoac berealatic prestatu zuan, eta higarren, nolaco esquer eta leyltasunaz gracia añ garay bictoreari berealatic eranzun cion.

I.º PUNTA.

Mariaren anima Jaincoac utsetie egündaco anima gucien ederreña izan zan; izan zan Jaincoaren escu gucialdinetatic intendaco obren oso, cabal eta garayena, eta beraren diñacoena (bereciac beti Seme Jaincoaren araguitzea). Beragatic, Jaincoaren gracia etzan jechi Mariagan inz-tanten guisan, beste santuetan becela, ezpada curi ugaritsuaren guisa (1). Bere anima guciz santa graciazco curi gucia, tanta bat bera galdugabe, beragana eracarri

(1) Ps. 74. 6.

zuan ille hortarequin berdintzen da (1), santuac tasaz eta neurriz artzen dituzten ondasun gucien jabe oraindic jayo baño len gueratuaz (2).

Bere gracia, santu bacoitzarena baño andiagooa izan zan, eta santu eta aingueru guciena batean baño andiagooa, Jesusen Compañiaco Aita Francisco Pepé guciz jaquiñtsuac, Jesus ta Mariaren anditasunen gañeco bere liburuan ondo eracusten duan becela (3), ceruco Erreguiñari añ gloriatsu zayon iritzi au berariaz ondo eta astiro beguiratu eta esamñaturic, lengo teologoac eguiñ etzutena eguiñaz oraingoac ciertotzat daucatena dala, segurutuaz (4). Eta gañera dio, ecen Virgiña santac berac Aita Martin Gutierrez-en bidez (guizon santua) eman eizcala esquerrac Aita Francisco Suarez-i iritzi añ segurutzat dagoan au alaco bicitasunaz defenditu izan zualaco, ceñabaita guero Salamancaco Escola andietan guciac batera defenditu zuten.

Orañ ondo, baldin gucien iritzi edo sentenci au ciertoa bada, guciz proga-erraza izangoda, bere sortze guciz garbiaren lenengo unetic artu zuala santu eta aingueru gucien bertutea batuta baño andiagoco gracia guci au, eta au oneguiteco, maisu andi ascoc onetan egoteaz gañera, dande bi arrazoy guciz indartsiac.

Lenbicoa da, Seme Jaincoaren Ama izateco esleitua izan zalaco creatura guciena baño goragoco

(1) Basil. in Cant. D. Th. in 4. Luc. (2) Bonavent. Serm. 3. de B. V. (3) Tom. 3. lez. 156. (4) Cartagena, Suarez, Spinell, Recupilo, Guerra, eta beste ascoc.

garaitasuna, eta nolerebait Seme Jaincozcoaren jaincozco izatea Guizatasunarequin batutzeari dagoquion beclacoa izatea; eta onegatic bere Ama guciz santari bere sortzetic eman citzaizean doayac paregabe andi ta garayagoac izan ziran, gañeraco creatura guciay eman citzaizenac baño; izanaz duda ecin litequeana, Jaincoaren Semea beticoera gucitic señalatua cegoan becla Guizon-eguiteco, bere Ama ere ala señalatua izan zala, eta gañera, Santo Tomas-ec, beste santuaquin(1) Apostoloaren doctrinari darraiquiola, eracusten dualaco, ecen, Jaincoac carga edo diñadiren bat norbaiti ematean, ematen ere diola diñadi aren neurrian gracia, bera ondo eta bere anditasunac escatzen duan becla betetzeco bear diran doay guciaquin. Eta nola Jaincoaren Amatasuna diñadi gucien gañecoa baitan (beti Seme Jaicoarena bereciac), artu zuan bere sortze edo izatearen lenengo unetic neurrigabeco gracia bat, aingueru ta santu gucienari guciz eraguña, diñadi añ goratuari cegoquion aimbatecoa, eta azquenic, añ andi, añ garay, añ muga ta ondogabea, non Jaincoaren Amatasuna merecitu zuan(2). Onela deitu zan graciaz betea, ez ceren Jaincoac eman cezaquean gracia gucia eman citzayon, bada Santo Tomas-ec eracusten duan becla, Jesucristo beraren orduco gracia etzan izan ecin gueyagorañocoa, orañ itzeguiñaz goacen eran adituta, ceren Jaincoaren escu eta

(1) 5. p. q. 27. a. 5. Bernardin. Sen. Ser. 10. á 2. c. 1. (2) Thom. loc. cit. art. 4.

al izatea añ neurri ta mugabaguea dan, non, cembat gueyago eman, beli gueyago guerutzen zayon emateco, gueyago ta gueyago zabal dezaquean becela creaturaren barrumbea gracia gueyago ta gueyago berari emateco; baicic esan nay du, nola Jesucristori, ala bere Ama guciz bedeicatuari eman eitzayela neurri, eta ondogabeco gracia bat, graci onen sin guciz andi ta gorari cegoquion diñacoa, izanaz siñ ayec Seme Jaincoaren Persona Guizatasunarequin batutzea, eta Virgiña, Ama izatea (1).

Arrazoy andiaz esan zuan bada David erregue profetae, Jaincoaren uri edo erriaren (au da, Virgiña santa berá) oñ edo cimenduac ipiñico cirala menditontorretan (2); bada bere bicitza garbi manchagabearen asiera, santu gucien justutasunari eraguiña izan bear zan. Jaincoác besteay baño gueyago nay dio, bada beraren erray guciz garbietan nay izan zuan Guizon eguiñ, eta ala berari eman ciozean gracia ta doayac berealatic izan ciran alaingo dicha ta diñadi goratuari cegozquion eracoac.

Au berá emian zuan aditzera Isaias—ec aldeaurrez, esan zuanean: eecn etorquizon ciran demboretan prestatu edo jasoco zala Jaunaren echea eguiteco mendia beste mendien gaillur edo erpuñen gañean, eta beragatic mendi onetara etorrico cirala gende guciac, eta artuco zutela misericordia eta gracia (3), ceren Mariác guciz goyen argui eguiten duan, Jaincoác bertan bicitzeco, esleitu zuan mendia berá izan

(1) Thom. d. q. 7. art. 10. ad 1. (2) Ps 28. (3) Isai. 22.

zalaco, eta ceren bera dan Siongo mendico cipresa eta Libano-co cedroa eta oliba ederra, eta eguzquia becela esleitua, ceñaren aurean izarrac beren arguitasuna ezcutatzen duten; azquenic ceren santutasunean añ dan garaya, non ez Jaincoac izau bear zuan beste Amarie; eta ez Mariae Jainco etzan beste Semeie (1).

Santu gucien santutasuna batera bilduta baño Maria bere sortzearen lenengo unetic santago zala aguertzen duan bigarren arrazoya da, guizónen bitarteco eta amparatzalle izateco bere sortze garbiaren asieratic eman eitzayon eguinquizon eta beargay guciz garaya; eta au zala bide, ordotic eguin bear zan beste santu gucienac baño andiago, ugaritsuago eta beteago ciran gracien jabe. Maria da amparatzalle ta bitartecoa, bere bitartecotasun indartsu eta merecimentu, artaraco guciz egoquiaquin irichi cielaco guizon guciay osasuna, billatuaz bere al guciac gucientzat erredencioaren frutu ta mesede neurri eta tasagabea. Beti aditu bear da bacarric Jesucristo dala bere herézco merecimentuz gure bitarteco bacarra, bere merecimentuac Ait Eternoari esqueñi eta Aitac gure salbaciaco ontzat artu ciozcalaco; eta Maria beste aldetic dala gure bitartecoa graciaz, bitartecotasunez eta bere merecimentu ugaritsuen bidez, berac ere bere merecimentuac gure erredencioaren alderaco esqueñi, eta Ait Eternoac Jesucristorenaquin batera guciz ontzat artu ciozcalaco. Eta ala gauza bat

(1) Bernard.

bera irichi eigiten biac alcarrequin (1); eta Mariae gucion erendencioa opa izan zuan, escatu zuan, irichi zuan eta bera zala bide izan guñan doatsu (2), santuelaco bacoitzac beraren bidez artuaz betico bicitzaco ondasun eta doay gucia.

Au da eguiazqui Elizac adiraci nay duana, Maria-ri zucentzen diozcanean Escritura sagraduco Ecclesiastes deritzan liburico 24 garren buruan esribituac dauden itz oec: *In me gratia omnis viae et veritatis: nigan dago equiaren bidea* (ezagutzeco) *gracia gucia*. Esaten da *bidea*, ceren Mariaren bidez ematen zagun erbesteco edo arrótzac becela oraindic bidez guacenoay gracia. *Equiaren*, ceren eguiaren arguia ere beraren bidez eman eitzagun. *Nigan*, dio gañera, *dago bicitzaren eta bertutearen esperanza gucia*. *Bicitzaren*, bada Mariaren bidez uste degu graciazco eta gloriazco bicitza, eta *bertutearen*, bada beraren bidez iristen dira bertuteac, eta batez ere gu salbatzeco bearrac diran Fede, Esperanza, ta Caridadea. *Ni naiz amore ederrézco, beldurrezco, ezagüerazco eta esperanza santuzco Ama*. Ala da: bada bere bitarlecotasun indartsuaz iristen dizte bere serbitzariay Jaincoaren amore, beldur santu, eta ceruco arguiaren doayac, eta Jaincoaren ontasun eta erruquimentuaganaco uste eta con fianza. Emendie ateratzen du san Bernardoc guciz ogoqui, Eliz eguiazcoaren doctrina becela, Maria dala guciraco gufe bitarteco eta amparatzallea; eta arrazoy beragatic dei-

(1) Arnold Carnot. (2) Ric a S. Viet, c. 26, in Cnat.

tu cion aingueruac graciaz betea, alabaña beste gañeracoay neurri eta tasaz emanic, Mariari gucia oso eman eitzayon, eta au guizonaquin Jaincoarequico bitartecotasuna eguiteco diña izan cediñ (1), ¿ezperen aibeste graciagabe nola citequean au? ¿Nola izan al citequean ceruraco escallera; munduaren bitarteco eta betico doatsutasuna ostera irabazteco Jaincoarequin ongui jarrico guinduan bide (2)? Orañ icusten da guciz arguiro lenago jarri degun bigarren arrazoyaren indarra. Baldin bere sortzearen lenengo unetic eman hacitzayon gure bitarteco izatearen beargay erruquitsua, gauza bearra izan zan berac bere bitartecotasuna eguin bear cien santu gucien gracia guciac alcar jota baño graci andiago batez apa-indua une artalic bere burua icustea. Da esatea, baldiñ, Mariaren bidez izan bear baciran guizonac Jaincoaren onetsi edo gogoco, berá beste guciac baño onetsiago izatea guciz bearra izan zala. Ezperen ¿nola eguiñ al izango zuan gucien bitartecotasuna? Bitarteco batec Erregueagandic cernay mesede aguin-dupecoay iristeco, oec gucioc baño obeto egon bear du Erreguearequiñ; eta ala dago Maria Jaincoarequin (3).

Eta aingueruen ere bitarteco izan zan, bada Teologo ascoc gauza segurutzat diote, aingueruay ere merecitu ciela onean irauteco gracia? Galde oni diotsagu, Salbatzallea izan zala berezco merecimentuz

(1) Basil. (2) Laur. Justin. Serm. de An. B. V. (3) Anselm. de Excell. Virg. c. 9.

ala izatea cegoquion, eta zan beren bitartecoa, eta Maria Jaunac emandaco graciën bidezcoa, Erredimitzallea lasterrago eracarriaz; edo beintzat, Jaincoaren Amatasuna merecituaz, merecitu cien aingueruay gloria eräsquiña becela, espiritu gaiztoac galdu cituzten jarlecuac berriz osatzea (1).

Ala ciertotzat iduqui bear da, alabaña ceruco aur gozo au munduarequin Jaincoaren bitarteco izateco eta Erredimitzallearen Ama izateco esleitua izan zan, santu guciay eman citzayen gracia baño andiagoa izan zuala berac bere sortzetie. Eta au onela izanic, beguira zagun joya ceñ atseguin eta pozgarria zan arrez geroz aurpreciatu onen anima ceru-lurren aurrean. Creatura guciën artean bera zan, dudagabe, maitagarriena Jaincoaren beguietan, ceren orduraco gucia graciay eta merecimentuz betea cegoñac becela, berealatic esan cezaquean: *Cum essem parvula, placui Altissimo*. Eta zan gañera ordu artaraño munduan aguertu ciran creatura guciën artean maitatzalleena; alatan non, baldin sortu zanean bereala jayo balitz, bertatic icusico zuan munduac santu guciac baño bertutez eta merecimentuz beteagoa. ¡Badi cembat andiagoa izango zan bere santutasuna jayotzeko puntuan, orduraco bederatzi ill ayetan irabacitaco merecimentuaz aberastuta!

Igaro gaitean orañ bigarren puntuan uquitzen deguna beguiratzera, au da, leyaltasun ceñ andiaz Jaincoaren graciari eranzuten berealatic asi zan.

(1) Ric a S. Vict. in Cant. 4 Anselm. de Exc. Virg. c. 11.

II. en PUNTUA.

Ez guizon laren iritzia, espada mundu guciaren nstca da, Mariac santa Ana guciz gloriatsuaren sablean Jaincoac bere gañera isuri cion gracia santutzallcarequin artu zuala arrazoyaren uso edo ezagüera oso betea, eta beste gañeracoac baño ezagüera gorago eta eman citzayon graciari cegoquionerañoco bat. Sinis guentzaque ere, ecere galeracigabe, anima ederra gorputz guciz garbiari batu citzayon lenengo me beretic, Jaincoac bere jaquintasunaren arguierañuaz arguitu zuala, berecatic ezagu citzan betico eguiae, bertuteen edertasuna, eta hatez ere creatura guciac maitatzearen, baña berezquiro berac, beste creatura gucietatic berezcatu eta esleitua, jatorrizco pecatatic aldeurrez gordea eta Jaincoaren Ama eta ceru-lurretaco Erreguin izateco señalpen goratuari cegoquion craco graci añ jaincozcoz betea izan zalaco, maite izatearen añ dina zan Jainaren ontasun neurrigabea.

Emendie ecen, lenengo instante artatic Jaincoaren añ atseguingarri zan becela, abiatu zala garaitasun guciac eta ecin obeto eranzuten eta bear eguiten, eman citzayon bertutezco ondasun eta caudal andiarequin mercataritza leyalqui eguñaz, Jaincoaren ontasunari atseguin eguitera eta bera amatzera bere indar guciac sayatuaz, eta bederatzi ill ayetan beti ala jarraituaz, amorezco acto guciz bero iracequiaz

Jaincoarequin batugabeco instante bat ere joaten utzigabe. Libre cegoan jatorrizco pecatutic, eta bera-gatic beti libre lurreco gauza guciacganaco gogo eta zale gucitic, eragabeco muguialdi gucitic oarcabeta-sun gucitic, Jaincoagana egatzeco, eta beti eta as-pertugabe bera gueyago ta gueyago amatzeco beti ernay eta prest ceuden sentiduen guerra gucitic. Bada onegatic deitu zan herunz dijoacen uren ondoan aldatu, eta graciazco ibayen ondoan onguirotua dagoan landare mardula becela beti frututsu dagoan platanoa (1), eta deitu zan matsondo ecarguina munduaren beguietan an humilla izan zalaco ezezie, ichasteco arbolen bat daucan bilartean igotzez gueratzzen ezlan matsaren guisa gueratugabe beti aciaz cijoalaco ere. Bera bere maiteari lotu citzayon (2), eta ala bertutearen erpiñera igotzez inoiz ere gueratu etzan.

Gañera teologoac diote, ecen cernay bertuteren oitura daucan anima batec ceruco laguntzarequin edo berac artutaco oituraz orduan dauzcan graciay eranzuten leyal bada, beti diardula bere oiturarequin berotasunean berdintzen dan acto bat eguiten, alatan non, acto oyetaco bacoitzean mercedentu berri eta len alaco bicoa, au da, len irabacita ceuzcan guciac aimbatecoa irabazten duan. Guici au, diote, eman citzayen aingueruay, oraindic, bidezcoac becela, merecitzeco bidean ceudenean; eta baldin aingueruay gracia au eman bacitzayen jnore ucatuco du e-

(1) Eccl. 29. 12. (2) Innixa super Dilectum suum.

man citzayola Virgiña guciz santari bere bicitza hilcor gucian, baña batez ere orañ esaten ditugun bederatzi ill ayetan, bada oetan ainguerúac baño asco leyalago izan zan Jaincoaren graciari erantzuten? Eta nola bere indar guciaz eta eciñ obeto erantzuten baidion, eguiten cituan acto bacoitzari ta guciay puntutic puntura merecimentuac doblatuaz cijoan, alatan non baldin lengo actuan graciaco milla malla baceuzcan, bigarrenan bi milla ceuzcan, irugarrenean lau milla, laugarrenean zortzi milla, bostgarrenean amasey milla eta seigarrenean ogueita amabi milla. Eta au bere sortzetic seigarren instantean izan bazan, jo ditzagun egun bateco merecimentuac, eta guero bederatzi illetaco egun gucietacoac, eta dacuscun cembaterañoacoac ciran mundura zan instantean bere anima apaintzen eta edertzen zuten espirituco ondasúnac.

Atseguin dezagun, bada, aur maitagarri onequin, añ santa, graciáz betea eta Jaincoaren beguñen zoragarria ieusteaz milla poz-eracutsi berari eguiñaz, eta atseguin dezagun beragatic ezeccic, gugatic ere, bere gloriaraco ta gureraco dator mundurata.

Iru eratara bete zuan Jauníc graciáz (1). Lenengo, beraren anima zan gucia oso, berea izango zan eran, lenengo instantetic beteaz. Bigarren, Seme Jaincoa bere araguij jaztea merecitu zuan gorputza ere beteaz. Irugarren, izan zan graciáz betea gucion one-raco, alaingo ugaritasunetic guizon guciac ar cezaten.

(1) Thom. Opusc. 4.

Cembait santue aimbesterañoco gracia daucate, non berentzat ezecie beste ascorentzat ere ascodiña dan; baña bacarric Jesusequin Mariari eman citzayen gu gucioc salbatzeco diñaco aberastasun eta betetasuna (1), eta arrazoy onegatic san Juan-en esan au Salbatzallearen betetasunetic artzen degula gucioc, santuac luzatzen dute Mariagana ere (2). ¿Eta izatez misericordiren baten mesedea eguiñ eztion nor izango da munduan? beti aditu bear bada ere, Jesucristogandic artzen degula gracia bere eguille dan becela, eta Mariagandic, bitartecoa dan becela; Jesucristogandic, Salbatzallea dan becela, eta Mariagandic gure amparoa dan becela; Jesucristogandic iturria dan becela, eta Mariagandic Jaunaren urricaltasunen urbideagandic becela. Eta onela encargatzen gaituzte santuac bideguin dezagula Virgiña guciz garbi onegana gueron uste eta ezperanza beragan ipiñiaz, bear becela nay eta esca guentzaquean gucia bere escutic artuco degulacoan seguru egonaz; eta batez ere san Bernardoc segurutzen dign au, itz eztitsu oequin: *Bequirá debocio ceñ biguñ eta samurraz que bera honratzea Jaincoác nay duan; dada beraren escuetan ipiñi cituan Jaun onec bere ondasun quciac, gure esperanza eta salvacioa beragandic datozela jaquin dezagun* (3). ¿Graciaren urbide au bere erruz isten duanaren errucarria! ¿Cer eguin zuan Holofernes-ec Betulia artzeco? Erriraco urbideác autsi. ¿Eta cer eguiten

(1) Thom. Op. 3 (2) Thom de Villan. An (3) Serm. de Aquaed.

du demonioac anima batean sartzeo? Maria guciz santaganaco debocioa galeraçitzera sayatu. Baña jay! urbide añ osasungarri au ichi ezquero laster galduco ditu guizonac gracia jaincozcoaren laguntza, ceruco arguia, Jaincoaren beldurra, eta, bere azqueneco zorigaitza becela, betico salbacioa. Iracur bedi ondorengo ejemploa, eta icusico da alde batetic Mariaren biotz biguñaren ontasuna, eta bestetic Virginiã cruquitsu oneganaco debocioaz aztutzen danac bere buruari eracartzen dion zorigaitz izugarria.

EJEMPLOA.

Tritenioc, Canisioc eta beste gueyagoc contatzen dute, ecen Sajoniaco Magdeburgon bici zala Ugo ceritzan guizon bat. Au mutilehoa zanean añ lotu eta buru escasecoa zan, non bere quide ta laguu gucien parragarri zan. Onegatic guciz goibeldua arquitzen zan egun batean Maria guciz santaren imagiãa baten õnetan auzpeztu, eta bere amparo ta laguntza escatu cion. Virginiã ametsetan aguertu, eta esan cion: *Ugo, eguingo det escalzen didazuna, eta irichico dizut Jaunagandic zutzaz inor ez bur-latzeco diñaco jaquintasuna ezeçic gucien miragarri izango dan burua ere, gañera segurutiaz ecen: Obispoa hill dedinean zu izango cerala bere ondorengo.* Guci au onela guertatu zan. Ugo jaquindectan beste guciay eraguiniã irten, eta Obispo izatera etorri zan; baña Jaincoarequin bere onguille

ceruetaco Erreguñaganaco añ esquer beltz itsusicoa izan zan, non debocio gucia aldebat-utzi, eta mundu guciaren gaitzbide edo escandalo izatera irichi zan. Gau batez bear etzan lagunarequin oycan cetzala, aditu zuan ots bat, esanaz: Ugo, asco da jostaquetarie; eguin diozu Jaincoari ofensarie asco; bere biciera galdua arpeguira eman nay cion personen batenac cira'acoan, guciz gaiztat artu eta aserreraci zuten itzac; baña bigarren eta irugarren gauean ere itz berac adituta, ceruco gaztiguren bat ote zan beldur-aiceac artu zuan; baña biciera galgarri hura uzteco asmogabe. Beregan sartzeco Jaincoac eman ciozcan beste iru illabeteren buruan cigorrada irichi zan. Federico ceritzan Canonigo jaincooy bat gau batean san Mauriciooco elizan Obispoaren galbide ta escandaloa galeraci cetzala, Jaincoari erreguca oracioan cegoala, batetango aice-golpe andi bat jaiqui, eta elizaco ateac ciran aimbatean zabaldu ciran. Gazte bi hacha iracequi bana escuan zutela sartu, eta aldare nagusiaren aldamen bietan jarri ciran. Oen ondoren beste bi etorri eta oec alfombra bat aldare beraren aurrean zabaldu, eta onen gañean urrezco silla andi bi ipiñi cituzten. Bereala beste bat soldadu jantzian eta escuan ezpatarequin sartu, eta elizaren erdian gueratu, eta onec deadar eguin zuan esanaz: *ceron erliquiac eliz onetan dauzcarquitzen santuac atozle juez gucien Juezac equingo duan justicia icustera*. Ots onetara aguertzen dira santu asco eta oequin, juicio artaco letradun lagunac becela, amabi apostoluac, eta bereala Jesu-

cristo sartu, eta silla ayetaco batean jarri zan. Gueroencan Maria guciz santa doncella talde andi batequin etorri, eta bere Seme Jaincoac silla escañi, eta an jarri zan. Orduan Juezac cecarquiotela gaitzquillea, aguindu, eta au patu gaiztoco Ugo zan. Alaingo gaitzbide, ta escandaloa artu zuan erriaren aldeic san Mauricioe itzegin zuan, guizon gaizto aren biciera galdu galgarri ari justicia eguin cequiola, escatuaz, eta guciac batera deadar eguin zuten, esanaz: Jauna, eriotza mereci du. Hill bedi, bada, esan zuan juezen Juezac. Baña sentencia eguiteratzera baño len Ama guciz santa, (jó ceñ andia dan bere urria!tasuna!) lance añ beldurgarri hura ez icustearren andie irten, eta bereala soldadutzaco are bere ezpatarequin Ugogana alderatu, oni colpe batean lepoa moztu, eta icusgarri guci hura beguieratic galdu zan. Orduan gucia illumpean gueratu zan. Canonigoac, gorputz gucico icarac artu, eta elizaco guelupeetan icioa cegoan lampara batera joan, argui bat piztu, eta bere arequin biurtu zanean, icusten du lurrean odolistilletan datzala Obispo dichagabearen gorputza burua quenduta. Goicean elizara joan zan gendeari guertaera gucia contatu, eta egun artan bertan aguertu citzayon Ugo condenatua onelacoric etzequien bere capillau bati. Bere gorputz hillotza putzu batera bota zuten, eta betico gogoangarri izateco odol hura an gueratu zan. orañ beti estalia dago, eta ordutic jarri zan Obispo berriari bere sillan jartzen danean odol hura aguertuta eracusteco usadioa, castigu añ izugarria beguie-

taratu, eta bere bicieraren zucentzean pensa dezan, eta Jaunaren eta bere Ama guciz santaren mesedeay esquer gaiztoco izan ez daquien.

ORACIOA.

O aur guciz sautua, zu Erredimitzallearen Ama eta peccatarien amparo eta bitarteco izateco señaipendua zauden hori erruqui zaitz nizaz, bada icusten nazû cere oñetan auzpeztuta zure misericordie esque; eta nere esquergabequeriagatic zuc eta Jaincoac escutic uztea mereci dedalaric, eztet galtzen nere uste eta confianza, zugana bideguiten duan peccatari damutua ontasun eta misericordiaz beti betea zauden orrec iñoiz ere ceregandic botatzen eztezula, daquidalaco. Bada ó aur guciz preciatu eta creatura gucien garay ta goratuena, bada zure tronuz gannetic bacarric Jaincoarena dago, eta ceruco andienac chiqui dira zure aurrean, ó santuen santa, ó graciaz betea eta graciazco itsaso ondo ta baztergabea, lagun zayozu gracia galtzearen zoraqueri andia eguin zuan urrialquizon bati. Ondo daquit Jaincoac añ maite zaituala, non ecer ucatzen eztizun, eta gañera daquit, cere anditasun eta balimantu guciaz peccatariay laguntzean daucazula cere atseguin contentua. Ah! Ama maitea, ezagüeraci zayozu munduari ceñ ondo zauden Jaincoarequin, irichiaz niri, peccatritic justu izatera biurtuco nauan argui ta sugar jaincozco bat, baña añ indartsu ta craguillea, non

nerre anima lurreco gogo, gura ta zale eragabe gutietatic erantzi, eta Jaincoaren amorean sutuco duan. Onela eguizu arren, Ama gozoa, onela eguizu, añ andi, añ altsu, eta añ on eguin cinguan Jaincoaren amorez. Ala uste det zure ontasunagandic. Amen.

III.^{en} ITZALDIA.

Mariac bere buruaz temploan eguin zuan ofrenda

Maria luzapengabe, eta zan gucia oso eman citzayon Jaincoari.

Ez izan ta izango ere da seculan creatura uts baten aldetic esquein ob: ta osoagoric Mariac bere iru urteetan Jerusalengo elizan presentatu zanean Jaincoari eguin ciona baño, ofrendatuaz, ez usai gozozco licurtac, cecórrac, urrezco edo cillarrezco diruac ere, baicic bere burua, Jaincoaren guciz gogoco ofrenda edo sacrificio atseguingarrian, Jaunaren gloriara betico consagratu, edo emanaz. Ordutic aditu zuan, Jaincoac bere amorezco erregaloetara eguiten cion deya, esanaz onela: *Lasterrequizu eta atoz ene maitea* (1), bere erri, aide eta gauza guciaz berealatic aztu dedilla, bigunquiro esanaz, bacarric beraren honra ta serbitzuari beguiratzeco, aurrac bertatic e-

(1) Cant. 2.

gum zuan becela. Beguira zagun bada ceñ oniritzi ta gogoco Jaunari izan eitzayon borondate añ prest eta oso au, eta izango dira bi puntu.

1.º PUNTUA.

Gauza jaquiña da, aur ceruco onec bere Amaran sabelean santificatua izan zan une berean izan zuala arrazoyaren ezagüera oso betea, eta onequin berealatic asi zala merecizen, maisu andi gueyentsuaquin Aita Suarezec dion becela, esanaz, nola Jaincoac animen santificatzean graci au anima ayen merccimentuz edo berac merecila eguiñ oy baituan, santo Tomasec eracusten duan becela (1), Maria onela santificatua izan zala, sinistu bear degula (2), cerco baldin onelacoa izan bazan aingueruay eta lenengo guizonari eman eitzayen pribilegioa (3), arrazoy ta bide gueyagorequin uste bear degun eguingo eitzayola Mariari, ceren Jaunac bere Amatzat esleitu nay iran zuanez gveroz nola nay ere creatura guciac bano ondasun ugaritsuagoaz biterco zuan (4). Amac becela Semearen onguite edo mesedeen escabidea ceucan (5), eta Seme Jaincoa Guizatasun santuarequin batutzearen edo, teologoac dioten becela, batutze hipostaticoaren bidez ceruco gracia gucien jabe bera

(1) 3. p. q. 49. a 5. (2) Suar tom. 2. in 3. p. D. 4. 5. 3. (3) 1. p. q. 65. a 5. et q. 95. a 2. (4) Thom. 3. p. q. 27. a 5. (5) Suar. T. 2. in 3. p. D. 4. 5. 2.

izatea berez ceterren gauza zan becela, Jaincoaren Ama izateac ematen cion garaitasun miragarria zala bide gauza justu ta bidezcoa izan zan, Seme guciz amoretsuac bere Ama gozolari ceruco santu eta aingueru guciay baño doay ta graci andiagoc ematea; eta beste gracia gucizcoen artean ¿cer mingañec azalduco luque bere lenengo instantetic ceñ ongui bere Eguillea ezagutzen zuan, eta amore ceñ iracequiaz bere nayera berealatic seculoco esqueñi zan (1)?

Andic laster, jaquiñic aur guciz santuac, bere gurasoc promestu ciotela Jaincoari (2), promes edo botoaz, baldin bedeicaciozco frutua ematen bacien elizan bere serbitzura consagratoico ciotela, eta izanic juduen artean anciñaco usadioa, elizaren ingurucoc bicilecu batzuetara batu eta an doncellac acitzea (3), iru urte bete ez al cituan (4), (berac gurasoen beguiratze eta gozamen gueyena bear duten garaya), nay izan zuan Jaincoaren serbitzura oso ta aguirian jarri, eta orañdic aurreratu zan bera bere gurasoc leyaz escatzera, etzezatela luzatu promesa betetzea, berealatic eguiñ zuten becela (5).

Ona emen non esposo biac mundu onetan maiteen zuten prenda Jaunari ofrendatzera beren hura beñ batac eta beñ besteac besoetan zutela, (ceren berac bere óñaz bide añ lucea eciñ eguin cezaquean) Nazaretic irteten diran, beren erreguiña serbitzen, eta

(1) Birg. Rev. Serm. Ang. c. 14 (2) Loc. cit. (3) Onela segurutzen dute cembait jaquintsuc (4) Santu ascoc diotenez (5) German et Epiph.

berari beren poz atseguñac eracusten millaca aingueru lagun cituztela. ¡Oh! ceñ eder eta atseguin-garriac zayozcan Jaincoari, cantatuco zuten espiritu doatsuac, zuc cere burua beraren echean esqueintzera joanaz, ematen dituzun pausóac, ó alaba, beste gucien artean guciz maite eta oniritzia! Jaincoac berac egun artan festa eguin zuan bere Corte guciarequin (1), ceren hura baño creatura santa eta maitagarriagoric elizaratzen seculan icusi etzuan.

Zoaz, bada, munduco Erreguñá, zoaz atseguin contentuz Jaunaren bicilecra, Espiritu Santuac Semé jaincozcoaren Ama eguingo zaituan orduaren beguira egotera (2).

Aur guciz humillac, bere gurasoquin templora irichi zanean, bereala oen onetan belauñicatu, eta beguiramentu guciaz béren escuay muñeguiñ, eta béren bendicioa escatu cien. Guero atzera beguiratugabe, diotenez temploan ceuden amabost escallera-mallac igo, eta jarri zan apaiz nagusiaren aurrean (3), munduari bere azquen diosala eguiñaz, munduan dan gucia utziaz, eta bere Jainco eta Jaunaren serbitzura oso jarriaz.

Izan zan Noeren eucharic irten eta beré óñac ipintzeco toqui garbiric arquite etzualaco, osteracuch artara itzuli zan uso gaitzgabearen guisacoa. Belea gorputz hillac topatuta bere ayetan bazcatuaz, an gueratu zan bitartean, guizon ascoc lurreco uts-

(1) Greg Nis. Orat. de Nat. Christ. (2) Bernardin. de Bust. Marial p. 5, Sermon 1 (3) Germ. Archiep. Constantinop. de Obl. Virg.

queri eta lizunquerietan sartu eta bazcaturic eguiten duten bezela. Baña mancharen cutsugabeco uso onec, doncella añ eder onec. gure ondasun, esperanza ta amore bacarra Jaincoa dala, ezagutu zuan; ezagutu zuan lazo, perill eta labañarriz betea dagoala mundua, eta onequin lastertu zan mundu au berealatic utzi, eta bazter sagradu artara biltzera; an ecece galeracigabe, bere barrungo arguitasunac enzun al izateco, eta here Jabe jaincozcoa amatzen eta serbitzen oso jarduteco.

II, en PUNTUA.

Aur dichaz beteac orduraco bere adimentua arguitzen zuten ceruco arguitasunaquin ondo ezagutu zuan ezuala Jaincoac ontzat artzen biotza erdizca, baicic eta gucia oso nay duala beretzat, berac ipiñi cigun aguinde: *Amatuco dezu cere Jaungoico eta Jauna cere biotz guciac*, onen erara; eta ala, aguinde au betetzeco, bere sortzaren lenengo unetic abiatu zan bere al eta indar guciac Jauna amatzen. Baña bere anima guciz garbia Jaunaren serbitzura bere burua gucien aurrean emateco orduaren gutici andiaz cegoan. Beguira dezagun, bada, lecu santu artan sartua icusi zanean, nolaco berotasunaz, beste ecertara baño len, beguiramentu eta errespeto andi batez Jaincoaren echecho lurrari muñeguiteco auzpeztu zan; nola urrena Jaincoaren Magestadea adoratatu, eta añ aur zalaric, bere templo santuan artzeaz

eguin cion mesedeagatic esquer-eracutsi andíac e-
 guin, eta bereala oso ta bici Jaunari eman citzayon,
 bere gogo, eresi ta zale guciac, anima ta gorputza,
 ecer ere beretzat gordegabe, berari esqueñiaz, ga-
 ñera orduan bertan eguiñaz Jaunari atseguingarriago
 izan cequion, doncellatasuna beti gordetzeco boto
 edo promesa, izanaz berá promes au eguin zuan le-
 nengo doncella (1), bere bici guciraco Jaincoaren
 serbitzuan bertan gueratzeco asmo sendoaz, baldin
 Jaincoari ala baccritzan. ¡Nolaco espirituaz esango
 zuan heñ, berriz eta beti, an icusi zanean, *Nere
 maitea neretzat eta ni berarentzat* (2)! ¡*Oh ene
 Jaincoa! onara naiz al gucian zuri atseguin
 eta gloria eguitera. Emen bici nay det naizan
 guci au zuretzat, eta zue ala nay badezu, eriot-
 zeraño* (3). *Ar zazu ontzat zure serbitzari onec
 here buruaz eguiten dizun ofrenda, eta eman
 zayozu fin eta leyalizateco cere gracia.*

Begaira zagun asiera onequin abiatu eta bacar
 artan egon zan dembora gucian jarraitu zuan bi-
 ciera, non puntutic puntura bertutean aciagotuaz ci-
 joan, egun sentia arguitasuncan becela. ¡Nore esan
 norañoacoac ciran gueroago ta gucyago argui eguiñaz
 cijoacen bere bertute guciz garayen mállac? Carida-
 dea, modestia, humildasun isiltasun, bere buçua
 hillerazte eta biguntasuna? Zan Jaunaren echean al-
 datu, Espiritu Santuaren graziaz erregatu eta ber-

(1) Rup. Abb lib 4. de inst. Virg. (2) Cant. 2. 16 (3) Bernardin.
 de Bust Mar p. 4. Sermon. 4.

tute guciaz apaindutaco oliba orritsua becela (1). Bere arpeguia guciz modestitsua zan, bere biotza humilla, eta bere itzac gozo eta barrun biguñ eta beregandu batetic irtenac. An eman zan lurreco gauza guciac burutic urrutiratu, eta bertute gucien jardunbidera, an eguin zuan biciera utsaldigabea, eta añ gora igo zan, non Jaincoaren diñaco bicilecu izatea merecitu zuan (2): Zan obeditzean eta aguin-du guciaren eguitean zucena, sotilla, campotic modesti guciz andicoa, farra zoroen etsaya, beti berdiñ ta gozatsua, oracioan irauntia, Escritura sagradua iracurtera emana, baraura grinatua, eta debociozco eta urricaltasunezco beargay gucietaraco beti prest cegoana (3). San Geronimoc dio, egunaren orduac ceuzcala zucenduac guis onetan: Egun sentitie be-deratziac arte irauten zuan oracioan; eguerdi arte jarduten zan eheco lanetan, eta orduan berriro abiatzen zan oracioan, aingueru batec ecarri cegüo-neraño jatena. Esna ta ernay egoten gucien lenen zan, Jaincoaren legueac aguintzen zuanaren eguitean cintzo ta sayatuena, doncella gucien humillena eta bertute gucien jardunquizunctan zucenena. Secu-lan iñorc icusi etzuan aserre edo gaitzez jarrita, baicic eta bere itzac alaingo gozotasunaz irteten ci-ran, non bere mingaña muguitzen zuana Jaincoa zala (4) argüiro ezagun zan.

(1) Joann. Damas. lib 4. de Fid. c. 15. (2) Id. de Fid. Ortod. l. 4 c. 15. (3) Id. de Form. et Mor. B. M. (4) Vida de Maria del P. José de Jesus, lid. 2. cap. 1,

Virgiña guciz santac berác san Benitoren ordena-
 co virgiña santa Isabel-i aguertu cion, ecen bere
 gurasóac temploan utzi zutenean, certan atseguinén
 eguingo ote cioquean beti pensatuaz, bacarric Jain-
 coa Ailatatzat iduquitzeo, bere garbitasuna berari
 aguintzeo, munduco gauza guciac erabat uzteco,
 eta bere nay eta gogo guciac beraren nayera oso
 uzteco asmo eguin zuala. Gañera esan cion: leguea-
 ren beste aguindeen artean artu zuala bere eguin-
 quizun aundientzat gauza guciac gañetic Jaincoa a-
 matzea aguintzen digun, lenengoa, eta agunde au
 obeto eguiteco, gueyenetan gauerdian jaiqui eta joan
 oy zala aldarcaran aurrera, Jaunari bere gracia es-
 catzera, eta mesede guciz señalatutzat, Mesias-en
 Ama jayo cedineraño ez hiltzeo, au icusteco be-
 guietaco arguia, bera alabatzeco mingaña, bera ser-
 bitzeco escu eta óñac, eta beraren sabelean bere
 Seme guciz gozoari bere agur óñac eguiteco belaunac
 gorde cegiozcala: santa Isabel-ec au aditzean esan
 cion: *baña, Andrea, ¿graciaz ta bertutez betea
 etzeunden bada?* Oni Virgiña guciz santac eranzun
 cion: *Jaquin bear dezu, alaba, creatura gucien
 artean graciaren ezdinacoentzat neucala nere
 burua, eta orregatic negoan beti graci-esque.*
 Azquenic, gucioc ezagu dezagun graciaren bear eta
 premia, gañera esan cion: *¿Uste dezu nequegabe
 irabaci nituala gracia ta bertuteac? Botere ez
 nuan neretu artaraco equinalac equingabe; be-
 tico oracioa, zale ta deseo iracequiac, eta negar
 eta penitenci asco,*

Guciz beguiratzecoac dira santa Brigidac onen gañean izan cituan ceruco arguiac ere. *Aurtasuntic*, dio, egon zan *Espiritu Santuz betea*, eta edadean elduaz cijoan eran, cijoan gracian aciaz ere. bere biotz guciaz Jaincoa amatuaz, eta pecatuaren itzalerañocotic beti guciz urruti egonaz. Lurreco ondasun guciac utsean ceuzcan, eta al gucia bearrecbay ematen cien. Mayean tlaingo urritasunã gordetzen zuan, non gorputzari iraun eraciltzeco diña besteric artzen etzuan. Liburu santuen iracurtzetic icasiric, mundua erredimitzeco doncella bategandic jayoco zala Jaincoa, alain sutu zan Jaunaren amorean non Jaincoagan beste ecertan pensatzen etzuan, Jaincoa beste ecer guticiatzen etzuan, eta Jaincoagan beste ecertan atsëguincontenturic arquilzen etzuan, gendeaquico eta bere gurasooquico ere tratabidetic gordeaz, bere gogotic Jaincoa quendu etzeguioten. Azquenic, *Mesias munduratzeco qaraya iristeco zale ta egarri bicia ceucan bere Ama izatea merecico zuan dieh andico doncella areñ serbitzari izateco suertea berac izan cezan* (1).

Eta eguiaz, doncella garbi manchagabe onen amorez lasterragotu zuan bere etorrera, hada bere humiltasun ondogaheac Jaincoaren Ama izango zaren serbitzari izateco diñatzat etzalacoan bere bu-rua ceducanean, berã izan zan ala izateco esleitua

(1) Birgit Revel, lib. 1. et 3. c. 8.

eta here bertuteen usay gozo atseguingarri, eta bere erregüen indar craguilleaz eracarri zuan bere sabel guciz garbira Jaincoaren Semea. Eta ala deitu cion bere Esposoac usa-tortola (1), mundu onetan eremu batean becela beti biciaz, bacar-lecua beti maitte izan zualaco ezecic, munduaren zori gaitzaz erruquituta, beti eta aspertugabe erredencioaren mesede paregabea negarrez escatzen cegoalaco ere, profetao baño berotasun ta bicitasun aguitz andiangoaz, negarrez ta cispirioz munduaren erredencio esque ayen erregu ta escariac berac gueratzaca cerura bialduaz (2).

Azquenic, guciz atseguingarria zan Jaunaren beguetan, usay gozoco landare ostotsu bertutez bete baten guisa, Espiritu Santuac Cantetaco liburuan deitu cion becela (3) doncellachoa garbi eta manchagabe bertutearen erpiñera igoaz nola cijoan, icustea. Zan eguiatz Jaincoa bertan gozarotzen zan lorabaratz eder atseguña, bertan icusten citualaco usay gozoco lore mueta guciac, bera autuaz bere Ama izateco, ceren doncella garayagoric, eta bera bicitzeco doncella onen sabel guciz garbia baño eche-barrumbe diñagoric mundu gucian arqutu etzuan; eta ala añ oso ta betea izan bear zan bere santutasuna, non beste creatura gucienari aguitzez eraguin bear cion (4).

Bada berac añ prest eta guciro bere burua templo-

(1) Cant. 2. 12. (2) Cant. 3. 6. (3) Cant. 5. 6. (4) Antonin p. 4. tit. 15. c. 6.

an ofrendatu zuan becela, gu ere biotz prestu eta asmo on eta eraguille batequin jarri gaitean gaur Ama gozatsu onen aurrean, berari humilqui escatuaz, ipiñi gaitzala Jaincoaren aurrean, eta Jauna ucatuco ezta ofrenda au artzera, Espiritu Santuaren bicilecu bici, bere Eguillearen poz-atseguin eta bere Seme bacarraren Ama eguiazcoaren escuaz ofrendatuac icusita. Eta confianz andiaz gucia uste dezagun bere erray guciz erruquitsuacgandic, jaquinic, bere debotoac eguiten diozcaten serbitzu, agur-on eta gogoco zaizean gauzac guciz oparo pagatzen dituala, icusico dan becela ondorengo

EJEMPLOAN.

Paraiso-co Dominicac (1) larumbat batean lorezco coroa bi eguin, eta Jesusequin Mariari beren imaginetan eraman cizten, arren usay eguin ceguietela, humilquiro escatuaz, baña mesede au iristen etzuala icusita, oy zuan limosna bat egun artan eguin etzualaco izango zala irudituric, bearreco hati deitu, eta limosna au berari emateco ustean leyora irten zan. Lenengo icusi zuana, jazquera pobrea ceucalaric, bere arpeguian anditasun eta nobleci gucizcoa aguertzen zuan emacume bat bere mutilchoa escutic zuala, izan zan. Bereala mutilchoac limosna esque bere escua goratu, eta amac orobat eguin zuan.

(1) *Auriem* t. 2. pag. 325.

Aurchoac bere escuetan zauri edo llágac ceuzcaia, oartuta, Dominicac erruquiz esan cion: Ichedon zadazute piſcacho bat. Limosnarequin jachi, eta ichia cegoan atera irichi baño len, pobreac barrunen arqutu cituan; eta arrituric galdetu cion: *¿Nore idiqui du álea?* *¿Ay ene, baldin nere amac icusten badu au;* *Zaude isilic, alaba,* eranzun zuan pobreac, *inore icusi ez qaituta.* *¿Nola ibiltzen da zure semea,* esan cion Dominicac, *onetan dauzcan zauri oriequin?* *Amoreac eguin ciozcan,* andreac eranzun cion. Mutilchoaren modestia guciz oy ez becelacoa zan, eta modesti onec Dominica beregandic irtena becela ceducala, onec galdetu cion: *¿Zauri orietan min artzen eztezu?* Eta aurrac farra-uſian *¿Cer min?* esan, eta dembora herean jarri zan imagiña biac buruan ceduzcaten lorezo coroay beguira arretaz, eta coro ayec bere Amari escatzen. Onec coroa biac irichi, eta mutilchoari eman ciozcan *¿Cere muguilzen zaitu, alaba, imagiñ oec lorez coroztera?* *Jesusi eta bere Ama bedeicatuari didan amoreac—¿Cembat nay diezu?* —*Al guci gucia—¿Cembat dezazuque?*—*Berac laguntzen didaten aibat—Bada jarray zazu berac onela amatuaz, eta Jaincoac emango dizu bere ordain-saria.* Dominica beñ batari ta beñ besteari beguiratzez aspertzen etzan—*¿Ceri bequiratzen diozu,* galdetu cion andreac—*Zure semeari,* eranzun cion gazteac—eta cerbait gueyago alde-ratu, eta zaurietatic irteten zan usay guciz gozo at-seguiña usantzen zuan. Orduan onec galdetu cion:

Andrea, ¿cer uquendu edo balsamo usay onen gozocoaz sendatzen diozcatzu zauriac?—Caridadecaren uquendtuaz—¿Eta non saltzen da?—Fede, errugui eta obra ónaquin topatzen da—

Onetara ciranean, mutilchoac bularrean eucan beste llaga bat garbitzeco zapi bat Dominicac artu, eta llaga onec usay oraindie zoragarriagoa banatzen zuan, eta mutilchoa cerbait atzeratu zan. *Atoz aurra, atoz,* esan cion doncellac, *oguia emango dizut. Berre janaria amorea da,* esan cion amac, *balidin bera ase nay badezu, maita zazu asco.* Itz oec aditzean mutilchoa bere poza aguertuaz ábiatu citzayon Dominicari itzeguiten—*¿Maite dezu Jesus?—Añ maite det, non ez egunaz eta ez gauaz beragan ezpada beste ecertan pensatzen ez det, eta beraren gogocoa beste ecer equin nay ezlet—*

Amoreac eracutsico dizu nola equin bear diozun atseguin, esan cion aurrac. Onetan zaurien usay zoragarria gueroago ta andiagotuaz cijoan, alatan non Dominicac poz atseguinez gañeztu, eta deadar equin zuan: *Baldin aur baten llagac usay onen gozoa badute ¿cer izango da gloriacou?—Ez arritu,* esan cion andreac; *bada non ere dagoan Jaincoa, an dago usay gozo atseguingarriaren jayoltz eta iturria,* eta itz oec esatearequin bat icusgarri hura oso beste batera beñgoan aldatu zan. Aurraren arpeguiac eguzquiac becela argui equin zuan, eta ama ere argui zoragarritz jantzia aguertu zan. Jesusec bere Amaren magaletic loréac artu, eta guciac Dominica-
 ron gañean zabaldnaz, oni esan cion: *ar itzazu lo-*

*re oec guero beticoera gucian emango dizquit-
zudanen prenda ta señale.* Au esanta, beguietatic
galdu ciran, doncella dichazcoaren biotz gucia béra-
quin eramanz.

ORACIOA.

Aingueruen Erreguiñ guciz mailagarrí, eta crea-
tura guciaz gañ Jaunac maite zaituana, ay ta baldin
nere bicitzaco lenengo urtéac zure amore ta ser-
bitzuan eman banitu, Jaunari bere templo santuan
añ aur ciñala oso consagratu citzaiquionean eman
ciñidan ejemploa jarraituaz. Baña, ¡ay enel eta nere
gaztetaco urteric ónenac mundua eta bere zoraque-
riac serbitzen eman nituan. Guciaz ere, berandu
bederic, asi nay det. Ona non naucazun, Ama go-
zoa; gaur oso esqueñtzen naiz, oraindic guerutzen za-
dan nere bicico dembora gucian zu serbitzera, eta
nere eguillea serbitzera, utziaz betico, zue utzi cin-
duan becela, creatúracganaco naitasun eragabe gu-
ciac. Ofrendatzen dizut, bada, adimentua, zue mere-
ci dezun amore andian beti pensa dezan; ofrendat-
zen dizut mingaña, beti ta gueratugabe alaba zaitzan,
eta biotza, iracequiro ama zaitzan. Ar zazu ontzat
pecatari gajo onen ofrenda, cere buruaren ofrendat-
zean zure biotz amorezcoac artu zuan poz-atseguíñ
argatic. Berandu asitzen naiz; baña amoreá, eta zu-
re gogoeraco gauzac bi bidertuaz, beteco det lengo
utsunea. Sendo zazu, Ama lastana, cere bitarteco-

tasun indartsuaz nere isuritasun eta argaltasuna, eriotzeraño leyal izateco bear dedan laguntz, indar eta esportzua Jaunagandie irichiaz, mundu onetan zuec amatu eta serbitu, eta guero ceruan beticoera gucian icusi, amatu eta bedecitzeco dicha irichi dezadan. Amen.

IV^{en} ITZALDIA.

Virgiña Mariaren berri ónen gañean.

Seme Jaincoaren Araguitzean ez Mariaren humiltasuna izan citequean andiagoa, eta ez Jaungoicoac igo cezaquean gorago.

Gorätzen dana, izango da beeratua, eta humillatzen dana izango da goratua (1). Oec Jaincoaren itzac dira, eta ecin utseman lezaquee. Orregatic pecatuac galdu zuan guizona erredimitzeco Guizon-eguitea erabaquiric, eta onetaraco Ama esleitu bear izanic, andre gucien santa eta humillena billatzen zuan, eta arqutu zuan Maria, cembat bertute guciaz beteago eta santutasuncan osoago, aibat tolescabe ta humillago zan doncella, bere pareric etzuana. Jaunac au icusi, eta esan zuan: Au da nere esleitua, eta Ama izango dana.

(1) Matth. 25. 12.

Dacuscun, bada, noraño irichi zan Seme Jaincoaren Guizontzean bere humiltasuna, eta cembat Jaincoác bera goratu zuan, beguiratuaz lenengo puntuan, eciñ bere humiltasuna izan citequeala izan zan baño andiagoo, eta bigarrenean, Jaincoac berác ecin goratu cezaqueala doncella au, goratu zuan baño gueyago.

I.^o PUNTUA.

Escritura sagraduco Cantetan esaten dira itz oec: *Erreguea bere oyea cetzala, acara edo nardoac eman zuan bere usaya* (1). Eta nardoaren landarean, chiqui ta chatarra dalaco, irudindu zan Mariaren humiltasuna, ceñaren usay gozoa ceruetara igo, eta Aita Eternoaren bularreraño irichi zan, eta andic bere sabel garbira Jaincoaren Semea gozotoro eracari zuan (2). Baña onec bere Amaren gloria eta merecimentua andiagooac izan citecen, aurrez bere baimena artugabe bere Seme izan nay etzuan (3). Doncella humilla bere bacarrean cegoan bada, munduaren Eroslea noiz etorrico ote zan beguira, secular baño egarri andiagooaz (4) eta orra non beñgoan aguertzen zayon san Gabriel aingnerua albista añ gloriaco arequiñ: *Agur Maria, graziaz betea cera, Jauna da zurequin*. Graciaz betea, eta be-

(1) Cant. 1. 11. (2) Antonin. p. 4. tit. 15. c. 21. §. 2. (3) Gulielm. Abbas in cant. 3. (4) In vita S. Elisabeth monialis.

ti gañeztua, santu guciac baño ascoz gueyago, ceren zure humiltasunac ala mereci duan. *Bedeicatua cera zu andre gucién artean*, ceren gañeracoac pecatuaren madaricacioan eroriric, zu, Jaincoaren Ama becela, cera bedeicatua, eta izango ere cera beti, eta seculan izan etzan zugar, ez izango ere, pecatuaren mancharic.

¿Cer cranzun cion doncella humillac diosal añ gorra ta honragarri bati? Ecer ere, baicic eta bera aditzean nastu, eta jartzen da cer esan nay ote duan beguiratzen. ¿Nondic dator naste au? ¿Engañuren baten heldur-aice eta errecelotic, edo modestia lot-satitje, ainguerua guizonaren ichuran bere aurrean icusi zualaco? Ez; bada liburu sagraduac arguiro dio, aingueruaren itzac, eta ez bera icusteac, nastu zutela (1). Naste hura izan zan, bada, humiltasunecoa, bere buruaz ceducan iritzi laburretic añ urruti ceuden alabanz ayetatic sortua. Emen beguiratzen du santu bat e, ecen baldiñ munduco pecatarien andiena zala, esaten asi balitzayo Jaincoaren bialdua, etzala arritico; baña alaingo alabanzac adituta gucia nastu zala (2), ceren bere humiltasuna añ barruncoya zalaco, beraren alabanzay gorroto cien, eta hacarric bere Eguillea, on guciaren iturburua becela, alabatu ta bedeicatzea nay zuquean (3).

Baña ceruco arguiac añ arguituac becela, ongui cequian irichi zala profetac munduaren Salvatzallea

(1) Luc. 1. (2) Bernardin. Serm. 55, de Ann, Inc. p. 3 (3) Birg. Revel. l. 1. c. 25,

lurrera etortzeco aldeaurrez señaletna ceucaten dembora: ala icusten cítuan beteac Daniel-en asteac, nola Israelco cetroa erregue arrotzaren escuetan, Jacob-ec lendanaz esana ceucan becela: bacequian ere doncella bat izango zala erriac beguira cegozquionaren Ama. ¿Buruác eman ere cion ordutan, urrutitic ere, bear bada berá izango zala esleitu eta dichaz betea? Ez nosqui, bere humiltasun ondogabeac alacoric bururatzetic guciz urruti ceucan. Alabanz ayec eguin ciotena izan zan beldur bat añ gucizeoa, non aingueruác beregandu, eta alaitu bear izan zuan, guero Olibetaco baratzan beste batec Jaina indartu eta alaitu zuan becela. *Ez icaratu, Maria, esan cion, ez arritu ere ematen dizquitzudan laudario andiaz; ceren cerequico añ chiquíchoa baccera, humillen goratzean bere atsequin contentua duan Jaincoác eguin cinduan quizonác galdu zuan gracia zuc arquitearen diña, cere humiltasunaqatic; gorde cinduan jatorrizco becatutic, bete cinduan cere sortzelic santu queien gracia baño andiaqoz, eta orañ goratzen zaitu bere Ama izatearen diñadi ta malla pareqabera.*

¿Cergatic luzatzen dezu, Andrea. gu zorioneco eguitea? Aingueruác zure eranzueraren beguira daude, gu eriotzera emanac gaudenoc (1), orobat gaude. Zure escuetan jartzen da gure salbacioaren precioa. Zuc nay badezu, berealatic gucratuco guera betico galeratic libre (2). Zure edertasunaz añ pren-

(1) Bernar. Hom. 4. super Miss (2) Id.

datu zan Jaun hura egarri berarequin dago mundua salbatzeko bidea becela, zure baimenaren beguira (5). Eranzun, bada, laster Dodcella guciz humilla, eta ez luzatu arren orañ zure escu eta nayera dagan gucion osasunaren instante zorionecoa (4).

Baña, bay, eranzuten du, ta dio: *Ona ni Jaunaren serbitzaria, equin bedi niqan zuc diozuna eta diozun eran.* ¡O eranzuera miragarria! Baldin guizon eta ceruco aingueru guciac egon balira suertaldi artan milloy urtean, cer esango ote zuten pensatzen, au bezañ eranzuera eder, humill, eta beguiratu bat asmatuco etzuten. ¡O cerua poztu, eta graciazco ta bendiciozco itsasoac mundura ecarri cituan eranzuera guciz indartsua! Eranzuera, ceñac, eman zuanaren ezpañ guciz garbietatic irten zar bezeñ laster, Aitaren barrumbetic Seme hacarra atera zuan, beraren erray garbietan Guizontzeco. ¡O itz indartsua, itz eraguillea, itz adoragarria! Ceren baldin Jaincoac au becelaco beste (*fiat*) batequin utsetic atera hacituan arguia, ceruac eta lurra, Mariaren onequiñ Jaincoac bera eguin zan gutaco bat becelaco Guizon (1).

Goacen beguiratuaz ceñ andia izan zan eranzuera onetan bere humiltasuna. Ondo ezagutzen zuan Dodcella guciz jaquintsuac diñadi ceñ andi, goratu eta paregabea zan Jaincoaren Amatasuna, eta aingueruac argui eta garbi segurutzen cion, bera zala alaingo dicharaco esleitua; baña guciac ere, ez orregatic dau-

(1) Id. (2) August Serm. 21. de Temp. (3) Thom de Villan. Canc. 1. de Ann.

ca gueyagotzat bere burua, ezta gueratzan bere goratzeaz pozaldiric artzen; baicic beguiratuaz batetic bere ecereztasuna, eta bestetic creatura gucien artean bera aututzen zuan Jaunaren Anditasun neurri ta ondogabea, ezagutzen du bere burua aimbeste honra mereci ezualacotzat; baña eztio ueoric eguiten Jaunaren nayari. Eta beragatic, aingueruac bere baimena escatu cionean ¿cer eguiten du? ¿Cerdio? Beregan ecereztuta, baña dembora berean gucia icio, eta Jaincoarequin batuagotzeco egarriz, jartzen da oso bere escu jaincozcoetan, esanaz: *Ona ni Jaunaren serbitzaria; berac aquindua equitera bear-tua nagoan serbitzari bat baño ez naiz*; esan nairic: baldin Jaunac, berac berez ecer eztuan serbitzari bat esleitzen badu, izanic gucia bere doaya, ¿nori bururatu bear zayo nere merecimenturen bat dagoala onetaraco bitarteco? ¿Cer merecimentu egon liteque serbitzaricho batean bere Jaunaren Ama izateco? Gora bedi bacarric bere ontasuna, ezbequio alabanzaric eman serbitzariari; bada bacarric bere ontasuna da ni bezañ creatura ecerezean bere beguiac jartzea, ni añ andi eguiteco.

¿O humiltasun beragan añ chiquia, baña ceruetan cabitzen ezlanaren beguietan añ andia (1), ¿eta nola batu al izan cendan cere burua añ gucian iduquitzea, orrembeste garbitasun, gaitzgabetasun eta graziazco betetasunequin (2)? ¿Nola orrembeste humiltasun, cere burua Jainco baten Amaren icen glori-

(1) Guericus Abbas (2) Bernard I. cit.

azcoaz goratua icustean (1)? Baldin Luzbel-ec ain-
gueruen edertasunez apaïndua icusi zanean bere
tronua añ goyen ipiñi, eta Jainco andia añã izan,
edo bere burua arequin berdindu nay izan bazuan
¿cer esan eta naico zuan, baldin zure edertasunare-
quin icusi balitz? Zu, contrara, añ beguiratua be-
cela, cembat goratuagoa, aïmbat humillago ciñan,
eta humiltasun añ garayaren ordañ-sarian izan ciñan
besteri ez becelaco amoreaz Jaunac beguiratzearen
diña, zure edertasunaz ceruco Erreguea prendatze-
aren diña, Aitaren Seme bacarra cere sabeleco ichi-
tuan sartua iduquitzearen diña (2); bacarric itz *Ona
ni Jaunaren serbitzaria*, oequin merecituaz creatura
guciac batera beren obra on guciaquin secular me-
recitu al izan zuten baño gueyago (3).

Ala da izatez, bada baldin garbitasunagatic Jain-
coaren beguiay añ atseguingarria izan bacitzayen,
humiltasun arequin eguin zan, creatura bat izan li-
tequeaneraño, bere Ama izatearen malla guciz goi-
coaren diña (4). Ama gozatsu onec anima santa bati
esan cion: *¿Nola irichi nitzan ni añ gora, ezpada
nere ecereza ezaqutuaz, eta nere burua ondoraño
humillatuaz?* Lenago au bera cantatu zuan *Magni-
ficat* deritzan cantan: *Ceren bere serbitzariaren
humiltasuna bequiratu zuan, equin cituan nigan.
Gucia dezaqueanac gauz añ andiac.* Etzuan esan:
ceren nere garbitasuna, edo nere gailzic eza be-

(1) Bernardin de Bust Mar. 12 p. 5, p. 2. (2) Bernar. (3) Id.

(4) Bernard. Hom. 1. sup. Miss. Hieronym.

quiratu zuan, ezpada bacarric nere *humiltasuna* (1), oarteracitzen dala, ecen esaera onetan etziozcala bere humiltasunari alabanzac eman nay izan, bertutea becela, ezpada esan nay izan zuala, berá mesedez eta bacarric mesede utsez andituaz, bere humiltasun ta ecereza goratzeco beguiratu zuala (2).

Ala Mariaren humiltasuna Doncella onen sabel garbian Guizon eguitera Jaincoac bertatic jachi nay izan zuan escallera becela izan zan dembora berean (3), izan zan Virginiaren aldetic diñadi añ guizcora igotzeco prestaerarie oso, egoqui eta artaraco urrecoena (4); eta orregatic Aitaren Seme Bacarrac, Isaias profetae anciñatic deitu cion becela, jaincozco loreac (5), jayo bear zuan, ez Jeseren landare edo arbolaren burutic, ez guerritic ere, ezpada sustraitic (6). Beragatic esan cion Jannac: *Zure beguiac ega craci naute* (7). ¿Nondic, galdetzen du san Agustiñec, ezpada Aitaran barrumbetic Amaren sabelera? Bay, ceren bere buruaren ecereza eta Jaincoaren anditasuna humildaderic barruncoyenaz beti beguiratuaz, usoarenac baño garbi eta ederragoco begui ayec (8) Jainco berari alaco borcha eta indarra eraguin cioten, non andic atera eta bere sabel garbira eracarri zuten (9). Guis onetan Seme Jaincoaren Guizontze edo Erredencioco misterioan irichi zan bere humiltasuna irichi al citequean goyenengo ma-

(1) Laurent Justin. (2) Franciscus Sales. (3) August. sup. Magn. (4) Antonin. part. 5 t. 45 c. 6. (5) Isai 44. 4. (6) Isai 2. 4. Albert. Mag. (7) Cant. 5 (8) Cant. 4. 4. (9) Abbas Francon. de Grát. Nov. Test. tr. 6.

lla eta osotasunera, eta au izan zan lenengo puntuan aguertu deguna. Goacen orañ bigarrenera, eta dacuscun, nola dembora berean, goratu zuan baño gueyago ecin Jaincoác gora cezaquean.

II.º PUNTUA.

Zori oneco Doncella au cembateraño Jaincoác goratu zuan aditzera iristeco, ezagutu beareo guenduque Jaincoaren anditasun ondogabe gucia; baña beintzat asco da bere Ama eguin zuala, esatea, bere beso indartsuác goratu zuan baño gueyago ecin gora cezaqueala, guc sinisteco. Doncella onen anditasun eta diñadia ceruco aingueru ta doatsu gucienari eraguiña dala, santu guciac erabat diote (1), ceren creatura guciac bera baño beeragocoac zaizcan. Bacarric Jaincoa da bera baño goragoco edo andiagoa, eta aimbesterañocoa da beraren altutasuna, non bacarric Jaincoác ezagu lezaquean norañocoa dan.

Alabaña arritzeco ezta san Juan Bautista eta Magdalenaren goratzean añ luce ta oparóac izan ciran Ebangelistac Mariaren oncay edo bertuteaz añ guchi guri itzeguitea. ¿Cer gueyago esan cezaqueen Jaincoaren Ama zala esan ezquero (2)? Bacarric onec gañez eraguiten dio adimentuac irichi eta min-

(1) Arnold Carnot. tract de L. V.—Ephrem — Andraeas Cret. Orat. de laud. Deip.—Anselm. apud Pelb. Stellar. 2 p 3. a. 2. —Bernardin. t. 2. Serm 51. (2) Thom, de Villan. Con. 2. de Nat, V.

gañac esan al dezaquean anditasun guciari, Jaincoarena bereizten dala (1).

Dey zayozu ceruco Erreguiña, aingueruen Eche-coandrea, eta gañeraco nay gucia, ecer irichico ezta bera danera (2). Eta onen arrazoy edo cergaticacoa arguiro dago, ceren santo Tomas-ec eracusten duanez, cembat gauza bat bere asiera edo sorterroaren alderago, aibat asiera aren on eta gozoetatic parte gueyago duan, eta izanic Maria Jaincoari gueyen alderatzen zayon creatura, beste inore baño jaincozco gracia, perfeccio eta anditasun gueyago artzen ditu beragandic (3). Emendie sortzen da, Jaincoaren Ama izatearen diñadi edo goratasuna beste cernay creaturena baño paregabe gorago oa dala probatzen eta on eguiten duan arrazoya, ceren bere maneran, Jaincoaren Semea Guizatasunari batutzeari, edo batutze hipostaticoari dagoquiona dan, izatez batua dagoan becela (4), izanaz batutze au Seme Jaincoac Guizatasunarequin eguin zuanaren urrena Jaincoarequin eguin al ditequean andi. estia eta barruncoyena (5); aimbesteraño non, Jaincoaren Ama izate, Jainco izate beraren urreneco diñadia, eta bacarrie bera Jainco eguinaz, eta ez bestela, goragotu litequeana dan (6).

Añ goratu eta erpiñeratua da diñadi au, non Ama onec onetaraco, alde aldean jaincozco Personaquin berdintzeraño becela, iya neurrigabeco gracia bate-

(1) Id. 1. c (2) Petr Cell lib de Pan. c. 51 (3) 5 p. q. 27 a 5 (4) Suarez, t. 2. in 3. p. D 2 s 2 (5) Dion. Cart. lib. 2 de L. V. Thom. 1. p. q. 25 a. 6. (6) Alb Magn sup Miss. c. 100.

quin alchatua izan bear zuan (1), cercen izanic gu-
rasoac eta uméac, guciac dioten becela, gauza bat
bera, gozaten dituzten honra eta ondasunetan des-
berdintasunicgabe, eta bicirie Jaincoa era ascotara
bere creaturetan, Marian beste creaturatan ez bece-
laco berdintasunezco era miragarrian bicitu zan (2).
Isill bitez, bada creatura guciac, eta arritu ta chun-
dituric, macur bezate copeta, eguiaz nolerebait neur-
ri ta mugabea dey lizayoquean garaitasun ta diñadi
onen anditasun paregabea erreberenciatuaz (3), ce-
ren zorioneco au ecin gora citequean igo zan baño
gorago (4). Mundo andiago bat, ceru zabalago bat
Jaincoac eguin litzaque, baña creatura bat bere Ama
izatera baño gorago jaso, ez (5). Au bere ezpañ gu-
ciz gozoac esan zuten. *Gauz andiac eguin cituan
niñan*. Cer cirau, esan etzuan, ¿eta cergatic? eiñ-
quizun zalaco (6).

Doncella guciz dich izco onegatic eguin zuan Jain-
coac mundua (7), beragatic gordetzen du (8), eta
beragatic bareatu cion guizonari, eta guizona ecer-
eztu etzuan pecatu eguin ezquero (9), gucia bere di-
ñadi paregabearen icenean, diñadi onec creatura gu-
ciay emau eta mundua mundu daneraño emango
zaizten era guciataco gracia eta doay guciac ecin
guyagoraño apaindu zualaco (10). Maria izan zan

(1) Bernardin. t. 4 Serm. 61. c. 16. (2) Petr. Dam. Serm. 1. de
Nat. Virg. (3) Suarez, tom. 2 in 3. p. D. 48 §. 4 Thom. Opus.
2 Comp. Th. c. 245. (4) Id. 5. p. q. 7. a. 42. (5) Bonav. Spec.
B. V. Lect. 10 (6) Thom. de Vall. Conc. 5 de Nat. Virg. (7)
Bernard Serm. 7. in Salv. Reg. (8) Bonav. (9) Bernardin. tom.
1. Serm. 61. c. 8 (10) Alb. Magn. Bibl. Max. in Luc. 15.

aur, baña edade arc eman ciona izan zan pecatu guctic garbi egotea, ez ezjaquiñ eta ezagüeraren falta. Izan zan doncella, soiltasunaren deshonoragabe. Izan zan Ama, ordea doncellaren garbitasun precia-tua galdugabe. Izan zan ederra (1), guciz ederra eta aimbesterañocoa, non oraindic bici zala, san Dionisio Arcopagitate bera icusita, dio: *Jaico bat becela adoratuco zuala berà, baldiñ araguzco creatura zala fedeac eracutsi ezpalió; baña añ ederra eta beste creatura guciac baño ederragoa zalaric* (2), secular inore asmo lizunaz beguiratu etzion, eta oraindic bera icustea burulacio loy gucia ayenatu, eta pensamentu garbiac ematen cituan, (3), mirrac, (Eliza santac berari ematen dion icena) usteltzetie gordetzen duan becela. Bere bicieraco eguinquizaac etzioten ga'eracitzen bere Esposo jaincozcoarequin bat eguiña egotea, añ guchi Jaincoa beti gogoan erabiltzea, eta ureoay zor cizten caridadezco beargayac eguitea ere. Azquenic, erioac jo bazuan ere, etzan izan neque ta naigabeaquin, añ guchi irichi zan bere gorputz guciz santura obico usteltasunic. Azquen zagun, bada, esanaz, ceen Ama doatsu au creatura guciay neurri ta mugabague eraguiña dala, beti Jaincoa baño guchiago bada ere; eta Jesus baño Seme bicañ eta andiago bat izatea ccinquizuna bazan, Maria baño Ama nobleago bat topatzea ere ccin cite-

(1) Ricard a S Vict.—Georg. Nicomed—Dionys (2) Birgit. Rev. lib 1. (3) c 51 Ambros. de Inst Virg c 7 Thomo. in 5 Dist. Disp. 2 q. 2. a 2.

queana zala. Onec serbitu bear die beraren debotoay bere anditasunaz poz atseguin artu eta beraren amparo indartsuaganaco beren uste eta confianza gueitzeco, bada Jaincoaren Amac becela berari escatzen diozcatenen alde jaincozco doayaz nay gucia eguiteco escua du (1), Jaunac berari ecer ucatu algabe (2).

Mugaric gabea da, Andre miragarria, zure escu eta al izatea, beti gure onera macurtua, zure borondatea, eta guciz biciaç diña guri laguntzeco dauzcatzun zale ta deseoaç (3). Eraberean daquizu, bacaric zugatic eguin etzinduala Jaincoac ceran bezañ graziaz betea, eta escu eta aguinte añ andi garaiz jantzia, baicic eta eman cinduzquiela ainguerúay zucentzalletzat, guizonay onguille ta bitartecotzat, eta infernuco etsayay beren azpiratzalle guciz indartutzat (4).

Bedeicazagun bada Doncella miragarri au agur egiñaz ascotan aingueruaren itzaquin, alabaña añ gozo ta atseguin zayozcan besteric eztago, Maria berac Isabel-i esan cion becela, onela bere urricaltasunagandic mesede guciz señalatuac irichico ditugun uste eta confialza osoaz, icusico dan becela ondo-rengo.

EJEMPLOAN.

Aita Señeric, cristau iracatsia deritzan bere libu-

- (1) Suarez, tom. 2, in 3, p. D. 4, 5 2. (2) German. de Zona Virg.
 (3) Bernard. Serm. de Ass. (4) Abbas Cell V. in Prol. Cont. Virg.

ruan contatzen du (1), ecen joan zala beñ Erroman Aita Nicolas Suechirequin confesatzera loiqueriaren cinguiran begui bietaraño ondatua cegoan gazte bat. Confesoreac bigunquiró bere confesioa enzun, eta bere desdichaz cupituta esan cion, Maria guciz santaganaco debocia guciz on eta eraguillea zala egoera char artatic bera ateratzeco, aguinduaz penitenciatzat, erreza cezala Abe Maria bat oyeracoan, eta beste bat jaiquitzeracoan, esqueñiaz Virgiña santari beguiac, escúac eta gorputz gucia, bere gauza becela gorde cezala, erregutuaz eta irutan lurrari muñeguiñaz. Gazteac penitenci hura eguin zuan, lenengotic enmienda guchirequin; baña confesoreac aguintzen cion, jarray cezala artan beti eta beñere utzigabe, Maria guciz santaren amparoan confiatzera beti animatuaz. Gazte au bere adisquide batzuequin munduco baztérac icustera joan, eta andie Erromara itzuli zanean bere confesorea topatu, eta onec esan al baño poz andiagoaz arriturric gaztearen anima oso bestetua, eta galbide eta aztura eta oitura galduetic libre arqutu zuan. Gazteac esan cion, bere consejuz eguindaco debocio labur hura zala bide aingueruen Erreguiñac irichi ciola Jaincoagandie alaingo mesedea. Etziran emen gueratu bere urricaltasunac, ceren Aita arc mesede hura pulpitic contactuta, aditzalleen arteco, urte asco ayetan emacume batequin tratabide loy debecatua ceucan capitan bateg debocio hura bera egunetic abiatzeco asmoa e-

(1) P. 3, Rag. 54.

guin zuan, bera añ lotua cecatén catéac austeco zale ta deseo andiaz (nornay pecatarirentzat deseo bearra Virgiña guciz santaren laguntza iristeco), eta gueroenean berearequin irten, eta biciera berri on bat artu zuan. Sey illabeteren buruan bere indarrak fiatuta, joañ nay izan zuan emacume hura icustera, bera ere ondu ote zan jaquin-miñez; baña berrero erortzeko perill añ aguirian atera irichi zanean, aguiri etzan indar batec atzera eraguiten ciola sentitu, eta andie añ urruti arquite zan, cembat calea luce zan, eta zan bere eche-ataria, labañarri artatic Virgiña guciz santac atera zuala orduan arguiro ezagutuaz.

Emen aguertzen da Ama onec daucan arret andia gu pecatutic ateratzeko ezecic berrero erorteko perilltic gordetzeko ere, baldin deseo ta gogo on onequin berari erregutzen badiogu.

ORACIOA.

Virgiña guciz sagradua, cere beguietan añ chiquita ecereza ciñalaric, Jaincoarenetan añ andia izan ciñana, non bere Amatzat eta ceru-lúrretaco Erreguiñatzat autu cinduan: esquer milla diozcat Jaunari, berác eman cizun an litasun paregabe eta añ señalatu orregatic, eta atseguin det orren biotzetie eta estu berarequin batua eta creatura bat jaso al citequeaneraño jaso zu icusteaz. Lotsa naiz zure aurera aguertzeaz, zupan orrelaco merecimentu eta bé-

rac alacoaquin humillasun añ barruncoya, eta ni-
 gan naizan bezañ gaizto despreciagarria naizalarie,
 onelaco-soberbia icusita. Baña guciatz ere animatzen
 naiz zuri agur eguitera, esanaz: Agur, Maria, gra-
 ciaz betea cera. Irichi zadazu niri ere-gracia. Jauna
 da zurequin. Beti egon zan; baña asco gueyago be-
 ra zure Seme eguiñaz. Bedeicatua cera zu andre gu-
 cien artean. Irichi bedi gugana ere Jaunaren ben-
 dicioa zure bitartez. Eta bedeicatua zure sabeleco
 frutua, Jesus: zugandic jayo zan frutu santua. Santa
 Maria, Jaincoaren Ama. Bere Ama cerá, eta eguia
 au gorde eta oneguiteco prest naiz milla bider hicia
 emateco. Gu salbatzeagatic Jaincoa zure Seme eguin
 zan, eta eman ciuduzquigun amatzat; eta zure escari
 eta erreguac cernay pecatari salbatzeko indarra dute.
 Erregu zazu, bada gugatic orañ, eta gure eriozeco
 orduan. Erregu zazu gugatic beti, eta dembora gu-
 cietan; erregu zazu orañ, tentacioa estutu, eta pe-
 rillac ingurututa icusten gaituzun onetan; baña er-
 regu zazu biciroago eriozeco orduan, mündu oneta-
 tic irten, eta Jaincoaren tribunalera joateco zorian
 egon gaiteanean gure Jaun Jesucristoren mereci-
 mentu eta zure bitartecotasun indartsuaren bidez
 salbatuta, gueroenean sargaitean ceruco atseguin-
 contentuetan zu cere Seme guciz bedeicatuarequin
 batera beticocra gucian alabatu eta bedeicatzera.
 Amen.

V. en ITZALDIA.

Mariaren icustaldia.

Maria da gracia guciac bere contura dauzcana. Gracia billatu nay duanac bideguín bear du Mariagana. Onela eguiten duan guciac arquiteco du nay ta deseo duana.

Ceñ ere echetan Erregue bat sartzen dan, eche hura faborecitzat iduquitzen da, artzen dituan honrac eta guero uste dituan mesedeac dirala bide; baña ascoz zori obecotzat egon bear du Ceruelaco Erreguñac bere icusaldi edo bisita eguiten dion animac, ceren anima au honraz eta era gucietaco ondasunez seguru beteco duan. Obededon-en echea bedeciatua gneratu zan, Testamentu zarreco cucha bertan egon zanean; baña ascoz ugaritsuagoac dira Ama erruquit-su onec animay ematen dizten graciazco ondasunac. Au ondo progradu zuan san Juan Bautista diehazeoaren familiac. Bere atectatic Virgíña guciz sagradua sartu ez al zan, ciran guciac ceruco bendicioz bete cituan, eta onegatic ascoe Mariaren Bisitacio edo icustaldiari Gracietaco festa deitzen diote.

Icusico degu, bada, ondorengo itzaldian, bera dala guizónen artean zabaltzen diran gracia guciac bere escu eta contura dauzcan tesorera, eta izango da

bi puntutan: 1.^a Graciaren billan danac, bideguin bear du Mariagana. 2.^a Mariagana bideguiten duan guciac irichico du nay eta deseo duan gucia.

I.º PUNTUA.

Virgiña guciz biotz beraac, bere lengusu santa Isabel sey illabeteco aurdun zala san Gabriel aingueruaren aotic jaquin zuanean bereala, Espiritu Santuaren arguitasunaz bere barrumbean ezagutu zuan, bere erray garbietan cegoan Seme Jaincoac berealatic aguertu nay ciozcala munduari bere misericordiaren aberastasunac, bere lenengo gracia famili guci artan zabalduaz. Eta ala, beti artara emana cegoan contemplacio edo Jaincoaren eta bere gauce-tan pensatzea bertatic utzi, eta irten zan lasterca Isabel icustera (1).

Eta nola caridadeac gucia sufritzen baituan, eta Espiritu Santuaren gracia ta mugidac luzapenic ezagutzen ez duten (2), onegatic Maria, bidagearen nequea eta bere edade laburraren biguntasuna beguiratugabe berealatic bideari eman citzayon; eta eche artan sartu zanean bereala, bera izan zan bere lengusuari diosal eguiten aurrena; baña bere itzac etziran izan gueyenean zuriqueria eta alperricaco jolasac baño ez oy diran munduco gendeenen guisacoac, baicic esaera santu, maitatsu ta graciaz eta

(1) Luc 1. 55 (2) Ambros,

zori ontasunez beteac, eren lenengo agurrarequin gueratu zan Isabel Espiritu Santuz betea, eta Juan jatorrizco pecatutic libre, eta santificatua, amaren sabelean ematen cituan pocezco salto ayequin arguiron ezagutzera eman zuan becela (1).

Beguirazagun orañ, ecen baldiñ erredencioaren frutu guci oec Mariaren escutic igaro baciran, izanaz Maria canal edo bide, bide artatic emateco Juan Bautistari gracia, Isabel-i Espiritu Santua, Zacariaz-i etorquizunac asmatzeco doaya, eta eche guciari aimbeste bat on, Seme Jaincoac bere Araguitzea ezquero eguiñ eta daquizquigunetatic lenengoac, sinistubear degu, ordutic ipiñi zuala Jaincoac Maria guciraco urbide, san Bernardoc deitzen dion becela, bertatic igaro ditecen mundua mundu daneraño guizonay eman asmo dizten on eta gracia guciac lenengo partearen bostgarren buruan probatua utzi guenduan becela.

Jaincozco gracienc Tesorera ta zabaltzallea deitzen diote bada arrazoiz ta bidez santu guciac Ama guciz zorioneco oni (2), Señora beronec ere ala seguruatuz (3). Bay, Ama guciz amoretsua, bay guizarrazaren esperanza gozea, ondo daquigu zure escuetan daudela jaincozco misericordien aberastasunac (4), ondo daquigu escu orietatic igaro bear dirala guizon

(1) Bernard. part. 7. Serm. 4 (2) Abbas. Cellensis. Prol. Con. Virg. c. 4.—Petrus Dam.—Albert. Magn.—Bernardin.—Greg. Thaum.—Ric. a S. Laur.—Bonav. Matth. 45.—Bernard. S. rm. Aquae (3) Eccli. 24. (4) Idem. in Cor. Virg. c. 45.—German. Serm. de Zona Virg.

gucia y seculen azqueneraño eman bear izango zaizen guciac. Ez icaratu, esango dizut aingueruarequin, ceren zuc eztezun ceretu gracia Luzbelec beretu nay izan zuan becela, etzenduan ere galdu. Adan-ec galdu zuan becela, ez erosi ere, Simon Magoc erosi nay zuan becela, baicic eta descatu, billatu eta arquite cenduan. Arquitu cenduan gracia sortugabea, au da Jaincoa berá cere Seme eguinta, eta berarequin ondasun guciac (1), guizonen onean zabaltzeco (2), gracia alañ oso betea, non zure bitartez ecin salba litequean inor ere eztañ (3); bada eguzquia lur gracia arguitzeco eguiña dan becela, cere zu Jaincoaren urricaltasunac zabaltzeco eguiña (4), izanaz gauza jaquin segurua, ecer Erredimitzalle jaincoaren Ama izan cñan becen laster gracia ocer emateco escu guciaren jabe oso eguiñ cñala (5).

Azquen dezagun au gracia au irichi nay luquean nornairi conseju emanaz, bidequin dezala Mariagana uste eta confianza guciac, berac escatzen dion ecer Jaincoac ueatu ecin deguiolacoan seguru egonaz, ceren Ama maite onec gracia arquitu, eta gracia au bere escu daucan ordu gucietan (6).

Billa dezagun gracia, eta billa dezagun beraren bidez (7). Au da on guciaren Eguilleac nay duana (8). Guacia, ecer ere berecigabe, bere escu guciz garbietatie igarotzea nay du. Eta alabaña cernay mese-

(1) Albert. Magn. in Marial. c. 257. (2) Petr. Chrysolog. Serm. 5. de Ann. (3) Id. Serm. 424. (4) Ric. a S. Laur. de Laud. Virg. 1. 7. (5) Bernardin. de Sen. Serm. 61. tr. 1. art. 3. (6) d. lib. 2. p. 5. (7) Bernad. Serm. de Aquae. (8) Id. loc. cit.

de iristeco bear degu confianza, igaro gaitcan orañ icustera, ceñ sendoa ipiñi guentzaquean Mariagan, mesederen bat escatzera aldera gatzaizquionean.

II. en PUNTUA.

¿Cer fiñ izan zuan Jaunac bere misericordiaren ondasunac escu guciz garbi ayetan ipiñi cituanean, ezpada ondasun oec Mariaren debotoen artean zabaltzea, oec bera amatu, honratu eta bere laguntz eta amparoa escatzen duten ezquero?

Ondasun guciac nere escuan daude, ni maite nautenac aberasteco (1); Escritura sagraduco itz Ama maite oni bere fest-egun gucietan Elizac egozten diozcanac. Beste ecertaraco eztauzca gordéac graciaren eta betico bicitzaren ondasun oec Virginia guciz aberatsac, ezpada gure ez-izan eta bearrá escaltzeco, bada beraren bularrean ipiñi cituan Jaunac aimbeste ondasun eta añ ugaritsuac, bearrecoen artean zabalduta, gucioc aberats ta zorioneco guerra guindecen (2). Canale preciatua, nondie ceruco graciac guizonetara jañten diran (3). Onegatic san Gabrieleac berari agur eguitean graciáz betea arquite bazuan ere, esan cion, ecen Espiritu Santuac bere sabel guciz garbira etorrila gueyago ta gueyago beteco zuala. Baña ¿nola baldiñ orduraco gañezteraño

(1) Prov. 3. (2) Abb. Ad. in Alleg. c. 24. Eccl. (3) Bernard,

betea bacegoan (1)? Izatez eta eguiatz ala cegoan; ordea Espiritu jaincozcoac bete zuan berriro ugariegui-raño, alaingo ugaritasun eta sobranuatic gutaco bacoitzari bere zati edo partea irichi cequion.

Ni arqui nazanac, dio Ama maite onec berác, ar-quituco du bicitza (2), iturri ugaritsu batetic ura artzea bezañ erraz. Asco da berari cernay gauza escatzea, gauz hura iristeco. Berá jayo baño len, etzituzten artzen guizonac orañ ceruari darizquion graci añ ugaritsuac, ceren graci oec gugana iristen diran bide edo canala palta zan (3). Baña orañ, canale au daucagunean, ¿cer mesede eta on ucatu al izango zagu misericordiazeo Amaren oñ guciz bedeicatueta hudeguinta? Da gucion igues lecu dan gaztelu segurua. Bijoaz, bada, beragana bere seme-alaba guciac, eta emango die bérac escatzen asma dezaten gucia baño asco gueyago (4).

Eztago dudarie, person ascori guertatzen zayela, Jaincoaren serbitzari batec beñ espirituz icusi zuana. Jarri citzayon beguietan, ceruelaco erreguiña iturri guciz ugaritsu baten irudian; ascoc ateratzen zuten ura ugari andie; baña bacarrie ontzi oso eta zulogabeaquin joaten ciranac ciran iñurigabe eramaten zutenac; ordea ontzi autsi edo zulodunaquin, au da, animan pecatuarequin aratzen ciranac, ateratzen bazuten ere, lister ur guciac igues eguiten cien; guciz eguia bada ere, on eta gaizto, guizon gucie-

(1) Bernard. Serm. 2. de Ass. (2) Prov 8. 55 (3) Bernard. (4) Joan. Dam, Serm. 2 de Dorm. B. V.

tara ješten dirala bere bidez ordu oro conta al baño gueyago ondasun (1).

Bicitu bezate onequin bere debotoac Mariaganaco beren uste eta confianza beraganatzen diran aldi bacoitzean eta gucietan, eta onetaraco ez beguizquie aztu bi gauza bearrenac; eta dira, Ama gozoác guri laguntzeco dauzcan deseo ta gogóac, eta berác nay gucia guri iristeco daucan escu neurrigabea. Ondo aguertzen ditu bere deseoac fest-egun onen cergaticaco edo motiboac, au da, bere lengusu santa Isabel-i eguin cion icustaldi edo bisitac. Amazazpi ta erdi legua omen daude Nazaret-ic Judaco Ebron-era, eta ala ere, aingueruác itzeguiñ ez al cion, doncella añ biguiñ ta mimbera bideari eman eitzayon. ¿Bada nore artara muguitzen zuan? Bere amore ta onguinay iracequiac, bere beargaya, au da, gracia jaincozcoa zabaltzecoa, berealatic abiatzeco zalez beti cegoan bere biotzeco deseo sutu arc. Etzijoan, Isabel urte-etan aurreratua aurdun zala, aingueruac esan, eta ala ote zan jaquin-miñez, expada poz atseguiñez beteta eche ari on eguiteco zale, gogo ta asmo biciaquin, on eguitean artzen zuan pozagatic, bidean bere buruari presa emanaz, eta bere ontasunac berac eraguiten cion beargay artan bere biotz ta anima gucia ipiñita (2).

Ez uste izan ere ceruan añ zorioneco icusten dalaco guganaco bere onguinaya epeldu edo guchitu dala; bada orañ andiagoo da, ceren an gure bear eta

(1) August. Serm. de Ass. B. V. (2) Ambros, in cap. 1. Luc.

premiac obeto esagutzen dituan, eta gure lacri ta miserien erruqui andiagoa duan, guero desca guentzaquean baño ere on andiagoac guri eguiteco zalez beti egonaz (1); aimbesteraño, non on eguitea berezco grina nola baituan, bere urricaltasuna escatzeraz joatea bera ofensatzat artzen duan (2).

Ondo segurutu guentzaque, ecen Maria arqui dezanac, arquiteco duala on gucia. Eta ¿nore arquitecoin lezaque Maria, ceñ da peccatari galdua dan? ¿Eztaquigu guciz onguillea dala? ¿Bere babesera dijoacen guciac beti beragana artzen dituala, ciertoa ezta (3)? Guccio deitzen zaituet, dagoquigu esaten beguitarte alay batequiñ, gucion beguira nago, guciac niganatzearen egarri naiz, eta ba'diñ munduco peccatari andienac nigana etorri nay badu, neregan die botaco eztedalacoan seguru balegoque (4).

Bere zorientasun eguiazcoa nay duan norenai, bada, prest dauca bera, alabaña anche dago bere birtutecotasun indartsuaz berari gracia ta salbacioa iristeco zalez.

Gure uste eta confianza bicitu bear duan bigarren gauza da escatzen duan gucia iristen duala bere debotoen alde, cierto jaquitea. Egui au on eguiteco beguira zagun orañ consideratzen degun suertaldian bere itzen indar eta bertute portitz eta eraguillea, ceren itzeguin ez al zuan, Isabel eta bere semea Espiritu Santuaren graziaz beteta gueratu ciran (5).

(1) Bernardin de Bust. Mar. p. 1. Serm. 5. (2) Bonav. in Spec. Virg (3) Idiot. in Prol. Cont. B. V. c. 1. (4) Thom. Kemp. (5) Bonav. tract. de Vit. Christ.

Gucíz atseguin zayo Jaincoari, Andre miragarri once gugatic berari cerbait escatzea, ceren orduan, ematen diguna, guri baño obeto bere Amari emandacotzat dauca (1), guis onetan bere Ama eguiazcoa becela bera honratu, eta berari obeditu nayez, Canaco estayetan ere icusi zan becela, non berari atseguin eguitegatic mirari andi hura eguin zuan (2).

Goacen bada uste eta confianza guciuz (esaten digu Apostoluac) graciairen tronu edo egonlecura, misericordia iristeco (3). Egonlecu au da Maria (4). Gracia irichi nay badegu, bada, laster eguin dezagun Mariagana, adituco gaitualaco uste osoaz. Billa dezagun gracia, eta billa dezagun beraren bidez, ceren Espiritu Santuac gozotasun ta biguntasunez bete zuanean, Jaincoaren beguietan an onetsi ta zoragarri eguin zuan bera, non beraren bitartez escatzen ditugun mesede guciac seguru irichico ditugun (5).

Eta baldin fede ematen badiogu san Anselmoren esan an jaquinari, au da: *inoiz lasterrago enzunac izaten guerala Mariagana joanda, Salbatzalle beragana bideguinda baño* (6), ez ceren Jauna gracia gucién jabe eta iturburu cztan; ezpada, ceren gu Mariaren lagunzaz baliatuaz, eta berac gugatic erregutuaz bere erreguac ascoz eraguilleagoac izango diran. Ez gaitean, bada, inoiz ere quendu bere on guciz sagradnetatic, berari ceruco ondasun gucién

(1) Theop. Alexand. (2) German. Orat. de Dorm. Virg. (3) Hebr. 4. (4) Alb. Magn. Serm. de Dedic. Eccles. (5) Bernard. (6) De Exc. Virg. c. 6.

gordetzalle ta zabaltzalleari becela biotz guciaz esan-
 az: *alabaña quizarrazaren osasun eta poz atse-
 guña dala* (1), arren zabal dizai: *quigula Jauna-
 ren urricallasunaren ateac, batez ere gure salba-
 cioraco bearren zoizquigun laguntzac irichiaz;*
 baña onetaraco jarri bear guera oso here esen erru-
 quitsuetan, santo Domingoren erligio sagraduco
 Jaincoaren serbitzari Fr. Regina'doc, berari osasu-
 na ematera aguertu citzayonean, Virgüña guciz san-
 tac berequin cituan bi donecilla ayetaco baten const-
 juz eguin zuan becela. ¡Cer dicha ta suerte zorionecoa
 Señora onec hisitatzea! Baña o elaco mesedeac nay
 baditugu, ieus zagun, bisita zagun sarri bera bere i-
 magiña eta elizetan, eta bear bada-mercedo degu
 ondorengo ejemploan contatzera noan mesedearen
 guisaco bat.

EJEMPLOA.

San Franciscoren erligioco eroniquetan contatzen
 da, onela: orden artaco bi erligioso Ama Virgüñaren
 santuario latera erromerian cijoacela, mortu andi
 batean gautu, eta onegatic guciz estutu, eta cer e-
 guin etzequitencan gueratu ciran; baña oraindic
 aurrerašeago joan, eta illun-abarren artean eche bat
 icusten zutela beguitandu, eta arunz joan, eta iza-
 tez echea arquitu zuten. Ormari elduaz echearen in-

(1) Joan, Damasc.

guruan cebiltzala, atea topatu, eta barrundic ¿ea nor zan? deitzen aditu zuten. Bidéac galduta nora bazterturic etzutelaco basa piztien beldurrez gau artaraco echalcorra escatzen zuten erligioso bi cirala eranzun cioten. Ecer gueyago esangabe, icusten dute atea idiqui eta bi paje edo gazte guciz ederqui apainduc beguiramentu eta moldesi andiaz beret ongui-etorria eguiten. Erligiosoac eche artaco Jauna nor zan galdetu, eta Andre guciz onguille bat zala, eranzun cien Beragana joan nay guenduque eguiten digun mesedearen esquer eracutsiac aguertzera erligiosoac esan ciezen: eta pajeac bera ecustera ceramazquitela, eranzun cien, bada berac icusi nay cituala. Escallera igota, arguiz betelaco sala, guciz antolatu, eta ceruco usay gozo guciz atseguña banatzen zutenac icusi cituzten. Guerocean magestade andico Echeandre bat cegoan lecura sartu, eta onec guciz bigun eta gozotoro artu, eta nora cijoacen galdea eguin cien. Virgüña guciz santaren santuario batera cijoacela, eranzun eta Echeandreac osterac esan cien, bada orduan emango dizuet guciz on izan lequizuqueen carta bat, eta au cien garayan erligiosoen biotzac Jaunaren amorean sutnac ceuden, eta lenago secular ez becelaco poz atseguin batez bete ciran. Andic lotara joan ciran; baña beren biotzetan senti zuten consuelo paregabeac beguiric isteco lecuric ematen etzien. Bigaramon goicean beren esquerrac Echeandreari berriro emanaz aguindu cien carta artzera joan, eta carta artu ondoan bideari eman citzayozcan; baña andic lasterrean cartac nor-

ganacoric gañean etzeducala icusita, osterá eche artara biurtu nay izan zuten, baña eguñal guciaquin echearen astarnaric atera etzuten. Orduan, norentzat ote zan icusteco, carta idiqui, eta icusten dute. Maria guciz santac escribitzen ciela erligioso beray esanaz: *bera zala icusi zuten Echeandrea, eta bé-rari cioten jayeragatic sortu ciela bacar artan echea eta aparia; jarray cezatela arteraño becela eta ordanduco ciztela béren serbitzu eta agur ónac lagunduez bicitzan eta eriotzean.* Cartaren oñean cegoan firmac cion: *Ni Maria Virgína.* Beguira zagun nola gueratuco ciran erligioso on ayec; cer esquerrac Ama gozoari emango ciozcaten, eta eriotzeraño bera amatu eta serbitzeco cer gogo berri ta deseo iracequiac beren animetan sentico cituzten.

ORACIOA.

Virgína manchagabea, Doncella guciz bedeciatua, bada Jaunaren mesede ta misericordiac guizonen artean zabaltzeco beargaya eman zatzu, arrazoiz ta bidez dey dizazuquet, eta deitu bear dizut nere esperanza eta gucion esperanza. Bedeciatzen det nula bider Jaincoa, zugan eman didalaco bere gracia ta nere salbacioa iristeco bide segurua, zure Seme guciz santu Jesucristoren merecimentuac lenen ta andienac dirala badaquit ere. Orañ Doncella guciz santa, cere lengusua icustera joan ciñan becela, atoz laster nere animaco echea ere hura becela bisitazera.

Nic baño obeto daquizu ceñ uts eta bearrecoo dagoan, cembat gura ta grña macur eragabec, cembat quiliaricari gaiztoc erasotzen dioten, cembat astura ta oitura gaizto dauzcan, cembat pecatu eguiñac, bere galerara macurtzen eta arrastatzen duten conta al baño beste gaitz gueyagoreguin. Zuc, erien osasuna eta Jaunaren ondasunac cere contura dauzeatzun orrec, erraz bere d. sdicha ta ezbear gucietatic atera eta aberats utzi dezazuque. Bisita nazazu sarri ta beti bicitzan, bisita nazazu batez ere eriotzeco orduan, ceren estura artan bearrago izango zadan zure laguntza Ezlet, escatzen, ez, (mesede añ gucizcoaren diña ez naiz) bisita nazazula bicitz onetan cerori niri aguertuaz, zure serbitzari ascori eguin diozun mesedea bada-ere; ordea ayec etziran izan mesede orten ezdiña, etziran izan ni becela esquer beltze-coac: eta ala contentatzen naiz zu ceruetaco paraisoan guero icusteaz, non beti betico esquer-eracutsiaquin amateco zaitudan Jaincoa Jainco dan arte gucian. Orañ asco zat cere urricaltasunaz beguiratzea eta nigatic erregutzea. Erregu zazu, Ama maitea, eguizu nere alde zure Seme guciz gozoarequico cere bitartecotza. Nic baño obeto ezagutzen dituzu nere bear eta zorigaitza. ¿Cer gueyago esan dezazuque? Erroqui zaite nizaz. Ecer gueyago ez diot, ceren añ ezjaquiñ eta itsua naizan, non bear dedana ezagutzen ere eztedan, eta escatzen ere eztaquidan. Nere Erregoiñ eta Ama, nere orde zuc eguizu, eta irichi zaizquidatzu nere animaren onari bearren eta izanezcoen zaizcan gracia ta laguntza ayec. Zure

escuctan jartzen naiz osotoro, ez escatuaz Jaunaren Majestadeari beste ecer, ezpada nere Jabe Jesucristoren merecimentuagatic didala zue nigatic escatzen diozuna. Zure erreguay ecer ueatzen etzaye. Amaren erreguac dira, añ maite zaituan, eta onela zu honratuagotzeco eta dizun naitasun biguña obeto aguertzeco zue gogo dezun guciaren ematean añ atseguin duan Semearen aurean jarritaco erreguac. Onctan guera gaitean, Ama laztana. Zugen daucat nere usle gucia, eta zure escuctan gueratzen da nere salbacioa. Amen.

VI^{en} ITZALDIA.

Eliz-sartzea.

Egun onetan ceruetaco Erreguñac eguin zuan sacrificio edo ofrenda guciz garaya, bere Semearen bicia Jaincoari esqueñiaz.

Bi gauza aguintzen cituan antziñaco legueac familia bacoitzeco seme nagusia jayotzean. Batan aguintzen zuan Jaincoac, ama garbieza becela egon cedilla echean sartua, berroguey egunez, eta oyen buruan joan cedilla elizara bere burua garbitzera. Bestean aguintzen zuan, gurasoac ofrenda ceguiotela semea elizan bertan: eta Virginia guciz santac aguintza biac eguiñ edo bete cituan egun onetan. Iza-

tez ere etzegoan beartua lenengora, cereñ Virgiña beti izan zan garbi; baña h'miltasunarequin obedientziari cien amorez nay izan zuan joan beste ámac becela garbitzera. Bigarrena bete zuan bere Semea Ait eternoari ofrendatuaz, baña beste ámac ez becela, eta ayec berenac ofrendatzean eguin oy zuten gogo ta espiritua baño goragocoaz. Oec ondo cequiten etzala hura ezpada legueac aguintzen zuan zarata edo ceremonia bat, bada cembait diru emanta, osterá errescatatuaz, berentzen cituzten, guero eriotzera eman bearco cituzten beldurtasungabe. Baña Mariác berea izatez eta benaz ofrendatu zuan eriotzera, seguru egonaz, orduan abiatutaco sacrificio hura gurutzeco aldarean azquendu edo bucatuco zalacoan; alatan non, Seme añ maitearen bici guciz preciatua Jaincoari ofrendatuaz, berac bere burua, zan gucia oso ofrendatu cion, amorezco sacrificio edo ofrendan becela.

Utziric bada festegun onetaco gañeraco consideracioac, beguira zangun arretaz bacarric Virgiña Amác bere Seme guciz gozoaren bicia añ oso eta biotz andiaz ofrendatzearequin bere buruaz eguin zuan sacrificio onen anditasuna.

Jaincoac erabaquia ceucan pecatuac galdutaco guizona salbatzea, guizon au betico eriotzetic libratuaz; baña nay izanic bere justicia jaincozcoari ecertan acatsiegabe eguitea, escatu zuan guc mereci guenduan castigu edo pena bere Seme bacarrac ordantzera (1). Onetaraco bialdu zuan mundura, Amatzat

(1) Rom. 8.

Maria señalatuaz; baña, etzuan nay izan Maria bere Ama izatea, eta añ guchi Erredimitzalleac bicia ematea, artaraco Mariác bere bayetzcoa lenengotic emangabe, bayetzco onequin batera Amác bere biotz guciz garbia sacrificatu edo ofrendatu cezan; bada nola ama izateac semcaren gañean escu edo jabetasuna ematen baituan, izanic Jesucristo culpaga-be ta garbia, eta castigu edo penaric mereci etzuana, gauza justu ta bidezcoa cirudian Andre arc berác bere nay edo borondatez sacrificio añ garesti artaraco bere baimena ematea. Seme Jaincoaren Araguitzetic ceucan emana bere baimena, baña Jaincoác nay izan zuan egun onetan elizaren erdian gucien aurrean Amác bere burua bere Seme guciz santua-requin batera sacrificio atseguingarrian ofrendatzea (1).

Asi gaitean, bada, sacrificio onec eman cion miñ zorrotza, eta eguiteco gaitz eta miragarri artan bertutezco beargay ceñ andi eta garayae eguin cituan, beguiratzen. Dacuscun nola pauso bician Jerusalem-a dijoan, ofrenda hura garraztasun andiaz bere besoetan estututa daramala. Sartzen da elizan, iristen da aldarera, eta bestec ez becelaco modestia, humiltasun eta debocioaz ipintzen dio Ait eternoari aurrean Semea. Dembora berean Simeon-ec (ceñari Jaincoac eman cion Mesias jayo ta icusigabe hilco etzalaco poza) artzen du Mariaren escuetatic bere besoetan aurcho jaincozcoa, eta orduan Espiritu Santuaren ar-

(1) Epiphan. Or. de laud. Deip.

guiaz, adirazten dio alde aurrez Amari, ceñ garesti irtengo citzayon orduan bere Semeaz egaiten zuan sacrificio edo ofrenda, gañera aditzera emanaz, bere arequin batera sacrificatu bearco zuala bere anima guciz bedeciatua ere.

Villanueva-co santo Tomas-ec misterio oni ondo beguiratuaz, dio, zar santu hura nolana y ere guel-ditu za'a lenengotic isill ta nastua becela, eta Vir-giñae au icusita, cergatic aimbeste poz atseguin eta gozotasunen erdian goibeltzen eta iluntzen zan, galdetuta, sacerdote zarrac cranzun ciola: ¡Virgiña guciz noble ta andia! naigabe miña ematen dit ga-ur zuri ganza triste hilgarrien berri eman bearrac; alabaña Jaincoac ala nai du zure mercedentu gue-yagoraco, enzun zazu esatera noaquizuna. Etorrico da eguna, noiz eta orañ arrazoy andiaz orrembeste atseguin contentu ematen dizun aur onec ecarrico du-an zure animara jayotaco creaturac secular sufritu eztuan becelaco dolore izugarri garratz-miña; eta au izango da, guizonen gaizquinay gucia beragana zu-cendu, eta perseguitua, iraindua, burlatua eta gue-roenean cere aurrean osartegui batean hilla icusi de-zazunean. Eta gorputzeco tormentuen indarrez hilco ezpacera ere, Jaun onec izango dituan conta al baño geyago martiri becela, martiri izango cera biotzean (1).

Bay, biotzean, cercen bere bular guciz santua josi zuan ezpata etzan izan besteric, ezpada Seme añ

(1) Th. a Villan. Serm. de Purificac. t Virg.

maite aren naigabe-pena izugarrien erruquia (1). Ondo cequan Andre jaincozcoac Escritura sagraduen iracurtzetie, eta Espiritu Santuac barrunen eracusten cionetic Salbatzalleac eraman edo sufritu bear zua-na, batez ere bere Pasio sagraduan (2). Ondo cequi-an profetetic bere icasleetaco batec salduco zuala: bésteac bera bacarric utzico zutela; eraman bearco citua'la desprecio, burla, farra, istu, eta masallecoac, erri guciaren burlagarri eta farragarri izatera etort-zerano; bere gorputz guciz santua izango zala colpe ta azoteen indarrez urratua, zatitua, eta zan gucia sorayo edo lepraz estalitacoa becela zauri bat eguiña, eta gueroenean galduco zuala bicia abe batean gui-zónen osasunagatic. Baña zar santuac eman cioncan, dolozco canibetac bere anima igaroco zualacoa, no-la barrungo ala campoco pena guci ayen joan-etor-riac bat banaca aguertu citzaizcan (3). Ordea gucira jartzen da, eta ceruco aingueriac berac izutu citua-nerano sendotasun batequin ematen du Jesus hilt-zeco epaya, eta lotsaquizun, irañ eta dolore garratz guci ayequin hiltzecoa, esanaz: *Ait Eternoa*, zue ala nay dezun ezquero, eguin bedi zue nay dezuna, eta nay becela, eta ez nic nay dedana; ni zure bo-rondate guciz santura oso jartzen naiz Seme laztan au escuelan sacrificatuaz zure gloria eta guizónen salbacioagatic berac bicia galtzera jarriaz, eta one-quin batera nere biotza ofrendatuaz, zue nay gucia

(1) Luc. 2 (2) Psalm. 40.—Zac. 13. (3) Jaunac santa Teresari esan cion becela.

zulotua, estutua eta naigabe-pena garratzez betea izan dedin, onela zu gloriaz betea eta cere nayerara ordaindua guera zaitean. ¡O muga ta baztergabeco caridadea! ¡O seculan aditu eztan sendotasuna! ¡O arritzeco diña ta gueyago dan garaipen eta bictoria! Bere onetan sendo cegoanac becela, etzuan ascatu bere ezpañic Salbatzallea Poncio Pilatoren aurrean salatu zutenean, ez bere garbitasun eta culparic-eza Juez onec ezagutu zuanean ere, eta bacarric sacrificio hura bere beguiaz icusteagatic aguertu zan Calbarioan erri guciaren aurrean, azqueneraño gurutzearen onean sendo ta irme iraunaz; guci au sacrificioa osatzeagatic.

Bera becelaco Ama baten biotzaren anditasuna ezagutu bear litzaque Ama guciz amorezco onec bere buruari bere barrumbean eguin cion borcha no-
raño irichi zan guc ezagutzeco. Béren umeaquico ámen naitasun eta amorea guciz andia izan oy da, eta ala, eriotzaren ortzetan icusten dituztenean, aztutzen dira béren gaiztaqueri eta utseguite guciaz, eta oraindic, bear badá, béracgandic artu dituzten naigabe ta trataera gaiztoaz ere; eta esan al baño andi-
diagoa da orduan senti duten pena, andiagoac eguiten dituzten catazra ta gueyeguiac, eta ori gueyentan béren naitasun eta amorea seme-alaba ascoren, edo beste persónen edo munduco gaucen artean zaba'dua daucatela. Baña Ama maite onec Seme bat baño etzuan, eta bera uts eta faltagabea ezezie zan guizónen seme gucien eder eta cabalena; gozatsua, oboditzallea, garbia, santua eta, itz batean, gucian

guciz oso ta utsiegabea, Jainco zan becela; etzegoan ere bere naitasun edo amorea besteen artean zabaldua, beraganaco naitasunean etzuan gueyeguizcorie izatearen beldurric ere, neurrigabeco amore batez maitatzea mereci zuala, cequialaco. Au izan zan e-gun onetan sacrificatu zuan Semea.

Norenay antz-eman lizayoque emen, cembat au costaco citzayon, eta guertaldi onetan bere biotz andiaren sendotasuna, Semea zana izanaz. Baldin Jaincoaren Ama zalaco munduco Amarie zorionecoena izan bazan, secular besteric baño naigabe, pena, estura ta larri gueyagoz letea ere izan zan, sortu zan unetic, eta batez ere gaur, bere Semea eriotzera senalpendu bear izan zualaco. ¡Ceñ ámac naico du semea, seme au eriotz gogor ta lotsagarria, eta bere beguien aurrean hiltzera eman bearco duala jaquinic? Bada Maria guciz santac artzen du ama izatea condicio guciz gogor onequin, eta oraindic sacrificatzen du Seme au bere escuaz. ¡Cer pozic eramango cituzquean Seme au libratzearen aldera neque-pena guci ayec, eriotzaren caliza garratza edateraño! Alabaña Jaunaren borondatea Seme au berac sacrificatzea zan; sacrificatzen du, benzutuz garratasunic andienaz, eta guciz aldapa eguiten citzayola bazan ere, amore añ piñaren samurtasun guciac (1), izanaz onela ascoz andiagoa bere indar-eguite eta noblecia, tormentu guci ayec bere gañera erori izan balira baño; onela eraguiñaz martirien prestasun e-

(1) Ponavent in p. 1. dist. 43. quæst 2.

ta sendotasunari, bada oec béren bicia ofrendatu zuten becela, Mariác bere burua baño ascoz ta paregabe maiteago zuan Semearena sacrificatu zuan. Etziran ere emen gueratu Ama naigabez josi onen neque-penac, baicic eta orduan asi ciran, ceren aurretontzean Bildots manchagabeac eraman bearco cituan doloreac eta eriotz garratza beti gogoan erabilli cituan, penazco tropelea hura bere biotz biguñean gueituaz, acitzen cijoan becela Semeagan aguertzen cituan gracia, amore eta edertasun andiagoaren heredura. ¡O dolozco Ama! baldin guchiágo amatur bacendu, edota zure Semea zan bezañ maitagarria izan ezpazan, arinágoa izango zan nosqui beraren ofrendatzean zure miñ eta naigabea; bañi seculan izan ta izango ere da zue baño maiteago bere Semea izan duan amaric, ceren seculan icusi etzan, ez bere Amarequico seme gozo eta maitatsuagoric, eta añ guchi amorearen diñago izan danic, nola dan zurea. Baldin gutaco norñaic icusi balu Aur jaincozco aren edertasun ta Magestadea jizango zuan tormentu añ izugarrien erdian padecitzera eta hiltzera emateco biotzie? ¡No!a bada zue, Andrea, Ama guciz maitatia ciñalaric eta bera alde gucietara garbia, eta garbitasuna bera, izan cenduan orrembesterañoco biotza?.

¡Icusgarri ceñ miñgarria iduq ii zuan amorezco Doncella onec bere animaco begaien aurrean egun hura ezquero! ¡Ay, eta nola utsunegabe ta beti beguietaratzen citzayon bere Semea bay buratzaco agonian, bay pillareari lotu eta gucia narrutua, bay

arantzaz coroatua eta bay gurutz iltzatua! Beguira Ama, esaten cion amoreac, beguira nolaco semea ofrendatzen dezun eta cer penetara eta eriotzera ofrendatzen dezun. ;Cer serbitzen du orañ Herodes-en escuetatic ateratzeac, baldin guero bere biciac azquen añ errucarria izan bear badu?

Nola nay ere esan liteque sacrificio hura izan zala bici gucicoa, eta biciaren puntu eta une gucietacoa, ceren ceruetaraco bere igoera gloriaczcoaren eguncraño bere dolore portitzac arin aldiric izan etzuten (1); añ guchi quendu eitzayon bularretic Simeon-ec aldeaurrez aditzera eman cion ezpata zorrotza. Ecin puntu batean ere iraun ceguioquean dolore añ bici ta portitzari, baldiñ Jaincoac bere bertuteaz indartu izan ezpala, bere biciaren ariari iraun eraciaz, onela pade-citu al izan cezan (2). Hiltzen bici zan, ceren ordu oro bere Seme guciz amorezcoaren eriotza beguitandu, eta onen beldurrac erasotzen cion. ;Eriotza bera baño beldurgarriagoco izua (3)!

Onela gure alde irabaci zuan merocimentu guciz garay eta andiagatic deitzen diote santuac guizarrazaren onguillea (4), catibu dandenen libratzallee (5), mundu galdnaren zueentzallee (6), gure miserien a-roatzallee (7), cristau fededun gucien Ama (8), bi-cidunen Ama (9), eta bicitzaren Ama (10), bada ha-turic bere borondatea ecin gucyagoraño biotzetie be-

(1) Birgit. Revel. (2) Anselm. (3) Bernard (4) August. de Fide ad Patr. (5) Epiph. de Laud Virg. (6) Hldefons. S. rm. 4. de Ass. (7) Germ. in Exc. Virg. (8) Ambros. ap. S. Bon Spec. 4. 10. (9) August Serm. 2. de Ass (10) Andr Cret Hom 2. de Ass.

re Semearen nayarequin, eta esqueñiric biac alcarrequin sacrificio bat bera (1), biac alcarrequin erredencioa eguiñ eta guizonay osasuna eman cieten, Jesucristoc gure pecatuen zorra pagatnaz, eta Mariac ordañ edo pagu au guri egoztea bere erreg: aquin irichiaz; eta onegatic dey lizavoque, ecere galera-cigabe, munduaren Salbataleca, irabaciric dicha au bere Seme jaincozcoa Jaincoaren justicia zorrotzaren gogortasunera bere gogoz esqueñi zuanean artu zuan pena ta naigabearequin (2).

Orañ ondo, gueraturic onela erredimitu gucien Ama eguinta, bidezcoa da guec sinistea, bacarric bere escutic ematen zaiztela oyey gracia jaincozcoaren doayac, betico bicitza iristeco bear diran gay eta bideac eta pasioaren irabaci gucia (3); ceren baldin Jaincoari añ gogoan sartu bacitzayon Abraham-ec bere semea mendian berari sacrificatu nay izatca, non onegatic aguindu cion gueituco zuala bere etorqui edo ondorea ceruco izarrac becela (4), ¿cembat atseguingarriago izango etzitzayon Ama guciz amorezco onen sacrificio edo ofrenda? Onembeste amore eta eman-nairen alderaco eguiten du Jaincoac, egun oro guciz gueitzea bere seme-alaba dichazcoen copurua, au da esleituena.

San Simeon-i aguindu cion Jaunac Mesias icusigabe hilco etzalacoa; baña norgatic merecitu zuan mesede au? Mariaren bidez ¿Non icusi zuan Jaincoac?

(1) Arnold. Carnot tr. de Laud. Virg. (2) Dion. Cart. l. 2. de Laud. Virg. art. 25, (3) Bernard. Sermon. de Aquae (4) Gen. 22.

Mariaren beso garbietan. Ala Jesus billatu nay duan guciac eztu cer billatu ezpada Mariaren bidez. Goac-en, bada, Ama miragarri onegana uste ta confianza osoaz baldin Jauna topatu nay badegu. Virgĩnac ber-rac bere serbitzari bati (1) aguertu cion, ecen urte gucietan bere Eliz sartzeco festegun onetan eguiten zayola peccatari bati misericordi andi bat. ¿Nore da-qui gutacoren bat izango bada ere suerte oneco oec-tacoren bat? Gure gaiztaqueriac andi ta izugarriac badira, andiagoa da bere urricaltasuna. Bere Seme jaincozcoac ecer ucatzen eztio, eta baldin Semea gu-requin aserre bada, Ama guciz biotz beraac bere gañ artzen du Jaun au gozatzea. Plutarcoc contatzen du, ecen Antipatroc esribitu ciola beñ Alejandro Magnori, onen Ama Olimpiaren contraco espaasnez betetaco carta luce bat, eta cart au iracurrita, Alejan-droc esan zuala, ¿Antipatroc eztaqui carta au bece-laco milla gueratzen dirala borratuac nere amaren malco batequin (2)? Onela eranzuten diela, uste bear degu, Jesucristoc ere etsayaren salaqueta edo acusa-cioay, Mariac gugatic erregutzen duancan: ¿Lucifer-rec eztaqui nere Amaren itz bat asco dala, cernay peccatariren ofensa guciac ni aztutzeco? Iracur zagun au on eguitemo ondorengo

EJEMPLOA.

Ejemplo au orañdaño iñongo liburutan esribitu

(1) Prudenciana Zagnoni, ap. Marc. (2) Plut. in Alexandr.

ezta; baña nie daquit guertacaria, berarequin igáro zan nere lagun sacerdote batec contatu izan didalaco; eta ara nola dan. Lagun oni erri bateco elizan (erriaren icena isilic gordetzen da, cembait beguiramentugatic, penitenteac eman bazuan ere guertaera barreatzeco escudancia) confesatzen cegoala, jarri eitzayon aurrean confesatu nay zuala, eta etzuala cirudian galay gazte bat. Confesoreac beñ ta berriz berari beguiratu, eta gueroenean, ea confesatu nay zuan, galdetu cion. Eranzun cion bayetz; baña confesioa lucea izango zalacoan, joan ciran bacarlecu batera. An gaztea asi zan esaten arrotza zala, eta eche onecoa; baña biciera guciz galdu bat eguiñic, Jaincoac barca ceguiqueala usle etzuala. Conta al baño gueyago pecatu loy, eriotz, eta besteaz gañera esan cion, bere salbacioaz ernegatua cegoala, ta pecatua ta gaiztaqueria gaiztaqueriaren gañean eguiñaz joan zala, ez aimbeste artan artzen zuan atseguinagatic, nolata Jaincoaz gogaitu, eta berari cion gorrotoz. Beste gauzen artean esan cion, berequin ce-rabillela Santo Cristo bat, eta oni burlaz ta desprecioz eman ciozcala azoteac. Gañera esan cion, goiz artan bertan joan zala sacrilegioz comulgatzera, eta ¿certaraco? guero hostia sagradua osticopean erabiltzeco asmoaz, eguitera cijoan becela, baldin orduan an barrera cijoan gendeac icusi cezan beldurrez lan hura utzi ezpalu; eta izatez an eman cion Aitari hostia paper batean bilduta. Guero esan cion, eliz aren ataurretic cijeala barrura sartzeco bultzada eta indar añ andia sentitu zuala, non, ecin gogorric eguin i-

zan cion, eta bereala concienciaco quezea ta imurtzi bici bat confesatzeco cerbait gogorequin, baña bazan-
ezpazangoa, eta asmo ta intencio laburrarequin. O-
netaraco jarri zala an confesonarioaren aurrean; ba-
ña alaco lotsa, nasqueta eta desconfianzaz non oster-
ango aldiac eguiteco gogoac eltzen cion; baña agui-
ri etzan escu batec an gueraeracitzen zuala, iruditu
citzayola, berorrec, Aita (esan cion) deitu cidanera-
ño. Emen nago, eta confesatu nay det, baña ezta-
quit nola. Aitac galdetu cion, ea dembora guci artan
debocioren bat izan zuan, aditzera eman nayerz Vir-
giña santaganacoa, ceren óntze añ miragarrien one-
laco triunfoac escu andico Erreguiñ onen escuetatic
baño ez oy datocen—¿Cer debocio, Aita, baldin con-
denatutzat banegoan?—Contura zaitte obeto, esan ci-
on ostera confesoreac—Ecer ez, Aita, eranzun zuan
gazteac, ezpada onaco au, eta escua colcoan sartu,
eta aguertu cion Ama guciz santaren escapulario bat
—¿Icusten dezu, seme? Virgiña guciz santari zor-
diozu mesede au bezañ señalatua, eta eliz au bere
eliza da. Orduan gaztea biotza samurtu, eta asi zan
damutzen, eta negar eguiten, eta confesioa aurrera-
tuaz eijoan becela, aimbesteraño bere damu ta ne-
gárrac aci ciran, non cirudienez cordea galdu ta e-
rorri zan. Aitac espiritu batequin gaztea bere oneratu,
eta confesioa bucatu ondoan absolbitu zuan, gaztea-
ren poz-atseguin, eta biciera berri on bat artzeco as-
mo sendoaz. Eta ainguernen Erreguiñ eta peccatarien
amparatzalleac berarequin eguin zuan oy ez becela-
co misericordia barreatu ta zabaltzeco escudancia

Aitari eman ondoan, bere errira itzuli zan.

ORACIOA.

¡Jaungoicoaren Ama guciz santa eta nere Ama!
 !Beraz aimbesterañocoa izan zan niganaco zure on-
 guinaya, non irichi eñan nigalic cere Seme guciz
 gozo Jesus eriotzera esquintzeraño! Ha Ama gozalsua,
 baldin ni salbatzeco dauzcatzun gogo ta deseoc o-
 nen egui zco ta iracequiac badira, ongui jarri deza-
 quet zure escuetan nere uste gucia. Bay, Virgña
 guciz bedeicatua, zugar ipintzen det osotero. Esca
 guiozu Jaunari bere hici gucizpreciatuaren sacrificio
 añ garestian merecitu cenduan guciagatic, erruqui
 dedilla nere animaz, bada beragatic nay izan zuan
 hill.

Nic ere zure guisa eguiteco esqueñi naico nioque
 gaur nere biotza; baña añ nazcagarria icusita ontzat
 artuco eztidan beldurrez escatzen dizut, zue cere es-
 cu guciz garbiaz esqueñ deguiozula, eta orduan eztu
 beregandic botaco. Ona non nauczun, Ama guciz
 onguillea, naizan guci au zuri emanta. Esqueñ na-
 zayozu Ail eternoari cere gauza becela, nere Erre-
 dimitzalle erruquitsuaren ofrendarequin nere batuz,
 eta bere pasio santuaren merecimentu eta zuri dizun
 beguiramentuagatic belico beretzat ar nazala, erre-
 gutuaz. Nere Ama maitea, gurutzeco aldarean niga-
 tic sacrificatuteco, eta gaur alaingo pena miñaz al-
 deurrez esqueñitaco Seme maite onen amorez ez ar-

ren utzi ni instante batean ere, baña alatan, non bere gracia eta adisquidetasuna galtzera seculan iri-
co ez naizan. Esayozu cerea nazula, esayozu zuga-
n ipiña daucadala nere esperanza gucia, esayozu sal-
batu nay nazula; eta seguru salbatuco naiz.

VII.^{en} ITZALDIA.

Maria Virjinaren Doloreaz.

**Maria martirien Erreguin izan zan, bere martirioa
beste guciena baño luce ta mingarriagoa
izan zalaco.**

¿Izango da guizónen artean munduan igaro zan
guertaera errucarri hura adituta bigundu ta samur-
tucó eztan bezañ biotz gogorric? Zan Ama guciz no-
ble eta santa bat, zuan Seme baeat bat, gogora al
gucia baño maitagarri, garbi, eder eta bere Amaga-
na jalquiagoa, aimbesteraño, non naigaberic ariñena
Ama añ laztanari seculan ematetic urruti, beguira-
mentu, obediencia eta amoreric andiena aguertzen
ciozcan beti, eta Amaren onguinay ta amore gucia
bacarric Semeagan bildua cegoan. Baña bere etsa-
yen becaitz eta eciñ—eramanez guezurrezco asma-
cioaz salatu zuten, eta juez gaiztoac salatzalle ayce
ez mimberatzearren, bere garbitasuna aitortu ondo-
an, ayce escatzen zuten becela eriotz lotsagarrira e-

man zuan, eta bere Ama naigabez ta penaz beteac Seme laztan au bere edadearen lorean tormentuen tormentuz hiltzen icusi zuan. Anima jaincocoyac, ¿au adituta cer diozute? ¿Guertacari guciz urricalquizona ezta? ¿Ama hura gure erruquiaren diña ezta? On-do iguelzen dezute nortzaz itzeguiten dedan. Añ gogorqui justiciatutaco Semea gure Eroste maitea da, eta atzapar añ gogorretan gure amarez Jaincoaren justiciari sacrificatua berá icusi zuana, bere Ama. Bada Mariac sufritu zuan pena onec, bera milla bider hilita baño pena andiago onec ongui mereci ditu gure aldetic erruquia eta eskuerra. Baña beste ece-requin eciñ eranzun badiogu, beñic beñ guera gaitan gaur cerbait naigabe ta pena onen garraztasuna consideratzen, berá martirien martiri ta Erreguiñ e-guin zuten naigabe ta pena, martiri guciay eraguin cielaco sufricarietan, bere martirioa beste guciena baño luce, eta mingarriagoa izan zalaco.

I.º PUNTUA.

Jesucristo deitzen da dolorezco Erreguea, eta martirien Erreguea, ceren bicitz onetan besteac baño asco gueyago eraman zuan, eta beraren antzera Maria Virgíña deitzen da Martirien Erreguiña (1), ceren bere martirioa bere Seme guciz santuarenaz campora, munduac icusi dituan gucién andiena izan zan.

(1) Regina martyrum. Ric. a S. Laurent.

¿Eta nere eguiñ cion coroa? Martiri gucienac batuta baño areagoco bere naigabe-pena, antsia-larri eta angustiac.

Martiri eguiazco izan zala ecin duda liteque (1), izanic gauza jaquiña orretaraco asco dala bicia quentzeco diña dan miñ edo oñace bat sufritzea, cer ere baiten bidez iristen ezpada ere hiltzera, eta onela da martiritzat beneratua san Juan Ebangelista olio iraquíñez betetaco lusullan hill ez, baño sartu zutenean baño ardore ta edertasun gueyagorequin andie irten zalarie (2), ceren martiriaren gloria merecitzeco gueron burúac eriotzera esqueñtzea besteric bear eztan (3). Bada Maria izatez ta benaz izan zan martiri, ez horreocen atzaparretan, ezpada eriotz asco, eta cembat obeto bat, berari emateco diña eta asco gueyago ciran bere biotzeco neque-penen indarrez (4); eta nola bere penatzea, edo obeto esango degu, eriotza gueldia alde aldean bici gucicoa izan baizan, eraguin cien padecitzez, beintzat lucetasunari dagoquionez, martiri guciay.

Jayotzetic abiatu zan Jesus padecitzen (5), eta be-
ra becela bere Ama guciz santa. *Itsuso garratza* esan
nay du bere icenac, beste gauz asco ere esan nay di-
tuan becela, eta onegatic egozten zaizea Jeremias pro-
fetaren itz oec: *Andia da, itsusoa becela bere bar-
rungo goibeltasuna* (6). Itsasoco ur gucia garratz ta

(1) Au probatzen dute, Dion Cartusiano, Pelbarto, Catariano ta bestese (2) Erev Rom 6. Maii. (3) Thom 2 2, q. 124, a 5. ad 5. (4) Bernard ap. Baldi 1. 1 p 456. (5) Bernard. Serm, 2: de Pass. (5) Thr 2. 1.

gacia da, eta Andre miragarri onen bici gucia gar-
raztasunezco itsaso izan zan bere Semearen Pasioa
beti gogoan cerabillelaco, ceren ecin duda guen-
tzaquean, Espiritu Santuac arguituta, aditzen citzayo-
la, bere Pasio ta eriotzari cegozquien profecia gucie-
tan, alde-aurrez eguin cituzten profeta beray baño as-
coz obeto (1), eta besteen pecatuacgatic Jaunac era-
man bearcooituan neque-pena eta tormentuac, orain-
dic Seme Jaincoaren araguitzca baño len goibeldu, es-
tutu eta naigabe ta penaz beteco zutela doncella gu-
ciz bigun aren biotz samurra (2). Guero bere mar-
tirioa asco gueitu, ta eriotzeraño aitu etzizayon.

Eta nola naiere au adirazten zuan santa Brigidae
Erroman Santa Maria Andieneco capilla batean izan
zuan icusquerac, non Ama Andre Virginea Simeon
zar santuarequin, eta aingueru bat ezpata luce o-
doldua escuan zuala (biciac iraun cion guciraño A-
maren bularra igaro zuan dolore portitzaren señaleara)
aguertu citzayon (3). Eta ala dirudi dagoquigula e-
sateu: Anima erredimituac, nere doloreen alabac,
ez bildu zuen urricaltasuna nie nere Seme guciz go-
zoa hiltzen icusiaz gurutzearen oñean igaro nituan
iru ordu eriozcoetara bacarric, bada ascoz lenagotic
asi ciran nere pena; eta aurcho zala berari bularra
ematean, eta berá nere besoetan estutzean, eta ordu
eta puntu gucietan (4); eta bere piztea baño len, ta
guero bici ta berria becela iduqui nuan beti zauri

(1) Birg. Rev. Serm. Ang. c. 7. (2) Ejusd. Serm. c. 16. (3) Rev.
lib. 7. c. 2. (4) Rup. abb. in cant. c. 4. Ps. 57.

barruncoy hura biotzaren erdi erdian (1).

Onela, naigabez daudenay beren pénac arintzen dizten demborac etzituan izpiric arindu Mariarenac, baicic eta cembat dembora igaroago, aimbat andiago bere penac ciran, alde batetic bere amorearen gay guciz gozoagan egunetic egunera edertasun ta maitagarritasun gueyago aguertuaz, eta bestetic bere pasio ta eriotzaren garaya añ lasterca cetorrela, icusiaz. Arroza acitzen da; baña arantz-artean acitzen da; eta ala Andre miragarri au arantzaz eta naigabepenez ingurutua bicitu zan beti (2). Goacen orañ bere dolorearen portitztasuna beguiratzera.

II. en PUNTUA.

Maria guciz santaren naigabe-pénac luzarocoac izateaz gañera, izan ciran Eliza santaren martiriac eramán cituzten guciac baño portitz ta biciagoac. *¿Norc esan noraño irichi ciran? Ongui deadar eguin guentzague Jeremias profetarequin: ¡O Andrea! ¿norcquin berdinduco zaituqu? Bazter eta ondogabea, ich-isoa becela, da zure dolorea: ¿Norc arinduco dizu? ¿Norc postuco zaitu? Eztago ichasoarena becelaco garrastasunic, ez zure dolorea berdin lezaquean doloreric ere (3), alatan non, baldin Jaincoac mirari guciz berarizeo batez gorde*

(1) Birg. Rev. 1. 6. c. 65. Taulerus, Vit. Chr. c. 48. (2) Birg. Rev. Serm. Aug. c. 61. (3) Thren. 2. 4.

ezpalizu bicia, puntu oro ceramazun dolorea ascoco zan zuri bicia quentzeco (1). Eta oraindie gueyago esateratzen da santu bat (2), eta da ecen padecitze hura creatura arrazoidun edo senticor gucietara zabaldua, ascoco zala guciac beñgoan hiltzeco.

Bada ondo: ¿cer izan ciran dolore añ oy ez bere-lacoaren bide? Lenengoa izan zan, martiriac gorputzean sufritu zutela, baña Mariac animan, Simeonec aldeaurrez esan cion becela (3). Eta cembat anima gorputza baño noble ta mimberago dan, aibat craguin cien bere penac beste martirienay, ciertoa dalaco, ecin berdin litezqueala gorputzeco do'oreac animacoaquin, Sena-co santa Catalinari gure Jaunac esan cion beccla (4). Orrela beraz Salbatzallea gurutzean hill zanean samintasunezco mendi artan cogoqueanac, icusico cituan bertan bi aldare, bata Erredimitzallearen gorputzean, eta bestea Mariaren biotzean, bada Semeac bere Gorputz guciz santua eriotzarequin sacrificatzen zuan unean bertan Amac bere anima sacrificatzen zuan urricaltasunarequin (5).

Bigarren, izan zan bide, beste martiriac beren bicia eman edo ofrendatu cituztela; baña Virgiña biotz guciz andicoac bere bicia baño maiteago zuan Semearena (6); alatan non Jaunac bere Guizatasun sagraduan craman zuan gucia Mariac animan sufritzeaz gañera, oni miñago eman cion bere Semearen

(1) Anselm. de Exe. Virg. c. 5 (2) Bernardin. Senen. tom. 4. Serm. 61. (3) Luc. 2. (4) in ej. vita. (5) Arrol. Carn. Tr. de seqt. verb. Dom. in cruc. (6) Antonin. p. 1. tit. 15. c. 24.

neque-penen icusteac, ciran guciac berac berez eraman balitu baño. Eta onetan eztago dudacic, ceren seme-aláben naigabe-penac beren ámen naigabe-penac diran, ayec padecitzen icustean: testigu Macabeon ama, norc eta bere zazpi semeen tormentua bere beguiac icusirie, ciran gucién martirioa bere biotzean sufritu zuan (1). Berebat guertatu zan Ama naigabez josi onequin: Jesusen aragui garbi gaitzgabeay alaco tormentuac eman ciezten onáce miñ, azote, arantz, iltze eta gurutzéac Amaren biotzean sartu ciran (2), norengan barrundic Semearen dolore portitzen ispillu bici izanaz, icusten baiciran erretratatu eta berrituac; colpe, zauri, istu, eta Salbatzalle jaincozcoac bere gorputz gucitic ceramazquin neque-pena guciac (3), bere Ama dolorezcoaren biotzean batuac egonaz (4).

Guis onetan bere Seme laztanaganaco erruquiaren indarrez izandu zan bere biotz amorezcoaren barrumbéan azotatu, arantzez coroatu, gurutz-iltzatu, eta onela galde guiniozaque: Andrea, ¿non ceunden egun artan? ¿Bacarric gurutzearen aldean? Ez, baicic gurutzean bertan eta cere Semearequin gurutzefiatua (5). Eta zue, Jauna, arrazoi ta bideric ascerequin eracusten cinduan gure erredencioco ordu andi artan bear aibat zu erruqui cinduan guizonic zure ondoan etzalaco espaasunac; baña izan zan ema-

(1) August. Serm. 109. de Divers. c. 6. (2) Amed. Hom. 5. (3) Laur. Justin. de agon. Chr. c. 11. (4) Bonav. de Planet V. in Stim. Am. (5) Id. loc. cit.

cume bat, eta bera zurc Ama, norc ere zuc cere Guizalasan sagraduan eraman cenduan gucia bere biotz amorezcoan eraman zuan (1).

Baña oraindaño esan deguna guchi da, ceren asco gueyago zan bere Semea padecitzen icusteac sufri-eraguiten ciona, gucia berac padecitu izan balu baño. Comunquiro gurasoay mingarriago zaizte beren seme-aláben gáitzac beren buruenac baño (2); Eta baldin gucietan onela ezpada, Marian onela izan zan dudagabe, ceren izanaz bere bicia baño, eta milla bi-ei izatera, guci ayec baño paregabe maiteago bere Semea, au padecitzen icusteac ematen cion miñ eta naigabea ascoz andiagoa zan, pasioco tormentu guciac berac bere gorputzean eraman balitu baño (3). Eta au arguio icusten da, ceren, esan oy dan be-cela, gueyago dagoan anima berac maite duan lecu-an, berac bicitzen duan gorputzean baño; eta non ere bacoitzac here ondasuna daucan, an daucalaco bere biotza. Bada baldin amorearen amorez beregan baño gueyago bici hazan bere Jab-arequiin biotzez estu batuta, gauza jaquiña da, milla aldiz bere bicia galtzea baño mingarri ta garratzago izan cit-zayola au hiltzen icustea.

Emendic ateratzen da bere martirioa martiri gu-ciena baño paregabe andiagoa izateco beste bide eta motiboctatic bat izan zala, ayec baño gueyago era-mateaz gañera, inñoren laguntz eta consuelogabe e-

(1) Ric. in Isai, 56, 5 (2) Erasm, Libell, de Machab. (3) Amed Hom. 5.

ramatea ere. Martiriac padecitzen zuten, baña Jesucristori cioten amoreac gucia gozo ta atseguin eguiten cien. San Vicenteri ezur guciac beren lecuelatic oñazteguian atera, gorputzeco aragui guciac burnizco orraceaz urratu, eta plancha gorituaz cigortu ciozcaten; baña tiranoarequin itzeguiñaz, tormentu ayetan alaingo sendotasuna aguertzen zuan, eta añ ecer guchian ceuzcan, non ayec ceramazquiara bat, eta itzeguiten ciarduna beste bat cirala, cirudian; aimbesterañocoa zan odolguirotza aren erdian Jaincoaren amoreac ematen cion gozotasun eta atseguin contentua. San Bonifacioren gorputza burni ualaz ebaquitzen zuten, azcazalaquin ermamiaren artean cañabera-printzac sartzen ciozcaten, aotic berun urtua sartzen cioten, eta bera etzan gueratzen esatez: *esquérac dizquitzut Jesucristo nere Jauna*. Marco ta Marcelino santuac béren oñac abe bati iltzez josita loturic, asco ceramaten, eta tiranoac desdichatuac deituaz, pena ayetatic irteteco bidea ar cezatela, esanic, tormentu ayec baño atseguin contentu gueyago eman cien jan-edanetan secular arquitu etzirala, erantzun cioten. San Lorenzoc asco ceraman baña parillan biciric erretzen cegoan garayan beste su indartsu ta biciago batec, (au da Jaincoari cion amoreac) bere bularra sututzen zuan (1), eta onec alaingo balentia ematen cion, non bere tiranoaz burlatzera atrebitu zan, ciotsala: *Erre ciatac alderdi bat, ipiñi nazac bestera, eta janzac nere ara-*

(1) Lco Ppp. in Nat. S. Laur.

guitic. ¡Nola citequean martirio añ gogor eta lucea ceraman garayan era onetan jolastea? ¡Ah! Jaincoaren amorezco orditasun santu artan tormentuac eta eriotza ere sentitzen etzituala, esan liteque (1).

¡Custen degu, dada, cembat Jaincoa maiteago zuten, aimbat guchiago sentitzen eituztela oñace ta tormentuac, bérae alaitzeco ta indartzeco asco izanaz beren Jaungoico gurutzeficatuari beguiratzea.

Baña gure Ama guciz santac ¡cer poz artzen zuan bere Semearen amoretic, eta beraren pénae icustetic? Batere, eta oraindic bere dolore garratzaren gay ta bide gucia padecitzen zuan Semea zan, eta borrero gucien gogor ta odolguiroena oni cion amorea. Ceren izatez bere martirioa bere Seme adoratuac ceramazquian naigabe-péneñ icustetic cetorren eta orregatic, cembat amorea andiago, andiagoa zan dolore ta pena, eta guchiago béren aringarria. Beste martiriay amoreac pénae gozatu eta itsausiac sendatzen cizten; baña zuri, ó ceruelaco Erreguina, ¡cere zureac ariñ ceguizquitzun, cer gozagarric zure biotzeco zauri-itzausiac goza ceguizquitzun? Beste martirietaco bacoitzac berequin dauzca bere martirioco lanabesac: san Pauloc ezpata, san Andres-ec guntze gorria, san Lorenzoc parrilla... Baña zucere Semea bera daucazu cere cramanquizunen lancay eta causa bacarra becela, cere magalean (2).

Cembat gauza bat maiteago, aimbat bera galtzea mingarriago zagu; eta ala minago ematen digu seme

(1) August., tract 37 (2) Bernard, ap Crois Vit. Mar §. 25

alaba edo senide baten eriotzac, atze baténac baño. Bada onela Ama guciz santaren dolore garratza bere Seme Jaincozcoaren eriotzean noraño irichi zan eza-gutzeco, berari cembat nay cion, jaquin bearco guen-duque (1). Baña ¿nore amore añ sutua neurri leza-que? Bi amore guciz bici ceuden alcarrequin sutuac biotz artan; berezcoa eta ceruticacoa; au da amare-na, eta bere Jainco eta Jaunaren maitatzallearena (2), eta biac igotzen zuten sugar bat añ bici eta an-dia, edo obeto esateagatic, añ neurrigabca, non a-nima batean cabi al ditequeana gueyagora iristea e-cinquizuna dan (3). Beraz amorea neurri ta muga-baguea bazan, neurri ta mugabaguea izan zan dolo-reca ere (4).

Beguitandu dezagun, bada, Ama guciz dolorezco onec gurutzearen onetic esaten dizquigula Jeremias profetaren itzac: *zuec, bidetic zoaztenac, beguira zazute ta icusi ea dan nere dolorearen antzecoric*: *zuec* nizaz cupitzen aleric gueratu gabe bicitzaren bidetic lasterca zoaztenac, gueldi zaitezte instante batean, eta beguira zadazute orañ nere Seme guciz gozoa hiltzen beguira nagoan onetan, ni baño per-sona estutu eta naigabez josiagoric munduan ote dan icusteco. Ala da, Virgíña naigabe pena ta dolo-rez betea: eztago zure dolorearequin berdin liteque-an doloreric, ceren etzan izan secular Jeus baño Seme maitagariagoric, ez zu baño ama maitatsuago-

(1) Cru. a Lap. (2) Amed. Hom. 5. de Laud. Virg. (3) Guliel. Paris (4) Ric. a S. Laur. Alb. Magn.

ric ere (1).

Onela martiri guciac batera baño gueyago eraman zuala badiogu, oraindie guchi esan degu (2), ceren guci oen penac Mariaren penen aldean utsa ta ece- rez becela diran (3), bada Ama guciz naigabetu o- nenac añ goy mallara igo ciran, non bacarric bera bear aimbat erruquitu zan Jainco Guizon eguiñaren eriotzaz (4).

Baña Andrea, ¿cergatic joan ciñan zu Calbarioco mendira cere burua sacrificatzera? ¿Etzan asco gu erredimitzeco Jainco gurutzeficatu, haicic eta bere Ama guciz santac ere nay izan zuan gurutzeficatu bere burua (5)? Bay eguiaz, mundua eta conta al baño gueyago mundu erredimitzeco asco zan; baña nola guganaco gure Amaren onguinaya añ andia bai- zan, nay izan zuan berac ere bere aldetic gure sal- baciocac bere doloreen merecimentuquin lagundu, bere burua gure onagatic calbariocoan ofrendatuaz, a- latan non, baldiñ zor badiogu gure Erredimitzalle jaincozcoari fiñeza añ garay ta señalatuagatic (6), zor bear diogu bere Ama erruquitsuari ere, gu pe- catuco egoera negargarritic atera guindecen, aimbeste ta aimbeste neque-pena pocic eraman citualaco (7), bada esan liteque, aimbeste naigabe-penen erdian bere alaiune bacarra munduaren Salbatzalle jaincoz- coaren pasio ta eriotzarequin gu Jaincoarequin beti-

(1) Laur. Justin. l. 3. de Laud. V. (2) Hdef. ap. Sinisc. Mat. de Mart. Cons. 56. (3) Ansel. de Exc. Virg. c. 5. (4) Pinus. (5) Bonav. ad. Pac. Exc. 10 in Sal. Ang. (6) Alb. Mag. sup. Miss. c. 20. (7) Birg. Revel l. 3. c. 50.

co ondo jartzera guinjoacela, jaquitca zala (1).

Esquer dizayogun amore añ piñagatic Maria guciz santari, bere doloreac gogoan erabilli, eta berezaz cupituaz bederic, bere miñean lagun zayozcan, gugatic eraman cituan aimbete neque-pena eta tormentuaz oroitzen diran persona añ guchi izateaz bere espaasunac aguertzen dituala, jaquiñic; izanaz beste aldera guciz bere gogocoa, bere neque-penac guc gogoan erabiltzea, Serbitac deritzayen erligioaren zazpi fundatzalle santuay aguertu cien becela, erligio sagradu hura certaraco izango zan adirazten zuan jantzi edo habitu beltza erabilteco eman cienean. Onen erara aguertu cion Jesucristoc Binas-co Veronica Doatsuari ere, ecen alde aldean atseguña-go záyola bere Ama guciz amorezcoaren penaz gu erruquitzea, berac igaro cituanaz baño (2). Eta Pelbartoc contatzen du (3), santa Isabel-ec ceruco arguitasunaz jaquin zuala, Maria cerura igo ezquero san Juan Ebange'istari Ama maite au berriz icusteco zaleac eldu, Ama au gure Jaun Jesucristorequin batera beragana etorri, eta mesede bicañ arc ciraubitartean Amac bere doloreen debotoentzat mesede señalaturen bat escatzen ciola bere Semcari, eta Jaunac aguindu ciozcala lau, andienetaco oec: 1.^a Bere doloreen merecimentuacgatic berari deitzen di-on guciac eguingo duala hill baño len bere pecatuen penitencia. 2.^a Jaunac berac gordeco dituala deboto

(1) Simon. a Cacia, de Gest. Dei. l. 2. c. 27. (2) Ap. Bolland. 45. Juan. (3) Stellar. lib. 5. p. 5. v. 5.

guci oec beren estura larrietan, eta berezquiro beren azquen-orduan. 3.^a Josico duala béren animetan bere Pasioaren oroitzapena, eta guero emango diela ceruan onegatic mereci duten ordan-saria. 4.^a Ipiñico dituala Mariaren escuetan bere doloreen deboto oyee oezaz berac nay duana eta nay becela eguin dezán, eta gogo duan gucia irichi deguien. Dacuscun au oneguiña ondorengo

EJEMPLOAN.

Santa Brigidaren Errebelacioetaco liburuan con-
tatzen da (1), eeen izan zala Jaun bat bere jayotzez
añ goimallaco ta andia, nola oitura guciz galdu bi-
urrietacoa, bada demonioari bere aguindupeco izate-
co itza emanic, iruroguey urte lucetan Sacramen-
tuetara alderatugabe bicitu zan, emendic datocen
aztura ta oitura galdu eta zabarqueriarequin. Baña
mundu onetatic irten bearreco ordua irichi citzayon,
eta Jesucristoc artzaz misericordia eguiñ nairic, san-
ta Brigidari aguindu cion, bial ceguiola bere confe-
sorea eta saya cedilla au guizon hura confesatzera
muguitzera. Confesorea joan zan; baño gaçoac len e-
re confesatu zalaco aitzaquia eman eta onembestez
utzi zuan. Bigarrenean joan zan, hera beti lengo
setan. Jaunac santari berriro aguindu cion, Lial ce-
guiola guizon ari berriz ere confesorea, eta onec i-

(1) L. 6. 97.

rugarrenean joan, eta santaren errebelacioi aguertu-
 cion, gañera esanaz, Jaunac berarequin misericordia
 eguin nay zualaco cijoiquiola orduan ere. Au aditze-
 an gañoa biotza samurtu, eta negarrari eman citza-
 yon, deadar eguiñaz: *¿Nola irichi bear det nic nere
 pecatuen barcacioa iruroquey urte lucetan de-
 monioa serbitu eta conta al baño queyago pe-
 catu eguiñic?* Confesoreac animatu zuan Jaincoa-
 ren icenean barcacioa aguinduaz. Orduan alaitu, e-
 ta esan zuan: bere salbacionz ernegatu bazuan ere,
 condenatutzat cegoalaco, bere gaizqui-eguiñen do-
 lore eta damua barranda citzala, eta Jaunaren ur-
 ricaltasunean confiatzen zala. Eta izatez egun artan
 bertan damu andiaz lau bider confesatu, bigaramo-
 nean comulgatu, eta seigarrenean oso damutu eta
 Jaunaren borondatera jarriric, hill zan. Guero itze-
 guin cion Jaun guciz amorezcoac santari, peccari
 aren animi purgatorioan cegoala, eta bere Ama Vir-
 giñaren bitartecotasunez salbatu zala, aguertuaz,
 ceren eguin zuan biciera gilduaren erdian Ama mai-
 tearen doloreay jayera izan cien, bururatzen citzaiz-
 can gucian berezaz erruquituaz.

ORACIOA.

Virgiña dolorez guciz betea, martirien Erreguiña,
 ¿certaraco izango zaizquit zure Seme guciz santuaren
 pasio eta eriotzean nigatic iñuri cinduan aibeste
 malco gori, baldia gueroenean condenatu bear ba-

nitz? Bida zure doloreen merecimentuacgatic escatzen dizut, irichi deguidazula nere pecatúen damu eguiazcoa, nere oitura ta aztura macúrriac zucent-zeco gracia eta Jesucristo nere Jaunaren naigabepéne eta zureen betico urricaltasun samur bat. Eta alabaña bioc nola bioc garbi eta errugabeac ciñatarie aimbeste nigatic eramán cenduten, irichi zadazu nic betico eriotza mercei dedan onec ere zuen amorez cerbait eramatea. Azquenic, ene Ama, cere Semea burua macurtuta bere azquen-arnasa gurutzeco abean ematen icusi cenduanean, zure bular amoretsuac artu zuan naigabe larri argatic escatzen dizut, irichi deguidazula eriotz on baten gracia. Etorrico dan ordu estu, jatzar gogor eta erio sugarrezco artan, eternidaderaco pauso artan, ez arren utzi niri laguntzea, ¡ó peccarién amparoa! Eta nola orduan erraz litequean itzgabe gúeratu eta zurequin Jesus-en icen guciz gozoac eciñ esan al izatea, bertatic, ene esperanza, deitzen ta otseguiten dizuet bioy, estura añ larrian lagun zadazutela, humilquiro escatuaz, eta onetaraco orañ diot, eta milla bider esango det: Jesus eta Maria, zuen escu guciz santuetan ipintzen det nere anima. Amen.

Zazpi doloreac banaca azalduaz itzaldia.

1.º DOLOREA.

Simeon-en profecia.

Negarrezco bici-lecu onetan negar eguiteco jayotzen guera, eta egun bacoitzean daucagu eramankizunen bat; baña ascoz penagarriagoa litzaque bicitza, baldin beguira dagozquigun gaitz guciac aldeurrez baguinaquizqui. Jaincoac onetan begui erruquitsuaz beguiratzen digu, ip.ñi bear dizquigun gurulzéac gure beguiay ezentatuaz, bitan eramanez ditzagun. Ez onela Maria guciz santarequin, ceren bera dolorezco Erreguiñ eta gucian bere Semearen antzeco izateco señalaturic, etorquizun citzaizcan naigabe-pena guciac, au da, Seme añ maitearen pasio eta eriotzecoac aldeurrez beguietaratu ciozean. Beguira dezagun, bada, nola Simeon-ec Aureho jaungoicozcoa besoetan ceucala, Virgüña guciz biotz biguñari alde aurrez esan cion: *Aur hura contra eguite eta persecucioen gay izango zala, eta onegatic bere onima (Amarena) izango zala dolorezco canibetaz igaroa.*

Ama maiteac berac aguertu cion santa Matilderi, ecen, etorquizun au aditu zuan bezañ laster bere poz-atseguin gucia barrungo naigabe ta goibeltasu-

nera biurtu citzayola, ceren, santa Teresari ere aguertu citzayon becela, orduraco Ama guciz bedecatuac bacequian ere bere Semea guizonaren osasunagatic sacrificatu bear zala; orduan ezagutu cituan bat banaca ta arguiroago pasio eta eriotzeco gauza guertaquizonac; no'la gucian perseguitu eta contra eguingo cioten, arguiro aguertuaz. Eguingo ciotela contra bere eracuste edo dotriñan, ceren berari sinistu bearrean blasfemotzat tratatuco zutela, gau triste artan Caifas-ec aintzat eman zuan becela, bera Jaincoaren Semea za'la, eracusten zuan. Eguingo ciotela contra bera zana zalacotzat iduquitzean, ceren Erregueen odolecoa zalaric, despreciatu eta billantzat iduquico zuten. Bere izatez jaquintasuna bera zalaric, nola ez jaquin, guezurrezco profeta, ero, ordi, tripazay, gende galduen adisquide, sorguin, herege, gaitzquindun eta itz batean, guizon añ gaitzquille ezagututzat, non bera eriotzera emateco paper-b lltzte edo auci-usi bearric, juduac Pilatosi esan cioten becela, etzuantzat iduquico zuten. Contra espirituan, ceren Jaincoaren justicia oso pagatua guera cediñ bere Ait eternorañooca ucatuco zala, bera poztutzera, esan cegñonean: *Aita, al bada, iqaro bedi nigondic caliz au;* eta ala bere beldur ta barrungo illuntasunean utzi zuan, alatan non, naigabe ta desamparoac bicia ez quentzea gucian egon zan, eta bere animaren barrungo pe'ea, congoja ta pena estua gorputz sagradu gucitic odolezco icerdia emateraño irichi ciran. Azquenic, contra eguingo ciotela eta perseguituco zutela gorputzean e-

ta bician, eta ala beré escu, oñ, arpegui, buru eta gorputzaren alde gucietan artu cituan golpe ta arraditzetatic odol nstu, eta desprecioz estaliric, abe lot-sagarri batean hill zan.

Erreguéac oy dituzten atseguin-contentuen erdian David-ec aditu zuanean Natan profetaren aotic, bere semca hilco zalacoa (1) negarrari saminquiro eman, lurrean etzan, eta barau gogórraz bere gorputza mortificatu zuan. Mariac bere Seme bacarraren cri-otz gogorraren berria biotz andi batez, eta esparic aguertugabe, Jaincoaren nayera oso jarrita artu eta beti artan iraun zuan; baña nolacoa izango zan bere dolore miña Seme guciz maitagarri hura beti beguicn aurrean ccusala, izanaz bere itzac betico bicitzazcoac, eta bere eguite gucietan santutasunac argui eguiñaz? Baldiñ Abraham-ec aimbeste bere barrumbean eramán hazuan bere semearequin itzeguiñaz seme au sacrificatu bear zuan mendira alde-ratuaz Jean ciran iru egun ayetan, nolacoa izango zan Ama amorezco onen, ez iru egunecoa, baicic ogueita amairu urteetaco dolorea; ez Isaac becelaco seme bategatic, ezpada neurri ta mugabague maitagarriago zanagatic? Ordu bacar batean ere etzan e-gon bere anima guciz minberaa dolore añ bici ta zorrotzetic libre (2). Cembat aldiz beguiratzen cion, cembat bider jazten zuan, cembatetan oñ eta escucho biguñ ayey icutzen ciën, beste aimbeste bider doloretan murguildua becela gueratzen zan, gu-

(1) 2. Reg. 13 (2) Birg. Revel 1. 6. c. 9.

rutze batean ipiñico zutela, gogoratuta. Estutzen zuan bere hura bere besartean amore sutuaz; baña cembat amorearen indarra andiago, aimbat bere bularrean laztanduta ceucan mirra chorta samiñago (1), gogoratuaz santuen sendotasuna egongo zala hiltzen; paraisoco edertasuna itsustu, munduaren Jabea gaitzquillea becela lotu, ceru-lúrren Eguillea cupidagabe azotatu, juez gucien Jueza hiltzera sentenciatu, ceruen gloria despreciatu, Erregueen Erreguea arantzaz coroatu eta erreguetzacoa becela erabillico zutela (2). Bular guciz garbia ematen cionean, beguitantzen citzayozcan beazuna ta ozpiña; trosetan biltzen zuanean, sócac eta cordéac; besoetan cerabillenean, nola gurutzean josico zuten, eta lo cetzanean nola hill ta obiratuco zuten (3), gauz oen pensatzean bere beguiac negarrez urtu, eta biotza naigabe garratzez estutuaz (4).

Ebangelistac dio, Jesus urteetan aurreratuz cijoan becela, cijoala Jaincoaren eta guizonen ere beguietan gracia aciaz (5). Esan nay du, egunetic egunera cijoala gracia eta jaquintasun andiagoc guizonen beguietan eta Jaincoarenetan aguertzen, ceren baldin bere izatearen asieratic izan czpalu Seme Jaincoaren persona guizatasunari batutzeac edo batutze hipostaticoac escatzen zuan santutasun eta gracia oso ta betea, ordutic ordura joango cirala be-

(1) Cant. 1, 42. (2) Bernard. t. 5 Serm. 2. a. 5 c. 1. (3) Eugelgrave. t. 2. Ev. Luc. Dom. infraoct. Nat. §. 1. (4) Birg. Rev. l. 6. c. 57. et. l. 7. c. 7. (5) Luc. 2. 53.

re merecimentuac aciagotuaz, bere esan-eguiñ gu-
cien garaitasun eta anditasunagatic. Orañ bada, bal-
din Jauna egunetic egunera aciagotzen bazan guizón-
nen naitasun eta estimacioan ¿cer izango zan bere
Ama guciz santarencan? Bada eredu berean gueitzen
zan eguneri batean bera galdu bearreco pena ta nai-
gabea ere; eta cembat eriotza alderagotuaz, sartzen
citzayon bere biotz guciz garbian barrunago profec-
tac aldeaurrez aditzera eman cion ezpata (1).

Emendic atera bear degun ondorea da, ecen bal-
din gure Capitan jaincozco eta bere Ama guciz go-
zoa ucatu ezpaciran gure amorez pena añ látzac bé-
ren bici gucian eramatera, eztala izango gauza justu
ta bidezcoa mundu onetan eraman gentzaquean gu-
chi artzaz gu mintzea. Beñ, aldi batzuetan naigabe
andi batec ematen cion Sor Magdalena Orsiniri Jaun
gurutzeficatua aguertu, eta Jaun onec berarequin
batera neque arequin gurutzean irautera animaturic,
Magdalenac eranzun cion errencuraz: *Jauna, zu et-
ziñan egon expada iru orduan cere gurutzean;
bana ni urte ascoz onuntz nereari josia nago. Or-
duan Jaunac esan cion: ¿Cer diozu choro ezjaqui-
ña? Sortu nitzanetic iduqui nituan biotzean,
gurutzean eraman nituan pena guciac.* Bada era-
cúste onequiñ cernay neque edo gurutze datorqui-
guqueanean, pensa dezagun, guri ere au bera esaten
digutela Jesus ta Mariac.

(1) Birg. Rev. Fer. 6. lect. 2. c. 16.

EJEMPLOA.

Compañiaco Aita Rovigion-ec contatzen du (1).
 ecen Doloreetaco Ama guciz santaren imagiña zazpi
 ezpataquico bati egun oro cerbait errezatzeco jayera
 zuan gazte bat gau batean pecatu eriozco edo mor-
 talean erori zala. Bigaramon goicean oy becela er-
 rezatzera joanta, icusi cituala Ama guciz santaren
 bularrean, ez zazpi, ezpada zortzi ezpat, eta aditu
 zuala boz bat, cirautsola: aren pecatua zala bere bi-
 otz guciz naigabetuan sartua cegoan zortzigarren ez-
 pata. Au adituta, bertatic confesatzera joan, eta os-
 tera beretu zuala gracia, Ama maitearen bitarteco-
 tasunez.

ORACIOA.

O Ama guciz santa, nie cembat ere pecatu eguin
 ditudan, beste aibeste ezpata josi ditut zure biot-
 zean, eta culpahunac becela nie mereci det orien
 castigu edo pena, ez zuc, garbi zauden orrec. Ala-
 baña, zuc artu nay izan dezu nigatic pena au, irichi
 zadazu nere pecatuen damu eguiatzeco bat, eta bicitz
 onetaco neque-pénac onez eramateco paciencia, bada
 ceñ ere andiac diran, nie mereci baño ariñagoac i-

(1) Fasc. di Ros. p. 2, c. 2.

zango dira beti. Eguizu arren onela zure ontasunagatic. Amen.

II. en DOLOREA.

Egiptoraco Iguesia.

Basauntz erituac, nora nay dijoala, berequin daraman becela sayeta, Ama guciz santac Simeon-en profeciaz gueroz berequin eramán zuan beti bere Seme guciz gozoac sufritu bear zuan pasioaren oroi-penarequin dolorezco ezpata zorrotza. Escritura sagraduco Esposaren granazco edo urrezco illeac (1), dio jaquintsu batec (2), eirala Virgíña guciz preciaitu onec beti buruan cituan bere Seme jaincozcoaren pasio, eta onec bere zaurietatic išuri bear zuan odola. Bere Semea zan biotzean josia ceraman sayeta, aimbat sartuago ta mingarriagoa, cembat Seme au urteaquin edertasun eta miragarritasun gueyago aguertuaz eijoan. Beguica zagun, bada, bigarren dolorea, au da, Egiptoraco iguesia.

Herodes-ec seguru jaquiñic Mesias-en jayotza, erreinua quenduco eiolaco beldurrac bertatic artu zuan, baña artaraco bidegabe, ceren Jauna etzetorren guerra eguiñaz mundua beretzera, ezpada miragarizco eran bicia emanaz mundua escuratzera (3) Erregue gaizloac mago edo jaquintsuen aotic uste zuan

(1) Cap. 7. v. 5 . (2) Hailgrino. (3) Fulgent. Serm. 4. de Epiph.

seguru jaquiñ aur hura jayo zan lecuá; baña ayee andic itzultzen ez icusirie, berá engañatu zutelacoan, Belen ta ingurumay gucico aur mutileho guciac cupidagabe hill citzátela aguindu zuan. Baña aingueruác san Josegana aguertu, eta oni Salbatzallea ta bere Ama artu eta Egiptora igues eguin cezala, aguindu, eta Santua gau artan bertan hideari eman citzayon, dirudienez Ebangelioac adirazten duan becela (1). Ama miragarriac esaten zuan ¿Cer bada, ene Jaincoa, guizónac salbatzera datorrenac béretatic igues eguin bear du? Eta orduan icusi zuan cer laster abiatzen zan guertatzen zar are aldeaurrez esan zuana, au da, aur jaincozco ari gucian contra eguiteco señalear becela izango zala hura, bada jayo ez al zan, bertatic perseguitzen eta hiltzeco billatzen zuten. ¡Cer Ama biguñaren biotz samurarentzat mingarriagoric, deserritu citecelacoa añ estu aguintzen citzayela, aditzea eta arrotzen artean bicitzeco béren erritárrac itsuinustuan utzi bear izatea baño! ¡Cer naigabe andiagoric aur jayo berri batec bere ama añ beartsu eta mímberaren lepotic isequita igues joan bear izatea baño!

Considera bedi doncella guciz garbiac bidaje onetan sufrítuco zuana. Bidea lucea, eta diotenez guchienez oguey ta amar egunecoa zan, latza, arritsua, sastracaz estalia, eta bacarra (2). Dembora negucoa, otza euritsua, Maria amabost urteco doncella, ibillera ayetara eguingabea, eta beren eguinquizuneta-

(1) Mat. 2. (2) Baria las lib. 10. c. 3.

raco serbitzariric gabe (1). ¡Nolaco erruquia eman-
ten zuan Doncella añ gazte, biguñ au bere Seme
jayo berria besoetan zuala igues icusteac! ¿Cer ali-
mentu artzen zuten? ¿Nora bazlertzen ciran? ¿Non
lo eguiten zuten? ¿Cer beste alimenturic izango zan
berena, ezpazan san Josec berequin ceraman edo ta
esquean bilduco zuten ogui zati leorra? ¿Non lo e-
guingo zuten, batez ere iruroguey ta sey legoaco
eremu ayelan, ezpazan lur gogorraren gañean sere-
notan, edota sasartean basa pisti eta gaitzquilleen
perill artean? ¿Nori, ayec hillaleta, bururatu bear
citzayon ceñ ciran? ¿Nore bazterric-bazter cobiltzan
iru escale galdutzat iduquico etzituan?

Noizbait Egiptoratuta, batzuec diote Maturean bi-
citu cirala (2); eta besteac Menfis-en (3); gure pen-
satze erruquizeora gueratuaz dirudienaz an igaro ci-
luzten zazpi urteetan cembal eramango zuten con-
sideratzea (4). Inore ezagutzen etzituzten erbesteco
arrotz, beartsu, desamparatu eta lanzen lanez oza-
beren buruac nolabait mantentzeco irabazten zutenac
ciran (5). Inoiz aimbesteraño irichi zan beren ezizana,
non goseac estituta Aurrac bere Amari oñguia esca-
tu, eta onec izaten etzuan (6). Adi bezate au bear-
rean daudenac beren consueloraco.

Herodes hill ta bereala aingueruac herriz san Jo-
se-gana aguertu, eta Judeaco bazterretara itzul cite-
cela oni aguindu cion: eta oartzen da san Buenaven-

(1) Petr. Chrysol. (2) Brocardus, etc. (3) Anselm. (4) Antonin.
Thm. (5) Basilius (6) Landolf, Vita Christi, c. 15.

tura, areagoa izan bear citzayola emen Ama erru-
quitsuari naigabe ta pena, lengo aldian baño, ceren
aurra oñez joateco oraindic biguñegua zan, eta be-
soetan eramateco andieguia, zazpi urteac bete citu-
anta.

¡Ger icasico degu bada arrotzac becela bazterric-
bazter iguesca cebiltzan Jesus ta Mariagandic? Mun-
du onetan alacoac becela bicitzen, bere ondasun en-
gañagarriay itsatsigabe, betico bicilecura joateco las-
ter utzi bearco ditugula beguiratuta (1). Emen ins-
tante batean gáuzac icusi, eta bereala aurrera di-
joacen bidezco arrotzac becela guera.

Icasi bear degu ere Jaincoac bialtzen dizquigun
neque penazco gurutzéac onez artzen, ceren mundu
onetan gurutzegabe inor bici eztan. Au onela eza-
gu cezan, beñ izan zan Binasco-co Veronica bene-
ragarria espirituz Jesus ta Mariari iguesca artan la-
guntzen, eta bide gucia eguin zutenean, gure Ama
maiteac esan cion: *Alaba, progatu dezu bidaje
luce onen nequea; orañ ezagutuco dezu, inorc
ez dituala mercitzen padccitugabe ceruco gra-
ci ta mesedéac.* Guchiago eramateco modua Jauna-
requin bere Amari ondo laguntzea da. Onela arint-
zen ta gozaten dira mundu onetaco neque-pena ta gu-
rutze guciac. Maite ditzagun biac, eta poztu dezagun
Ama, oraindic pecatariaec perseguituaz eta gaizqui tra-
tatuaz daramaten bere Seme guciz santua gueron
biotzetan artuaz.

(1) Hebr. 15 44.

EJEMPLOA.

Beñ Maria guciz santa aurcho Jesus guciã zaurituarequin san Franciscoren erligioco Coleta Doatsuari aguertu, eta esan cion: *Onela tratatzen dute peccatariac nere Semea, eta onela gurutzeficalzen dute berriro* (1). Eta erligio bereco Jesus-en Juana Beneragarriac egun batez Egiptoraco igues au consideratzen cegoala, igues cijoan bat perseguitzen zutenen zalaparta guisacoa aditu, eta lasterrean icusi zuan bere aurrean mutilcho zoragarri bat oso necatu ta iguesca cetorquiona, ciotsala: *Gorde nazazu, Juana maitea. Ni gaiztóacgandic igues natorren Jesus Nazaretcoa naiz: Herodes-cc becela hill noy naute: zuc libra nazazu.*

ORACIOA.

Ama naigabez guciz betea, ¿eta ezdira oraindic ase guizónac zure Seme guciz preciatuari beñ bicia quentzeaz, baicic eta gaiztaquería gaiztaqueriaren gañean eguiñaz oraindic añ gogorquiro bera perseguitzen dute, eta ordu oro zure doloreac berritzen dituzte? Baña ¡ay! eta nic ere perseguitu nuan bera, Ama guciz gozoa. Irichi zaizquidatzu arren Jauna-

(1) Genov. Serv, Dol de Maria.

gandic nere esquergabequeri itsusiaz negar eguiteco malco gori ugaríac; eta Egiptoraco iguesian bat orrec eta besteac eraman einduzten neque-pénac gatic erregutzen dizut, lagun zadazula eternidaderaco daramadan bide onetan, ezbeargabe ta ondo irichi nadin salbacioco portura, non zurequin batera zure Semea secula gucietan icusi eta maita dezadan. Amen.

III, en DOLOREA.

Mutilcho galdua.

Santiago apostoluac utzi cigun escribitua, cristauaren oso on izate edo perfeccioa pacienciaren bertutean dagoala (1); eta nola Jaincoac Maria Virgíña perfeccioaren ispillutzat eman nay izan baicigun, berez cetorrena zan bere anima guciz garbian neque-penac muntoitzea, gucioc beragan iduqui guentzan arritzeco eta imitatzeco eracuste edo ejemploa. Orañ bada bere bici gucian eraman cituan doloreen izugarrienetaco bat da bere Seme guciz gozoa galduta iru egun ayetan izan zuana, eta au icustera goaz orañ.

Jayotzez itsuay miñ guchi ematen die egun-argüia icusigabe egon bearrac; baña argui au beñ icusi, gozatu eta guero itsutzen diranay, guciz andia. Era berean pena guciz guchi dute Jaincoa galtzeaz,

(1) C. 4. 4.

lurreco gaucetan sartuac daudelaco, bera ezagutzen ezduten patu gaiztoco peccatariac; baña ceruco arguiac arguituta amore jaincozcoaren gozotasun, eta ondasun andiena beguietan iduquitzeac ematen dituan atseguin-contentu erregalatuac progatzeco zorioneco suertea izan zuten dich andico anima ayec ;cer nai-gabe, pena ta atsecabea artzen dute, baldin Jaun au, berac ala naita, inoiz edo berriz gordetzen bazaye! Bada nola Mariac bere Maitea beguietan iduquitzeaz beti gozaten baizuan, contura gaitean ceñ zorrotza irugarren dolorezco ezpat au izan zan, eta da itzaldi onen gaya.

San Lucas-ec contatzen du guertaera au, (1), esanaz; nola gure Amandrea Jesus ta Joserequin urte oro joan oy haiciran Jerusalem-a pazcoa celebratzera, andic echeronzcoari eman cion batean, Semea, ama-bi urfecoa zala, gueratu zan errian, beste gende talde batequin cijoalacoan Ama egonaz. Baña gende samalda guciac bat jo zutenean, here Semea an etzuala icusirie, lasterca beraren billan Jerusalem-a biurtu zan.

Considera bedi cer here naigabe ta pena ustecabeco guertacari onetan izango zan, eta nola egongo zan Esposa santa baño amore ta estutasun gueyagoaz bazter gucietatic galezca: ;Nore icusi du nere biotzeco Maitea? Baña nola inore aren aztarnaric ematen ez haicion, Ruben-ec here anaya Jose-ren billan cebillenean baño neque ta estutasun andiagoaz esango

(1) G. 2.

zuan: *Nere mailea aquiri ezta, eta ezlaquit cer
gueyogo equin: nere on ta ondasun quicia dana-
gabe ecin bici nitequeta.* Bear bada berrituco ci-
tuan David-en itzac ere: *Gau ta egun negar mal-
cóac dira nere oqui, galdetzen didaten bitar-
tean: ¿non da zure Jaincoa?* Sinisgarria da et-
zuala iru gau ayetan beguiric ichico ere, guci ayec
negarrez, eta bere Seme guciz amorezcoa lopa ce-
guiola. Ait eternoari escatzen igaroaz (1); eta Se-
meari Esposarenac baño esaera ta cispuru paregabe
biguñ eta miñagoac gueratzaca bialduaz: ¿non cera,
esango cion, ene Seme lastana, non cera? Enzun de-
zadala nic zure boza, eta egatuco naiz zure besoeta-
ra, eta ez naiz ibillico luzaroago galdua, eta zure bi-
llan narabilten estura larriac izango dute beren bu-
caera, eta nere biotzac arquituco du berriro bere on-
dasun gucia.

Cerbait arrazoirequin uste duana bada, au izan za-
la Mariaren dolore gucien mingarriena; ceren nolaa-
nay ere gañeracoetan bere Seme guciz maitca beti
berequin zuan, Simeon-en profecian eta Egiptoraco
iguesian becela; baña au beragandic urruti, eta a-
laingo nequeaz billatzen zualaric bera topatugabe e-
raman zuan (2). Galdu det nere beguietaco arguia,
eta ezlet arquitzen, esango zuan beñ eta berriz ne-
garrezco errécac isuriaz. Martiri guciac baño gueya-
go eraman zuan (3). Bacarric iru egun izan ciran,
baña irureun urteco agonia iruditu eitzayozcan.

(1) Pelbait. (2) Ps. 27. (3) Origenes, Homil infr. oct Ep.

¿Nore consolatuco zuan bere consolatzallea gabe guer-
ratuta? Gañera beste doloreetan nondic eta cergatic
cetozquion ezagutu zuan; bada guci ayec Jaincoac
munduaren erospena guis artara eguin nay zuala-
co izan ciran; baña cer zala bide Semea galdu zuan,
ecin buruác eman cion, eta ala batetic bere bu-
rua bere Jabe amorezcoagabe icusi, eta bestetic, añ
humillác becela, ondasun añ gucizcoa, berác idu-
quitzearen diña etzalacotzat bere burua beguitan-
duric, guciz estutzen zan. ¿Nore daqui (esango zuan
nosqui) nic berá gaizqui serbitu badet ere? ¿Ne-
re zabarqueriren bategatic utzi banau ere? Eguia
da, eztala Jaincoa guciz maite duten animentzat
bera ofenditu dutelaco beldurra baño gauza min-
garriagoric; eta nola nay ere beste dolorec etzion
onec aimbeste easan, eta ala aguertu ciozcan bi-
guntasunic andienaz bere espaasunac Jesus-i, esanaz:
*Ene Semea ¿cergatic equindezu au onela gure-
quin? Zure aita eta ni zure billan ibilli quera
neque andian.* Itz oec etziran, ez, aserrezcoac,
(heregeác somatutaco añenecoa), ezpada bere biotz
biotzeco amoretic sortzen eitzayon naigabe miña
aguertzeco esan ciozcanac.

Ezpat au ceñ zorrotza izan zan oracusten du
Bienvenida Doatsuari guertatu eitzayonac, Au egun
batez dolore artatic cerbait eman ceguiola, leyrz
esqueca cegoquion Ama guciz maiteari, eta gue-
roenean Ama gozoa bere Semea besoetan zuala
aguertu, eta aur guciz ederra gozotoro bere naie-
rara icusten luzaroan utzi, eta beguietatic galdu

aitzayozcan. Eta Jaincoaren serbitzari onek alaingo pena artu zuan, non Virgíña guciz santari ojuca escatzen cion arren ere penaren penaz hiltzen utzi etzezala. Iru egunen buruan osterá agueru, eta esan cion: *Jaquin cezala, ecen bere naigabe miñ eta dolorea etzala izan, ezpada bere Semea golduta Jerusalem-en egon zan dembora guci artan berác izan zuanaren itzaluts bat* (1).

Dolore andi onek serbitu bear die beren penaren aringarritzat, len gozatzen zuten Jaincoaren presenciagabe gueratu diran personay. Eguin bezate negar ordu onean, baña eguin bezate paquean eta Jaincoaren nayera oso egonaz, Mariac becela, eta onegatic Jaincoarequicoa galdu dutelacoan egon gabe, ceren Jaunác santa Teresari esan cion becela. *Inor ezta qaltzen norberác ezagutuqabe: inor ezta engañatzen norc bere burua engañatunay izanqabe.* Gordetzen da, baña ezta joaten Jaincoa. Gordetzen da, naitasun eta egarri andiagooz berá billa dediñ. Eta bera topatu nay duanac, jaquin beza, eztuala billatu bear munduco atseguin contentuen erdian, ezpada bere burua necatuaz, eta gurutze ta pénen artean, Mariac billatu eta topatu zuan becela.

Bigarren lecuán, eta berezquiro billa bezate peccariac Jesus, eta Jesus ezpada beste ecer ez bezate billatu. Etzan izan patu gaiztoco edo dichagabea Job santua, zuan gucia galdu zuanean, beragan gucia

(1) March Diar. 50. de Octubre.

ceucan Jaincoa galdu etzuantá (1). Patu gaiztöcö, eta guciz gaiztocoac dira pecatuaren bidez Jaincoa galtzen dutenac. Baldin Mariac nay izangabe bere Semea galduta icusi zalaco aimbeste negar išuri bacituan, ¿cer eguin bear ez dute peccataríac Jaincoaren graciagabe icusten diranean? Beguira bezate, peccatúac quentzen duala animaren bicitza, au da, Jaincoa. Beguira bezate, Jaincoaz osteronzeco gucía quea, ecerezqueria eta utsa dala. ¡Ay! dio san Agustín-ec, eta ascoc abere bat galtzen bazaye, berá topatu arteco onic ez dute, eta Jaincoa galduta, pena ta quezcaren arracicgabe jan-edanean soseguz dau-de (2).

EJEMPLOA.

Jesusen Compañiaco urte oroçö cartetan escribitzen da, ecen Indietaco gazte batec, gauza debeatu bat eguítaco bere guelatic irtetera cijoala, aditu zuala ciotsatela: *¿Nora zoaz? quera zaite, eta burua itzulita, icusi zuala nola paretcan cegoan Ama Virgíña Doloreetacoaren imagiña batec bere ezpatetic bat bularretic atera, eta esaten cion: Ezpat au artu, eta peccatu orrequin nere Semea eritzearen ardez eri nazazu beronequin.* Gazteac itz oec adituta, lurrean auzpeztu, guciz damutu, eta deadarca eta antsia larriac eguñaz Jaincoari eta bere Ama

(1) August. (2) Id.

maiteari barcacio escatu, eta misericordia ta gracia irichi cituan.

ORACIOA.

Virgiña guciz bedecatua, ¿cergatic orrelaingo antisia larriaz billatzen dezu cere biotzeco Semea? ¿Eztazu cere biotzaren barrumbean bertan bici dala? ¿Cerorrec esan etzenduan: *nere maitea neretzat, eta ni lirio artean bici dan nere maitearentzat?* Zure burutacio, gogo ta zale guciac, añ humil, añ garbi añ santuac Esposo jaincozcoa zure bular atseguingarrian atseguin artzera eracartzen duten usay gozoco lirioac dira. Virgiña manchagabea, zu Jesus-en zalez ta egarriz zaude, zu, beste maiteric eztezun ori. Ala egon nadilla, bada, ni ere, ó Ama maitea, eta egon ditecela bera amatzen ez dutenac ere: ¿cer diot amatzen? ala zori gaiztoan bera utzi ta galdu dutenac ere. ¡Ay ene Ama! baldin nere erruz oraindic ere nere Salbatzalle guciz erruquitsuaren besotara biurtu ezpanaiz, zue eguizu, berandura beguira egongabe biurtzeco modua. Bera nay ta billatzen duten guciac topatzen uzten da (1). Eracus zadazu nic ere arquituco dedan eran bera billatzen. Zu cera atea, nondie bera arquituco dan. Arqui dezadala, bada nic laster, eta zuri zor deguizudala alaingo dicha. Amen.

(1) Thren. 3. 15.

IV. en DOLOREA.

Samintasun edo amarguraco calea.

Ceruco Erreguñac bere Seme guciz santuaren eriotzean artu zuan doloreari cerbait antz emateco, dolore au bere amorearequin bear degu neurtu (1). Ama guciac bérenac becela sentitzen dituzte beren umeen neque-pénac, eta orregatic emacume Canaan-tarrac escatu cionean Jaunari, libra cezala bere alaba tormentu añ gogorrá ematen cion demoniotic, bere itzac izan ciran oec: *Jauna urricál zaité nizaz, eta libra zazu etsaitic nere alaba* (2). Baña ceñ Ama izan zan seculan, bere Semeac añ maite izan dituanic, nola amorezco Ama onec berea maite zuan? Zan milla neque ta penarequin acitaco Seme bacarra, guciz maitagarria eta bere Ama biciro maite zuana, Guizon eta Jainco zana, eta amorezco sua biotzetan iciotzera mundura zanac becela (3), pensa dezagun cer garra bere Ama santaren biotz añ garbi eta munduco zale ta gogo gucietatic añ erantzian icioco zuan. Beraren biotzaz eta Semearenaz amoreac biotz bat bacarra eguin zuan (4), eta serbitzari eta Ama, Seme eta Jaungoico batetan izate miraritsuac alcha zuten Amaren bular samurrean milla amorezco amore bat, eta milla sualdiz eguindaco su bat. Baña

(1) Bernardin (2) Mat. 15. (3) Luc. 12, (4) Birg. Revel.

pasioan sugar añ goratuac biurtu ciran penazco it-
saso bat izatera, eta añ bici eta zorrótzac, non san
Bernardinoren iritzian munduco pena guciac bat jo-
ta guchiago izango ciran (1), ceren combat samur-
tasun andiagoaz bera amatu zuan, aibat barrunco-
yagoa izan zan zauri edo llaga (2), batez ere hiltzera
ceramatela sorbaldan gurutzearquin topatzean; eta
au da consideratzera goacen laugarren ezpat eta do-
lorea.

Combat pasio sagradua alderago, aibat negar go-
ri ta ugaritsuagoac bere begui ederretara cetozquion,
eta bere gorputz gucitic icerdi ótzac ematen cioten
(3). Eltzen da gueroenean alaingo beldurra cion e-
guna, eta escaturic Jaunac padecitzera eta hiltzera
joateco bere bayezcoa, Ama maiteac gau guciz do-
lorezco hura bellan ta negarrez igaro zuan (4). Goi-
cean abiatu citzaizcan icasleac etortzen: batac cecar-
quion Anas-en echean, Caifas-enean eta beste lecu
eta auciteguetan Jaunac ceramanaren berri bat, bes-
teac beste bat, baña guciac ceñ baño ceñ triste ta
hilgarriagoac. Gueroenean san Juan etorri, eta onec
ecarri cion Jauna bidegabe gurutzeco eriotzera eman
zutelacoa, eta Bildots garbi mancha gabea Calbario-
raco hidean abe lodia sorbaldan zuala cijoalacoa.
Atoz, ó Ama guciz santa, esango cion apostolu nai-
gabetuac, atoz mendiraco igaro bear duan calean
cere Semeari azquen-agurra eguitera.

(1) T. 5. §. 45. (2) Laur. Just (3) Birg. Rev. l 4 c 77 (4)
Bonav.

Bereala bere arequiñ irten, eta lasterrean icusi cituzten orduraco aurrera cijoan Jesus-ec utzitaco odol-arrastoac (1). Ama desconsolatuac berari topo emateco narrica bat cearcatu, eta nola juduac ezagutzen bai zuten, aurrera cijoan becela, bere Semearen contra milla irañ ta burla, eta bear bada beraren contra ere, esango ciozcaten. (Ay cer miña Ama guciz antsiatuarentzat iltze, mallu, soca eta hiltzeco ceramazquiten gañeraco tresnen prestamen izugarria icustea! ¡Cer pena ta naigabea puntutic puntura trompet-ots eta pregoyaz sententia publicatzen aditzea! Goratzen ditu guero beguiac, eta icusten du borrero, aguacil eta gañeraco ministroen artean datorrela Jauna, arantzazco coroa buruan josita, gurutze astuna sorbaldan, eta añ zauritu ta odoldua, non doy doy ezagutu ere zuan, ceren odol beltztu, colpe ta ubelduac bere arpegui jañcozcoari ichura gucia galdu cioten (2).

Ordea amoreac ezagutu zuan eta orduan jaiqui zan bere biotz gucian amorearequin beldurraren arteco burruca bat (3). Amoreac berari beguiratzera muguierazten zuan, baña beldurrac beguitarte añ erucarriari beguiratzetic atzera eracitzen zuan. Gueroeanean ere garaitzen du amoreac, eta beguiratzen diote alcarri. Jaunac bere beguietaco odol gogortua garbitu (4), eta ipiñi cituan bere Aman. eta Amac bere Semean. ¡O beguiratu guciz miñ eta garratzac, anima maitatsu bi ayec bi sayetaz josiac utzi cituzten be-

(1) Birg. Rev. (2) Birg. Rev. (3) Petr. Alcant. (4) Birg. Rev.

guiratuac! Tomas Morori hiltzera ceramatela bere alabac bidera irten cionean, doncella onec esan al izan cion gucia izan ciran bi itz oec: ¡*Aita, aita!* eta cordea galdu, eta erori zan. Maria cordegabetu etzan, ceren, Suarez-ec soma andiaz dion becela, bere sentieren usoa galtzea ongui cirudiana etzan; doloreac ere bicia quendu etzion, ceren eriotza bera baño martirio garratzagoraco Jaunac gordetzen zuan.

Laztandu nay izan citzayon Jaunari, baña ministroac beguiramenturen arrazaricgabe aldecraguñ zuten, Jaunari, guera etzediñ, bultzatuaz. Ama maitea bere pausoay darraiquie. ¡Nora zoaz, Andrea? ¡Izango dezu cere bicia dana abe batetic iſequia icusteco biotza (1)? Ez etorri, ene Ama, (uste guentzaque bere barrunen ciotsala Jaunac), ceren baldin an beguira bazaude, nere tormentuac zurea, eta zureac nere gueituco dituzten (2). Au ondo cecusan, baña alata guci ere borcha eguiñ, eta an dijoa bere Maitearen ondoren, berarequin batera gurutzeficatu izatera (3).

Bada baldiñ, san Juan Crisostomoc dion becela, abereetarañocoaz cupitzen baguera (4); baldin hiltegui edo mataderiara daramaten leicumeari ondoren darraiquion amac erruquitzen bagaitu, ¿ez gaitu erruquituco Ama guciz atsecabetu onec Jaincoaren Bildotsari hiltzera daramatenean añ urretic darraiquiola icusita? Bay, erruqui gaitean bere doloreaz eta bere Seme gure Erosle amorezcoarenaz, gueron gurutzea

(1) Deut. 20. 66. (2) Lanr. Just. (3) Guilielm in Cant. 7. (4) Ferarum etiam miseremur.

onez eraman, eta berari berea eramaten lagunduz; bada bere pasio sagraduco beste pena eta pausoetan lagunic nay izan ezpazuan, gurutzearen zura eramaten, guizon batec laguntzea nay izan zuan, jaquin guenezan, ccen gureagabe bacarric berea aseco etzagula, salbacioa iristeco (1).

EJEMPLOA.

Beñgo batean Florenciaco moja Sor. Dionisiari Jauna aguertu, eta bere Magestadeac esan cion: *Pensa zazu nigan, eta maiteco zaitut*; baña dembora berean ipiñi cion aurrean gurutze bat lora sorta baten erdian, santuen atseguin-contentuaquin batera dijoala beti gurutzea mundu onetan, aditzera emanaz. Au ondo eguiztatzen du san Jeronimoc Emiliano-ren ejemploaz. Au soldadu eta griña galduetara guciz macurtua zala, bere etsayac arrapatu ta torre batean sartuta utzi zuten. Naigabe onec estutu, eta ceruticaco arguitasunaz Maria guciz santagana bidequin, eta onen laguntzarequin bere biciera galdua zucendu, eta bertutearen bideari añ biciro equin cion, non bide oni berotasun andiaz jarraituaz, eta egunetic egunera aurreragotuaz, irichi zan Jaincoac ceruan prestatua ceucaquion gloriacoc jarlecua berari eracustea merecitzeraño, Somasca-co erligioa fundatu, eta santidadearen usayan hill, eta orañ aldareetan beneratzen degun santua da.

(5) Joan. Chrys,

ORACIOA.

Ama naigabez eta penaz guciz estutua, Amargu-
 raco calean cere Semearequin topatu ciñanean artu
 cenduan doloreagatic erregutzen dizut, irichi degui-
 dazula Jaun beragandic, orañ bialtzen dizquidan gu-
 rutzéac eta bere escu urricaltsutic eman nay diz-
 quidan gañeracoac onez eramateco gracia. Nere zori
 onecoa, baldiñ beraquin iristen badet zuey eriotze-
 raño laguntzea. Ascoz pisuagoac izan ciran zurea eta
 zure Seme guciz santuarena. Ez dezadala nic utzi
 pocic artugabe, nerea, nic nere gaiztaquericgatic
 aimbeste bider infernua merecitu dedan onec. Vir-
 giña manchagabea, zugandic uste det bicitza galcor
 onetaco naigabe-pénac onez eramateco biotz eta in-
 darra, eta gueroenean iraupenaren bertuteaz besteco
 ordañ sari heticoac iristea. Amen.

V. en DOLOREA.

Jesusen Eriotza.

Beste guisa berri bateco martirio bat consideratu
 bear degu orañ: ama bat bepe animaren indar guciaz
 maite duan seme garbi eta gaitzgabea tormentu izu-
 garrien erdian hiltzen icustera beartua. San Juanec
 dio gurutzearen oñean cegoala, eta itz añ guchitan

dio gucia. Itz añ guchitan aditzen degu etzala secular izan bere dolorearen par.co doloreric. Goacen consideracioaz bere biotz penatuaren hostgarren ezpat au Calbarioan beguiratzera. Salbatzallea Calbariora irichita bereala borreroac erantzi, eta zan ain:bat luce ta zabal gurutzearen abean eratzan, eta tormentu gueyagoraco, san Bernardoc leguitantzen duan becela, iltze mutur-lodiaz bere ari josi eta guero gorra jaso, arzulo batean sartu, an segurutu, eta onela utzi zuten odol-ustuaz hiltzeraño padecitzen. Bere Amac etzuan puntu batean ere bera utzi, baicic eta orduan alderagotu citzayon, bere eriotzaren beguira. ¡Ay Ama guciz garbi ta honesta! ¿cer da eguiten dezuna? Ama becela zure personaren gañera ere erortzen dan irañ eta lotsaizunac ezpada ere, atzera zaitza beintzat gaiztaqueri ori bezañ andiaren izu-larriac, nola ere dan Jaincoa bere creaturen escuetan hiltzea (1). Baña zure biotz sendoac etzuan beguiratzen bere buruaren pena ta naigabea; beguiratzen zuan Seme añ maitcaren pasio ta eriotza, eta berari norc lagundu, edolaric, ordu triste artan bere neque-pena eta dolore portitzaz erruquituco zanen bat ote zan. ¡Ama amorezcoa! ¡Ama eguiazcoa! ¡eriotz añ gogorraren izuac ere hiltzen cegoan cere Semearen ondotic ecin quendu izan cinduan Ama! ¡Cer icusteco mingarria, bera gurutz-iltzatua eta azquenarnasetan, eta Ama gurutzearen oñean era berean azqueneco arnasetan, eta pena ta tormentu guci ayec

(1) Bonavent.

Semearequin batera eramaten icustea! Jauna cegoan gurutzean tiraca luzatu, zabaldu, eta agonia izugarrian (1), bere beguiac irauliac, sartuac eta alde-aldean hillac, masallac aituac, narrua ortzay itsatsia, ezpañac eroriac, aoa zabala, sudurra zorroztua, arpegui gucia goibeldua, burua macurtua, sabela bizcar- ezurreraño sartua, illéac odolez busti ta gogortuac, beso eta áncac hilloztuac eta gorputz gucia zauriz ta odolez estalia eduzcala.

Pena guci oec biac eramán cituzten (2), eta alatan, non orduan Calbarioco mendian arqui citequeanac, icusico cituan bi aldare, non bi ofrenda escañzen ciran, bata Jesusen gorputzarena, eta bestea Mariaren biotzarena (3). Edota gurutze santuco aldare bacarra, non Jaincoaren Bildotsa sacrificatzen cegoan, eta berarequin bat eguinda bere Ama (4). ¿Non arquitzen cera Andrea? galdetzen dio san Buenaventurac; ¿gurutzearen oñean? Obeto gurutzean (5), ceren Salbatzallearen gorputz adoragarrian illzeac gurutzean eguiten zutena bera, zure biotz tormentatuan amoreac eguiten zuan (6). Asco ama beren seme edo alaba hiltzen ez icustearren urrutiratu ciran beren aurretic azquen-orduan; eta baldiñ bat edo besteac bere burua borchatuaz beguiratzen edo laguntzen badio, ama au sayatzen da al guciac bere umearen estura-larriac arintzera oya moldatuaz, be-

(1) Birg. Revel. lib. 1. c. 40 et. lib. 4. c. 70. (2) Hier. ap. Baldinot. t. 1. p. 499. (3) Chrysost (4) Bonavent. (5) Bonavent. et August. (6) Bern. et. Bernardin.

rari cutsiaz, indargarriac emanaz; eta onela arazotu eta igaroeracitzen du bere naigabe-pena. Baña zu Ama gucien naigabetuena, zu anche zaude cere Seme guciz santuaren agonian eta etzatzu uzten berari bere naigabeen aringarri eta laguntzaren apurric ematen. Aditu ciñion egarri zala, deadar eguiten, eta bere ao jaincozcoa cerbait bustitzeco, cere negar malcoac ez izatera, ur tanto bat ematen utzi etzizuten (1). Icusten cenduan gurutzeari josita iru macotatic isequiric, eta zuc beragana alderatu nay cendualaric, beñic-beñ cere bular amorezcoari urreratu ta hill cediñ, ecin eguiñ al izan cenduan (2). Oartzen ciñan nola Jaun naigabez estutuac berá cerbait consola cezaquean norbait billatzen zuan bere beguiac, eta consueloaren ordeaz esaera gaizto, burla eta añeneco berriac cetozquiola alde gucietatic, guciac bere etsay eta zure biotzaren beste aimbete ezpata becela izanaz. Arcagotu ciran zure neque-penac, bere Ait eternoac ala padecitzen uzteaz, cere bici gucian aztu etzitzaitzquitzun itz añ miñ eta sentituaz bere espaasunac aguertzen aditu cenduan. Alde gucietatic naigabez ta garraztasunez betea icusten cenduan, ecertan ere lagundu algabe. Eta gañeraco guciac baño gueyago cerorrec aimbete cramanaz an egotearequin bere neque-penac gueyagolzen cinduala, ezagutzeac, beste guciac baño gueyago estutzen cinduan, ceren amaren estura-larri eta angustiac gucroencan semearen biotzean gueratzen ciran (3); eta oraindic alde

(1) Vincent Ferr. (2) Bernard (3) Bern. Hom. in Evang. Stabat.

aldean esan liteque, mingarriago citzayola Semeari bere Ama padecitzen icustea, berac ceraman gucia baño (1). Ama ere bere Semea guis artan icusita, ecin hillie biciaz, hiltzen cegoan becela. Jaunac Camerino-co Juan Bautista Doatsuari aguerlu cion, ecen hiltzeco zorian cegoanean aimbesteraño goibeldu eta illundu citzayola bere barruna bere Ama maitea gurutzearen oñean icustearquin, non beraganaco erruquiaren erruquiz consueloaren apurriegabe hill zan. Eta Doatsuac onetatic cerbait ezagututa deadarca esaten zuan: *Ene Jaincoa, ez queyago esan, penac itotzen nauta* (2).

Ama añ naigabetu eta ofendituaren sotiltasunac an ceuden guciac arritzen cituan; alabaña espaasun bat bera bere aotic inore aditu etzuan (3). Ordea ezpañac isil baceuden, ez ala biotza, bada munduaren osasuneraco bere Seme adoratuaren bicia Jaincoaren justiciari ofrendatzen cegoan. Ama maiteac bere neque-penen irabaciaz lagundu cion Semeari gradiaren bicitza guri ematen, eta onela guera bere doloreen uneac (4). Eta baldin pozgarriren batec izan bazuan sarrera penazco itsaso artan, beraquin azquengabeco bicitza ematen cigula jaquitea izan zan (5). Izatez ere gure Erosleac gurutzetic esan ciozcan azqueneco itzac, gu san Juanen personan bere contura uztecoac izan ciran, eta amorezco beargay oni berealatic equin citzayon, bere erreguen indarrez lapurra ondu

(1) Bern. apud. Sinisc. Cons 28 (2) Passino. (3) Simon de Cassia.

(4) Lansperg. Hom. 14 de Psal. Dom. (5) Birg. Rev. 1, 2. c. 31.

ta salbatuaz, gañera onela ordañtzen ciola cembait jaquintsuc diotenez (1), Egiptoraco iguesian, bide-etaco lapur zala eguin cion trataera ona. Beste aimbeste eguin du beti, eta eguiten dijoa peccatari ascorequin.

EJEMPLOA.

Perusa-co errian bici zan gazte batec aguindu cion bere anima demonioari beretzat, baldin berac guciz gogo zuan pecatu bat eguitea egoquitzen bacion. Pecatu hura eguin zuan, eta emandaco itza bete ceguiola, demonioac escaturic, eraman zuan gaztea putzu baten ertzera bere burua ara bota cezan, ezperen gorputz ta anima infernura eramango zuala esanaz. Gaztea, arrezquero atzapar madaricatu aye-tatic ecin irtengo zalacoan, igo zan putzuaren arre-sira, bere burua barrura botatzeco ustean; baña erioac beldurtuta, etsayari esan cion, baldin bera itot-zea nay bazuan, bultza ceguiola, berac bere burua botatzeco biotzie etzualata. Gazteac Doloretaco Ama Virginiaren escapulario bat zuan soñean, eta demonioac esan cion, hura quen cezala, eta bultzaco ciola. Baña berac onetan ezaguturic escapularioaren ber-tute eta indarra, bere hura crantzi nay izan etzuan; eta gueroenean itztrucatze aserre bat eguin ondoan, etsayac, oso lotsatuta angoac eguin bear izan cituan;

(1) Petr. Dam. apud Salm. t. 1, tract. 47.

eta gazteac Maria guciz santaganaco esquer eta eza-
güeraz heteric, eguindaco pecatuaz ta bere biurri-
queri guciaz oso damutu, eta berari esquer humillae
cmatera joan, eta guertacari guci hura ol batean
pintatu, eta Perusa-co Ama Virginiaren eliza berrian
isequieraguin zuan (1).

ORACIOA.

Ama naigabez guciz estutua eta ama gucien an-
gustiatuena, arrazoy ta bide andia, eta guciz andia
daucazu cere Seme guciz santuaren eriotzaz negar
eguiteco. ¿Nore consola zaitzaque? Baldin zu consola
zaitzaquean cerbait bada, berac bere eriotzaz infer-
nua azpiratu, cerua idiqui eta conta al baño gueyago
anima irabaci dituala, icustea da. Gurutzeco tronu
artatic erreinatzen du, eta erreinatuco du bere amo-
rearen gozotasunae beragana eracarrita berarequin
laxtandu eta bera leyalqui ta aspertugabe serbituco
duten aibeste biotzetan. Utzi zadazu niri ere, Ama
maitea, zugana alderatu, eta zure negarrean lagunt-
zen, ceren conturic ez duten aibat biderretan bera
ofendituric, negar eguiteco beste inore baño bide
gueyago daucadan. Ama erruquitsua, nere Erosle
maitearen eriotz preciatuagatic eta zure doloreen
mercedimentuacgatic nere pecatuen barcacioa eta ne-
re animaren salbacioa irichico ditudan uste oso be-

(1) Mon. Fur. ap. p. Sinisch. 46.

tean nago. Amen.

VIen DOLOREA.

Lantzada eta gurutzeticaco jachiera.

Negar ugaritsuac bear dira orañ ceruco Erreguiñari dolore berri onetan edo dolore asco oetan laguntzeco, bada baldiñ len banaca bacijoacen doloreac bere biotz guciz santua hilleraciaz, orañ guciac batean eraso diotela, dirudi. Goacen berac samurtasun ta debocio guciac beguiratzen.

Asco da ama bati bere semea hill zayola esatea, berari gurasoaren amore ta naitasun gucia berritu, eta iracequiagotzeco, eta aimbesteraño, non inoiz, cerbait consuelo balitzayo becela, beren penan laguntzera dijoazquienac ecartzen diozcaten gogora seme argandic artu cituzten naigabe ta penaac Baña zugañ, Ama laztana, onec eztu toquiric. Zure Semeac beti izan eizun beguiramentu andia, beti obeditu eizun, beti izan cinduan maite. ¿Nore esan lezaque, bada, norañocoa dan zure naigabe-pena? Al baliteque, cerorrec esazu.

Gure Erosle jaincozcoa hill zan becela, dio jaquintsu jaincocoñ batec, Ama erruquitsuac bere barumbear lenen eguin zuana bere Semearen animaganatu, eta anima au Ait eternoaren escuetan ipintzea izan zan, esanaz: *Aita, ona emen zure ta nere Seme guciz santuaren anima; eta alabaña*

eriotzeraño gucian obeditu dizu, ar ezazu cere
 beso amorezcoetan. Ordañdua gueratzten da zu-
 re justicia jaincozcoa, eguiña ta belea zure bo-
 rondate santua eta azquendua zure gloriaren
 diñaco sacrificio andia. Guero gorputz hill sagra-
 duari ostera beguiratu, eta esan zuan: !O llaga
 preciatuac, amorezco llágac, erreberenciatzen,
 adoratzen eta alabatzen zaituet, zuen bi-lez mun-
 dua erredimitu dalaco, eta gaurdanic gueratuco
 cerate zabal zabalic zuenganatuco diran guciay
 consuelo eta gordelecu izateco. !Cembatec zuen
 bertutez barcacioa irichi bear duten! ¡Cembat
 oec gogoan erabillita on gucien Onaren amore-
 an sutu bear diran!

Juduac bigaramoneco larumbat edo jay andian
 gauza triste edo eriozcoric beguietan ez iduquitzea-
 gatic, gorputz hillá laster gurutzetic quendu nay
 izan zuten; baña nola justiciaturic hill baño len osar-
 teguitic erañtea leguéac debeatzen baicien, guizon
 batzuec burnizco mazoquin etorri, eta lapur biay,
 laster hill citecen, berna-ézúrrac autsi ciczten. Ayec
 gurutzeronz cetocela icustean, negar ta negar ce-
 goan Ama izutu zan; baña guero humilquiro erregutu
 cien, alabaña bere Semea hillotz zala, etzeguiotela
 eguiñ bidegabe edo injuria berri hura; etzeguiotela
 Ama añ atsecabetuari beste dolore bat gueitu (1).
 Baña jay! eta orra non au cion garayan icusten duan
 nola soldadutzar batec beste aldetic etorri, lantza

(1) Bonavent.

jaso, eta dardara eraguñaz bere arequin gorputz hillari sayetsa idiqui, eta biotz jaincozcoa igaro cion (1), irtenaz beragandie ur piscabatequin azque-neco bere odol tantac, gugatic isurtzeeoric gueyago etzuala, onela guri adiraci nairic.

Bidegabequeria Jaunari eguin citzayon; baña dolore miña Amaren biotzarentzat izan zan (2), eta Elizaco Guraso santueu iritzian izatez ta benaz au izan zan Simeon-ec aldeurrez aditzera eman cion ezpata, ez burnizcoa, ezpada bere anima garbi eta santa bere Semearen biotzean zulotu, eta martirizatzean artu zuan pena garratzezcoa, cereñ bera biotz artan bici zan (3), alatan non, orduan ez hiltzeco gucia dezaquean Jaincoaren mirari bat bear izan zan (4); bada gañeraco doloreetan beráz nor erruqitu bazuan, au da, bere Seme amorezcoa; baña emen ez.

Bada Ama mimberatuac burla, desprecio eta lot-sagabequeri berrien beldurrez Arimatea-co Joseri erregutu cion, Pilatos-en echera joan, eta esca ceguiola gorputz hilla, berequiñ eraman, eta trataera gaizto berrietatic gordetzeco. Josec, bada, esan be-cela joan, eta Ama naigabez estutuaren desconsuelo ta pena andia Pilatori aguertu, eta, diotenez, one-quin Pilatori biotza autsi, eta escatzen citzayon bai-mena eman zuan.

Ješten dute bada gurutzetic guizon erruquitsuac. Orañ, Virgiña gueziz garbia, orañ biurtuco dizute

(1) Birg. Revel. l. 2. 21. (2) Lansperg. (3) Bernard. de Lam. Virg

(4) Birg. Rev.

Semea, gure osasunagatic zue munduari eman ciñion Seme hura. Baña ¡ay! esquer beltzeco mundua, esango zuan orduan Ama laztanác, ¡nolacoa eta cerzorian biurtzen didazun! Len guiza semeen ederrera zan, eta zue hilla, ubel-beltztua eta itsustua itultzen didazu. Bere ardore ta beguitarte ederraz biotzac beregana itsutzen cituan, eta orañ berari beguiratzeac biotza austen du. Azquenic, cembat ere bere zauri ta odol bilduac ciran, beste ainbeste ezpatec Amaren bular biguña zulotu ta martirizatzen zuten.

Gorputz sagradua erašteco guizon santuac escallera gurutzeratu, eta atera cituzten aurrena escuetaco itzeac, eta urrena õnetacoa, eta héretaco batec eman ciozcan irurac Ama guciz santari. Batzuec gorputz sagraduari goitic eusten cioten, besteac betic, eta jaquintsu batec dio (1), ecen Virginiac berác õñ-punten gañean jarrita, besóac gora luzatu, eta bere Semearen gorputz hilla artu, bere ari laztandu, eta gurutzearen õñean eseri zala. Beguiratzen ditu dolore andiaz españ guciz garbi ayec idiquiác, eta beguiác bicigabe. Icusten ditu gorputzaren alde guciác abarraqitu eta zaurietatic ezurrac aguertúac; quentzen dio arantzazco coroa, icusten du buru guciz santua arántzaz igaroa, eta eguiten du deadar onela: *¡Oh ene Semea! ¡Ah! ¡Ay! ¡egoera ceñ errucarrira quizonaganaco onguinayac ecarri zaituan! ¡Ger gaitz artu dute zugandic zu guis onetan ipintzeco? Be-*

(1) Bernardin de Bustis.

guira, ene Seme, nere pena eta naigabe estua: bequirazadazu, ilzequidazu eta consola zazu zure Ama antsiatua. Baña ¡ay! ¡eta orañ eztezu itzequiten! ¡Ay! ¡eta eztezu arnas eguiten! ¡Arantz izugarriac! ¡illze ta lantza qogórrac! ¡Nola tormentatu al izan dezute guis onelan ceron Eguilleca? Baña ez arantzac, ez illzeac ere; zuec, peccariac, zuec eman diozute on au nere Semeari.

Onela eguiten zuan negar Ama naigabez itoac orduan; onela aguertzen zuan negar ta negar eguiñaz gure gogortasuna. Baña baldin orañ doloreric balezaque ¿cer esango luque? ¿Nolaco naigabéac eracutisico lituzque? ¿Gembaterañocoa izango litzaque bere pena, guizónac bere Seme preciatua gurutzeficatuz eta hillaz dijoacela icusita?

Bada utzi zayogun gueyagoren gueyago berá tormentatzeari, eta baldin egundaño aimbeste martiritatu badegu Ama maite au Jaincoa ofendituaz, enzunditzagun noizbait bere negárrac, eta eguin dezagun isill ta sotill beráe esaten diguna (1): *Atozte, peccariac, atozte nere Seme guciz gozouren biotz zauritura: zoazte tribunal zucen zorrotzetic gurutzeco aldarera, Juezagandic Erosleaqana: irichi zaitezte damuturic eta barcatuac guertuco ceralte. Besoac zabalduta hill zan, eta gurutzeco abe santutic quendu eta Amác bere magalean artu zuanean, beguiac ichi ciozcan; baña besóac ecin*

(1) Isai, 46. Guerrico Abad.

bildu izan ciozcan, nay izanaz onequiñ Erredimitzalle erruquitsuac guri aditzera eman, zabalic iduqui nay cituala besóac, peccatari damutu guciac bétetan artzeco.

Betoz guciac, dio osterá Mariac, au da barcatuac eta adisquidetuac gueratzeco derecha ta. Orañ ezta bildur izateco garaya, bada amorez eraman du eriotza. Eritua gueratu da bere biotz amorezcoa, aguirico zauritic aguer dediñ bere amore ezcutucoa (1). Eman cigun bere biotza; justu eta bidezcoa da gue guerea berari ematea. Azquen dezagun itzaldi au esanaz, ecen baldin biotz jaincozco onec heraganaco sarrera ematea nay badegu, joan bear guerala Mariarequin. Ala ondo artuco gaitu, ondorengo ejemploan icusten dan becela.

EJEMPLOA.

Discipuluac contatzen du (2) izan zala guizon bat biciera añ galducoa, non beste gaiztaqueri izugarri asco eguiteaz gañera, hill cituan bere aita eta anaya bat, eta onegatic justiciaren iguesca cebillen. Eliza batean sartu, eta Jaincoaren urricaltasun andiaren gañeco sermoy bat adituric, negarrez confesorearen óñetara joan zan. Onec aimbeste gaiztaqueri adituta, aguinu cion, joan cedilla doloretaco Ama Virgiña baten aurrera bere peccatuen damu andiagoa escat-

(1) Bernard, Serm de Pas. Don. (2) Promp. Ex, V. Mis.

zera eta beren barcacioa iristera. Joan, eta jartzen da belaunico aldarearen aurrean, asten du bere oracioa, eta antsia larriac eguiñaz, lasterrean lurrera erori eta guerutzen da hillotzie. Bigaramonean sermoilariac guizon aren animagatic Jaincoari escaceguiotela, bere aditzalleay escatzen cien garayan, uso batec, ara etorri, eta mocoan cecarren paper bat predicari aren õñetan erórten utzi zuan, eta paper artan ceuden esribituac itz oec: *Alzo hill zan guizonaren anima gorputzetic irten ez al zan, zucen zucen cerura igo zan; jarray zazu zuc Jaincoaren urricaltasuna goratuaz predicatzen.*

ORACIOA.

Virgiña dolorezcoa, bertuteen ispillu eta pena gucien itsaso ondogabea; bada batzuec eta besteac zuc Jaincoari izan ciñion amore iracequitic sortu ciran, erruqui zaite nizaz bear becela bera amatzetic urruti, millaca aldiz ofenditu nuan pecatari dichagabe onezaz. Uste eta confianz andia ematen didate zure doloreac, eta beracgatic escatzen dizut, misericordia eta barcacioa ezecic aurreronzean nere animaren gogo, zale eta indar guciaz Jauna amatzea ere. Ecin inõre zuc baño obeto irichi lizaquet graci au, zuc amore ederraren Ama orrec baño. Zuc guciac artzen dituzu ceregana, guciac gordetzen dituzu, guciay laguntzen diezu; ar nazazu bada ni ere, eta secula gucielan bedeicatuco zaitut.

VII. en ETA AZQENECO DOLOREA.

Jaunaren obiratzea eta Virginiaren bacardade edo soledadea.

Gauza jaquiña da ámac beren biotzean sentitzen dituztela beren umeen pena guciac, baldin ume ooc sufritzen edo hiltzen icusten badituzte; baña penen andienetaco bat izaten da hillari lurra emateco betico azquen-agur edo despedida eguiteco ordnan. Gure Ama maitearen pena ta ezpata zorrotz au gue ratzen zagu oraindic beguiratzeco.

Onetaraco itzuli gaitean osterá consideracioaz Calbarioco mendira, non utzi guenduan berá bere biotzeco Seme zanaren gorputzari laztanduta, nolana ere bere ari esanaz: *Nere biotzeco Semea ¡Cen len ez becelacoa nere beguiac icusten eta nere besoc estutzen zaituzten! Zure beguiratu pozgarri, itz gozatsu eta naitasun biguniaren señale atseguin ayec, eta zugandic artzen nituan on eta mesede bestec ez becelaco ayec dolorezco beste aibeste sayeta equin zaizquit, eta cembat zure aibeste prenda ederrec nere biotz biguniaren zaganaco legue eta maitetasuna iciotua gotzen zuten, aibat biciroaço sentieracitzen didate orañ zu galdutaco pena ta naigabea, bada zu galduaz gucia galdu det, zu cinalaco nere semea, nere aita, nere esposa, nere bi-*

citza eta nere anima (1).

Onela berarequin estu-estu batuta, naigabez ta penaz urtzen cegoan, eta onegalic guizon santu ayec miñaren miñez hill etzediñ, pensatu zuten gorputz hilla laster besoetatic quendu ta obiratzea.

Alderatzen zayozca, bada, eta erruquizeo eta bequiramentu andizeo borchaz bere magaletic gorputza quendu, usay gozoco uquenduz balsamatu, eta artaraco prestatua ceucaten izare batean bildu zuten, (non Jaunac bere gorputz sagraduaren señalear czarri ta utzi nay izan cituan). Onela beren sorbaldetan artu, eta abiatzen dira joaten, ceruco aingueruen coruaquin batean, andre erruquitsuac eta beren erdian Virgiña dolarez josia ondoren cituztela. Obira irichi, eta gorputz santua an sartzera cijoacen unean ¡cer pocic Ama bere arequin obian sartuta gueratuco citequean! Baña nola czaizan au Jaincoac nay zuana, diote, ecen beintzat obian sartu, eta errarte edo zulo hura nolacoa zan icusi nay izan zuala, non iltze ta arantzac ere utzi cituzten. Bera estali bear zuan los andia alchatzera cijoacenean, guizon santuac esango cioten: *Ama maitea, bequir a zayozu azqueneco aldiz eta equiozu cere azquen-agurra. ¡Ay, ene lazlana!* esan zuan, *arzazu cere Ama naigabez estaliagandic bere azquen-agurra malco gori oequin batera eta quera bedi emen nere biotza zurequin batean obian sartuta* (2).

Gueroenean arria ipiñi, eta uzten dute lurpetua

(1) Beru. de Lam. V. Mar. (2) Fulgent. Birg Revel. l. 2. c. 21.

ceru-hirretaco ondasun andiena dan gorputz jaincozco hura.

Beguiraz gagan emen gauza bat, aurrera igaro baño len. Baldin Ama amorezco onec bere ondasuna ceducan lecuan utzi bazuan bere biotza, ez dezagun ipini guc gurea creaturen locardan, baicic demayogun oso Jesus guciz maitagarriari, nor, guizonakin lurtean bici ondoan cerura igo bazan ere, Sacramentu guciz santuan gloriáz betea gueratu zan, beti gurequin egoteco, eta gure biotzac, beren jabeac becela, berequin iduquitzeo.

Virginiá guciz sagraduac obitic aldegin baño len losa sagradua bedeicatu zuan, esanaz; *Nic nere errayen barrumbean iduqui nuana orañ cere barrumbean daucazun suerte oneco arria, milla bider bedeicatzén zaitut; eta contu, ardura ta arreta guciáz bera gorde dezazula, encargatzen zaitut.* Guero bere itza eta animaren gogoac ceruronz jasota, esan zuan onela: *Ceruco Aita, zure escuetan gueratzen da zure atsegin contentua eta nere biotzeo Semea dan tesoro Jaincozco au.* Ostera berrero obira beguiratu, eta berriz Seme laztanagandic despeditu, eta itzultzen da echeronz berequin cituan personaquin, an barrena igarotzen bera icusi zuten person ascoti negar eraguiten cien beceñ galdua eta negarretan itoa, eta berequin cituan icasle ta gañeracoay beray ere oraíndic Jaunaren eriotzac baño Amaren penac, eta berá añ galdua icusteac gueyago negar eraguiten cien cracoa (1).

(1) Bernard,

Andre erruquitsuac gañetic mantu beltz bat jantzi
 cioten, eta oraindic odol preciatuaz bustia cegoan
 gurutzearen aurretic igarotzean lurrean auzpeztu,
 eta Ama maitea bera izan zan beste inõre baño len,
 edo lenen, egur santu hura aduratu zuan creatura,
 esanaz onela: *¡Gurutze guciz santua, adoratzan
 zaitut eta debocio guciaz muneguiten dizut,
 bada etzera gaur guero egur infame ta irañ-
 garria, ezpada munduco pecatuac quentzen di-
 tuan Bildots, guizonen osasunaqatic zuzan sa-
 crificatuaren odolaz consagratutaco amorezco
 tronu eta misericordiazco aldarea.* Bere bici-
 lectu pobrera irichi zanean bereala, alde gucietara
 beguiratu, eta ez icusirie bere Seme guciz gozoa,
 beguitandu citzaizcan biciro beraren bicitza añ san-
 tuco esan-eguiñac; bere jayotze sagraduco gau glo-
 riazco hura, bere bular amorezcoan eman ciozcan
 laztan eta musu gozóac, Nazaret-co bere echean
 aimbeste urtetan eguin cituzten itzqueta lano eta
 atseguñac, amore ceñ samurraz alcarri eranzuten
 cioten, bere onguinaizco beguiratuac eta bere ao
 jaincozcoctic irteten ciran betico bicitzazco itzac. Ba-
 ña guero berriz len baño oraindic saminqui ta bici-
 roago egun triste artaco autsi-abartzta eta guertaera
 negargarríac beguitandu citzayozcan: iltze, arantz,
 eta zauri andiac; aragui zatituac, ezur orciatuac, ao
 leorra, eta begui illundu hillac. *¡Ay gauaren gar-
 ratza! Icasle maite Juan-i galdetzen cion, ¿non da
 zure Jaun eta Maisu jaincozcoa? Magdalenari
 galdetzen cion: Alaba, ¿non da zure maitea?*

¿Nore quendu digu gure ondasun bacarra? ¿Nore ipiñi gaitu bacartasun onen garratzean? Negar ta negar daude bere begui garbiac; negar ta negar daude berarequin guciac. Eta zue, anima ¿cer eguiten dezu? Esayozu beñic beñi: *Ama laztana, ni naiz negar eguin bear dedana eta ez zu: ni naiz culpaduna, ta zu garbia. Utzi guidazu beintzat zuri cere negarretan eta bacartasunecan laguntzen: FAC UT TECUM LUGEAM. Zure negarrac amoretic sortzen dira, irten ditecela neréac nere pecatuen damu eta penaren penaz. Oec eta onelaco beste esaera samúrrac esan bear diozcatzu ezpañaz eta biotzez. Onela eguiñaz uste dezazuque ondorengo ejemploan aditueo dezun patu zorionecoa.*

EJEMPLOA.

Aita Engelgravec contatzen du (1) onela: erligioso bat beldur ta escrupuloac alañ estutzen zuten, non iñoiz ernegatzeco zorian ipintzen zuten; baña Dolo-reetaco Amari jayera gucizcoa izanie, onen laguntzaz baliatzen zan, eta ceruetaco Erreguiñaren pénac beguiratzearequin, beréac arintzen citzayozcala barrundatzen zuan. Onela bicia igaro, eta bere azquen-ordura irichi, eta demonioac orduan secular baño furia biciagoaz estutzen zuan; baña erligioso gajoac

(1) Dom. infra Oct. Nat. §. 2.

gueyen ceraman eta ernegatzeco perill andienean cegoan garayan, orra non aguertzen zayon Maria guciz santa, esanaz itz gozatsu oec: *Ene seme, ¿certatic descguiten cera naigabez eta penaz, zu, aimbeste bider poztu nazun ori? Ea, alay zaitte, nere Seme jaincozcoac zu orañ consolatzera bialdu nauta. Etorri da zuretzat dichazco ordua. Atoz nerequin cerura.* Itz guciz ezlitsu oequin ecaitz gogor guci hura punta batean lañoa becela aitu, eta poz atseguñez beterie anima bero Ama maitearen escuetan eman zuan beti betiraco zorioneco izateco.

ORACIOA.

Ama dolorez betea, arren ere izan dezadala nic zuri cere neque penetan laguntzeco dicha, Jesusen ta zure pasioa beti gogoan erabilliaz, zure negarraquin nerea batu, eta aurreronzean nere bici gucia nere aimbeste pecatuaz Jaincoa ofenditu izan dedalaco, nere azquen-orduan nere salbacioaz ez etsi eta ernegatzeco indarra dolore orlec emango didatelaco uste ta con fianza osoaz zure eta beraren doloreaz negar eguiten eman dezadan. Bataren eta bestearen doloreacgatic seguru irichi uste ditut barcacioa, iraupena ta gloria, non zurequin batera, Ama amarezcoa, cantatuco ditudan secula gucietan Jaincoaren urricaltasunac. Amen.

VIII. en ITZALDIA.

Virgiñaren ceruraco jasoera.

Egun onetan eguiten du Elizac Maria guciz santaren honran bere dich andico iragoera eta ceruraco jasoera gloriazcoaren festa, eta berac ematen digute bi itzalditaraco gaya. Itzeguin zagun aurrena bere zorioneco iragoeraz, bere eriotza ceñ preciatua izan zan beguiratuaz.

1.º Berari cerraizcan eta orduan guertatu ciran gauzaegatic.

2. en Hill zan becela hill zalaco.

Eriotza pecatuaren gaitz-ondorea izanic, etzirudian pecatu gucitic garbi ta soll cegoan Maria guciz santa Jaincoaren Ama, atzituco zuala eriotzac; ceren Adan-en seme-alaba, lenengo pecatuaren pozoniaz cutsututacoen gaitzegoqui eta ondamendiac bera arapatu etzuan. Baña Jaincoac Maria gucian bere Se-mearen antzeco izatea nay izan zuan, eta nay izanic Jaunac berac eriotza eraman bearrean jarri, bere Ama guciz santa ere hiltzea combeni zan. Cañera orobat nay izan cien eman Jaunac justuay eriotz bere beguietan eder eta preciatuaren ispillu bici bat mundu onetatic irteteco eta orretaraco eguin zuan Virgiña garbiarena gozo, atseguin eta zorionecoa izatea.

Beguir ditzagun, bada, lenengo, bere eriotzean izan cituan pribilegio preciatuac, eta oyey cerraizten

gáuzac.

I.º PUNTUA.

Batez ere iru gauzac eguiten dute garratz eriotza: munduari itsatsia egoteac; eguindaco pecatuac eta salbacioaren segurantzari ez iduquitzeac. Baña Mariarenean iruretaoric izan etzan, baicic eta hill zan bicitu zan becela, lurreco ondasunetatic oso desitsatsia, soseguzco concienciarequin, eta salbacioa iristeco uste ta con fianza oso ta betearequin.

Lenengoari dagoquionez, dudari eztago, emengo gauzay itsatsia egoteac guciiz illun, triste ta dichagabe eguiten duala munduoen eriotza, Espiritu Santuac dion becela *¡O eriotza, ceñ garratza zayon zure oroipena lurreco bere ondasunetan bere poz eta atseguina daucanari (1)!* Baña santuac nola bicitz onetaco ondasunetatic desitsatsiac hiltzen baitiran, béren eriotza ezta izaten garratz eta samiña, eta bay gozo ta preciatua (2): eta preciatuac esan nay du, precio guciiz andian erostea mercei duana. *¡Ceñ dira izatez eta benaz hill baño len hillac daudenac, au da munduari hillac?* Ceruetaco erreinuraco mundutic irten baño len munduarequin bere gauza guciay oso desitsatsiac dauden suerte onecoac, bacarric Jaincoagan beren zorientasuna ipiñi dutelaco; esan al izanaz san Francisco

(1) Ecel. 41. 1, (2) Apoc. 14. 23.

bocela: *Nere Jaincoa eta nere gauza guciac.* Baña ¿ceñ anima izan zan secular munduac duan guciac añ erantziric, nola ta Mariaren anima guciac garbia? Desitsatsia egon zan aideaegandic, añ aur zala béren bearren zan eta béray gueyen nay oy zayen garayan bere gurasóac ulzi, eta bacarric Jaincoa billatuaz temploco ichituan sartuta. Desitsatsia egon zan lurreco ondasunetatic, nayago izanaz pobreza, eta bere escuetaco lanaz biciaz. Desitsatsia ta erantzia honra guciatic, nayago izanaz be-mallaco biciera humilla Israel-go erregueen odoletic sortua zalaric. Eguzquiaz jantzita, illarguia oñpean zuala san Juan-co icusi zuan Andre hura beraren irudia zan. Elizaco maisu jaquintsúac diotenez illargui arc munduco ondasun galcor, aldacor eta acatsdunac adirazten ditu. Inoiz ere etzuan iduqui Mariac gauza galcor octara oder etsia eta zaletua biotza, baicic eta beti despreciatu cituan, beñere bérac ecertan iduquigabe, guciac gauza circill eta ecerezcotzat oñpean zapaldu, eta bacarreco usatortolaren guisa munduan biciaz (1).

Eta alabaña etzan secular egon munduco eceri itsatsia baicic eta bacarric Jaincoarequin batua bicitu zan beti, eciñ izan citzayoquean garratz eta samñ eriotza, ezpada guciac gozo ta guticiatua, bada bera zan ceruan bere maitearequin beti betiraco batuagotzeco bidea.

Justuen eriotza añ preciatu eguiten duan bigarren

(1) Cant. 2. 12. Cant. 3. 6. Rupert.

gauza da concienci onaren poz atseguina; eguindaco gaiztaqueriac diran becela hiltzen dauden tristen biotzac ordu artan gueyen zulotzen eta puscatzen dituzten árrac, gaiztaqueri oco dira laster bérequin Jaincoaren tribunalera craman bear dituzten lagúnac; dira beren horrororic gogorrenac; dira gueyen izutzen duten etsayac, beti deadarca daudenac, esanaz: *Zure lánac quera, etzaitugu utzico*. Baña ¿cer imurtzi eriotzeco orduan iduqui cezaquean beti santa, garbi eta bere eguintzazco pecaturen cutesue ezecic jatorrizcotie ere libre ta garbi izan zan, eta Esposo jaincozcoac, *Guci ori ederra cera, ene adisquidea, eta zupan eztago mancharen arrazatic*, esalea merecitu zuan Virgíñac?

Arrazoyaren ezagüera zuanetic, au da, bere sortze garbiaren lenengo unetic, bere al eta indar guclaz Jaincoa serbitzen abiatu, eta bere bici gucian bertutean igoaz joan zan, guerozgo ta gueyago Jauna amatuaz. Bere burutacio, gogo, zale ta deseo guclac Jaincoagana goratzen cituan, berari atseguin eguitico eta gucian bere gloria andiagoa billatzeco ezpazan beste ecertara muguitugabe, beste eceri beguiratugabe, arnatic ore emangabe; Jaunaren amore santutic pauso bat bera beñere cearecatugabe eta izpiric aldeguingabe. Ala bere eriotzeco ordu zori onecoa irichi zanean, bere bician eguin cituan lan on eta bertutezco guciac bere aurrean icusi cituan; fede sendoa, confianza amorezcoa, pacienci guciz garaya, hnmiltasun barruncoya, modestia, mansotasuna, urcoaganaco onguinaya, Jaincoaren honra an-

dienaren egarri iracequia, eta batez ere Jaincoagana amore oso ta betea, eta bere borondate guciz santura oso jarria egotea. Bertute guciac, batec ere utsemangabe, ordu artan bera ingurutu, eta bere espiritua alaituaz, ciotsaten: *Zure lanac quera, etzailugu ulzico, eta gaur deserri desdichatu onetatic irtetera zoacen egun onetan joango quera zure ondoren zuri ceruan fest equitera, non jarrico buiceran, aingueru ta guizonen Erreguina becela, gloriarco tronuan secular betico.*

Eriotza atseguin ta gozo eguiten duan irugarren gauza da, bat betico bicitza irichico dualacoan seguru egotea. Igaroera dala, esaten da eriotza, ceren bicitza laburretic azquengabeco bicitzara beraren bidez igarotzen dan; eta au dala bide añ andia dan becela beren salbacioaren duda edo zalantzan hiltzen diranen estura larria, icusten daudelaco beren suertea erabaquitzeaco ascorentzat betico tormentuen asiera izango dan instante larri hura, guciz andia da santuac beren biciaren aria eteteracoan duten poz atseguina, ceren beli betiraco Jaincoaren gozatzera joan uste duten. Santa Teresaren erligioco moja batec, medicuac etsipena ematen ciola adituta, alaingo poza artu zuan, non aoran farra zuala esan cion: *¡Nola escatzen ez dizquit albiste eta poz eraculsiac, medicu Jauna, berri añ atseguina ematen didancan?* Eta san Lorenzo Justinianoc hiltzen cegoala, bere echeoac negarrez icusita, esan cion: *cijoazquiola andie beren negarraquin, hura negar equiteco garaya etzalata.* Atseguin conten-

tuaren señaie béraquin bucatu cituzten beren egúnac san Pedro - Alcantarac, san Luis Gonzagac eta beste santu ascoe, Jaincoarequin ongui ceuden eta santu ciran seguranz osorie etzeucatelarie, Maria guciz santac becela. ¡Cer atseguin contentua dich andico Ama onena izango zan, urrean zuan eriotzaren albistea aditzean, Jaincoaren gracia betean cegoalacoan guciz seguru egonaz, batez ere graciaz betea cegoala san Gabriel aingueruac segurutu eionez gueroz (1)? Ondo cequian bere biotza Jaincoaren amorezco suan iracequia eta beste santuri eman etzitzayon pribilegio bacan batez bere bicitzaco puntu ta instante gucietan beti ta utsunegabe Jaincoa amatzen cegoala (2), eta alaingo berotasunaz, non Jaincoac beti cirauñ mirari bat eguin bear izan zuan, sugar añ bicien erdian beti erreaz hilco ezpazan. Beráz esan zan Escritura sagraduco Cantetan (3): *¿Ceñ da incensua- ren eta mirraren usaizco erro bat becela deserritic datorren au?* Mirrac adiraxten duan bere burua- ren mortificacio osoac, incensuac beguietaraxten duan bere oracio iracequiac, eta caridadeac aguertzen di- tuan gañeraco bere bertuteac sututzen zuten bere biotza Jaincoaganaco amorean, eta igotzen zan Jaincoaren tronuraño usay guciz gozo hura (4). Eta nolacoa bicitza, alacoa izan zan eriotza.

Amorearen amorez hill zan, ceren edo hill bear etzuan, edota amorearen indarrez hill bear zuan (5).

(1) Luc. 1. (2) Bernardin. de Bustos (3) Cant. 5, 6. (4) Rupert. Eustach. (5) Ildephons.

II. ^o PUNTUA.

Dacuscun orañ nola izan zan bere eriotz guciz zorionecoa. Jaunaren igoeraz gucroz gueratu zan Maria lurrean fedearen zabaltzea beguiratzeco, eta ala Jesucristoren icasleac beren dudaldi gucietan beragana, bere arguiaren billan etortzen ciran, eta berac persecucioay arpegui emateco indartzen eta Jaincoaren gloria, eta animen salvacioagatic necatzera animalzen cituan. Pocic mundu onetan bici zan, Jaincoac ala nay zuala, ezagututa, Elizaren onnaz beguira cezan; baña ecin egon citequean bere Seme maiteagabe, eta berac icusigabe egon bearretic cetorquin pena ta naigabea sentitugabe. *Non ere balec daucan bere ondasuna, an dauca bere biotza* (1), eta bere deseo gucia, eta nola Andre miragarri onentzat Jesus beste ondasunic ezbaicegoan, Semea ceruan cegoala Amaren gogota zale guciac cerura cijoacen, eta ceruan ceucan beti bere bicilecua, lurreco gaucen gogoeta gucietatic oso erantzi, eta Jaincoaren arguiac beti argituric, Jaincoaren nay edo borondatea cer citequean beti beguiratuaz, bereala hura eguiteco, eta bere ondasun, centro eta on bacarrarequin becela beti berarequin batua egoteco. Eta deserri onetan arrotzaldiaren ponac cerbait arintzeco consolatzen

(1) Luc. 12. 54.

zan diotenez (Jerusalengo eta Palestina-co lecu bere Seme guciz santuac bere presenciaz santificatuac ibiltzeaz, Belendic Nazaret-era, baratzatic pretoriora, pretoriotic Calbariora eta obi santura ascotan joanaz. Baña onequin ecer guchi aseric bere amorearen zale, deseo ta egarriac, eta ez arquiturie inon sosegu osoric, bialtzen ciozcan gueratzaca bere negar iracequiac deadar eguinaz David-equin, baña indar eta bicitasun andiagoaz: *¿Nore emango dizquit egóac nere Jaincoagana egatu eta berarequin batuta beticoera gucian berarequin atsedeteco* (1)? *Nere anima zure egarriz daqo, ene Jaincoa, basauntz erituac iturriaren biltan lasterequiten duanean baño eresi ta zale gueyagorequin* (2). ¡Ah! hacarreco usatortola onen negar eta cizpuruac nay edo ez Jaincoaren bionza eritu eta an sartu bear ciran; eta ieusirie Jaunac bere Amari añ bicero nay zuqueana berandutnagotzeco lecurie bere amoreac ematen etziola, bere erreguac enzun, eta deitzen du betico atseguin-contentuetara. Diote, ecen (3) bere eriotza baño egun batzuez lenago bialdu ciola Jaincoac san Gabriel ainguerua, Jaincoaren Amataco esleitua izan zalaco albisto dichazcoa len ecarri ciona bera, eta esan ciola: *Nere Erreguin eta Echecoandrea, Jaunac zure deseo santuac enzun, eta bialtzen nau zuri esatera, presta zaitcala lur-*

(1) Ps. 57. 7. (2) Ps. 41. 2 (3) Cedran, Comp. hist. Nicéphor. l. 2. c. 21. Metaphast, Orat. de Dermil. Mar.

*ra uzteco, ceren gaurguero ceruan erreguiñalzen berequin iduqui nay zaituan. Berri añ atseguingarri au aditzean ;cer besteric Virgiña guciz humillác eguingo zuan, ezpazan bere humiltasun guciz barruncoyan secular baño gueyago bere burua ecereztu, eta lenengo aldian esan cituan itzac bérac esan: *Ona ni Jaunaren serbitzaria? Nic ez nuan mereci bere Ama izalearen diñadia; añ guchi orañ betico atsequin contentuetara artutzea; baña ala ere bere ontasun neurri gabeac ala nay du, eta ona ni emen deitzen nauan lecura joateco prest: eguin bedi gucian bere borondate guciz santua.**

Guerora beguira egongabe san Juan Ebangelistari au aguertu, eta onec nolana ere berri au samurtasun andiaz, eta dembora berean guciz penaz adituco cion, seme guciz onetsiac becela, urte añ lucetan beraren lanotasun eta tratabide atseguingarriaz gozatu ondoan, Ama guciz santaren laguntasun ta itzqueta cerucoagabe gueratzerá cijoala icusita. Virgiña guciz santac Jerusalengo lecu santuac, eta batez ere Calbarioco mendia, azqueneco aldiz bisitatu cituan, bérac debocio guciz andiaz betico utziaz, eta bere echecho humillera itzuli, eta abiatu zan bere joaeraraco prestatzen. Orduic utsunegabe étorri ciran ainguerúac béren Echeoandre guciz atseguíña poztu eta berari agur ónac eguitera, laster beren Erreguiñ guciz gozo ceruan betico glorian coroatuta icusi bear zutelaco poz at-

seguñiez beteta. Jaquintsu ascoc diote (1), eeen Jaincoác ala nairic, bildu cirala Jerusalena munduz-mundu zabalduac cebiltzan apostolu eta gañeraco icasleac béren Erreguñ eta Echeandreamen joacra dichazcoan bertan egon citecen, eta guciac bere aurean icusita, begui-tarte alay batequin, eta béraeganaico naitasun gucizeco baten señaie aguiriaquin abiatu citzayela esaten: *Nere maiteác, nere Seme guciz gozoác cerura igotzeracoan zuen amorez eta zuen pozgarri mundu onetan utzi ninduan. Orañ bazter guciatatic zabaldu da fedea: orañ jaincozco aciaren uzta eltzece zorian dago; eta ala ni lurrean queyago egotea gauza bearra ezlala icusiric Jaunac, berá icusigabe añ luzaroan doramadan penaz erruquituta, enzunditu beraren gozatzera joateco dauzcadan zale ta deseoc. Guera zaiteste zuec emen bere gloriaren zabaltzean lan equñaz jarraitzece. Ni zuecgandic urrutiratuarren gorputzez, emen gucratzen zatzute nere biotza, eta beti ta beti naico dizuet. Zuecgatic escatzera noa cerueta-co erreinura. Santu ayec aditu zutenean herri añ mingarria, juore esan nolaco negárrac isurtzen ábiatu ciran, eta nolaco sotiñ ta donabera tristeac eguin cituzten Ama añ maiteagabe gucratzera cijoaccla icusita? Ay Ama guciz gozoa, cioten guciac, cizpuru ta malcoen artean; jorrela beraz utzi nay*

(1) Andr. Cret. Orat. de Dorm. Deip.—Damasc. de Dorm. Deip—Euthim, l. 3. Hist. c. 4.

gaituzu? Lurra ezta zure diñaco lecuo, eta que-
 ere ezlegu mereci Jainco beraren Ama guere-
 quin iduquitzea; baña contura zaite orañdaño
 izan cerala gure Ama, gure dudetan quia,
 penetan pozgarria, persecucioetan indar ta sen-
 dotasuna, eta gutzi nay gaituzu zure itzal eta
 amparoqabe aibeste etsairen artean eta aib-
 beste pelea equin bearrean? Gure Aita eta
 Maisu jaincozcoa galduta, zu iduquitzeaz con-
 solatzen quiñan. ¿Nola utzi nay gaituzu orañ
 aitaric eta amaricqabe umezurtz? ¡Ah, Ama
 mailea! edo guera zaite gurequin, edo ta e-
 raman gaitzatzu cerequin. Ez, ene maileac,
 Ama guciz erruquitsuac itz gozatsuagoaz ostera esan-
 cien, ori ezta Jaincoac nay duana, jarri zui-
 tezte nizaz eta zuezaz equin nay duanera. O-
 rraindic icerditu bearrac ceralte gure Eroslearen
 gloriagatic, eta oso irabaci bear dezute betico
 zori ona. Etzuituet uzten bacarric uzteco, ez-
 pada zuey obeto laguntzeco, eta Jaincoari ce-
 ruan zuecgatic escatzeco. Guera zaitezte emen
 alay; eta bequira zuen contura uzten dizquit-
 zuledala Eliza santa eta gure Jaunaren odol
 preciatuaz erositaco animac. Au izan bedi az-
 queneco nere oroipen eta agurra. Onela equi-
 zute, baldin nay badidazute, animen onagatic
 eta nere Seme jaincozcoaren gloriagatic ne-
 caluaz, eta elorrico da eguna, noiz eta inoiz
 ere ez banacatzeco alcarganatuco gueran. Be-
 reala bere gorputzari lurra ceguiotela escatu, bere

bedeicacioa eman, eta garay batean bera serbitu zuten bi nescachi bere soñeco bi ceguieztela san Juan-i aguindu (1), eta bercala bere oicho pobre garbian modestia ta debocio guciaz etzan, eta an gueratu zan eriotzaren, eta eriotzarequin bera cerura eramatera laster ceterquion bere Esposo jaincozcoaren beguira. Asten da oy ez becelaco alaitasun eta pozaldi andi berri bat, Jauna laster ceterquiolaco albistea becela, bere barrumbean sentitzen. Apostolu santuac azqueneco instantea urreratu zala, ezagututa, berriro negarrari eman, oyaren inguruan belaunicatu, eta muñeguiten diote batzuec oñ sagraduetan, escatzen diote besteac, bedeica ditzala bat banaca, escatzen diote besteac mesede señalatu bat, edota premia edo bearren baten estaltzea, eta guciac, naigabez josita, ematen zayozca negar samiñari; baña berác, Ama guciz amorezcoac becela, guciaquin bigundu, eta ematen cion bacoitzari cegoquion consueloa; oni bere habes eta amparoa esqueñiaz, bestea gozotoro bedeicatuaz, bestea animac combertitzera animatuaz; eta berezquiro Elizaren buru eta Jesucristoren oñordeagana becela, san Pedrogana itzuli, eta encargatu cion batez ere fedearen zabaltzea, betico bere laguntza eta amparoa aguinduaz. Baña beste gucietatic bereci, eta une artan beste guciac baño pena gueyago ta miñago zuan san Juan-i aldera cequiola aguindu, eta Ama guciz esquertsuác ez iduquiric aztuta Salbatzallearen eriotzetic ordu-

(1) Damascen. Niceph. Metaphr.

raño alaingo naitasun biguñ eta arretaz berari eguinciozean betico serbitzuac, samurtasun andiaz esancion: *Ene seme guciz maite Juan, esquerrac dizquitzul añ cintzo ta arretaz beguiratu didazulaco: seguru egon cindezque azluco etzaitudalacoan. Orañ uzten bazaitut ere, zugatic escatzera noa glorian icusi gaiteaneraño, non iche-dongo dizudan. Iduqui zazu cere uste osoa nere amorean, eta dey nazazu cere bear-ordu gucietan, ni zutzaz azluco ez naizta. Ar zazu nere bendicioa, agur, guera zaite paquean.*

Baña orra non urreratzen dan azqueneco instantea. Jaincoaren amorea bere sugar biciaquin bici santu aren espiritua erreaz eta aria aituz dijoa. Aingueruac ara irihiaz cijoacen, beraren otsandico triunfo ta igoceran laguntzera. Ama maitea ceruco espiritu ayec icusita poztutzen zan, baño ez oso, bere amorearen egon-lecu bacar Jesus guciz gozoa oraindic etzeturquiolaco; eta beragatic etzan isiltzen berari ezatez: *Ceruco Jerusalengo espiritu doatsuac, esquer badizuel ere ordu onetan nere espirituari ematen diozuten poz atsequinagatic, nere consueloa ezta oso ta betea, ezta izango ere, nere Jesus guciz gozoa icusi dezadaneraño. Baldin nay badidazute, itzuli eta esan guiozute nere icenean, eeen amorearen amorez hiltzen nagoala. Esaguiozute, datorrela, eta ez dezala gueyago luzarotu bere etorrera, ceren bere aurre guciz maitagarrian egoleco eta berarequin laztantzeco egarriz hiltzen nagoan.*

Etortzen zayo guero ere Jauna, bere Ama maitea berequiñ eramatera. Santa Isabel-ec ceruco arguita-sunaz jaquin zuan, Jesucristo escuan gurutzearequin aguertu citzayola bere Ama guciz santari, creatura añ garay eta besteric ez becelacoa irabaci ta zorioneco eguitearequin erredencioaren bidez irichi zuan frutu ta gloria bereciaren señaLEAN, ceñagatic, alabanza ta honra gueyago secula gucien seculetan artu bear cituan, santu eta aingueru gucienac alcartuta baño. Eta san Juan Damascenoc contatzen du, Jaunac bere escuz eman ciola biatico edo bideraco janarizat bere Gorputz sagraduaren comunioa, itz guciz gozatsuaquin ciotsala: *Ar zazu, Ama, nere escuetatic zue eman ciñidan Gorputza bera;* eta ogui jaincozco, eta azqueneco comunio hura amore eta erreberencia gucizcoaz artu ondoan, azqueneco bere biotzeco gogo eta cizpuruen artean eranzun ciola: *Ene Semea, zure escuetan uzten det nere espiritua, zure escuetan asieratic pecatu gucitic zue garbi gorde eta graziaz bete cenduan, nere anima; zure contura uzten det beragandic araquiz jantzi nay izun cenduan nere gorputza; zure contura uzten ditut laster equin bear dedan joeragatic añ naigabez emen dacusquitzun nere seme guciz maite oec ere: postu itzatzu zue, nic baño maiteago dituzun orrec, guciac bedeicatuaz, eta apostoluac becela dauzcaten eguinquizunac betetzeco indartuaz, fede eta zure icen santuaren gloria zabal dit-*

zaten (1).

Onetan abiatu zan aditzen ceruco musica guciz atseguingarri bat (2), eta bete zan guela arguitasun ederrez (3), azqueneco instantea irichia zala arguiro ezagutuaz. Apostolu santuac negar eta erreguac ber-rituaz goratu cituzten beren escuac eta boza, esanaz: *¡Ay, Ama! eta alabaña quero ere bazoazquiqu umezurtz utzila, iguzu berriro zure bendicio guciz santua*; eta Mariac azqueneco aldiz heracgan-dic despeditzeco becela, gozotoro beguiratu, eta esan-cien: *agur ene semeac, ar zazute nere bedeica-cio osoa, eta seguru egon zaiteste zuetzaz az-tuco ez naizalacoan.*

Itz oec esatearequin bat erioa irichi zan, ez illun eta beltzez estalia, comunquiro etorri oy dan becela, baicic arguiz eta atseguin contentuz betea, edo, obe-to esango degu, amore jaincozcoac ebaqui zuala hici añ preciatuaren aria; eta bere Seme gnciz santuac berari jarray ceguiola deitzen, an ceudenac adituaz, amorezco suan icio, eta suspirio guciz iracequiac e-guiñaz, gañeracoac baño andi ta amoretsuago bat e-guiñ, eta onequin bere anima guciz garbia ceruetara egatu zan, non creatura gucien Erreguiñ eta Eche-coandreac becela azquengabeco seculetan triunfat-zen ta triunfatuco duan.

Ordutic, bada, dagoquigu beguira negarrezco bi-cilecu onetan arrotzay becela, erruquitzen da gure

(1) S. Joan, Damas. Or. de Ass. V. (2) Hieronym. (3) Birg Bevel.

miseriaz, eta aguintzen digu bere estalpe eta laguntza. Erregu zayogun, bada, humiltasun andiaz bere eriotzpreciatuaren merecimentuacgatic, irichi deguigula gue ere eriotz zorioneco bat izatea, eta Jaincoac ala nay izatera, beraren honraraco consagratua dagoan larumbat eguncan, edota bere fest-egunetacoren baten bederatziurren edo zortziurrenecoarenean, bere deboto ascori eguin dion mesedea, eta beren artean san Estanislao Koska-ri, norc ceruco Erreguiñagandic bere Asuncio gloriaczcoaren fest-egun andian hill eta glorian sartzeco suerte zorionecoa irichi zuan (1), icusico degun becela ondorengo

EJEMPLOAN.

Gazte santu au aingueruen Erreguiñaren amorean sutua bici zan Aita Pedro Canisio doatsuac Aguztuaren aurreneco egunetaco batean bere nobicioay egun bacoitza beren azquenecoa bacitequean becela, eta ordu artan Jaincoaren tribunalera aguertu bear bazuqueen becela, bici citecela, berotasun andiaz ta biciro encargatuaz eguin cien sermoy bat enzun zuanean. Sermoya bucatu zan becela, Estanislaoe bere lagúnay esan cien: *bacarric beretzat izan zala sermoy eta ceruco gaztiqu hura, bala ill beraren barrunen hilco zala;* eta onela oso segurutu zuan, cerucoarguiatz jaquin zualaco, edolaric bere buruac a-

(1) Bártoli in ejus vita, lib. 1. c. 2.

la ematen ciolaco, eta engañatu etzan. Andic lau egu-
nera Santa Maria Andiena deritzan elizara Aita Ma-
nuel Sa-requin joan, eta egun ayetan zan Ama Vir-
giña Asunciocoaren fest-egunaz itseguinaz, Aita ari
esan cion: *Aita, ceruco paraisoan urte oro bes-
te paraiso berri bat izango dala deritzat, an-
dauden doatsuac aingueruen coru quciatz qañe-
tic ceruco Errequintzat coroatua eta Jaincoa-
ren añ aldean jarrita Jaincoaren Amac daucan
gloria icusiaz. Eta baldin onela bada, nic uste
dedan becela, egun onetan icusi uste del fest au.*
Suertez ill artaco bere santutzat (compañian eguin oy-
dan becela) san Lorenzo martiri gloriatsua egoquitu, e-
ta santu onen egunean comulgatu zan, bere Asuncio
gloriaz betearen fest-eguna icusten egun artan berá
ceruan arquitearen gracia ceguiola, escatzen cion
carta bat Virgiña guciz santari bere escuctan ipint-
zeco bitarteco santua jarriaz; eta egun arc, edo illa-
ren amargarrenac oraindic ciraula, elgaitz edo ca-
lentura usi batequin bere burua sentitu, eta ariña
zalaric, bere escaria aditua zan señale segurutzat i-
duqui zuan, eta bera icustera joan citzayon Aita Ge-
neralari esan cion: *Aita, san Lorenzoc irichi didala
deritzat* gure Ama maiteagandic bere Asuncioaren
egunean bera ceruan icustera joatearen suerte ona.
Bere itzac inore ecer ascoan artu etzituan eta Asun-
cio bezperan ere gaitza oraindic aurreratu etzitayon;
baña santuac berari beguiratzen cion hermanoari,
cettorren gauean seguru hilco zala, segurutu, eta o-
nec esan cion: *mirari andiagoa izango citequeala*

gaitz añ arinez hiltzea, sendatzea baño. Egüerdi ondoan naigabe ta char-aldi pisu batec artu, eta icerdi otzac eman, eta quemén guciac joan citzaizean. Orduan echeco burua etorri eta Estanislaoe oni bera lur gorriaren gañean ipiñi cezatela, aguintzeaz mesede eguin ceguiola, erregutu cion, onela penitencia eguiñaz hill cediñ, eta berari atseguin eguiteagatic, escatzen cionetic cerbait eguin cion, lastaira bat lurrean bota, eta aren gañean eratzan cezatela, aguinduaz. Bereala confesatu, eta Sacramentu guciac santua guelan sartzeracoan santuari bere beguiac ceruco alaitasun batez guciac argui eguiten ciela eta arpeguia serafin batenaren guisa Jaincoaren amorezco suan icioa ceduzcala icusita an cenden guciac malco ugariac cerariztela Elizacoac artu cituan. Extremauncioa ere artu eta bizquitartean jasotzen cituan beguiac cerura edo ta jartzén zan Virginiaren imagiña bati beguira oni muñeguiñaz, eta bere besartean lastan gozóac emanaz. Aita batec ea certaraco errosarioac escuan nay cituan, galdetuta, pozcarri citzayozcala, eranzun cion, bere Ama maitearen gauzac becela: eta Ama maitea bera laster ceruan icustea eta berari escuan muñeguitea poz andiango izango citzayola osterá esanta, deseo ta zale iracequiaz bere escuac goratu cituan. Andic bereala Ama maitagarria aguertu citzayon, eta au berac esan cien an cendenay aleric arroquerigabe eta lasterrean Aguztuaren amabostgarren egunaren arguitzean santuen paquea gozo eta atseguin contentuaz hill zan, beguiac ceruan josi eta muguidaren arrazarie eguin-

gabe, bada Virgiñaren imagiña alderatuta ecertaraten etzala icusi zutenean, bere anima mundu onetatic irten, eta Jaincoaren jarlecura eta bere Ama maitearen besoetara egatu zala ezagutu zuten.

ORACIOA.

O Señora guciz gozo eta Ama amoretsua; aingueruen coru gucien Erreguiñ gloriáz betea izateco igo ciñan cerura, Elizác cantatzen duan becela. Gu peccatarioc ez guiñan gaiztaqueri ta miseriaz betetaco bici-lecu onetan zu iduquitzearen diña; baña zu cere glorien erdian etzera aztu erbesteco arrotz beartsu dichagabe oezaz, eta oraindie areagoa da Adan-en seme alaba gajooy diguzun erruquia. Itzul itzatzu bada guganonz cere anditasunaren jarlecutic gutzaz cupituta begui urricaltsu oriec, negarrezco bici-lecu onetatic irteteracoan cere seme alábaz aztuco etziñala aguindu cendualacoaz oroituta. Beguira jaiquitzen diran ecaitzac, ingurutzen gaituzten beldúrrac, eta biciaac dirauquiguneraño gañeraco zaizcun besteen beldúrrac. Bada zure eriotz guciz santuaren irabaciagatic escatzen dizugu, irichi deguiguzula Jau-nagandie bere adisquidetasun eta gracion azquen orduraño irauteco gracia, azquenera ondo ta zucen irichi, eta ceruetara triunfalari igo gaitean, an doatsu guciaquin batera zure oñ guciz santuay muñe-guiñaz secula gucien seculetan zure misericordiac canta ditzagun. Amen.

IX. en ITZALDIA,

eta Maria guciz santaren Asuncio edo ceruraco jasoera gloriaz betearen bigarrena.

1.º Ceruetara igotzean bere triunfoa.

2.º Gloria ceñ garay ta andian jarri zan.

Gauza bidezcoa litzaquela dirudi Elizac gure Ama maitearen ceruetaraco jasoeraren festegun andi onetan gu poztutzerá baño negar eguitera obeto mugueraci nay izatea, Ama laztanac bere presenci atseguingarriagabe uzten gaituala, icusita (1). Baña Eliza santac arrazoy dauca gu poztutzea nay izatean (2), ceren baldin gure Amari nay badiogu, bidezcoagoa dan bere gloriaz atseguinago izatea, gueron on eta pozaz baño. ¿Ceñ seme edo alaba, naiz biciro urruti egon, atseguin contentuz betetzen ezta bere ama erreinu baten jabe eguitera dijoala jaquiten badu? Ama gozo au ceruetaco Erreguin coroatua izatera dijoa gaur, eta ¿eztegu eguingo festa bere seme-alaboc, baldin ciñez nay badiogu? Poztu gaitean, bada, eta atseguin dezagun; eta bera añ goratua icusteaz artu bear degun atseguin-contentua andiagoa izan dedin, beguira ditzagun bi puntu oec:

1.ª Ceruetara igotzean bere triunfo guciz miragarri andia.

(1) Bernard. Serm. 4. de Ass. (2) Gaudeamus omnes etc.

2.º Tronu ceñ garay eta andian jarri zuten.

I.º PUNTUA.

Gure Salbatzalle Jesucristoc bere eriotz preciatuaz gure erospen edo erredencioaren lana bucatuic, ainguerúac bera bere Guizatasun santuarequin ceruan icusteco zalez eta egarriz ceuden, esaten ciozcatela ascotan Erregue profetaren itzac: *Jaiqui zaitte, Jauna, eta atoz cere atsedenlecura, zu, eta zure santutassinnac bertan arguieguiten duan cucha* (1); zure cucha santua, au da, Jaincoac bere barrumbe garbian biciaz santutu zuan cuch izan zan Ama guciz gozoa.

Cerutar gucien eresi ta deseoac beteaz guero ere Jaunac eraman nay izan zuan cerura bere Ama laz-tana; baña antziñaco demboretan testamentuco cucha pompa eta anditasun gucizcoaz eramatea nay izan zuan becela David-en mirra, aguindu zuan, anditasun aren azcarri zan beste areago, sonatuago eta gloriazgoago batez sar cedilla bere Ama maitea ceruco paraisoan. Azaldari sagraduac diote, ecen Elias profeta artuta berequin eraman zuan suzco gurdi hura etzala izan besteric, czpazan bera lurretic jaso zuten aingueru talde bat. Baña zu cerura eramateco eta zu laguntzeco etziran jachi cembait aingueru hanaca, baicic gloriaco Erreguea bera bere corteco guciaquin etorri zan (2).

(1) Ps. 431, (2) Rupertus Abbas, Bernardin. Senens.

Bere Ama guciz garbiaren aurretic edo bera baño len igo zan Jauna ceruetara, betico jauregui aytan berari jarlecua prestatzera ezecic, bere sarrera gloriazcoagoa izan cediñ ere, Jauna bera espiritu doatsu guciaquin lagun izanaz (1); eta onela Mariaren Asuncioa oraindic sonatuagoa izan zan Jesucristoren Ascencioa bera baño, alabaña Erredimitzallearen lagun bacarric ainguerúac etorri ciran; baña Ama guciz dichazcoa gloriaco Erreguea bera lagun zuala, eta Jaun onec ceruco santu eta aingueru guciaquin bere poz-eracutsi eta festac eguiñaz igo zan (2).

Jamác bere Ama guciz santari aguertu citzayonean bereala, esango ciozcan nosqui Escritura sagraduco itzac (3): *Atoz, ene adisquidea, ene usoa, ene ederra, atoz laster, atoz. Nequa iqaro zan, utzi zazu onezquero nere amorez aimbeste eramán dezun negarrezco bicilecua, eta atoz coroa jartzera. Atoz zure bicitza santuaren ordañ-saria gorputz ta animan artzera; atoz prestatua daucaquizudan gloriaren gozatzerá; atoz nere aldean esertzera; atoz ceru-lurrelaco Errequintzat coroa tua izatera.*

Dey eta gumbit añ amorezcoaz bere espiritua esan al baño poz-atseguñ andiangoaz bete, eta abiatzen da igotzen, lurra utzi, eta lurrari bertan artu cituan mesedeacgatic bere naitasuna eta dembora be-

(1) Anselm. de Exc Virg. c. 8. (2) Petr. Dam. Serm. de Ass. Guerr. Ab (3) Cant. 2.

rean aimbeste perill ta lan gogorren erdian uzten
citan semeacganaco erruquia eracutsiaz bazan ere.

Jesus-ec escutic darama, eta Ama guciz doatsuac
ebaquitzen ditu aiceac, igarotzen odehyac, trebesatzen
ceru-goyac, eta iristen da ceruco ateetara. Berequin
citan ainguerúac, ate ayetan, munduco deserritic
itzulita Jauna triunfalari sartu zaneco guisa esango
zuten ojuca: *Zabal itzatzute, principeac, ate o-
riec, eta jaiqui zaitzte betico ateac gloriaco*
Errequiña sar dedin. Bereala ciran aibat zabal
ate ayec eguin, eta ceruco bere errian bictoriotsu ta
garaile sartu zan, bera añ eder icusita ceruco es-
piritu ayec alcarri galdetuaz: *¿Ceñ da arantz eta*
sastraca-lecua dan deserri artatic datorren au?
¿Nor da bere maiteac eutsita añ horatuaz da-
carren creatura onen gurbi ta bertutez bete au?
Eta berarequin ciran ainguerúac eranzuten zuten:
Da gure Errequeren Ama, gure Errequiña,
andre gucien artean bedeicatuá, graciaz betea,
santuen santa, Jaincoaren maitea, manchaga-
bea, creatura gucien ederrena. Orduan guciac e-
man citzaizcan bera bedeicatzeari eta alabatzeari, he-
brea-tarrac Judit-i baño asco obeto cantatuaz: *Zu*
cera Jerusalem-en gloria, Israel-en pozgarria,
gure erriaren honra (1). ¡Oh Andre miragarria!
zu cera paraisoco gloria, uri santu artaco pozgarria,
bertan Diei diran gucien honra. Izan zaite milla bi-
der onguietorria; au da zure erreinua, eta gu gucioc

(1) Jud. 15. 10.

zue nay gucia eguiteco zure oñetan prest gagoz-
quitzun zure aguindupecoac.

Bereala urreratu eitzazcan bere onguietorria e-
guin, eta beren Erreguin eta Echeco andretzat bera
ezagutzera arteraño ceruan ciran santu guciae. Don-
cellae etorri, eta esan cioten: *Echecoandrea, gu-
gucioe emen Erreguin guera, baña zu gure Er-
reguin cera, ceren zu izan cinan doncellatasu-
naren tesoroa Jaincoari ofrendatzen beste inoro
baño len eracutsi ciniguna; eta ala bedeicatzen
zaitugu eta esquerrac dizquitugu.* Confesoreac
etorri, eta beren guia eta eracusleari becela agur e-
guin cioten, bere biciera santuaren arguiac bertute
gucien jardumbidea eracutsi cielaco. Martiriac etorri,
eta eguin cioten bere onguietorria beren capitan eta
ispillu biciari becela, ceren bere Seme guciz santua-
ren pasioan izan cituan naigabe pena eta doloreetan i-
zan zuan sendotasun eta iraupen miragarriac neque-
penac onez eramaten eracutsi cien, fedeagatic bicia e-
mateco indar eta iraupena irichiaz. Irichi zan arte-
raño apostoluetatic bera bacarric ceruan zan Santia-
go Nagusiena, eta Ama gozoac lurtean bicitu zan
demboran eman izan cien consuelo ta laguntzaren
esquerrac bere ta bere lagunen aldetic berari ema-
tera. Profetac etorri, eta beren profecietan aditzera
eman zuten Andre miragarriari becela beren agur ó-
nac eguin, eta aintzat ezagutu zuten. Patriarcac e-
torri, eta esan cioten: *Doncella guciz garbia, zu
izan cinan beti gure esperanza; zu gure eresi-
ta deseo gucien gaya.* Baña amore andiangoaz gu-

re lenengo guraso Adan ta Eva alderatu citzaizcan, esanaz: *Alaba maitea, zuec erremediatu dezu quec guere ondorengoay equin guinien galera; zuec biurtu diozu munduari quec guere culpaz galdu guinion bendicioa.* Guero san Simeon onetan muneguitera etorri, eta onec poz-atseguinez beteric gogoratu cion Aureho Jesus temploan bere escuetatic artu zuan eguna. San Zacarias eta santa Isabel etorri, eta eman ciozcaten berriro alaingo amore ta humiltasunaz berac icustera joan, eta eche gucia bedecaciaz bete cielaco esquerac. Poz-eracutsi oraindic andiagoc eguinaz san Juan Bautista etorri, eta bera bere amaren sabelean santificatzera joan nay izan zualaco esquer gozoc eman ciozean. Eta ¿cer esango cioten bere guraso san Joaquin eta santa Anac? ¿Nolaco amore ta biguntasunaz bedecatuco zuten, ciolsatela: *Alaba maitea, cer zorion ta dicha gurea zu becelaco alaba izatean! Orañ gure Erreguin eta Echeoandre cera, Jaincoaren Amaceralaco. Beraren Ama equiazcoa becela bedecatzen zaitugu* ¿Eta bere Esposo gozatsu san Joseren biotzeco naitasun eta poz eracutsiac nore esan? ¿Patriarca santuaren atseguin contentua nore pintata? bere Esposa adoratua triunfo añ garay eta aguricoan sartzen eta ceruelaco Erreguin eguiten icusitu? ¿Nolaco amoreaz, nolaco zoramen gozoaz esangocion: «Nere Echeoandre ta Esposa ¿nola eman al »neguiozcaque nic gure Jainco onari bere Ama o »guiazco zaituan orren esposotzat nere suerte añ o »nez esleitu nindualaco zor diozcadan esquerac? Zu-

»gatic merecitu nuan seme Jaincoa munduan serbitu
 »ta berari laguntzea; aur zala, bera aimbeste bider
 »nere besoetan iduquitzea, eta beste iñore ez bece-
 »laco beste milla mesede ta gracia iristea. Bedeica-
 »tuac izan bitez bera serbitzen, gozaten eta maitat-
 »zen eman nituan unecac, eta zu serbitzen eta be-
 »neratzen eman nituanac, ene Esposa laztana. Emen
 »dago gure Jabe guciz gozoa. Poztu gaitean bera
 »glori añ andian icusita, ez orañ lasrotan eratzanta,
 »ez arozteguian pobre ta despreciatua, ez hiltoki
 »lotsagarritic iñequita ezpada ceru-lurretaco Jaun
 »eta Erregue becela, Aitaren escuitic jarria. Aurre-
 »ronzean ezguera herriz apartatuco, eta emen egon-
 »go guera bere oñ guciz bedeicatuetan, beticoera
 »gucian berá amatu ta gozatuaz.»

Urreratu citzayozcan guero aingueru santuac be-
 rari agur ónac eguiñ, eta bera alabatzera, berac
 guciay esquérrac emanaz alaingo arretaz lurrean la-
 gundu ciotelaco, batez ere san Gabriel aingueruari,
 Jaincoaren icenez mundura eraman cion berri añ
 zorionecoagatic, bere Ama izatearen diñadira gorat-
 tua izan zanean.

Azquenic, Echeoandre humillác Magestade jain-
 cozcoaren aurrean auzpeztu, eta bere buruaren eza-
 güeran beeratu, eta eman ciozcan Jaunari artu citu-
 an on gucien esquérrac, eta guciáz gañ, Seme jain-
 cozcoaren Amatzat autu zualaco. ¿Nori beguitandu
 lizayoque nolaco amoreaz Trínidade guciz santuac
 bera bedeicatu zuan: eta Aitác alabari becela, Se-
 meac Amari becela eta Espiritu santuac bere Espo-

sari becela eguin cioten arrera? Aitác coroatu zuan al-izate edo escubidea bere escuetan ipiñiaz, Semeác jaquintasuna, Espiritu Santuac amorea, eta bere jarlecuá Jesucristoren Guizatasun guciz santuaren ondoan ipiñiaz, ceru-lurretaco Erreguintzat eman zuten, aintzat ezagutu eta serbi cezatela, eta béren Erreguiñari becela obedi ceguiotela, aingueru eta creatura guciay aguinduz.

Igaro gaitean orañ bera jarri zuten tronuaren anditasun ta goyendea beguiratzera.

II. en PUNTUA.

Baldiñ utsetic eguindaco adimentuc eciñ iguerri balezaque, Jaincoác bera lurrean amatzen dutenay ceruan prestatua daucaquien gloria cembaterañocoa dan ñore ezagutu al izango du guizon eta aingueru guciac bat jota baño gueyago bere sortzearen lenengo unetic berac amatu zuan Jaincoac bere Ama guciz santari gorde cion gloria? Izan zan ainguerúen coru guciac gora jasoá (1), bere tronua baño gorago Jaincoarena baño ez egonaz (2), bacarric berac coru bereci bat gucien garay eta andiena, eta Jaincoaren urrengoa eguiñaz. Ceren Echecoandrearequin bere serbitzarien artean eztagoan becela berdintasun antzic, Mariaren gloriarequin aingueru ta santuenare-

(1) In fest. Assumpt. (2) Gul Abb. Ser. 4. de Ass.

nean ere eztagoan (1). Ceruco Erreguiña da (2) eta Jaincoaren escui aldean jarria dago.

Nola bere lan edo obra onen merecimentua santu gucien lan ónen merecimentuay paregabe eraguiña baitan, béracgatic merecitu zuan gloria norañocoa dan azal dezaquean mingañie ezta (3); eta izanie gauza ciertoa Jaincoae merecimentuen erroldo edo erodura ematen duala ordañ saria, Maria ceruco beste andi guciac baño gorago saristatu eta jaso zuan, guizon eta aingueru guciac baño paregabe gueyago merecitu zualaco (4).

Itz batean, berac ceruan iriehi zuan gloria jaquin gogo luqueanac, neurtu beza lurrean merecitu zuan bestec ez becelaco gracia (5). Bere gloria da oso ta betea (6), gañeraco santuac gozaten dutena ez becela, bada ceruco erreinuan bici diran guciac paqueta atsegin contentu osoa badaucate ere, gauza ciertoa da, ecen baldin Jaungoicoa amatsagotu ta serbituagotu hazuten, andiago izango zala ordañ-saria; alabaña munduco bicitzan eguindaco becatuac, eta alperrie galdutaco demborac an penarie ematen ezpadute, añ guchi uca liteque gueizeo poz atseguña ematen dutela eguin zan on andiagoac, inoiz ere galdugabeco garbitasunac eta obeto emandaco demborac. Baña Ama guciz santac ez deseaten du, ezta ere desequizunic. ¡Santuetaco norc, Mariaz oste-

(1) Antonin. 4. p. tit. 15. c. 20. (2) Ps. 44. (3) Hdeph. Ses. 2. de Ass. (4) Thom. Lib. de Sol. Sanct. (5) Bernard (6) P. la Colomb, Pred. 28,

ronz, esan lezaque orañ: *Nic secular peccaturic ez nuan* (1)? Etzuan eguiñ peccaturic, ez utsequite chiquenic ero (2). Iñoiz ero etzuan galdu gracia; iñoiz ere etzuan alferric iduqui gracia. Etzuan eguiñ irabacigabeco lanic, añ guchi esan zuan Jaincoaren glori andiagora zucentzen etzan itzic, eta izan zuan burutacioric, eta artu zuan arnasic ero: bere centrorra becela Jaincoaganonz corrica joatez secular gueratu etzan. Naguitasunez secular bertutearen izpiric galdu etzuan; graciari beti bere indar guciaz eranzun cion; ama al cezaquean gucia Jaincoa beti amatu zuan, berari esan al izanaz orañ ceruan: *Jau-na, zuc mereri aibal amatu ezpacindudan, nere al eta indar guciaz amatu cindudan.*

Desberdiñac dira santu bacoitzac berezquiro izan dituan doay eta græciac, Apostoluac eracusten duan becela; eta eranzunaz bacoitzac Jaincoac ematen dionari, irteten da guciz garay ta señalatu bertuteren batean; au animac salbatzen, hura penitenciac eguiten, bestea martirioa eramaten, urrengoa gauza jaincocoyac beguiratu eta ausmartzen; eta onegatic bérretaco bacoitzagatic esaten du Eliza santac, etzuala izan bere antzecoric Jaincoaren leguea gordetzen. Apostoluac berezeatzen dira martiriacgandic, confesoreac birgiñacgandic, gaitzgabe edo garbiac penitenteacgandic. Baña Virgiña guciz santa ceruco gracia ta doay guciaz gañezteraño betea egon zan, eta bertute guciaz ecin gueyagoraño apaindua. Izan zan

(1) August. de Nat et grat. (2) Conc. Trid, Sess 6. c. 25.

apostoluen apostolu, martiriën Erreguiñ, birgiñen Capitana, ezeconduen ispillu bici, eta batu cituan beregan garbitasun osoa mortificacio osoarequin, eta gañeraco gracia, pribilegio, merecimentu eta bertute guciac santu guciëny eraguiten cien goyenengo mallan (1).

Eguzquiaren arguiac eraguiten dio ascoz izarrenari, eta Mariaren gloriae santuenari; edo obeto esateco, eguzquia irteten danean izarren arguia eser ez becela gordetzen dan eran, Mariaren gloriae illuntzen du aingueru eta santaen distiadura, ceruan ezpaleude becela (2); ceren oec Jaincoaren glorian cerbait parte dute; baña Maria neurrigabeco glori artzaz añ aberats dago, non creatura uts bat Jaincoarequin batuagotzea ecinquizuna dirudian (3), gañeraco doatsu guciac bat jota baño ezagüera, amore eta zoriontasun paregabe andiangoaz Jaincoa icusi ta gozatuaz (4), eta guciac beraren argui-errañu eta atsegin contentuetatic cerbait artuaz, bada gauza ciertoa da, ecen ceruan sartu zan lenengo unetic beraren icustearquin gueitu zuala an bici diranen zorion eta dicha (5), bada oen atsegin contentu andiena, Jaincoa icusteaz osteronz, creatura añ ederraren arpeguia beguiratzen esan al baño poz atsegiñ andiangoaz egotea da (6).

Poztu gaitëan Andre dichaz guciëz bete onequin

(1) Abbas de Calles (2) Petr. Dam. Serm. de Ass (3) Bernar Senens. tom. 1 Serm. 61 a. 2. c. 20 (4) Albert. Magn. de Laud. Virg. c. 69. (5) Bernardiu. Senen. S. rm. de Ass. (6) Petr. Dam. Serm. 1. de Nat. Bonavent.

batera jarlecu añ goratuan bera icusita, eta gueron buruay ere orobat milla poz eracutsi eguiñaz, lurrean bera icustez orañ gozaten ezpadegu ere, coruan Amaren naitasun eta amore gucia gordetzen digula, eta an Jaincoaren alderago dagoalaco, gure naigabeac obeto ezagutzen dituala, berezaz lasterrago cupitzen dala, eta ascoz errazago lagun dizaguqueala beguiratuta.

Bay, Virgiña guez biotz beraa, badaquit añ goratua zaudelaco etzerala aztu negarrezco bicilecu onetan erbestetuac gauden errucarri oezaz (1), ceren zurea beceñ biotz erruquitsu bat ecin legoquean gure miseria bezañ andiaz cupitugabe (2), amaren biotza dalaco, bada baldin emen amore añ samurraz nay izan bacigun, orañ asco gueyago nay digu (3).

Bitartean saya gaitean eguiñalguciaz bera serbitu eta amatzera, jaquiñaren gañean, ecen bera eztala cargac arindu bearrean comunquiro gueitzen ta pisutzen dituzten munduco aguinto eta escu andicoac becela, baicio eta beti aberasten dituala bere serbitzariac graciaz, merccimentuz eta coroaz berac beteaz (4). ¡O Ama guez urricaltia! eta bada Jaincoaren añ aldean utsetie eguindaco gucien Erreguintzat adoratua eta tronu añ garayan jarria icusten cera, barrundu zaite, eta atseguin contentuz gañeztu zaite ordu onean cere Eguillearen glorian;

(1) Petr. Dam Serm. 4. de Nat. Virg. (2) Id. (3) Bonav. Spec. c. 8. (4) Ric. a S. Laur. De Laud, Virg. lib. 6.

baña bial zayezu cere serbitzariay orrelaingo ugari-
tasun eta zorientasunaren señale bat. Jaincoaren
escuz jarria zaude. Guc, goscao eta bearrean gau-
denoc beccela, bicilecu illun eta dichagabe oneta-
tic zugana jasotzen ditugu gueron begulac, beguira
zaguzu begui erruquitsuaz (1).

EJEMPLOA.

Aita Silvano Razzic contatzen du (2), eeen Vir-
giña santac guciz nay cion apaiz jaincoco y hati
Virgiñaren edertasun miragarriaz itzeguiten adituta,
beñ bederic berá icusteco deseo iracequia eguiñ,
eta mesede señalatu onen esque ta esque cegoquiola.
Ama guciz erruquitsuac aingueru baten bidez gaz-
tigatu cion, icusico zuala bera, baldiñ itsu guerat-
zera jartzen bazan. Debotoa bereala artara jorri, eta
Virgiña santa orduan aguertu citzayon. Apaizac
beguietaco arguia oso ez galtzearren lenengotic be-
gui bacarraz beguiratu nay izan cion; bestea ichita;
baña laster alaingo edertasunaz choratuta ichia
ceucan beguia zabaltzera cijoala icusgarri hura gor-
de citzayon. Poz atseguiñ añ zoragarriagabe icusi
zanean, negarrari eman citzayon, eta naigabe andiac
artu zuan, ez beguiaren galeraz, ezpada begui biaz
beguiratu etziolaco, betico itsu gueratzeaz arduraren
arrazarie etzitzayon eran. Guciz suerte onecotzat e-

(1) Guerr Ab Serm 4. de Ass. Virg. (2) Lib 3 Milag de la Vir.

gongo naiz (cion) beguietaco arguia oso gaitzeaz, zu herriz icusteagatic, ó Ama guciz gozoa, ceren onela zugana ilsutuago gueratuco naizan. Izatez Ama guciz mailatsua ostera aguertu, eta nola secular inñori gaitzio eguiten ezpaitaquian, begui bietaco arguia oso quentzearen lecuan, len quendutaco bacarrecoa ostera biurtu cion, eta onela mesedea alde gucietara oso ta beteá izan zan.

ORACIOA.

Andre gloriáz guciz beteá, negarrezeo bicilecu onetatic biotza cerura jaso, eta humilquiro adoratzen zaitugu, orrelaingo anditasunezeo tronu orretara goratuaz Jaunác berác glori añ andiz bete cindualaco atseguin artuaz. Orañ ceru lurretaco Erreguinac becela triunfatzen dezunean ez arren aztu cere serbitzari beartsu eta inñoren laguntzagabe onezaz, baicie itzul itzatu onuntz cere begui erruquizeoac; eta al-baña iturriaren añ aldean zaude, erraz izango zatzu aimbeste ondasunetatic cerbait Jaicoagandic irichita guganatzea. Irichi zaguzu arren bicitz onetan zure serbitzari leyal eta fin izateco gracia, egunen batean igo gaiten ceruan zu bodeicatzero; eta onetaraco esquentzen gaitzatu oso gaur, ceru-lurretaco Erreguin Jaunác eguin eta jarri cinduan egun onetan. Ez gaituzu botaco cerogandic, cerea atseguin-contentu eta triunfo añ garayaren erdian ere beti gure Ama ceran. ¡Ama guciz gozoa, Ama guciz mai-

tagarria! Person asco dacusquitzu gaur zure oñetan lurreco ondasun esque, osasuna, ondasúnac, abuztu ona, auci bat irabaztea..... baña guc zure gogoeraco mesedeac escatzen dizquitzugu. Escatzen ditzugu humiltasuna, munduari ez itsastea, Jaunac gogo duan guciraco prest egotea, Jaincoaren beldurra, eriotz ona, belico salbacioa. Ea, Ama lastana, pecataritic justu eguin gaitzatu: milla ichuri beguietaco arguia ematea eta milla hill piztea baño zuretzat glori andiagocoa dan mirari au eguizu. Jaincoarequico gucia dezaquezuna cera, bere Ama cera, bere biotzeco maiteena cera, eta graciaz betea zaude. Princesa guoiz ederra, eztegu escatzen zu bicitz onetan icustea, bay ordea ceruan. Zuc irichi bear diguzu dieh au. Ala eguingo diguzulaco uste eta confianza osoan gaude. Amen.

MARIA GUCIZ SANTAREN BERTUTEAZ

San Agustiñec dio, eeen santuen amparo eta estalpea iristeco, beren antzeco izan bear guerala, ceren bèrelaco bacoitzac izan cituan bertute nagusietan beren antzeco guerala icusita, gueyago muguitzen diran gugatic erregutzera. Batez ere gure laguntzalleen andien eta ónena dan santu gucien Erreguñac anima bat Luciferren atzaparrelatic atera eta Jaincoarequin óngui ipiñi ondoan, anima libratu hura bere antzeco izatea escatzen du, ceren baldin az-

tagarria! Person asco dacusquitzu gaur zure oñetan lurreco ondasun esque, osasuna, ondasúnac, abuztu ona, auci bat irabaztea..... baña guc zure gogoeraco mesedeac escatzen dizquitzugu. Escatzen ditzugu humiltasuna, munduari ez itsastea, Jaunac gogo duan guciraco prest egotea, Jaincoaren beldurra, eriotz ona, belico salbacioa. Ea, Ama lastana, pecataritic justu eguin gaitzatu: milla ichuri beguietaco arguia ematea eta milla hill piztea baño zuretzat glori andiagocoa dan mirari au eguizu. Jaincoarequico gucia dezaquezuna cera, bere Ama cera, bere biotzeco maiteena cera, eta graciaz betea zaude. Princesa guoiz ederra, eztegu escatzen zu bicitz onetan icustea, bay ordea ceruan. Zuc irichi bear diguzu dieh au. Ala eguingo diguzulaco uste eta confianza osoan gaude. Amen.

MARIA GUCIZ SANTAREN BERTUTEAZ

San Agustiñec dio, eeen santuen amparo eta estalpea iristeco, beren antzeco izan bear guerala, ceren bèretao bacoitzac izan cituan bertute nagusietan beren antzeco guerala icusita, gueyago muguitzen diran gugatic erregutzera. Batez ere gure laguntzalleen andien eta ónena dan santu gucien Erreguñac anima bat Luciferren atzaparrelatic atera eta Jaincoarequin óngui ipiñi ondoan, anima libratu hura bere antzeco izatea escatzen du, ceren baldin az-

tura-oiuretan herá ezpadirudi, ez dan joango bere mesedez hura aberasten. Onegatic añ biciro nay die eta deitzen die zori onecoac bere oñatzay darraizten ayei (1). Añ guchi dago irudicantz edo imitacioa baño obsequio atseguin eta serbitzu bere gogocogorie (2), eciñ egon liteque ere inor Mariaren seme eguiazcoztat, herá bicitu zan eran bicitzera sayatugabe (3). Saya bedi, bada, seme dan semea Ama añ gozatsuaren antzeco izatera, baldin irichi nay baditu bere palagúac. Izan bedi berarequico seme on, eta herá izango zayo Ama on.

Orañ bere bertuteen gañean itzeguiñaz, Ebangelariac guchi utzi baciguten ere escribitua, asco da graciaz betea cegoala, berac segurutzea, guciac izan cituala, eta irichi al ditequean mallarie goy, oso eta beteenean alere, guc ezagutzeco, alatan non, santo Tomasec dion becela (4), izanie beste santuac bertute jaquiñen batean garayac, Maria guci gucietan izan zan, eta gucietan Jaincoac cristau fededunay beren ispillu bicitzat ipiñi cien (5). Eta nola Elizaco Guraso santuac, bertute gucien oñ edo cimendua humiltasuna dala, eraeusten baiduten, dacusen lembici ceñ andi ta miragarria izan zan Mariarena.

(1) Prov. 8 (2) Hier Serm. de Ass. (3) Bernard. (4) Opusc. 8. (5) Ambros. lib. 2. de Virg.

Mariaren humiltasuna.

Bertute gucien oñ, cimendu eta zaitzallea deitzen diote santuac humiltasunari (1), ceren beragabe animan bertateric eztagoan, eta guciac baleuzca ere, humiltasunac utsematen badio, guciac utsemango lioqueen, edo bertuteric baterregabe gucratuco litzaquean. Nola ta bestera, aimbesteraño maite du Jaincoac humiltasun santua, ecen non ere bera icusten duan, ara dijoa lasterea an bere atseguin contentua artzera (2). Jaincoaren Semea mundura baño len etzan ezagutzen emen bean bertute añ eder eta bearra; baño berá etorririe bere ejemplo edo eguiteaqnin bertute au eracustera, batez ere onetan bere antzeco gu izatea nay izan zuan, esaten cigula, *icas quentzala beragandic biotzez malso eta humill izaten*. Onen erara Maria bertute gucietan Jesucristoren icasleric ónena izanic, humiltasunean ere ala izan zan, eta creatura guciac baño gorago igotzea merecitu zuan (3). Oraindic aur zala, humiltasuna izan zan eguñalic andienaz gorde zuan bere lenengo bertute cutuna.

Orañ bertute añ preciatu onen era ascotaco jar-

(1) Bern. (2) Franc, Sales in vita B. J. Chant. 6. c. 2. § 11.

(3) Matild Revelat.

dumbideac señalatuaz, lenengoa da, humillác bere burua guchian iduquitzea, eta Mariac berea añ guchian iduqui zuan beti, non beste iñor baño obe edo gueyagotzat secular egon etzan. Bere illectaco batequin, esaten dio Esposoac Escritura sagraduco Cantetan, gozotoro eritu ciola biotza, eta gauza añ me eta etenerraza dan illecáz, Virgíña guciz onestac bere buruaz iduqui zuan humiltasun eta iritzi laburra aditzen dala, diote azaldariac: ez peccataria zalacoan cegoala, bada guciz ondo ezagutzen zuan, secular ofenditu etzuala Jaincoa, ceren humiltastua eguia bera dan, santa Teresac diou becela: ezta gañeraco creaturac baño gracia ta on gueyago Jaincoaren escutic artu cituala ezagutzen etzualaco ere, bada gauza ciertoa da, biotz humillác bere burua gneyago beeratzeco ezagutzen dituala Jaincoac egin diozcan mesede señalatuac; baicic eta bere adimentua aimesteraño arguitzen zuan ceruco arguitasun andi ugariac Jaincoaren Magestade ta ontasun neurri eta mugabaguea icusiaz, bere uts eta e-cereza ere icusten zualaco, orduan bere burua gueyago beeratu, eta Esposa sagraduarequin esanaz: *nolite me considerare quod fusca suis, quia decoloravit me sol* (1): Iruditzen zat beltza naizala, Jaincoagana alderatzen naizanean, edo berarequin berdindu nay naizanean. Araco urreztatutaco soñeco bat jazten dioten emacume beartsua arrotutzetic urruti, orduan humillagotzen dan becela bere on-

(1) Cant. 1. 6.

guillearen aurreran, bere ez izana orduan obeto gogoratuta; ala Maria, cembat aberatsago icusten zan, aibat humillago zan, gucia Jaunaren escutic doaric cetorquiola icusita. Etzan izan bada creatura goratuagoric, ceren secular izan etzan humillagoric (1).

Bertute onen beste eguitecoetatic bat da ceruco doayac gordean iduquitzea, eta ala icusten degu gorde nay izan ciola Mariac bere esposo santuari bere amatasun jaincozcoaren misterioa, misterio hura berari aguertzea gauza bearra zala bacirudian ere, beñic beñ bere garbitasunaren contra zañ charrac jo etzezan, bera aurdun icusita; patriarca santua bicaro nastu zuan gauza, batetic bere beguiac cecusana ecin dudatuz, eta bestetic doncella añ garbi ta maiteari culparic egozten ecin asmatuz, aimbesteraño, non baldin aingueru batec Jaincoaren aguinduz aguertu ezpalia misterio ezcutatu hura, bera utzi ta aldeguitera erabaquia cegoan.

Eguiac humillaren eguiteetaco beste bat da, ematen zaizcan alabanzac ez nay izatea, baicic eta guciac Jaincoaganatzca, Mariac eguin zuan becela, san Gabriel aingueruac eguin ciozcan laudario eta alabanzac adituta añ nastua gueratn zanean; nolata bere lengusu santa Isabel-ec aimbeste goratu zanean, andre guciac artean bedicatu eta Jaunaren itzay fede ematean zorionecoa deituaz, eta orduraco Jainco beraren Ama zalaric, bera icustera etortzeaz arrituaz. Gauza guci oen honra Jaincoari, eta ez bere buruari,

(1) Bernardin. tom, 2. Serm, 51. c. 5.

egotzi, edo eman cion *Magnificat* deritzan canta jaincozco arequin eranzunaz, arguiro esan balu be-
cela: *Isabel, zuc ni goratzen nazu; baña nic a-
labanza ta gloria bacarric berari zor zayozcan
Jauna alabatzen del; zu arritzen cera zugana ni
etortzeaz, eta ni nere espirituaz bere atsequin
contentua bacarric beragan daucan Jaincoaren
ontasunaz arritzen naiz; zuc fede omandedalaco
goratzen nazu, eta nic nere ecereza goratuaz
bequiratu nauan Jauna goratzen del.* ¡O humil-
tasun eguiazcoa, humiltasun guciz zorionecoa! Au-
izan zan Jaincoa ecarri ciguna, belico eriotzetic li-
bratu guinduna, eta cervac idiqui eizquiguna (1).

Humillac berenezcoa dute ere cernay serbitzu eta mesede eguitera, beren burúac esqueñtzea, eta o-
negatic Mariac, bere lengusua icustera joan, eta iru
illabetez bera serbitu, eta naitasun andiaz gazotero
tratatu zuan.

Billatzen ere dute beti azquen-lecua, araco Vir-
giña onec, san Mateoc contatzen duan becela. bere
Semeac predicatzen ciardun eche artan sartu nay i-
zan etzuanecan becela (2), nola ta Afalteguian azque-
neco jarlecua autu zuanean; eta ala san Lucas-ec i-
pintzen du bera azquenean (3), ez ceren Ebangela-
riac ezagutzen etzuan gañeracoac baño len Ama be-
cela bera icendatzea mercei zuala, ezpada ceren gu-
cien azquenen bera jarrita an ceuden beccla icen-
datzen dituan.

(1) August. Serm. 36. *de Sanctis.* (2) Cap 12. (3) Act. 1.

Gañera humillac beren buruen desprecioa nay dute, eta orregatic eztegu iracurten Salbatzallea palma ta olibaquin Jerusalem-en sartu zanean bere Ama berequin zuanic, bay ordea Calbarioan, non gaitzquille infame baten guisa biltzen cegoanaren Ama becela, nay edo ez bera ere belztua, iraindua, eta despreciatua gueratu bear zan (1).

Humiltasun añ arrigarriaren arrasto, señale edo antz-nñi bat Poligno-co Sor Paula beneragarriari Jaunac jaincozco cordegabetze batean ezagutzera eman cion, eta arc icusgarri hura bere confesoreari contatuaz, chundituac becela cion: *¡Ah, Aita, Virginiaren humiltasuna, Virginiaren humiltasuna! Bere humiltasunari cerbait ur eman lizayoqueanic munduan ezta.* Eta beste aldi batean Jaun berac ipiñi cion aurrean santa Brigidari, orañ esan degunaren guisaco beste icusgarri bat, eta zan Señora bi beguien aurrean jartzea, bata arrotasun eta farfullqueri andiaz jantzia, eta onec andiuste edo soberbia adirazten zuan; eta besteaz esan cion: becoqui macurtuarequin, begui modestitsuaquin, Jaincoa gogoan duala añ gozatsu, eta dembora berean bere burua ecertan eztaucala icusten dezun au humiltasuna da, eta deritza Maria; eta onequin adiraci nay izan cion Jaunac, ecen bere Ama maitea añ izan zala humilla, non humiltasuna hera bere personan ondo dey citzayoquean.

Ez al da izango gure griña macurrentzat bertute

(1) Birg. Revel

gaitzagoric (1), ordea eztago erremedioric: humill ez gueranceraño ez guera irichico Mariaren seme edo alaba eguiazco izatera. San Bernardoc dio: baldiñ eciñ izan bacera garbitasunean bere antzeco, izan zaite humiltasunean (2). Berac botatzen ditu beregandic soberbiotsu arroac eta deitzen ditu beregana humillac. Gu bere humiltasunaren mantopean gordetzea ta seguru jartzea nay du, eta an bildota dacusquianay biciro nay die (3). Jesusen Compañiaco Aita Martin Alberro-ri Valencian humiltasun ta mortificaciozco lanaquin Ama maiteari atseguin e-guitegatic basura biltzen ari zan garayan, agueru, ta esan cion: *Seme atseguin contentu andia eguiten didazu orrequin.*

Bada ondo, Ama maitea, sinistua guerutzen naiz humiltasungabe eztedala irichico secular zure seme izatearen dicha. Ordea nola Jaincoa ofenditu nuanez gueroz nere pecatuac soberbiotsu arro ere eguin bainauten, gaitz au zuc erremediatu bear didazu humiltasun santuaren bertutea niri irichiaz, onequin gueroenean ere zure semeetacoa izateco suete zori-onecoa merecitu dezadan.

II. en §.º

Jaincoarequico Mariaren amoreaz.

Non ere dan garbitasuna, an da amoreca (4). Cem-

(1) Greg Nis. (2) Hom. 1. sup. Miss. (3) Anselm. (4) Bernard.

bat biotz bat garbiago, eta beregandic erantziago, aimbat egongo da Jaincoaren amorez jantziago. Bada nola gure Amandre Virgîna aũ humill eta bere buruaz erantzi edo desitsatsia izan baizan, bera amore jaincozcoac oso jantzi edo bete zuan, eta ala guizon ta aingueru guciac baño gueyago Jaincoa amatu zuan (1), eta orregatic Sales-co san Franciscoc guciz egoqui deitu cion: *Amorearen Errequîna*. Jaincoac biotz guciac bera ama guentzala aguindu cigun, baña berá ceruan icusi dezaguneraño oso beteco eztegu aguindu au (2).

Beste aldera, nolerebait Jaincoaren zuentasunarequin ongui etzetorrena izango zan iñore oso bete edo eguingo etzuan legue bat guizonay ipintzea, guciz oso eta acatsiegabe legue hura gorde zuan bere Ama guciz santa creatu edo eguiñ ezpalu (3), bada amore jaincozcoac bere biotz guciz garbian oso zulotu, igarro eta beretu zuan, eta ala beti utsemangabe amatu zuan (4), esanaz eguia guciarequin: *Nere Maitea gucia neretzat da eta ni nere Maitearentzat* (5). Serafiñetarañoocoac cerutic jachi eta icasi cezaqucen Mariaren biotzetie Jauna amatzen (6).

Jauna amorearen sua munduan iciotzera etorri zan; baña beste bularretan etzuan alañ indar artu suac, nola bere Ama maitearenean, bada lurreco zale, gogo eta deseocatic aũ erantzia cegoana becela, beste i-

(1) Thom. 2. 2. q. 24. a. 6. 8. (2) Alb. Magn. super Miss. c. 76. Ricard. a S. Vict. 1. 2. de Em. c. 29. (3) Bern. Serm. 29 in Cant. (4) Cant. 2. 10. (5) Ricard. (6) Anselm ap. a. Lap.

ñor baño ascoz maneratuagoa ere cegoan sugar añ zori onecoan sututzeco. Bere biotz gozoa ondo dey eitequean sugarra, Cantetaco liburuan esaten dan becela: *Lampades ejus, lampades ignis atque flammaram*: barrunen gartutzen zan sua, eta campotic bertute gucien jardumbidez argui eguiten zuten gárrac (1).

Bere Seme guciz santua besoetan ceramanean ondo esan ceguioquean berari beste sua ceucan sua, escuan sua ceramala icusita. Hipocrates-ec emacume bategatic esan zuan beño ascoz obeto. Suac burnia barruntzen duan becela. Espiritu Santuaren suac Maria barrundu zuan, eta alaingo indar eta beroicequiaz, non amore jaincozcoaren sua ezipazan beste ecer beragan icusi etzan. Su cegoalaric erretzen etzan sasia, beraren irudia zan; eta san Juan-ec bera eguzquiaz jantzia icusteac esan nay zuan Jaincoarequin añ botua egon zala, non creatura baño eztan bat aimbesteraño irichi ecin ditequeala, dirudian (2). Seculan tentacioric izan etzuan, ariñic ere, ceren bere amorearen berotasun sutua urrutitic sentituta, ciran guciac igues cijoacen (3). Añ guchi izan zuan seculan Jaincoa beste burutacioric, beste deseoric, beste atseguin contenturic (4), eta ala bere anima bedeicatuac eguiten cituan amorezco acto edo eguintzac contu ta copurugabeac ciran edo ecin conta ci-

(1) Berm. Serm. in Sign. Magn. (2) Bonavet. tom 2 Serm. 51. a. 5. Ricad. p. 2. e. 26, in Cant. (3) Birg. Revel, (4) Tom. 2. in 3. p. D 18.

tezqueanac, Suarez-ec eracusten duanez, alde aldean beti Jaincoan eta bere gauzetan burua iduquiaz, edo obeto esateco, beti eta bizquitartegabe beargay onetan jardunaz, ceren aguila errealazan becela, animaco beguiac beti justiciaczco eguzquian josiac ceuzcan, añ sendo ta firme, non gorputz-lánae ere bere contemplacio garaya galerazten etzioten, ez onec ere gorputz-lánay beguiratzea (1). Eta orregatic legue zarrean propiciatorio edo mesede-lecua beraren irudi izan zan, nondic ez egumaz eta ez gauaz sua paltatzen zan.

Loac ere añ guchi galerazten cion amatzea, ceren baldiñ, san Agustiñec eracusten duanez gure lenengo gurasoay pecatutic garbi ceudenean pribilegio au eman bacitzayen, Mariari ori bera ueatu bear etzayo, eta onetan Aita Suarez-equin bat datoz beste cembait jaquintsu (2). Bere gorputzac atsedeten zuan garayan bere anima ernay regoan (3), eta beragan guertatzen zan Jaquintsuaren liburuan escribitzen dana: *Bere lampara gauaz itzalico eta* (4). Ez-tio galerazten loac Jaincoarequin itzeguitca, eta beste creatura arrazoidun inor esnaric seculan egon zan baño contemplacio gora ta osoagoan egotea (5). *Nil naço, eta nere biotza bellari daço*, esan cezaquean guciz ongui Cantetaco esposarequin (6). Añ zorionecoa lotan nola esna (7). Alatan non, mun-

(1) Rupert. Abb. Bernardin. Ambros (2) Ambros. lib. 3. de Virg. (3) Prov. 21. (4) Bernardin (5) Cant. 5. 2. (6) Suarez. (7) Bernardin. t. 2. Serm 51. art. 5. c. 5.

duan bicitu zan dembora gucian beti eta utsunegabe Jaincoa amatu zuan, begui jaincozcoay atseguingarrien citzayela ceritzan hura beti eguiñaz, eta bera amatu bear zuala ezagutzen zuan guci hura amatuaz (1). Itz batean, Jaincoaren amoreac alañ bera bete zuan, eta amore au aimesterañocoa izan zan, non creatura uts batean gueyago cabitzea ecinquizuna zan, eta ala irichi zan laster Jaincoaren beguietan añ eder eta atseguingarri izatera, non bere amoreac benzutu eta loturie, bere sabel guciz garbira jachi, eta bertan Guizon eguin zan (2). Au da, bere bertuteaz eritu, eta Jaunari biotza ostu cion doncella (3).

Orañ ondo, eta alabaña berac aimeste amaten du Jaincoa, beste ecer ez die leya gueyagoaz bere debotoay escatzen, nola ta berac ere beren indar eta eguiñ al guciaz Jaun au amatzea. Ala esan cion Joligno-co Angela Doatsuari comunio-egun batean. *Angela, nere Semeac bedeica zaitzola, eta zuc ama zazu bera al guciaz: eta santa Brigidari: Cerequin iduqui nay banazu, amatu bear dezu nere Semea.* Nola bere maitea Jaincoa baitan, gue ere Jaun au maite izatea escatzen du. Jaquintsu batte galdetzen du (4), ¿cergatic erregutzen zuan Esposac esan ceguiotela Esposoari berac ceñ maite zuan? ¿Berac etzequian au? ¿Llaga eguin zuanac berac etzuan izango llaga añ amorezcoaren berri? Erregutzen zuan, ez Jaunac, czpada guizonac jaquin ce-

(1) Thom. a Villan. Conc 4 in Nat. Dom. (2) Bernardin, t 2. Serm. 61 art. 2. c. 4 (3) Navarin. lib. 4. n. 306. (4) Bonavent.

zaten, herá eritua cegoan eran egotera gu ere saya guindecen. Beragatic su jaincozco au beragan icioa dagoan becela, herá honratzen duten eta beraganat-zera sayatzen diran guciay itsasten die sugar añ zalagarri au, guciac bere antzeco eguiñaz. Arrazoy beronegatic Sena-co santa Catalinac deitzen cion *portatrix ignem; sua daramana*. Azquenic, baldin sugarpreciatu au gueron biotzetan iciotzea nay badegu, aldera gatzaicean gueron Amari oracio ta erregu bigun iracequiaz.

¡O amorezco Erreguiña! creatura gucién maitagariena, gucién maitatuena eta gucién maitatiena, Salesco san Franciscoc esaten cizun becela, zuc, ene Ama, ceruco amorez erretzen beti egon ciñan orrec, indazu arren amore añ jaincozcoaren chingar bat berderic. Zuc eztay ayetan ardoa aitu citzayenean esposo ayecgatic escatu cenduan orrec escazazu gugatic, bada icusten dezu palta zagula Jaincoaren amore sagraduaren ardoa. Esaguiozu Jaunari onela: *Ezdau-cate amoreric*, eta irichi zaguzu cerorrec cere erregu indartsuaz amore au. Ama guciiz erruquitsua, zuc berari diozun amoreagatic erregu zayozu arren gugatic, mesede au irichi deguiguzuneraño.

III §.ª

Urcóacganaco Mariaren caridadeaz.

Mandamentu batean bertan ipiñi cigun Jaunac be-

ra amalzeco eta urcoa amalzeco eguin bear edo obligacioa (1), ceren, santo Tomas-ec eracusten duan becela, norc ere Jaincoa amatzen duan, Jaincoac amatzen duan guci hura amatzen duan. Genova-co santa Catalinac beñ batez ciotsan: *Jauna, urcoa amalzeca nay dezu zuc, eta nic zuzaz uteronz inor amatzen eciñ asmatu det; eta bere Magestade jaincozcoae eranzun cion: Ni amalzaz, nic amatzen dedan gucia amatzen dezu.*

Bada izan eta izango eztan becela Mariae aimbatean Jaincoa amatu duan inor, ezta izan ta izango berac aimbat urcoari nay dionie. Alapidec dio (2), Eseritura sagraduac dion litera edo coche preciatu, aberats, Salomon-ec eguindaco hura Virgüña guciz amorezco onen irudi bicia zala (3), ceren bere sabel garbia izan zan litera aberats, garbi eta ederra, non Jainco Guizondua bicitnaz, zan gucia, au da, bere Ama, beraganatzen ciran guciacganaco onguinay eta amore sutuz bete zuan, eta ala munduan bicitu zan dumbora gucian bertute onez añ betea egon zan, non inore escatzen etziolarie era gucietaco bear eta premia eztatzen cituan, ezta ayetan ongui eracutsi zuan becela. Baña ecertan ez bere caridadea añ iracequi ta onguillea, nola ta gure betico zorionagatic bere Seme guciz santua eriotzera ofrendatzean: alain nay izan cion munduari, non munduagatic bere Semea bera eman zuan, san Juan-ec Ait eternoaz dion becela.

(1) Joan 4. 21. (2) In Cant. 3. p. (3) Cant. 59.

Orañ ceruetan dichaz eta gloriaz betea icusten dala-
 laco ere etzayo izpirie aztu edo epeldu bere amore,
 baicic eta areagoa da orañ (1), berari escatzeco biotza
 jasotze utsarequin bestegabe, bere urricaltasunaren
 frutuac sentitugabe guerutzen dan inor ez izanaz.
 ¿Eta cer litzaque munduaz baldin gutzaz erregutzen
 ezpalu beti? Erruqui ta misericordiaren esperanza-
 ric ere gueratuco ezlitzaguque (2).

¿Zori onecoa, dio Mariae, nie ematen diozcedan
 ejemplo edo eracuste ta gatziguac artzera sayatu,
 eta caridadearen beargayac nigandic icasten dituana,
 beargay oce bere urcoarequin eguiteco! Eztago bere
 amore ta amparaa errazago guereganatzen digun e-
 cer no'a ta on eta onguille izatea (3). Ordu oro es-
 ten dagoquigula dirudi: *Izan zaitexte erruquitsu*
zuen Ama dan becela, eta dudagabe Jaincoac eta
 bere Amac eguingo dute misericordia gue eguiten
 degun eran (4). Nornay bearrecori eguiten diogun
 on edo mesede aren ordañ saria izango da betico glo-
 riaren jabetzea, bada Espiritu santuac apostoluaren
 aoz agindua dauca, ecen ala bicitz onetan nola bes-
 tean onguilleac izango dirala doatsu (5); izanaz be-
 arrecoay laguntzea, Jaincoari obari edo corrituan
 ematea, eta bera gure zordun eguitea becela (6).

Ama erruquizeoa, bada guciaquin dezu añ andia,
 ez arren aztu nere miseriaz. Guciac icusten zaude.
 Itzeguiozu nigatic Jaunari, escatzen diozun ecer u-

(1) Bonavent pec. c. 8. (2) Birg Revel. (3) Greg. Naz (4) Luc.
 6. 58 (5) 2. Timoth, 5. 5 (6) Chrysost.

catzen ezdizuta. Escaguiozu, ene Ama, eta irichi zadazu bera gauza guciaz gañetic, eta urcoa nere burua becela amatzeco gracia.

IV. en §.ª

Maria guciz santaren fedez.

Maria Virgüña guciz sagradua amorearen eta espezanzaren Ama dan becela, da fedearen Ama ere (1) ceren bere sinisteaz zucendu cituan Evac bere ez sinisteaz eguin eizquigun ondamendiac (2). Lenengo amac sugarrasta engañagarriari, Jaincoac esanaz contra fede eman ciolaco, cracarri cigun gañera eriotza; baña Mariac Jaincoaren aguinduz aingueruac esan ciozcan itzay fede eman ciolaco, bere garbitasunari ecertan acatsic eguingabe munduaren Salbatzallea beragandic jayoco zalaco berria ecarri cionean, ecarri cituan mundura osasuna eta bicitza (3), onequin gnizonay ceruco ateaq idiquiaz (4). Au izan zan Doncella guciz leyala, noren fede edo sinistearen bidez Adan eta bere ondore gucia salbatu ciran (5). Au Doncella jaquintsua, nori, sinistu zualaco, bere lengusu santa Isabel-ec deitu cion zorionecoa (6). Au Cristoren araguaia bere errayetan sortu zalaco baño Cristoren fedea artu zualaco dich andiagocoa (7).

(1) Eccl. 24. 24. (2) Iren. (3) Tertull. (4) August. (5) Ricard. (6) Luc. 1. 45. (7) August.

Aita Suarez-ec arrazoy indartsuaz aguertzen du. ecen Mariaren fede edo sinistea guizon eta aingueru gucienari eraguiña izan zala. Bere Seme jayo perria gambela batean icusten zuan, eta aur hura munduaren Eguillea zala, oso sinisten zuan. Herodes-en iguez icusten zuan, eta Erregueen Erreguea bera zalacoan seguru cegoan. Icusi zuan bera jayotzen, eta beticoa zala, sinistu zuan. Icusten zuan bear eta premian, eta ceru-hirren Jaun eta Jabea zala sinisten zuan; lastotan eratzana, eta gucia cezaqueana zala; aur zala ez itzeguiten, eta jaquintasun mugabaguetia zala; negarrez, eta ala ere santuen betico atseguin contentua zala. Icusi zuan, azquenic, lots eta tormentuen erdian hiltzen, eta icasleac fedean zalanzan cebiltzalaric, bera beti sendo ta firme bere Semea Jainco eguiazcotzat sinistean; beragatic diote cebaitec, au adirazten duala aste santuco candela bat iracequia uzteac (1), bada onen crara egozten diozca berari san Leon-ec Escritura sagraduco itz ayec: *Non extinguetur in nocte lucerna ejus,* eta Proberbioetaco beste testo aren gañean, non Jaunac dion, bacarric berac eta beste guizasemereren laguntzegabe bere pasio sagraduaren tolarea zampatuco zuala, santo Tomas-ec dio: *guizasemea esatea izan zala, Maria ez sartzearren, cenagan inoiz ere fedeac utseman etzuan.* Eguiaz andi, garay eta miragarria izan zan bertute au mugaldi artan, bada gañeraco guciac dudan ceudelaric, Mariac du-

(1) Antoniu.

datu etzuan (1). Orregatic merecitu zuan cristau fededun gucien argui eta guidari, eta fede eguiazcoaren Erreguin izatea (2). Fede añ garayaren mercedentuatagatic berari dagoquitzen dizca Eliza santac herageen dotriña gaizto gucien betico garaipen edo bictoria; eta begui edérrac, ceñtzuequin, esaten dan Escritura sagradueo Cantetan, Esposa santac eritu edo catibatu zuala bere Esposoaren biotza, Mariaren fede garbi eta bere Esposo jaincozcoaren beguiay añ zoragarria citzayena izan zan.

Izan gaitean, bada, bere antzeco bertute añ bearren onetan (3), eta ynola? Doay eta bertutea da fedea. Doaya danez, da Jaincoac animan isurtzen duan ceruco argui bat. Bertutea danez, dago bere jardumbidean, ceren sinistu bear degunaren ezeccio, eguin bear degunaren ere erregla edo guia bera dan. Onetan izan bear guera bere antzeco Oni esaten zayo fede bicia iduquitzea, bat sinistu duan eran bicitzeari (4) Onela bicitu zan Virgíña guciz santa. Sinisten duten becela eguiten ez dutenac ez dira onela bici, ceren fedea hilla daucaten, Santiagoc dion becela (5).

Diogenes guizon ascoren artean guizon baten billau cebillen, eta Jaincoac cristau fededunen artean cristau dan bat billatzen duala, dirudi; ceren batayoa artzen duten aimbeste guizonetatic eguiaz guchi diran izatez cristau edo cristau eguiazcoac. Icen ut-

(1) Albert. Magn. (2) Metod (3) Ildeph. (4) Gregor. Hebr. 10. 38 (5) Jacob 20 16.

sez crïstau diranay esan lizayequc beñgo batean Alejandro Alejandro ceritzan soldadu beldurti bati esan ciona: *edo ulzi zac icen ori, edo ulzi zac orelacoa izatea*; onelacoay oboto eman bear balitza-yequc ere eroen icena, (Aita Avilac esaten zuan becela), bada sinisten dutelari bicitz onen ondoren izango dala betico gloria ongui bicitzen danarentzat, eta azquengabeco infernu gaizqui bicitzen danarentzat, sinisten ezpalute becela bici dira. Izan bidez gure beguiac cristauen beguiac, au da san Agustinen consejua; esan nay da, icusi ditzagun gauzac fedea duanac becela, bada fedearen gabeaz eguiten dute pecatu guizonac, santa Teresac segurutzen zuan becela.

Esca diozagun gure Ama laztanari bere fedearen garaitasun eta merecimentuacgatic irichi deguigula gucioy fede bicia.

V. en §. 2

Maria Virgiñaren esperanzaz.

Fedetic sortzen da esperanza, ceren gure adimentuac fedearen arguiac arguitzea Jaincoac beste ecertaraco ezluan eguiten, ezpada bicitz onen ondoren beticoera gucian bera icusi eta gozatu uste eta nay izatera bizcor gaitean.

Eta bada Mariac, icusi degun becela, fede añ bici eta goimall'acoa izan zuan, fedea bezeñ gora igo zan

bere esperanza, erregue profetae baño obeito esan al izanaz: *bere on gucia Jaincoarequin batua egolean, eta bere uste eta esperanza beragan ipintzean cegoala* (1). Andre au izan zan Esposa guciz leyal hura, nortzaz Escritura sagraduco Cantetan esan zan: *Ceñ da atsequin contentuac darizquiola, bere maiteac eutsiaz deserritic gora datorren au* (2)², ceren deserritzat ceducan manduari oso desitsatsi, eta creaturetan, eta bere merimentuetan ere bere ustea ipiñigabe, baicie uste eta esperanza gucia Jaincoaren gracion ipiñiaz, puntutic puntura Jaunaren amorean igoaz cijoan.

Ondo eman zuan ezagutzera ceñ sendo sustraitua iduqui zuan bere esperanza Jaincoagan, araco bere esposo garbi eta maiteac bera aurdun icusten zualaco oso nastu ta larrituric, gueroenean beragandie aldeguiteco burutacioa artu zualacoaz oartu zanean. Gauza bearra cirudian, len esan degun becela, bere erray guciz garbietan eguindaco Encarnacio edo Seme Jaincoa Guizon eguitearen misterio ezcutatua guertaldi artan bere esposoari aguertzea; baña nay izan etzuan, eta bere burua Jaincoac eguiten zuancera oso utzi zuan, bere garbitasun eta honra Jaincoac gordeco citualaco uste eta confianza sendoaz.

Eman zuan ere ezagutzera bere esperanza sendoa, araco arguiteco ordu sagradua elduric, Belen-go ate guciac ichiac topatu, eta munduaren Salbatzallea arguitara emateco zulo edo estalpe zar batera bil-

(1) Ps. 72. 28. (2) Cant. 8. 5.

du bear izan zuanean. Etzuan erri aren gogorqueri añ negargarriaz esparic eracutsi; etzuan miñic agueru, etzuan españic idiqui; baicic eta bere burua Jaincoaren escuetan utzi, bere uste eta confianza gucia beragan ipiñi, eta larri eta bear-ordu artan lagunduco ciolacoan seguru egon zan.

Orobat eman zuan ezagutzera bere esperanza, san José eta aurrarequin Egiptora igues eguin cezala, aingueruác esan ta, bereala eta luzapengabe bide añ luceraco, erbeste urruli eta ezagutzen etzuaneraco, lagun gueyagogabe, diruric eta bideraco bear zutenicgabe gau artan bertan irten zanean.

Azquenic agueru zuan bere esperanza oraindic obeto bere Seme jaincozcoac eguin cituan mirarien lenengoa escatuaz eztayetan bere bitartecotza eguin zuanean, bada mesedea ucatzen ciola añ arguiro cirudian itz ayezaz Jaunác eranzun ciolaric, guciaz ere aguintzen die serbitzariay, eguin dezatela bere Semeac esaten diena, Jaunaren ontasunean uste osoa ipiñi, eta nay zuquean gracia irichico zualacoan seguru egonaz, ala guertatu zan becela.

Ieas dezagun, bada, bertute gucien ispillu bici, Andre miragarri onegandic, guertaldi gucietan Jaincoaren ontasunean uste eta confianza gucia iduqui bear degun becela, iduquitzen, eta asco gueyago gueroenean belico salbacioa irichico degulacoa, bada orretaraco escatzen badigu ere gueron aleguiñ eta ardura, baña salbacio au iristeco bear dan gracia bacarric bere ontasunagandic datorrela beti sinistuaz; eta beragatic, gueron indarras desconfiatu,

eta esan bear degu beñ eta berriz Apostoluarequiñ:
gucia dezaquel indartzen nauan organ (1).

Ene Ama, zuzaz Escritura sagraduan esaten zagu, esperanzaren Ama cerala, eta Elizac gore esperanza deitzen zaitu. ¡Nor besterie billatuco det nie? Zure Semearen urrena zugar ipintzen det nere esperanza gucia. Ezpañetatic erorico etzaizquit san Bernardon itzac, nere esperanzaren bide eta gay gucia cerala zuri esateco, ez gueratuco ere deadar eguitez san Buenaventurarequiñ: *Deitzen dizuten qucien osasuna, salba nazazu.*

VI. en §.ª

Mariaren garbitasunaz.

Adan pecatuan erori eta araguiaren grina maacurra arrazoyaren contra lotsagabeturic, etzagu eguiten beste berluteric añ gantz eta nequezco, nola ta garbitasun edo castidatea, alatan non, san Agustinec dion becela, bertute ouetan dira leyatuenac peleac, sarriagoac burricac, eta bacanagoac garaipen edo biotriac (2). Baña bedecatus ta goratus izan bedi bertute añ preciatuaren ispillu bici beguiragarria Maria Virginagan eman cigun Jaunaren urricaltasuna, Virginen Virginea da, eta guciz egoqui icendatzen da, ceren bera izanic inoren consejugabe, beste

(1) Phil. 4. 15. (2) Duriora praelia, rara victoria.

Virgiña iñor eguiten aurretic icusigabe, beste iñore baño len bere garbitasun ederra Jaincoari ofrendatu ciona, bera izan zan gueroz, bere antzera garbi eta loigabe gordetzen diran gucien Virgiña (1), eta onela bete zan David-ee aldeaurrez esau zuana, au da, *bere ondoren joango cirala Jaincoaren templo-ra gañeraco doncellac* (2). Iñoren consejugabe, aurretic, heste virgiña iñor eguiten aurretic icusigabe, diot osterá, eta orregatic galdetzen cion san Bernardoc: *Doncella quez garbia, ñore eraculsi cizun cere garbitasunaz Jaincoari atsequiñ equiñ eta lurrean aingueruac becela bicitzen* (3)? *Iñore ere, ezpada Jaincoac*. Jaincoac Doncella añ garbia esleitu zuan Amatzat, gucioy garbitasunaren ispillu bici eta garbitasunaren banderadun, eta guidari izan ceguiquigun (4).

Orregatic Espiritu Santuac deitu cion (5) *usator-tola becela ederra*, eta beste leeu batean *arantzen artean lirioa*. Arantzen artean, cereñ jaquintsu batec dion becela, gañeraco virgiñac bérentzat edo besteentzat arantzac diran (6), baña Erreguiñ andi au ez beretzat eta ez besterentzat izan zan arantz secular, baicic eta, bera icuste utsez beguiratzen ciolen gucietan gogoracio garbi eta honestoac isurtzen cituan (7). San Geronimo aita san Joséc, bere bici gucian bere Esposa guciz santarequin bicitzeari zor ciolacoan cegoan, bere bici guciao garbi

(1) Albert Magn. Mar. p. 9. (2) Ps. 45. (3) Hom. 4. super Miss. (4) Signum virginittatis extulit. (5) Cant. 1 9 (6) Dion. Cartus (7) Id. Thom.

gordetzea, bada Elvidio heregearen contra escribituaz, dio onela: *Zuc badezu Mariac bere garbitasuna gorde etzuala esateco ausardia, eta nic diot eta esango det Mariagatic izan zala garbi san José* (1). Beste jaquintsuac iristen dira segurutzeraño, ecen añ maite zuala bertute gucz preciatu au, non bera ez galtzarren utzico zuquean Jaincoaren Ama izatearen honra paregabea bera; eta au ezagutzen dala dirudi aingueruari eman cion eran-zueratic, esan cionean: *¿Nola equin bear da au, baldin nic ezagutzen ezpadet quizasemic?* eta bay orduraco seguru jarriric, guero esan zuanetic ere: *equin bedi nigan zuc diozuna, ta diozun becela*, adiraciez ematen zuala Ama izateco bere baimena bacarric Espiritu Santuaren lanez.

San Ambrosioren esana da, garbitasuna gordetzen duten persónac aingueruac eta galtzen dutenac demonioac dirala, bada garbiac Jaincoaren aingueruen antzeco izango cirala, esan zuala Jaunac. San Remigioac segurutzen zuan, infemuratzen diran persona elduen gueyenac garbitasunaren contraco griña macur lizun onegatic condenatzen dirala. Izatez ere guchic ateratzen dute baza beraren contra, baña ¿cergatic, ezpada bera escuratzeco bear diran neurriac artzen ezdiralaco? Iru neurri ta bide señalatzen dituzte Belarminorequin bicitza jaincocoyaren maisuac, *baraua, perilletic igues equitea eta oracioa*, barruan sartuaz mortificacioa, eta batez ere

(1) Joseph virginem fuisse per Mariam.

beguiac gordetzea, eta jan-edaneraco zale cragabea hilleraztea.

Virgiña guciz santac, graciaz betea cegoalaric, bere sentierac, eta batez ere beguiac, añ mugabarruan ceduzcan, non guizonen arpeguira secular beguiratu etzuan, san Epifanioc eta san Joan Damascenoc segurutzen duten becela, izanaz aur zanetic bere modestia guciac arritzerañocoa. San Lucasec dio, bere lengusu Isabel icustera lasterca joan zala, bidean guchiago beguiratu ceguioten nosqui. Bere jatearen gañean jaquintsu batec segurutzen du (1), ecen eremutar batec ceruco arguiac jaquin zuala, etziola artzen egunean beñ baicic bularra bere Ama santa Anari. Turon-go san Gregorioc dio, bere hici gucian eguin zuala barau; eta san Buenaventura lemplanza añ miragarriaren bertuteagabe Jaunaren beguiay eder etsico etzitzatelacoan seguru cegoan. Itz batean, gucian añ mortificatua izan zan beti, non mirra mortificacioaren señaera dalaco, esan zan Virgiña onezaz escritura sagraduco Cantetan: *Nere escuay mirra jarrio citzayen* (2).

Bigarren neurriari, au da, perilletatic igues eguiteari dagoquionez, Proverbioetaco liburuan esaten zagu (3), *lazoay aldequiten diena libre queratuco dala*. Griña ta gura loy macúrrequico guer-ran sosegutsuac irtelen dira bazarequin, esaten zuan san Felipe Neric, au da, galbide ta derechac billatzen ez dituztenac. Maria arretarie andienaz gordet-

(1) Filiberto (2) Cant. 5. 5. (3) Prov 21. 14.

zen zan guizónen beguetatic, eta bere lengusu santa Isabel-en aurquitea ichedongabe, cembait jaquintsuren iritzian, itzuli zan Nazaret-era aurchu Juan-en jayotzaz béren poz-eracutsiac eguitera nolanaiere joango ciran aimeste genderen itzqueta eta iscambillaren artean bera ez arquiteagatic.

Irugarren neurria da oracioa, ceren Jaquintsuac dion: *Ezagaturic ecin izango nintzala garbi, Jaincoac bere gracia emangabe, beraganatu nitzan eta erregutu nion* (1). Eta Virginia guciz sagraduac, beste lecu batean eracusten digun becela, san Benitoren erligioco santa Isabel-i aguertu cion: *berac ere etzuala izan bertuleric neque eta oracioagabe*. Baña oraciora bideguiten duten guciac irtego dira bazarequin peleatic, seme baten uste eta confianzaz Ama maitearen icena deituaz, bada Aita Juan Avila Beneragarriac segurutzen zuan, baccarie bere Sortze manchagabeaganaco jayera ta debocioa asco izan zala person asco tentacio loyetatic biotoriarequin irteleco.

¡O Maria, uso garbi ta tolescabea! ¡Cembat zorigaitzoco grina macur onegatic betico sugarretan quiscaltzen dauden! Libra gaitzatzu gu, Ama, maitea, béretatic, perill eta tentañietan beti zugana bideguin, eta zure bitartez beti garaitzeco gracia irichiaz. Amen.

(1) Prov. 21. 14.

Mariaren ez-izan eta pobrezaren gañean.

Beartsu izan zan, berác naita, munduan gure Erosle amorezcoa, munduco ondasunac utsean idu-quitzen guri eracusteagatic, eta beartsu izan citeccella bere oñátzay jarraitu bearco cien guciay esaten cien (1), nortzuen artean aldeen ta ondoen ibilli citzayona izan zan Maria. Bere gurasoacgandic cituan gauzaquin mundu onctan eraz bici citequean; baña gucia, beretzat guciz ecer guchi artuta, elizari eta bearrecoay eman cien (2), eta oraindic, batzuec diote, pobreza gordetzeco promes eguin zuala (3). Iru Erregueen ofrendac etziran izango nosqui labor et balio guchicoac; baña oec ere bearrecoen escuetan gueratu ciran, eta ala dirudi bere eliz-sartzeco egunean elizara, ez aberátsay cegoquien becelaco ofrenda, au da, arcume bat, ezpada, beste pobreac beccella, usacume edo usatortola bi eramateac. Alatan non, bere soñeco eta janari urri bat ezpazan, mundu onelaco beste ecer etzuan (4). Pobrezaren amorez artu zuan senartzat guizon bearguille bat, onec bere escu-lanaz, eta berác josiaz eta irunaz béren burúac

(1) 2- Cor. 8. 9. Matth. 15. 21. (2) Canisius. Apud. Paravic. p. 2. c. 2. (3) Birgit. Revel. lib. 1. c. 10 (4) Birgit. Revel. lib 1. c. 10.

mantenduaz (1). Azquenic, beartsu bicitu eta beartsu hill zan, alabaña bere eriotzeco orduan berari lagundu cioten bi emacumeri bi soñeco beste ecer utzi zuanic eztaquigu (2).

Lurreco ondasunac maite dituan iñor santu izango ezta, esaten zuan san Felipe Neric; eta santa Teresac gañera cion: *ascotan sayatzen dala iñor diruz infernua beretzera, eta diruz erosten dirala betico su eta pena* (3); eta bestera bere buruaz segurutzen zuan, ecen ez izanarequin munduco ondasun gucién jabe zala iruditzen citzayola (4).

Baña beguiratu bear da, ecen bertute au eztagoala bacarric pobrezan egotean, ezpada nore-berac naita popre izatean (5). Doatsu espirituz bearreco diranac, ceren berena dan ceruetaco erreinua (6). Dich andico eta doatsu, ceren bacarric Jaincoa billatuaz Jaincoagan ondasun guciac arquituco dituzten, eta lurrean ere paraisoa, san Franciscoc arquite zuan becela, nore esaten zuan: *ene Jaincoa eta ene gauza guciac*.

Maite dezagun guc ere gauza guciac beregan danden ondasun hura (7), eta esca zayogun Loyolaco san Ignaciorequin: *indazu, Jauna, zure amoretia gracia, eta aberats izango nritz*; eta baldiñ iñoiz edo berriz sentieraguiten badizquigu pobreza santuaren ondoreac, poztu gaitcan Jesus eta Maria

(1) Bonavent. (2) Metaph et Nicephor (3) Bere escuz escribitutaco bicitzan. 20 garren buruaren azquenean. (4) Vicitza, 55 garren burua. (5) Bernard. (6) Matth. 5 5. (7) August-

gu baño len pobre izan cirala jaquiñic (1).

Ene Ama, Ama guciz santa, zuc cere atseguin-
contentu gucia bacarric Jaincoagan cegoala, esan
cenduan orrec (2), ceren mundu onetan ecer nay
izan etzenduan, eta eceren billan ibilli etziñan, ez-
pada bacarric Jaincoaren billan, ni munduagandic
desitsatsi, eta eraman nazazu ceregana, ó Erregui-
ña, nic ere bacarric bera amatzearen diña dan on-
dasun bacar hura zure bitartez gauza guciaz gañetic
amatzeo dicha izan dezadan. Amen.

VIII en §.º

Mariaren obedienciaz.

Jaincoaren Semea araguz jaztearen misterio gor-
dea aingueruac aditzera eman cionean Doncella gu-
ciz sagraduac itz añ humill ayec: *ona emen Jau-
naren serbitzaria*, esatea, bertuteari cion gucizeo
amoretic jayo zan; bada ez eguitez eta ez gogoaz
contraric eguiñ cion seculan Jaincoac nay eta era-
baquitzen zuan eceri serbitzari leyalac, baicic eta
bere nay eta gogotic beti desitsatsi, eta gucian Jain-
coac nay zuanera oso jarria egon zan (3). Ala aguer-
tu zuan bere Cantan, esan zuanean: *ecin gueyago-
rañoco atsequin contentuz beguiratu zuala Jain-*

(1) Bonav. de Vita Christi (2) Exultavit spiritus meus in Deo
salutari meo, (3) Thom. a Villan. Conc. de Annunt,

coac bere serbitzariaren humiltasun eta eccereza; ceren serbitzari baten humiltasuna bere Jaunac aguintzen diona dembora ta garay gucietan obeditzean dagoan.

Lenengo amac eguin zuan galera Mariac bere obedienciaz erremediatu zuan (1), eta obedienci au santu gucienari eraguiña izan zan, ceren nola jatorrizco pecatuaren ondore tristectaco bategatic guizónac gaitzera añ macurtuac baitauden, sentitzen dute neque eta aldapa ez guchi onguiaren eguitean; baña gure jatorri galdutic libre gueratu zan Mariac, oso ta ecin obeto obeditzeco neque, aldapa ta beattoparic arqutu etzuan (2); eta oraindic bere nay edo borondatea Jaincoaren arguitasunac eracusten cion cernay gauzatar ariñ ta laster muguitzen zan curpill ariñ bat becela izan zan; eta ala munduan bicitu zan dembora gucian bere eguiteco eta arreta gucia Jaincoaren gogoco zala ezagutzen zuan gucia beguiratu eta eguilea izan zan (3). Mariac esan zan Cantetan: *Nere maiteac itzeguin zuan beceñ laster nere anima urtu zan;* bada bere anima gaitzgabeta garbia izan zan caridadearen berotasunaz urtula Jaincoac bere escuz eman nay izan ciozcan era, molde, manera eta ichura gucietara erraz jartzen zan metal bat becela (4).

Ongui aguertu zuan obedienci ceñ garay eta las-

(1) Augus. ap. Parav. p. 2. c. 11. (2) Id. tom. 3. Serm. 11. n. 5. c. 2. (3) Id. tom. 2. Serm. 44. n. 3. c. 2. (4) Ricard. in Cant. 4.

terra zuan, lembici, Cesar Augustoren aguindua e-
guitico Nazaret-ic oguey ta amar ta gueyago legua
ceuden Beleneraco añ laster ta luzapengabe aurgui-
teco egunetan, eta munduaren Salbatzallea arguitara
emateco abereen echola zar bat billatu bear izatera-
ñoco azqueneco pobrezan irten zanean.

Guciz zucenquiro obeditu zuan san Joséc aipatu
orduco Egiptoraco iguesian hibe luce, latz gogórray
eman citzayonean ere: eta bidaje au guizonari, eta
ez bere esposa santari, aguindu bacitzayon, izan zan
obeditzera noiznay añ prest cegoan esposac becela,
obeditzeco derech añ on au galdu etzezan (1).

Baña batez ere aguertu zuan bertute au, eta guciz
gañ gañcoea alere, araco Jaincoaren nayera oso ta
guciro jartzeagatic, bere Semea berá eriotzera ofren-
datu zuanean, baña añ ciñez ta benaz, non, Jaincoac
ala aguindu balu, santu batec dionez (2), beste bor-
reroric ez egotera, berá bere Semea hiltzetic atze-
ratuco etzan. Onela izan zan zori onecoagoa Jain-
coaren itzac enzun eta gorde citualaco, bere Ama i-
zatearen diñadiagatic baño, Jaunác berác aditzera e-
man zuan becela, egun batez Jaun bera predicatzen
aditu zualaco, bera erabilli zuan sabela, eta berác
artu zuan bular guciz garbia emacume batec aimes-
te alabatu cituanean.

Emendic dator, bertute onetara eguiten diranae
Mariari añ gogoco izatea. Beñ batez san Franciscoren
ordenaco erligioso Acorso ceritzan bati Ama maite

(1) Silveira (2) Hldeph. ap Petav p. 2. c. 12.

an aguertu, eta une berean hiltzen cegoan bat confesatzera deitu zutelaco celda eta ceruco bisita zoragarri hura bereala utzi cituan; baña ostera itzuli zanean beraren beguira cogoquion Ama gozoa an arqutu, eta obedienci añ lasterra biciro alabatu cion; bere debocioac oso eguiteagatic ezquillearen lenengo joaldian bazcaritara joan etzan beste erligioso bati itz zorrotz aserreac esan ciozcan beccla (1). Eta beste batean santa Brigidari esan cion: *obedienciae guciac salbatzen ditu* (2), ceren gauza ciertoa dan, ecen obeditzeagatic eguiten degun eceren conturic Jaincoac escatuco eztigula, berac esana iduquiric, burnagoari aditzen dionac, berari aditzen diola (3). Azquenic santa berari aguertu cion, ecen bertute onen merecimentuagatic eman ciola Jaunac bere Amari, beren pecatuaz damaturic Ama maite onegana bideguiten duten pecatari guciac misericordia arqutu, eta barcacioa irichico dutelaco pribilegioa.

O gure Erreguiña ta Ama, erregu zayozu Jestusi, gu pecatari gajo oegatic, zure obediencia guciac garayaren merecimentuagatic, guc ere Jaincoaren borondate santuari eta gueron aita espiritualaren conseju eta oarpideay obeditzeco gracia irichiaz.

(1) March Diario de la Virg. (2) Revel. 1, 6, c. 11. (3) Luc 10. 16.

Mariaren eraman edo pacienciaz.

Lur au izanic merecitzeco señaipendua dagoan le-
cua, guciz egoqui ematen zayo negarrezco bicile-
cuaren icena, ceren sufritzeco eta pacienciarequin
sufrituaz gueron animac betico bicitzaraco irabazteco
emen bici gueran, gure Erosle eta Maisu Jaincozcoac
eracutsia utzi cigun becela (1). Eman cigun onetara-
co bere Ama guciz santa, bertute gucien, baña ba-
tez ere pacienciarenen ispillu bicitzat. Bear bada Ca-
nango eztat ayetan escatu cion mirari hura lenen-
gotie ucatzea, bere Ama guciz maitearen eraman
edo paciencian eracuste edo ejemplo guciz señaletu
bat gure beguientan ipintzeco izan zan, guc aren ant-
zera eguin guentzan. Bere bici gucian eman cion
bertute onec betico jardumbidea, ceren baldin arantz
artean acitzen bada arrosa, naigabe-penen artean ci-
joan aciaz ceruco Andre miragarri au (2), eta Erosle
jaincozcoaren dolore miñac ematen cioten erruquia,
beste naigaberie eraman ezpalu ere, bacarric au as-
co ta gueyegui izango zan pacienciarenen martiri berá
izateco, irichiaz san Buenaventura esatera, Gurut-
zeficatuari gurutzeficatuá gueratu zala aurdun (1).

(1) Luc. 21. 19. (2) Birg. Rev. Serm. Ang c 10. (3) Crucifixa
crucifixum. concepit.

Cembat eta ceñ andíac bere eramanquizunac izan ciran, nola Egiptoraco bere iguesian, eta ango egoceran, ala Jaunarequin Nazaret-en bicitu zan dembora gucian, aurrerago bere doloreen misterioetan esan degu. Baña iraupen lura, ceñaz agoniaco iru ordu gogor ayetan gurutzearen oñean iraun zuan, asco da bere eraman edo pacienciaren garaitasun miragarria ezagutzeco, beragatic guizon guciē Amaren icen eta guciēn gañeco escua merecitu zuanean (2).

Bada bere seme-alaba izatearen suerte zorionecoa ecertan badaucagu, pacienciaren bertutean gueron Amaren antzeco izan bear guera, eta oraindic gueyago, jaquiñic eztala emen merecimentuetan aciagotu gaitzaquean, eta an gloriaco ordañ-sari eta coroa andiagoo eman dizaguquean beste ecer, nola bicitz onetaco ezbear eta neque-pénac onez eramatea (3). Esleituen bidea arantzez betea dago (4). Baña nola mastia aranzazco esiac ingurutu eta gordetzen baituan, ala Jaincoác naigabe, neque ta penaz ingurutzen ditu bere serbitzari guciac, lurreco gaurcetaraco gogo, zalc ta deseo guciētatīc libre ta urutiagotnac iduquitzeco. Añ eguia da au, non san Cipriano esateratu zan, paciencia dala peccatūc eta infernutic libratzen gaituana. ¡Cer miresteco da baldiñ onec santuac eguin eta bertutearen erpiñeraño igotzen baditu! ¡Nola? Jaunac artez bialtzen dizten gurutzecac, nola cre diran gaitz-aldi, ez izan eta besteac aren escutic datocenac becela, eta guizónen aldetic

(1) Albert, Magn. (2) S. Ciprian (3) Oseas 10. 2. 6.

datozquienac, noia diran, irañ, bidegabe, persecucio ta gañeracoac onez eramana. San Juan-ec santu guciac escuetan palmaquin (martirioaren señalear) icusi cituan, eta onequin aditzera eman zuan, salbatu bear diran persona arrazoyaren ezagüerara irichitaco guciac odolezco edo pacienciazco martiri izan bear dirala.

Animo, bada, deadar eguiten du san Gregorior; alabaña izan guindezque martiri burnitic edo odoletic igarogabe, bacarric eraman oneco izanaz, edo obeto, san Bernardoc azaltzen duan becela (1), bicitz onetaco neque-pénac onez, eta oraindie pomez ere eramana. ¡Ordañ-sari ceñ andi eta betea dagoquigun beguira ceruan, baldiñ onela eguiten badegu! Onembeste bat ondasun irabaztera saya gaitela, esaten digu Apostoluac, segnrutuaz, ecen emen puntu beteco naigabe-pénac an gloriaczco pisu eta neurri bete eta beticoa ematen duala (2). Espiritu eta eguia andiaz esan zuan bada santa Teresa gloriatsuae: *Gurutzeari lastantzen zayonac, eztu sentitzen gurutzeric. Eta beste lecu batean: Padecitzera eguiñ ezquero, joaten da pena. Eta noizbait gurutzeac bere astuntasun andiaz macurtzen gaituala, iruditzen bazagu, bideguin zagon naigabetuen consolatzalle eta gaitz gucien sendagarria dan Mariagana (3).*

Andre guciz gozoa, zue cere angustia eta dolore-

(1) Patienter, libenter, gaudenter. (2) 2. Cor, 3. 17. (3) La Iglesia Damasc.

ac paciencia miragarriaz eramanie, nie, nere peci-
 tuacgatic milla bider infernaa merecitu dedan onec
 ;pena ta naigaberie batere sufritu nay beareo ezdet?
 Éne Ama, gaurguero ez dizut eseatuco quen degui-
 dazula nere sorbaldetatic gurutzca, ezpada irichi de-
 guidazula cristauaren pacienciaz bera eramateco
 gracia. Irichi zadazu arren, Ama maitea, pacienci
 au, Jesusen amarez. Ala eguingo didazulaco uste
 oso betean nago.

X. en §.ª

Mariaren oracioaz.

Seculan lurrean izan etzan Virginiac beceñ ondo
 eta utsunegabe eguiñ edo bete zuanic gure Salbat-
 zallearen eracutsi guciz bear hura: *Gauza bearra
 da beti oracio equitea, eta oracioan ez epelt-
 zea eta biotza erortea* (1). Ecin arguentzaque ere
 beste inorgandic, Mariagandic becela oracioan irau-
 tea ceñ bearra zagun eracusten digun ispillu biciric
 (2), bada bertute santu onen jardueran ere Ama
 guciz garbia izan zan, bere Semearen urrena, creatu-
 ra guciay eraguña, eta gucien garayena (3). Lenen-
 go, ceren bere oracioa beticoa, eta utsunegabe beti
 cirauna izan zan. Bere sortzearen lenengo unetic ar-

(1) Luc. 4. (2) Bonavent. Spec. c. 4. (3) Alb. Magn. sup Mis.
 80.

razoyaren ezagüera eta uso oso beteá iduquiric, bere jayotzearen gañeco itzaldian esan guenduan becela, berealatic abiatu zan oracio eguiten. Beste cergaticacoen artean oraciora gueyago emateagatic sartu nay izan zuan bere burua temploco ichian, iru urteco aurra zalaric, non berotasun andiaz egunaz oracio eguiteaz gañera, jaiquitzen zan gauerdian ere alda-rearen aurrean oracio eguitera (1). Eta bere Seme guciz santuaren pasioaz gueroz pasio au gogoan o-beto iduqui eta frutu andiagooz meditatze-co, joaten zan sarri Jauná jayo zan, onec aimbeste tormentu igaro cituan eta hill eta obian sartu zuten lecuetan bere egonaldiac eguitera (2).

Bigarren lecuán bere oracioa izan zan ecere gal-lerazten etziona beti arret andicoa, eta gogoracio ta burutacio eragabeco arinetatic ere libre cegoana (3). Onegatic zuan añ maite bacar-lecua, eta onegatic etzuan nay temploan bere gurasoquico tratabideric ere, añ santuac ciralaric (4). Eta emen oartzen da san Geronimo Isaias-en itz: *ecce virgo concipiet* oen gañean, bada texto artan itz *virgo* onec izatez doncella erretiratua esan nay du, eta ala profetac itz orietan Virgiñac soledade edo bacarlecuarl izango cion naitasuna aditzera eman nay zuala, dirudi.

Guciz asco nay cion bacardadeari, eta orregatic aingueruac Jaincoaren Semea araguitzearen misterio ezeutatua aguertu cionean, berá bacarric arqutu-

(1) Bonav. Vit Christi. c. 5. (2) Gers (3) Dion. Cartus. de Laud. Virg l. 2, art. 3. (4) Birg. Rev.

ric, diosal eguin cion, esanaz: *Jauna da zurequin* (1). Arrazoy beragatic inoiz ere bere echetic ir-
 ten etzan, ezpazan elizaraco, eta orduan ere moldesi
 andiaz eta beregan guciz bildua, beguiae lurrean
 josita eramanaz (2). Arrazoy ta motibo beragatic
 joan zan lasterca bere lengusu santa Isabel icustera;
 ejemplo ederra, dio san Ambrosioe, non icasi bear
 duten doncellac munduaren iscambillatic, eta gende
 artetic igues eguiten. Oracio ta bacardadearen amo-
 retic sortzen zan ere guizonaqueico itzquet eta tra-
 tabideari igues eguiteco bere ardura ta arreta, eta
 bearbada onegatic Espiritu Santuac deitu zuan usa
 tortolaren icenez Escritura sagraduco Cantetan. Az-
 quenic, munduan deserri batean becela bicitu zan,
 eta au dala bide dio Elizac beraz: *¿Nor da usay*
gozo guciaz betetaco mota becela eremutic igo-
az datorren au?

Jaincoac bacarrean itzeguiten die animay: Jaun
 berac onela aguertu zuan Oseas—en aoz: *Ducam*
eam in solitudinem, et loquar ad cor ejus; eta
 itz oen gañean deadar eguin zuan san Geronimoc
¡O bacardadea, non Jaincoac beréay lanogu
eta gozotoro itzeguiten dien! Eta au on eguiten
 du san Bernardoc eracutsiaz, bacarrean, eta an
 gozaten dan isiltasunean esportzaten dala anima
 bere gogoetaz lurretic irten, eta ceruco ondasu-
 netan pensatzen barrun barruna sartzera.

Virgiña guciz leyala, irichi zaguzu zuc bacartasun

(1) Ricard, lib. 4. c. 6. (2) Vinc Ferr. Serm. in Virg. Nat.

eta oracioaren zale ta estimacioa, creaturacganaco naitasun eragabeco guctic erantzirie, bacarrie Jaincoa eta ceruco ondasun beticoac billa ditzagun, non cere Seme guciz gozoarequin batera icusi, alabatu eta amatu uste zaitugun, secula gucien seculetan. Amen.

Obsequio edo atseguingarriac.

Esquer añ oneco eta escu luce oparocoa da aingueruen Erreguiña, non bere debotoen serbitzu eta obsequio labúrracgatic mesede ta labore guciz andi eta señalatúae eguiten dizten (1). Ordea oec merecitzeco bi gauza bear dira: bata, gure anima peccatutic libre dagoala gueron obsequioac escañtzea, ceren ezperen, erraz esan lizaguquean, egun oro debocioren batez bera honratzen zuan oitura galduetaco soldadu bati esan ciona. Oni egun batez goséac hiltzeco zorian cegoala aguertu eitzayon bazcari gucizco bat berequin zuala, baña ontzi añ ats nazcagarrian, non soldaduac escua luzatzeco biotzie izan elzuan. Ni Jaincoaren Ama naiz, orduan Mariac esan cion, eta zuri jatena ecartzera etorri naiz. Baña, Andrea, eranzun cion soldaduac, ¿nola jango det ontzi orrecatic? ¿Eta nola nay dezu zuc, irauli cion Virgiñac, nie zure debocioac ontzat artzea, anima añ atsarequin esqueñita? Itz oec asco izan ciran, biotza

(1) Andr. Cret. Or. 2. de dorm. Virg.

eta oracioaren zale ta estimacioa, creaturacganaco naitasun eragabeco guctic erantzirie, bacarrie Jaincoa eta ceruco ondasun beticoac billa ditzagun, non cere Seme guciz gozoarequin batera icusi, alabatu eta amatu uste zaitugun, secula gucien seculetan. Amen.

Obsequio edo atseguingarriac.

Esquer añ oneco eta escu luce oparocoa da aingueruen Erreguiña, non bere debotoen serbitzu eta obsequio labúrracgatic mesede ta labore guciz andi eta señalatúae eguiten dizten (1). Ordea oec merecitzeco bi gauza bear dira: bata, gure anima peccatutic libre dagoala gueron obsequioac escañtzea, ceren ezperen, erraz esan lizaguquean, egun oro debocioren batez bera honratzen zuan oitura galduetaco soldadu bati esan ciona. Oni egun batez goséac hiltzeco zorian cegoala aguertu eitzayon bazcari gucizco bat berequin zuala, baña ontzi añ ats nazcagarrian, non soldaduac escua luzatzeco biotzie izan elzuan. Ni Jaincoaren Ama naiz, orduan Mariac esan cion, eta zuri jatena ecartzera etorri naiz. Baña, Andrea, eranzun cion soldaduac, ¿nola jango det ontzi orrecatic? ¿Eta nola nay dezu zuc, irauli cion Virgiñac, nie zure debocioac ontzat artzea, anima añ atsarequin esqueñita? Itz oec asco izan ciran, biotza

(1) Andr. Cret. Or. 2. de dorm. Virg.

muguitu eta soldadua hilde zucenean sartzeco, bada eremu batera joan, eta bacar artan ogueita amar urte igaro ondoan, bere azquen orduan Virgiña {ostera aguertu citzayon berequin bera cerura eramatera.

Lenengo partean esan guenduan gucien iritzian e-cinquizuna dala Mariaren deboto dan iñor condenatzea; baña aditu bear da, pecatugabe bicita, eta ez bestela, ceren onela seguru lagunduco dion. Ordea contrara, Virgiñac salbatuco dualacoan pecatu eguiten jarraitu nay duanac, bere culpaz galduco du Mariaren estalpe eta amparoa.

Bestea da Ama guciz gozoaren debocioan sendo irautea (1). Kempis-co Tomas-ec gazte zala egun oro cembait debocio berari errezatzece oitura zuan. Egun batez errezatugabe utzi, guero cembait astetan ere zucen eguiteari laga, eta gueroenean oso utzi cituan. Gau batean icusi zuan amesetan Tomasec Maria guciz santa here lagun guciay laztan ematen, eta beragana irichi zanean, esan cion *¿ceren be- quira zaude zu? zoaz emendic, nere laztanic mereci eztezu ta.* Onequin gaztea izu gorrian esnatu, eta here debocioac berriro abiatzece arret eta contu audiaz gueratu zan. Ezta oer dudatu: norc ere iraupenaz Mariaren amparoa iristen duan, hura zorioneco izango da, ceren gauza guciac ondo guertatuco zayocean (2), hill arteraño onean iraungo dualaco seguranzaric iñore ez daucan becela, salbatuco dalacoan seguru iñor ecin egon baliteque ere. Eta orañ dio-

(1) Bernard. Epist. 129. (2) Ricard. lib. 2. p. 48.

guna obeto ezagutzeco, gogoan iduquitzeoa da Jesusen Compañiaco Joan Berkniens gazte Beneragarriaren esana (1): ceñac, bere azquen orduan berari laguntzen cebiltzanac galdeturic, cer obsequio cernizan izango zala Virgüña guciz santaren gogocoena bere amparo ta estalpea merecitzeco; cernay, eran-zun zuan, dan guchiena izan arren, baldin iraupenaz eguiten bada.

Bada bere estalpe eta balimentua guc irabaztearren ipiñico ditut omen orañ bere serbitzucó cembait gauza; eta debocio erraz, eta deritzat au izango dala liburu onetan esribitu dan gauzaric prochugarriena, ez persona guciac guci oec eguiteco, ezpada bacoitzac onguien datorquion eta deritzan hura ar dezan, baña beti jarraituaz, ezperen Señora andi onen amparoa galduco duan beldurrarequin. ¡Orañ infernuan su ta gar dauden cembat salbatuco ciran, baldin beñ asi cituzten debocio eta obsequioac Mariari eguiten jarraitu izan bazuten!

I.ºº Obsequio edo Mariaren gogoco gauza.

Agur María,

Guciz atseguñ zayo aingueruaren agurra (2) cernen agur au adituta, berritzen zayola dirudian Jaincoaren Ama izateco esleitua berá izatearen dicha

(1) Beatificatus dago (2) Thom. Kemp. Serm 51. ad. Nov.

san Gabriel-ec ecarri cionean artu zuan poz atseguña, eta onegatic, eta itz báraquin eguin bear dizcagu gueron agnr ónac maiz eta sarri. Virgiñac berác esan cion santa Matilderi, beste oraciorequin ecin iñore poz atseguñago eman ceguioqueala berari, nola ta Agur Mariarequin. Onela bere agurra eguiten dionari, eguingo dio Ama maiteac bere agurra, beñ batean san Bernardori eguin cion becela, bada santuac garbiro aditu zuan Ama onen imagiña batec nola cranzun cion, esanaz: *Ave, Bernarde* (1). Berari agur eguitearen ondoren irichico zagu beti guri eranzuteco eta on eguiteco bialtzen dituan mesedo ayetacoren bat (2); alabaña ñola ucatuco dio bere laguntz eta amparoa Ave Maria ezpañetan cramanaz bere óñetara dijoaquionari (3)? Santa Getrudis-i aguintu cion, cembat Ave Maria bicitzan esaten ciozcan, aimbeste laguntza emango ciozcala eriotzeco orduan. Ave Mariaren otsa aditzen dan aldi bacoitzean eta gucietan poztutzen da cerua, etaigues dijoaz demonioac, Au bere buruan ondo progatu zuan Tomas Kempis Beneragarriac, Ave Maria otseguitea bestegabe izu lobarrian itoca demonioay igues eraçien aldi batean (4).

Eguin bear danera gatocela, lenengo izan bedi goicean jaiquitzeracoan, eta arratsean oeratzetzeracoan belaunicatu, eta iru Ave Maria esatea, Ave Maria bacoitzaren asieran esanaz: *zure Sortze guci: gar-*

(1) Matth. 10. Aug. (2) Bonav. Aurriem. All scam. tit 1. c. 6. (3) Ricard. (4) Serm. 1. ad. Nov.

*biagalic, Maria, eguizu garbi nere gorputza eta santu nere anima; amari becela bere bendicioa escatuaz, san Estanislao eguiñ oy zuan becela, eta gueron buruac beraren mantupean jarriaz, egun artan eta datorren gauean pecatu guctic gorde gaitzan. Onetaraco on izango da beraren imagiñ eder bat oyaren ondoan iduquitzea. Angelus Domini derizten oracioac béren iru Ave Mariaquin esatea. Jayera onegatic indulgenci edo barcacioac irabazten dira. Oec eman cituan lenengo Aita santua XXII.^{en} Juan izan zan, Aita Crasset-ec contatzen duan guertacaria zala bide (1). Ara nola. Surtan erretzera justiciac eman zuan guizon bat, Mariari bere Asuncioaren bezperan deitzea bestegabe, añ caltegabe guertatu zan sugarren erdian, non, soñecoay ere suac icutu etzien. XIII.^{en} Benedictoc debocio beragatic eman cituan eun egunecoac, eta ill oro confesatu eta comulgatuaz indulgenci oso edo plenaria. Antziñaco demboretan ezquillaren lenengo colpean guciac belaunico jartzen ciran oracio oec errezatzen, eta orañ au eguiteaz asco lotsatzen dira. Etzan lotsatzen san Carlos Borromeo cochetic edo zalditic jechi ta calearen erdian, eta iñoiz locatzetan belaunicatzeaz. Contatzen da, ecen Ave Marietacoan belaunicatzen etzan erligioso nagui eta zabar batec icusi zuala egun batez campantorrea iru aldiz macurtzen, adituaz dembora berean hoz bat, ciona: *zuc eguin nay eztezuna creatura centzugabeac equiten dute.* Pazcoaco*

(1) 1. 3. tr. 6. part 2.

demboran Angelus-en lecuan *Regina cæli lætare* esaten da, Benedicto icen onetaco XIV.^{na} aditzera eman zuan becela, eta larumbateco bezperetatic asi ta igandecoac igaro ditoceneraño zutic errezatzen da.

3.^{na} Erlojuac jotzen duan ordu bacoitzean Ave Maria errezatzea. Alonso Rodriguez Doatsuac ala eguiten zuan, eta baldin gauaz ordua jotzeco garayan lo bacetzan, aingueruac esnatzen zuten, bere hura erreza cozan.

4.^{na} Guelatic edo ehetic irteteracoan ere Ave Maria bat errezatzea, barrunen eta campoan pecatu gucitic gorde gaitzan, eta dembora berean bere imagiñon baten onay muñ eguitea, cartujoac eguiten duten becela.

5.^{na} Icusten dan Imagiña bacoitzari ere Ave Maria bat errezatzea, eta onetaraco ipiñi beza al duanac caleco paretectan imagiña ederren bat, andic igarotzean guciac beren agur ona eguin deguioten. Napoles-en, eta gueyago Erroman, imagiñ oetaco cembait, ederrac alere, arquitzen dira beren debitoac ipiñita, cale eta ateetan.

6.^{na} Eliz-errezoen ordu bacoitza Ave Maria batequin asi, eta azquendu dedilla, Eliza santac aguindua daucan becela, eguneco eguinquizun guciac naiz animacoac, nola diran, confesatzea, compulgatzea, liburu onac iracurtzea, sermoyac aditzea, eta onelaco besteac; naiz gorputz-lanac, nola diran, icastea, conseju onac ematea, bear-eguitea, jatea, lo eguitea, eta gañeracoac Ave Mariarequin asi, eta bucatzea. ¡Zorionecoac Ave Maria biren erdian sartzen diran

lan edo beargayac! Goicean esnatzean, lotaraco beguiac isteracoan, tentaldia sentitzean, perill gucietan, aserrearen cernay eman alditan eta gaineraco gucian esazu beti Ave Maria bat; bada onela eguinta, icusico dezu probechu ceñ andia etorrico zatzun; bacoitzean oguey eguneco indulgenciae irabazteaz gainera (1). Virgiana guciz santac santa Matilderi eriotz on bat aguindu cion, baldin bere escu, jaquintasun eta ontasunaren honran egunean iru Ave Maria errezatzen bacituan; eta Franciaco Juana Doatsuari esancion, ecen Ave Maria beti oitzayola guciz gogoco eta atseguin, batez ere bere amar beptute andienen honran errezatuta (2); eta jayera onegatic ere indulgenciaasco bide daude emanac (3).

II. en OBSEQUIOA.

Bederatzi urrenac.

Eguin al eta debocio guciz andiaz eguin oy dituzte Mariaren debotoac bere bederatziurren edo nobenac, eta Ama guciz onguille onec mesede señalatuquin ordañdu oy die serbitzu au. Santa Getrudisec egun batez icusi cituan Virgiana guciz sagraduac bere mantupean artu, bere arequin estali, eta nartasun andiaz beguiratzen cien anima samalda bat, eta santac ezagutu zuan, anima ayec cirala Assun-

(1) Viva, de Indulg. § ult. (2) Marac. p. 25. (3) Maracci.

- cioco fest-eguneraco beren debocioaquin prestatu ciranac. Bederatziurrenetan beste ascoren artean eguin litezquean debocio-lanac dira ondorengo oec:
- 1.^a Goiz arratsetaco adimentuzco oracio edo oracio mentala sacramentu guciz santua bisitatuaz eta bederatzi Aita gure Ave Maria ta gloria erreziatuaz.
 - 2.^a Iru ordu berecitan Virginiaren imagiñen bat bisitatzea, berari eman ciozcan doay eta graciazco ondasnnaegatic Jaincoari esquerrac emanaz, eta Ama maitcari mesede señalaturen bat escatuaz.
 - 3.^a Jaincoarequin bere Ama guciz santaganaco amorezco acto asco egunean egoitea (guchienaz eun eta berroguey ta amar), bada ecer ezda Andre jaincozco onen añ gogocoric, nola ta bere Seme guciz santua gue amatzea.
 - 4.^a Bederatzi urreneco egun bacoitzean Mariaren gloria eta garaitasunac dacartzian libururen batean ordu laurden batean iracurtea.
 - 5.^a Gorputzeco mortificacioren bat, eguitea contraco, cilicio, azote, barau, edo nayen zagun fruta edo mocadua jan-gabe uztea, edo belar samiñen bat aoan mascalzea, eta fest-egunaren bezperan ur ta ogui barautzea, baña guci au beti confesore edo ait espiritualaren baimenarequin. Obeac dira barrungo mortificacioac, nola diran, guciz icusi edo aditu nay guenduquean cerbait icustetic edo aditzetic gordetzea, bacarrean egotea, iñorequin ez itzeguitea, bere buruari uco eguin eta obeditzea, aserrez ta muquea ez eranzutea, besteen genio char eta contraeguiteac onez eramatea, eta béretan irabaci gueyago

dagoalaric, arrotzeco perillie eztagoan, eta bérac eguiteco confesorearen escu edo baimen bearric eztagoan onelaco besteac. Oraindic prochugarriagoa izango da sarrien eguiñ oy dan utseguiteren bat berriz ez eguiteco asmoa béderatzi urrenaren asieratic artzea, eta onetaraco on izango da esan ditugun iru bisitetaco bacoitzean lengo utseguinēn barcacioa escatzea, ontzeco asmo sendoaz, eta onetaraco Maria guciz santaren laguntza eta amparoa escatzea. Baña guciāz gañ gogoco zayona da bertuteetan bere antzeco izatea; beragatic on izango da béderatziurren bacoitzean celebratzen dan mistericari egoquien datorquion bertuterēn batean jarduteco asmoa artzea: conturaco, bere Sortze guciz garbiaren festan, asmo eta intencioaren zuentasuna; jayotzan espirituā berritu, eta epeltasunelic irtetea; Jerusalengo templora joan zan egunaren festan gueyen tiratzen gaituan gaucen bat, ecer ezpalitz beccā uztea; aingueruāc berri onac ecarri ciozcanecoan, humiltasuna, eta desprecioac onez eramatea; santa Isabel-i egun cion icusaldiarenean, urcoaganaco amoreā, limosna emanaz; edo misericordiazco beste lanen bat eguiñaz, edo beintzat peccatariacgatic Jaincoari escatuaz; eliz-sartzearenean buruagoay obeditzea, eta azquenic, Asuncioarenean munduco gāuzac ecereztzat beguiratu, eta eriotzeraco prestatzea, egun bacoitza guretzat bicitzaren azquenecoā balitz beccā bicitzen asiaz. Onela izango dira guciz prochugarriac bederatzi urrenac.

6.º Fest-eguneco comunioaz gañera esca lizayoque

ait espiritualari bederatzi urreneco beste egunen ba-
tean eguita ere. Aita Señeric esaten zuan, inola ere
obeto honratzen ezala Maria Jesusequin baño. Eta
anima santa bati Ama maiteac berac aguertu cion
(1), ecin inore esqueñi ceguioqueala berari doay
atseguin etapreciatuagoric comunioa baño, ceren
comunioan Salbatzalleac bere pasio sagraduaren fru-
tua animetan isurtzen duan. Eta ala, beste ecer nay
eztuala aibeste, esan gutentzaque, Virginia guciz
santac bere serbitzariacandic, nola ta oec sarri co-
mulgatzea, eta dirudi esaten dagoquigula: *Atozte,
eta jan eta edan zazute nic prestatu dizutedan
oqui eta ardoa.*

7.^a Azquenic, fest-egunean, comunicaren ondoren,
escafi bear guera berriro Ama guciz gozoa serbit-
zera, nay eta escatzen degun bertutea eta beste me-
sede bereciren bat berari humilquiro escatuaz. Gu-
ciz prochugarri izango da ere jayeraric andiena diogun
fest-eguna urte oro esleitu, eta egun onetan astiroa-
go, arretazago eta obeto prestatuta bere amore ta
serbitzura gueron buruac ematea, gueron Ama, E-
checoandre eta bitartecotzat bera autuaz, igaro dan
urteco naguitasun eta zabarqueriaren harcacioa es-
catuaz, aurreraco biciera berri on bat aginduz eta
bere seme edo alabatzat ar gaitzala, eta gueroenean
eriotz on bat irichi dizagula, erregutuaz.

(1) Crasset, tom. 2. tr. 6. part. 6.

III. en OBSEQUIOA.

Errosarioa eta oficio parvo edo chiquia.

Guciac daquite Virgíña guciz erruquitsuac erauc-
 si ciola Guzmango santo Domingori errosarioaren
 jayera, Francian Albis-co heregueac beren dotriña
 galgarriaquin eguiten cituzten galera negargarriaz
 estututa bere espac Ama maiteari aguertzen ciardu-
 la, *Lur au elcor eta cicoitz izango da bere ga-
 ñera euria erori dedineraño* Ama gozoac esan,
 eta euri au berac barreatu edo aditzera eman bear
 zuan errosarioaren jayera zala, ezagutu zuanean.
 Ala eguin zuan, eta cristau fededun guciac debocio
 au artu zuten, alatan non, eztan izango orañ cris-
 tauen artean au bezañ zabaldu ta gueyago eguiten
 danic. Lutero, Calvino ta gañeraco herege berriac
 ¿cer eguiñ ez dute debocio au chartzat eman ta ga-
 lerazteco? ¡Baña cembat persona beraren bidez pe-
 catutic irten diran! ¡Cembat bertutearen erpiñera
 igo diran! ¡Cembatec eriotz on batez betico salva-
 cioa irichi duten! Iracur bitez onen gañean escribi-
 tuac dauden aimbeste liburu. Asco da debocio au
 Eliza santac ontzat emana daucala, eta Aita santuac
 conta al baño gueyago indulgenciaz aberastua dau-
 catela jaquitea. Errosarioaren irugarren partea er-
 rezatzen duan guciari emana zayo iruroguy ta amar
 milla urteco indulgencia bat: iru parteac oso erre-

zutzen dituanari laroguey millacoa, eta Errosariooco Ama Virginiaren capillen batean errezutzen duanari oraindic gueyago. Azquenic, Benedicto XIII.^{nae} santo Domingoren ordenaco erligiosoac bedeicatutaco errosarioaquin errezutzen zutenay, santa Brigida-
ren errosarioaquin irabazten diran guciac eman ciz-
ten, au da, Ave Maria eta Aita gure bacoitzagatic
eun egunecoac. Era berean irabazten da indulgenci
edo barcaicio osoa confesatuta comulgatuta Ama Vir-
giniaren fest-egun eta urteco beste festa edo jay
andienetan, nola ta santo Domingoren erligioco san-
tuenetan, orden artaco Elizac bisitatuaz, guci au
bacarrie Errosariooco cofradian sartuac daudenentzat
bada ere; eta gañera oec confesatu eta comulgaturic
cofradian sartzin diran egunean irabazten dute bes-
te indulgencia plenari bat, eta eun urtecoa errosa-
rioac beracquin erabillita. Azquenic, egunean ordu
erdi batean adimentuzco oracioa edo oracio mentala
eguiten duten guciay, aldi bacoitzagatic zazpi urteco
indulgencia eta ill oro beste indulgenci oso bat.

Baña indulgencien ondasun aberats guci au ira-
bazteco, joan bear da misterioetan pensatuaz, cem-
bait liburutan señalatuac dauden eran, norbaitec
ezpadaquiqui misterio oec, asco bada ere Jesucristo
gure Jaunaren pasioco cernay pausotan, conturaco,
azote, Calbario, edo gañeracoetan pensatzea. Gañe-
ra errezatu bear da arretaz eta debocioaz, eta onen
gañean gogora bezate guciac Ama guciac santac Eu-
lalia Doatsuari esan ciona: gueyago estimatzen ci-
tuala bost amarreco astiro ta debocioaz errezatuac,

amabost lasterca eta debociogabe errezatuac baño. Onegatic on da belaunico eta Virgiña guciz santaren imagiñ eder baten aurrean errezatzea, eta amarreco bacoitza asitzeracoan, Jesus ta Mariaren amorezco acto bat eguita, gracia señalaturen bat escatuaz. Azquenic, beguira bedi, ohea dala lagunac alcarganataluta errezatzea, bacoitzac bacarric baño.

San Pedro Damianoc eguiñ edo ipiñi zuala, dioten oficio parvoari dagoquionez II.^{en} Urbanoc indulgenci asco eman ciozcan, eta Virgiñac berac cembait aldiz aditzera eman du, ceñ gogoco zayon, Aita Aurienan icusi litequean becela (1). Guciz ontzat artzen ditu esau aldi bacoitzagatic berreun eguneco indulgenciac dauzcaten letaniac, eta santa Brigidac ceruco aguinduz egun oro errezatzen zuan *Ave maris stella ere*, eta oraindic guevago *Magnificat* deritzan canta, ceren cant onetan Virgiña guciz santac Jaincoa alabatu eta goratu zuan itz beraquin alabatzen degun.

IV.^{en} OBSEQUIOA.

Baraua.

Asco dira larumbat eta Mariaren fest-egun bezperetan ur eta ogui barau eguiten duten bere debotoac. Elizac consagratzen dizca larumbatac, san Bernardoc

(1) T. 1. c. 8.

dion becela, bere Seme guciz santua hill eta bigaramon larumbatean sendo ta firme fedean egon zalaco (1). Beronegatic honratzen dute Ama maite au bere debotoac egun onetan debocio oy ez becelacoren batequin eta batez ere ur ta ogui barautuaz, san Carlos Borromeoc, Cardenal Toledoc eta beste ascoc eguiten zuten becela; eta oraindic izan dira deboto o-etaco cembait añ iracequiac, non egun guci artan mocadu bat berá progatzen etzuten, nola ere ciran Bamberga-co Obispo Nitardo, eta jesusen Compañia-co Aita José Arriaga. Obsequio oyen eta gañeracoen ordañ-sarian Mariac eguin dituan mesede señalatnac iracur litezque Aita Aurienaren liburuan (2). Beste guciac utzita, asco da lapúrren capitan bati eguin cion guciz señalatua; bada onec, bere biciera galduaren damuz ere, larumbatetan ur ta ogui barautzeco oitura laudagarria izan zualaco, lepos moztu ciotelarric biciric gueratzea merecitu zuan pecatu mortalean egon, eta ondo confesa cediñ, hill baño len berac aguertu zuan becela (3).

Eztu asco eguingo, bada Ama maiteari barau onequin atseguin eguitean bere serbitzari ta debototzat egon nay duanac, eta guchiago baldin bere pecatuacgatic infernua merecia badu. Nic diot, nequez condenatuco dala debocio alabagarri au eguiten dutenetic inor; ez baldin beretaco norbait pecatu mortalean hiltzen bada, Virgiana guciz santac mirari andi batez infernuratzetic libratuco dualaco, lapur-

(1) Cap. 2. de Pass. (2) T. 1. c. 7. (3) Loc cit.

ren capitan hura becela: oec Jaincoaren urricaltasun ondogabearen banaquetaco mirariac dira, eta betico salbacioaren uste eta confianza mirari octan ipintzea bera eroqueria litzaque. Diodana da, Virgĩa guciz santari obsequio au eguiten dion ari erraz irichico diola Ama erruquitsu onec gracian iraun eta eriotz on bat eguitea. Gure Congregacio guciz chiquico hermano guciac, al badute, larumbatetan barau au gordetzea guciz ondo eguingo dute, eta ecin dute-nac, on izango da beste barau egunetan becela jaqui bat bacarrarequin jatordua eguitea, edo fruta edo beste jan-gauza gozoren bat jangabe uztea.

Egun pribilegiatu artan escañi leguizquioquean beste debocioen artean orobat contatzen dira comunioa, meza eta bere ceñ nay imagiñi bisita edo oracioa, cilicioa eta onelaco besteac, ceren larumbata dan batez ere berari atseguin zayon cerbait eguiten señalatu bear gueran eguna. Beñzat saya bitez bere debotoac bere fest-egun andi bezperetan ur ta ogui edolaric al duten eran barautzera.

V. en OBSEQUIOA.

Bere imagiña sagraduay agur ónac eguitea.

Eztu jaquin demonioac Jainco guezurrezcoen adoracioa lurreratu zanean galdu zuana quitatzeco arte oberic asmatzen heregeen bidez imagiña sagraduac

perseguitzea baño (1). Baña Eliza santac beti gorde ditu, izan dituan martiriac au dala bide eguin dituzten pelea latzetan odola išurtzeraño, eta Virgiña guciz santac asco aldiz, mirari aguiriaquin ere, aditzera eman du, ceñ gogoco zayon imagiñac honratzea, eta beray agur ónac eguitea. San Juan Damascenori perseguitzalleac, imagiñen alde escribitzen zualaco, escuturra ebaqui cioteo; baña Ama guciz erruquit-suac mirari andiaz osterá len becela ipiñi, eta sendatua utzi zuan. Aita Spinellie contatzen du, ecen Constantinoplan ostiral gucietan bezperen ondoren Ama Virgiña estaltzen zuan cortinabat berez zabaldu, eta larumbatecoac bucatzean osterá berez ichitzen zala. Beste batean san Juan de Dios-i, Ama maitearen imagiña baton aurrean oracioan cegoala, cortina berez zabaldu, eta sacristauac lapurra zafacoan ostico bat eman cion; baña une berean oña igartu citzayon.

Esan degun guciagatic Mariaren debotoac guciz sarri joaten dira bere imagiña sagradu, eta elizac bisitatzera; bada oec dira izatez ta benaz, san Juan Damascenoo dion becela, tentacioetatic eta gure pecatuacgatic mereci ditugun cigorrada eta castiguetatic gordetzeco gure igues lecuac. Emperadore san Enriquec cernay erritan sartzean lenen eguiten zuan gauza Virgiña santaren elizara joatea izaten zan; eta Compañiaco Aita Tomas Sanchez, Mariaren deboto gncizeoa eliz oetacoren batean sartugabe iñoiz ere

bere echera itzultzen etzan.

Eztezagun bada utzi gue ere elizetan, capilletan edo gueron echean bertan bera bisitatzea, eta onetarako on izango da bere imagiñen bat al diran apainduraquin echean iduquitzea, eta onen aurrean letaniae, errosarioa eta gañeraco debocioac errezatzea. Onetarako asmoaz eguin det (orañgotz zortzi biderretaraño moldizquidatua) *Sacramentu guciz santuari eta Maria guciz santari visitac* icendatzen dan liburu bat, illaren egun gucietarako. Berebat da guciz alabagarria bere debotoac beraren fest-egunac, Jauna patente edo aguirian ipiñiaz nobena, sermoy ta Mezarequin celebra eraguitea.

Emen esan nay det gañera, Aita Spinellie *Virgiñaren mirariac* deritzan bere liburuan contatzen duan guertaera (1). Milla seireun eta amaicagarren urteco Pazcoa Mayetzecoaren bezperan Monte Virgengo santuario sonatuan ara joan ciran gendetzac danza, ordiqueri eta gañeraco moldacatzqueri eragabeaquin jaya profanatuaz, genderic gueyena bildua cegoan eche baten barrumbeac su artu, eta su hura añ indartsu ta bicia izan zan, non milla, bosteun ta gueyago persona bertan erre, quiscali ta hill ciran. Eta eriosugarrean igues eguiñ al izan zuten béretaco bostec itz ciñeztu edo juramentuaren bean declaratu zuten, bérac icusi zutela Virgiña guciz santa bi zuci escuan artu, eta ostatu ari (zurezcoa bide zan) cembait lecutatic su ematen. Erregutzen diet, bada,

(1) Num. 65.

beraren debotoay, ez dijoacela arren iñoiz ere alaco erromerietara fest-egun andietan, eta galeraci dizayela joatea al duten guciay, ceren egun oyetan ceruco Erreguiñac honra ta agur on baño deabruac irabaci ta frutu gueyago ateratzen duan. Jayera au dutenac bijoaz oraindie obeto gende eta iscambilla guchi dagoan demboran santuario edo elicetara.

VI.^{en} OBSEQUIOA.

Escapularioa.

Nola béren aguindupeco serbitzariac béren eheco libreaz apainduta, librea onezaz gala eguiñic ibiltzea beren goimallaren honratzat daucaten andizquia munduan diran, ala ainguerúen Erreguiñari ere on deritzayo bere amore ta serbitzura berezquiro ematen diran bere seme-alaba, eta serbitzariac, bere eheco eta familiaco personac becela, bere escapularioac cincilie dituztela icustea. Gaurco eguneco heregeac burla eguiten dute debocio eder onezaz; baña Eliza santac cembait buldaz, eta indulgenci asco emanaz ontzat artua, eta gomendatua dauca, eta Carmengo escapularioaz itzeguiñaz, Aita Crasset (1) eta Aita Lezanac (2) diotenez 1254 garren urteronz Virgiña guciz santa Simon Stock Doatsuari aguertu, eta oui bere escapularioa emanaz Ama mai-

(1) Tom. 2. tr 6. part 4. (2) In Marc. 5. n. 10.

teac esan cion: azqueneraño escapularioa jant-
zita erabiltzen zuten quci ayec libratuco cirala
infernucio penelara joatetic Oec izan ciran itzac:
Ar zazu seme maitea, zure erliqioeco escapula-
rio au, nere cofradiaco señaleara eta zure eta
Carmengo erliqioso qucien pribilegioa becela:
oen artean hiltzen diranelatic inorc ez ditu
sufrituco belico sugarrac (1). Gañera dio Aita
Crasset-ec, ecen beste batean Aita santu Juan XXII
garrenari Ama guciz santa aguertu, eta agundu
ciola, barrea cezala escapulario bera soñean dara-
biltzen guciac beren eriotzetic urrengo larumbatean
irtengo cirala purgatoriotic, eta Aita santuac ala a-
guertu eta zabaldu zuan, Alejandro V.^{ac} Clemente
VII.^{ac} eta beste Aita santuac ontzat emandaco bere
buldan. Eta liburu onen lenengo partean esan guen-
duan becela (2), Paulo V.^{ac} au bera aditzera eman
zuan, eta bere aurrecoen bildac esan nay zutena a-
zaldunay izan zuala dirudi, indulgenciac irabaci nay
dituanac eguin bear dituan gauzac berean eracutsiaz,
eta dira, bacoitzaren bicierari dagoquion eran casti-
dare edo garbitasuna gordetzea; Virginea guciz san-
taren eliz-errezco edo officioa errezatzea, edo au ezta-
quianac edo ecin duanac beintzat Elizaren barauac
gorde eta aste azquenetan aragui-gauzaric ez jatea.
Escapulario oni, nola ta Dolorectacoari, Mercede-
coari, eta Concepcio guciz garbicoari nola bicitzan
ala eriotzean emandaco indulgencia chiqui eguneio-

(1) Apud Lez. loc. cit. (2) Crasset, loc. cit.

coac, nola oso edo plenariac contu ta copururic ez dute. Nic beñtzat escapulario, guci oec artu ditut. Jaquiñ bedi batez ere, san Cayetanoren ordenaco erligiosoac bedecatutaco Concepciocoari, berari eman-daco beste indulgencia señalatuaz gañera cernay erligio, lecu santu edo persona jaquiñi emandaco guciac dagozquiola emanac. Eta sei Aita gure, Abe Maria eta Gloria Trinitade guciz santaren eta Virginia garbi manchagabe sortuaren honran errezatuta, irabazten dirala *toties quoties* Erromaco, Porcinculaco, Jerusalengo eta Santiagoco guciac, bacarric plenari edo osoac bosteun, ogueita amairutaraño irichiaz, beste conta al baño gueyago chiquiaz conturic eguingabe. Guci au san Cayetanoren ordenaco erligiosoac zabalduta dabillen paper batetic ateratzen da.

VII. en OBSEQUIOA.

Virginia guciz santaren Cofradiac.

Eztira falta cofradiac ontzat ez dauzcatenac, iñoiz erroidu eta disgustóac eracartzen dituztela, eta asco emen munduco joan-etorriacgatic sartzten dirala cofradi octan, esanaz. Baña gaizqui juzgatzen ezdan becela elicetan sartzea, eta Sacramentuac artzea, gauz oec ascoc gaizqui eguiten dituztelaric, ez dira gaizquitzat artu bear cofradiac ere. Aita santuac cofradi oec galeraztetic urruti, guciac ontzat eman eta

conta al baño gueyago indulgenciz aberastu dituzte. Sales-co san Franciscoc beñ eta berriz leyaz encargatzen ditu persona mundutarrac beretan sartzera (1). Eta ¿cer san Carlos Borromeoc eguiñ etzuan cofradi oec ipiñi ta zabaltzeco? Eguin ciuan batzar edo concilioetarañocoan encargatzen ditu confesoreac macur ditzate!a beren penitenteac cofradi oetan sartzera (2). Eta arrazoyaz, ceren cofradi bacoitza, batez ere Virginiarenac, lurra estalia daucaten tentacio eta peccatuetatic mundutarrac gordetzeco dilubioco cucha becela dan. Eta guc misioetan icusi ta icasi degunarequin gucz ondo daquigu ceñ prochugarri diran. Comunque itzeguiten dala, peccatu gueyago eguiten ditu cofradia batean edo bestean sartua eztagoan guizon batec, sartuac dauden ogueic baño. Cofradia berdin guintzaque infernuaren contra peccatu eta gordetzeco milla ezcutarra eta arma isequirie dauzan David-en torreatequin (3), Jaincoaren gracia gordetzeco beretan eguiten diran lan egoquiac dirala bide; bada gauza icusia da, cofradietatic campora persona mundutar guchie eguiten dituztela lan ayec.

Esan ditzagun beretaco cembait, eta icusico degu berac dacarden probechu andia.

Lenengo, salbacioa iristeco dauden bideetatic bat da gieron azquen-finetan pensatzea, eta oec gogoan erabiltzea. *Erabili itzazu gogoan cere azquen-finac, eta inoiz ere eztezu eguingo peccaturic,*

(1) Introd. p. 2. c. 15. (2) Act. Med. t. 1. c. 6. 58. (3) Cant. 4. 4.

dio Espiritu Santuac (1); eta héretan pensatzen ez dutelaco galtzen dirala aimeste. Bada cofradi oyetan batutzen dira sarritan arreta, eta pensamentuac, Jaincoaren itza meditatzerá, iracurtera eta enzutera, eta Jaunác esana da, here itzac aditzen dituztenac dirala bere ardíac (2).

Bigarren lecuan, salbatzeco gauza bearra zagu oracioa: *Esca zazute eta artuco dezute* (3), Jesucristo beraren esana da. Eta cofradietan au eguiten dute hermanoac beti, eta an aditzen ditu Jaincoac, ceren berác agüindua daucan, ascoc alcartuta egüindaco oracioac enzungo dituala (4). Onen gañcan utzi zuan escribitua san Ambrosioco sententia gucizpreciatu bat, diona: *Bucarca chiqui ta queiz chiqui diran asco alcarganatuta eguiten dira andi, eta alcarganatutuco ascoc en oracioac Jaincoac ez enzutea ecin liteque* (5).

Irugarren lecuan, congregacioetan sarriago artzen dira sacramentu santuac, bay ceren erreglac ala aguintzen dien, eta bay beste hermanoac onetaraco ematen duten ejemploa dala bide ere. Onela obeto iristen da gañera gracion irautea, bada Trento-co concilioac eracusten du; batez ere Comu. io sagradua zagula egunoroco utseguiteetatic sendatzen gaituan, eta pecatu mortalean erortzetie gordetzen gaituan sendagaya (6).

Laugarren lecuan, eguiten dira cri edo gaño edo

(1) Eccl. 7. 40. (2) Joann 16. 24 (3) Id 16. 24. (4) Matth. 18. 59. (5) Multi minimi etc. (6) Sess. 13 c. 2.

bearrean daudenaquin penitenciazco, humiltasunez-
 co eta caridadezco lan asco. Eta guciz on litzaque
 eri edo gañoay beguiratu ta laguntzeco usadio santu
 au cofradia gucietara zabaltzea. Probechu andia ate-
 raco litzaque Virgñaren honran hermano jaincoco-
 yenen artean isillicaco cofradia bereciac fundatzetic
 ere, non eguiñ oy diran ondorengo bearguintzac:
 ordu erdico iracurtze animacoya, Espiritu Santuaren
 bezperac eta completac; Virgña guciz santaren le-
 teyac, oec esaten diran garayan bérétaco batzúec
 gurutzeta bana sorbaldan ipiñiaz, edo beren burúac
 necatzeco beste mortificacioren bat eguiñiaz, Jesu-
 cristo gore Jaunaren pasio sagraduaren gañcan ordu
 laurden beteco meditacioa, erreglen contra eguin
 diran utseguiteac nor berac agueritzea, eta cofradia-
 ren zucendari eguiten duan aitac ematen dien peni-
 tencia humiltasun andiaz artzea; aste artan eguin
 diran loreac, au da, mortificacio eta lan ónac iracur-
 tea; datocen nobena, fest-egun eta onelaco besteac
 aditzera ematea; Miserere bat eta Salbea esaten di-
 raneraño azoteac artzea, eta azquenic, aldarearen
 erdian jarrita dagoan santo Cristoren óñay muñe-
 guitea. Erregla edo zucenbideac izan oy dira oec:
 egun oroco oracio mentala, Sacramentu guciz san-
 tuari eta Maria guciz santari bisita; oyeratzeraco
 concienciaren examiña edo egun artaco utseguiteac
 beguiratzea; liburu ónac iracurtea; sacramentuac
 maiz artzea; cilicio, azote edo beste gorputz mingar-
 riren bat; purgatorioo animacgatic eta pecatu mor-
 talcan daudenacgatic escatzea; eta azquenic cofra-

diaco hermano eri edo gasoac icustea.

Lenera gatocela, esan dezagun, cofradiac on eta proclugarri dirala aguertzen duan bostgarren arrazoya. Au izango da Jaincoaren Ama serbitu eta horratzear salbatzeco ceñ asco balio duan ostera berritzea. Bada ¿cer besteric eguiten dute cofradietan sartuta daudenac? ¿Cambat alabanza ematen diozcaten an! ¿Cambat oracio eta erregu eguiten diozcaten? Sartzen diran eguñetic antutzen dute bera beren Ama eta Echeoandretzat, eta beren icenac Mariaren erruncá edo listan esribituac gueratzen dira; eta alabaña bérac ordutic bere seme ta serbitzari dira, Ama amoretsua bertatic abiatzen da beste gáñeracoay baño amore ta naitason gucyagoaz oyey beguiratzen bicitzan, eta eriotzan oec gordeaz, alatan non, bérétaco bacoitzác eguiaz esan lezaqueatu: *ondasun guciac artu dituala* Ama guciz gozo onen cofradian sartzearequin.

Batez ere bi gauzatan ipiñi bear dute cofradiaco guciac beren asmo eta intencioa: 1.^a Beguiratu bear dute eta icusi, cofradiaren certaracoa, eta an ezta izan bear besteric, ezpada Jaincoa eta bere Ama guciz bedeicatua serbitu, eta norc bere burna salbatzeco asmo sendo eraguillea artzea. 2.^a Artaraco señalatuac danden egunetan munduco joan-etorri ecergetic cofradiaco eguinquizunetara zucen joatea ez uztea, bada an ichedoten die beray dijoaquien eguñeteco edo joan-etorri bacarrac, au da, betico salbacioac. Saya bitez sartugabe daudenac, eta batez ere len sartu eta irten diranac, cofradiara eracartera.

Cigarrala guciz andiac eman dizte Jaunac Virgiña guciz santaren cofradietatic eceri ez dagoquiola irten diranay. Napoles-en bat irten, eta cofradian sartzera bi ir cedilla erreguturic, eranzun zuan: *ancac autsita lepoa ebaqui de-pudatenean biurtuco naiz sartzera*, eta profet irten zan, ceren andie dembora guchiren luruan gaitz nay cioten batzuec ancac autsi, eta lepoa ebaqui cioten (1). Contrara, cofradietan irauten dutenay, Amac beccela beguiratzen die, nola animari ala gorputzari dagoquien gucian Virgiña gaciz onguilleac (2). Iracur bitez Aita Aurienan (3) Ama maiteac bicitzan, eta asco gueyago eriotzan aseori eguin dizten aimbeste mesede. Aita Crasset-ec contatzen du (4) eeen 1586. ren urtean congregacioco gazte batec hiltzen cegoala, buruco aldean ceucan bere confesoreari esan cio'a: *Ay Aita! condenatzeco perill andion icusi naiz; baña gueroenean gure Ama maiteac perilletic atera nau. Demonioac nere pecatu n lista laincouden tribunalean aguertu eta bereala ni béraquin eramatera dijoacela. Virgiña guciz santac ara etorri eta galdeturic ¿nora daramazute gazte ori? zeta cer icusquizun dezute nere congregacioan aimbeste serbitu nauonarequin? izu laborrian angouc equin dituzte, eta ala irten naiz béren atzaparretatic. Jaquintsu berac contatzen du aurrerašeago, eeen congregacioan sar-*

(1) Serm. de Cong. p. 4 (2) Tom. 2. c. 4. (3) Tom. 2. c. 4 (4) Tom. 2 p. 5.

tua cegoan beste batec hiltzeco zorian cegoala, izan zuala búrruca gogor bat infernuco etsayaquin, eta beray gañ artu ondoan deadar eguin zuala ¡() *suerte cen gucizcoa dan Virgiña guciz santa bere cofradian serbitzea!* Eta onela hill zala poz atseguiñez beteta. Azquenic, dio gañera, ecen Napoles dertizan erri andian Popoli-co Duqueac hiltzeco zorian cegoala, bere oñordeari esan ciozcala itz oec: *Jaquizu, ene Seme; equiña daucadan on apurra ni sartu nitzan cofradia oni zor diodala, eta ala beste ondusun añ aberats eta oberic ez daucat zuri uzteco nola ta Maria guciz santaren congregacioa. Gueyagoan daucat orañ bere cofradiaco eta serbitzari izana, Duque izana baño.*

VIII. en OBSEQUIOA.

Limosna ematea.

Virgiña guciz santaren debotoac lagundn oy diezate ere bearrecoay, batez ere larumbatetan. San Gregorioc contatzen duan *Deusdedit* ceritzan zapatari santu arc astean irabazten zuana larumbatean bearrecoen artean zabaltzen zuan, eta anima on bati eracutsi cion Jaincoac, caridade onen ordañ-sarian bere serbitzariarentzat ceruan bacarric larumbatetan eguiten zuan costu guciz andico jauregui bat. San Gerardoc etzuan secular ucatzen Virgiñaren icenean

escatzen cioten ecer, eta berebat eguiten zuan Jesusen Compañiaco Aita Martin Gutierrez-ec, berac segurutuaz, inoiz ere gueratu etzala Ama maiteari escatzen cion gauzaric irichigabe, eta Franciatic Erromara cijoala, hugonoteac ceritzaten heregeen escuetan hillie, Ama gozoac, beste cembait birgiñequin ceratic etorri, eta gorputza zapi batean bildu, eta berequin eraman zuan (1). Erraztasun berarequin ematen zuan Mariaren icenean escatzen cioten gucia Salzburgo-co Obispo san Everardo, eta erligioso santu batec icusi zuan beñ nola caridade onen ordañ sarian Ama guciz laztañac aurcha bat becela ceraman Everardo besoetan, esanaz: *Au da secular ecer ucatu ez didan nere seme Everardo*. Beste aimbeste eguiten zuan Ales-co Alejandroc, eta san Franciscoren erligioco lego batec erregutu ciolaco Mariaren amorez orden artaco erligioso eguin cedilla, bestegabe bertatic mundua utzi, eta habitua artu zuan (2).

Ez bezate bada utzi bere seme-alaba ta debotoac Ama añ onaren icenean egun oro limosnachoren bat bearrecoay ematea. eta larumbatetan andiagoa. Au ecin duanac ordañ beza caridadezco cernay obrarequin, conturaco, cofradiaco gañoac icustea, peccatari eta purgatorioco animagatic erregutzea, etc., bada guciz gogoco zaizca misericordiazco lan edo obrac.

(1) P. Pepé. tom. 5. lec. 245, in fine. (2) P. Auriema t. 1. c. 42

IX. en OBSEQUIOA.

Mariagana maiz bideguita.

Aingeruen Erreguiñari atseguñ eguiteco eguin guintaquean beste debocioen artean ecer ez da, gueron eguinquizun gucietan, conturaco, consejua eman edo artu bearra danean, perilletan, eta tentacioetan, eta oraindic gueyago, baldin garbitasunaren contracoac badira, laguntza, soma, acieltu eta amparo esque beraganatzea bezañ gogoco zayonic. Guciraco lagunduco digu, eta gucietatic ateraco gaitu ondo baldiñ, *sub tuum presidium* deritzan antifona edo *Ave Maria* ezpañetan degula, edo demonioen contra bertute bereci eta eraguillea daucan bere icen guciz santua deituaz bere amparo ta esta'pe indartura biltzen baguera. San Franciscoren erligioco Santi Doatsuari tentañi loy batec erasota beraren amparo billa joan, eta une berean aguerta citzayon, eta oni escua bularrean ipiñi, eta bertatic tentatico libre ta garaile utzi zuan. Onelaco guertaldietan ona da errosarioari edo escapularioari muñeguita, edo oec bularrean estutzea, edo bere imagiñen bati begiratzea. Jaquin bedi, azquenic, ecen XIII en Benedictoc eman cituala berroguey ta amar eguneco indulgenciac Jesus ta Mariaren icen guciz gozoac esaten diran aldi bacoitzagatic.

X. en ETA AZQUENECO OBSEQUIOA.

Mariaren gogoco cembait gauza.

Ipiñico ditugu emen batetan Maria honratzeko eta berari atseguin egniteko cembait manera, eta dira: beraren honran meza esatea edo ateratzea, bada Mezako sacrificio santua Jaincoari ezpada eciñ ofrenda lizayoqueala, eguia bada ere, eta au gure gañcan duan eseu eta jabetasun goyena aguertzeko, batez ere esqueñzen zayola. erree eztu galerazen, dio Trentoko batzar santuac (1), sacrificio adoragarri atdembera berean Jaincoari esqueñi edo ofrendatu alizatea, berari esquerreac emateco, bere Ama guciz santari eta gañeraco saltuay eguin dizten on eta mesedeacgatic, nola ta emen beren oroipena eguiñaz, orañ erreinatzen dauden lectuan gugatic erregu dezaten, bada au dala bide esaten degu mezan: *Ut illis proficiat ad honorem, nobis autem ad salutem; et illi pro nobis intercedere dignentur in cælis, quorum memoriam agimus in terris.* Beragatic guciz gogoco zaizca ceruco Erreguiñari bay meza eta bay berari eguin ciozcan mesede eta pribilegioacgatic esquerreac emanaz iru Aita gure, Abe Maria ta Gloria Trinitade guciz santuari errezatzea; ceren ez asco izanic berac ematen diozcan

(1) Sess. 22. c. 3.

guciac artu cituan aimbeste mesede añ andi ta mi-
ragarren esquérrac bear bezaimbatean emateco, at-
seguin zayo Jauna bedeicatzen eta goratzen bere se-
me-alábac laguntzea.

1.^o Urrecoen zayozcan santuen amparo ta estal-
pea escatzea, nola diran san José, san Joaquin eta
santa Ana. Persona andizqui bati Ama gozoac berac
aguertu cion, ceñ ona zan bere ama santa Anagana-
co jayera (1). Berebat diot berari nayan izan cioten
santuac honratzeaz, au da, san Juan Ebangelaria,
san Bernardo, bere imagiña sagraduen amparatzalle
san Juan Damasceno, bere garbitasunaren escudat-
zalle san Idefonso eta onelaco besteac.

2.^o Beraganaco jayera edo debocioaren gañean
predicatzea, edo besteac debocio onetara muguieraz-
tera sayatzea, eta gueyago aide, adisquide eta ezagú-
nac, gogoratuaz Ama maiteac berac beñ santa Bri-
gidari esan ciona: *Saya zaitte zure seméac nere
seme izan dílecen.*

3.^o Bere deboto andien diran eta izan diran biciaç
eta hillaegatic egun oro erregutzea.

Beguirá bitez gañera Ama amorezco au beste era
ascotara honratzen dutenay Aita santúac emandaco
aimbeste indulgenci edo barcacio. *Bedeicatua eta
alabatua izan bedi Virqiña dotsuaren Sortze
manchagabea* esateagatic, eun urtetacoac; eta bal-
diñ *manchagabeari* egozten bazayo *quciz garbia*,
daude purgatorioco animay aplica lizayezqueen beste

(1) Barry, par apud.

indulgentiac, Aita Crasset-ec eracusten duanez. Salvea esateagatic berroguery egunecoac; leteyagatic berreun egunetacoac; Jesus ta Mariaren icenac esan, edo aditzean burua macurtzeagatic oguey egunetacoac; Jaunaren pasio eta Mariaren doloreay bost Aita gure. Abe Maria ta Gloria erreztatzeagatic amar milla urtetacoac; meza enzuteagatic iru milla ta zortzireun urtetacoac; Sacramentu santuac artzeco gogo eta asmoaz fede, esperanza eta caridadezco actoac esateagatic zazpi urtecoa XIII.^{en} Benedictoc emana, eta ill osoan esanta, eriotzeco orduraco indulgenci osoa nor beretzat, eta bestea purgatorioco animentzat; egunean ordu erdico oracio mentala iduquitzeagatic eman ditu asco XIV.^{en} Benedictoc, eta illean oso edo plenaria confesatu eta comulgatuaz. *Anima Christi* deritzan oracioa erreztatzeagatic irureun egunetacoac; elizacoac laguntzeagatic bost urtetacoac, eta seicoac arguia eramanez lagunduta; eta joan ecin danac Aita gure bat esateagatic eun egunetacoac; Sacramentu guciz santuari belaunicatzeagatic berreun egunetacoac; gurutzeari muñeguiteagatic urte bete eta berroguery egunetacoac; *Ego volo celebrare* abiatzen dan oracioa meza emateraco esaten duten apaizay berrogueta amar egunetacoac; erligiosoen habituari muñeguiten dionari bost urtetacoac. Badira Aita Vivian icusi litezquean beste asco (1). Bacarric oarteraci nay det, ecen gauz on oetaco

(1) Append. Indulg in calce trat § ult icusi beza gogo duanez, Apaiz D Vicente Solano 1852 garren urtean atera, eta Leridan moldi-quadatu duan, indulgencien gafecco liburua.

cernay eguiteracoan saya ditecela guciac contricioz-
co acto bat eguitera, onequin obeto prestatzeco in-
dulgenciac irabaztera.

Uzten det debocio gueyago emen ipintzea, nola
diran, zazpi gozoena, amabi pribilegioena, eta one-
laco besteac, ceren liburu ascotan topatzen diran
azalduac, eta azquentzen det lan au san Bernardo-
ren itz gozo eta esaera ederraquin, esanaz (1): !O
andre gucien bedeicatuena; zu cera guizarrazaren
honra eta gloria eta gure erriaren osasuna. Zure
merecimentuac ez dute mugaric, eta creatura gu-
cien gañean daucazun escua oso eta guciracoa da.
Cera Jaincoaren Ama munduco Ebecoandrea, eta
Ceruco Erreguina. Cera gracia guciac zabaltzen ditu-
zuna, eta Eliza santaren apaindura. Cera justuen is-
pillu bicia, santuen atseguin-contentua, eta gure
salbacioaren sustraya. Cera ceruco atea, paraisoco
poz atseguina, eta Jaincoaren gloria.

Barreatu ditugu zure anditasunac. Escatzen dizu-
gu, ó Ama amorezcoa, gure utsunea, barea iguzula gu-
re ausardia, ar ditzazula ontzat gure serbitzúac eta bede-
ica ditzatzula gure nequéac, isuriac gucien biotzetan
zure amore guciz gozoa, zure Seme guciz santua eta zu
lurrean amatu eta honratu ondoen cernan beticoera
gucian amatu eta bedeica zaitzagun.

Eta, iracurle maite, eta gure Ama gozoa añ maite
dezun, ene anay edo arreba, onequin uzten zaitut,
erregutuaz, jarray dezazula bera biotz alayaz honrat-

(1) Serm. 61.

zen, serbitzen eta amatzen, besteac ere onela eguin dezaten al guciaz sayatuaz, eta onequin, egon zaito seguru, baldiñ onela irauten badezu eriotzeraño, cierto salbataco cerala. Ni emen azquena ematera noa liburu oni, ez Mariaren alabazan esanquizun gueyago eztagoalaco, czpada zu gueyago ez necatzoarren. Orañdaño esana dijoan apurra guciz aseoda Ama guciz gozoaganaco jayeran gordeac danden ondasun andia y ederetsitzera zu jartzeco, nere onen ordañ-sariz, eguin oy duan becela, etzaituan utzico gorde ta lagundugabe. Estima zazu bada liburu onen eguitean Mariaren gucizeo maitatzalle izanaz, zu santu eguiteco iduqui dedan zale ta descoa. Eta baldiñ emendie ateratzen badezu cere animaren on gueyagoraco probechuren bat, erregutzen bizut, caridadez, esca deguiozula Ama maiteari dirafa niri ere nie zugatic escatzen diodan mesedea, eta da, egunen batean cernan alear icustea, bere oñ guciz santuetan auzpeztuta, gañeraca bere seme-alaba guciquin batean.

Eta azquenean zugana itzuliric, nere Jaincoaren Ama, eta nere Ama, humillasun guciaz escatzen ditzut, ar ditzatzula ontzat lan labur au, eta bera eguitera muguitu nauan descoa, au da, guciac zu alabatzen eta guciz maitatzen icustecoa. Ondo daquizu ceñ zaletua nagoan zure glorien liburuchon onen azquenera iristeco. Orañ pozic hilco naiz au lurrean utzita, zu goratuaz jarray dezadan zure bidez Jaincoarequin ongui jarri nitzan egunetic al guciaz nere personaz eguitera sayatu naizan becela. Escatzen di-

zut, Virgíña manchagabea, zu maite zaituzten gu-
ciaegatic, eta biciroago liburucho au iracurten dū-
tenagatic, eta guciz bereciro nigatic zuri escatzeaz
caridade eguiten duten guciaegatic, Eman guiezu
onean irauleco doaya, eguin itzatzu guciac on eta
santu, eta guero eraman itzatzu secula gucietan ce-
ruan zu bedecatzerá. Niri dagoquidanez, eguia da
pecatari erruquicalquizon bat naizala, baña, glori
anditzat daucat zu amatzea, eta zugandic mesede
andiac uste ditut, eta gueroenean zure amorean i-
ciota hiltzeareo guciz señalatua. Nere eriotzeco estu-
ra larrietan demonioac nere pecatuac aurrean ipiñi
deguizquidanean, Jesusen pasio guciz santuac eta
zure bitartecotasun indartsuac alaitu eta indartuco
naualaco uste seguruan nago, bicitza desdichatu o-
netatic Jaunaren gracion irten, eta ceruan bera se-
cula gucien seculetan icustera eta zuri, ene Ama
guciz gozoa, esquer eta bendicioac ematera triun-
falari igotzeco. Amen.

BIGARREN PARTEAREN AZQUENA.



ARQUIBIDEA.



ORRIAN.

*Gure Ama maite mailatsuren fest-egun
andienen gañean itzaldia.*

I. ^o ITZALDIA— <i>Bere Sortze edo Concepcio guciz garbiaren gañean</i>	3
II. ^{en} ITZALDIA— <i>Mariaren jayotza miragarri- aren gañean.</i>	25
III. ^{en} ITZALDIA— <i>Mariac bere buruaz templo- an eguin zuan ofrenda.</i>	42
IV. ^{en} ITZALDIA— <i>Virgiña Mariaren berri ónen gañean</i>	56
V. ^{en} ITZALDIA— <i>Mariaren icustaldia.</i>	72
VI. ^{en} ITZALDIA— <i>Eliz-sartzea.</i>	85
VII. ^{en} ITZALDIA— <i>Maria Virgiñaren doloreaz Zazpi doloreuc banaca azaltuaz itzaldia.</i>	99
I. ^o DOLOREA— <i>Simeon-en profecia.</i>	115
II. ^{en} DOLOREA— <i>Egiptoraco iguesia.</i>	id.
III. ^{en} DOLOREA— <i>Mutilcho galdua.</i>	121
IV. ^{en} DOLOREA— <i>Samintasun edo amarguraco calea</i>	126
V. ^{en} DOLOREA— <i>Jesusen eriotza</i>	133
VI. ^{en} DOLOREA— <i>Lantzada eta gurutzeticaco jachiera</i>	138
VII. ^{en} ETA AZQUENECO DOLOREA— <i>Jaunaren o- biratzea eta Virgiñaren bacardade edo So- ledadea</i>	145
	152

VIII. en ITZALDIA—	Virgñaren ceruraco jasoera	158
IX. en ITZALDIA—	eta Maria guciz santaren Asuncio edo ceruelaco jasoera gloriaz be- tearen bigarrena	177
MARIA	guciz santaren bertuteaz	191
I. go §.ª	Mariaren humiltasuna	195
II. en §.ª	Jaincoarequico Mariaren amoreaz.	198
III. en §.ª	Ureñacganaco Mariaren caridadeaz	205
IV. en §.ª	Maria guciz santaren fedeaz	206
V. en §.ª	Maria Virgñaren esperanzaz.	209
VI. en §.ª	Mariaren garbitasunaz.	212
VII. en §.ª	Mariaren ez-izan eta pobrezuren gañean.	217
VIII. §.ª	Mariaren obedienciaz	219
IX. en §.ª	Mariaren eraman edo pacienciaz.	225
X. en §.ª	Mariaren oracioaz.	226
OBSEQUIO EDO ATSEGUINGARRIAC		229
I. go OBSEQUIO—	edo Mariaren gogoco gauzac	251
II. en OBSEQUIOA—	Be leratzi-urrenac	255
III. en OBSEQUIOA—	Errosarioa eta oficio parvo edo chiquia.	259
IV. en OBSEQUIOA—	Baraua	241
V. en OBSEQUIOA—	Bere imagiña sagraduay agur onac equitea	245
VI. en OBSEQUIOA—	Escapularioa	246
VII. en OBSEQUIOA—	Virgñna guciz santaren Co- fradiac.	248
VIII. en OBSEQUIOA—	Limosna ematea.	254
IX. en OBSEQUIOA—	Mariagana maiz bidequitea.	255
X. en ETA AZQUENECO OBSEQUIOA—	Mariaren go- goco cembait gauza.	257

